

IKER 14
Euskal gramatika eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.

IKER 15
Euskal atsotitzak eta neurtitzak. Arnaud Oihenart, Patxi Altuna eta J.A. Mujikak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.

IKER 16
La España Metafísica. Prudencio Garcia. Euskaltzaindia, Bilbo, 2004.

IKER 17
Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2005.

IKER 18
Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri. Inés Pagola Hernández. Euskaltzaindia, Bilbo, 2005.

IKER 19
Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra: Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Azkue eta Urkixoren omenez. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.

IKER 20
Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan. Amelia Hernández Matak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2007.

IKER 21
Jean Haritschelhar-i omenaldia / Homenaje a Jean Haritschelhar / Hommage à Jean Haritschelhar. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.

IKER 22
Intelektuala Nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra. Jurgi Kintana Goirienak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.

IKER 23
Juan Mari Lekuona-ri omenaldia / Homenaje a Juan Mari Lekuona / Hommage à Juan Mari Lekuona. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2009.

IKER 24
Agirre Asteasuakoaren Eracusalduak. Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan. Arantza Ozaeta Elorza. Euskaltzaindia, Bilbo, 2010.

IKER 25
Elgoibarko Ahozko Euskara. Jesus Mari Makazaga Eizagirre. Euskaltzaindia, Bilbo, 2010.

IKER 26
Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina. A. Sagarna; J. Lakarra eta P. Salaberri. Euskaltzaindia, Bilbo, 2011.

IKER 27
Onomastique du Nord du Pays Basque (XI-XV^e siècles). Eugène Goyheneche. Euskaltzaindia, Bilbo, 2012.

IKER 28
Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan. Aiora Jaka Irizar. Euskaltzaindia, Bilbo, 2012.

ISBN 978-84-95438-86-7



9 788495 438867

20 €

iker
28



ITZULPENARI BURUZKO GOGOETA
ETA ITZULPEN-PRAKTIKA
JOSEBA SARRIONANDIAREN LANETAN

ITZULPENARI BURUZKO GOGOETA
ETA ITZULPEN-PRAKTIKA
JOSEBA SARRIONANDIAREN LANETAN

ITZULPENARI BURUZKO GOGOETA
ETA ITZULPEN-PRAKTIKA
JOSEBA SARRIONANDIAREN LANETAN



ITZULPENARI BURUZKO GOGOETA
ETA ITZULPEN-PRAKTIKA
JOSEBA SARRIONANDIAREN LANETAN

ITZULPENARI BURUZKO GOGOETA
ETA ITZULPEN-PRAKTIKA
JOSEBA SARRIONANDIAREN LANETAN

IKER Bilduma / Colección IKER

IKER 1
Euskalarien nazioarteko jardunaldiak / Baskologist international meetings / Encuentros internacionales de vascólogos / Recontres internationales de bascologues. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1981.

IKER 2
Piarres Lafitte-ri omenaldia / Homenaje a Pierre Lafitte / Hommage à Pierre Lafitte. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.

IKER 3
Erizkizundi irukoitza / Triple cuestionario / Triple questionnaire (euskara 1925). Ana M^a Echaide Itartek paratua, 2 t. Euskaltzaindia, Bilbo, 1984.

IKER 4
Resurrección Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa / Correspondencia entre R.M. de Azkue y P. Broussain / Correspondance entre R.M. de Azkue et P. Broussain. (1897-1920). Piarres Charrittonek paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1986.

IKER 5
Euskararen batasuna / La unificación de la lengua vasca / L'unification de la langue basque. Koldo Zuazok paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1988.

IKER 6
Luis Villasanteri omenaldia / Homenaje a Luis Villasante / Hommage à Luis Villasante. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1992.

IKER 7
Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak / Actas del Congreso Internacional de Dialectología / Actes du Congrès International de Dialectologie / Proceedings of International Congress on Dialectology. G. Aurrekoetxea eta X. Videgainek prestatua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1992.

IKER 8
Oihenarten laugarren mendeurrena / Cuarto centenario de Oihenart / Quatrième centenaire d'Oyhènant. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1994.

IKER 9
Euskararen tratamenduak: erabilera / Uso de los tratamientos alocutivos en euskara / Emploi des traitements allocutives en basque. Jabier Alberdi Larizgoitiak prestatua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1996.

IKER 10
Federiko Krutwig-i omenaldia / Homenaje a Federico Krutwig / Hommage à Federico Krutwig. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1997.

IKER 11
Vasconiana. Jean Haritschelhar Dualde eta Piarres Charritton-ek paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1999.

IKER 12
Jose Ignacio Arana: Egunaria. Patxi Altunak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2000.

IKER 13
Euskalkia eta Hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera Euskal Diglosia Irazian / Dialecto y educación. De lo conocido a lo desconocido dentro del entramado diglósico del euskara / Dialecte et éducation. Du connu vers l'inconnu dans le tramage dysglosique de l'euskara (langue basque) / Dialect and education. From the known to the unknown inside the diglossia interwoven connections of euskara (basque language). Juan Luis Goikoetxea Arrietak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.





AIORA JAKA IRIZAR

**ITZULPENARI BURUZKO GOGOETA
ETA ITZULPEN-PRAKTIKA
JOSEBA SARRIONANDIAREN LANETAN**

IKER-28

**EUSKALTZAINDIA
2012**

Argitalpen honen fitxa katalogifikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:
www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:
www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:
www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:
www.euskaltzaindia.net/azkue



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
The University of the Basque Country



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

- © Aiora Jaka Irizar
© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.
© Euskal Herriko Unibertsitatea

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema infomatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.
Costa, 12-14 - 48010 Bilbao

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gráficas CEMS, S.L.
San Miguel industriagunea
31132 Villatuerta
Nafarroa / Navarra

ISBN: 978-84-95438-86-7

Lege-gordailua: BI-1297/2012

ATARIKOA (EUSKALTZAINDIA)

Azken urteotan Euskaltzaindiak hainbat elkarte eta erakunderekin sinatu ditu hitzarmenak. Sinadura horietako bakoitza egin denean, beti ideia berbera etorri izan zait burura: “hitzarmenari hezurdura jarri diogu, ea zer mami jartzeko gai garen”. Izan ere, hitzarmen baten parterik errazena sinatzea izaten da, eta hari mamia jartzea, berriz, zailena. Euskaltzaindiaren eta UPV/EHUren arteko azken hitzarmenak behintzat kezka hori uxatu du nire burutik, besteak beste, esku artean dudan liburu honi esker, mamitsua baitatorkit benetan.

Kasualitatez Joseba Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?* irakurtzen ari naizela heldu da niregana Aiora Jakaren *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*. Berehala ohar-tu naiz bi lanek badituztela kidetasunak, eta ez bataren egilea eta bestearen ikergaia bat datozelako soilik, baizik eta sakonagoko ezaugarrietan antza dutelako.

Sarrionandiaren lanarekin harriturik nago. Kontakizun bat espero nuen tokian, ikerketa landu, sakon, aberatsa aurkitu dut. Zenbat lan dagoen obra horren lerro bakoitzaren atzean! Benetako ikerlana da hori.

Aiora Jakaren lanean ere horixe bera aurkitzen dut. Bi biek zilargin-lana egiten dute ideiekin, gaiaren bihurgune guztiak arretaz zizelkatuz. Poztekoa da zinez gure artean horrelako tesi bat egiteko gai diren ikertzaile gazteak baditugula ikusteak.

Lan honek interes akademikoaz gain badu interes praktikoa ere, gure artean egunero itzulpena egiten dihardutenek aurkituko dituztelako orrialde hauetan beren lanak hobetzeko ideiak. Psikologia sozialaren sortzailatzat har-tzen den Kurt Lewin-ek zioen bezala “ez dago ezer praktikoagorik teoria on

V

ATARIKOA (EUSKALTZAINDIA)

bat baino”, eta horixe aurkitzen dugu tesi honetan, zimendu teoriko sendoak dituen ikerlan bat.

Esan dezadan bukatzeko euskara txukun, zainduz idatzia dagoela testua, eta hori ere eskertzekoa eta goraiatzekoa dela.

ANDONI SAGARNA IZAGIRRE
Euskaltzaindiaren Iker Sailburua

ATARIKOA (UPV/EHU)

Topikoa da esatea atsegin handiz aurkezten dela liburu bat. Ez dakit zelan adieraz nezakeen oraingoan topikoa baino gehiago dela, eta pozez gainezka idazten dudala atariko hau.

Euskal Herriko Unibertsitateko euskara eta eleaniztasuneko errektoreorde gisa sinatuko dut, baina alde askotatik datorrit poza. Lehenengo-lehenengo, UPV/EHUko Letren Fakultatean irakasle naizen aldetik, fakultateko Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasgeletan ezagutu nuen ikasle baten lana baita hemen aurkeztuko duguna. Irakasleak norberak baino lan hobeak egiten dituela ikusteak baino zein poz handiagorik irakaslearentzat!

Bigarren, Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak UPV/EHU ezartzearen egindako lanak eta izandako buruhaustekak ez ditugulako ahaztu ere badatorkigu poza. Joseba Lakarra dekanorearen babes eta laguntzarekin, hamaika lan egindakoak gara, dekanorde gisa, 1998tik aurrera, 2000-2001 ikasturtean Itzulpengintza eta Interpretazioko lehenengo promozioko ikasleak matrikulatu ahal izateko eta itzulpengintzako unibertsitate-ikasketak Euskal Herrian behar bezalako kalitatearekin eskaini ahal izateko. Lehenengo ikasle horien artean zegoen Aiora Jaka, eta pentsatu gura dut ez genuela dena txarto-txarto egin, lehenengo promozio hartako ikasle barek, hamar urteren buruan, itzulpen-ikasketetako doktore-tesia defendatu ahal izan badu gure unibertsitatean.

Euskara eta eleaniztasuneko errektoreordearena ere ez da poz txikia, tesi hau euskaraz idatzi eta defendatu baita, ikasketa-egonaldiak Ingalaterran, Quebecen eta Alemanian egin eta tesiaren zati luzeak frantsesez eta ingelesez defendatu ondoren, nazioarteko unibertsitateetako irakasleen aurrean. Euskal Herriko Unibertsitatean ari gara gauzatzen, duela 75 urte, 1936an, Euzko Irakastola Nagusian amets egin zutena: unibertsitate ikasketak eta ikerketak euskaraz egiten ditugu, nazioarteko komunitate zientifikoari bizkarra eman gabe.

ATARIKOA (UPV/EHU)

Azkenik, beste ororen gainera, irakurzale eta literaturzalearen poza, Euskaltzaindia eta UPV/EHUren arteko hitzarmenari esker, lehen baino askoz hobeto ezagutu ahal izango dugulako Joseba Sarrionandiaren lana.

GIDOR BILBAO
UPV/EHUko euskara eta eleaniztasuneko errektoreordea

ESKER ONA

2011ko azaroaren 4an defendatu nuen, UPV/EHUko Letren Fakultatean, liburu honen izen bereko doktore-tesia, Gidor Bilbao irakaslearen zuzendaritzapean idatzia. Funtsean tesiaren testua da hemen argitaratzen duguna, epaimahaikideen oharrez eta ekarpenez hobetua.

Hurrenkera alfabetikoan, Idurre Alonso (Mondragon Unibertsitatea), Aurelia Arkotxa (Université Michel de Montaigne - Bordeaux-3), Amelia Barquín (Mondragon Unibertsitatea), Mari Jose Olaziregi (UPV/EHU) eta Ibon Uribarri (UPV/EHU) izan ziren epaimahaian tesiaren defentsa-egunean. Bihoakie denei zor zaien esker ona.

Eskerrik asko, halaber, Euskal Herritik kanpo eman dudan denboran nire ikerketan lagundu didaten pertsona guztiei, bereziki Montrealeko Concordia unibertsitateko Sherry Simon eta Pier-Pascale Boulanger irakasleei, itzulpen-teoriaren eta Quebecoko itzulpengintzaren eremuan murgiltzen laguntzeagatik; eta Konstantzako unibertsitateko Georg Kaiser irakasleari, Alemaniako egonaldian eskainitako laguntza eta informazioagatik.

Helena Buffery Corkeko unibertsitateko irakasleari ere nire esker ona helarazi beharrean nago, Birminghamen nintzela haren zuzendaritzapean egin baintuen ikerketa honen aurrekari izango ziren lehen urratsak.

Mila esker Yannick Bédardi, tesia frantseseratzen laguntzeagatik, bestea beste.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari ere eskerak eman nahi nizkioke, doktoretza aurreko ikertzaileak prestatzeko beka eman baitit 2008ko urtarrilaz geroztik, eta laguntza horri esker egin ahal izan baitut tesi hau.

Azkenik, Euskaltzaindiari eta Euskal Herriko Unibertsitateari, nire lana *iker* bilduma prestigiotsuan argitaratzeko aukera emateagatik.



Aitari.
Eta amari.



AURKIBIDEA

SARRERA: GALDERAK ERANTZUN, ERANTZUNAK GALDERA	1
1. KAPITULUA: SARRIONANDIAREN ITZULPENAK AZTERTZEKO TEORIA EGOKI BATEN BILA	9
1.1. Itzulpengintzaren diskurtso enpirikoa	12
1.2. Itzulpengintzaren diskurtso modernoa	18
1.2.1. Episteme modernoa: arrazionalismoa eta positibismoa	20
1.2.2. Itzulpenaren epistemologia modernoa	22
1.2.2.1. Itzulpena, bigarren mailako jarduera	22
1.2.2.2. Itzulpenaren funtzio instrumentalista	23
1.2.2.3. Itzulpena, bi hizkuntzaren arteko “translazioa”	24
1.2.2.4. Zentzu finko, aldaezin, transzendentala itzultzen	24
1.2.2.5. Itzulpenaren auzi dualista: elementu semantikoak <i>versus</i> formalak	25
1.2.2.6. Itzulpen gardena, itzultzaile ikusezina	26
1.2.3. Itzulpenaren teoria modernoak	27
1.2.3.1. Estatu Batuetako “translation workshop” edo itzulpen-lantegia	27
1.2.3.2. Itzulpenaren “zientzia”	28
1.2.3.3. Itzulpenaren teoria funtzionalistak	35
1.2.4. Itzulpengintzaren diskurtso modernoa laburtuz	37
1.3. Itzulpengintzaren diskurtso postmodernoa	39
1.3.1. Episteme postmodera	39
1.3.1.1. Postmodernismo motak	43
1.3.1.2. Postmodernismoen ildo nagusiak	46
1.3.1.2.1. Pluraltasuna	47
1.3.1.2.2. Mugarik eza	48

1.3.1.2.3.	Errealitatea irudikatzen ezintasuna	49
1.3.1.2.4.	Kulturaren dekanonizazioa	50
1.3.1.2.5.	Zalantza, ziurgabetasuna	51
1.3.2.	Postmodernismoa eta itzulpengintza	52
1.3.2.1.	Itzulpenaren epistemologia postmodernoa	52
1.3.2.1.1.	Itzulpena, lehen mailako jardura	52
1.3.2.1.2.	Itzulpenaren funtzio sortzailea	53
1.3.2.1.3.	Itzulpena “transformazio”, “berridazketa” edo “errebisio” gisa	54
1.3.2.1.4.	Zentzu ireki, aldakor, plurala sortzen	56
1.3.2.1.5.	Elementu semantiko eta formalen arteko bereizketa eza	57
1.3.2.1.6.	Itzulpen ausarta, itzultzaile ahalduna	58
1.3.2.2.	Itzulpenaren teoria postmodernoa	59
1.3.2.2.1.	“Descriptive Translation Studies”	60
1.3.2.2.2.	“Cultural Studies”, “Power Turn”, “Gen- der Studies”	69
1.3.2.2.3.	Dekonstrukzioa	75
1.3.2.2.4.	Teoria postkolonialak	85
1.3.2.2.5.	Teoria hermeneutikoak	92
1.3.2.2.6.	Itzulpenaren poetikak	97
1.3.3.	Itzulpengintzaren diskurtso postmodernoa laburtuz	102
2.	KAPITULUA: SARRIONANDIA BAINO LEHENAGOKO EUSKAL ITZULTZAILEAK	105
2.1.	Itzulpenari buruzko gogoeta	108
2.1.1.	Joanes Leizarraga	108
2.1.2.	Axular	112
2.1.3.	Joanes Haraneder	113
2.1.4.	Joanes Etxeberri Sarakoa	114
2.1.5.	Manuel Larramendi	115
2.1.6.	Agustin Kardaberaz	116
2.1.7.	Sebastian Mendiburu	117
2.1.8.	Juan Antonio Mogel	117
2.1.9.	Bizenta Mogel	118
2.1.10.	Jean Pierre Duvoisin	119
2.1.11.	Andima Ibinagabeitia	122
2.1.12.	Jokin Zaitegi	127

2.1.13.	Bingen Ametzaga	128
2.1.14.	Salbador Barandiaran	130
2.1.15.	Bedita Larrakoetxea	131
2.1.16.	Txomin Jakakortexarena	132
2.1.17.	Itzulpen-gogoetaren eta itzulpen-praktikaren arteko kontraesanak	133
2.2.	Itzulitako obrak: itzulgaia	135
2.2.1.	XIX. mendea	137
2.2.2.	XX. mendea	141
2.2.3.	Aldizkariak	145
2.3.	Hogeigarren mendeko lau itzultzaile handi	146
2.3.1.	Nikolas Ormaetxea “Orixe”	146
2.3.1.1.	Euskaldun bipilak eta mancharat bizkorrak izan zuten burrukaldi lazgarriaren ondarra	147
2.3.1.2.	Tormes’ko itsu-mutilla	149
2.3.1.3.	Mireio	150
2.3.1.4.	Gizonaren eskubidegai guzietaz aitorkizuna	154
2.3.1.5.	Urte guziko meza-bezperak	155
2.3.1.6.	Agustín Gurenaren Aitorkizunak	158
2.3.1.7.	Salmutegia	160
2.3.1.8.	Orixeren beste hainbat itzulpen	161
2.3.1.9.	Orixeren itzulpengintzaz hainbat ondorio	163
2.3.2.	Santi Onaindia	169
2.3.2.1.	Santi Onaindiak euskaratutako autoreak	171
2.3.2.1.1.	Katoliko klasikoak	171
2.3.2.1.2.	Literatura unibertsaleko klasikoak	172
2.3.2.1.3.	“Liburu garrantzitsu guztiak”	175
2.3.2.2.	Itzulpengintzaren eta literaturaren ikuskera Santi Onaindiarengan	177
2.3.3.	Jon Mirande	183
2.3.3.1.	Mirandek euskaratzeko hautatutako idazleak	183
2.3.3.2.	Itzulpenaren eragina Miranderen sorkuntzazko lanetan	188
2.3.3.2.1.	Friedrich Nietzsche	189
2.3.3.2.2.	Charles Baudelaire	191
2.3.3.2.3.	Edgar Allan Poe	192
2.3.3.3.	Itzulpenaren ikuspegi postmodernoa	195
2.3.3.4.	Hainbat ondorio Miranderen itzulpenen inguruan	197

2.3.4.	Gabriel Aresti	198
2.3.4.1.	Arestik euskaratutako autoreak	199
2.3.4.2.	Arestiren itzultzeko modua eta jolas postmodernoak	205
2.3.4.3.	Arestiren itzulpengintzari buruzko gogoeta	211
3.	KAPITULUA: ITZULPENARI BURUZKO GOGOETA ETA ITZULPEN-PRAKTIKA JOSEBA SARRIONANDIAREN LANETAN	215
3.1.	Itzulpenari buruzko gogoeta Sarrionandiaren lanetan	217
3.1.1.	“Itzulpena eta traizioaren praktika” (1978)	219
3.1.2.	“Giovanni Boccaccio eta Gabriel Aresti Dekamerone tipi batean” (1980)	227
3.1.3.	<i>Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak</i> , “Hitzaurre” (1985)	227
3.1.4.	<i>Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan</i> , “Joseba Sarrionandia” (2002)	233
3.1.5.	<i>Moroak gara behelaino artean?</i> , “Literatura txikiak eta munduko literatura” (2010)	237
3.2.	Sarrionandiaren itzulpen-praktika	243
3.2.1.	Itzulpenaren beharra	243
3.2.2.	Sarrionandiak itzultitako egileak eta obrak	247
3.2.2.1.	Mendebaldeko tradizioko literaturetan hautaturikoak	251
3.2.2.2.	Literatura “exotikoak”	252
3.2.2.3.	Herri zapalduen literaturak	253
3.2.2.4.	Europako literatura minorizatuak	254
3.2.2.5.	Espainiar eta latinamerikar literaturak	255
3.2.2.6.	Poema argitaragabeak	256
3.2.2.7.	Sarrionandiaren itzulpenen aniztasuna eta bazterreko-tasuna	256
3.2.3.	Sarrionandiaren itzulpen-estrategiak	258
3.2.3.1.	Apokrifoak	262
3.2.3.2.	Fikziozko itzultzaileak	276
3.2.3.3.	Zubi-hizkuntzak eta zubi-testuak	283
3.2.3.4.	Itzulpenen harrobiak	289
3.2.3.5.	Sorburu-testuen zatitze eta moldatzea	309
3.2.3.6.	Itzulpenaren eragina Sarrionandiaren lanetan	317
3.3.	Sarrionandia: itzultzaile postmodernoak?	333
	ONDORIOAK: DENA DA FUNTSEAN TRANSLAZIOA	343

BIBLIOGRAFIA 353

**ERANSKINA: JOSEBA SARRIONANDIAK ITZULITAKO TESTUEN
FITXAK** 381

1. Lur eremua (1983) 384
2. Hamairu ate (1985) 385
3. Marinela (1985) 396
4. Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak (1985) 397
5. Hezurrezko xirulak (1991) 424
6. Galegoz heldutako poemak (1991) 447
7. Marinel zaharraren balada (1995) 450
8. Manuel Bandeira. Antologia (1999) 451
9. Aldizkarietan argitaratutako itzulpenak 459



SARRERA

**GALDERAK ERANTZUN,
ERANTZUNAK GALDERA**



Joseba Sarrionandia iurretar idazlearen lanak asko irakurri dira euskal irakurle gazte nahiz zaharren artean; horixe frogatzen dute, esate baterako, Joan Mari Torrealdairen azterlanek (1997), Mari Jose Olaziregik gazteen irakurzale-tasunaren inguruan egindako ikerlanek (1998) edo Idurre Alonsoren ikerketek (2010). Oso ugariak dira, halaber, Sarrionandiaren obra ikuspegi literariotik aztertuz idatzitako artikulak eta saiakerak. Garrantzitsuenen artean, Aitzpea Azkorbebeitiarenak (1996, 1997, 1998, 2001a, 2001b, 2003, 2006), Jon Kortazarrenak (2000, 2001, 2003, 2005) eta Iñaki Aldekoarenak (1989, 1999) aipatuko genituzke, edota beste hainbat ikertzailearen saioak (Serrano 2008, Otaegi 2000, Madariaga 1995, Santxo 1990...), Sarrionandiaren inguruko lan monografikoak soilik aipatzearen eta idazle bizkaitarraren argitalpenei buruz egun-kari eta aldizkarietan agertutako kritika ugariak alde batera utzita.

Hala eta guztiz ere, Sarrionandiaren lanek literatura-kritikariengan piztu duten arreta gorabehera, oso urriak dira itzultzaile ere baden idazle maitatu honen itzulpenei buruzko lanak. Sarrionandiaren bibliografia osatzen duten hogeita hamarren bat liburuen artetik, itzulpenak dira laurdena inguru, eta, halere, inork gutxi aztertu du haren itzulpenarekiko zaletasuna. Aipatu ditugun ikerlan batzuetan Sarrionandiaren itzulpenak zeharka aipatzen badira ere, apenas aurkitu dugu itzulpen horiek aztergai hartuta egindako kritika edo saiorik.¹ Lan honek, beraz, hutsune hori nolabait betetzea du helburu: Joseba

¹ “Sarrionandia itzultzaile” (1996) izeneko albistea dugu, ziurrenik, Sarrionandia itzultzaile gisa aztertzen duen artikulua bakarretakoa, Sarrionandiak itzultitako *Marinel zaharraren balada* kaleratzean agertutakoa. Interesgarriak dira Tere Irastortzak argitalpen haren harira esan zituenak, tesi honetan aztertuko dugun Sarrionandiaren itzulpen-praktika ondo baino hobeto laburbiltzen dutenak: “Sarrionandiaren poesia aztertu behar den bezala aztertu behar dira bere

Sarrionandiaren itzulpen-lanak aztertu eta ezagutarazteaz gain, itzulpenak idazle bizkaitarraren obran izandako eragina zenbaterainokoa den erakusten ahaleginduko gara datozen orrialdeetan, baita haren obran itzulpena eta sorkuntza nola uztartzen diren azaltzen ere.

Horretarako, hiru kapitulutan banatuko dugu lana. Lehenengo kapitulua itzulpen-teoriari eskainiko diogu; izan ere, Sarrionandiak itzulpena nola ulertzen duen aztertzeko eta itzulpena ulertzeko modu hori haren itzulpenetan nola gauzatzen den ikusteko, beharrezkoa zaigu esparru teoriko bat garatzea, Sarrionandiaren itzulpen-gogoeta eta itzulpen-praktika modu koherente batean azaltzen lagunduko diguna. Euskal literaturaren alorrean, itzulpenek historian zehar pisu kuantitatibo handia izan duten arren, itzulpenaren inguruko teorizazio-saioak oso bakanak eta azalekoak izan dira orain artean; interes falta horren erakusgarri genuke, hain zuzen ere, Sarrionandiaren itzulpenei eskainitako azterlanen urritasuna. Xabier Mendiguren Bereziarturen *Itzulpengintza. Historia eta teoria* (1992) liburua dugu, ziurrenik, historian zehar itzulpengintzaren inguruan garatzen joan diren teoriak azaltzeko euskaraz egindako saiorik osatuena. Liburu hori argitaratu zenetik, ordea, ia hogeitaz igaro dira, eta azken bi hamarkadotan aurrerapauso handiak izan dira itzulpen-teoriaren alorrean. Teoria berri horiek euskal itzulpengintzan aplikatzeko saioen bat edo beste egin da dagoeneko,² baina oraindik gehiegi landu gabeko eremua da. Hori dela eta, lanaren lehenengo kapituluan xeheki aztertu nahi izan ditugu, batetik, XX. mendearen bukaerara arte Mendebaldeko tradizioan nagusi izan diren itzulpenaren inguruko gogoeta eta ideiak, eta, bestetik eta batez ere, azken bizpahiru hamarkadotan garatu diren itzulpen-teoriak.

Kapitulua hiru ataletan antolatuko dugu. Lehenengo atalean, itzulpengintzaren diskurtso enpirikoa aztertuko dugu: itzulpenaren inguruan idatzi diren lehen saioetatik hasi (Zizeron, San Jeronimo...) eta XIX. mendeko autore

itzulpenak, batzuetan zaila delako jakitea noiz ari den idazten eta noiz itzultzen". "Bere sormen lanak irakurtzean antzematen da zein poetak irakurri dituen. Baina itzultzeko badu estilo berezkoa, bada interpretazio lan bat, ez itzulpen hutsa. Hau da, itzulpenari bere marka jartzen dio" (Irastortza, *apud* Barandiaran 1996).

² Ikusi, esate baterako, Manu Lópezen doktore-tesia (2000), euskarara itzultitako haur eta gazte literatura itzulpen-ikasketa deskribatzaileak eta manipulazioaren eskolako teoriak erabiliz aztertzen duena, eta, horren ildotik, Manu Lópezek berak zuzenduriko tesiak, besteak beste Genaro Gómezena (2004) edo Miren Josune Beldarrainena (2010). Interesgarria da, halaber, Miren Ibarluzeak berriki argitaratutako *Literatur itzulpenaren kritika* (2011), euskal itzulpengintzaren alorrean egindako dibulgazio-kritika polisistemaren teoriaraino oinarrituta ikertzeko saioa. Laster emaitza oparoak eskainiko dituzte Ibon Uribarri irakaslea UPV/EHUko Letren Fakultatean zuzentzen ari den doktore-tesiek ere.

erromantikoek esandakoetaraino (Goethe, Schleiermacher...), itzulpenaren inguruan nolako hausnarketa egin den ikusiko dugu. Ohartuko garenez, itzulpenari buruzko gogoetak oso solteak izan ziren XIX. mendera arte, eta ez zuten teoria edo eskola ongi egituraturik ekarri; itzultzaile bakoitza bere esperientzian oinarritu ohi zen itzulpenari buruzko analisiak egiteko, ikuspegi enpiriko batean, alegia. Batzuek jatorrizkoaren hitza errespetatu beharra aldarrikatzen zuten, eta beste batzuek, aldiz, ezinbestekotzat jotzen zuten itzulpena xede-hizkuntzara egokitzea. Esan bezala, ordea, gutxik egin zuten itzulpenaren inguruko teorizazio egituraturik.

Lehen kapituluaren bigarren atala itzulpengintzaren diskurtso modernoari eskainiko diogu. Ikusiko dugu hizkuntzalaritzaren eta literaturaren inguruko hainbat aditu nola hasi ziren XX. mendearen erdialdean itzulpengintzaren inguruan hausnartzen eta teoria zientifiko eta funtzionalistak garatzen. Atal honetan aztertuko ditugun autore eta teoriak askotarikoak izan arren (Richards, Zdanys, Vinay eta Darbelnet, Jakobson, Nida, Catford, Newmark, Wilss, Koller, Kade, Neuber, Reiss, Vermeer), guztiak ere itzulpenaren epistemologia moderno batean oinarritzen zirela ikusiko dugu, XIX. mendetik Mendebaldean nagusi izan zen pentsamendu arrazionalista eta positibista ernarazi zuten episteme modernoan, hain zuzen. Epistemologia moderno horretan, jatorrizko testuaren berezko zentzua xede-hizkuntzara transmititzean datza itzulpena, eta, transmisio horretan, itzultzaileak originala ahalik eta gutxien ukitzea lehenesten da, jatorrizkoaren zentzua ez dadin gehiegi aldatu. Joseba Sarrionandiari dagokionez, hasieratik susmatu genuen itzulpenaren epistemologia modernoan oinarritzen diren teoria hauek ez direla itzultzaile iurretarraren ideiekin oso ondo uztartzen; izan ere, itzulpenen hitzaurreetan eta oro har literaturaz jardun duen beste hainbat saiotan, behin eta berriz gogorarazi izan du “itzultzea berriro idaztea d[el]a” (Sarrionandia 2002: 334), eta “translazioa [...] halabeharrez kreatiboa dela” (Sarrionandia 1995a). Sarrionandiaren itzulpenak zenbateraino diren “kreatiboak” ikusteko, beraz, hark itzultitako testuak jatorrizko testuekin alderatzeari ekin genion, eta ohar-tu ginen, hain zuzen ere, itzulpen asko dezente urruntzen zirela testu originaletatik. Jatorrizkoan ageri ziren hainbat irudi beste irudi batzuekin ordezkaturik ageri ziren itzulpenetan, eta esaldi asko erabat birformulaturik zeuden. Gainera, zenbait kasutan, konturatu ginen jatorrizko testutik pasarte edo lerro batzuk soilik itzuliz osatuta zeudela itzulpenak, eta, beste batzuetan, testuen izenburuak aldatuta zeudela. Sarrionandiak itzultzaile bezala askatasun handiz jokatzeko zuela iruditu zitzaigun, eta testu bat itzultzean testu hori berridatzi edo birsortu egiten zuela. Horrexegatik, beharrezkotzat jo genuen itzulpena jatorrizkoaren transmisiorako tresna huts gisa ulertzen zuten teoria

modernoak alde batera utzi, eta bestelako teoria batzuk ikertzea, Sarrionandiaren itzulpen-gogoeta eta itzulpen-praktika azaltzeko egokiagoak izango zirenak topatu arte.

Lehenengo kapituluaren hirugarren atalean, beraz, itzulpengintzaren diskurtso postmodernoaz aztertuko dugu. Diskurtso horren oinarrian dagoen episteme postmodernoaz zertan datzan erakutsi ondoren, postmodernismoa itzulpengintzan nola islatzen den ikertuko dugu: itzulpenaren epistemologia postmodernoak zalantzan jartzen ditu itzulpenaren epistemologia modernoaren hainbat kontraesan, eta epistemologia horrek defendatzen zuen itzultzaileotzan, menpeko eta esanekoaren aldean, itzultzailearen esku-hartze ahalmena azpimarratzen du. Itzulpena idazketa bezain jarduera sortzailea dela iradokitzen du, eta itzultzaileak testua manipulatzeko askatasuna ez ezik, erabakiak hartzeko ardura eta erantzukizuna ere badituela aldarrikatzen du. Itzulpenaren teoria postmodernoak aztertuta (itzulpen-ikasketa deskribatzaileak, ikasketa kulturalak, dekonstrukzioa, teoria postkolonialak, teoria hermeneutikoak, itzulpenaren poetikak...), ikusiko dugu itzulpenaren epistemologia postmodernoan jatorrizko testua ez dela berezko zentzu objektiboa duen entitate itxi eta bukatutzat jotzen, milaka interpretaziotara irekita eta etengabe mugimenduan dagoen izatetzat baizik. Teoria modernoek testu baten zentzua objektiboki interpretatzea eta zentzu hori beste hizkuntza batean bere horretan ematea posible zela defendatzen bazuten, teoria postmodernoek aldarrikatuko dute testuek ez dutela berezko zentzurik, eta zentzua irakurleak edota itzultzaileak ematen diela. Teoria modernoek *a priori*zko egiazat jo izan duten “jakintza”, beraz, ez da itzulpenean baizik gauzatuko: teoria postmodernoaren arabera, itzulpenak ez du jatorrizkoan gordetzen den jakintza “transmititzen”; aitzitik, jakintza hori itzulpenean “sortzen” da, irekita dagoen testu bati itzultzaileak ematen dion interpretazioaren arabera.

Itzulpenaren teoria postmodernoak aztertuta eta Sarrionandiak bere itzulpenetan hartu ohi dituen askatasunak kontuan hartuta, bi hipotesi nagusi formulatu genituen. Lehenengo hipotesia zen Sarrionandia itzultzaile postmodernoak dela; batetik, haren itzulpen-gogoeta bat datorrelako itzulpenaren epistemologia postmodernoaz osatzen duten ideiekin, eta, bestetik, haren itzulpen-praktikak ere literatura eta itzulpena ulertzeko modu postmoderno bati erantzuten diolako. Bigarren hipotesia ondokoa zen: Sarrionandia izan dela euskal literaturaren historian itzulpena ikuspuntu postmoderno batetik gauzatu duen lehen itzultzailea.

Bigarren hipotesi hori frogatzeko, Sarrionandia baino lehenagoko euskal itzultzaileek itzulpenaren inguruan egindako gogoetak aztertuko ditugu lana-

ren bigarren kapituluan. Euskal itzulpenaren historia xehe-xehe azalduko ez badugu ere, garrantzitsua iruditu zaigu gai honi kapitulu oso bat eskaintzea. Izan ere, Euskal Herrian, itzulpenaren teorizazioarekin gertatzen den bezala, itzulpenaren historiaren azterketak ere urriak izan dira orain arte. Gai honetan ere, Xabier Mendiguren Bereziartu dukegu euskal itzulpenaren historia aztertzeko lehen ahalegin sendoa egin duen ikertzailea, *Euskal itzulpenaren historia laburra* (1995) argitaratuta. Lan horretaz gain egin diren azterketen urritasuna dela eta, ordea, ez zaigu alferrikakoa iruditu euskal itzultzaileen hausnarketak, labor bada ere, orrialde hauetan azalaraztea. Hala, lehen euskal itzulpena egin zuen Joanes Leizarragarengandik hasi eta XX. mendeko itzultzaile garrantzitsuenenganaino (Andima Ibinagabeitia, Jokin Zaitegi, Nikolas Ormaetxea “Orixe”, Santi Onaindia...), itzulpenen hitzaurreetan esandakoak bildu ditugu, eta euskal itzultzaileek itzulpena nola ulertzen zuten aztertuko dugu kapitulu honetan. Ikusiko dugunez, Euskal Herrian ez da itzulpenaren inguruko diskurtso edo teorizazio egituraturik garatu, eta itzultzaileen hausnarketak nork bere esperientzian izandako arazoak xehatzera mugatu dira. Hala eta guztiz ere, euskal itzultzaileen hitzaurreetan behin eta berriz errepikatzen diren hainbat ideia (jatorrizkoarekiko fideltasuna, itzultzailearen otzantasun eta txikitetasuna originalaren handitasunaren aurrean...) episteme modernoak sus-tatutako pentsamolde baten ondorio direla ikusiko dugu, nahiz eta askotan teoriarik defendatutakoak praktikan ez gauzatu. Itzulpena modu postmoderno batean ulertu eta landu zuen lehen itzultzailea Sarrionandia izan zelako hipotesian oinarritu bagara ere, Sarrionandiaren aitzindari izan ziren bi euskal autoreregan itzulpenaren epistemologia postmodernoaren hainbat zantzu aurkitu uste izan ditugu, eta bi autore horien lana aztertu nahi izan dugu Sarrionandiaren itzulpen-gogoeta eta itzulpen-praktika aztertzeari heldu aurretik: Jon Mirandek eta Gabriel Arestik, Sarrionandiaren poesiarik eragin nabarmena izateaz gain, itzulpena lantzeko modu berritzaile bat aurreratu zuten, Sarrionandiak ondoren era koherenteagoan gorpuztuko zuena.

Bigarren kapitulua bi itzultzaile horiekin itxi ondoren, hirugarren kapituluan bete-betean sartuko gara Joseba Sarrionandiaren itzulpengintzan. Lehenik eta behin, Sarrionandiak itzulpenaren inguruan egiten dituen gogoetak bilduko ditugu: itzulpenen hitzaurreetan, *Pott* aldizkariaren orrialdeetan, literaturari buruzko saiakeretan nahiz han-hemenka emandako elkarrizketetan esan dituenak aztertuz, Sarrionandiaren itzulpenari buruzko gogoeta itzulpenaren teoria postmodernoekin uztargarria ote den ikusiko dugu. Bigarrenik, gogoeta hori praktikan nola gauzatzen den aztertuko dugu. Sarrionandiak eta Pott bandako beste idazleek itzulpenari eman zioten garrantziaz arituko gara lehenik, eta ikusiko dugu nola aldarrikatu zuten itzulpenaren beharra ordura

arteko euskal literatura agorraren irtenbide bezala. Gero, Sarrionandiak euskaratutako autore eta obretan jarriko dugu arreta, itzultzeko hautatutako lanak itzulpenaren eta literaturaren inguruko ikuspegi jakin baten erakusgarri direlakoan baikaude. Azkenik, Sarrionandiak erabili ohi dituen itzulpen-estrategiak jorratuko ditugu, hala nola apokrifiko edo sasi-itzulpenak asmatzea, fikziozko itzultzaileak aurkeztea, zubi-hizkuntzak erabiltzea, sorburu-testu baten inguruan bariazio eta imitazioak sortzea, jatorrizkorik gabeko itzulpenak aurkeztea eta abar. Sarrionandiaren itzulpen-gogoeta eta itzulpen-praktika ezagutu ondoren, lan honetako lehen hipotesian planteatutako galderari erantzuten ahaleginduko gara: itzultzaile postmodernoa al dugu Sarrionandia? Itzultzaile bizkaitarrak berak postmodernismoaren inguruan esandakoak laburtuz eta euskal kritikari batzuek Sarrionandiaren literatura deskribatzeko egindako saiakerak aztertuz, galdera horrek sorrarazten dituen korapiloak askatzen eta erantzun koherente bat ematen ahaleginduko gara.

Hauxe da, beraz, gure proposamena. Intuizioz moldatutako hipotesi batzuk azterketa sakon eta egituratuaren bidez frogatzen saiatu gara. Hala eta guztiz ere, ez genuke nahi hemen proposatutakoak Sarrionandiaren itzulpengintza interpretatzeko modu bakar eta itxiztat ulertzerik, episteme postmodernoa eta Sarrionandiak berak defendatzen duten testuaren irekitasun eta mugikor-tasunaren aurka egitea bailitzateke. Lan hau ez da Iurretako itzultzaile handiaren testuei emandako erantzun posible bat baino, eta irekita gelditzen da irakurleen interpretazio edo erantzun berrietara; erantzun baino gehiago, beraz, galdera izan nahi luke: “ez egia ez gezurra, baizik eta aidean utzitako gogoeta” (Sarrionandia 1997: 333).

1. KAPITULUA

**SARRIONANDIAREN ITZULPENAK
AZTERTZEKO TEORIA EGOKI BATEN BILA**



Joseba Sarrionandiaren itzulpenak aztertzen hasi aurretik, garrantzitsua iruditzen zaigu azterketa hori zein ikuspuntutatik egingo dugun azaltzea. Kapitulu honetan, beraz, gaur arte Europako hizkuntza nagusietako itzulpenak aztertzeko garatu eta eredutzat hartu izan diren itzulpen-teoriak aztertuko ditugu, euskararen moduko hizkuntza gutxituetako itzulpen-jarduera eta literatura-itzulpenaren eboluzio historikoa egokien deskribatuko dituen metodologia bilatzeko xedez.

Gizakia testuak itzultzen aspaldi hasi bazen ere, itzulpenari buruzko teorizazio sistematikoa ez zen XX. mendearen bigarren erdira arte agertu (nahiz eta aurreko mendeetan ere izan zen han-hemenka itzulpenari buruzko hausnarketa eta teorizatzeko-saiorik). Ordura arteko itzultzaileek ikuspegi enpiriko batetik egiten zituzten itzulpenen analisiak, nor bere esperientzia hutsean oinarrituz. Hori dela eta, hain zuzen ere, George Steiner-ek itzulpenaren teoria, praktika eta historia sailkatzeko egindako banaketa asimetrikoan, aro berean sartzen dira ia bi mila urtetan zehar beren gogoetak agertu dituzten itzultzaileak, hasi Zizeron eta Horazioengandik (K. a. I. mendea), eta Hölderlin-ek 1804an Sofoklesen itzulpenei egindako iruzkintaraino (Steiner 1975: 236-238). Gainbegiratu arin batean jorratuko ditugu aro horretako itzultzaileen diskurtso enpirikoak kapitulu honen lehen atalean.

Bigarren atalean, berriz, itzulpengintzaren diskurtso modernora egingo dugu jauzi, itzulpenaren teoria linguistikoa agertzen hasi ziren garaira, hain zuzen. Ikusiko dugu nola saiatu ziren hizkuntzalaritzaren arloko zenbait aditu bigarren mundu gerraren ondorengo hamarkadetan itzulpenaren teoria “zientifikoak” garatzen. Teoria horien oinarrian dagoen pentsamendu moderno eta positibista, ordea, ez da bateragarria Sarrionandiak eta Pott bandak itzulpenaren eta literaturaren inguruan zuten filosofiarekin, eta ez

digu balio, oro har, euskara bezalako hizkuntza minorizatueta itzulpenaren historia azaltzeko ere.

Hori dela eta, kapitulu honen hirugarren atalean azken hiru hamarkadetan garatzen joan diren itzulpenaren teoria postmodernoak aztertuko ditugu, Sarrionandiaren itzulpen-jarduera eta itzulpen-filosofia azaltzeko baliagarriagoak suertatuko zaizkigulakoan.

1.1. ITZULPENGINTZAREN DISKURTSO ENPIRIKOA

Itzulpena mendeetan zehar etengabe landu izan den jarduera da. Badirudi K. a. XVIII. mendean Mesopotamiako akadiarrak hasiak zirela jada hainbat testu sumeriarri hitzez hitzeko itzulpena ezartzen. Gerora, sumeriar kulturak beste herri batzuetan ere izan zuen eragina, eta hainbat testu beste hizkuntza batzuetara itzuli ziren. Harrezkeroko zibilizazio gehienetan hizkuntza bat baino gehiago elkarrekin bizi izan zirela dirudi, eta itzulpena, beraz, derrigorrezkoa zela zibilizazio haietako biztanle elebidun edo eleaniztunen arteko komunikaziorako. Mendebaldeko kulturaren oinarri izan diren literatura grekoan eta hebrearrean ere aski nabarmena da Ekialde Hurbileko eta Egiptoko kulturaren eragina, eta uste izatekoa da, beraz, eragin hori itzulpenaren bitartekotzaz gauzatu zela (Mendiguren 1992: 30-32).

Baina itzulpen-jardueraren eta itzulpenari buruzko gogoeten lehen leku-kotasun garbiak erromatarrekin iritsi ziren. Homeroren *Odisea* dugu grekotik latinera egindako lehen literatura-itzulpena (Livio Andronikok K. a. 240. urtean egin). Itzultzaile erromatarren artean ezagunenak, ordea, Horazio eta Zizeron ditugu (K. a. I. mendea). Azken hau jo izan da gerora hainbeste mendetan zehar iraun duen “hitzez hitzeko” eta “zentzuzko” itzulpenen arteko bereizketa egin zuen lehen itzultzailetzat. Itzultzaileak zintzotasuna testuko hitzari (itzulpen literala) ala testuaren pentsamenduari (itzulpen librea) zor ote zion, horixe zen planteatu zuen auzia, eta bigarrenaren aldeko hautu garbia egin zuen, Demostenes eta Eskinesen Hitzaldien itzulpena zela-eta esanda-koetan ikus daitekeenez:

Itzulpen hauek egiterakoan ez naiz itzultzaile gisa ari izan, baizik eta idazle bezala, esaldiak errespetatuz, hitzen edo pentsamenduen irudiekin, baina gure ohitura latinoetara egokituriko terminoak erabiliz. Horregatik, ez dut beharrezkotzat jo hitz bakoitza beste hitz batez itzultzea; baina hala ere ukigabe gorde dut

funtsezko esanahia eta hitz guztien balioa³ (Zizeron, *De optimo genere oratorum*, V [14], *apud* Mendiguren 1992: 33).

Horaziok ere antzeratsu ikusten zuen itzulpena; bere *Ars Poetica* lan entzutetsuko pasarte batean esaten duenez, xede hizkuntzan estetikoki atsegina eta sortzailea zen testu bat eratzea zen bere itzulpenen helburua. Zizeronen eta Horazioren ikuspegi horiek izugarriko eragina izan zuten ondorengo mendeetan. San Jeronimo itzultzaile handiak (K. o. IV. mendea), adibidez, Zizeronen ikuspegia aipatu eta defendatzen du Testamentu Zaharra hebreeratik eta grekotik latinera itzultzean erabilitako estrategia justifikatzeko, Pamachus senatariari bidalitako *De optimo genere interpretandi* gutunean:

Orain onartzen dut, eta are libreki azaltzen dut, grekotik itzultzean ez dudala hitzetik hitza aterata egiten, zentzuari zentzua aterata baizik (Eskritura Sainduetan izan ezik, non hitzen hurrenkerak berak ere misterio bat gordetzen duen)⁴ (San Jeronimo, *Liber de optimo genere interpretandi. Epistula 57*, V, 2, gure itzulpena).

Zizeronen eta San Jeronimoren hausnarketa horiek jotzen dira gaur egun Mendebaldean hainbeste urtez iraun duen itzulpen “literala” (hitzez hitzeko) *versus* “librea” (zentzuzkoa) dikotomiaren oinarritzat. Halere, badirudi beste hainbat zibilizazio aberatsetako itzulpen-tradizioetan ere antzeko banaketa egiten zela. Txinatar itzultzaileak, esate baterako, sutra budistak sanskritotik txinerara itzultzean, hitzez hitzeko itzulpena egiten saiatzen ziren K. o. II. eta III. mendeetan, eta badirudi arrazoietako bat hitz sakratuak bere horretan mantendu nahia zela, itzultzailearen manipulazio oro saihestu nahia, alegia. III. eta VI. mendeen artean, ordea, joera hori aldatu egin zen txinatar itzultzaileen artean, eta itzulpen libreagoak egiten hasi ziren, itzulpena xede-hizkuntzaren egituretara egokituz (Hung & Pollard 1997: 368). Arabiar munduan ere, badirudi itzulpen “literalaren” eta “librearen” arteko bereizketa zela nagusi: VIII. eta XIII. mendeen artean, itzulpen-jarduera oparoa bizi izan zuen Bagdad hiriak, testu zientifiko eta filosofikoak grekotik arabierara itzul-tzen. Jarduera hartan bi itzulpen-metodo desberdintzen ziren: batetik, meto-

³ “Nec converti ut interpres, sed ut orator, sententiis isdem et earum formis tamquam figuris, verbis ad nostram consuetudinem aptis. In quibus non verbum pro verbo necesse habui reddere, sed genus omne verborum vimque servavi”.

⁴ “Ego enim non solum fateor, sed libera voce profiteor, me in interpretatione Graecorum, absque scripturis sanctis, ubi et verborum ordo et misterium est, non verbum e verbo, sed sensum exprimere de sensu”.

do literala, grekozko hitz bakoitza arabierazko hitz batekin ordezkatzean zentzua, eta, bestetik, zentzuzko itzulpenaren metodoa, hitzez hitzeko itzulpenaren akatsak leundu eta xede-testu irakurterraz bat sortzeko beharrezko zen itzulpen mota (Baker 1997: 320-321).

Tradizio mendebaldarrean ere, dikotomia horrek iraun zuen Erdi Aro osoan, eta itzulpen-jarduerak etenik gabe jarraitu zuen. XII. mendean, esaterako, hiru zibilizazio elkartu ziren Iberiar Penintsulan (judua, musulmana eta kristaua), eta hainbat mendetan iraungo zuen itzulpen-jarduera garrantzitsu bat sortu zen; horren adibide dugu Toledoko Don Raimundo artzapezpikuak eratutako Toledoko Itzultzaile Eskola. Monje beneditar harentzat berebiziko garrantzia zuen arabiar filosofoen lanak irakurtzeak Aristoteles ulertu ahal izateko, eta lan haiek latinera itzultzea ezinbestekoa zela iruditzen zitzaion. Hala, hainbat itzultzaile jarri zituen arabiar lanak latineratzen, baita lehenago grekotik eta sirieratik arabierara itzulitako hainbat liburu ere. Garai hartakoak dira, halaber, hizkuntza erromanikoetara egindako lehen itzulpenak. Alfontso Jakintsuaren aginduz, arabierazko lan ugari itzuli ziren ez soilik latinera, baizik eta baita gaztelaniara eta katalanera ere (Mendiguren 1992: 35-38).

Itzulpenak garrantzi berezia hartu zuen berriro Errenazimenduan. Mendebaldeko zibilizazioan, Zizeronekin ezarri eta San Jeronimorekin finkatu zen itzulpen “literalaren” eta “librearen” arteko bereizketak ikaragarriko indarra izaten jarraitzen zuen. Eliza Katolikoa zen lehenaren defendatzaile sutsuena, haren kezka nagusia Bibliaren esanahi “egokia” bere horretan itzultzea baitzen; onartutako interpretaziotik urruntzen zen itzulpen oro heretikotzat jo eta debekatu egiten zuen. Muturreko adibide gisa Étienne Dolet frantziar humanistaren kasua aipa genezake. Platonen elkarrizketak itzultzean *rien du tout* (ezertxo ere ez) esaldia gehitu omen zuen heriotzaren ondorengoaz ziharduen pasarte batean, eta Sorbonako Unibertsitatearen aginduz erre egin zuten itzultzaile humanista. Itzulpen “ez literala”, harrezkero, Eliza Katolikoaren dogmatismoaren aurkako arma gisa erabiltzen hasi ziren hainbat itzultzaile. Adibiderik ezagunena Luterok alemanera egindako Bibliaren itzulpena dugu: San Jeronimok bestelako itzulpenetarako proposatutakoari jarraituz, hitzez hitzeko itzulpena gaitzetsi zuen, eta xede-hizkuntza eta xede-testuaren irakurlea lehenetsi zituen (Munday 2001: 22).

Itzultzeko moduari dagokionez, Luteroren itzulpenak ez zuen aurrerapen edo berrikuntza garrantzitsurik ekarri, San Jeronimok esandakoari jarraitu besterik ez baitzuen egin. Baina Biblia herri xehearen hizkuntzara itzultzeko egin zuen ahaleginak eragin handia izan zuen XVI. mendean Europako beste hizkuntzetara egin ziren Bibliaren itzulpen askotan: William Tyndal-ek gre-

kotik zuzenean ingeleseratu zuen Itun Berria; Genevako kalbindarrek ere Biblia grekotik eta hebreeratik frantsesera itzultzeari ekin zioten; garai honetan egin zen, halaber, Bibliaren txekierazko lehen itzulpena (Mendiguren 1992: 40). Euskal Herrira etorritz, mende honetakoa dugu euskara idatzia baliabide lexiko eta sintaktiko berriz hornitu zuen Joanes Leizarragaren *Testament Berria* (1571).

Ondorengo mendeetan, ugari izan ziren itzulpen-metodo egokiena zein zen zehazten saiatu ziren idazle eta adituak. Ahalegin horiek, ordea, ez zuten fruitu handirik eman XX. mendera arte. Gehienetan, itzultzaile bakoitzak bere esperientziaren arabera definitzen zuen itzultzeko modurik egokiena, eta itzulpenaren leialtasuna eta testuaren itzulgarritasun / itzulezintasuna izan ohi ziren eztabaidaren ardatz. Frantziar tradizioan, esate baterako, dagoeneko aipatu dugun Étienne Dolet genuke itzulpen-teoria sistematiko bat eraikitzeko saiakera egin zuen lehen autore garrantzitsua. *La manière de bien traduire d'une langue en aultre* eskuizkribuan (1540), itzulpen on bat lortzeko kontuan hartu beharreko bost hatsarreak definitu zituen, garrantziaren arabera ordenatuta. Lehenik, itzultzaileak jatorrizko autorearen zentzua ongi baino hobeto ulertu behar du. Bigarrenik, ezin hobeki ezagutu behar ditu sorburu-hizkuntza eta xede-hizkuntza. Hirugarrenik, hitzez hitzeko itzulpena saihestu behar du. Laugarrenik, latinismoak eta forma ezezagunak baztertu behar ditu. Azkenik, itzulpen baldarrak saihesteko, hitzak modu elokuentean josi behar ditu xede-testuan (Dolet 1540: 11-15).

Pierre-Daniel Huet frantziar apezpiku eta hezitzaileak beste modu bateko itzulpena defendatzen du bere *De interpretatione libri duo* (1661) lanean. Lanaren lehen liburukian, “De optimo genere interpretandi” delakoan, itzultzeko modu onenaren inguruan mintzo zaigu, elkarrizketa moduan idatzitako saiakeran. Kintiliano, Zizeron eta antzinateko beste hainbat itzultzaile aipatzen ditu, baita San Jeronimo, Erasmo Rotterdamekoa eta beste zenbait ere, itzulpen motez hitz egiteko eta itzulpen idealaz duen iritzia emateko. Huetek bi itzulpen mota bereizten ditu. Lehen itzulpen motan, itzultzaileak ez du autorea guztiz errespetatzen, ezta haren hitzen zentzua ere, eta bere sorkuntzaz baliatzen da irakurlea hezi nahiz dibertitzeko. Bigarren itzulpen motan, berriz, itzultzaileak ahalik eta zehatzen itzultzen ditu autorearen esanak. Itzulpen fidel hau da Huetek itzulpen idealtzat jotzen duena:

Le meilleur modèle de traduction est celui où le traducteur s'attache très étroitement à la pensée de l'auteur, puis aux mots mêmes si les possibilités offertes par les deux langues le permettent, et enfin où il reproduit le style personnel de l'auteur autant que faire se peut, s'appliquant seulement à le présenter fidèlement,

sans le diminuer par aucune suppression ni l'augmenter d'aucune addition, mais dans son intégrité et le plus ressemblant possible en tous points (Huet 1661: 13, *apud* Bury 1990: 260).

Itzultzaileak, beraz, itzultzen ari den autorearen ahalik eta modurik fidele-nean imitatu behar du, kameleoi batek bezala haren itxura hartuz, eta ez dio inolaz ere bere gogoari itzulpenean esku hartzen utzi behar. Fidelki itzultzeko modurik onena hitzez hitzekoa dela dio Huetek, eta jatorrizko testuaren sintaxia mantendu behar dela itzulpeneko bi hizkuntzek uzten duten heinean, batez ere testu sakratuen kasuan.

Testu profanoen itzultzaileen artean, berriz, bestelako joera bat nagusitu zen XVII. eta XVIII. mendeetan. Georges Mounin hizkuntzalariak *Les Belles Infidèles* (1955) izendatu zuen aro honetan, itzultzaileek nahi besteko askatasuna hartzen zuten itzultzen ari ziren obrak edertzeko ahaleginean. Joera honen ordezkari nagusietako bat, tradizio anglosaxoian, Abraham Cowley genuke; Pindaroren Odak oso modu librean itzuli zituen, berak nahi zuena kenduz nahiz erantsiz.

Joera horrek, alabaina, berehala eragin zuen aurkako erreakzioa, batez ere poeta ingelesez artean. John Dryden-ek, esaterako, gogor kritikatu zuen itzultzeko modu hori, berak “imitazio” gisa izendatu zuena. Ovidioren epistolen itzulpenari egin zion hitzaurrean (1680) hiru itzulpen-kategoria bereizten ditu: “metafrasea” edo hitzez hitzeko nahiz lerroz lerroko itzulpena, “parafrasea” edo zentzuzko itzulpena, eta “imitazioa” edo itzulpen librea, bai hitzak eta bai zentzua libreki moldatzean datzana. Metafrasea eta imitazioa kritikatu ondoren, parafrasearen alde egiten du Drydenek. Itzulpen mota horretan, itzultzaileak zintzoki errespetatzen ditu autorearen esanak, baina autorearen hitzari bere horretan jarraitzea ez da hain garrantzitsua, baldin eta zentzua mantentzen bada: “[...] to give his thought either the same turn, if our tongue will bear it, or, if not, to vary but the dress, not to alter or destroy the substance” (Dryden 1680: 20). Dena den, esan beharra dago geroago egindako Virgilioren Eneidaren itzulpenean berak deskribatzen duen “imitaziotik” gertuago dagoen estrategia defendatzen duela Drydenek: “[...] I may presume to say [...], that, taking all the materials of this divine author, I have endeavoured to make Virgil speak such English as he would himself have spoken, if he had been born in England, and in this present age” (Dryden 1697: 26).

XVIII. mendeko itzultzaileen artean Fraser Tytler dugu tradizio anglosaxoiko teoriaririk garrantzitsuenetakoa. George Campbell-en ideietan oinarrituz, *Essay On The Principles of Translation* (1790) liburuan laburbildu zi-

tuen itzulpengintzaren hiru printzipioak: itzulpenak jatorrizko lanaren ideiak oso-osorik eman behar ditu, jatorrizkoaren estiloa eta moldea mantendu behar ditu eta jatorrizkoaren erosotasun guztia izan behar du.

Hurrengo mendean, Erromantizismoaren etorrerarekin, erabat bestelako ideiak agertu ziren, batez ere Alemanian. XVII. mendean imitaziorako joera eta XVIII.ean jatorrizkoaren espiritua mantentzearen beharra nagusitu baziren, XIX. mendean testuen itzulgarritasun / itzulezintasunaren auzia izan zen itzultzaileen eztabaiden ardatz. Eztabaida haietan izugarrizko eragina izan zuen Friedrich Schleiermacher-ek 1813an idatzitako *Ueber die verschiedenen Methoden des Uebersetzens* saiakerak. Lan horretan bi itzultzaile mota bereizten ditu lehenik: “Dolmetscher” delakoa, testu komertzialak itzultzen dituenena, eta “Uebersetzer” delakoa, testu artistiko eta akademikoen itzultzailea. Bigarrenaren lana askoz ere sortzaileagoa denez, itzultzaile mota horretan oinarritzen du Schleiermacherrek bere itzulpen-teoria. Hitzez-hitzekoa *versus* zentzuzkoa, literala *versus* librea eta antzeko dikotomiak alde batera utzi eta honela deskribatzen ditu itzultzaileak eskura dituen bi metodoak:

Entweder der Uebersetzer läßt den Schriftsteller möglichst in Ruhe, und bewegt den Leser ihm entgegen; oder er läßt den Leser möglichst in Ruhe, und bewegt den Schriftsteller ihm entgegen (Schleiermacher 1963: 47).

Schleiermacherrek lehen aukeraren alde egiten du; alegia, idazlea irakurlearengana gerturatu beharrean, idazlea bakean utzi eta irakurlea harengana mugiaraztea lehenesten du. Horrela itzultitako testu batek arrotz kutsu nabarmena du; izan ere, helburua ez da idazleak xede-hizkuntzan idatzi balu bezala irakurtzen den testu bat sortzea, baizik eta xede-hizkuntzako irakurle batek sorburu-hizkuntzan idatzitako testu bat irakurtzean sentitzen duen inpresio bera eragingo duen testu bat sortzea. Horretarako, itzultzaileak metodo alienatzaile bat erabili behar du, metodo naturalizatzaile baten ordez.

Itzulpena, Schleiermacherrentzat —baita Johann Gottfried von Herder, August Wilhelm von Schlegel, Wilhelm von Humboldt eta garaiko beste hainbat alemaniar itzulpen-teorialarientzat ere—, literatura nazionala atzerriko literaturekin aberasteko modua zen. Zentzu horretan, ezin dira aipatu gabe utzi Johann Wolfgang von Goethe poeta eta idazle handia eta haren “Weltliteratur” edo munduko literaturaren kontzeptua. Behin eta berriro azpimarratzen du Goethek itzulpenaren beharra literatura nazionalak sendotzeko eta literaturaren unibertsaltasuna lortzeko. Munduko literatura, Goetherentzat, ez da iraganeko eta orainaldiko literatura guztien multzo zabala; ezta estatus

unibertsala lortu duten zenbait obraren multzo mugatuagoa ere. Goetheren “Weltliteratur” kontzeptu historiko bat da, literatura desberdinen arteko harreman modernoarekin lotuta dagoena. Literaturen arteko itzulpen orokortuaren aroa da “Weltliteratur”, eta aro horretan hizkuntza guztiek itzulpen-hizkuntza izaten ikasten dute. Goethek itzulpenari buruz egindako gogoetak *West-Oestlicher Diwan* (1819) liburuan agertzen dira ondoen itzulpen-teoria gisa formulaturik. Lan horretan, hiru itzulpen mota edo itzulpen-aro bereizten ditu Goethek. Lehen itzulpen motak gure hizketa modura egokituz ezagutarazten digu lan arrotza. Bigarrena espiritu arrotza bereganatzen saiatzen da, baina betiere norberaren espiritura egokituta. Baina hirugarren itzulpen mota da Goethek bere garaiko aro gisa definitzen duena eta itzulpen mota gorentzat jotzen duena; bertan, itzultzailea jatorrizkoaren berdin-berdina den itzulpena egiten saiatzen da, ez jatorrizkoaren ordezkotza gisa funtziona dezan, baizik eta haren lekua har dezan.

Die erste macht uns in unserm eigenen Sinne mit dem Auslande bekannt [...]. Eine zweyte Epoche folgt hierauf, wo man sich in die Zustände des Auslandes zwar zu versetzen, aber eigentlich nur fremden Sinn sich anzueignen und mit eigenem Sinne wieder darzustellen bemüht ist. [...] so erlebten wir den dritten Zeitraum, welcher der höchste und letzte zu nennen ist, derjenige nämlich, wo man die Uebersetzung dem Original identisch machen möchte, so daß eins nicht anstatt des andern, sondern an der Stelle des andern gelten solle (Goethe 1994: 280-281).

Schleiermacherren eta Goetheren ikuspegiak izugarritzko eragina izan zuten XX. mendeko itzulpenaren arloko zenbait teorialarirengan, besteak beste aurrerago aztertuko ditugun Walter Benjamin eta George Steiner adituengan.

1.2. ITZULPENGINTZAREN DISKURTSO MODERNOA

Kapitulu honetako lehen atalean ikusi ahal izan dugunez, Zizeronengandik XX. mendera arte itzulpen literalaren eta librearen arteko eztabaida antzura mugatu da itzulpenaren teorizazioaren zatirik handiena. Epealdi horretan itzulpenaren inguruko tratatu gutxi batzuk argitaratu ziren arren, itzultzaileek beren itzulpenen hitzaurreetan aurkezten zituzten arrazoi edo justifikazioetan biltzen ziren oro har itzulpenaren inguruko hausnarketa bakarrak, eta, gehienetan, ez zen kontuan hartzen aurreko itzultzaileek esandakoa.

Itzulpenaren teorizaziorako saioak XX. mendearen bigarren erdian hasi ziren ugaritzen. Hain zuzen ere, bigarren mundu gerraren bukaerak mugari garrantzitsua markatzen du itzulpengintza hautemateko moduan. Gerraren aurretik, 1930eko hamarkadan batez ere, teorialariak hasiak ziren hizkuntza-zen, ekoizpen kulturalaren eta manipulazio sozialaren harremanak aztertzen. Ekoizpen testual eta kulturala gizartea kontrolatzeko metodo gisa baliatu zuten bai gobernu faxistek, baita sozialistek ere. Kulturaren ikuspegi horiek orokortu egin ziren bigarren mundu gerran, eta kultura nahiz hizkuntza desberdinen ezagutzak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen: gerran garaile irteteko ezinbestekoa zen besteen kultura, aliatuena nahiz etsaiena, ondo ezagutu eta ulertzea. Era berean, gero eta argiagoa zen botereak kulturaren eraketan duen eragina, eta, alderantziz, kulturak boterea sendotzeko izan dezakeen indarra. Zeinu-sistema linguistiko eta kultural desberdinak ezagutzearen garrantzia ere agerian geratu zen, munduaren alde bateko zein besteko zeinu-sistemetan gordetako informazioa iritsi ahal izateko. Kodeak dezifratzeko teknikak garatzen joan ahala, gero eta nabariagoa zen hizkuntza desberdinek (baita ordura arte ezezagun edo isolatutzat jotzen zirenek ere) nola funtzionatzen zuten jakitearen beharra. Esan gabe doa garapen horietan guztietan berebiziko garrantzia zuela itzulpengintzak, esate baterako hizkuntza-komunitate bakoitzera egokitu behar zen propagandaren eta bestelako tresna kulturalen kasuan (Tymoczko 2007: 25-26).

Gerra garaiko giro hori kontuan hartuta, ez da harritzekoa itzulpengintza-zen diskurtsoan aldaketa nabarmenak gertatu izana 1950eko hamarkadatik aurrera, itzulpenaren praktikan ez ezik, baita diziplinaren kontzeptualizazio eta teorizazioan ere. Garai horretan agertzen dira itzulpengintza-zen lehen teoria linguistikoak, itzulpengintza zientzia gisa definitu eta aztertzeko lehen saiakerak. Halere, bigarren mundu gerrak itzulpengintza ulertzeko modua nabarmen aldatu bazuen ere, esan beharra dago gerra ondoko hamarkada haietan garatu ziren itzulpen-teoria gehienak XVIII. mendez geroztik Mendebaldean nagusi ziren arrazionalismo eta humanismoan sustraitutako epistemologia moderno batean oinarritzen zirela, eta, beraz, metodologian eta sistematikotasunean berritzaileak gertatu baziren ere, ez zutela asmatu itzulpengintza-zen hainbat kontraesan eta arazo konpontzen. Gerra ondoko itzulpen-teoriak deskribatu baino lehen, beraz, itzulpengintza-zen diskurtso modernoaren oinarri den episteme⁵ modernoa aztertuko dugu hurrengo atalean.

⁵ Episteme kontzeptua Michel Foucault-ek definitu zuen moduan erabiliko dugu hemen. Izan ere, Pier-Pascale Boulanger-ek bere doktore-tesian (*Théories postmodernes de la traduction* 2002) erakusten digun bezala, Foucaulten kontzeptua oso baliagarria gertatzen da itzulpenaren

1.2.1. EPISTEME MODERNOA: ARRAZIONALISMOA ETA POSITIBISMOA

Episteme modernoak XVIII. mendeko Argien garaiko arrazionalismoan ditu bere erroak. Garai hartako zenbait pentsalarik, gizakiak ordura arte pentsamolde erlijioso irrazional batean murgilduta egon zirela ikusita, obskurantismo zientifiko hartatik askatu nahi izan zuen gizateria. Zentzu cartesiar batean, arrazoiaren bidez gizakiak emantzipatzea posible zela uste zuten, arrazoitzeko, hausnartzeko eta zuhurtasunez pentsatzeko gai zen gizaki oro zentzu unibertuala ulertzera irits zitekeela eta horren bidez zibilizazio hobe bat lortuko zutela sinesten baitzuten. Ideal emantzipatzaile hartan oinarritzen zen pentsamendu moderno bere proiektu humanistetan arrazionalismoaren logika aplikatu ahal izateko. Arrazionalismoaren eta humanismoaren izenean —gizakiaren erabateko errealizazioa baitzen elite arrazional haren helburu gorenaren— Europako Erdi Aroko erregionalismoa eta herri bakoitzaren berezitasun politiko eta kulturalak deuseztatu egin ziren, norbanako arrazionaleraz osatutako nazio handi eta uniforme bat sortzearen aitzakian. Proiektu moderno hiru printzipio nagusitan oinarritzen zen: unibertsalizazioan, hots, pentsatzeko eta jarduteko moduen uniformizazioan; aurrerapenean, edo etengabe aurrera egi-tearen ideian; eta arrazionalizazioan, dena egiaren bidez azaltzeko eta justifikatzeko aukeran (Boulanger 2002: 13-14).

Episteme modernoaren oinarrian aurkitzen den beste zutabeetako bat Europan XIX. mendean indar handiz nagusitu zen pentsamendu positibista dugu. Positibismoa zientziaren azterketara bideratutako mugimendu filosofikoa da, Auguste Comte filosofoak 1830 eta 1845 artean garatua. Positibismoak zientzien bidezko gizateriaren aurrerapenean eta arrazionaltasun zientifikoaren onuretan sinesten du. Fenomenoak azaltzeko jainko edo kausa misteriozuetara jotzen duten teologiaren eta metafisikaren metodoen hutsal-

teoria modernoak eta postmodernoak bereizteko. Foucaultentzat, jakintzaren eta haren diskurtsoen oinarrian dagoen *a priori* historikoa da epistemea, hau da, garai jakin bateko diskurtsoak ahalbidetzen dituen harreman-sarea: “L’*épistémè*, ce n’est pas une forme de connaissance ou un type de rationalité qui, traversant les sciences les plus diverses, manifesterait l’unité souveraine d’un sujet, d’un esprit ou d’une époque : c’est l’ensemble des relations qu’on peut découvrir, pour une époque donnée, entre les sciences quand on les analyse au niveau des régularités discursives” (Foucault 1969: 250). Foucaultek argi uzten du posible dela episteme desberdinak garai berean batera existitzea eta elkarreraginean izatea. Horregatik, lehen kapitulu honetan aztertuko ditugun itzulpen-teoriak ez ditugu garaiaren arabera sailkatuko, epistemearen arabera baizik; posible baita, esaterako, episteme modernoan oinarritutako itzulpen-teoria bat episteme postmodernoan oinarritutako beste baten garai berean agertzea.

tasuna frogatzea da mugimendu honen helburuetako bat. Filosofia honi ez zaio interesatzen fenomenoek kausa bilatzea; fenomeno horiek definitu eta aurrean ahal izateko legeak ezartzea da bere egitekoa. Pentsamendu positibistak gertaera “positiboak” eta fenomeno behagarriak baizik ez ditu onartzen edozein enuntziaren egitasuna frogatzeko. Datu behagarrietan oinarritzen ez den argumentu metafisiko nahiz subjektibo oro, beraz, automatikoki baztertzen du. Positibismoak jarraitzaile eta adar ugari izan ditu, eta XX. mendera arte luzatzen da bere eragina. Wittgenstein gazteak berak 1921ean postulatatu zuen positibismo berantiarren aldarrikapen biribilenetakotzat jotzen den esaldia, bere *Tractatus logico-philosophicus* delakoan: “Was sich überhaupt sagen läßt, läßt sich klar sagen; und wovon man nicht reden kann, darüber muß man schweigen” (Wittgenstein 1961: 2). Alegia, guztiz esan daitekeena argi esan daiteke, eta esan ezin daitekeena utz dezagun isilik.⁶

Positibismoak hasiera batean filosofia guztiz objektibo, inpartzial eta zientifikoaren itxura izan badezake ere, gaur egungo ikuspegitik begiratuta agerian geratzen da positibismoaren planteamendu partziala, Mendebaldearen inperialismo etnozentrikoan ongi sustraitua. Maria Tymoczko ederki deskribatzen ditu XIX. mendeko europar inperialismoak diziplina akademikoetan zituena boterea eta nagusitasuna:

[...] presuppositions associated with imperialism affected all branches of knowledge. Academic investigations generally excluded [...] approaches to scientific questions developed outside Western contexts. The social sciences reduced “non-Western” cultures to primitive curiosities and “non-Western” individuals to objects, institutionalizing aspects of an imperial or colonizing gaze in the protocols of anthropology and other observational disciplines that focused on peoples from beyond the Western ambit (Tymoczko 2007: 22).

Honela jarraitzen du Tymoczko positibismoaren eta inperialismo mendebaldarraren arteko bat etortzeaz:

These imperialist premises of academic disciplines were in turn interconnected with positivism, for positivism implicitly and uncritically asserts the dominant (and, hence, Western) perspective as the basis of observation, taking one specific cultural viewpoint as the correct or “objective” perspective for assessing

⁶ Hasieran pentsamendu positibistara lerratu bazen ere, geroago bere *Tractatus logico-philosophicus* (1921) delakoan defendatutako ideia asko arbuiatu zituen Wittgensteinek, eta jarrera postpositibista argia adierazi zuen, batez ere bera hil ondoren argitaratutako *Philosophische Untersuchungen* (1953) liburuan.

the truth of statements of fact and for garnering positive, observable data. Thus a local Eurocentric perspective was presumed to be the only possible neutral view of the world (Tymoczko 2007: 22).

Hain zuzen ere, ildo horretatik etorriko dira teoria postmodernoek pentsamendu modernoari egingo dizkioten kritikak. Aurrerago ikusiko dugunez, modernitateko proiektu humanistek proposatutako konponbide “unibertsa- len” totalitarismoa eta Europaren nahiz Estatu Batuen etnozentrismo eta in- perialismo kulturala salatuko dituzte, besteak beste, XX. mendearen bigarren erditik aurrera sortutako zenbait mugimendu postmodernok.

1.2.2. ITZULPENAREN EPISTEMOLOGIA MODERNOA

Atal honetan, episteme modernoaren ideia eta printzipioak itzulpenaren epistemologia modernoan nola islatzen diren aztertuko dugu, 1.2.3. atalean azalduko ditugun itzulpenaren teoria modernoan oinarrian dauden hainbat kontzeptualizazio argitze aldera.

1.2.2.1. Itzulpena, bigarren mailako jarduera

Ikuspegi modernoan, itzulpengintza bigarren mailako diziplina gisa ikus- ten da, hizkuntzalaritzaren edota estilistika konparatuaren azpiatal gisa. Era berean, itzulpena erreproduktio-teknika huts gisa ulertzen da, eta ez du, ino- laz ere, idazketaren garrantzi berbera. Itzulpena simulazio, kopia edo origi- naltasunik gabeko imitazio huts gisa hautemateko joeraren abiapuntua hiz- kuntzaren ikuspegi saussuriarrean bilatu behar da, Ferdinand de Saussure hizkuntzalariak proposatutako teoria linguistikoetan oinarritu baitira itzul- penaren teoria moderno gehienak. Saussureren ikasleek haren ikastaroetan hartutako apunteak bilduz osatutako *Cours de linguistique générale* delakoan biltzen dira hizkuntzalari frantsesaren ideia teorikoak. Bertan aditzera ema- ten denez, hizketa da, idazketari kontrajarrita, hizkuntzalaritzaren benetako objektua, eta idazketaren helburu bakarra hizketaren adierazpide izatea.⁷ Hizketa, Saussureren arabera, naturala da, bizia, purua; hizkuntza zuzenean aurkezten du, eta hizlariaren esanahiaren egiaraino iristea ahalbidetzen du.

⁷ “Langue et écriture sont deux systèmes de signes distincts ; l’unique raison d’être du second est de représenter le premier ; l’objet linguistique n’est pas défini par la combinaison du mot écrit et du mot parlé ; ce dernier constitue à lui seul cet objet” (Saussure 1982: 45).

Idazketa, aldiz, artifiziala da, fikziozkoa, azalekoa, bigarren mailakoa, hizketaren transkribapen hutsa denez; arriskutsua da, hizkuntza eta esanahiak ilundu eta desitxuratu baititzake (Saussure 1982: 46-54).⁸ Bereizketa horren oinarrian, mende luzez indarrean iraun duen hizkuntzaren ikuspegi platonikoa genuke, zeinaren arabera hizketa bizia eta benetakoa den, gizakiaren arimatik eta kontzientziatik jaioa, ideia edo formen mundu abstraktuaren zuzeneko isla. Idazketa, aldiz, hizketa transkribatzeko teknika hutsa da, gorputzak ekoitzia eta, beraz, kontzientziatik kanpokoa. Ikuspegi horretan oinarritu da Mendebaldeko metafisikaren arrazionalismo klasikoa, Descartesek proposatutako bereizketa dualistak indartua: batetik, giza arima edo *res cogitans* genuke, eta, bestetik, kanpoko mundua edo *res extensa*. Horrela, XX. mendera arte iraun du idazketa den bigarren mailako jarduera horrekiko mesfidantzak. Teorizazio horren arabera, itzulpena ere, jadanik bigarren mailakoa eta arriskutsua den idazketaren berridazketa izanik, jatorrizkoaren kopia txar huts besterik ez da.

1.2.2.2. *Itzulpenaren funtzio instrumentalista*

Ikuspegi honen arabera, beraz, itzulpenaren funtzioa erabat instrumentalista da, bi hizkuntzaren edo bi kulturaren arteko komunikazioa ahalbideztzera mugatzen baitu itzulpenaren eginkizuna. Hizkuntza-aniztasunaren “gaitza” arintzeko konponbide humanista gisa ikusten du pentsamendu modernoak itzulpengintza, Babelgo dorrearen eraisketaren ondoren sortutako kaosari aurre egiteko modu gisa. Babelgo mitoaren arabera, dorrearen eraikuntzaren aurretik, gizateria osotasun koherente eta batu batean bilduta zegoen. Baina gizakiak zeruraino iritsiko zen dorre bat eraikitzen hasi zirenean, Jainkoak haien ausarkeria zigortu nahi izan zuen dorrea eraitsiz eta gizakiak hizkuntza desberdinak hitz egitera behartuz. Jainkoak hizkuntza-aniztasun gisa inposatutako gaitz hori arindu ahal izateko, itzulpena ezinbestekoa da.

⁸ “Ce lien [entre l’image graphique des mots et la langue] a beau être superficiel et créer une unité purement factice : il est beaucoup plus facile à saisir que le lien naturel, le seul véritable, celui du son” (Saussure 1982: 46). “D’abord la langue évolue sans cesse, tandis que l’écriture tend à rester immobile. Il s’ensuit que la graphie finit par ne plus correspondre à ce qu’elle doit représenter” (Saussure 1982: 48). “Le résultat évident de tout cela, c’est que l’écriture voile la vue de la langue : elle n’est pas un vêtement, mais un travestissement” (Saussure 1982: 52). “Mais la tyrannie de la lettre va plus loin encore : à force de s’imposer à la masse, elle influe sur la langue et la modifie” (Saussure 1982: 53).

1.2.2.3. *Itzulpena, bi hizkuntzaren arteko “translazioa”*

Pentsamendu moderno mendebalduan, itzulpena, edo “translazioa”, “translatatzearekin” lotu izan da beti, hau da, lan bat, idazle baten irudimen edo talentuak sortutako obra aldagaitz eta ukiezina, hizkuntza batetik bestera transladatu edo transferitzearekin. Transferentzia horretan, itzultzailea bitartekari hutsa da, izaki neutroa, sorburu-testuaren edukia aldatu nahiz manipulatzeko eskubiderik ez duena, eta bere egitekoa jatorrizkoaren “benetako” zentzua bere horretan itzultzea da. Egitekoa zaila den arren, arrazoiaren eta metodologia egokiaren bidez posible da sorburu-testuan idatzitakoa “dezifratzea” edo “dekodeatzea”, gero funts edo esentzia hori beste hizkuntza batean emateko.

1.2.2.4. *Zentzu finko, aldaezin, transzendentala itzultzen*

Itzulpenaren ikuspegi modernoan sorburu-testuaren zentzua “bere horretan” itzultzea edo transferitzea eskatzen zaio itzultzaileari, alegia, jatorrizkoak eta itzulpenak zentzu “berbera” izan dezatela. Jatorrizko testuaren zentzua, beraz, funts edo esentzia finko, itxi, zehatz eta oso gisa ulertzen da itzulpenaren epistemologia modernoan, idatzia (eta, beraz, desitxuratua, ilundua) izan aurretik autorearen gogoan sortu eta osatu den asmo garbi eta puru gisa. Jatorrizko testua aztertuz eta arakatuz zentzu puru edo transzendentala hori aurkitzea da itzultzailearen lehen egitekoa, eta zeregin horretan ez dute inolako funtziorik betetzen testuinguruak, testuartekotasunak, itzultzailearen ikusmoldeak edo testuz kanpoko beste ezein faktorek. Behin testuaren “benetako” zentzura iritsi ondoren, inolako manipulaziorik gabe itzuli behar du itzultzaileak jatorrizko testuaren funtsa.

Zentzua ulertzeko modu horren erroak Mendebaldean XIX. mendera arte nagusi izan den ikuspegi platoniko batean aurki daitezke. Ideien, hizkuntzaren eta esperientziaren inguruko hausnarketaren zutabe garrantzitsuenetako bat Platonek proposatutako gauzen munduaren eta ideien munduaren arteko bereizketan datza. Maria Tymoczko honela laburbiltzen digu zentzuaren ikuspegi platonikoa:

A schematized way to conceptualize the Platonic paradigm is to conceive of the existence of a realm of ideal (abstract, disembodied) ideas or forms (as Plato called them), each of which corresponds to some changeless abstract concept that was seen as universal. These forms (connected with the realm of the divine) were understood as being imperfectly represented in the world of physical experience.

Although language was used to speak of the (imperfect) world of experience, the meaning of language was derived from its relationship to the ideal forms and ideas beyond the tangible world (Tymoczko 2007: 290).

Ikuspegi platoniko horren arabera, hizkuntza edo kode batean adierazitako zentzu edo forma ideal bat (ideien munduari dagokiona eta, ondorioz, aldaezina, unibertsala) beste hizkuntza edo kode baten bidez adieraztean datza itzulpena:

Within such a Platonic framework of meaning, therefore, translation can be looked on as a process of substitution, in which one code for referring to the realm of universal forms is replaced with another code referring to the same realm (Tymoczko 2007: 290).

Itzulpen prozesua “deberbalizazio” gisa ulertzen da ikuspegi honetan, “insofar as deverbalization suggests that translators can refer to an abstract, non-linguistic realm of ideas in moving between one language and another” (Tymoczko 2007: 290).

Zentzuaren ikuspegi platoniko hau ez zuen bere egin XIX. mendean agertutako positibismoak, arrazionaltasun zientifikoan oinarritzen zen mugimendua izanik, ezin baitzuen onartu egiaren bilaketarako ikuspegi metafisiko eta subjektiboak proposatzen zituen teoriarik. Hala eta guztiz ere, positibismoak proposatutako zentzuaren teoria ikuspegi platonikoak proposatutakoarena bezain unibertsalista eta totalizatzailea da, gertaera eta lege behagarri eta egiaztagarriak soilik jotzen baititu benetako zentzua aurkitzeko modu bakartzat:

Positivism replaced a Platonic sense of universality underlying language and meaning with another universalist criterion to which language could be referred, namely facts and laws that were observable, verifiable, and applicable in all circumstances (Tymoczko 2007: 291).

Itzulpena, ikuspegi platonikoan bezala, kode bat beste kode batekin ordezkatzean datza zentzuaren teoria positibistan ere.

1.2.2.5. Itzulpenaren auzi dualista: elementu semantikoak versus elementu formalak

1.2.3. atalean aztertuko ditugun itzulpenaren teoria moderno gehienetan, aurkakotasun bitar baten arabera planteatzen da itzulpenaren auzia. Izen eta

formula desberdinekin bada ere, itzulpen-teorialari hauek testuen elementu semantikoak eta elementu formal edo estilistikoak bereizi ohi dituzte, egokien deritzoten itzulpen-estrategia deskribatu aurretik. Eskema dualista horien guztien oinarrian Saussureren teorizazioetatik sortutako hizkuntzalaritza estrukturalaren egituraketa genuke. Saussurek estruktura bitar bat proposatu zuen zeinu linguistikoa deskribatzeko: adierazia eta adierazlea bereizi zituen zeinu linguistikoaren barruan. Adierazia gauza baten kontzeptua edo erre-presentazio mentala litzateke, eta adierazlea, berriz, hitz baten irudi akustikoa (Saussure 1982: 97-100).⁹ Banaketa horretan oinarritzen diren itzulpen-teoriek, beraz, “substantzia” semantikoak eta elementu formalak edo estilistikoak bereiztearen beharra aldarrikatzen dute, osagai horiek guztiak fidelki hizkuntza batetik beste batera itzuli ahal izateko. Itzulpen ideala osagai guztiak, semantikoak nahiz formalak, inolako galera nahiz aldaketarik gabe transferitzean datza, teoria hauen arabera, baina denek onartzen dute eginkizunaren ezinezkotasuna. Horregatik sentitzen dira behartuta itzultzaileak zentzuaren eta formaren artean hautu bat egitera, eta beren hautua justifikatzera.

1.2.2.6. *Itzulpen gardena, itzultzaile ikusezina*

Zentzuaren nahiz formaren alde egin, itzulpenaren epistemologia modernoan testu “gardenak” sortzea da itzultzaileen helburu nagusia. Itzulpenaren epistemologia postmodernoan kokatuko dugun Lawrence Venuti estatubatuar irakasleak behin eta berriro salatu izan duenez, gaur egun ontzat jotzen diren itzulpenak erraz eta eroso irakurtzen direnak dira, jatorrizkoak izatearen itxura ematen dutenak: “A translated text is judged successful [...] when it reads fluently, when it gives the appearance that it is not translated, that it is the original, transparently reflecting the foreign author’s personality or intention or the essential meaning of the foreign text” (Venuti 1992: 4). Gardentasunaren ideiak ere tradizio luzea du Mendebaldeko giza zientzietako diskurtsoan, Pier-Pascale Boulangerrek azaltzen digunez: Klasizismoan, garai hartan nagusi zen hizkuntzaren ikuspegi platonikoaren arabera, hitzak errealitatea hautemateko giltzak ziren eta, ondorioz, autorearen pentsamendua gardenki adierazten zuten. XVII. mendean, gardentasunaren eta argitasunaren ideia in-

⁹ “Le signe linguistique unit non une chose et un nom, mais un concept et une image acoustique. [...] Nous proposons de conserver le mot *signe* pour désigner le total, et de remplacer *concept* et *image acoustique* respectivement par *signifié* et *signifiant* [...]” (Saussure 1982: 98-99).

dartu egin zen, eta ideiak argiki transmititzeko tresna huts gisa ulertzen zen hizkuntza. XVIII. mendeko ikuspegi erromantikoan, indar handia hartu zuen berriro gardentasunaren ideiak; literatura-lanak autorearen pentsamenduaren eta nortasunaren isla garden gisa ikusten ziren. Itzultzaileak, beraz, giza irudimenaren artelan originala zen obra literarioa itzultzeko, ahalik eta ikusezinen jokatu behar zuen, bere burua ezabatuz autorearen talentua gardenki ager zezan (Boulanger 2002: 68-70). Gaur egun ere, badirudi irizpide horri jarraitzen zaiola itzulpenak argitaratzen dituzten argitaletxe handi gehienetan: salmentetan arrakasta izango badu, itzulpenak irakurterraza izan behar du; xede-testuaren irakurleari egokituta egon behar du, eta ez du itzulpen-kutsurik izan behar; aitzitik, idazleak xede-hizkuntzan idatzia balitz bezala agertu behar du, 1.1. atalean txertatu dugun Drydenen aipu hartan esaten zen bezala, Virgiliok ingelesez jakin izan balu idatziko zukeen moduko testua sortzen saiatu omen baitzen itzultzaile ingelesa.

1.2.3. ITZULPENAREN TEORIA MODERNOAK

Atal honetan, oinarri nagusitzat itzulpenaren epistemologia modernoa duten teoriak aztertuko ditugu. Horrek ez du esan nahi, ordea, zenbait teoriak itzulpenaren epistemologia postmodernoarean zantzurik izango ez duenik. Lehenago esan dugun bezala, posible da episteme desberdinak garai berean existitzea, eta, beraz, jarraian azalduko ditugun teorietako batzuek bi epistemeetatik edaten dutela ikusiko dugu. Nolanahi ere den, nagusiki episteme modernoan oinarritzen diren teoriak bilduko ditugu atal honetan, proposatzen dituzten itzulpen-estrategia nahiz soluzioek pentsamendu modernoa nola islatzen duten erakusteko.

1.2.3.1. *Estatu Batuetako “translation workshop” edo itzulpen-lantegia*

Ikusi dugunez, XX. mendearen hasierara arte, itzulpengintza ez zen diziplina akademiko beregaintzat hartzen, eta hizkuntza ikasteko metodo gisa soilik erabiltzen zen hizkuntza-ikastaroetan. Estatu Batuetan, itzulpengintzari eskaintzen zitzaion arreta eskasa ikusita, hainbat unibertsitate-irakasle itzulpena eta itzulpenaren inguruko hausnarketa bultzatzeko zenbait ekimen garatzen hasi zen. Ahalegin horiek “translation workshop” edo itzulpen-lantegi bezala ezagutzen dira. Itzulpen-lantegiaren aitzindarietako bat Harvard unibertsitateko Ivor Armstrong Richards irakaslea izan zen; *Practical Criticism* (1929) libu-

ruan, bere ikasleekin egindako esperimentu baten berri ematen digu: ikasleei autore desberdinen hamahiru poema eman zizkien, baina poemengaineko inolako informaziorik gabe. Poema haiei idatziz erantzuteko eskatu zien ondoren, nahi zuten modua erabiliz. Ikasleek emandako erantzun guztiak aztertu ondoren, poema baten esanahia ulertzeko oztopoak zerrendatu zituen, eta benetako esanahira iritsi ahal izateko egin beharreko irakurketa definitzen saiatu zen. Esperimentu harekin, esanahi batu eta bakar bat badagoela frogatu nahi izan zuen Richardsek, eta irakurketa on batekin posible dela autorearen esanahi originala berreskuratzea. Geroago argitaratu zuen “Toward a Theory of Translating” artikuluan (1953), esanahiaren bere teoria fintzen saiatu zuen Richards, baina, halere, hasieran proposaturiko premisek bere hartan jarraitu zuten. Testuek “esperientzia-gorputz” bat gordetzen zutela sinesten zuen (“body of experience”, Richards 1953: 252), eta itzultzaileak, prestakuntza egokia jasoz gero, esperientzia hori hautemateko gai izango zirela defendatzen zuen. Richardsen eredu linguistikoak jatorrizko mezua zuzenki deskodetu eta ondoren beste hizkuntza batean birkodetu zitekeela proposatzen zuen.

Zentzu horretan, antzeko ideiak agertu zituen Jonas Zdanys Yale unibertsitateko irakasleak bere itzulpen-lantegian, 1980ko hamarkadan. Sorkuntzazko idazketa ezin zela irakatsi uste zuen, sorkuntza-gaitasuna jaiotzetik datorren zerbait bezala ikusten baitzuen. Itzulpenaren bidez, ordea, jatorrizko poema baten irakurketa aberatsagoa lor zitekeela defendatzen zuen. Zdanysentzat, beraz, itzulpena interpretazio literariorako tresna zen, testuen ulerkuntza zehatzago baterako giltza eskaintzen baitzuen. Itzulpenaren bidez, testu baten “berezko” zentzua, bakarra eta benetakoa, hauteman zitekeen, eta horrela posible zen interpretazio desberdinen arteko eztabaidari irteera ematea (Zdanys 1987).

Estatu Batuetako itzulpen-lantegian nagusi zen diskurtsoan, oso garbi ageri zaizkigu epistemologia modernoaren aztarnak. Batetik, itzulpena testuak interpretatzeko “tresna” huts gisa ikusten da, eta ez sorkuntzarako bide bezala. Bestetik, testuek zentzu “berezko”, “bakar” eta “benetako” bat dutela sinesten da, eta itzulpenaren bidez posible dela zentzu hori testutik erauzi eta beste hizkuntza batean bere horretan ematea. Itzulpena, azken batean, deskodetze-birkodetze jarduera gisa hautematen da.

1.2.3.2. Itzulpenaren “zientzia”

Ahaleginak ahalegin, Estatu Batuetan itzulpenaren inguruko hausnarketa sustatzeko egindako saioek ez zuten itzulpenak eskatzen zuen teoria koherente

edo sistematikorik eragin. Hutsune horri erantzun nahirik, Europako zenbait hizkuntzalarik itzulpenaren teoria edo “zientzia” bat garatzeari ekin zioten. Hizkuntzalaritza, 1960ko hamarkadara arte, gramatikak osatzeko ikerketa deskriptibora mugatu zen; hizkuntza desberdinetako gramatikak idazten ziren, baina ez ziren inoiz bi hizkuntza desberdinetako gramatikak alderatzen. Horregatik izan ziren hain garrantzitsuak hizkuntzalaritza konparatua egiten hasi ziren hainbat hizkuntzalariren lanak itzulpengintzaren “zientziarako”. Teorizazio horretan ekarpen garrantzitsuenak egin zituztenen artean, Vinay eta Darbelnet, Jakobson, Nida, Catford, Newmark eta Wilss ditugu.

Jean Paul Vinay eta Jean Darbelnet hizkuntzalari frantsesak ikusmolde estrukturalista batean oinarritu ziren beren *Stylistique comparée du français et de l'anglais* idazteko. Frantsesezko eta ingelesezko testuak alderatu zituzten hizkuntzen arteko desberdintasunak aztertzeke eta itzulpen-estrategia nahiz -prozedurak identifikatzeko. Horrela, bi itzulpen-estrategia nagusi definitu zituzten: itzulpen zuzena (“traduction directe”) eta zeharkako itzulpena (“traduction oblique”); lehenengoa itzulpen “literala” genuke, eta bigarrena, berriz, “librea”. Itzulpen zuzenaren baitan hiru itzulpen-prozedura identifikatu zituzten: mailegua, kalkoa eta itzulpen literala. Azken hau da itzulpen ona lortzeko bidea, egileen arabera. Batzuetan, ordea, xede-hizkuntzaren egiturek edo baldintza metalinguistikoek zeharkako itzulpena erabiltzera behartzen dute itzultzailea. Kasu horretan, lau itzulpen-prozedura erabil daitezke: transposizioa, modulazioa, baliokidetzeta eta egokitzapena (Vinay & Darbelnet 1960: 46-55). Teorizazio honek baditu, ordea, hainbat hutsune edo kontraesan. Pier-Pascale Boulangerrek bi arazo nagusi aipatzen ditu (Boulanger 2002: 72). Batetik, egileen helburua frantsesez eta ingelesez baliokideak diren esaldiak alderatzea dela adierazten zaigu, baina zeren arabera ezartzen dira baliokide horiek? Non dago hain zientifikoa izan nahi duen teoriaren irizpide objektiboa? Bestetik, Boulangerrek zientzia modernoaren epistemologiaren pentsamendu totalizatzailearen isla ikusten du teoria honetan:

Quant à cette prédisposition à l’universalisation, elle se dévoile surtout dans la présentation que les auteurs font de leur matériau de base : l’anglais et le français, alors qu’il s’agit en fait de l’anglais d’Amérique du Nord [...] et du français de France. Les langues sont donc données comme des entités absolues et fixes à condition qu’elles n’aient pas été en contact (Boulanger 2002: 72).

Era berean, frantsesaren eta ingelesaren arteko baliokidetzak proposatzean, ez dituzte hiztun arruntek egunerokoan erabiltzen dituzten adibideak

aipatzen, fikziozko hiztun ideal perfektu batek (beste ezein hizkuntzaren eraginik jaso ez duen hiztun “puru” batek) erabiliko lituzkeen esaldiak baizik.

Roman Jakobson hizkuntzalari errusiarrak ere ikuspegi estrukturalista batetik ekin zion itzulpengintza aztertzeari, eta Saussureren adieraziaren eta adierazlearen arteko erlazioan oinarritu zuen bere itzulpen-teoria. 1959ko “On linguistic aspects of translation” artikuluan, hiru itzulpen mota bereizi zituen: intralinguala (hizkuntza batean esandako gauza bat hizkuntza berean beste hitz batzuekin esatea), interlinguala (oro har “itzulpen” hitzarekin ulerzen dena, bi hizkuntzaren arteko itzulpena, alegia) eta intersemiotikoa (zeinu berbalak zeinu-sistema ez-berbalen zeinuekin interpretatzea). Ondoren, artikulua berean esanahi-baliokidetzak aztertzen du. Hizkuntzek mundua hautemateko eta irudikatze modu oso desberdinak dituztela aipatzen du, eta, ondorioz, ez dagoela hizkuntza desberdinetako kode-unitateen arteko erabateko baliokidetzarik: “there is ordinarily no full equivalence between code-units” (Jakobson 2000: 114). Ohartarazpen hori garrantzitsua da itzulpen-gogoetaren bilakaeran, pixkanaka garatzen hasiko den itzulpenaren epistemologia postmoderno edo postpositibista aurreratzen baitu, esanahia bere horretan transferitzearen zailtasunak agerian jartzean. Halere, esanahiaren eta baliokidetzaren arazoa, Jakobsonentzat, ez datza hizkuntza batean idatzitako mezu bat beste hizkuntza batean adierazteko ezintasunean, hizkuntzen egituraren eta terminologian dauden desberdintasunetan baizik. Beraz, kasu batzuetan hizkuntza bateko kode-unitate bat beste hizkuntza bateko kode-unitate bakar batekin eman ezin bada ere, beti da posible mezua osorik itzultzea:

All cognitive experience and its classification is conveyable in any existing language. Whenever there is deficiency, terminology may be qualified and amplified by loanwords or loan translations, neologisms or semantic shifts, and finally, by circumlocutions (Jakobson 2000: 115).

Jakobsonen definizioan ere ordezkapenaren ideia da nagusi, itzulpenaren beste teoria modernoetan bezala: “translation from one language into another substitutes messages in one language not for separate code-units but for entire messages in some other language” (Jakobson 2000: 114). Poesia bakarrik omen da itzulezina, non transposizio sortailea den itzulpen-aukera bakarra: “poetry by definition is untranslatable. Only creative transposition is possible” (Jakobson 2000: 118). Jakobsoni egin zaion kritiketako bat itzulpen moten bereizketaren ingurukoa da. Itzulpenaren epistemologia postmodernoan aztertzean ikusiko dugun Jacques Derrida dekonstruktivistak, esate baterako, zalantzan jartzen du itzulpen intralingualaren, interlingualaren eta interse-

miotikoaren arteko bereizketa. Izan ere, bereizketa hori egiteko onartu behar da, batetik, hizkuntzen artean muga zurrunik daudela, eta, bestetik, elementu linguistikoaren eta ez-linguistikoaren arteko bereizketa ere erabatekoa dela. Derri-dak eta dekonstrukzioak oro har ez dute onartuko horrelako muga zurrunik, eta testuaren eraketan hizkuntzaz kanpoko beste hainbat faktorek ere parte hartzen dutela aldarrikatuko dute (Davis 2001: 23).

Esanahiaren, baliokidetzaren eta itzulgarritasunaren auziak itzulpengintzaren arloko eztabaiden muina izaten jarraitu zuen 1960ko hamarkadan. Eugene Nida amerikarrak ikuspegi “zientifiko” batetik heldu zion arazoari bere *Toward a Science of Translating* (1964) liburuan, hizkuntzalaritzan garatu berri ziren ideiak Bibliaren itzulpenari aplikatuz. Semantikatik, pragmatikatik eta Noam Chomsky hizkuntzalariaren gramatika generatibo-transformazioaetik¹⁰ hartu zituen bere teoria osatzeko kontzeptuak. Itzulpen “literala”, “librea” eta “leiala” bezalako termino zaharkituak baztertu eta bi baliokidetzara mota deskribatu zituen: baliokidetzara formala eta baliokidetzara dinamikoa. Honela definitzen du lehenengoa Nidak: “Formal equivalence focuses attention on the message itself, in both form and content” (Nida 1964: 159). Sorburu-testuaren egiturari gertutik jarraitzen dion itzulpena genuke, beraz, baliokidetzara formala bilatzen duen itzulpena. Baliokidetzara dinamikoa, berriz, “principle of equivalent effect” delakoan oinarritzen da, eta hartzailearen eta mezuaren arteko harremana funtsean jatorrizko hartzailearen eta mezuaren artean zegoenaren berdina izan dadin lortzean datza (Nida 1964: 159). Baliokidetzara dinamikoaren helburua sorburu-hiz-

¹⁰ Chomskyren gramatika generatiboaren eta sintaxiaren teoria ez zen, funtsean, itzulpen-teoria bat, baina itzulpengintzako aditu bat baino gehiago oinarritu da teoria horretan itzulpengintzari buruzko bere ideiak justifikatzeko; besteak beste, Eugene Nida eta Frederic Will. Chomskyk hiru egitura-maila bereizten ditu bere teorian: oinarritzko egitura (giza gogoaren funtzionamendu inkontzientea), sakoneko egitura (esaldien esanahia zehazten duena) eta azaleko egitura (ahoskatzen den soinua edo hotsa). Esaldien egituraketarako, arau batzuen bidez (zeinak hizkuntza guztietan berdinak diren), oinarritzko egituratik esaldien sakoneko egitura osatzen da. Egitura horretan biltzen da esaldien esanahia zehazten duen informazio sintaktiko eta semantiko guztia. Azkenik, arau transformatzaileak sakoneko egitura hori birmoldatzen dute azaleko egiturak (hizkuntza bateko esaldi guztiak) eratzeko (Chomsky 1965: 22). Nidaren eta Chomskyren teoriak arlo desberdinetan garatu baziren ere, antzekotasun handiak aurki daitezke biek darabilten terminologian, baita teorizazioan ere: “they both assume that there exists a deep, cohere, and unified entity behind whatever manifestation language takes: the “core”, the “kernel”, the “deep structure”, the “essence”, the “spirit” are all terms used by Nida, many of which derive from Chomsky. [...] Both Chomsky and Nida made metaphysical claims about the object of investigation for their respective theories” (Gentzler 2001: 47). Chomskyren eta Nidaren teoriaren arteko antzekotasun eta desberdintasunei buruz, ikusi Gentzler (2001: 44-59).

kuntzako mezuaren baliokide naturalik hurbilena lortzea da (Nida 1964: 166), eta, naturaltasun hori lortzeko, gramatika, lexiko nahiz kultura alorre-tako egokitzapenak egin behar dira xede-hizkuntzan.

Nidaren teoriari egin zaizkion kritika nagusien artean honako hauek aipatuko genituzke. Batetik, bere gogoeta teoria zientifiko gisa ezagutarazi nahi izan bazuen ere, Nidaren sinesmen erlijiosoak eta helburu misionistak, esplizituki ez bada ere, nabarmen islatzen dira bere teorizazioan. Bestetik Nidak aipatzen digu itzulpen dinamikoaren helburua itzulpenaren irakurleengan jatorrizko testuak bere hartzaileengan eragin duen efektu berbera lortzea dela; baina, nola jakin zein izan zen sorburu-testuak bere irakurleengan eragin zuen efektua, bereziki denboran eta espazioan urrun gelditzen zaizkigun lanen kasuan? Azkenik, itzulpenaren epistemologia modernoaren beste hainbat topiko ere errepikatzen dira, besteak beste itzulpen “garden”, natural eta arrotz-kutsurik gabekoaren defentsa, edota formaren eta zentzuaren arteko bereizketa dualista.

Hamarkada hartako beste teoriarik bat John Cunnison Catford dugu. *A Linguistic Theory of Translation* (1965) liburuan, hizkuntza komunikazio gisa aztertu ondoren, honela definitzen du itzulpena: “the replacement of textual material in one language (SL) by equivalent textual material in another language (TL)” (Catford 1965: 20). Baliokidetza hori zer den zehaztu nahian, baliokidetza testuala eta korrespondentzia formala bereizten ditu. Baliokidetza testuala sorburu-hizkuntzako testu baten (edo testu-zati baten) eta xede-hizkuntzako beste testu baten (edo beste testu-zati baten) arteko baliokidetza litzateke, eta korrespondentzia formala, berriz, bi hizkuntzaren arteko harremanean oinarritutako kontzeptu orokorragoa. Bi kontzeptu horiek bat ez datozenean, itzulpen-aldaketak (*translation shifts*) gertatzen dira, hots, “departures from formal correspondence in the process of going from the SL to the TL” (Catford 1965: 141). Baliokidetzaren auzia konpontzen saiatu bazen ere, Catfordek ez zuen lortu bere teoriako zenbait kontraesan ebaztea. Esate baterako, baliokidetza testuala probabilitatezko fenomeno enpirikoa zela aldarrikatzen zuen, eta forma baliokideak hitzun elebidunen intuizioari esker hauteman zitezkeela, baina bere liburuan ematen dituen adibide gehienak hitzun ideal perfektu batenak dira, eta inolako testuingururik gabe aurkeztuak. Hala ere, ezin dugu aipatu gabe utzi Catforden lanak itzulpengintzaren diskurtso modernoak gainditzeko egindako ahalegina. Batetik, “itzulpenaren” eta “transferentziaren” arteko bereizketa egiten du. Lehenaren definizioa gorago aipatu dugu; bigarrenarena, berriz, honako hau litzateke: “an operation in which the TL text, or, rather, parts of the TL text, do have *values set up in the SL*: in

other words, have *SL meanings*” (Catford 1965: 43, letra etzana jatorrizkoarena da). Catfordek argi uzten du, beraz, esanahia aldatu egiten dela hizkuntza batetik bestera, eta, ondorioz, itzulpena ezin dela esanahia mantentzen duen prozedura gisa definitu (Tymoczko 2007: 29). Gainera, itzulpen-baliokidetzaren baita komunikazio-elementuren menpe dagoela azpimarratzen du, hala nola funtzioaren, adierazgarritasunaren, egoeraren eta kulturaren menpe, eta ez soilik irizpide linguistiko formalen menpe (Munday 2001: 61-62). Dena den, baliokidetzaren inguruan eman zuen definizioak argitu gabe utzi zituen baliokidetzaren izaeraren inguruko hainbat zalantza.

Peter Newmarkek itzulpengintzari eskainitako lanak, *Approaches to Translation* (1981) eta *A Textbook of Translation* (1988), Nidaren itzulpenaren teoria linguistikoan oinarritzen dira, neurri handi batean. Hark bezala, bi itzulpen mota bereizi zituen Newmarkek: itzulpen komunikatiboa batetik eta itzulpen semantikoa bestetik.

Communicative translation attempts to produce on its readers an effect as close as possible to that obtained on the readers of the original. Semantic translation attempts to render, as closely as the semantic and syntactic structures of the second language allow, the exact contextual meaning of the original (Newmark 1981: 39).

Oro har, Newmarken itzulpen komunikatiboa Nidaren baliokidetzaren dinamikoarekin aldera liteke, eta haren itzulpen semantikoa honen baliokidetzaren formalarekin, nahiz eta Newmarkek ez duen bere horretan onartzen Nidak proposatutako “principle of equivalent effect” delakoa, hain zuzen ere Nidaren teoria aztertu dugunean aipatu dugun arrazoi berberarengatik: denboran eta espazioan urrun gelditzen zaizkigun lanen kasuan ezinezkoa baita baliokidetzaren efektu hori lortzea. Bestalde, Newmarkek argi utzi nahi du itzulpen semantikoa ez dela itzulpen literala; izan ere, itzulpen semantikoan testuingurua kontuan hartzen da, eta testua interpretatu eta azaltzeko ahalegina egiten da; itzulpen literala, berriz, hitzez hitzezko itzulpena da, eta hurbil-hurbiletik jarraitzen dio sorburu-testuko lexikoari eta sintaxiari. Zehaztapen hori egin ondoren, itzulpen literala defendatzen du bai itzulpen komunikatiborako, bai itzulpen semantikorako, baldin eta baliokidetzaren efektua lortzen bada.

Newmarken teorian nabaria da episteme modernoaren eragina, batez ere proposatzen duen itzulpenaren bereizketa bitarrarengatik. Bere teoriaren preskriptibismoa ere aipatzen da egin zaizkion kritika gehienetan. Dena dela, itzulpenaren teoria moderno gehienek ez bezala, Newmarken teoriak ez du gardentasunaren alde egiten, eta hitzez hitzezko itzulpena defendatzen du

itzulpen-metodo on bakartzat. Newmarken teoria itzulpenaren epistemologia postmodernora gerturatzeko duen beste alderdi bat zentzuaren konplexutasunaren onarpena genuke. Zentzua interpretatzeko testuinguruak duen garrantzia azpimarratzen du Newmarkek, baita itzultzaileak testuarekiko eta sorburu-hizkuntza nahiz -kulturarekiko sentitzen duen enpatia ere. Itzulpena ikuspegi erabat linguistiko batetik aztertzen duen arren, itzultzailearen ikuspegi subjektiboaren eragina eta hizkuntzaz kanpoko beste hainbat faktoreren indarra kontuan hartzen ditu, eta, puntu horietan, beraz, badiu antzekotasunak aurrerago aztertuko ditugun teoria postmodernoeekin.

Itzulpena zientziaren mailara jasotzeko Nidaren ahaleginak Alemanian ere izan zuen eraginik, herrialde hartako unibertsitateetan 1970eko eta 1980ko hamarkadetan garatu zen *Übersetzungswissenschaft* edo itzulpenaren zientziak erakusten duenez. Nidaren eta Chomskyren eraginaren isla garbienetako bat Saarbrücken-go Saarland unibertsitateko Wolfram Wilss irakaslearengan aurki daiteke. Bere *Übersetzungswissenschaft. Probleme und Methoden* (1977) liburuan, hiru ikerketa-adarretan banatzen du Wilsssek bere itzulpenaren zientzia: itzulpenaren zientzia orokorra batetik, itzulpenaren ikasketa deskribatzaileak bestetik, eta itzulpenaren ikerketa aplikatua azkenik. Azken adar hori da hirurietan mugatuena, eta arazo asko uzten ditu zintzilik. Lehen bi adarrak, berriz, teoriarena eta metodologiarena, xehetasun handiagoz lantzen ditu. Teoriaren arloan, Wilsssek gogor kritikatzeko dituzten hizkuntzalaritza estrukturala eta gramatika generatibo-transformazionala, batez ere hizkuntza jakin batzuen azaleko egiturak deskribatzera mugatzen direlako, itzulpenaren arazoetan arretarik jarri gabe. Zentzu horretan, balirudike Wilssen lana itzulpenaren teoria modernoak gainditu eta epistemologia modernoaren zenbait kontraesan argitzera letorkeela. Hala eta guztiz ere, Chomskyri egiten dizkion kritikak gorabehera, Wilss ere sakoneko egitura / azaleko egitura bereizketa bitarrear oinarritzen da, funtsean. Itzulpena, Wilssentzat, unibertsal sintaktiko, semantiko eta esperientziazkoen sakoneko egiturek bermatzen dute, eta baliokide sintaktiko, semantiko eta esperientziazko horiek beste hizkuntza batean aurkitzean datza itzultzailearen lana:

Die Übersetzbarkeit eines Textes ist also durch die Existenz von syntaktischen, semantischen und erfahrungslogischen Universalkategorien gewährleistet. Wenn eine Übersetzung dessenungeachtet qualitativ hinter dem Original zurückbleibt, liegt dies nicht an der unzureichenden Ausdruckssubstanz der jeweiligen Zielsprache, sondern an der begrenzten Fähigkeit eines Übersetzers zu textueller Binnendifferenzierung, Sublimierung und Weiterentwicklung der einer Sprachgemeinschaft zur Verfügung stehenden Ausdrucksmittel (Wilss 1977: 56).

Wilssentzat, beraz, gorago ikusi dugun Richards estatubatuarrarentzat bezala, behar bezalako prestakuntzarekin, ikasleak gai izango dira testuak egoki interpretatzeko.

Wilssen teoriak deskriptiboa izan nahi badu ere, oso nabaria da oro har unibertsalizaziorako joera, eta Chomskyren lana kritikatzeko saiatzen den arren, teoriaren oinarrian dagoen egituraketa ez da gehiegi urruntzen hark proposatutako eskematik: Wilssek forma unibertsalez eta esperientzia komun batez osatutako hizkuntza unibertsal batean sinesten du, eta, prozesu generatibo baten bidez, hizkuntza bateko sakoneko egiturak azaleko egituretara bihurtu daitezkeela defendatzen. Ahaleginak ahalegin, beraz, Wilssen lana ez da itzulpenaren epistemologia modernoaren eskematik gehiegi urruntzen. Wilssen teoriaren kritikari buruz, ikusi Gantzler (2001: 59-67).

1.2.3.3. Itzulpenaren teoria funtzionalistak

Wilssek irekitako biderei jarraituz, beste hainbat alemaniar teorialari ere saiatu ziren itzulpenaren teoria berriak eraikitzen, besteak beste Heidelbergeko Werner Koller eta Leipzigerko eskolako Otto Kade eta Albert Neuber.

Kollerren *Einführung in die Übersetzungswissenschaft* (1979) baliokidetzaren eta korrespondentziaren nozioak gertuagotik aztertzeke saiakera da. Hizkuntzalaritza kontrastiboan oinarrituta, eta Saussuraren *langue / parole* bereizketaren antzeko eredu batekin, Kollerrek bost baliokidetzaren mota bereizten ditu: baliokidetzaren denotatiboa (testu baten eduki estralinguistikoa lotua), baliokidetzaren konnotatiboa (edo baliokidetzaren estilistikoa, hautu lexikoei dagokiena), baliokidetzaren normatiboa (arau linguistikoa eta testualak errespetatzera bideratua), baliokidetzaren pragmatikoa (edo baliokidetzaren komunikatiboa, Nidaren baliokidetzaren dinamikoaren parekoa) eta baliokidetzaren formala (testuaren formari eta estetika dagokiena) (Koller 1979: 186-191). Itzulpen batean, baliokidetzaren motak hierarkizatu egin behar direla dio Kollerrek, egoera komunikatiboaren arabera ordenatu. Halere, ez du zehazten hierarkizazio horretarako zein irizpideri jarraitu behar zaion.

Leipzigerko eskolako Otto Kade ere baliokidetzaren motak bereizten saiatu zen bere *Zufall und Gesetzmässigkeit in der Übersetzung* lanean (1968). Lau baliokidetzaren mota proposatu zituen: *totale Äquivalenz* edo bat / bat delakoa, *fakultative Äquivalenz* edo bat / asko delakoa, *approximative Äquivalenz* edo bat / zatia delakoa eta *Null-Äquivalenz* edo bat / huts delakoa. Testua unitateetan banatu ondoren, itzultzaileak baliokidetzarik egokiena hautatu behar

du, eta, unitate guztiak bildu ondoren, testu oso bat sortu. Albrecht Neubertek, berriz, hitzez hitzeko baliokidetzaz alde batera utzi eta unitate gisa testu osoa hartzea proposatu zuen. Sorburu-hizkuntzako testu mota hartu zuen itzulpenaren alderaketarako elementu aldaezintzat. Neuberten itzulpen-teoria gramatika transformazionaletik gertu kokatzen da; izan ere, itzulpenak nola diren posible azaltzean, sakoneko egituren batasuna azpimarratzen du, eta egitura horietatik azaleko egituretara gertatzen den transformazioan bilatu behar dela testuaren zentzuaren interpretazioa (Neubert 1973: 20). Aurrerago idatzitako lanetan “*translatorische Relativität*” nozioa aurkezten du Neubertek, testuaren berreraiketa-prozesuan itzultzaileak duen funtzio “*sortzailea*” azpimarratuz (Neubert 1986: 97). Nolanahi ere, erlatibitate hori ez dator hizkuntza bakoitzak mundua ulertzeko bere modua duela onartzetik, jatorrizko testuaren egiturak eskaintzen dituen aukera ugarietatik baizik. Neuberten eredia esanahiaren ikuspegi transzendental batean oinarritzen da, eta itzultzaileak egin beharreko hautuak “*predestinatuta*” daudela iragartzen du (Neubert 1986: 92).

Saarbrückengo, Heidelbergeko eta Leipzigecko eskolekin estuki lotutako itzulpenaren beste teorizazio bat ikuspegi funtzionalistarena genuke. Katharina Reiss eta Hans J. Vermeer dira ikuspegi horren ordezkari nagusietako batzuk. Hizkuntzalaritzaren adar pragmatikotik garatutako teorizazio honek hizkuntzaren eta testuen “*funtzioa*” hartzen du itzulpena aztertzeke irizpide nagusitzat. Katharina Reissek, esate baterako, hizkuntzaren funtzioak hiru sailetan banatzen ditu: funtzio adierazgarria, adierazkorra eta deitzailea. Ondoren, hiru testu mota bereizten ditu, hurrenez hurren: *inhaltsbetonte* (edukia edo informazioa azpimarratzen dutenak), *formbetonte* (hizkuntzaren forma azpimarratzen dutenak) eta *appellbetonte* (irakurlearekiko deia azpimarratzen dutenak) (Reiss 1971: 32). Reissek planteatutako ikuspegi funtzional eta komunikatibotik abiatuz, Hans J. Vermeerrek *Skopos* nozioa proposatu zuen itzulpen-teoria aztertzeke. Greziar jatorriko hitz horrek “*helburu*” edo “*asmo*” esan nahi du, eta itzulpenen helburua definitzeko erabili zuten teoria honen defendatzaileek. *Skopos* teoriaren erakusgarri nagusia *Grundlegung einer allgemeinen Translationstheorie* (1984) dugu, Vermeerrek eta Reissek elkarrekin idatzitako liburua. Bertan azaltzen dutenez, *Skopos* teoria itzulpen bakoitzak duen helburuan oinarritzen da batez ere, horrexek baldintzatzen baititu funtzionaliki egokia izango den emaitza lortzeko erabili beharreko itzulpen-metodo eta -estrategiak.

Teoria funtzionalisten ekarpen nagusiak, itzulpenaren epistemologia moderno batetik itzulpenaren epistemologia postmoderno baterako bilakaeran,

honela laburbilduko genituzke: lehenik, sorburu-testura bideratutako teorie-tatik xede-testura bideratutako teoretarako pausoa; bigarrenik, proposatzen dituzten itzulpen-metodoetan faktore kulturalak eta elementu linguistikoak biak kontuan hartzeko ahalegina; azkenik, “Initiator” delakoaren nozioa txer-tatzen dute, alegia, itzulpen-prozesuari hasiera ematen dion pertsona, talde edo instituzioa, itzulpenaren helburua, denbora nahiz entrega-epea, formatua, kostua eta beste hainbat erabaki hartuko dituen eta, ondorioz, itzulpenaren izaera baldintzatuko duena. Halere, itzulpenaren epistemologia modernoaren zantzuek pisu handia dute oraindik teorialari hauen proposamenetan. Esate baterako, xede-testuak koherentea, gardena, naturala, eroso irakurtzeko mo-dukoa izan behar duela defendatzen dute; bestalde, itzulpenak “on” edo “txar” gisa kalifikatzeko joera dute, eta itzultitako testuak jatorrizkoak betetzen zuen funtzio berbera betetzea da itzulpenaren “fideltasuna” neurtzeko irizpidea. Ikuspegi funtzionalisten azterketa sakonago baterako, ikusi Gentzler (2001: 65-76).

1.2.4. ITZULPENGINTZAREN DISKURTSO MODERNOA LABURTUZ

Aurreko atalean itzulpenaren teoria modernoetako batzuk aztertu ditugu; beren gogoetak itzulpenaren epistemologia modernoan oinarritu dituzten beste hainbat pentsalari, ordea, analisi honetatik kanpo utzi ditugu. Izan ere, gure asmoa ez zen itzulpenaren teoria moderno guzti-guztien azterketa xehea egitea, XX. mendearen bukaerara arte itzulpengintzan nagusi izan diren lan teoriko garrantzitsuenetako batzuk aipatzea baizik, teoria horietan itzulpen-gintzaren diskurtso moderno nola hezurmamitzen den erakusteko. Era be-rean, itzulpengintzaren diskurtso modernoan txertatu ditugun zenbait teoria-lari diskurtso postmodernoan kokatuko lituzke beharbada beste zenbait ikertzailek.¹¹ Jakobsonen, Catforden, Newmarken edo itzulpenaren teoria funtzionalisten bultzatzaileetako batzuen lanetan, esate baterako, nabariak

¹¹ Beste sailkapen batzuen adibide gisa, ikusi Steiner (1975: 236-238) eta, berriagoen ar-tean, Tymoczko (2007: 15-53). Azken honek positibismoaren eraginpeko aroa eta bigarren mundu gerraz geroztiko postpositibismoarena bereizten ditu, eta banaketa horren arabera azal-tzen ditu Steinerren sailkapeneko faseak: Steinerren lehen bi faseak iraultza postpositibistaren aurrekoak lirateke; hirugarren eta laugarren fasea, berriz, iraultza horren ostekoak (Tymoczko 2007: 24-25). Tymoczkok aro postpositibistaren barruan sartzen ditu, esaterako, guk teoria modernoan barruan aztertu ditugun itzulpenaren teoria linguistiko eta filosofikoak (Jakobson, Catford...) eta funtzionalistak (Nida, Vermeer, Reiss...).

dira itzulpenaren epistemologia postmodernoaren zantzuak, eta ez litzateke onartezina autore horiek itzulpengintzaren diskurtso postmodernoan txertatzea. Dena den, guk postmodernotzat jotzen ditugun teoriak orain arte aztertu ditugun autoreen proposamenetatik nabarmen desberdintzen direla iruditzen zaigu, eta horregatik erabaki dugu muga hemen ezartzea. Gainera, hurrengo atalean aztertuko ditugun teoria postmoderno askok kritikatu egingo dituzte guk atal honetan sartu ditugun zenbait ikertzailearen gogoetak, beren buruak erabat bestelako diskurtso batean kokatuz. Hori izan da Jakobson, Newmark eta beste zenbait autore atal honetan, eta ez hurrengoan, deskribatu izanaren beste arrazoi bat.

Orain arte deskribatu ditugun teorien ezaugarri nagusia aurkakotasun bitarrean oinarritutako eskema teorikoa genuke. Teoria modernoek aurkakotasun teoriko edo kontzeptualetan oinarritzen dituzte beren gogoetak, sarri hierarkia baten arabera antolatuta gainera (lehen elementua lehenetsiz eskuarki): hizketa *versus* idazketa, idazlea *versus* itzultzailea, jatorrizkoa *versus* itzulpena, arrazoiak *versus* irudimena, zentzua *versus* forma, adierazia *versus* adierazlea eta abar. Kontzeptu eta terminologia desberdinekin, baina bereizketa dualista hori ia beti islatzen da itzulpenaren epistemologia modernoan oinarri duten teorian. Hor ditugu, esate baterako, itzulpen zuzena / zeharkako itzulpena (Vinay & Darbelnet), baliokidetza formala / baliokidetza dinamikoa (Nida), baliokidetza testuala / korrespondentzia formala (Catford), itzulpen komunikatiboa / itzulpen semantikoa (Newmark), batzuk baino ez aipatzearren. Badiirudi, gainera, dikotomia horiek nolabaiteko ezinegona sortzen dutela, itzultzailearentzat “arazo” bat direla, eta ezinbestekoa dela eskema bitar horri irtenbide bat bilatzea, proposatutako bi aukeren artean hautu bat egitea. Autore bakoitzak bere hautua proposatzen du itzulpen ona lortzeko irtenbidezat, eta haien diskurtsoak erabat preskriptiboak bihurtzen dira. Teorien preskriptibismo horrekin batera, proposamen horien izaera unibertsalista aipatuko genuke: beren teoriak ikuspegi objektibo edo zientifiko batetik garatu nahi dituztela aldarrikatzen badute ere, teoria modernoek bultzatzaileek ikuspegi bakar bat hartzen dute beren gogoeten oinarri gisa (gehienetan Europako hizkuntza nagusietako diskurtsoetan errotua), eta itzulpen-egoera guztietan aplikatzeko modukoa dela aldarrikatzen. Itzultzaileak jatorrizko lanari eta autoreari zor dien menpekotasuna da teoria horien guztien oinarrian dagoen beste uste sendo bat. Itzultzaileak ez du bere aztarnarik utzi behar itzultzen ari den testuan, ahalik eta ikusezinen jokatu behar du jatorrizko idazlearen lana modu “gardenean” emateko. Itzultzailea, beraz, bitartekari hutsa da, ez du inolako funtzio sortzailerik betetzen; kopiaitzaile edo imitatzaile hutsa denez, ez du inolaz ere testuan esku hartzeko eskubiderik.

Itzulpen-praktika errealean, ordea, teorizazio moderno horiek proposatzen dituzten irtenbideek ez dute hainbat eta hainbat kontraesan konpontzea lortzen. Edozein hizkuntza edo literaturatako itzulpenetan oro har, eta euskal literatura-sisteman nahiz Sarrionandiaren itzulpenetan bereziki, etengabe ageri zaizkigu anbiguotasunak, polisemiak, beste hizkuntza batzuen eragin edo aztarnak, botere-maila nahiz estatus desberdineko hizkuntzen arteko itzulpenetan sortzen diren paradoxak... Itzulpengintzaren diskurtso modernoko teoriak, beraz, ez digute balioko Sarrionandiaren itzulpenetako “arazoak” “konpontzeko”. Izan ere, ba ote dago benetako arazorik? Konponbide preskriptibo bat bilatzen saiatu beharrean, nahiago dugu Sarrionandiaren itzulpenak aztertu eta modu deskriptiboan azaltzea, itzultzaileak izaki sortzaile gisa itzuli dituen testuak nola berreraiki dituen erakustea, eta itzulpenaren definizio nahiz teoria zabalago, justuago eta errespetuzkoago bat osatzeko balio digutela frogatzea. Horixe da, hain zuzen ere, itzulpenaren teoria postmodernoei eskainiko digutena: itzulpenaren epistemologia modernoan “arazo” gisa ikusten ziren pluraltasuna, kontraesana, irekitasuna, aniztasuna eta beste hainbat kontzeptu ikuspegi desberdin batetik landu eta itzulpenaren izaera ireki, eraldatzaile eta ez-finkoa agerian jartzeko erabiltzea. Zentzu horretan, Sarrionandiaren pentsamenduan antzeman ditugun hainbat ideia, hala nola itzulpenaren eta sorkuntzaren arteko mugaren lausotasuna, literatura ororen izaera plurala edo itzultzailearen ahalmen eraldatzailea, itzulpenaren teoria postmodernoei uztargarriak direlakoan gaude.

1.3. ITZULPENGINTZAREN DISKURTSO POSTMODERNOA

Sarrionandiaren itzulpenak aztertzeko erabiliko ditugun itzulpenaren teoria postmodernoa aurkeztu baino lehen, postmodernismoaren eta postmodernitatearen nozio orokorrak arakatuko ditugu, jakintza-alor desberdinetan nola erabili diren ikusteko. Ondoren, eztabaida postmodernoa itzulpengintzaren diskurtsoan nola txertatzen den ikusiko dugu, itzulpenaren epistemologia postmodernoa zantzu gailenak nabarmenduz eta itzulpenaren teoria postmodernoa nola azaleratzen diren ikertuz.

1.3.1. EPISTEME POSTMODERNOA

Mundu postmodernoa bizi omen gara azken urteotan. Zer da, baina, mundu postmodernoa? Enpresa multinazionalen, komunikabide internazio-

nalez, etengabeko elkarreraginean diharduten merkatuez osatutako mundu globalizatu honetan, zibilizazioen, tradizioen, gizarteen nahiz kulturen arteko mugak desagertzen edo behinik behin ahultzen ari dira, eta garai batean elkarrengandik ondo berezita zeuden komunitateetako ohitura, bizimodu eta nortasunak ez dira gehiago leku horietako identitateen ikur berezi eta baktzat ikusten, nazioarteko edozein kontsumitzailearen eskura dauden aukera anitz gisa baizik. Italiako pizzak Txinan jan daitezke, Parisko perfumeak Ameriketara erosi, Bollywood-eko filmak Errusian ikusi, komiki japoniarrak munduko edozein herrikkatako kioskoan eskuratu, edo Interneten bidez munduaren beste aldean egiten ari diren jardunaldietan bideokonferentziaz zuzenean parte hartu. Edozein joera, edozein gustu, edozein moda da posible eta zilegi “Anything Goes” delakoa nagusi den gizarte postmodernoetan, sistema kapitalistari esker munduko edozein txokotako produktu eta korronteak eskuratu baitituzake erosmen-ahalmen nahikoa duen gizarte orok. Hango eta hemengo ideiak eta modak libreki hautatu eta nahi bezalako nahasketak egiteko aukera hori jotzen dute hainbat kritikariek postmodernismoaren muintzat. Mundu postmodernoak, baina, badu beste alderdi bat, erosmen-ahalmen nahikorik ez duten herrialde nahiz biztanleena, hain zuzen ere. Sistema kapitalistaren mailarik baxuenetan aurkitzen diren pertsonentzat, globalizazioak ez du aukera-aniztasuna esan nahi, segurtasun-galera eta menpekotasun handiagoa baizik. Era berean, kultura “indartsu” baten ondoan nahiz menpean bizi diren komunitate askok mehatxu gisa ikusten dute globalizazioa, mugak eta arauak desagertzearen ondorioz beren tradizio eta ohiturak arriskuan ikusten baitituzte. Mundu postmodernoaren muturreko bi ikuspegi horiek gatazkan daude gaur egungo gizarte askotan, eta pentsalari edo artista postmodernoaren egitekoa, beraz, egungo egoera berezi honen abantailak agerian jarri eta arriskuez ohartaraztea da (Malpas 2005: 1-3). Aurrerago ikusiko dugunez, beren burua arriskuan ikusten duten kultura edo komunitateetako artista askok joera postmodernoak erabili izan dituzte hain zuzen ere globalizazioaren arriskuei aurre egin eta beren nortasuna azpimarratzeko (nortasun plurala betiere, etengabe transformazioan dagoena, aurrerago zehaztuko dugun bezala).

Postmodernismoa modu erraz, argi eta labur batean definitzea ezinezkoa da. Izan ere, arlo erabat ezberdinetan erabiltzen den terminoa da, hala nola arkitekturan, urbanismoan, modan, musikan, ikusizko arteetan, literaturan, filosofian, zuzenbidean, ekologian edo itzulpengintzan. Ezinezkoa, inondik ere, arlo horietarako guztietarako balioko lukeen definizio bat ematea, Andreas Huyssen soziologoak 1980ko hamarkadan azpimarratzen zuen legez:

[...] the amorphous and politically volatile nature of postmodernism makes the phenomenon itself remarkably elusive and the definition of its boundaries exceedingly difficult, if not per se impossible (Huyssen 1986: 58-59).

Gainera, definizio zehatz eta mugatuak ematea arrazionalismoaren funtsezko elementu bat da, eta teoria postmodernoen ezaugarri komunetako bat, hain zuzen ere, arrazionalismoaren ikuspegi itxi hori salatzea da. Postmodernismoa nahiz postmodernitatea definitzen saiatu diren adituak ez dira inoiz bat etorri termino horiek zer izendatzen duten esatean. “Estetika berri” gisa (Hassan 1971, 1987), “egoera” gisa (Lyotard 1979), “kultura” gisa (Connor 1989), “aro” gisa (Baudrillard 1992, Vattimo 1985) nahiz “ilusio” gisa (Eagleton 1996) definitu izan da, besteak beste, postmodernismoa. “Postmodernismo” eta “postmodernitate” terminoen arteko gatazkari buruz, berriz, esan dezagun lehena estilo- eta adierazpide-kontuetarako erabili izan dela oro har, eta bigarrena, berriz, testuinguru kultural jakin bat edo aro historiko bat izendatzeko (Malpas 2005: 9).¹² Postmodernitatearen aldekoek argi samar bereizten dituzte artearen eta literaturaren bilakaeran izan diren garai desberdinak. Horrela, “postmodernitate” hitzaren lehen azalpenetako bat eskaintzen digun Arnold Toynbee-k, esaterako, lau alditan banatzen du gizateriaren historia: aro iluna (675-1075), erdi aroa (1075-1475), aro moderno (1475-1875) eta aro postmodernoa (1875-gaur arte) (Toynbee 1954). Beste autore batzuek, ordea, ez dute zilegitzat jotzen aro aurremodernoen, modernoaren eta postmodernoen arteko bereizketa. Izan ere, azken hamarkadotako aurrerapen teknologikoe eta nazioarteko harremanek merkatuak gidatutako garai berri bat markatzen duten arren, hainbat ideia modernok, baita hainbat ideia aurremodernok ere, oso sustraituta jarraitzen dute gizarte askotan. Itzulpengintzaren kasuan ere, aurreko atalean ikusi ahal izan dugunez, ideia modernoak eta postmodernoak elkarrekin ageri dira askotan garai berean, baita teoria beraren baitan ere, zenbaitetan. Hori dela eta, aro historiko gisa ulertzen den “postmodernitate” terminoa baztertu eta “postmodernismoa” erabiliko dugu; edo are, itzulpenaren teoria modernoak aztertzean egin dugun bezala, epistemeaz jardungo dugu. Horrela, gainera, errazagoa izango zaigu Euskal Herriko egoera aztertzea. Hainbat autorek zalantzan jartzen dute euskal literatura postmodernita-

¹² Postmodernismoaren eta postmodernitatearen arteko desberdintasunak ongi definitzen ditu, halaber, Gorka Mercero (2008: 277-278). “Postmodernista” eta “postmoderno” izenondoen arteko bereizketa, aldiz, arazotsuagoa da, autore gehienek ez baitute bien arteko desberdintasun sistematikorik egiten. Gaizki-ulertuak saiheste aldera, guk ere izenondo bakarra erabiliko dugu tesi honetan: postmoderno. “Modernista” eta “moderno” izenondoen kasuan ere, lehena baztertu eta bigarrena erabiliko dugu.

tera (alegia, garai postmodernora) iritsi ote den (ikusi 3.3. atala). Erantzun garbi bat ematea ezinezkoa denez, euskal literaturan eta itzulpengintzan egon litezkeen episteme postmodernoaren zantzuak bilatzera mugatuko gara.

Postmodernismoa definitzea ezinezkoa denez gero, ezinezkoa da halaber postmodernismoaren ezaugarriak zehaztea. Oro har, dena den, badago postmodernismo mota guztientzat balio duen baieztapen bat: modernismoaren aurkako erreakziotzat jo ditzakegu postmodernismoak;¹³ Hans Bertens-ek ongi laburbiltzen digu:

In their own way, they all seek to transcend what they see as the self-imposed limitations of modernism, which in its search for autonomy and purity or for timeless, representational, truth has subjected experience to unacceptable intellectualizations and reductions (Bertens 1995: 5).

Puntu honetan, ordea, arazo berberarekin egiten dugu topo: postmodernismo adina modernismo desberdin daude, eta diziplina akademiko bakoitzak “bere” modernismoari erantzunez garatzen du “bere” postmodernismoa. Hemen ere, dena den, saia gaitzke episteme postmodernoaren azpian aurkitzen diren ideiak laburbiltzen, aurreko atalean egin dugun bezala. Episteme modernoa positibismoan, humanismoan eta arrazionalismoan sustraitutako pentsaera gisa azaldu dugu, eta, beraz, episteme postmodernoak hiru diskurtso handi horien aurka ekiten duela baieztatu dezakegu.

Batetik, positibismoak aldarrikatzen duen ikuspegi bakar eta objektiboaren ideia ahultzen joango da pixkanaka XX. mendearen lehen laurdenean, batez ere zientzietan egindako aurkikuntzei esker. Albert Einstein-en erlatibitatearen teoriak, Werner Heisenberg-en ziurgabetasunaren printzipioak eta Kurt Gödel-en osagabetasunaren teorema zalantzan jarri zuten ikuspegi objektibo eta neutroaren ideia, eta ziurgabetasuna eta zalantza hasi ziren nagusitzen. Arteetan ere antzera gertatu zen; objektibotasuna lortzea ezinezkoa zela gero eta nabariagoa zen diziplina artistiko gehienetan, James Joyce-k literaturan eta Pablo Picasso-k pinturan erakutsi zuten bezala, adibidez. Ludwig Wittgenstein filosofoak ere positibismoaren zilegitasuna kolokan jarri zuten

¹³ Dena den, esan beharra dago erreakzio horiek ez direla erabatekoak, postmodernitatearen hein handi batean, modernitatearen bilakaeratzat jo baitaiteke. Hori dela eta, hainbat autorek nahiago du postmodernitate terminoa baztertu eta modernitate berantiarraz hitz egin. Guk, tesi honetan, terminologia sinpletze eta errazte aldera, postmodernitateaz eta postmodernismoaz jardungo dugu, kontuan izanik beti ere postmodernismoaren ideia askok modernismoan dituztela erroak.

adibide eta argumentuak bildu zituen bere *Philosophische Untersuchungen* (1953) lanean, giza komunitateen ohiturak, ikuspegi-aniztasuna, bizimoduen neurtezintasuna nahiz giza komunikazioaren zailtasun eta arbitrariotasuna bezalako gaiak jorratzean. Horrela, XX. mendearen erdialderako, positibismoak galduta zuen aurreko mendean jakintzaren ekoizpenaren oinarri gisa izan zuen indarra.

Positibismoa bezala, modernismoaren proiektu humanista ere sinesgarritasuna galtzen joango da pixkanaka. Aurrerapen teknologikoaren eta emantzipazio sozialaren bidez zibilizazio hobea bat lortuko dela hitz ematen duen proiektu modernoak, izan ere, ez baitu lortu bi mundu gerrak saihestea, ezta Mendebaldeko zenbait sistema ekonomikoren porrotari irtenbidea aurkitzea ere.

Azkenik, arrazionalismoan jarritako itxaropena ere itzaltzen joango da. Izan ere, ideologia humanista liberalean subjektua bere pentsamenduaren eta bere ekintzen jauna eta jabe zela eta egia giza arazoaren bidez ezagutu zitekeela uste bazen, diskurtso postmodernoez zalantzan jarriko dute subjektuak egia hautemateko duen gaitasuna. Sigmund Freud psikoanalistaren esperimentuek, esate baterako, subjektuaren iritzi eta ekintzak neurri handi batean bere esku ez dagoen dinamika inkontziente baten menpe daudela erakutsi zuten. Aurkikuntza hauekin, beraz, kritika egingo zaio modernismoan nagusi zen enpirismoari. Hemendik aurrera argi geratuko da jakintza ezin dela errealitatearekiko zuzeneko esperientziaren bidez eskuratu. XX. mendearen bigarren erditik aurrera, beraz, giza eta gizarte-zientziek utzi egingo diote pixkanaka gertaera behagarriak hauteman eta biltzeari, eta horren ordeztuaz ikerketetan erabiltzen diren ikuspuntu eta esparru kontzeptualak aztertzeari ekingo diote, lortuko diren emaitzak metodologiaren eta ikuspuntuaren arabera izango direla onartuz.

1.3.1.1. Postmodernismo motak

Ikusi dugu postmodernismoa ezin dela zerbait itxi gisa definitu eta, ondorioz, kontzeptu horren baitan mugimendu, joera edo teoria asko bil daitezkeela. Hans Bertens, *The Idea of the Postmodern* (1995) izeneko liburuan, 1950eko hamarkadatik 1990eko hamarkadara arte postmodernismoaren inguruan garatutako eztabaida laburbiltzen saiatzen da, eta hiru postmodernismo mota bereizten ditu.

Lehenengo postmodernismo mota 1950eko hamarkadan sortu eta 1960ko hamarkadan indarra hartzen hasi zen kontrakulturaren jarrera litzateke, edo

abangoardia sozial eta artistikoetan agertu zen sentsibilitate berria. Oso mugimendu eklektikoa da, guztiz demokratikoa, eta humanismo liberalaren izaera errepresibo eta eksklusibistaren aurka jotzen du (Bertens 1995: 5). Zentzu horretan, postmodernismo antimoderno gisa deskriba daiteke, diskurtso modernoaren mugak gainditzeko ahalegina egiten baitu, batez ere “pop art” delakoaren bitartez. Arte modernoaren xede nagusi ziren purutasunaren eta autonomia estetikoaren aurrean, arte postmodernoa praktika sozial gisa ulertzen da, eta eguneroko bizitzako elementu eta gertaeretatik hartzen ditu bere gaiak. Ondorioz, modernismoan aldarrikatzen zen artearen estatus berezi, elitista, unibertsal eta intemporal hankaz gora jartzen du jarrera antimoderno honek, eta edonoren esku jartzen du ordura arte elite mugatu baten esku egon den artea (Boulanger 2002: 10).

Bertensek deskribatzen duen bigarren postmodernismo mota postestrukturalista da, eta bi etapatan gauzatzen da. Lehen etapa 1970eko hamarkadan garatutako postmodernismo dekonstrukzionista litzateke, eta bigarrena, berriaz, 1980ko hamarkadako postmodernismo foucaultarra. Lehen etapan Roland Barthes eta Jacques Derrida filosofo frantsesen ideia dekonstrukzionistak dira nagusi. Korrante honen joera erabat linguistikoa da, testuala. Postestrukturalismoak bezala, postmodernismo mota honek baztertu egiten du hizkuntzak errealitatea irudika dezakeela dioen ideia empirikoa; ukatu egiten da, beraz, munduko objektuak hizkuntzan islatzen direnik eta hizkuntzari esker mundu erreal hori hauteman dezakegunik. Derridak adierazi transzendentalik ez dagoela frogatzeko egindako lanen haritik, testuartekotasuna eta esanahien etengabeko elkarreagina azpimarratzen dira, eta testua askotariko kultura-guneetatik ateratako ehun gisa deskribatzen da, Roland Barthesek 1968ko “La mort de l’auteur” artikulua entzutetsuan (1984a) agertu bezala (Bertens 1995: 5-7). Postmodernismo dekonstrukzionista honek harrera ona izan zuen Estatu Batuetako Yale unibertsitatean kritika literarioan ziharduten adituen artean, besteak beste Paul de Man, Geoffrey Hartman, J. Hillis Miller eta Harold Bloom¹⁴ irakasleengan. Pentsalari horiek agerian jarri nahi izan zuten komunitate akademikoan nagusi ziren teoria literarioen eta literaturaren kon-

¹⁴ Harold Bloom dekonstrukzioarekin lotu izan den arren, esan beharra dago berak ez zuela bere burua inoiz dekonstrukzionista bezala aurkeztu, eta mugimendu hark berarengan nolabaiteko eragina izan bazuen ere, laster aldendu zela dekonstrukzioaren eskolatik. Autore hau postmodernismoaren barruan sailkatzea ere eztabaidagarria gertatzen da oso, korrante modernistekin lotuagoa egon baita beti postmodernistekin baino. Halere, Sarrionandiak Bloomingandik hartu izan dituen ideiak (aurreko idazleei erantzun beharra, intertestualitatearen ezinbestekotasuna...) teoria dekonstrukzionista eta postmodernoeekin bat datozenez, korrante horien barruan aztertuko dugu haren lana.

tzepzio finko bat ezartzen zuen autoritate moral edo filosofikoaren arteko lotura. Hizkuntzalaritzaren munduan garatutako postmodernismo hau berehala zabaldu zen gero gainerako arte eta giza zientzietara, non lehenagotik onartutako ideiak berrikusteari ekin zitzaion (Boulanger 2002: 11-12).

Postmodernismo postestrukturalista honen bigarren etapa Foucaulten eta maila apalago batean Lacan-en lanetatik eratorri zen. Hemen ere testualtasuna, zeinuak, eta hizkuntzak errealitatea irudikatze duen gaitasun mugatua azpimarratzen dira, baina horretaz gain arreta berezia jartzen da boterearen eta subjektuaren azterketan. Foucaultek frogatzen duen legez, jakintza, positibistek neutral eta objektibotzat jotzen zuten jakintza, boterearekin lotuta dago halaberharrez, eta, ondorioz, susmagarria da. Postmodernismo mota honek agerian jarri nahi du inguratzen gaituzten diskurtsoen baitan ezkututzen den boterea, eta zalantzan jartzen du diskurtso horiek sostengatzen dituzten —eta aldi berean diskurtso horien sostengua duten— instituzioen zilegitasuna. Hierarkia instituzionalizatuak desegiten ahalegintzen da, sistema diskurtsibo bakar baten hegemoniaren aurka jarduten du, eta diferentziaren, forma-aniztasunaren eta dibertsitatearen alde borrokatzen da. Zentzu horretan, arreta berezia jartzen du subjektu liberal humanistaren —subjektu zuri, ar, heterosexual eta arrazionalaren— ikuspuntutik “Bestea” osatzen duten horiengan —emakumeengan, beltzengan, homosexualengan nahiz haurren, besteak beste—. Foucault, Lacan, Deleuze eta Guattari irakasleek subjektuaren azterketaz idatzitako lanen haritik, objekturik eta testuingururik gabe subjekturik ez dagoela baieztatzen da, eta gizakiak diskurtsoz, hau da, hizkuntzaz osatuta daudela eta identitate finkorik ez dutela azpimarratzen da. Postmodernismo foucaultar honek eragin demokratizatzaile handia izan zuen 1980ko hamarkadan instituzio kulturalen baitan eta giza zientzietan oro har. Postmodernismo mota honi esker jarri ziren harremanetan postmodernismoa eta gaur egun postmodernismoaren baitan aztertzen diren feminismoa eta kultura-aniztasuna (Bertens 1995: 7-8).

Hain zuzen ere bestelako arloetara egindako zabaltze horrekin lotuko genuke Bertensek aipatzen duen hirugarren postmodernismo mota. Dekonstrukzioa eta postestrukturalismoa lan eta azterketa testualetara mugatzen zirenez, 1980ko hamarkadan puri-purian zeuden beste hainbat arazo sozio-kultural aztertzeko, beharrezko ikusi zen filosofia honen izaera mugatua bestelako arloetara ere hedatzea. Horrela, postmodernismoaren proposamenak etnologian, soziologian, gizarte-geografian, hirigintzan, ekonomian, zuzenbidean eta beste hainbat diziplinatan baliatzen hasi ziren. Hitz, testu nahiz teoria batek “berezko” zentzurik ez duela eta aitzitik zentzu hori etengabe

egiten eta berregiten dela frogatu zuten dekonstrukzionisten lanetatik abiatuz, diziplina desberdinetako ikertzaileak nor bere arloko oinarrizko testuak berri-
 rakurtzen, berrinterpretatzen, berridazten eta berritzultzen hasi ziren. Horre-
 gegatik deritzo Pier-Pascale Boulangerrek “berreraikuntzazkoa” postmoder-
 nismo mota honi (“reconstructionniste”, Boulanger 2002: 15).

1.3.1.2. Postmodernismoen ildo nagusiak

Postmodernismoaren definizio itxi bat ematea ezinezkoa gertatu zaigun bezala, postmodernismoaren ezaugarriak banan-banan zerrendatzea ere ezin gauzatzuko lana da, postmodernismo mota bakoitzak nolakotasun eta adie-
 razpide desberdinak garatu baititu, hain desberdinak, non sarri elkarri kon-
 trajarrita ageri baitira. Adibide bat aipatzearren, aldera ditzagun arte postmo-
 derno eta literatura postmoderno. Lehenengoa elementu narratiboen berreskurapenak ezaugarrituko luke; izan ere, pintura eta arkitektura moder-
 noek beren buruak beste diziplina kulturaletatik —eremu literariotik batez
 ere— bereiztearren, narratiba orori uko egin zioten, pinturarenak eta arteare-
 nak soilik ziren elementu formaletara mugatuz eta purutasun burujabe bate-
 ra hurbilduz.¹⁵ Arte postmoderno, beraz, arte modernoak ukatutako narra-
 tiba piktoriko horretara itzultzen da, historiaren eta arte herrikoiaren osagaiak
 berriro ere bere egin arte. Literatura postmodernoak, aldiz, alderantzizko joe-
 ra erakutsi du maiz, alegia, estetika autonomo baten bilaketa, formalismo
 hutserako hurbilketa eta genero narratiboa literatura modernoak ezarritako
 parametro zurrunetatik askatzeko eta bestelako generoekiko mugak hausteko
 nahia.

Postmodernismoa egungo bizimoduaren eremu guztietan ageri zaigun mugimendua denez, beraz, ezinezkoa da ezaugarri edo arau zerrenda simple baten bidez deskribatzea. Nolanahi ere den, azken lau hamarkadotan gara-
 tzen joan diren diskurtso berriak bultzatu dituen episteme postmodernoak
 baditu postmodernismo mota guztietan erreplikatzeko diren ildo nagusi ba-
 tzuk. Hurrengo azpiataletan, beraz, ildo nagusi horiek azaltzen saiatuko
 gara, ongi jakinik guk deskribatuko ditugun ildoez gain beste hainbat eta
 hainbat ere aipa litezkeela, eta eskaintzen dugun deskribapena subjektiboa
 dela ezinbestean.

¹⁵ “[T]he aim of modernism is to seek out the limits that define art in order to discover art’s essential principles and differentiate it from other areas of culture” (Malpas 2005: 18).

1.3.1.2.1. Pluraltasuna

Postmodernismoa modu itxi batean deskribatzeko ezintasunak agerian jartzen duen lehenengo gauza mugimendu honen pluraltasuna da. Ikusi dugu jadanik diziplina bakoitzak postmodernismoaren definizio desberdin bat ematen duela, eta aurrerago aztertuko ditugun itzulpenaren teoria postmodernoen ugaritasunak ere izaera plural hori azpimarratzen du. Horixe da, hain zuzen ere, gaur egungo itzulpen-teoriaren bereizgarri eta aldi berean paradoxa nagusia, definizio bakar bat lortzeko ezintasuna, alegia, Maria Tymoczko gogorazten digunez: “Translation studies has been expanding for the last half century [...]. More and more perspectives have been opened; fewer and fewer facts or certainties have resulted” (Tymoczko 2007: 51). Izan ere, itzulpena kontzeptu ireki eta plurala da, eta ez du definizio itxi eta bakarrik onartzen itzulpenaren epistemologia postmodernoa.

Postmodernismoek agerian jartzen duten beste errealitate bat Mendebaldeko zibilizazioaren —eta baita beste edozein zibilizazioen— pluraltasuna da. Lévi-Strauss-ek Mendebaldeko zibilizazioa kultura desberdinen multzo bat besterik ez dela erakutsi zuenetik, agerian geratu da balore unibertsalik ez dagoela, eta aniztasuna eta pluraltasuna direla nagusi nonahi. Gaur egungo gizarte eleanitz eta kulturantzei begiratzea besterik ez dago, hizkuntza edo kultura “puru” edo itxirik ez dagoela ohartzeko. Horixe da, hain zuzen ere, aurrerago aztertuko dugun itzulpenaren teoria polisistemistak agerian jarri nahi duena; alegia, hizkuntzak eta kulturak ez direla homogeneoak, faktore historiko, sozial, ekonomiko eta ideologikoetan zatituta dauden sistemak baizik, inguruko beste sistemekin elkarreragin etengabe koan dauden egitura irekiak. Horregatik darabilte “polisistema” kontzeptua Even-Zohar-ek eta Toury-k azpisistemaz osatuta eta geruza askotan banatuta dauden sistema plural horiek izendatzeko.

Hizkuntzak eta kulturak bezala, gizabanakoa ere guztiz plurala da bere baitan. Sigmund Freuden psikoanalisiak adierazi zuenetik subjektuaren nortasuna zerak, niak eta superniak osatzen dutela, zentzugabea gertatzen da giza identitatearen pluraltasuna ukatzea. Subjektuak bere inguru sozialarekin elkarreraginean gauzatzen du bere nortasuna, etengabe aldatuz, osatuz, bilakatuz, birdefinituz. Giza identitatea egitura zatikatua da, ez finkoa, eta inguratzen duen kulturako aldaketa politikoaren menpe dago ezinbestean.¹⁶

¹⁶ Joseba Sarrionandiaren hitzak ere ildo honetakoak dira: “Identitate indibiduala «identitate soziala da», zentzu guztietan. Identitate edo nortasun indibidual horrek forma kolektiboak

1.3.1.2.2. Mugarik eza

Episteme postmodernoarekin pluraltasunarekin estuki lotutako beste bereizgarri bat mugekin desagertzea gertatu da. Modernismoan diziplina akademiko nahiz arte eremu guztiak bata bestearengandik ongi bereizita aurkitzen baziren, pentsamendu postmodernoan gero eta nabariagoak izango dira filosofia-aren, artearen, soziologiaren, politikaren, psikologiaren eta beste hainbat arlo-aren arteko nahasketa eta elkarreragina. Itzulpengintzari dagokionez, gaur egungo teoriak argi erakusten digute itzulpena ez dela diziplina bakar baten barruan azter daitekeen zerbait, jakintzagai hau hizkuntzalaritzaren muga her-atsien barruan deskribatzeko teoria tradizionalak egindako saiakeren porrotak agerian jarri duen bezala. Azken hamarkadotan gero eta ugariagoak izan dira itzulpengintzaren eta bestelako giza zientzien arteko hartu-emanak, eta itzulpen-teoria filosofiaz, diskurtsoaren analiziaz, ikasketa kulturalaz, postkolonia- lismoaz, feminismoaz edota soziologiaz baliatu den bezala, diziplina horietako askok ere itzulpen-teoriara jo dute beren gogoetak sakontzeko.

Diziplinen arteko mugak desagertu diren bezala, literaturako generoen arteko mugak ere gero eta lausoagoak dira dinamika postmodernoan. Sarrionandiarren itzulpenen artean aztertuko dugun Fernando Pessoa portugaldar idazlearen *O marinheiro* “drama estatikoa”, esate baterako, “ez da erabat kabiz-zen literatura sailkatzeko usatu ohi diren zakuetarik batetan”, Sarrionandiak berak adierazten digunez:

Teatroa da, baina egitura arras berezikoa, gertaerarik gabea; poesia moldekoa ez bada, hagitz poetikoa da; narrazioa ere bada, narrazioaren antsia dario behin- zat; eta filosofia tratatua ez bada, gogoeta metafisikoa besterik ez da lehen arna- setik azken silabara arte (Sarrionandia 1985: 9).

Testu pluralak dira nagusi literatura postmodernoan, eta ohikoa da genero, ahots eta estilo desberdinak testu berean elkarrekin nahastuta agertzea. Osota- sun koherente bat gorde beharrean, testu postmodernoak erabat zatikatuta age- ri zaizkigu askotan, etengabe kontraesanean dauden ahots anitzez osatuta.

Episteme postmodernoan zalantzan jarriko den beste muga bat subjektua- ren eta objektuaren artekoa da. Ikuspegi modernoan subjektua eta objektua

hartzten ditu; baina alderantziz ere esan daiteke. Pertsonaren izaera ez da jarauntsia eta kolekti- boa soilik, aukera pertsonalen ondorio ere bada. Pertsona ez da unidimentsionala, bakoitzak hainbat izaera du: linguistikoa, sexuala, erlijiosoa, soziala eta dena delakoa nahasten da edono- ren nortasunaren labirintoan” (Sarrionandia 2010b: 377).

ondo bereizitako bi entitate baldin baziren, dinamika postmodernoan ezinezkotzat jotzen da halako bereizketa errotikorik egitea, eta era berean ukatu egiten da positibismoak aldarrikatzen zuen objektibotasuna. Antropologian, esate baterako, zalantzan jartzen da behatzailearen eta behatuaren arteko bereizketa; antropologia tradizionalan behatua objektutzat hartzen zen, behatzaile edo subjektuak ikusi eta aztertzen zuen “Bestetzat”. Pixkanaka, ordea, antropologoak ohartzen hasten dira subjektuak ezin duela saihestu behatzen duen objektuak bere deskribapenean izango duen eragina, eta, ondorioz, ezinezkoa dela objektiboa, neutroa, deskriptiboa izatea. Zientzia hutsak deiturikoetan, berriz, argi ikusi da aztergaiak azterketa-baldintza jakin batzuen menpean jartzean, subjektuak bere objektuaren jokabidea halabeharrez aldatzen duela.¹⁷ Itzulpengintzan ere antzera gertatzen da: subjektuak (itzultzaileak) eragin handia du objektuan (testuan), bere modura interpretatu eta itzultzen baitu, itzulpenean bere marka pertsonala utziz. Baina era berean, testu itzuliak ere izugarritzko eragina du subjektu edo itzultzailearengan, bere hizkera, mundu-ikuskera edo irakurketa-ohiturak alda baititzake.

Objektuak objektiboki deskribatu edo interpretatzeko ezintasunak, beraz, kolokan jarriko du halaber egiaren eta gezurraren arteko bereizketa, edo beste modu batera esanda, errealitatearen eta fikzioaren arteko muga. Errealitatearik ez dagoela onartuko dute, esate baterako, idazle postmodernoek, eta dena fikzioa dela, Sarrionandiak ere behin baino gehiagotan gogorarazi digunez: “Froga eta ziurtasunen ordeztu, hipotesi probisionalak daude eta egia metaforikoa da” (Sarrionandia 2006a: 182).

1.3.1.2.3. Errealitatea irudikatzeko ezintasuna

Errealitate objektiborik ez badago, ez pinturak, ez literaturak, ez beste ezin arte motak ezin izango du errealitatea islatu edo irudikatu. Hau da, hain zuzen ere, Hans Bertensek “crisis in representation” gisa deskribatzen duen eta postmodernismo guztietan ikusten duen bereizgarria: “a deeply felt loss of faith in our ability to represent the real, in the widest sense” (Bertens 1995: 11). Gure errealitatea osatzen zuten irudikapenak (estetikoak, epistemologikoak, moralak nahiz politikoak) ez direla berezkoak ohartu dira artista eta ikertzaile postmodernoak, eta irudikapen mota guztiak eraikiak, eta beraz, po-

¹⁷ Subjektuaren eta objektuaren arteko elkarreragin hori iradokitzen du Sarrionandiak *Hitzen ondoezako* “Gauzak” sarreran: “Gauzak, diren bezala ikusi beharrean, garen bezala ikusten ditugu” (Sarrionandia 1997: 345).

litikoak direla erakutsi dute. Episteme postmodernoan irudikapenek ez dute errealitatea islatzen; aitzitik, irudikapenak berak dira errealitatea sortu edo eraikitzen dutenak.¹⁸ Esate baterako, modernismoan giza aurrerapenaren istorio unibertsal eta benetako gisa ikusten zen Historia eraikitako kontaketa bat besterik ez dela erakusten dute idazle postmoderneok. Gertaera historikoek ez dute “berezko” esanahirik; aitzitik, gertaera horiek deskribatu eta lotuz narrazio historikoak eraikitzeko erabili diren moduek sortzen dituzte esanahiak. Historialari postmodernoaren egitekoa, beraz, “is not simply to make up new stories but to interrogate the universal assumptions of our contemporary power structures, to challenge their explanatory schemes and make room for different voices to emerge” (Malpas 2005: 99). Bide horretatik ekingo diote idazle feminista eta postkolonialek, besteak beste, emakumeak eta herri ez-europarrak baztertu dituzten iraganaren kontaketa tradizionalak salatu eta horien ordezeko narrazio berriak idazteari.

1.3.1.2.4. *Kulturaren dekanonizazioa*

Episteme postmodernoaren beste ildo nagusi bat kulturaren dekanonizazioa du, edo artearen demokratizazioa. Andreas Huyssenek argi erakutsi duenez, goi-kulturaren eta masa-kulturaren arteko “Great Divide” edo bereizketa handia deuseztatzea izan da postmodernismoen ekarpen nagusietako bat (Huyssen 1986). Tradizionalki artistikotzat jo izan diren forma nahiz teknikak artearen mundutik baztertuta egon izan diren artisauen ekoizpenekin uztartzen ditu arte postmodernoak, arte modernoak bere burua beste eremuetatik bereizteko ezarri nahi izan zituen mugak gaindituz horrela. Ameriketako “pop art” delakoa ahalegin horien emaitza genuke. Andy Warhol artista amerikarrak, adibidez, kontsumo-kulturako objektuak eta publizitatearen baliabideak txertatzen ditu bere artelanetan, arte “serioko” eta eguneroko bizimodu komertzialeko elementuak lan berean elkartu nahian. Goi-kultura eta kultura herrikoia uztartzearekin estetika herrikoitu

¹⁸ Sarrionandiarenean ere antzeko gogoetak aurkitu ditugu: “Poetak badaki ezin duela errealitatearen bere esperientzia baino islatu ahal, eta esperientzia hau ere galbahe ugari iraganda gero bakarrik, bere gogoaren hutsuneekin, bere lengoaiaren akatsekin eta poemagintzako desfigurazioekin. Galbahe hauek pasaturik, poesiaren objektua errealitatea bada ere, poeman ez da benetako errealitatea islatzen, baizik eta errealitate poetikoa, poesian bertan kreaturiko beste errealitate hori. / Poesia, orduan, ez da batik bat errealitatearen imitazio edo *mimesia*, baizik eta errealitatearen krazioa, hau da, *poesia*. Munduaren imitazioa ez ezik, mundu krazioa ere bada poesia” (Sarrionandia 2006a: 174).

egiten da, artea komertzializatu, eta artearen eta publizitatearen arteko banaketa tradizionala lausotu; horrela, Fredric Jameson-ek “new postmodern aesthetics” deritzona nagusitzen da gizartean: “What has happened is that aesthetic production today has become integrated into commodity production generally” (Jameson 1991: 4).

1.3.1.2.5. *Zalantza, ziurgabetasuna*

Goi-kulturaren eta kultura herrikoiaren arteko muga, artearen eta publizitatearen artekoa, errealitatearen eta fikzioaren artekoa gero eta ahulagoak baldin badira, eta orain arteko narrazio historikoak nahiz bestelako irudikapenak eraikuntza hutsak baldin badira, subjektu postmodernoak gero eta ziurtasun gutxiago du bizitzaren zentzuaren inguruan, munduak berezko zentzurik ez duela eta zentzu hori gizabanako eta taldeen proiektuen bidez eraikitzen dela ohartzen delako.

Gizaki postmodernoak inguratzen duen guztiaz egiten du zalantza; bere kontzientziak galdua du errealitatea eta fikzioa bereizteko ahalmena, eta pixkanaka azken horretan murgiltzen da oharkabean, eta, errealitatean bizi beharrean, “hiper-errealitatean” mugitzen da. Hiper-errealitatea, Jean Baudrillard-ek azaltzen digunez, ez da irrealitatea, kultura berri bat baizik, non hedabideen, filmen, ordenagailuen eta teknologia berrien sorkuntza fantastikoak orain arte nagusi izan diren errealitate natural edo espiritualak baino errealagoak zaizkigun (Baudrillard 1981).

Episteme modernoan jakintza erreal eta ziur bat bazegoela eta gizakiak arrazoiaren bidez jakintza hori beregana zezakeela sinesten bazen, episteme postmodernoan zalantzan jartzen da jakintza oro. Zalantza edo ziurgabetasun horrek, baina, badu bere alde ona: jakintza berri oro zalantzan jarritz, arazo berriak planteatzen dira etengabe, eta jakintza berriak aurkitzen edo sortzen dira. Zalantza da jakintzaren berrikuntzaren ezinbesteko baldintza; izan ere, zalantza egiteari utzi orduko, bilatzeari ere uzten diogu.¹⁹

¹⁹ Hori kontuan izanik idazten du Sarrionandiak: “Edozein gai tratatzerakoan beharrezkoa da zalantzaren erreferentzia hori. Zalantzak irekitasuna esan nahi du. Egia etiko edo estetikoak iadanik aurkitu eta ezagutzen delako kriterioa antzua da. [...] Literaturak mundua, gizartea eta norbere burua interrogatzen du, bizi dugun erdilan esistentzial eta historikoaren zentzuaz galdetzen du, erantzun bukatuak eman gabe, non eta erantzunak ere galdera berri diren” (Sarrionandia 1989: 30-31).

1.3.2. POSTMODERNISMOA ETA ITZULPENGINTZA

Atal honen lehen zatian itzulpenaren epistemologia postmodernoa aztertuko dugu. Horretarako, 1.2.2. atalean zerrendatu ditugun itzulpenaren epistemologia modernoaren ideia eta printzipioez baliatuko gara, epistemologia postmodernoak printzipio horien aurka nola egiten duen erakusteko. Bigarren zatian, berriz, itzulpenaren teoria postmodernoak aztertuko ditugu, eta episteme postmodernoa nola islatzen duten erakusten ahaleginduko gara.

1.3.2.1. *Itzulpenaren epistemologia postmodernoa*

1.3.2.1.1. *Itzulpena, lehen mailako jarduera*

Itzulpengintza, modernismoan, hizkuntzalaritzaren edo estilistika konparatuaren azpiatal huts gisa aztertzen bazen, itzulpenaren teoria postmodernoen garapenarekin, diziplina beregain bihurtzen joango da, batez ere 1980ko hamarkadan “Translation Studies” direlakoak indarra hartzen hasten direnetik. Horrek ez du esan nahi, ordea, hizkuntzalaritzatik edota bestelako jakintza-alorretatik erabat bereizi eta alor horiekin inolako loturarik mantendu gabe garatu denik, alderantziz baizik: postmodernismoan nagusi den interdiziplinaritateak itzulpengintzan ere izan du bere eragina, jadanik azaldu dugun moduan.

Bestalde, modernismoan nagusi zen hizkuntzaren ikuspegi saussuriarra, hizketa lehenetsi eta idazketa (eta beraz, baita itzulpena ere) bigarren mailako transkribapen-teknika hustzat jotzen zuen “logozentrismo” edo “fonozentrismoa” (Derridaren hitzetan), zalantzan jartzen da itzulpenaren epistemologia postmodernoan, eta zeinu guztiek, hizketaren nahiz idazketaren zeinuek, esanahia osatzen duen zeinu-sistema edo sarearen barruan maila berean parte hartzen dutela erakusten da. Derrida are urrunago joango da, eta esanahiaren egitura bereziki idazketarekin lotutako ezaugarrien menpe dagoela baieztatuko du.²⁰

²⁰ “Si « écriture » signifie inscription et d’abord institution durable d’un signe (et c’est le seul noyau irréductible du concept d’écriture), l’écriture en général couvre tout le champ des signes linguistiques. Dans ce champ peut apparaître ensuite une certaine espèce de signifiants institués, « graphiques » au sens étroit et dérivé de ce mot, réglés par un certain rapport à d’autres signifiants institués, donc « écrits » même s’ils sont « phoniques »” (Derrida 1967: 65).

Idazketaren hizketarekiko menpekotasuna bezala, itzulpenaren jatorrizkoarekiko menpekotasuna ere zalantzan jarriko dute itzulpenaren teoria post-modernoek. Dekonstrukzioak, esate baterako, episteme modernoak mantentzen zuen hierarkia irauli eta jatorrizko testua itzulpenaren menpe dagoela aldarrikatuko du; itzulpenik gabe jatorrizko testuak existitzeari uzten diola; testu baten zentzua jatorrizkoan ez, baizik eta itzulpenean bilatu behar dela; jatorrizkoak ez duela identitate finkorik, eta itzulpen bakoitzean birmoldatu eta birdefinitzen dela. Foucault, Derrida, Barthes eta beste hainbat dekonstrukzionistarentzat eredu bihurtu zen —eta, esan dezagun bide batez, Sarrionandiak eta Pott bandak hainbeste miresten zuten— Jorge Luis Borges idazle argentinarra, esate baterako, idazle bakoitzak bere aitzindariak sortzen dituela aldarrikatua zuen 1951rako, T. S. Eliot-en hitzei erreferentzia eginez: “El hecho es que cada escritor crea a sus precursores. Su labor modifica nuestra concepción del pasado, como ha de modificar el futuro” (Borges 1953: 148). Eta are urrunago joanez, originala itzulpenarekiko desleiala izan daitekeela onartzen zuen: “All the foregoing books I read in English. When later I read *Don Quixote* in the original, it sounded like a bad translation to me” (Borges 1970: 209).

Jatorrizko edo originalik ez dago itzulpenaren epistemologia postmodernoan, eta, beraz, dena da kopia. Edota alderantziz, ez dago kopiarik, eta dena da originala. Nolanahi ere den, jatorrizkoaren eta itzulpenaren arteko dikotomia desagertu egiten da, eta dena bihurtzen da kopiaren kopia, itzulpenaren itzulpen edo “literaturaren literatura” (Sarrionandia 1981: 6).

1.3.2.1.2. *Itzulpenaren funtzio sortzailea*

Modernismoaren arabera, idazketaren egitekoa hizketa modu gardenean erreproduzitzea den bezala, itzulpenaren egitekoa jatorrizkoaren zentzua inolako manipulaziorik gabe hizkuntza batetik bestera aldatzea da. Itzulpenaren epistemologia postmodernoak, aldiz, agerian jarriko du egiteko horren ezinezkotasuna, eta edozein itzulpenetan nahitaez gauzatzen den sortkuntza-lana azpimarratuko du. Ikuspegi modernoan, jakintza transmititzea da itzulpenaren zeregin bakarra, elkar ulertzen ez duten hizkuntza-komunitateak harremanetan jartzea. Proiektu humanista horretan, beraz, jakintza itzulpenaren aurretik dator beti. Itzultzaileak, itzultzen hasi aurretik, ezin hobeto “jakin” edo ezagutu behar ditu bi hizkuntzak eta kulturak. Itzulpenaren epistemologia postmodernoan, ordea, jakintza ez da itzulpenaren aurretik existitzen zen eduki itxi eta osoa, itzulpenaren bidez gauzatu eta osa-

tzen den zer bait baizik. Maria Tymoczko testuinguru postkolonialetako itzulpenari buruz dioen bezala,

the work of translator has a fundamental epistemological dimension. [...] Translation does not merely reflect existing knowledge: it can precede knowledge and create knowledge. Translation is a translator's mode of discovery used to create, construct, or amass knowledge [...] (Tymoczko 2007: 197).

Modernismoko itzulpenaren funtzio instrumentalistaren aurrean, beraz, itzulpen postmoderno sorkuntza-, jakintza- eta ezagutza-bide bezala ulertzen da.

Ikuspegi aldaketa horri esker, ikuspuntu positibo batek ordezkaturiko du itzulpenak tradizionalki izan duen balio negatiboa (itzulpena imitazio txarra da, kopia inperfektua, artifiziala, arriskutsua...), eta itzulpenean gertaturiko "galerak" salatu beharrean, itzulpena den transformazio horretan izandako irabaziak baloratzeari ekingo zaio. Bide horretatik, modernismoan gertaera lazgarritzat jotzen zen Babelgo dorrearen mitoa ikuspegi positiboago batetik irakurriko du Derridak, eta aniztasun eta nahasketa linguistikoaren aberastasuna goratzeko erabiliko du.

1.3.2.1.3. Itzulpena "transformazio", "berridazketa" edo "errebisio" gisa

Itzulpenaren teoria postmoderno gehienek salatzen dute itzulpenaren epistemologia modernoan "arazo" gisa ikusten diren hainbat eta hainbat kontraesan itzulpenaren definizio mendebaldarraren murrizkeriak eragin dituela. Izan ere, itzulpenaren teoria tradizioaletan, hizkuntza batean idatzitako testu bat beste hizkuntza batera transladatzea da itzulpena. Definizio horretako kontzeptuak, ordea, guztiz problematikoak dira; "hizkuntza" edo "testu" nozioak berak, urrunago joan gabe, ez dira definitzen batere errazak. Zer esan nahi du "hizkuntza" hitzak? Komunikazio-sistema guztiak dira hizkuntzak? Eta animalien arteko komunikazioa? Kode artistikoak hizkuntza-formak dira? Modu mugatuago batean, hizkuntza gizakien ahozko komunikazio-sistema kontziente gisa definituta ere, hamaika galdera gelditzen dira zintzilik: non daude hizkuntzen arteko mugak? Nola bereizi hizkuntzak eta dialektoak? Nola jakin, hizkuntzen eboluzio historikoan, noiz utzi dion dialekto batek hizkuntza baten adar izateari, hizkuntza desberdin gisa garatzen hasteko? Testuaren definizioari dagokionez ere beste hainbeste galdera egin genitzake. Zer da testua? Dokumentu idatzi gisa definitzen badugu, esaterako, arazo handi

batekin egiten dugu topo: hainbat eta hainbat itzulpen-ekintza (ahozko tradizioek beste tradizio edo literaturetatik bereganatutako kanta nahiz kondairak, gaur egungo aldibereko nahiz esan-osteko interpretazio-jarduerak...) ezingo genituzke itzulpen gisa deskribatu. Ahozko komunikazio-ekintzak ere testutzat joko bagenitu, ordea, gauza bera egin beharko genuke bestelako komunikazio-formekin: musika, irudiak, filmak... testu gisa ulertu behar ditugu? Itzulpenaren epistemologia postmodernoak ez du definizio hertsirik onartzen “hizkuntza”, “testua” eta “itzulpena” bezalako nozioentzat (Tymoczko 2007: 54-56). Jacques Derrida dekonstrukzionistak, esate baterako, testuaren definizio zabal eta barnehartzailea ematen du. Testua, Derridarentzat,

is limited neither to the graphic, nor to the book, nor even to discourse, and even less to the semantic representational, symbolic, ideal, or ideological sphere. What I call “text” implies all the structures called “real,” “economic,” “historical,” socio-institutional, in short: all possible referents. Another way of recalling once again that “there is nothing outside the text” [*il n’y a pas de hors-texte*]. That does not mean that all referents are suspended, denied, or enclosed in a book, as people have claimed, or have been naive enough to believe and to have accused me of believing. But it does mean that every referent, all reality has the structure of a differential trace, and that one cannot refer to this “real” except in an interpretive experience. (Derrida 1988: 148, letra etzana jatorrizkoarena da).

Derridak bezala, itzulpenaren teoria postmodernoen defendatzaileek esango dute “testua” (zentzu tradizionalan ulertuta) ez dagoela testuingurutik bereizterik. Testuaren eta hizkuntzaren definizio itxirik ematerik ez dagoenez, beraz, itzulpena ere nozio ireki gisa ikusten da itzulpenaren epistemologia postmodernoan, eta, europar pentsamendu modernoak alde batera utzi dituen tradizioetako itzulpenaren jarduera eta nozioak arakatzen hasi ahala, itzulpenaren definizio hori are gehiago zabaltzen da. Maria Tymoczkok, esate baterako, munduko hainbat hizkuntzatan “itzulpena” izendatzeko erabiltzen diren hitzen esanahiak aztertu ditu,²¹ eta argi erakutsi du itzulpena ez dela leku guztietan “transferentzia” gisa ulertzen.

²¹ Adibide batzuk: Indian bi hitz dira nagusi itzulpena izendatzeko: *rupantar* eta *anuvad*. Lehenak “forma-aldaketa” esan nahi du, eta bigarrenak, berriz, “ondorengo hizketa, jarraipena”. Arabieraz, berriz, itzulpena izendatzeko erabiltzen den *tarjama* hitzak bi adiera ditu, batek “biografia” eta bestetik “definizioa”. Nigeriako igbo hizkuntzan, berriz, *tapia* eta *kowa* hitzak dira nagusi; lehenak “deseraiki eta berriro kontatu (beste forma batean)” esan nahi du, eta bigarrenak “zatitu eta berriro kontatu”. Azkenik, tagalog hizkuntzako *pagsalin* hitza ontzi bateko edukia beste ontzi batera isurtzearen ideiarekin lotuta dago (Tymoczko 2007: 68-74).

Horrela, itzulpenaren definizio moderno hertsi eta mugatua gainditu nahirik, itzulpenaren arloko zenbait aditu itzulpenaren nozioa zabaltzen saiatu dira, eta beste izendapen batzuk ere proposatu dituzte. Itzulpenaren definizio ireki bat emateko lehen ahalegin garrantzitsua Gideon Touryri zor diogu. Itzulpena da, Touryren iritziz, “any target language text which is presented or regarded as such within the target system itself, on whatever grounds” (Toury 1982: 27). Jacques Derridak, bere aldetik, “transformazio” hitza proposatzen du itzulpenaren ordez (Derrida 1972b); André Lefevère-k, berriz, “errefrakzio” eta “berridazketa” nozioak erabiltzen ditu (Lefevère 1982, 1984, 1992); eta Maria Tymoczko itzulpena “metonimia” gisa ulertzea proposatzen du (Tymoczko 1999, 2007; Gentzler & Tymoczko 2002). Sarrionandiak berak ere “errebisio” gisa deskribatzen ditu bai “krezazioa”, baita “translazioa” ere (Sarrionandia 1995a: 9).

Itzulpena transformazio, berridazketa, metonimia nahiz errebisio gisa ulertuz gero, berehala galtzen du indarra itzultzailea mezulari neutro eta otzan gisa ikusten zuen ideia modernoak, eta agerian geratzen da itzultzaileak kultur-eragile gisa duen botere eta erantzukizuna. Itzulpenaren epistemologia modernoan itzultzailea jatorrizko testuaren zentzua inolako manipulazioarik gabe transmititzera behartuta bazegoen, itzulpenaren epistemologia postmodernoan behin eta berriro azpimarratzen da itzultzaileak testua transformatu, berridatzi edo errebisatzean gauzatzen duen ahalmen eraldatzailea, 1.3.2.1.6. puntuan xehetasun gehiagorekin azalduko dugun bezala.

1.3.2.1.4. *Zentzu ireki, aldakor, plurala sortzen*

Itzulpenaren teoria postmodernoez zalantzan jartzen dute jatorrizko testuaren (eta oro har, edozein testuren) zentzu transzendental, puru, finko, itxi eta zehatzaren ideia. Positibismoa indarra galtzen joan ahala, gero eta aditu gehiago hasiko dira onartzen testu, esaldi nahiz hitz baten zentzua ez dela hor kanpoan (munduan, errealitatean) dagoen zerbait, subjektuok objektiboki hauteman dezakegun zerbait, subjektu eragileek (norbanakoez eta kulturek) eraikitzen duten zerbait baizik. Horrexegatik definitzen dira itzulpenaren teoria postmoderno gehienak teoria konstruktibista gisa.

Zentzua konstrukzio edo eraikuntza bezala ulertzeak hankaz gora jartzen du Saussurek proposatutako zeinu linguistikoaren kontzeptua. Hizkuntzalari-tza estrukturallean, zeinu linguistiko bakoitzak zentzu edo adierazi finko bati egiten dio erreferentzia, eta errealitateko zentzu finko hori adierazleak “isla-

tzen” du. Teoria postmodernoek, ordea, ukatu egingo dute zentzu edo adierazi transzendentalaren ideia, eta zentzuaren osaketan faktore linguistiko, material eta kontzeptualek ez ezik, faktore soziolinguistiko, kultural, historiko, ideologiko, emozional nahiz bestelakoek ere parte hartzen dutela aldarrikatu-ko dute. Derridak, esaterako, argi asko erakutsi zuen hizkuntzan adierazleak baizik ez daudela, adierazle bakoitzak beste adierazleei egiten diela erreferentzia (eta ez hizkuntzaz kanpoko adierazi bati), eta adierazleen arteko erreferentzia- eta diferentzia-harreman horretatik sortzen, eraikitzen edo osatzen dela zentzua.

Laburtuz, itzulpenaren epistemologia postmodernoan, zentzua beti da aldakorra, etengabe dago mugimenduan, transformazioan, eta, ondorioz, ez da inoiz finkoa, itxia edo osoa. Zentzuaren transformazio horretan hainbat eta hainbat faktorek hartzen dute parte, besteak beste irakurle edo itzultzailearen irakurketak, interpretazioak edota itzulpenak.

1.3.2.1.5. *Elementu semantiko eta formalen arteko bereizketa eza*

Mugen hauskortasuna eta bereizketa dualisten hutsaltasuna aipatu ditugu, postmodernismoen ildo nagusiak aztertzean. Itzulpenaren epistemologia modernoan behin eta berriro errepikatzen den elementu semantiko eta formalen arteko bereizketak, beraz, indarra galduko du itzulpenaren teoria postmoderno gehienetan. Zentzuaren izaera transzendental nahiz adieraziaren eta adierazlearen arteko bereizketa zalantzan jartzearekin batera, zentzugabea bihurtzen da substantzia semantikoaren eta estilo edo formaren arteko bereizketa. Zentzua, ikusi dugunez, hainbat faktoreren arteko harreman eta diferentzietatik sortzen da, eta elementu estilistiko nahiz formalek ere parte hartzen dute zentzuaren eraiketa horretan.

Itzultzaileak, beraz, ezin du hautatu testuaren “*espirituaren*” eta “*letraren*” artean, bi elementu horiek halabeharrez lotuta baitaude jatorrizko testuan bertan:

Yet the violence implied by classical faithfulness to the spirit at the expense of the letter cannot be avoided by simple faithfulness to the letter of any text. For it is necessary to be faithful to the violent love-hate relation *between* letter and spirit, which is already a problem of translation within the *original* text. If the original text is already a translatory battle in which what is being translated is ultimately the very impossibility of translation, then peacemaking gestures such as scrupulous adherence to the signifier are just as unfaithful to the energy of the conflict as the tyranny of the swell-footed signified (Johnson 1985: 147).

1.3.2.1.6. *Itzulpen ausarta, itzultzaile abalduna*

Itzulpenaren epistemologia postmodernoan ezin bada zentzu transzendentel bat hauteman, ezinezkoa izango da halaber existitzen ez den zentzu finko eta itxi hori “gardenki” transmititzea. Itzulpenaren epistemologia modernoan itzultzailearen esku-hartzea ahalik eta ondoen ezkututzen duten itzulpenen alde egiten bazen, epistemologia postmodernoan salatu egingo da “gardentasun” eskaera horren atzean ezkututzen zen manipulazio edo inperialismo nahia. Teoria postkolonialek, esate baterako, agerian jarriko dute Indiako, Karibeko, Afrikako nahiz beste hainbat europar koloniatako hizkuntzetan idatzitako testuak ingelesa edota frantsesa bezalako hizkuntza hegemonikoetara itzultzean “gardentasunaren” izenean egindako ezabatze, moldaketa nahiz sinplifikazioak. Horrelako estrategien bidez erabat ezabatzen da jatorrizko testuaren arrotasun edo desberdintasuna, eta xede-hizkuntzako irakurleen balioekin bat datorren testua sortzen da. Itzulpen gardenek eragindako “akulturazio”, “domestikazio” (Venuti 1992, 1995), “naturalizazio” edo “etnozentrismoa” (Berman 1984a, 1984b, 1985) salatuz, hainbat autorek jatorrizko testuaren aztarnak gordeko dituzten itzulpenen alde egingo dute. Hala, Lawrence Venuti amerikarrak “gardentasuna” edo “fluency” delakoa salatzen du: “Fluency masks a domestication of the foreign text that is appropriative and potentially imperialistic”. Eta “foreignizing” delako estrategiaren alde egiten du: “It can be countered by ‘foreignizing’ translation that registers the irreducible differences of the foreign text” (Venuti 2000: 341). Antoine Berman frantziar adituak ere testuaren arrotasuna mantentzearen alde egingo du: “De là la nécessité d’une réflexion sur la visée proprement éthique de l’acte de traduire (accueillir l’Étranger comme Étranger)” (Berman 1985: 68). Azkenik, antzeko estrategia bat defendatuko du indiar jatorriko Gayatri Chakravorty Spivak irakasleak; bere iritziz, honako hau gorde behar du itzulpenak: “a tough sense of the specific terrain of the original” (Spivak 1992: 405).

Modernismoko itzultzaileak ahalik eta ikusezinen jokatzeko saiatzen baziren beren itzulpenetan, postmodernismoko itzultzaileak ez dira lotsatuko itzultzen ari diren testuan beren marka edo arrastoa uzteaz, alderantziz baizik. Mendebaldar tradizioan itzultzaileari eskatu izan zaion otzantasun, fideltasun eta pasibotasuna salatzeke, postmodernismoko itzultzaileek jarrera aktiboagoa erakutsiko dute, itzultzailearen erabaki-ahalmena, boterea eta erantzukizuna agerian jartzeko. Izan ere, dagoeneko azaldu dugun moduan, testu baten zentzua ez da itzulpenaren nahiz idazketaren aurretik hor zegoen zerbait, idazleak, irakurleak eta itzultzaileak osatzen, aldatzen eta birmoldatzen duten zerbait baizik. Birmoldaketa horretan, beraz, itzultzailea behartuta dago erabakiak

hartzera, ezin du “besterik gabe” itzuli. Horixe gogorarazten digu Kathleen Davisek itzulpena eta dekonstrukzioa aztertzen dituen liburuan: “The decision-making process is one of the reasons that translations are performative events, rather than replays of events that have already happened. [...] translations are ethical-political acts” (Davis 2001: 51).

Maria Tymoczko, bere aldetik, behin eta berriro aldarrikatu du itzultzaileak beren boterearen jabe eta jakitun izatearen beharra, hainbat lanen izenburuetan argi erakutsi duen bezala, besteak beste “Translation and Political Engagement: Activism, Social Change and the Role of Translation in Geopolitical Shifts” (2000) artikuluan eta *Enlarging Translation Empowering Translators* (2007) liburuan. Azken horretan, itzulpengintza konprometitua- ren aldeko jarrera argia erakusten du:

When I think of translation as a form of political and ideological activism, therefore, it is engagement that I usually think about, but engagement of a very active sort. I am primarily interested in and impressed by translations that are forms of speech acts associated with activism: translations that rouse, inspire, witness, mobilize, and incite to rebellion. [...] such translations act in the world and have a proactive dimension. They initiate ethical, political, and ideological actions, rather than being principally reactive. Engaged translators are visible as subjects, and as agents they have political agendas and use translation as one means to achieve those agendas (Tymoczko 2007: 213).

Horrela, hurrengo atalean ikusiko ditugun teoria postkolonialetan, adibidez, itzultzaileak herri kolonizatuen ikuspegia itzulpenean modu agerikoan txertatzen saiatuko dira. Gauza bera egingo dute hainbat itzultzaile feministak ere, “*womanhandling* the text in translation” (Godard 1990: 91) eta Mendebaldeko tradizio patriarkalean isilarazi izan diren emakumeen ahotsak itzulpenean ikusgai eginez.

1.3.2.2. Itzulpenaren teoria postmodernoak

Postmodernismoaren ezaugarri nagusi gisa definitu dugun pluraltasunak galarazi egingo digu, beste behin ere, itzulpenaren teoria postmoderno guztiak halako izenburu baten azpian biltzea. Postmodernismo mota asko dauden bezala, itzulpenaren epistemologia postmodernoak islatzen duten teoriak ere oso ugariak dira, eta ezinezkoa izango zaigu, beraz, teoria horiek banan-banan zerrendatu eta modu egituratu eta itxian deskribatzea. Lan honen azken hel-

burua Joseba Sarrionandiaren itzulpenak eta itzulpenari buruz egiten duen gogoeta aztertzea denez, iurretarraren itzulpen-filosofia deskribatzeko baliagarrien izango zaizkigun teoriak azaltzera mugatuko gara atal honetan, gure helburuarekin zuzeneko lotura ez duten teoria postmodernoak alde batera utziz edo doi-doi aipatuz.

1.3.2.2.1. “Descriptive Translation Studies”

Itzulpenaren epistemologia modernoarekin modu errotikoan hausten saiatu ziren lehen mugimenduen artean “Descriptive Translation Studies” edo itzulpen-ikasketa deskribatzaileak ditugu. 1970eko hamarkadan elkarrekiko eszeptiko ageri ziren bi ikerketa-ildo ziren nagusi itzulpengintzan: itzul-tzaile literarioena batetik eta hizkuntzalariena bestetik. Lehenengoak analisi linguistiko zientifiko oro baztertzen zuen; bigarrenak, aldiz, ez zuen onartzen zientifikoa ez zen analisi literariorik. Borroka horri irtenbidea eman nahian, Herbehereetako eta Belgikako²² hainbat ikertzaile gazte itzulpengintza ikuspegi berri batetik aztertzen hasi ziren. Horrela, itzulpenaren “teoriak” eta “zientziak” alde batera utzita, James Holmes-ek “Translation Studies” terminoa proposatu zuen itzulpengintza kontzeptualizatzeko modu berri hura izendatzeko.

Itzulpen-ikasketa deskribatzaileen erroak errusiar formalismoan bilatu behar dira, eta batez ere mugimendu haren eraginpean sortutako txekiar eskolan. Eskola hartako Jiří Levý, Anton Popovič eta beste zenbait ikertzaileen hausnarketetatik abiatuta, James Holmes eta Frans de Hann irakasleak errusiar formalismoaren ideiak Herbehereetako mugimendu berriarekin uztartzen ahalegindu ziren. James Holmesek itzulpengintza aztertzeko modu berri honi egindako ekarpen nagusiak *Translated! Papers on Literary Translation and Translation Studies* (1988) izeneko antologian biltzen dira. Artikulu horietan, itzulpenaren erreferentearen auziari beste ikuspuntu batetik heltzen dio Hol-

²² Ez da kasualitatea itzulpena aztertzeko modu berri baten beharra Herbehereak eta Belgika bezalako herrialde txikietan piztu izana. Izan ere, nederlandera edo flandesera bezalako hizkuntza “txiki” nahiz “minorizatuak” hitz egiten dituzten herrialdeek ezinbestean erabiltzen dute itzulpena ondoko hizkuntza-komunitateekiko harreman sozial, kultural, komertzial nahiz politikoko garatzeko, eta ohituago daude hizkuntza desberdinen arteko gatazka-egoerak itzulpenaren bidez konpontzen, populazio elebakar handiak dituzten eta, ondorioz, itzulpena jarduera marginal gisa baizik bizi ez duten herrialdeak baino. Ez da harritzekoa, beraz, itzulpen-ikasketa deskribatzaileen ekarpena beso zabalik jaso izana euskara bezalako hizkuntza minorizatuen alorrean.

mesek, baliokidetzaren nozio tradizionalak alde batera utzita. Itzulpenaren erreferentea, Holmesen iritziz, ez da jatorrizko testuaren erreferente berbera (mundu errealeko objektu bat); aitzitik, itzulpenak formulazio linguistiko bati egiten dio erreferentzia. Horrela, jatorrizko lanaren hizkuntza eta itzulpenarena ez dira berdinak, eta bigarren hori izendatzeko Roland Barthesen “meta-hizkuntza” terminoa erabiltzen du Holmesek: itzulpena, horrela, iruzkin baten iruzkina litzateke. Itzulpengintzaren arlo berri honi sorrera eman zion testutzat jotzen den “The Name and Nature of Translation Studies” artikuluan, Holmesek bi ataletan bereizi zituen itzulpen-ikasketak, “teorikoak” batetik eta “deskribatzaileak” bestetik, eta azken horiek, beren aldetik, beste hiru azpiataletan sailkatu zituen: *function-oriented*, *process-oriented* eta *product-oriented*. Teoriaren eta praktikaren arteko bereizketa egin arren, Holmesek argi utzi nahi izan zuen batak bestea elikatzen duela (Holmes 1988).

André Lefevere eta Raymond van den Broeck irakasleek ere antzeko hausnarketak plazaratu zituzten beren lehen lanetan. Lan horien artean, azpimarratzekoa da André Lefeverek 1976an Lovainan egin zen biltzar entzutetsuan plazaratu zuen manifestu ezaguna, “Translation Studies: The Goal of the Discipline”, James Holmesek, José Lambertek eta Raymond van den Broeckek argitaratutako *Literature and Translation* (1978) bilduman eranskin gisa argitaratua, zeinean argi utzi zen itzulpen-ikasketetan nahasi egiten direla hizkuntza, kultura eta literatura. Lefevereren eta Van den Broeck lanek oraindik ere itzulpenaren epistemologia modernoaren zenbait zantzu agertzen bazituzten ere,²³ itzulpena kontzeptualizatzeko proposatu zuten modu berri haren ekarpenek berebiziko garrantzia izan zuten itzulpenaren epistemologia post-moderno bateranzko bilakaeran. Ekarpene nagusien artean, honako hauek azpimarratuko genituzke: zentzuaren inguruko auzi filosofikoa konpontzen saiatu beharrean zentzua nola aldatzen den deskribatzeari ekin zioten; mota guztietako testuak aztertzen zituzten, batez ere tradizionalak baztertuta egondakoak; jakintzagai desberdinekin elkarlanean jardutearen beharra aldarrikatu zuten; bereizketa dualistak alde batera utzi zituzten; idazlearen eta itzultzailearen arteko bereizketa ere zalantzan jarri zuten; testu itzulia bera jotzen zuten

²³ Edwin Gentzlerrek autore hauei egiten dizkien kritikak honela laburbil litezke: batetik, metafisika filosofiko tradizionalak formaren eta edukiaren artean ezartzen duen dikotomiatik libratu ez izana; bestetik, baliokidetzaren kontzeptuari eusten saiatu izana eta jatorrizko autorearen asmoa hautemangarriak direla defendatu izana: “Van den Broeck concluded in agreement with Lefevere that the original author’s intent and the original text’s function can be determined and translated via a method of typologizing and topicalizing so that it will ‘possess a literary value’ equivalent to the source text and function accordingly” (Gentzler 2001: 98).

ikerketa-objektutzat, ez testuaren balizko zentzu transzendentala, ezta egitura linguistikoa ere; horrela, alde zuzenetik ezarritako teoria literario eta linguistikoak itzulpengintzari aplikatzen ahalegindu beharrean, testu itzulietatik abiatzen ziren itzulpen-prozesua deskribatu eta ondoren jakintza hori teoria literario eta linguistikoei aplikatzeko.

Belgikan eta Herbehereetan itzulpen-ikasketak garatzen ari ziren garai bertsuan, antzeko mugimendu bat sortu zen Israelgo zenbait ikertzaileen artean, batez ere Itamar Even-Zohar eta Gideon Toury israeldarren eskutik. Polisistemen teoriaren sortzaile gisa ezagutzen diren irakasle hauek interes handiz hartu zituzten aurreko itzulpen-ikasketa deskribatzaileek egindako ekarpenak, eta haien lana osatu eta zabaltzeari ekin zioten 1980ko hamarkadan. Bi mugimenduen arteko desberdintasun nagusia, Edwin Gentzlerren arabera, itzulpenaren teorizazioaren norabidean datza: itzulpen-ikasketen bultzatzaileek “tended to look at one-to-one relationships and functional notions of equivalence; they believed in the subjective ability of the translator to derive an equivalent text that in turn influenced the literary and cultural conventions in a particular society”. Polisistemen teoriak, aldiz, aurkakoa defendatzen du, “that the social norms and literary conventions in the receiving culture [...] govern the aesthetic presuppositions of the translator and thus influence ensuing translation decisions” (Gentzler 2001: 108). Polisistemen teoriaren bultzatzaileen helburua ez da, aurreko itzulpen-ikasketetan bezala, testu bakar baten itzulpen-prozesua aztertzea, literatura-sistema oso baten barruan gertatzen diren itzulpen-prozesu eta -aldaketak ikuspegi global batetik deskribatzea baizik. Era berean, aurreko ikertzaileen azterketak ikuspuntu sinkroniko hutsetik egiten baziren, polisistemen teoriak itzulpen-prozesuak sinkronikoki eta diakronikoki ikertzearen beharra aldarrikatuko du. Polisistemen teoria formulatu zuen Even-Zohar irakaslearen arabera, edozein literatura-sistema bestelako sistema sozial, kultural, politiko nahiz historikoekin elkarreragin etengabekoan dago, “polisistema” deituriko sare zabal batean, eta sistema konplexu eta dinamiko horretako elementuek etengabeko borrokan dihardute literatura kanonikoaren posizio zentral eta pribilegiatua eskuratzeko.

Bere teoria garatzeko errusiar formalisten lanean oinarritu bazen ere, Even-Zoharrek ez zituen bere hartan onartu ikertzaile haien proposamenak. Besteak beste, literaturaren azterketa “goi-mailakotzat” jotzen ziren literatura-lanetara mugatzea leporatu zien Even-Zoharrek errusiar formalistei, eta hain garrantzitsutzat jotzen ez zituzten literatura-sistema edo -generoak, hala nola haur literatura edo literatura itzulia, beren azterketetatik kanpo utzi izana. Even-Zoharren iritzi, aldiz, literatura itzulia da literatura-polisistema baten

barruko sistemarik aktiboena: “I conceive of translated literature not only as an integral system within any literary polysystem, but as a most active system within it” (Even-Zohar 1990: 46). Polisistemen barruko garapen-prozesu dinamiko horretan, sistema berritzaileek eta kontserbatzaileek etengabeko lehian dihardute, eta, mugimendu horren ondorioz, literatura itzuliaren beraren lekua ere ez da finkoa; xede-kulturako polisistemaren barruan lehen nahiz bigarren mailako lekua bete dezake. Even-Zoharrek honela deskribatzen ditu literatura itzuliak xede-kulturako polisisteman betetzen duen lekua baldintzatzen duten faktoreak: literatura itzuliak polisistemaren erdigunea taxutzen funtzio aktiboa betetzen du hiru kasu hauetan: (a) literatura gaztea denean, hots, finkatze-prozesuan dagoenean; (b) literatura “bazterrekoa” edo / eta “ahula” denean; eta (c) literaturaren barruan norabide-aldaketak, krisiak nahiz hutsuneak gertatzen direnean. Bigarren kapituluak ikusiko dugunez, euskal literaturaren historia krisiz eta literatura (ber)eraikitzeke saiakeraz jositako bidea da, eta horrexek azal dezake euskal literaturako lanen artean itzulpenek osatzen duten portzentaje altua. Aurkakoa gertatzen da, ordea, polisistema batean aldaketa nabarmenik gertatzen ez denean; halakoetan, literatura itzuliak ez du eraginik xede-polisistemaren prozesu nagusietan, eta bazterreko kokaleku batean geratzen da. Hauxe da egoerarik ohikoena Even-Zoharren iritziz, literatura itzuliak posizio periferikoa hartzea, alegia. Euskal literaturara itzuliz, esan genezake horixe izan dela euskal literatura hizkuntza “handietara” (batez ere gaztelaniara, frantsesera eta ingelesera) itzultzeko egin diren ahalegin urriek literatura “handi” horietako polisistemen garapenean hain eragin eskasa eduki izanaren arrazoia.²⁴

Even-Zoharren arabera, literatura itzuliak polisistema barruan betetzen duen lekuak itzulpen-estrategia baldintzatzen du. Literatura itzuliak posizio zentrala betetzen baldin badu, itzultzailea ez da behartuta sentitzen xede-hizkuntzako eredu literarioak erabiltzera, eta errazagoa zaio xede-hizkuntzan nagusi diren arau eta joerak haustea, sorburu-testuko ereduak gertutik jarraitzeko; aldiz, literatura itzulia bigarren mailan kokatzen bada, itzultzaileak nahiago izan ohi du sorburu-testuarekiko hain gertu ez dauden baina xede-hizkuntzan onarpen handia duten eta aspalditik finkatuta dauden ereduak erabiltzea.

Itzulpengintza testuinguru kultural batean aztertzeko Even-Zoharrek egindako ahaleginak aurrerapauso handia ekarri bazuen ere, ikertzaile batzuek

²⁴ Ezin dugu aipatu gabe utzi, puntu honetan, joera honen salbuespen nagusi den Bernardo Atxaga idazlea, bere liburuaren gaztelaniako itzulpenek espainiar literatura-sistemaren erdigunera iristea lortu baitute.

hainbat hutsune ikusi zizkieten irakasle israeldarrak proposatutako teoriari. Edwin Gentzlerrek, esaterako, honako kritika hauek egiten dizkio, besteak beste, polisistemen teoriari: lekukotasun gutxitan oinarrituz lege unibertsal orokorrak ezarri nahi izana, benetako testu eta itzultzaileak adibidetzat hartu beharrean eredu abstraktuetan oinarritu izana, eta zientifikoa izan nahi duen erdua nahikoa objektibotasunekin aurkeztu ez izana (Gentzler 2001: 120-122).

Polisistemen teoriak zituen hutsune horiek osatu nahian, Even-Zoharrekin lanean aritu zen Gideon Toury israeldarrak itzulpen-teoria orokor bat garatzeari ekin zion. Even-Zoharren ikerketetatik abiatuz, polisistemen teoria osatu nahi izan zuen bere lehen lanetan (Toury 1980, 1982, 1991, 2000). Azkenik, bere lan osatuenean, han-hemenka agertzen ziren azterlan isolatuen ordeztu, itzulpen-teoria deskribatzaile eta sistematiko baten beharra azpimarratu eta landu zuen (Toury 1995).

Touryren iritziz, itzulpenek leku jakin bat betetzen dute, ezer baino lehen, xede-kulturako sistema sozial eta literarioetan, eta kokaleku horrek baldintzatzen ditu itzultzaileak erabiltzen dituen estrategiak. Hortik abiatuz, hiru urrats proposatzen ditu itzulpen-lanak aztertzeko: lehenik, itzulpena xede-kulturako sistematan kokatu behar da, sistema horretan duen onargarritasuna aztertzeko. Bigarrenik, sorburu-testua eta xede-testua alderatu behar dira, bi testuen arteko *coupled pairs* direlakoan harremanak aurkitzeko. Azkenik, konparaketa horretatik abiatuta, itzultzailearen jokabideari eta erabakiei buruzko ondorio orokorrak atera daitezke.

Horrelako lan batek, Touryren ustez, itzulpen prozesuan zehar erabili diren “arauak” berreraikitze balio dezake. Arau horien helburua testuinguru jakin batean erabilitako itzulpen-estategiak eta itzulpen-ikuspegiak deskribatzea litzateke. Touryk hiru arau mota sailkatu zituen, ondoko paragrafoetan ikusiko dugun moduan.

Aldez aurretiko arauak (*preliminary norms*) itzultzaileak itzultzen hasi baino lehen hartzen dituen erabakiak deskribatzen dituzte. Horien barruan, itzulpen-politikari dagozkionak genituzke batetik (*translation policy*), hots, itzuliko diren lanen aukeraketa, aukeraketa horren arrazoiak, itzultzeko modua eta abar deskribatzen dituztenak. Bestetik, itzulpenaren zuzenekotasunaren ingurukoak genituzke (*translation directness*), alegia, itzulpena egiteko zubi-hizkuntzarik erabili ote den ala ez zehazten dutenak, eta zubi-hizkuntzak erabiltzeak xede-testuaren kulturaz zuegitasunik ba ote duen aztertzen dutenak (Toury 1995). Bigarren kapituluan ikusiko du-

gunez, euskal itzultzaile askok erabili dituzte zubi-hizkuntzak atzerriko lanak euskaratu ahal izateko, eta alderantzizko bidean ere, atzerriko hizkuntzetara itzulitako euskarazko lan gehienek gaztelaniazko bertsioa izan dute bitartekari.

Touryren sailkapenean ageri zaigun beste arau multzo bat jarduerazko arauena da (*operational norms*), hau da, itzulpen-prozesuan bertan hartzen diren erabakiak deskribatzen dituzten arauena. Horien barruan matrizialak (*matricial norms*) aipatzen ditu batetik (xede-hizkuntzako materialen kokapenari eta segmentazioari buruzkoak), eta testual-linguistikoak (*textual-linguistic norms*) bestetik (material linguistiko eta literarioaren hautaketa eta erabilera zuzentzen dutenak).

Arau motarik garrantzitsuena, halere, hasierako araua genuke (*initial norm*): itzulpen bati ekitean, itzultzaileak sorburu-testuaren arauari eutsiko dien ala testua xede-hizkuntzaren joeretara egokituko duen erabaki behar izaten du. Lehen estrategiaren alde egiten baldin badu, itzulpenak “egokitasun”-maila (*adequacy*²⁵) handiagoa izango du; aldiz, xede-hizkuntzaren arauari eta estiloari gertuagotik jarraitzen dien itzulpen batean, “onargarritasun”-maila (*acceptability*²⁶) handiagoa izango da (Toury 1995).

Azkenik, Belgikan eta Herbeheretan sortu eta israeldar ikertzaileen artean zabaldu ziren itzulpen-ikasketa deskribatzaileek hirugarren mugimendu baterako bidea ireki zuten. Polisistemen teoriaren jatorri estrukturalistatik urrundu nahian, Theo Hermans, André Lefevere, José Lambert, Susan Bassnett eta Lawrence Venuti adituak itzulpen- ikasketak ikuspuntu postestrukturalistago batetik aztertzen hasi ziren. Kulturaren nozioari eskaini zioten arreta berezia zela eta, mugimendu hau “Cultural Turn” izenarekin egin zen ezagun. Biraketa kultural honen hastapenak “Manipulazioaren eskola” gisa ezagutzen den talde baten lanetan bilatu behar dira, eta talde horretako adituen lanekin osatutako *The Manipulation of Literature: Studies in Literary Translation* (1985) artikulua bilduman. Honela laburbiltzen ditu Theo Hermansek, bildumaren argitaratzaileak, talde honetako partaideek literatura itzulitako buruz zituzten ideiak:

²⁵ “An adequate translation is a translation which realizes in the target language the textual relationships of a source text with no breach of its own [basic] linguistic system” (Even-Zohar, *apud* Toury 1995: 56).

²⁶ “Whereas adherence to source norms determines a translation’s adequacy as compared to the source text, subscription to norms originating in the target culture determines its acceptability” (Toury 1995: 56-57).

What they have in common is, briefly, a view of literature as a complex and dynamic system; a conviction that there should be a continual interplay between theoretical models and practical case studies; an approach to literary translation which is descriptive, target-oriented, functional and systemic; and an interest in the norms and constraints that govern the production and reception of translations, in the relation between translation and other types of text processing, and in the place and role of translations both within a given literature and in the interaction between literatures (Hermans 1985: 10-11).

Literatura hizkuntza-sistema, kultura eta interes desberdinen topagune gisa definitzen zuen ikuspegi honetatik etorri zen “Cultural Turn” delakoa. André Lefeverek eta Susan Bassnettek, esaterako, berridazketa gisa deskribatzen dute itzultze-ekintza, non botereak, ideologiak, instituzioak eta manipulazioak testu literarioen harrera, onarpena edo gaitzespena zuzentzen dituzten (Bassnett & Lefevere 1990, Lefevere 1992). Horrela, literatura-sistema jakin batean itzulpena hiru faktorek kontrolatzen dutela erakusten du Lefeverek bere *Translation, Rewriting and the Manipulation of Literary Fame* liburuan: literatura-sistema barruko profesionalek, literatura-sistematik kanpoko patrosinioak eta nagusi den poetikak. Era berean, itzultzailearen ideologiak (edota patrosinioak itzultzaileari inposatzen dion ideologiak) xede-testuan izan dezakeen eragina azpimarratzen du. Gure inguruko adibide bat aipatzearen, Orixeren *Tormes’ko itsu-mutila* (1929) gogora genezake; kasu horretan, Orixeren ideologia moral eta erlijiosoak eragin zuen jatorrizko testuko kapitulu oso bat kendu eta itzultzaileak berak asmatutako beste batekin ordezkatzea.

“Cultural Turn” delakoak kultura hartzen du itzulpen-unitatetzat; itzultzaileak, beraz, bikulturala izan behar du, elebiduna izan aurretik (Bassnett & Lefevere 1990: 11). Bi kulturen arteko bitartekotza horretan, itzultzaileak ideologia jakin baten arabera manipulatu du itzuli beharreko testua, eta xede-kulturaren erdigunean nahiz periferian sarraraziko du. Manipulazio ideologiko horretan posible da, esate baterako, prozedura subertsiboen bidez diskurtso nagusiei aurre egin eta diskurtso berritzaile nahiz iraultzaileak bultzatzea. Horrelako praktiken alde egingo dute, besteak beste, itzulpen postkolonialaren eta feministaren defendatzaileak.

Lawrence Venutik ere antzeko bidetik ekingo dio itzulpenak aztertzeari. Testu baten harrera xede-kulturaren nagusi den pentsamenduaren arauak baldintzatzen dutela azpimarratuz, Venutik Estatu Batuetako literatura-sistema aztertzen du, eta ohartzen da itzultzaile amerikar gehienek “domestikazio” delako metodoaren bidez itzultzen dutela, alegia, jatorrizko lanaren arrotasuna ezabatu eta xede-kulturaren balio kulturaletara egokitutako testuak sortzen

dituztela (ingeles britainiarrean idatzitako testuak ere irakurle amerikarraren beharren arabera “itzuliz”). Metodo domestikatzaile etnozentrikoa gaitzetsiz, Venutik “foreignizing”²⁷ delako itzulpena defendatzen du: testu arrotzaren desberdintasun linguistiko eta kulturalak markatu eta irakurlea atzerrira bidaltzen duen metodo “atzerrirratzailea”. Venutiren arabera, metodo domestikatzailea erabiliz egindako itzulpenak “gardenak” dira, irakurleak erraz ulertzeko modukoak. Metodo atzerrirratzaileak, berriz, gardentasuna baino gehiago “erresistentzia” bilatzen du; izan ere, itzulpenak sorburu-testuaren bestetasuna mantentzen duenez, xede-testuak hainbat zailtasun ezartzen dizkio irakurketa erraz bat bilatzen duen irakurleari. Bere *The Translator’s Invisibility* (1995) liburuan, Venutik hainbat herrialdetako itzulpenen historiak aztertzen ditu aipatutako bereizketa oinarri hartuz, eta azterketa horretatik ondorioztatzen du ingelesa bezalako literatura “handi” edo “indartsuetan”, non literatura itzuliak leku oso txikia betetzen duen, metodo domestikatzailea erabili izan dela atzerriko literaturetako lanak itzultzean. Literatura minorizatueta, aldiz, itzulitako liburuen portzentajea handiagoa izan ohi da, eta itzultzaileak gehiago lerratzen dira metodo atzerrirratzailean.

Venutik, itzulpen metodoak deskribatzeko, Even-Zoharrek proposatutako hipotesien antzekoak erabiltzen ditu. Berak dioenez, literatura itzuliak posizio zentrala duen literatura-sistemetan, jatorrizko lanen eta lan itzulien arteko bereizketa nahiko lausoa da: itzultzaileak ez du bere hizkuntzak eskaintzen dizkion aukera linguistiko eta literarioetara jotzen itzulpena egitean; aitzitik, hizkuntza arrotzaren (gehienetan menperatzailearen) ereduak bereganatzen ditu, nahiz eta horrela xede-hizkuntzako arau edo joeren aurka joan. Lortzen duen itzulpena, beraz, jatorrizko testuarekiko oso gertukoa izango da “egokitasunari” dagokionez. Jatorrizko lanen eta lan itzulien arteko bereizketa oso argia da, aldiz, literatura itzuliak polisistema jakin batean toki periferikoa betetzen duenean; kasu horietan, itzultzaileak xede-hizkuntzan ongi errotutako ereduak erabiltzen ditu testu arrotza itzultzeko, eta, ondorioz, itzulpena ez da lehen kasuan bezain “egokia” izango. Teoria hau euskal itzulpenaren historia-ri aplikatuko bagenio, honako hipotesi hau aterako genuke: euskal literatura-aren historian itzulpenek pisu handia izan dutenez eta literatura-polisistemaren erdigunetik nahiko gertu egon direnez, itzultzaileek metodo atzerrirratzailea erabili izan dute, eta itzulpenek, beraz, nahiko gertutik jarraitu izan dituzte

²⁷ “Foreignizing translation is a dissident cultural practice, maintaining a refusal of the dominant by developing affiliations with marginal linguistic and literary values at home, including foreign cultures that have been excluded because of their own resistance to dominant values” (Venuti 1995: 148).

jatorrizkoaren eredu linguistiko eta literarioak. Euskal itzulpenak aztertzean ikusiko dugunez, ordea, hipotesi hori ez da beti betetzen euskal itzulpenen historian, ezta gure inguruko beste hizkuntza minorizatuetakoa itzulpenen historietan ere (katalanean eta galiziarrean, esate baterako).²⁸ Egia da itzulpenaren bidez euskarara forma eta eredu berriak ekarri nahi izan dituztela itzultzaile askok (Axular itzulpenaz baliatu zen euskararen alderdi estilistikoa lantzeko; Orixek, Lizardik eta Ibinagabeitiak behin eta berriro azpimarratu izan dute itzulpenaren beharra euskara aberasteko bitarteko gisa...), baina horrek ez du esan nahi Venutiren metodo “atzerriratzaillea” erabili dutenik, ezta Touryren “egokitasunera” lerratu direnik ere, itzultzaileen hitzaurreetan askotan ikusi baitugu itzultzaileen lehentasuna euskaldunek erraz ulertzeko testu bat lortzea zela, nahiz eta horretarako atzerriko erreferentziak “domestikatu” behar izan (zentzu honetan adibide ezin hobea eskaintzen digute Orixeren egokitzape- nek, edo Ilustrazio garaiko literatura didaktikoaren itzulpenek, non helburu hezitzaile eta moralizatzaileak jatorrizkoaren gainean ezabaketa edo aldaketak egitea baimentzen zuen). Euskal literaturaren historian egin diren itzulpen gehienak nekez sailka daitezke Touryk eta Venutik proposatutako bereizketa zurrun horien arabera, beste hainbat faktore estralinguistikok erdibideko es- trategia batzuk erabiltzera bultzatu baitituzte itzultzaile gehienak.

Dena den, ikusi berri ditugun autoreen kritiken hutsuneak gorabehera, itzulpen-ikasketa deskribatzaileek eskainitako ikuspegi berria izugarrizko au- rrerakada izan zen oro har itzulpengintza ikertzen diharduen edonorentzat, baina bereziki euskara bezala egoera minorizatuan aurkitzen diren literature- tako itzulpenak aztertu nahi dituztenentzat; izan ere, teoria hauek kontuan hartzen dituzte literatura minorizatu- en testuinguruan hainbesteko eragina izan ohi duten faktore sozio-kulturalak. Literatura sistemez osatutako polis- tema gisa deskribatuz gero, tradizionalki marginal edo bazterrekotzat jo izan diren hainbat generok (haur literaturak edota itzulpengintzak, esaterako) lite- ratura kanonikoaren garrantzi berbera hartzen dute.

Era berean, nabarmenak dira itzulpen-ikasketa deskribatzaileetan itzulpe- naren epistemologia postmodernoaren zantzuak. Honela laburbiltzen dizkigu Pier-Pascale Boulangerrek: teoria tradizionalen preskriptibismoa baztertu eta analisi deskriptiboak egiten dira; ikerketa-objektu gisa produktu itzulia har- tzen da, beti ere xede-polisistemaren testuinguruan kokatuta; sistemen plural-

²⁸ Izan ere, “foreignizing” delako metodoaren bidez erresistentzia aldarrikatzeko Venuti- ren estrategia ezin da hain erraz aplikatu Estatu Batuetatik kanpoko testuinguruetan, besteak beste Maria Tymoczko (2007: 211) erakutsi bezala.

tasuna eta geruza-aniztasuna onartzen dira; konbentzio literarioren erlatibitate eta mugikortasuna aitortzen dira; teoriaren eta praktikaren arteko elkarreraginezko dinamika baten beharra aldarrikatzen da; itzulpena berridazketa bezala ulertzen da, eta itzultzailea eragile bikultural eta, beraz, sozial gisa baloratzen da (Boulanger 2002: 111-112).

1.3.2.2.2. “Cultural Studies”, “Power Turn”, “Gender Studies”

“Cultural Studies” deiturikoak 1960ko hamarkadan agertu ziren lehen aldiz Erresuma Batuan, Richard Hoggart, Raymond Williams eta E. P. Thompson ikertzaileek bigarren mundu gerraren ondorengo egoera berrian kultura berdefinitzeko beharra aldarrikatu zutenean. Kultura ez zen, haien iritziz, elite batek ontzat jotako sorkuntza-lanen bilduma soilik, eta langile-bizitzaren ohitura herrikoiak ere kulturaren parte zirela defendatu zuten. Kulturaren pluraltasuna azpimarratuz, ikasketa kulturalak kanon kultural tradizionala zalantzan jarri eta obra klasikoak ikuspuntu desberdin eta subjektibo batetik berrirakurtzeari ekin zioten. Berrirakurketa horretan garrantzi berezia hartu zuten tradizionalki baztertuta egondako elementu eta idazlanek (Bassnett 1998). Ikasketa kulturalak eta itzulpen-ikasketak bakoitza bere aldetik garatzen hasi baziren ere, bien arteko harremanak gero eta nabariagoak eta estuagoak izaten hasi ziren pixkanaka. Aurreko atalean ikusi dugunez, Susan Bassnettek eta André Lefeverek 1990ean argitaratutako *Translation, History and Culture* liburuan itzulpen-ikasketek ikasketa kulturalen lana kontuan hartu behar zutela aldarrikatu zuten, eta itzulpengintzaren ikerketak “Cultural Turn” delakoa egin behar zuela iradoki zuten. Elkarrekin argitaratutako hurrengo liburuan, *Constructing Cultures* (1998) izenburukoan, ikasketa kulturalari itzulpengintzara hurbil daitezzen dei egiten diete, izan ere, Edwin Gentzlerrek liburuaren hitzaurrean gogorarazten digunez, “the study of translation is the study of cultural interaction, and thus the appeal of this book to cultural studies scholars, literary theorists, anthropologists, ethnographers, psycholinguists, and language philosophers and all of those interested in multicultural socialisation processes” (Gentzler 1998: ix, letra etzana jatorrizkoarena da).

Izan ere, multikulturalismoa da ikasketa kulturalak aztertzen duten gai nagusietako bat, aniztasun linguistikoarekin, identitate eta muga nazionalen mugikortasunarekin, globalizazioaren eta erregionalismoaren arteko tentsioarekin eta beste hainbat gairekin batera. Kultura, tradizionalki, inguru koherente eta homogeen bateko gizakien jokabide multzo gisa ulertzen bazen, ikasketa kulturalen defendatzaileek definizio zabal eta heterogeneoago bat proposatuko

dute. Horrela, kultura prozesu ireki eta aldakor bezala ulertuko da, gizarte barteke talde desberdinen arteko hartu-eman eta negoziazioen bidez etengabe birmoldatu eta birdefinitzen den zerbait bezala.²⁹ Ikuspegi tradizionalak “kultura nazional” deiturikoen artean ezartzen zituen muga hertsiek sendotasuna galduko dute pixkanaka kulturaren ikuspegi berri honetan; baita identitate nazional, arrazial, sexual nahiz sozial desberdinen arteko bereizkuntza garbiek ere.

Kulturak eta identitateak ezaugarri multzo itxi gisa ulertzeari uko egiten dioten bezala, ikasketa kulturek zalantzan jarriko dute, halaber, Beste gisa definitu izan den horren homogeneousutasuna. Norbanakoaren identitatea plurala baldin bada (identitate nazionala, erlijiosoa, arraziala, sexuala, soziala...), Bestea ere plurala dela onartu beharko da, hots, ez dagoela Bestea deituriko izaki homogeneouso eta itxi bat, Beste mota asko baizik. Gainera, norberaren eta bestearen identitateen arteko bereizketak ere ez dira tradizionalki definitu izan diren bezain zurrinak; aitzitik, subjektu bakoitzaren identitatea Beste desberdinen identitate mota desberdinekiko etengabeko kontaktu eta elkarreraginaren bidez osatzen eta birmoldatzen da etengabe.³⁰

Kultura ulertzeko modu berri hau oso ongi ezkontzen da itzulpenaren ikuspegi postmodernoarekin. Izan ere, gaur egungo kulturak modu itxian sailkatu eta definitzea ezinezkoa den bezala, gaur egungo nahiz lehenagoko testu eta itzulpen asko eta asko ere ez dira kulturaren definizio itxi eta homogeneousoaren arabera sailkatzeko modukoak. Euskara bezala betidanik testuinguru eleantiz batean garatu diren hizkuntzen kasuan, esate baterako, zaila da testu bat kultura nahiz hizkuntza bakar baten arabera definitzea, ukipenean dauden kultura eta hizkuntzen eragina saihestezina baita horrelako testuinguru multikulturaletan. Sherry Simon irakasleak Quebec-eko literaturako zenbait lan aztertzen ditu *Le trafic des langues* (1994) liburuan, testuinguru multikultural eta eleantizetan itzulpenak duen garrantziaren adibide gisa. Itzulpena negoziatio interlinguistiko eta interkulturalen prozesu gisa definitu ondoren, itzulpe-

²⁹ “La culture devient un processus ouvert qui se fait au gré des rencontres entre le connu des références domestiques et l’inconnu des références étrangères, qu’il s’agisse des personnes et de leur appartenance à un sexe, à une race et à une classe sociale, des langues, des voix, des pensées ou des textes” (Boulanger 2002: 117). “Culture as translation [...] is a new paradigm which stresses the aspect of negotiation in the constitution and assertion of cultures as well as emphasizing the problematic search for cultural commensurability and, at the same time, for local-historical grounding” (Bachmann-Medick 1996: 11).

³⁰ Sarrionandiak ere badu honen antzeko gogoeta: “Identitatearen osagarria diferentzia da. Besteak «desberdinak» direlako eta «berdinak» direlako hartzen da haintzat nortasun indibiduala, eta kolektiboa ere bai” (Sarrionandia 2010b: 375).

nak edozein kulturaren dinamismoan duen eragina azpimarratzen du. Izan ere, kultura bakoitzak beste hainbat tradizioekin mantentzen dituen irekitasunezko eta elkarrizketazko harremanen bidez bermatzen du bere dinamismoa (Simon 1994: 18). Itzulpenaren eragin hori are nabariagoa da kultura eta hizkuntza desberdinak kontaktuan bizi diren eremuetan, besteak beste Quebec-en edo Euskal Herrian. Horrelako testuinguruetan ohikoak dira testu “hibrido”, “hautsi” edo “eleanitzak”: “Le texte brisé, pénétré d’altérité, est l’un des modes d’expression du brouillage culturel caractéristique de ces zones [de contact entre cultures]” (Simon 1994: 19). Horrelako testuetan, hizkuntzak eta kulturak nahastu, manipulatu, “trafikatu” egiten dira, eta ezinezkoa da testuaren jatorria literatura “nazionalen” arabera zehaztea.

Simonek kontatzen digunez, 1960-1970 hamarkadetan itzulpena bi modutara ikusten zen Quebec-en. Batetik, arrisku moduan; izan ere, testu gehienak ingelesez sortzen ziren, eta gero itzultzen ziren frantsesera. Xede-hizkuntza pentsamendu arrotzaren elementu eta espresioz kutsatzeko arriskua ikusten zen, beraz, eta xede-kulturaren akulturazioaren beldurra zegoen. Benetako kultura, librea, autentikoa, jatorrizko sorkuntzarekin baizik ezin zela lortu uste zen, frantsesez idatziz, alegia. Bestetik, aurreko egoerari aurre egiteko, itzulpena erresistentzia moduan erabiltzen zen: literatura-lan arrotzak erabat desitxuraturaz eta Quebec-eko egoerara moldatuz, hizkuntza eta kontzientzia nazional bat sortzeko eta indartzeko erabiltzen zen itzulpena. Simonek, kulturaren definizio postmodernoa batean oinarrituz, bi joera muturreko horien arteko irtenbide bat proposatzen du:

On comprend alors que le refus de la traduction, au nom de la culture authentique, repose sur l’idée de « préserver » une culture définie comme un ensemble clos. Dès que la culture est par contre conçue comme un jeu de différences, où mémoire et nouveauté, références propres et étrangères sont en interaction constante, il devient possible de concevoir le passage linguistique et culturel comme un élément essentiel de création collective, donc de l’identité culturelle (Simon 1994: 47).

Simon irakasleak kulturaren irekitasunaren edo “hibridotasunaren” alde egiten du. Hibridotasunaren aldeko aldarriak, ordea, ez du kulturen arteko desberdintasunak ezabatzea eskatzen, Simonek *Hybridité culturelle* (1999) liburuan gogorarazten digun legez:

Le moment de l’hybridité est un mouvement contestataire. Il refuse deux réactions à la diversité mondiale : d’une part l’aplatissement des différences (l’homogénéisation) mais aussi le mouvement inverse d’hyper-différentiation (la ré-ethnicisation, l’intégrisme ou la xénophobie) (Simon 1999: 32).

Kultura hibridoetan idazten diren testuetan protagonisten hizkera beste hizkuntza batzuekin “kutsatuta” ageri da maiz. Quebec-en kasuan, ingelesezko hitz eta espresioek presentzia handia izan ohi dute frantsesez idatzitako testuetan, baina ingelesaz gain gero eta ugariagoak dira munduko txoko guztietatik etorritako immigranteen hizkuntzen arrastoak ere. Euskal literaturan, berriz, gaztelaniazko eta frantsesezko esamoldeak ez ezik, beste hizkuntza batzuen eragina ere gero eta nabariagoa da; adibide ezagun bat aipatzearen, hor ditugu Atxagaren *Bi letter* eta beste hainbat kontakizun.³¹ Horrelako testu hibridoek hankaz gora jarriko dute itzulpena ulertzeko modu modernoa, itzultzearen posibilitatea bera zalantzan jarriz. Izan ere, galdetzen du Simonek, “comment traduire un code déjà pénétré d’éléments exogènes ? Comment rendre dans un second idiome un texte qui s’avance en révélant que ses défenses ont déjà été forcées ?” (Simon 1994: 112). Nola itzuli hasieratik beretik hibridoak, pluralak, itzulpenak diren testuak? Ezinezkoa badirudi ere, ordea, horrelako itzulpenak egin egiten dira, eta jatorrizkoaren aniztasun linguistiko eta kulturala mantenduz gainera.³² Itzulpen mota horiek estetika postmodernoaren baitan kokatuko genituzke, non jatorrizkoaren eta itzulpenaren arteko muga, baita hizkuntza eta kultura desberdinen artekoak, nahiz erregistro, genero eta hizkeren artekoak ere, hauskorrek eta lausoak diren. Era berean, itzulpenaren epistemologia postmodernoan zalantzan jarriko dira sorburu-hizkuntzaren eta xede-hizkuntzaren nahiz sorburu-kulturaren eta xede-kulturaren arteko bereizketak ere, testu hibridoek erakutsi diguten bezala, eta bereizketa horren ordez espazio “interlinguistikoaren” edo “interkulturalaren” nozioa nagusituko da. Orain arte aurkeztu ditugun itzulpen-teorialari gehienek sorburu- eta xede-kulturen arteko bereizketa garbi samarra egiten bazuten (Touryk, Lefeverek eta Venutik barne), ikasketa kulturalen ekarpenari esker

³¹ Atxagaren testu “hibridoan” itzulpenak ezartzen dituen zailtasunen inguruan, interesgarria da Linda White estatubatuarrek *Obabakoaken* ingelesezko itzulpenari buruz idatzitako artikulua. Itzulpenak jatorrizkoaren aniztasun linguistikoa ez duela behar bezala mantentzen salatzen du: “In *Obabakoak* we find marvellous examples of Atxaga’s use of foreign languages in his Basque prose [...]. In Margaret Jull Costa’s translation into English, this usage is not expressed, and the reader has no idea that the narrator is not a native of the language in which the story is told”. (White 2002: 179).

³² Adibide esanguratsu bat Guillermo Cabrera Infante kubatarraren hainbat lan ingelese-ratu dituen Suzanne Jill Levine itzultzailea genuke. Cabrera Infanteren pertsonaiek ingelesezko esamoldez jositako Habanako gaztelania erabiltzen dute, eta hizkera hori ingelesera itzultzeko Jill Levinek nahitaez birmoldatu behar izan ditu testuak aniztasun linguistiko hori mantendu ahal izateko. Bere itzultzaile-esperientzia kontatzen duen artikuluan batean aitortzen duen bezala, “a translation must subvert the original” (Levine 1992: 83). Ikusi, halaber, Levine 1991.

bi mutur horien arteko hirugarren espazio horretan kokatuko dira itzulpena eta itzultzailea, eta baita beren hizkuntza eta kultura ere.³³

Ikasketa kulturalak itzulpengintzaren azterketari egindako ekarpenei esker, gero eta agerikoagoa da itzulpenek kulturen eta identitateen osieran duten eragina, eta baita botere-egiturek, ideologiak, politikak eta etikak itzulpenetan duten eragina ere. 1990eko hamarkadan zehar, gero eta ikertzaile gehiago hasi ziren itzulpenaren eta boterearen arteko harremana aztertzen. Azterketa horien adibideetako bat dugu izenburu aski esanguratsuko *Translation, Power, Subversion* artikulua-bilduma, non botereak itzulpenetan duen eragina ez ezik, itzultzaileak berak xede- nahiz sorburu-hizkuntza eta -kulturen gainean duen boterea eta aldaketarako nahiz subertsiorako ahalmena azpimarratzen diren (Álvarez & Vidal 1996). Horrelako lanen ekarpenei esker izan zuen itzulpengintzak “Power Turn” delakoa, Edwin Gentzlerrek eta Maria Tymoczkok 2002an argitaratutako *Translation and Power* bilduman adierazten duten bezala. Liburuaren kontrazalean ongi laburbiltzen dute itzulpenaren eta boterearen arteko hautsezinezko lotura:

The contributors to this volume see translation as an activity that takes place not in an ideal neutral site but in real social and political situations, with parties who have vested interests in the production and reception of texts across linguistic and cultural boundaries. Translation is not simply a process of faithful reproduction but invariably involves deliberate acts of selection, construction, and omission. It is inextricably linked to issues of cultural dominance, assertion, and resistance – in short, to power (Gentzler & Tymoczko 2002: kontrazala).

“Power Turn” delakoarekin, itzulpenaren eta boterearen arteko harremanaren alderdi asko hasi dira azaleratzen, hala nola itzulpenaren bidezko kontrol politikoa, itzulpenak diskurtso politikoen eraikuntzan duen boterea, itzulpenaren bidezko erresistentzia kulturala nahiz itzultzaileen aktibismoa. Itzulpenaren eta boterearen azterketa honetan, boterea ez da soilik instituzio hegemonikoek gizatalde edo kultura bat beren menpe mantentzeko erabiltzen duten ahalmen gisa ikusten; horretaz gain, itzulpenaren boterea talde menpe-

³³ Hirugarren espazio hori izendatzeko termino desberdinak erabili izan dira: “interlangue” (Simon 1994: 27), “Third Space” (Bhabha 1994: 36), “interculture” (Pym 1998: 177), “space-in-between” (Wolf 2000: 135). Guztiek ere ongi adierazten dute “l’aspect éphémère, fortuit, infini, mouvant, contradictoire et chaotique du « lieu » entre deux langues. Il importe de préciser que ce troisième espace n’exerce pas les fonctions d’un pont ni ne consiste en la fusion de deux entités, et s’explique davantage en termes d’un processus dynamique et spontané qui se déroule au gré de la mise en relation de deux textes par un corps traduisant” (Boulanger 2002: 121).

ratuek menperatzaileen aurkako erresistentzian ere erabili izan dutela erakutsi digute hainbat ikertzailearen lanek. Izan ere, itzulpena botere-harremanak negoziatzen diren gunea da, eta negoziazio horietan itzulpenak ez du beti funtzio bera betetzen, ezta estrategia berberak erabiltzen ere.

Itzulpenaren eta boterearen arteko harremanak modu sakonean aztertu dituzten adituen artean, itzulpenaren teoria postkolonialak eta itzulpenaren teoria feministak bultzatu dituzten ikertzaileak genituzke. Izan ere, bi kasuetan, bi gizatalderen arteko botere-harreman asimetrikoak izan ohi dira nagusi, eta itzulpenak berebiziko eragina izan du bai menperatzaileen ideologia menperatuei inposatzeko, baita luzaroan isiltasunera kondenatutako ahotsak ideologia nagusiaren aurka altxatzeko ere. Teoria postkolonialak atal berezi batean aztertuko ditugu, Euskal Herriko egoera azaltzeko tresna egokiak eskainiko dizkigutela uste baitugu; teoria feministak, aldiz, modu orokor eta azaleko batean jorratuko ditugu ondoko lerroetan, itzulpenaren epistemologia post-modernoarekin nola uztartzen diren erakusteko.

Feminismoa XIX. mendean sortutako mugimendua dugun arren, pentsamendu feminista postmodernoak 1970eko hamarkadan hasi zen garatzen Frantzian, Hélène Cixous, Julia Kristeva, Luce Irigaray eta beste zenbait emakumeren ekarpenekin. Gerora, 1980ko hamarkadan hartu zuen indarra itzulpengintzaren alorrean, batez ere Ipar Amerikako hainbat itzulpen-teorialari, hala nola Barbara Johnson (1985), Barbara Godard (1990), Sherry Simon (1996), Susanne de Lotbinière-Harwood (1991) eta Luise von Flotow (1997) itzulpengintza “Gender Studies” ikasketen ikuspuntutik aztertzen hasi zirenean. Hizkuntza gizonek sortu dutela eta ondorioz gizonen esperientziak, ideiak eta errealitateak irudikatzeko baizik balio ez duela salatuko dute emakume feminista horiek. Hizkuntza konbentzional horren izaera patriarkala iraultzeko, idazkera moldatu eta “feminizatzeari” ekingo diote. Idazkera femenino berri hori arraren eta emearen bi muturren artean kokatzen dela aldarrikatuko dute idazle eta itzultzaile feministek. Itzulpenaren ikuspegi dualistak elkarren aurkako bi mutur gisa ikusten ditu jatorrizkoa eta itzulpena, eta bi mutur horiek alde maskulinoa eta alde femeninoa balira bezala definitu izan dira, “les belles infidèles” metafora famatuak iradoki izan duen bezala: jatorrizko testua maskulinoa da, eta, ondorioz, ahalguztiduna; itzulpena, berriz, femeninoa da, eta, beraz, jatorrizko maskulinoari fideltasuna zor dion izaki esaneko eta otzana.³⁴ Itzulpen-

³⁴ “For *les belles infidèles*, fidelity is defined as an implicit contract between translation (as woman) and original (as husband, father, or author). However, the infamous “double standard” operates here as it might have in traditional marriages: the “unfaithful” wife/translation is publicly

-teoria feministak, ordea, ez du bereizketa dualista hori onartuko, eta bi mutur horien arteko espazio bisexualean kokatuko du itzulpena, gorago ikusi dugun hirugarren espazio berri horren alde eginez. Jatorrizkoaren eta itzulpenaren, arraren eta emearen arteko bereizketa hori bezala, idazlearen aldera lerratzen diren itzulpenen eta irakurlearengana gerturatzen saiatzen direnen arteko bereizketa ere zalantzan jarriko dute itzultzaile feministek, eta itzulpena irakurketa eta idazketa biltzen dituen ekintza gisa definituko dute, non emakume itzultzaileak testua bere nahierara manipulatzeko eskubidea duen.³⁵

Itzultzaile feministek, beraz, hiru erataria egingo diote aurre mendebaldar tradizio patriarkalean nagusi izan den idazkera eta itzulkerari: testuak berrirakurrituz, berridatziz eta birmoldatuz. Berrirakurketari dagokionez, itzultzaile feministak ohartuko dira garrantzi kultural handiko testuak askotan gizonen interpretazio eta itzulpenen bidez iritsi zaizkigula, eta, hori dela eta, hainbat testu kanoniko emakumeen ikuspuntutik berrirakurtzeari ekingo diote. Beren itzulpenetan, berriz, testuak beren modura interpretatuko dituzte, eta beren emakume-ikuspegitik berridatzi nahiz birmoldatuko dituzte.

Azkenik, ez guke atal honekin bukatu nahi “Gay / Lesbian Theories” izenekoek itzulpengintzari egindako ekarpena aipatu gabe. Emakumeak bezala, gay eta lesbianak ere hasiak dira salatzen identitate homosexualaren zantzuak desagerrarazi edota gutxien dituzten itzulpenak, eta itzulpen-estrategia subertsiboak proposatzen dituzte, urte luzez isilarazitako beren ahotsak itzulpenetan entzungai egiteko. Gai honi buruz interesgarria da Keith Harvey-ren “Translating camp talk” artikulua (1998/2000).

1.3.2.2.3. Dekonstrukzioa

Dekonstrukzioa mugimendu postestrukturalistarekin hain estuki lotuta dago, non askotan bi hitzak modu trukagarrian ere erabili izan diren. Definitzen edo laburtzen zaila den arren, postestrukturalismoa estrukturalismoaren

tried for crimes the husband/original is by law incapable of committing. This contract, in short, makes it impossible for the original to be guilty of infidelity. Such an attitude betrays real anxiety about the problem of paternity and translation; it mimics the patrilineal kinship system where paternity – not maternity – legitimizes an offspring” (Chamberlain 1988: 315).

³⁵ “The feminist translator affirming her critical difference, her delight in interminable rereading and rewriting, flaunts the signs of her manipulation of the text. *Womanhandling* the text in translation would involve the replacement of the modest, self-effacing translator” (Goddard 1990: 91).

aurkako erreakzio desberdinen multzo gisa uler daiteke. Mugimendu postestrukturalista Frantzian sortu zen, 1960ko hamarkadan, Mendebaldeko filosofia eta kultura nagusiarekiko kritiko agertzen hasiak ziren hainbat filosofia alternatibo, geroago Foucaultek “subjugated knowledges”³⁶ izendatuko zituenak, indarra hartzen hasi zirenean, hala nola feminismoa, mendebaldar marxismoa, fenomenologia eta nihilismoa. Postestrukturalismoak ikuspegi kritiko horiek justifikatzeko bidea eskaintzen zuen, Mendebaldeko filosofian ukaezintzat jotzen ziren hainbat arau zalantzan jartzen zituen eta.

Postestrukturalismoaren oinarritzko aldarrikapenak honela laburbil genitzake. Batetik, “norbanakoaren” kontzeptua izaki bakar eta koherente gisa ulertzen duen ideia konstrukzio faltsua da mugimendu honen defendatzaileen iritiz. Izan ere, norbanako edo nortasun bakoitza tentsio eta jakintza kontraesankorrez osatzen da (generoa, klasea, ogibidea...). Ondorioz, testu bat ongi aztertu ahal izateko, irakurleak ongi ulertu behar du lan hori nola erlazionatzen den bere buruarekiko duen kontzeptu pertsonalarekin. Nork bere buruaz duen pertzepzio horrek izugarritzko garrantzia du norberak testu baten zentzuaz egiten duen interpretazioan. Bigarrenik, autoreak bere testuari eman asmo dion zentzua bigarren mailakoa da irakurleak hautematen duen zentzuaren alboan. Izan ere, autorea ez bada nortasun egonkor eta koherentea duen izakia, ezin du objektiboki hauteman daitekeen “asmo” bat eduki. Postestrukturalismoak ukatu egiten du asmo, zentzu edo existentzia bakarra duen testu literarioaren ideia, eta horren ordez irakurle bakoitzak testu jakin batentzat asmo, esanahi eta existentzia berri eta berezkoak sortzen dituela aldarrikatzen du.

Dekonstrukzioa da postestrukturalismoaren adar nagusietako bat. “Dekonstrukzio” hitza Jacques Derridak erabili zuen lehen aldiz 1967an, bere *De la grammatologie* (1967) liburuan. Dekonstrukzioa ez da itzulpen-teoriarekin zuzenean lotutako metodologia; izatez, ez du bere burua metodologia gisa ere definitzen. Alabaina, dekonstrukzioaren proposamenak baliagarriak gerta litezke itzulpen-prozesuaren arazo teoriko asko jorratzeko. Dekonstrukzioak ikusmolde europar eta ipar-amerikarretan nagusi den kanon teorikoa goitik behera berraztertzeko filosofema gisa erabiltzen du itzulpena. Hainbat erreferentzia kontzeptual desaktibatatu edo deseraiki nahi ditu, besteak beste zentzua, idazketa eta autorea bezalako nozioak. Horrek ez du esan nahi bere helburua

³⁶ “[...] a whole set of knowledges that have been disqualified as inadequate to their task or insufficiently elaborated: naive knowledges, located low down on the hierarchy, beneath the required level of cognition or scientificity” (Foucault 1980: 82).

tradizio filosofikoa modu erabat nihilistan deuseztatzea denik, egia unibertsal gisa aurkezten zaizkigun hainbat ikuspegi teoriko zalantzan jartzea baizik. Horixe da, funtsean, dekonstrukzioak egiten duena: irtenbide bakoitza zalantzan jarritz, arazo berriak planteatzen ditu etengabe.³⁷ Teorizatzeke modu amaigabe horrek hankaz gora jartzen du egian, batasunean eta unibertsaltasunean oinarritutako Mendebaldeko tradizio filosofikoak inposatutako jakintza kuantifikagarri eta egituratua.

Dekonstrukzioak deseraiki nahi dituen erreferentzia kontzeptual horien artean garrantzitsuenetakoa, itzulpengintzari dagokionez, jatorrizko testuaren eta autorearen nagusitasun edo autoritatea da.³⁸ 1960eko hamarkadaren bukaeran Frantzia sortu eta gerora Europa osoan hedatu eta garatuko diren hainbat ideiak zalantzan jarriko dute jatorrizko testuaren originaltasunaren ideia. Alde batetik, *Tel Quel* aldizkariaren inguruan bildutako idazleek proposatutako “intertestualitate” edo “testuartekotasun”³⁹ nozioaren bidez, agerian jarriko dira testu bakoitzak beste testu batzuekin dituen loturak, eta argi erakutsiko da, beraz, ezin testu ez dela guztiz originala. Beste alde batetik, azpimarratuko da jatorrizko testuak etengabe berridazten direla orainean, eta irakurketa edo itzulpen bakoitzak jatorrizko testua berreraikitzen duela. Dekonstrukzioak aldarrikatzen duenez, jatorrizko testuak etengabe berridazten dira orainean, eta irakurketa edo itzulpen bakoitzak jatorrizko testua berreraikitzen du. Michel Foucaultek, esaterako, jatorrizko testuaren autoretza, sorkuntza originala, jatorrizko testuaren batasuna, itzulpen-baliokidetzeta eta

³⁷ “[...] to reverse the direction of inquiry for a given problem by considering the solution proposed as yet another problem. [...] No solution that is part of or prey to the problem it aimed to solve is really a solution” (Graham 1985: 20).

³⁸ Sarrionandiak salatzen duenez, autorearen irudia burgesiaren politika kulturalaren ondorioz sakralizatu zen: “«Autorea» ez da beti hain beharrezkoa izan. Hizkuntza mintzatua bera ere «autorerik» gabe bilakatzen da, ez delako inorena eta, aldi berean, denena delako. Alfabetoaren eta inprentaren ondoren, burgesiaren politika kulturalak asmatu zuen «autoretza». Kultura idatzietan bai, idazleak objektu literal bat asmatzen du ezerezetik, Jainkoak egin zuen antzera, eta hagatik sakralizaten dira izen propioekin «autorea» eta «liburua»” (Sarrionandia 2010b: 657).

³⁹ “Intertextualité” edo testuartekotasuna terminoa Julia Kristevak sortu zuen 1967an, Mikhail Batjin literatura-kritikariaren teorian oinarrituz. Kristevak dioenez, “tout texte se construit comme mosaïque de citations, tout texte est absorption et transformation d’un autre texte” (Kristeva 1969: 85). Geroago, Gérard Genettek ekarpen garrantzitsua egingo dio intertestualitatearen kontzeptuari 1982ko *Palimpsestes* liburuan “transtestualitate” nozio orokorragoa proposatuz. Testu oro beste testu baten berridazketa dela berretsi zuen Genettek lan horretan, itzulpenaren ikuspegi postmodernoaren garapenean berebiziko garrantzia izango zuen ideia, inondik ere.

literaturaren nahiz itzulpengintzaren inguruko pentsaera tradizionalaren oinarrian dauden beste hainbat nozio tradizional jartzen ditu zalantzan *Language, Counter-memory, Practice* (1977) liburuko “What is an author?” artikuluan. Foucaulten esanetan, autorearen lana ez da bat-bateko inspirazioaren ondorio soila; aitzitik, bere garai eta denborako sistema instituzionalen sareak (autoreak kontrolatu edo guztiz hauteman ezin dezakeenak) ezinbestean harrapatuta daukan zerbait baizik. Foucaultek ez du autorea norbanako oso eta guztiz mugatu gisa ikusten, jarrera subjektibo desberdin askoz osatutako izaki gisa baizik. Jarrera horiek ez daude harmonian norbanakoaren baitan, hutsunez, etenduraz eta hausturaz beteta baizik. Ondorioz, autoreak sortzen duen lana ez da inoiz jatorrizko testu oso, batu, transzendental eta historiaz kanpoko bat izango. Testu horren zentzua ulertzeko, beraz, ez da nahikoa izango modu koherente eta esplizituan esaten dena hautematea; ezinbestekoak izango dira halaber hutsuneak, diferentziak, kontraesanak nahiz isiluneak.

Autorearen funtzio sortzailea gutxietsita, galdera berriak sortzen dira: nondik dator testu jakin baten diskurtsoa, autoreak berak horren gaineko ahalmen hain mugatua badu? Nola sortzen da zentzua, autoreak ezin izan badu zentzu transzendentalduen testu bat sortu? Zentzua testuaren hizkuntzan bilatu behar dela aldarrikatzen du Foucaultek, kontraesan, hutsune nahiz isiluneetan.⁴⁰ Horrela, Mendebaldeko kulturaren diskurtsoak ezkutatu edo isilarazi dituen esanahien jabe egiten dira berriro hitzak. Itzulpenak, izan ere, jatorrizko testuak azalaraz ezin dezakeena edo are ezkutatu nahi duena erakusten du: zentzuaren ezegonkortasuna.

Roland Barthesek ere antzeko moduan jartzen du zalantzan autorearen autoritatea: “[...] depuis des siècles nous nous intéressons démesurément à l’auteur et pas du tout au lecteur” (Barthes 1984b: 34). Barthesen ustez, idazleak baino gehiago irakurleak ematen dio zentzua testuari: “[...] le texte seul ça n’existe pas : il y a *immédiatement* dans cette nouvelle, ce roman, ce poème que je lis, un supplément de sens, dont ni le dictionnaire ni la grammaire ne peuvent rendre compte” (Barthes 1984b: 35, letra etzana jatorrizkoarena da). Ikuspegi aldaketa hori bera proposatzen du izenburu esanguratsua duen “La mort de l’auteur” (1984a) artikuluan. Barthesek dioenez, testua ez da zentzu edo mezu bakar eta itxi bat osatzen duten hitzen multzoa, kultura desberdinetatik dato-

⁴⁰ Sarrionandiak atal oso bat eskaintzen dio isiltasunari *Ni ez naiz hemengoa* saiakeran, haren indar kreatoraile azpimarratuz: “Baina isiltasuna, gabeziaren edo ahuldadearen ezaugarri izateaz gainera, zarataren eta blagaren zibilizazio horri uko egiteko edo beste modu batez bizitzeko bidea izan daiteke. Baliteke isiltasuna kreatoraile izatea” (Sarrionandia 2006a: 213).

zen dimentsio eta idazkera desberdinak nahasten diren gune bat baizik. “Le texte est un tissu de citations, issues des mille foyers de la culture” (Barthes 1984a: 65). Testua, beraz, irekita dago milaka interpretazio posibletara, eta autoreak ezin du bere lanaren eduki semantiko guztiaren jabe izan. Testuak irakurlearen irakurketa (edo itzultzailearen itzulpena) behar du bere esanahia gauzatzua eta osatua izan dadin. “Le lecteur est l’espace même où s’inscrivent, sans qu’aucune ne se perde, toutes les citations dont est faite une écriture ; l’unité d’un texte n’est pas dans son origine, mais dans sa destination, mais cette destination ne peut plus être personnelle [...]” (Barthes 1984a: 66-67).

Irakurlearen irakurketaren garrantzia azpimarratzen ari garen honetan, ezin dugu aipatu gabe utzi “harreraren estetika” deituriko literatura-teoria. Harreraren estetikak Konstantzako Eskola delakoan du jatorria, eta Hans Robert Jauss eta Wolfgang Iser irakasleak ditu teoriarari nagusiak. Teoriarari horien arabera, testu bat ez da interpretatzen idazleak idatzi zuen unean zituen motibazio berberekin; aitzitik, irakurleak bere interpretazio propioa ematen dio, bere ezaguera kulturalen eta bizitako esperientzietan oinarrituz. Irakurlearen ezaguera eta esperientzia horiek osatzen duten erreferentzia-sistema izendatzeko, Jaussek Gadamer eta Heidegger filosofoengandik hartutako *Erwartungshorizont* edo “igurikimen horizontea” kontzeptua proposatu zuen (Jauss 1972). Harrezkero, beraz, gero eta zailagoa izango zen testu baten zentzua autorearen intentzioan bakarrik oinarritzen zela defendatzea.

Autorearen autoritatea eta testuaren “berezko” zentzua bezala, dekonstrukzioak zalantzan jarriko ditu Mendebaldeko tradizio filosofiko eta teoriakoaren beste hainbat oinarri edo dogma. Jacques Derrida, jatorrizko mitoa iraurarazten duten axioma filosofikoak deseraikiz, filosofia tradizionalak adieraziaren eta adierazlearen, hizketaren eta idazketaren, jatorrizkoaren eta itzulpenaren artean ezartzen dituen hierarkiak deuseztatzen saiatzen da, eta itzulpena erabiltzen du lan horretarako abiapuntu gisa:

Et c’est en effet dans l’horizon d’une traductibilité absolument pure, transparente et univoque, que s’est constitué le thème d’un signifié transcendantal. Dans les limites où elle est possible, où du moins elle *paraît* possible, la traduction pratique la différence entre signifié et signifiant. Mais, si cette différence n’est jamais pure, la traduction ne l’est pas davantage et, à la notion de traduction, il faudra substituer une notion de *transformation* : transformation réglée d’une langue par une autre, d’un texte par un autre. Nous n’aurons et n’avons en fait jamais eu affaire à quelque “transport” de signifiés purs que l’instrument — ou le “véhicule” — signifiant laisserait vierge et inentamé, d’une langue à l’autre, ou à l’intérieur d’une seule et même langue (Derrida 1972b: 31).

Babelgo dorrearen dekonstrukzioa erabiltzen du Derridak adierazi transzendental, unibertsal eta bakar baten ideia hutsaltasuna agerian jartzeko. Jainkoak Babelgo dorrearen eraikuntza eten zuenetik eta gizakiak hizkuntza desberdinak hitz egitera behartu zituenetik, ez dago adierazi unibertsal eta bakarrik. Hitz unibertsala bera ere, beraz, plurala da hasiera-hasieratik, eta etengabe dago itzulpenean. Babelgo gaitza, azken batean, munduko hizkuntza guztien gaitz bera da. Derridak frogatzen duenez, osotasun koherente eta batu gisa aurkezten den unitate semantiko oro (izan hizkuntza bat nahiz testu bat), itzulpenean dago beti, hots, transformazioan. Hasieratik da plurala, eta batasuna, beraz, itxurazkoa besterik ez da.

Gainera, hitz edo zeinu bakoitzak hizkuntzaz aurreko eta hizkuntzaz kanpoko presentzia erreal gisa existitzen den erreferente bat adieraz dezakeelako ideia goitik behera deseraikitzen du “Babel” izen bereziak berak. Izan ere, “Babel” hitzak hiru erreferente izan ditzake gutxienez: izen berezi gisa Jainkoa izenda dezake batetik, eta hiria bestetik; izen arrunt gisa, berriz, “nahasmena” esan nahi du.⁴¹ Adibide horrek argi erakusten duenez, adierazle bakoitzaren zentzua ez datza adierazle bakoitzari legokiokoen adierazi transzendental batean, gainerako adierazleekin mantentzen dituen diferentzia-harremanetan baizik. Derrida Saussureren *Cours de linguistique générale* dokumentutik abiatzen da diferentziari buruzko bere teoriak azaltzeko. Saussureren arabera, hizkuntzan diferentziak baizik ez daude. Zeinu linguistikoko bakoitza (dela adierazia nahiz adierazlea) beste zeinukiko diferentziaren bidez bakarrik defini daiteke. Derridak ondorioztatzen du adieraziaren kontzeptua ez dagoela inoiz presente. Izan ere, kontzeptu bakoitza sistema batean txertatuta dago, eta sistema horretako gainerako kontzeptuekiko harremanak edo diferentziak definitzen du. Derridaren arabera, hizkuntzan adierazleak baizik ez daude, adierazle bakoitzak beste adierazleei egiten baitie erreferentzia, eta ez hizkuntzaz kanpoko adierazi bati. Adierazleen arteko etengabeko elkarreragin horri “jeu de traces” deitzen dio Derridak. Testuko marka edo arrasto horiek beren arteko diferentzia-harremanari esker baizik ez dute zentzua, hau da, elkarrengandik desberdindu ahal izateak ematen die zentzua. Zentzua, beraz, diferentzien joko amaigabe oinarritzen da, hizkuntzaren *ondorio* bat da, eta ez aurretiaz presente dagoen esentzia bat, hizkuntzak besterik gabe islatu dezakeena. Zentzua beti gertatzen edo sortzen da *ondoren*.

⁴¹ “Dieu, justement, déclare la guerre, et il leur dit : maintenant, vous n'imposerez pas une seule langue, vous serez voués à la multiplicité des langues ; traduisez, et d'abord, traduisez mon nom. Traduisez mon nom, mais en même temps, vous ne pourrez traduire mon nom, vous ne le pourrez pas, parce que d'abord, c'est un nom propre, et ensuite mon nom, celui que j'ai choisi, moi, pour cette Tour, signifie ambiguïté, confusion, etc.” (Derrida 1982: 136).

Horregatik asmatzen du Derridak “différance” terminoa. Frantseseko “différence” substantiboaren eta “différer” aditzaren orainaldiko partizipioaren (“différant”) arteko nahasketatik sortua. “Différer” aditzak bi esanahi ditu frantsesez: batetik desberdin edo diferente izatea esan nahi du, eta, bestetik, berriz, atzeratzea, geroratzea, gerorako uztea.

Esanahiari buruzko eztabaidan, “différance” terminoarekin estuki lotuta-ko beste termino bat erabiltzen du Derridak: jadanik aipatu dugun “trace” edo arrastoa. Edozein elementuren esanahia interpretatzean, kontuan hartu behar da elementu hori iraganeko eta etorkizuneko beste elementu batzuekin lotuta dagoela, “se rapporte à autre chose que lui-même, gardant en lui la marque de l’élément passé et se laissant déjà creuser par la marque de son rapport à l’élément futur [...]” (Derrida 1972a: 13). “Trace” edo arrasto horrek ausente dauden beste elementu batzuen markak gordetzen ditu bere baitan.

Que ce soit dans l’ordre du discours parlé ou du discours écrit, aucun élément ne peut fonctionner comme signe sans renvoyer à un autre élément qui lui-même n’est pas simplement présent. Cet enchaînement fait que chaque “élément” — phonème ou graphème — se constitue à partir de la trace en lui des autres éléments de la chaîne ou du système. Cet enchaînement, ce tissu, est le *texte* qui ne se produit que dans la transformation d’un autre texte. Rien, ni dans les éléments ni dans le système, n’est nulle part ni jamais simplement présent ou absent. Il n’y a, de part en part, que des différences et des traces de traces (Derrida 1972b: 37-38).

Elementu lexiko baten “balioa”, Derridaren arabera, sistema handiago baten gainerako elementuekin dituen harremanetatik sortzen da. Harreman edo erlazio horiek iraganarekin edo etorkizunarekin lotuta daude beti, ez dira inoiz guztiz-gutztiz oraingoak. Ikuspegi horrek ondorio esanguratsuak ditu itzulpena hautemateko moduan, Kathleen Davisek ezin hobeto laburbiltzen duen bezala:

No element of language, then, let alone an entire sentence or text, is ever fully ‘original’. In order to exist as meaningful events, texts must carry within themselves traces of previous texts, and are, therefore, acts of citation. The source text for a translation is already a site of multiple meanings and intertextual crossings, and is only accessible through an act of reading that is in itself a translation. The division between ‘original’ and ‘translation’, then – as important and necessary as it is to translators and scholars today – is not something pre-existing that can be discovered or proven, but must be constructed and institutionalized. It is therefore always subject to revision (Davis 2001: 16).

Testu baten zentzua modu oso, zehatz eta erabatekoan interpretatzea ezinezkoa dela frogatzen du Derridak. Izan ere, testu orok, beste elementu batzuekiko diferentziazko prozesu baten ondorioz sortzen du zentzua; diferentzia-harreman hori ez da soilik hizkuntzako beste elementuekin gauzatzen, baizik eta baita sare handiago bateko elementu sozial, kultural, politiko, sexual, familiar eta abarrekin ere. Sare handi hori da, Derridaren hitzetan, testua. Adierazleean katean gertatzen den diferentziazko mugimendua, beraz, ez da adierazle linguistikoetara mugatzen; elementu ekonomiko, historiko nahiz sozio-instituzionaletaraino zabaltzen da. Irekitasun horrek ez du gertakari bakoitzaren berezitasuna ezabatzen, baina argi uzten du ezinezkoa dela gertakari horren interpretazio erabatekoa egitea. Batetik, testua ezin delako testuingurutik bereizi;⁴² bestetik, testuinguruaren elementuak ezin ditugulako zuzenean ezagutu.

Testu baten interpretazio erabatekoa egitea ezinezkoa den arren, Derridak ez du esaten zentzua erabat ezegonkorra denik, ezta testua edozein modutara interpreta daitekeenik ere. Alderantziz, testuetan nolabaiteko egonkortasun estrukturala bermatzen duten “arrasto” edo marka batzuk badaudela azpimarratzen du. Arrasto horiek ez dira esanguratsuak bere horretan, ez dute berezko esanahirik, baina kode konbentzionalen arabera etengabe errepikatzearen ondorioz, harreman multzo egonkor bat pilatzen joaten dira, esanahi efektu batzuk osatzen, eta horri esker egiten da testua irakurgarri edo interpretagarri.⁴³ Roland Barthesek ere, irakurleak testuaren zentzuaren osaketan duen parte-hartzea ez dela anarkikoa gogorarazten digu:

[...] les associations engendrées par la lettre du texte [...] ne sont jamais, quoi qu'on fasse, anarchiques. [...] La lecture la plus subjective qu'on puisse imaginer n'est jamais qu'un jeu mené à partir de certaines règles. D'où viennent ces règles ? Certainement pas de l'auteur, [...] [mais] d'une logique millénaire

⁴² Dagoeneko hain ezagun bihurtu den Derridaren esaldi ospetsua, “*il n'y a pas de hors-texte*” (Derrida 1967: 227), ez da testuinguruaren ukapen gisa ulertu behar, hainbat dekonstrukzionista estatubatuarrek egin izan duen bezala. Hain zuzen ere aurkakoa defendatzen du Derridak, alegia, dena dela testua, baita testuingurua ere. Aurrerago, esaldi horrek sorrarazitako anbiguotasuna argitzeko, beste modu batera planteatu izan du testuaren eta testuinguruaren auzia: “there is nothing outside context” (Derrida 1988: 136). Ikusi, halaber, 1.3.2.1.3. atalean txertatu dugun Derridaren aipua.

⁴³ Arrastoen errepikagarritasun hori izendatzeko “iterability” terminoa erabiltzen du Derridak: “This has to do with the structure of a text, with what I will call, to cut corners, its iterability, which both puts down roots in the unity of a context and immediately opens this non-saturable context onto a recontextualization. All this is historical through and through. The iterability of the trace (unicity, identification, and alteration in repetition) is the condition of historicity [...]” (Derrida 1992: 63).

du récit, [...] de cet immense espace culturel dont notre personne n'est qu'un passage (Barthes 1984b: 35).

Dekonstrukzioaren arabera, beraz, irakurlearen interpretazioak eta tes-tuinguru edo espazio kultural berri bakoitzak ezartzen dituen irakurketa-bal-dintzek osatu eta birmoldatzen dute testu baten zentzua. Ondorioz, irakurke-tarik edo interpretaziorik gabe ez dago zentzurik, eta are urrunago joanez, itzulpenik gabe ez dago jatorrizkorik. Derridak Walter Benjaminen “Die Auf-gabe des Übersetzers” (1972) artikulua hartzen du hizketagai bere “Des Tours de Babel” lanean (1985), itzulpena jatorrizkoarekiko zordun dela dioen ideia tradizionala iraultzeko. Derridaren arabera, itzulpenari esker existitzen da ja-torrizko testua, eta ez alderantziz. Era berean, itzulpenari esker transformatzen da jatorrizkoa, eta horrexegatik soilik irauten du bizirik. “Benjamin le dit, dans la traduction l'original grandit, il croît plutôt qu'il ne se reproduit [...]” (Derrida 1985: 234). Itzulpenak jatorrizkoaren kanonizazioan parte hartzen du, itzulpenari esker irauten baitu originalak. Dena den, jarduera hori parado-xiko samarra da; izan ere, itzulpenak jatorrizko testua iraunarazten duen arren, aldi berean haren originaltasuna ezabatzen du. Edo, beste modu batera esan-da, itzulpenak jatorrizkoaren heriotza iragartzen du, Paul de Man estatuba-tuar dekonstrukzionistak Benjaminen artikulua berari erreferentzia eginez al-darrikatzen duen bezala. De Manek jatorrizkoaren heriotzaren ondorengo bizitza bezala ulertzen du itzulpena, Benjaminek proposatutako “Überleben” edo biziraupenaren kontzeptuari erreferentzia eginez:

The translation belongs not to the life of the original, the original is already dead, but the translation belongs to the afterlife of the original, thus assuming and confirming the death of the original [...]. The process of translation, if we can call it a process, is one of change and of motion that has the appearance of life, but of life as an afterlife, because translation also reveals the death of the original (Man 1986: 85).

Itzulpenak deuseztatu egiten du jatorrizkotzat jotzen den testuaren “balio sakratua” (Man 1986: 97), agerian jartzen baititu jatorrizkoan esaten ez ziren baina bere dimentsio poetikoan gordeta zeuden ahultasun, konbentzio eta arrunke-riak. Gainera, jatorrizko testua itzuli ahal izateak berak frogatzen du jatorrizkoa ez dela unitate itxi eta bukatua, itzulpenaren beharra duen eta be-raz itzulpenaren menpeko den zerbait baizik.

Ez genuke dekonstrukzioari buruzko atal hau bukatu nahi Paul de Mane-kin batera Estatu Batuetako Yale unibertsitatean lanean aritutako Harold

Bloom irakaslea aipatu gabe. Izan ere, Joseba Sarrionandiak teoriarari hau aipatzen du *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* itzulpen-bildumaren hitzaurrean:

Funtsean, poemagintza bera ere irakurketa da, izkiriartzea izan orduko. Harold Bloom kritikoak proposatu duen teorizazioaren arauera, edozein poema lehenago irakurritako beste poema bati dagokio, eta edozein poetak aurreko beste poeta bati erantzunez idazten du. Poetak, irakurriak dituen poemak tratatzen ditu bere poemetan. Bere irakurketa interesatua eta apropos okerra da eta, tradizioaren ber elaborazio zein ukazio gisa, bere kreazioa ezin da errebisio besterik izan, errebisio hitza bertsio edo, zentzu zabal batean, translazio gisa konpreniturik (Sarrionandia 1995a: 8-9).

Bloomen arabera, beraz, edozein poemak bere aurreko poema batean du jatorria. Bere *The Anxiety of Influence* (1973) liburuan azaltzen duenez, aurreko poeten poesia irakurtzearen eta mirestearen ondorioz erretzen da poeta berri batengan idazten hasteko inspirazioa. Miresmen hori, ordea, erresumin bilakatzen da poeta berriarengan, berak esan nahi duen guztia hainbeste gurtzen dituen poeta horiek dagoeneko esana dutela ohartu orduko. Etsipen hori behin baino gehiagotan aipatu du Sarrionandiak berak ere: “[...] / dena esanda dago eta zer akigarria den / errepikatzea, / [...]” (Sarrionandia 1995b: 215). Aurreko idazleen eraginak sorrarazitako etsipen edo “antsietate” horri aurre egitea ez da erraza, Bloomen arabera, eta poeta “indartsuek” soilik lor dezakete, beren aitzindariak idatzitakoarekiko desberdina den testua sortuz. Beren aitzindarien lanak “gaizki ulertu” edo “gaizki interpretatu” behar dituzte ezinbestean (*misread* Bloomen hitzetan), irudi berrientzako lekua egin ahal izateko. Bloomek sei “revisionary ratio” edo fasetan deskribatzen du aitzindarien lanak gaizki interpretatzeko prozesu hori. Lehenik, poetak bere aitzindariaren lanetik desbideratu behar du, haren lana gaizki interpretatuz (*Clinamen*, “poetic misreading or misprision”). Ondoren, aitzindariaren poema antitetikoki osatzen du (*Tessera*, “completion and antithesis”), haren hitzak mantenduz baina zentzu berriz hornituz, aitzindariak iritsi nahi zuen lekuraino iristea lortu ez balu bezala. Hurrengo mugimendua aitzindariarekiko jarraitutasuna etera bideratu behar du (*Kenosis*, “movement towards discontinuity with the precursor”). Laugarren fasean, aitzindariaren sublimarean aurkako erreakzioa sortzen da (*Daemonization*, “movement towards a personalized Counter-Sublime”). Bosgarrenean, bakardaderantz bultzatuko duen auto-purgazioa bilatu behar du (*Askesis*, “movement of self-purgation”). Azkenik, poeta berriak hain modu irekian agertzen du bere poema aitzindariaren lanaren aurrean, ezen bai baitirudi poeta berriak idatzi duela berez aitzindariarena den lana

(*Apophrades*, “return of the dead”) (Bloom 1973: 14-16). Bere hurrengo liburuan, *A Map of Misreading* (1975) izenekoan, poeta batek beste poeta baten lana “gaizki interpretatzeko” sei tropo⁴⁴ desberdin erabil ditzakeela iradokitzen du Bloomek. Poeta berriak murrizketaren bidez birsor dezake aitzindariaren poema, ironiaz, metonimiaz eta metaforaz baliatuz (“tropes of contraction or limitation”); edota osaketaren bidez, sinekdokea, hiperbolea eta metalepsia erabiliz (“tropes of restitution or representation”) (Bloom 1975: 95).

Ez luke merezi Sarrionandiaren itzulpenak Bloomek proposatutako troppen arabera aztertzen saiatzea, besteak beste Bloomen teoriak muturrekoegiak gerta litezkeelako haren hitzei orpoz orpo jarraituz gero.⁴⁵ Hemen interesatzen zaiguna Sarrionandiak egiten duen Bloomen irakurketa da: pentsalari amerikarrak proposatzen duen sare intertestualaren irudia eta idazle / itzultzaileak aitzindari bati erantzunez (ber)idaztera bultzatzen dituen ezinegona dira, ziurrenik, Sarrionandiak Bloomengandik hartutako ideia garrantzitsuenak, baita Bloom dekonstrukzioaren barruan sailkatzera eraman duten arrazoi nagusiak ere.

1.3.2.2.4. Teoria postkolonialak

Dekonstrukzioak eragin nabarmena izan du itzulpen postkolonialaren arloan diharduten ikertzaileengan, eta, esan dezagun bide batez, baita jadanik aurkeztu ditugun teoria feministen defendatzaileengan ere. Izan ere, dekonstrukzioak agerian jartzen du mendeetan zehar “unibertsal” nahiz “berezko” gisa aurkeztu zaizkigun hainbat egia eta diskurtso eraikiak izan direla, betiere eraikitzailearen interesetara lerraturik, jakina. Idazle eta itzultzaile feministak nagusiki gizonek idatzi eta argitaratutako historia eta literatura “deseraiki” eta beren modura berrirakurtzen edo berreraikitzen hasi diren bezala, testuinguru postkolonialetako ikertzaileak ere kolonizatzaileek kolonizatuen kultura “exotikoa” beren interesen arabera idatzi, interpretatu, manipulatu edo itzuli dutela salatzen hasiko dira. Teorialari feministek emakumearen eta itzulpenaren

⁴⁴ “[...] a trope is a willing error, a turn from literal meaning in which a word or phrase is used in an improper sense, wandering from its rightful place. A trope is therefore a kind of falsification, because every trope (like every defense, which is similarly a falsification) is necessarily an interpretation, and so a mistaking” (Bloom 1975: 93). Ikusi, halaber, Douglas Robinson-en definizioa 1.3.2.2.6. atalean.

⁴⁵ Esate baterako, Bloomek zioen poeta batek ez duela zertan beste poeta bat irakurria izan “anxiety of influence” delakoa sentitzeko.

irudi tradizionalak alderatu dituzten bezala (itzulpenak, emakumeak bezala, fideltasuna zor dio jatorrizkoari, alegia, gizon edo autoreari), itzultzaile postkolonialek ere metafora bera erabiliko dute: “the metaphor of the colony as a translation, a copy of an original located elsewhere on the map” (Bassnett & Trivedi 1999: 5). Emakumeak idazkerak “feminizatzen” hasi diren bezala, itzultzaile postkolonialek ere, itzulpena erresistentzia gisa erabiliz, urte luzez isiltasunera kondenatutako ahotsak entzunarazteari ekingo diote, zapalduen identitatea zapalduak berek nahi bezala eraiki ahal izan dezaten.

Teoria feministen moduan, teoria postkolonialek ere ozen aldarrikatuko dute hizkuntza ez dela edonoren eskura dagoen komunikazio-tresna neutro eta demokratikoa, errealitatea bere horretan islatzen duen ispilu gardena. Aitzitik, elite boteredunak bere menpekoak kontrolatzeko eta bere boterea mantentzeko erabili eta manipulatu duen bitartekoa da hizkuntza. Testuinguru postkolonialetako ikertzaileek erakutsi dutenez, kolonizatzaileak idazketaz eta itzulpenaz baliatu izan dira beren balio eta mundu-ikuskerak kolonizatuari inposatzeko. Hizkuntzaren bidez eraikitako balio horiek, ordea, egia unibertsal gisa aurkeztu dituzte, humanismo liberalaren izenean kolonizatuak kristautu eta zibilizatu ahal izateko.

Europar kolonizatzaileen eta herri “primitiboen” arteko lehen enkontruetan, misiolariak bertakoen hizkuntza ikasten zuten haien artean kristautasuna zabaldu ahal izateko. Baina europar inperialismoa hedatzen joan ahala, konkistatutako lurraldeetako hizkuntzak bazterrean geratzen joan ziren, eta konkistatzaileen hizkuntzek baizik ez zuten botere- eta zibilizazio-estatusa. Herrialde kolonizatueta antolamendu politiko berrian ahots bat izateko, beraz, ezinbestekoa zen kolonizatzaileen hizkuntza hitz egitea (hizkuntza estandarra, balio zuen bakarra), herritar autoktonoen hizkuntzak dialekto huts gisa ikusten baitziren. Teoria postkolonialek gogor kritikatu dute hizkuntza estandarren (inperialaren) eta dialektoen (kolonialen) arteko bereizketa, eta hizkuntza bakoitza ezinbestean bere inguruko hizkuntzez kutsatuta dagoela gogoraraziko dute; ez dagoela, alegia, hizkuntza puru edo garbirik.

Itzulpengintza filosofia eta erlijio mendebaldirrean oinarritutako sistema kontzeptualen hedapenerako erabili beharrean, hainbat itzultzaile postkolonialek bestelako erabilera bat emango diote itzulpengintzari, eta erresistentziarako estrategia gisa baliatuko dute. Egiteko horretan eragin handiena izan duten ikertzaileen artean ditugu Tejaswini Niranjana eta Gayatri Chakravorty Spivak irakasleak, biak ere indiar jatorriko emakumeak. *Siting Translation: History, Post-Structuralism, and the Colonial Context* (1992) liburuan, Niranjana gogor kritikatu du mendebaldir tradizioko itzultzaile, etnografo eta

historialariek kultura kolonialen inguruan eraiki duten irudia: kolonizatzaileek beren inperioko kulturak entitate “exotiko”, “aldaezin” eta “eternal” gisa aurkeztu dituzte beren itzulpenetan, eta estereotipatze horrek izugarritzko eragina izan du ez soilik zibilizazio mendebaldarrak Hirugarren Mundua ulertzeko moduan, baizik eta baita sorburu-kulturak berak bere buruaz duen pertzepzioan ere. Hori horrela izanik, baliorik gabe gelditzen dira, Niranjaren ustez, guk postmoderno gisa deskribatu ditugun hainbat teoria, besteak beste Gideon Touryk proposatutakoa,⁴⁶ zeina itzulpenak xede-hizkuntzaren eta -kulturaren ikuspuntutik aztertzer mugatzen baita, eta itzulpenek sorburu-testuaren sistema kulturalean inolako eraginik ez dutela aldarrikatzen baitu (Niranjana 1992: 59-60). Niranjana Indiaren kasua aztertuz erakutsi duenez, kultura zapalduak (sorburu-kulturak) sinetsi eta bereganatu egin ohi du askotan kultura zapaltzaileak eraiki duen deskribapen estereotipatu eta negatiboa, eta horrek kolonizatzaileen eta kolonizatuen arteko botere-harreman hierarkizatuak iraunarazten lagundu du sarritan. Indiaren kasuan, esaterako, itzulpenaren bidez Indiaren historia manipulatzea lortu dute britainiar kolonizatzaileek, eta, ondorioz, Britainia Handiaren inperialismoaren misio “salbatzailea” legitimatzea. Derridaren, Foucaulten, de Manen eta Benjaminen ideia dekonstrukzionistak erabiliz, Niranjana argi erakusten du itzulpenak bi norabideetan eragiten duela, xede-kulturaren ez ezik sorburu-kulturaren ere uzten duela bere arrastoa, eta ez dagoela, beraz, jatorri, originaltasun edo purutasun kontzeptuez hitz egiterik.

Gayatri Chakravorty Spivak bengalar kritikariak ere Indiaren kasua aztertzeko, Hirugarren Munduko literaturak ingelesera itzultzean gertatzen diren distorsioen eta distorsio horien ondorio ideologikoen berri emateko. Ideia feministak, postkolonialistak eta postestrukturalistak biltzen dituen “The Politics of Translation” (1992) artikuluan, itzulpenak kolonizazio-prozesuan izan duen eragina salatzen du, agerian jarriz nola lagundu duen itzulpenak herri kolonizatuen irudi ideologikoki manipulatuak eraikitzen. Hirugarren Munduko emakumeen idazlanak ingelesa bezalako hizkuntza “boteretsuetara” itzultzeko Mendebaldeko itzultzaile feministek egindako ahaleginak ere kritikatzeko Spivakek; izan ere, Mendebaldeko feministentzat antzekoak dira Hirugarren Munduko idazlan guztiak.⁴⁷ Spivaken iritziz,

⁴⁶ “It is clear that, from the standpoint of the source text and the source system, translations have hardly any significance at all [...]. [...] they are in no position to affect its linguistic and textual rules and norms, its textual history, or the source text as such” (Toury 1985: 19).

⁴⁷ “This happens when all the literature of the Third World gets translated into a sort of with-it translatee, so that the literature by a woman in Palestine begins to resemble, in the feel

ez da nahikoa politikoki konprometituta egotea; itzultzaileek, horretaz gain, arreta bereziz aztertu behar dituzte testu bakoitzaren forma, hizkera eta tes-tuingurua, Hirugarren Munduko idazleen ahotsen berezitasunak itzulpenean entzunarazteko.

Baina posible al da kolonizatuen ahotsa bere horretan entzunaraztea, jasan duten kolonizazio-prozesuak haien identitatea kolonizatzaileen interesen ara-bera eraiki badu, eta herri zapalduak beren zapaltzaileek eraikitako irudi ma-nipulatu hori pixkanaka bere egin badute? Galdera horri erantzuten saiatzen da Spivak “Can the Subaltern Speak?” (1988) artikuluan. Ematen duen eran-tzuna honela laburbil genezake: Mendebaldeko ikertzaileek partzialki baizik ezin dute ezagutu herri zapalduen egoera; eta horretarako ez dute herri zapal-duak berek esaten dutenaz baliatu behar, ezta herri kolonizatuak irudikatu dituzten intelektual edo itzultzaile mendebaldarrek esan dutenaz ere; aitzitik, esan gabe geratu denaz baliatu behar dute, hutsuneak, isiluneak eta kontraesa-nak sintomatikoki irakurri, Derridak, Foucaultek eta beste hainbat dekonstrukzionistak aldarrikatua duten bezala. Kultura zapaldu nahiz kolonizatueta-ko idazlanak itzultzearen helburua, Spivaken arabera, ez da zapalduen kontzientzia “benetako”, “funtsezko” nahiz “originala” ezagutaraztea (halako egiteko bat ezinezkoa litzateke), baizik eta kolonizazioak egoera historiko ja-kin bakoitzean zapalduen kontzientzian izan dituen ondorioak ulertzea.

Itzulpen-estrategiari dagokionez, bai Niranjanak bai Spivakek Venutik proposatutako metodo “atzerriratzailearen” antzeko estrategia proposatzen dute, konbentzioei aurre egin eta diferentzia azpimarratzearen alde egiten duen metodoa, alegia. Dena den, esan beharra dago bi emakumeek defendatzen duten itzulpen modua ez dela Venutirena bezain zurruna. Ez batak ez besteak ez du Venutik proposatutako bereizketa bitarra (metodo domestika-tzailea *versus* atzerriratzailea) hain modu itxian defendatzen; aitzitik, itzultzailearen egitekoa errepresentazioaren auzia bere osotasunean zalantzan jartzea dela aldarrikatzen dute, eta egoera kultural eta historiko jakinetako desberdin-tasun kulturalak agerian jartzea.

Indian ez ezik, beste herrialde batzuetan ere indar handia izan dute teoria postkolonialek, besteak beste Brasilen, 1920ko hamarkadan Oswald de An-drade-k *Manifesto Antropófago* (1928) delakoan proposatutako kanibalismoa-ren edo antropofagiaren irudiaren haritik. Kanibalismoa metafora zinez ego-kia da gizarte postkolonial batzuek itzulpena nola erabiltzen duten azaltzeko:

of its prose, something by a man in Taiwan” (Spivak 1992: 400).

Brasilgo zenbait tribuk, beren jakintza eta ahalmena handitzeko, errespetatzen zuten pertsona bat jan ohi zuten, horrela pertsona jakintsu eta ahaltsu haren indarra eta dohainak bereganatuko zituztelakoan. Horrelaxe elikatzen dira literatura postkolonialak ere, beren kolonizatzaileen literaturak “irentsiz”. Ezin hobeto azaltzen digu hau guztia Randal Johnson-ek:

The antropófagos do not want to copy European culture, but rather to devour it, taking advantage of its positive aspects, rejecting the negative, and creating an original, national culture that would be a source of artistic expression rather than a receptacle for forms of cultural expression elaborated elsewhere (Johnson 1987, *apud* Bassnett 1993: 154).

Metafora honen bidez, goitik behera deseraikitzen da Latinoamerika Europaren kopia edo itzulpen gisa hautematen zuen irudia. Brasildar idazlea ez da gehiago kopiatzaile gisa edo europar tradizio literarioaren esklabo gisa ikusten, ezta tradizio horri modu erabatekoan uko egingo dion iraultzaile gisa ere. Bi jarrera horien artean kokatuz, brasildar idazlea sorburu-kulturarekin elkarreaginean garatzen eta osatzen da, europar tradiziotik elikatuz erabat berria den zerbait sortzeko. Itzulpenaren ikuspegi antropofagoa praktikan jarri duten idazlerik garrantzitsuenak Haroldo eta Augusto de Campos anaiak genituzke. Beren lanetan erabat ezabatzen dira sorburu- eta xede-sistemen arteko bereizketak, itzulpena izendatzeko erabili izan dituzten hitzek adierazten duten bezala: transkreaizioa, transtestualizazioa, transiluminazioa, transluziferazioa, kanibalizazioa... (Campos 1981). Itzulpenak, de Campos anaien arabera, ez du soilik zeinu linguistikoak edo elementu semantikoak itzultzera mugatu behar, baizik eta zeinuaren osotasun guztia hartu behar du kontuan, soinuak, irudi bisualak eta konnotazioak barne (Vieira 1999: 105). Haien estrategia da kulturalki onargarria den baliokidea alde batera utzi eta hitzak transplantatu edo “kanibalizatzea”, itzulpenean esanahi berriak har ditzaten. Itzulpena, horrela, sorkuntzazko idazketarako beste bitarteko bat da. Helburua ez da literal-ki itzultzea, metaforikoki baizik, bitarteko desberdinen bidez antzeko efektuak sorrarazteko.

Teoria postkolonialek ez dute soilik garai batean Europaren menpe egondako kolonietarako balio, Irlandaren kasua aztertu duten Michael Cronin eta Maria Tymoczko ikertzaileek ongi erakutsi digutenez. Cronini, esaterako, hertsiegia iruditzen zaio itzulpengintza testuinguru postkolonialetan aztertu duten zenbait teorialariren ikuspegia, edo “the simple opposition of Europe and the New World or Europe and the Colony” (Cronin 1996: 3), eta Europaren barruko kolonialismoak hainbat kultura minorizatutan izandako eragi-

na agerian jartzen saiatzen da, irlandararen eta ingelesaren arteko borroka linguistiko eta politikoa itzulpenak izandako funtzioa aztertuz. Maria Tymoczko, bere aldetik, XIX. eta XX. mendeetan irlandarazko lanak ingeleseratu dituzten zenbait itzultzaile aztertzen ditu, eta itzulpenak, kultura zapaldua (irlandarra) kultura nagusiaren (ingelesaren) arau eta balioetara moldarazteko ez ezik, zapalduen erresistentziarako ere balio dezakeela erakusten du (Tymoczko 1999). Itzulpenak zapalduen identitatearen berreraiketan izan dezakeen eraginaren beste adibide bat Quebec-ek eskaintzen digu. Sherry Simon (1989) eta Annie Brisset (1990) irakasleek, esate baterako, soziologiaren ikuspuntutik aztertu dute Quebec-eko itzulpengintza, quebecarren identitate kolektiboa eraikitzeko programa ideologikoaren barruan nolako funtzioa bete duen erakutsi nahian. Autore horien azterketek frogatu dutenez, edozein itzulpen edo testu unean uneko egoera sozial eta historikoen menpe dago,⁴⁸ eta ez da, beraz, ikuspegi erromantikoak aldarrikatzen zuen bezala, osotasun itxi, finko eta aldagaitza. Era berean, identitate sozial eta kulturalak ere ez dira finkoak, eta Bestearekiko harremani esker osatzen eta birmoldatzen dira etengabe.

Indiako, Brasilgo, Irlandako nahiz Quebec-eko testuinguru postkolonialak erakutsi digutenez, itzulpena zapalduen ahotsak entzunarazteko, kolonizatzaileen inposaketei aurre egiteko eta identitate kolektiboak (ber)eraikitzeko erabiltzen hasi dira hainbat idazle eta itzultzaile. Esan beharra dago, dena den, itzulpenaren bidez sortzen diren hizkera eta identitate propio horiek kolonizatzaileen kulturarekiko elkarreraginezko dinamika batean taxutzen direla eta, ondorioz, kultura postkolonialak ezinbestean izango direla kultura hibridoak:

[...] post-colonial culture is inevitably a hybridized phenomenon involving a dialectical relationship between the ‘grafted’ European cultural systems and an indigenous ontology, with its impulse to create or recreate an independent local identity. Such construction or reconstruction only occurs as a dynamic interaction between European hegemonic systems and ‘peripheral’ subversions of them. It is not possible to return to or to rediscover an absolute pre-colonial cultural purity, nor is it possible to create national or regional formations entirely independent of their historical implications in the European colonial enterprise (Ashcroft *et al.* 1989: 195-196).

⁴⁸ “La traduction est une (ré)énonciation médiatisée par un sujet [...]. En tant qu’énonciation, elle ne peut pas se soustraire au discours qui correspond à l’état de la société où elle se réalise. Le discours social, formé de tous les énoncés qui surgissent dans une société, est pris entre autres choses dans des « configurations idéologiques »” (Brisset 1989: 30).

Alferrikakoa da, beraz, “jatorri”, “hizkuntza puru” edo antzekorik bilatzea, hizkuntzak kontaktuan egon orduko gertatzen baitira harreman, elkarre-ragin edo “kutsatzeak”. Hizkuntzak ez dira itxiak, mugatuak; aitzitik, etenga-be aldatzen dira beste hizkuntzekiko kontaktuen ondorioz. Kontaktu horiek bereziki agerikoak dira testuinguru postkolonialetan, non “hizkuntza hibri-doak” sortzen diren: “Hybrid idioms, those performances which conform neither to the rules of one nor the other, are not reducible to the sum of the parts. [...] Speakers of hybrid tongues map in their speech the linguistics of colonization as they perform the linguistics of counter-hegemony” (Price 2000: 27). Literatura postkolonialak bi⁴⁹ hizkuntzaren eta kulturaren arteko hirugarren eremu hori agerrarazten du, 1.3.2.2.2. atalean aipatu dugun espazio “interlinguistikoa” edo “interkulturala”, bi hizkuntzak eta kulturak transformatzen dituen dinamika amaigabea, non neologismoak, “code-switching” delakoak, maileguak, kalkoak eta beste hainbat mestizaje-prozedura gertatzen diren. Literatura nazionalaren ideala, beraz, hankaz gora jartzen du literatura postkolonialak, eta literatura guztiak, identitate indibidual nahiz kolektibo guztiak bezala, pluralak eta hibridoak direla gogorarazten. Dena den, teoria postkolonialek kultura-aniztasun kontzeptuaren erabilera abstraktuegiaren arriskuez ere ohartarazten gaituzte, kultura-aniztasuna hizkuntzen arteko bo-tere-harreman asimetrikoak kontuan hartu gabe bultzatzeak hizkuntza hege-monikoen proiektu neo-kolonialak ahalbidetu baititzake:

Arguing for hybridity does not mean arguing that we all speak the same or that it is all a blur, a blend; [...] it is emphatically important to draw distinctions, differences, to see the power of hybrid tongues which rest on distinctions, differences, dominant incomprehensions which are parodied, revealed, mocked, finessed (Price 2000: 27).⁵⁰

⁴⁹ “Bi” diogunean bat baino gehiago esan nahi dugu; izan ere, testuinguru eleaniztatan ohikoa baita hiru, lau edo are hizkuntza gehiago kontaktuan izatea. Euskal Herriaren kasuan, esaterako, azken mendeetan, euskara beti izan da gutxienez bi hizkuntzarekin kontaktuan (frantsesarekin eta gaztelaniarekin), eta ezin dugu alde batera utzi gaur egun gero eta indar handiago hartzen ari den ingelese ere.

⁵⁰ Sarrionandia bera ere oso kritikoa azaldu izan da beti globalizazioaren garaian promozio-natzen den kultura-aniztasunaren aurrean: “Lehenagoko kolonialismoek ez bezala, oraingo in-perioak ideologia multikulturalistarekin funtzionatzen du. Horixe da globalizazioaren aurpegi polita [...]. Kultura irekitasuna ez da batere inozentea, jakina, ekonomian merkatuaren irekita-suna ez den bezala. [...] Marketing multikultural hori ez dator berez aniztasunari eskua ematera. Harrapakaritza ekonomikoa eta bortizkeria politikoa estaltzeko maskara dela ere esan daiteke. [...] Gizarte neoliberal kontsumistak multikulturalismoa proposatzen du, baina kultura horien oinarri komunitarioak desegiten ditu” (Sarrionandia 2011a: 20).

1.3.2.2.5. Teoria hermeneutikoak

Hermeneutikak, edo testu idatziak aztertu eta beren zentzua interpretatzea helburu duen zientziak, erromantiko alemaniarren lanetan du jatorria, batez ere kapitulu honen lehen atalean aurkeztu dugun Schleiermacherren idatzietan. Itzulpenaren hermeneutikaren ekarpen garrantzitsuentzat jotzen den George Steinerren *After Babel* (1975) liburuan, Johann Wolfgang von Goethe, Paul Valéry, Ezra Pound, Ivor Armstrong Richards, Walter Benjamin eta Ortega y Gasset aipatzen dira, besteak beste, itzulpena ikuspegi filosofiko honetatik aztertu duten autore sonatuenen artean (Steiner 1975: 237). Esan beharra dago, dena den, testuak interpretatzera bideratutako arte honen baitan korrontte bat baino gehiago desberdintzen direla, eta denak ez datozela bat atal honetan azaltzen ari garen itzulpenaren epistemologia postmodernoarekin.

Horrela, mugimendu hermeneutikoaren barruan bi korrontte edo joera nagusi bereizten direla esan dezakegu, korrontte erreferentzialista batetik eta korrontte immanentista bestetik (Boulanger 2002: 201-202). Lehenengo joerak testuaren funts edo muina aurkitzea du helburu, hau da, autorearen asmoa edota testuaren baitan gordetzen den zentzu objektibo, finko eta unibertzala ulertzea, irakurleak, interpretazio egoki baten bidez, azalaraztea lortuko duena. Interpretazio horretarako testuaz kanpoko hainbat informazioz baliatzen da, hala nola xehetasun biografiko, historiko nahiz entziklopedikoez.⁵¹ Joera immanentistak, berriz, ez du testuaz kanpoko informazioetara jotzen testuaren zentzua interpretatzeko; izan ere, zentzu bakar eta benetakoa aurkitzea ezinezkoa dela aitortzen du, eta testuaren ebokazio-ahalmen mugagabea irakurlearen esperientzia subjektiboaren bidez zehazten dela. Esan gabe doa bigarren joera honekin dela uztargarria itzulpenaren epistemologia postmodernoak; izan ere, ikuspegi honen arabera, zentzua ez da testuan emanda datorren zerbait, osatzeko dagoen zerbait baizik. Ondorioz, itzulpena ez da zentzu fin kodun produktu gisa definitzen, itzultzailearen eta sorburu-testuaren idazlearen artean dagoen elkarreragin dialogikoa azaleratzeko bitarteko bezala baizik. Ikuspegi hermeneutiko honen arabera, hizkuntza guztiak elkarrekin lotuta daude, etengabeko elkarreraginean bizi dira, eta harreman horiek ikusaraztea da, hain zuzen ere, itzulpenaren egitekoa. Ikuspegi honetan ukatu egiten da itzulpena jarduera estatikoa denik; aitzitik, aldakorra eta dinamikoa dela alda-

⁵¹ Joera honen barruan sailkatuko genuke, esate baterako, itzulpenaren teoria modernoak aztertzean aurkeztu dugun Ivor Armstrong Richards irakaslea, zeinaren arabera irakurketa eta interpretazio egokiaren bidez jatorrizkoaren autoreak testuari eman nahi zion zentzua aurki daitekeen (ikus 1.2.3.1. atala).

rrikatzen da. Era berean, itzulpena irudikatzeko modu tradizionaletan itzultzailea tresna mekaniko gisa ikusten bazen, deskribapen erretoriko honetan itzultzailea gizatiar eta sortzaile bihurtzen da, eta sorburu-testuaren irakurketa pertsonala egin ondoren xede-hizkuntzara desbideratzen den idazle gisa ulertzen da.

Esan bezala, George Steinerren *After Babel* (1975) liburua jo izan da mugimendu hermeneutikoa⁵² hobekien definitu eta laburbiltzen duen lan gisa. Bertan defendatzen den premisa nagusia honela laburbilduko genuke: itzulpena eguneroko komunikazioaren parte da, etengabe ari baikara gure pentsamenduak eta ideiak hitzetara ekartzen edo itzultzen. Mezu bat ulertzea mezu hori dezifratzea da. Zentzua bilatzea, beraz, itzultzea da. Itzultze-ekintzaren prozedura eta arazo guztiak erabat presente daude edozein hizkuntzatarako hizketa- nahiz idazketa-jarduera guztietan. Bi hizkuntza desberdinen arteko itzulpena, hortaz, gizakien hizketaren funtsa den jardueraren aplikazio konkretua besterik ez da. Steinerrek ekintza artistiko gisa ikusten du itzulpena; beharbada horrexegatik ez du itzulpen bat sortzeko inolako “tresnarik” eskaintzen. Aitzitik, itzulpen-ekintza deskribatzera mugatzen da, itzultzaileak testu bat hizkuntza batetik bestera aldatzean jasaten duen prozesua xeheki azalduz. *After Babel* liburuko “The hermeneutic motion” kapituluan, itzultzaile batek bere aitzindariaren lana bereganatzean egiten duen mugimendu hermeneutikoa deskribatzen du: Steinerren arabera, itzultzaileak, lehenik, jatorrizko testuan itzul daitekeen zerbait dagoela sinesten du (*initiative trust* deitzen dio lehen urrats honi). Ondoren, zentzu hori erauzi egiten du mugimendu bortitz baten bidez (*aggression* edo *penetration*). Erauzitako zentzu hori, orduan, xede-hizkuntzara ekartzen du (*incorporation*). Azkenik, jatorrizko testua hobetu egiten du itzultze-ekintzak berak (*compensation*) (Steiner 1975: 296-303). Jatorrizko testuaren zentzuaren eskuratze agresiboari esker, itzulpenak hondakin batekin uzten du jatorrizkoa, “with a dialectically enigmatic residue” (Steiner 1975: 300). Hondakin hori, ordea, jatorrizko testuan galera eragin arren, positiboa da; izan ere, jatorrizko testua bere “oihartzun” edo “ispilu” diren xede-testuekiko harreman-sare batean sartzen da, eta harreman horiek guztiek jatorrizkoa aberasten dute.

Steinerren lanak kritika ugari jaso du arlo desberdinetako adituen aldetik. Itzulpen-teoria feministaren defendatzaileek, dagoeneko aipatu ditugun

⁵² George Steinerrek honela definitzen du mugimendu hermeneutikoa: “the investigation of what it means to ‘understand’ a piece of oral or written speech, and the attempt to diagnose this process in terms of a general model of meaning” (Steiner 1975: 237).

Sherry Simonek (1996) eta Lori Chamberlainek (1988) besteak beste, maskulinotasun kutsuko hizkera erabiltzea leporatu diote; zenbait hizkuntzalari eta itzultzailek, berriz, estrategia zaharkituegia irizten diote hizkuntzaren ikuspegi unibertsalista eta itzulpenaren teoria oro-hartzailea defendatzeko Chomskyren gramatika generatibo-transformazionala erabiltzeari. Halere, Steinerren ekarpena garrantzitsua da itzulpenaren epistemologia postmoderno baterako bilakaeran, jatorrizko testuaren zentzu finkoaren ideia zurruna baztertzen baitu, eta, horrekin batera, baita itzultzailearen betebeharra zentzu hori bere horretan, inolako aldaketarik gabe, hizkuntza batetik bestera eramatea dela dioten teoria tradizionalak ere. Horren ordez, defendatzen du benetako ulerkuntza eta itzulpena hizkuntzak elkarrekin nahasten diren puntuan gertatzen direla.

Hizkuntzen arteko harreman horien azterketari ekarpen garrantzitsuenak egin dizkioten idazleen artean Walter Benjamin aipatzen du, besteak beste, Steinerrek. Dekonstrukzioari buruzko atalean aipatu dugun “Die Aufgabe des Übersetzers” saiakeran (1972), Walter Benjaminek defendatzen du itzulpenaren egitekoa ez dela irakurleari jatorrizkoan gordetzen den “zentzua” edo informazioa ulertaraztea. Izan ere, lan literario baten muintzat jotzen duguna ez da lan horretan aurki dezakegun informazioa, bestelako funts misterioitsu, poetiko bat baizik. Itzulpen batek, beraz, funts poetiko hori osatzen lagundu behar dio jatorrizkoari. Itzulpena jatorrizko lanetik aparte dagoen baina jatorrizkoarekin batera bizi den zerbait da; jatorrizkoaren bizitzatik baino gehiago, honen “Überleben” (Benjamin 1972: 10) edo “bizitza-ostetik” sortzen da; izan ere, itzulpena jatorrizkoaren ondoren jaiotzen da, eta berak bermatzen du jatorrizkoaren bizitzaren jarraipena. Itzulpenaren egitekoa, funtsean, hizkuntzen arteko elkarreraginezko harremana agerian jartzea da, harreman hori, itzulpenik gabe, ezkutuan geratuko bailsateke. Zertan datza, ordea, ezkutuko harreman hori? Benjaminek dioenez, hizkuntza bakoitzaren azpian badago ezkutuko asmo bat; asmo hori, ordea, ezin du hizkuntza bakar batek bere kabuz eskuratu, beste hizkuntzetako asmoekiko osagarritasunezko harremanaren bidez baizik. Osagarritasunezko harreman horren bidez, itzulpenak hizkuntzen arteko “reine Sprache” edo “hizkuntza puru” delako bat azalarazten du (Benjamin 1972: 13). Hizkuntza puru hori azalarazteko, ordea, itzulpenak ez du jatorrizkoa estali behar, ez du haren argia oztopatu behar; aitzitik, hizkuntza puruari bere indar guztiz ateratzen utzi behar dio:

Die wahre Übersetzung ist durchscheinend, sie verdeckt nicht das Original, steht ihm nicht im Licht, sondern läßt die reine Sprache, wie verstärkt durch ihr eigenes Medium, nur um so voller aufs Original fallen (Benjamin 1972: 18).

Horrela, jatorrizko lana modu sortzailean osatuz, itzulpenak bi hizkuntzen bateratzea du helburu. Itzultzailearen egitekoa beste hizkuntza batean preso dagoen hizkuntza purua askatu eta bere hizkuntzan azalaraztea da:

Jene reine Sprache, die in fremde gebannt ist, in der eigenen zu erlösen, die im Werk gefangene in der Umdichtung zu befreien, ist die Aufgabe des Übersetzers (Benjamin 1972: 19).

Hizkuntza guztien oinarrian dagoen hizkuntza puru hori bilatzen saiatu zen beste idazle bat Jorge Luis Borges argentinarra dugu, Pott bandako kideek aski miretsi eta goraiatzan zuten idazlea. Bere lanetan, Borgesek mintzaira absolutu edo letra kosmiko baten kontzeptuari buruz idazten du, zeina gizakien hizkuntza guztien baitan dagoen eta itzulpenaren bidez azalaraz daitekeen. Itzultzailearen egitekoa, beraz, denboraren eta espazioaren aldetik desberdinak diren bi une horien arteko bitartekari lanetan aritzea da, bien arteko harremanetik sortuko den testu bat ekoizteko:

We can locate in the poetry and fictions of Borges every motif present in the language mystique of Kabbalists and gnostics: the image of the world as a concatenation of secret syllables, the notion of an absolute idiom or cosmic letter –alpha or aleph– which underlies the rent fabric of human tongues, the supposition that the entirety of knowledge and experience is prefigured in a final tome containing all conceivable permutations of the alphabet (Steiner 1975: 67).

Ildo beretik, Octavio Paz-ek mundua ulertzeko bitarteko nagusitzat jotzen du itzulpena, mundua elkarren itzulpen besterik ez diren testu desberdin ugari osatuta baitago. Testu bakoitza, Pazen arabera, pixka bat aldentzen da bere aurreko testutik.

Cada texto es único y, simultáneamente, es la traducción de otro texto. Ningún texto es enteramente original porque el lenguaje mismo, en su esencia, es ya una traducción: primero, del mundo no verbal y, después, porque cada signo y cada frase es la traducción de otro signo y de otra frase (Paz 1990: 13).

Hausnarketa horren arabera, beraz, testu “original” oro itzulpena da. Baina baita alderantziz ere, testu itzuli oro originala da: “todos los textos son originales porque cada traducción es distinta. Cada traducción es, hasta cierto punto, una invención y así constituye un texto único” (Paz 1990: 13).

Itzulpena etengabeko sorkuntza-lana dela eta jatorrizko lana itzulpenari esker osatzen dela defendatu zuten, nork bere erara, beste hainbat itzultzailek

ere. Ezra Poundek, esaterako, artelan baten zentzua inoiz ez dela finkoa erakutsi zuen bere itzulpen eta saiakeretan. Zentzu hori birmoldatuz doa hizkuntza aldatu eta garatu ahala. Izan ere, antzinako artelan bateko hitzen asoziazioak desberdinak dira artelan hori beste garai nahiz kultura batean jasotzen duenarentzat. Itzulpenak, beraz, ez du jatorrizkoaren zentzua transmititu behar; aitzitik, testu itzuliak lotura edo harreman berriak sortu behar ditu orainaldiarekin. Itzultzailearen lana antzinako aro batean “hilda” gelditu den obra bat gure garai berrian “berpiztea” dela aldarrikatzen du Poundek, Walter Benjaminen “bizitza-ostearen” metafora gogorarazten digun ideia honekin. Honela erantzuten die Poundek *Homage to Sextus Propertius* itzulpena zela-eta zehaztasun falta leporatu zioten kritikariei: “There never was any question of translation, let alone literal translation. My job was to bring a dead man to life, to present a living figure” (Pound 1971: 148-149).

Autore hauen lanetan ikusi ahal izan dugunez, teoria hermeneutikoeak zalantzan jartzen dute itzulpenaren eta literaturaren ikuspegi historizista, hau da, zentzua garai historiko batetik bestera inolako aldaketarik gabe igarotzen den funts finko gisa deskribatzen duen ikusmoldea. Denboraren ardatza modu linealean irudikatzen da ikuspegi historizista honetan, eta, ondorioz, jatorrizko testua beti kokatzen da itzulpenaren aurretik, bai kronologikoki, baita hierarkikoki ere. Ikuspegi historizistaren aurka, teoria hermeneutikoen defendatzaileek bestelako ikuspegi historiko bat proposatzen dute. Benjaminek, esaterako, historiaren ez-linealtasuna defendatzen du, eta elkarrizketa, elkarketa eta gertaera gisa ulertzen du historia, zeina ekintza historikoen eta ekintza horiek interpretatzen dituen subjektuaren arteko topaketaren ondorio baita. Steinerrek ere enuntziazioaren denbora eta harreraren denbora bereizten ditu, eta ikuspegi historizistak bi denbora horien arteko tarte ezkutatu nahi duela salatzen du. Ikuspegi historikoan, aldiz, tarte hori agerian jartzearen garrantzia azpimarratzen da; izan ere, Bestearekiko elkarrizketa ahalbidetzen duen baldintza gisa ulertzen da tarte hori (Boulanger 2002: 202-203).

Teoria hermeneutikoak proposatzen duen ikuspegi historiko honetan alde batera uzten da, beraz, jatorrizko zentzua bilatzea helburu duen saiakera historizista, eta interpretazioaren erlatibitatea azpimarratzen da. Zentzua, pentsamendu postestrukturalistak argi erakutsi duen bezala, testuaren eta testu hori interpretatzen duen subjektuaren arteko bestetasun-harremanaren bidez gauzatzen da, eta ez testuko adierazleek adierazi erreal batzuekiko duten lotura objektiboaren bidez. Elkarrizketaren hermeneutika honetan, subjektuaren (itzultzailearen) eta Bestearen (jatorrizko testuaren) arteko mugimen-

du zirkulatorioan hezuramaitzen da zentzua. Bestearekiko elkarrizketa-harreman hori da, beraz, zentzuaren gauzapenerako baldintza. Horrexegatik esaten du Benjaminek jatorrizkoak itzulpenari zor diola bere biziraupena.

Subjektuaren eta objektuaren arteko elkarrizketazko eta elkarreraginezko harreman bezala ulertu behar da Gadamer-en hermeneutikan proposatzen den kateadura mugagabea ere, non galdera bat (jatorrizkoa) erantzun (itzulpen) bihurtzen den, gero berriro ere galdera gisa (testu itzuliaren irakurketa) agertzeko. Horrela, jatorrizkoaren eta itzulpenaren arteko bereizketa hierarkikoa deuseztatu eta bien arteko elkarmenpeketasunezko lotura azalarazten da (Gadamer 1960).

Jakin badakigu itzulpenaren teoria hermeneutikoen barruan aipatu ditugun autore guztiak postmodernotzat jotzea eztabaidagarria gerta litekeela, batez ere goi-mailako kulturako arte-lanekiko agertzen zuten jarrera modernoa kontuan hartzen badugu. Halere, haien zenbait ideia atal honetan azaltzea interesgarria iruditu zaigu itzulpenagintzaren epistemologia postmodernoren garapenean izan zuten eragina erakusteko.

1.3.2.2.6. *Itzulpenaren poetikak*

Atal honetan Henri Meschonnic, Antoine Berman eta Douglas Robinson ikertzaileek proposatutako itzulpenaren poetikak aztertuko ditugu, guztiak ere episteme postmodernoarekin uztargarriak diren diskurtsoak proposatzen baitituzte. Nork bere erara, autore horiek zentzuaren finkotasuna eta itzultzaileak zentzu horri zor dion morrontza defendatzen dituzten diskurtsoen aurka dihardute, eta agerian jartzen dute itzultzailearen subjektibitateak itzulpenean duen eragin sortzaile eta saihestezina.

Henri Meschonnic autore postmodernoen multzoan sartzea eztabaidagarria gerta liteke, autoreak berak kritika zorrotza egiten baitio Lyotardek *La condition postmoderne* delakoan postmodernismoaz ematen duen definizioari. Hala eta guztiz ere, itzulpenaren epistemologia modernoren barruan deskribatu ditugun hainbat elementu diskurtsiboren aurka egiten dituen kritikek, baita itzulpenaren ikuskera berri baten alde aurkezten dituen proposamenek ere, autore hau itzulpenaren epistemologia postmodernoren barruan aztertzera garamatzate.⁵³

⁵³ Gauza bera esan genezake aurrerago aztertuko dugun Antoine Bermani buruz ere.

Meschonnic-ek gogor kritikatzten du zentzuaren eta formaren arteko dikotomian oinarritzen den zeinuaren teoria, jarraitutasun ezaren logika batean txertatzen baita: jarraitutasun eza dago adieraziaren eta adierazlearen artean, hizkuntzaren eta literaturaren artean, ahotsaren eta idazkeraren artean, soinuaren eta zentzuaren artean, literalismoaren eta pragmatismoaren artean. Bai poesian, bai itzulpenean, bi mutur horiek bateratzen ahalegintzen gara, inoiz helburua lortu gabe.

Jarraitutasun ezaren diskurtsoaren aurka, Meschonnic-ek jarraitutasuna bermatzen duen itzulpenaren poetika bat proposatzen du, “sémantique sérielle” (Meschonnic 1995: 515) delako bat, non gorputzaren eta hizkuntzaren, hizkuntzaren eta literaturaren, hizkuntzaren eta kulturaren arteko jarraitutasuna bermatuko den. Itzulpenaren poetika horretan, itzultzaileak ez du hitzek esaten dutena itzultzen, hitzek egiten dutena baizik: “Traduire ce que les mots ne disent pas, mais ce qu’ils font” (Meschonnic 1995). Itzultzaileak jatorrizko testuan aurkitu dituen adierazleak antolatu behar ditu sistema gisa funtzionatuko duen testu bat sortzeko. Sorkuntza-lan horretan, subjektuaren (itzultzailearen) ekarpenak berebiziko garrantzia du testuaren semantizazioan. Horrela, Meschonnic-ek maila berean jartzen ditu testu baten autorea eta itzultzailea, baita idazketa eta itzulpena ere: “Il faut que la théorie de la traduction soit la théorie d’une pratique du traduire homologue à l’écriture” (Meschonnic 1973: 350). Jatorrizkotik ateratako elementu testualen antolaketa helburu duen idazketa edo itzulpen horretan, beraz, subjektu itzultzaileak ez ditu elementu estruktural horiek sistematikoki kalkatu behar, bere erritmo diskurtsiboa jarraituz antolatu baizik. Erritmoa, Meschonnic-en lanetan behin eta berriro errepikatzen den nozioa, ez da adiera platonikoaren arabera ulertu behar, baizik eta “comme une organisation du mouvement de la parole dans l’écriture, comme système d’une subjectivation généralisée” (Meschonnic 1995: 515).⁵⁴

Atal honetan aztertuko ditugun beste autoreek bezala, Meschonnic-ek gogor egiten du “gardentasunaren” ideiaaren aurka. Gaur egungo irakasle asko

⁵⁴ Itzulpenaren poetika modu osoago batean azaltzen duen *Poétique du traduire* (1999) liburuan, erritmoaren definizio xeheago bat eskaintzen du Meschonnic-ek: “[...] je prends le rythme comme l’organisation et la démarche même du sens dans le discours. C’est-à-dire l’organisation (de la prosodie à l’intonation) de la subjectivité et de la spécificité d’un discours : son historicité. Non plus un opposé du sens, mais la signifiante généralisée d’un discours. Ce qui s’impose immédiatement comme l’objectif de la traduction. L’objectif de la traduction n’est plus le sens, mais bien plus que le sens, et qu’il inclut : le mode de signifier” (Meschonnic 1999: 99-100).

defendatzen du itzulpenak distantzia linguistiko, kultural eta historikoa ezabatu behar duela, itzulpenak irakurlearen hizkuntzan eta testuinguruan idatzia izan delako inpresioa eman behar duela, itzultzaileak bere burua ezabatuz ahalik eta gardenen jokatu behar duela. Hainbeste gardentasunen ondorioa, Meschonnic-en hitzetan, hauxe da: “cette sorte particulière d’opacité qui fait que, prenant une de ces traductions entre les mains, on ne voit plus que ces effacements” (Meschonnic 1995: 516). Naturaltasunaren ilusio horren aurka, Meschonnic-ek jatorrizko testuaren poetika bere poetika propioarekin uztartzeko deia egiten dio itzultzaileari, uztartze horretan poetika batek bestea isilaraz ez dezan.

Antoine Berman irakasleak ere gogor kritikatzten du gardentasunaren ideian oinarritzen den itzulpengintzaren diskurtsoa, eta testuaren arrotasuna agerian jartzen duen itzulpen motaren alde egiten du. “La traduction comme épreuve de l’étranger” (1985) artikulan azaltzen duenez, Mendebaldeko kultura gehienetako itzulpen-tradizioetan “naturalizazio” estrategia bat bultzatu izan da, hau da, jatorrizkoaren arrotasuna ezabatu eta testua xede-hizkuntza eta -kulturara moldatzen duen metodo etnozentrikoa, testuak erabat deformatzen dituena. Itzulpen deformatzaile horri “analitika negatiboa” deritzo Bermanek:

L’analytique négative concerne au premier chef les traductions ethnocentriques, annexionnistes, et les traductions hyper-textuelles (pastiche, imitation, adaptation, récréation libre), où le jeu des forces déformantes s’exerce librement (Berman 1985: 69).

Artikulu berean, jatorrizko testuaren arrotasuna ezabatzen duten hamabi deformazio-joera⁵⁵ zerrendatzen ditu Bermanek, eta Mendebaldean nagusi izan den itzulpenaren ikuspegi platoniko baten ondorio direla adierazten du:

Dès ses débuts, la traduction occidentale est une restitution embellissante du sens, basée sur la séparation, typiquement platonicienne, du sens et de la lettre, du contenu et de la forme, du sensible et du non-sensible (Berman 1985: 80).

⁵⁵ Hauek dira Bermanek aipatzen dituen hamabi deformazio-joerak: “1) la rationalisation 2) la clarification 3) l’allongement 4) l’ennoblissement et la vulgarisation 5) l’appauvrissement qualitatif 6) l’appauvrissement quantitatif 7) la destruction des rythmes 8) la destruction des réseaux signifiants sous-jacents 9) la destruction des systématismes 10) la destruction des réseaux vernaculaires ou leur exotisation 11) la destruction des locutions et idiotismes 11) l’effacement des superpositions de langues” (Berman 1985: 71).

Jatorrizko testuaren naturalizazio edo deformazioa eragiten duen analitika negatibo horren aurrean, Bermanek analitika positibo bat proposatzen du, hau da, jatorrizkoaren arrotzazuna ikusaraztera bideratutako itzulpen-estrategia, “itzulpen literal” gisa deskribatzen duena:

Littéral signifie ici : attaché à la lettre (des œuvres). Plus originaire que la restitution du sens est le travail sur la lettre, par lequel la traduction, d’une part, restitue la signification propre aux œuvres (qui est plus que leur sens), et d’autre part transforme sa propre langue (Berman 1985: 81).

Bermanen itzulpenaren poetikan, nabariak dira epistemologia postmodernoaren hainbat ildo nagusi, itzulpenaren funtsa zein den zehaztean argi erakusten duenez: “l’essence de la traduction est d’être ouverture, dialogue, métissage, décentrement. Elle est mise en rapport, ou elle n’est rien” (Berman 1984a: 16, letra etzana jatorrizkoarena da). Irekitasuna, elkarrizketa, mestizajea eta deszentralizazioa ahalbidetzen dituenek, itzulpenak testuen baitan ezkutuan aurkitzen diren aukera berri eta ugariak azalarazten ditu, eta harreman dialogiko batean jartzen ditu hizkuntza arrotza eta propioa.

Arrotzaren aldeko poetika horretan, jakintza ez da itzultze-ekintza-aren aurretik osatuta zegoen entitate itxi gisa ikusten, itzultzailearen eta hizkuntza nahiz testu arrotzaren arteko harreman dialogiko horren ondorioz sortzen den ekoizpen aurreikusgaitz gisa baizik. Itzulpenaren epistemologia postmodernoan, izan ere, itzulpena jakintza-iturri da, itzulpen-egoera bakoitzean jakintza desberdin bat sorrarazten baitu: “il faut considérer plutôt la traduction comme sujet de savoir, comme origine et source de savoir” (Berman 1984a: 290).

Bermanen arrotzaren aldeko poetikarekin pareka genezake 1.3.2.2.1. atalean aurkeztu dugun Lawrence Venutik proposatzen duen “foreignizing” delako estrategia. Izan ere, Bermanek Mendebaldeko itzulpen-tradizioetan nagusi izan den etnozentrismoa kritikatu duen bezala, Venutik gogor jotzen du metodo “domestikatzailerak” erabiliz testu arrotzaren berezitasunak ezabarratzen dituzten politika editorialen aurka.

Azkenik, Douglas Robinsonek *The Translator’s Turn* (1991) liburuan proposatutako itzulpenaren poetika ere aurkeztu nahi genuke atal honetan. Aurreko autoreek bezala, Robinsonek ere gogor kritikatu du mendebaldar tradizioeko itzultzaileen “dualismo”, “instrumentalismo” eta “perfekzionismoa”, jatorrizko testuarekiko izan duten errespetu itsua eta gardentasunaren izenean beren burua ezabatzeko egindako ahalegin porrokatua: “This is the great ideal

of all mainstream [...] Western translation. The translator's perfect submission to instrumentalism [...] makes possible the perfect transmission of SL meaning" (Robinson 1991: 55).

Mendebaldean nagusi izan den ikuspegi horren alternatiba gisa, Robinsonek hitzek gizakiengan eragiten duten erreakzio somatikoan oinarritutako teoria bat proposatzen du. Robinsonen iritziz, gizakiok geure gorputzen bidez sentitzen ditugu hitzak:

We do feel words, and most typically guide our choice of words when we speak (and our interpretation of words when others speak) emotionally, by recourse not to an abstract cognitive system of rules but to what *feels* right (Robinson 1991: 5).

Ondorioz, hitzei ematen diegun zentzu edo interpretazioa hitzek gudan eragiten duten sentipen horien menpe egongo da. Gizakien zentzumenera subjektibitatean oinarritutako ikusmolde hau Platonen haitzuloaren mitoaz geroztiko filosofia mendebaldarraren aurka altxatzen da. Izan ere, mito horren arabera, geure gorputzek ezin dute errealitatea "bere horretan" hauteman, geure zentzumen ahulek erabat desitxuratzen baitute; hizkuntzak, ordea, gorputzaren inperfekzioa gainditu eta giza arimaren purutasuna fidelki isla dezake. Robinsonen teorian (edo, haren hitzetan, "anti-teorian"), aldiz, zentzumenera desitxuratzeko joera hori ez da akats gisa ikusten, gizakien sorkuntza-ahalmenaren, zentzuaren irekitasunaren eta hizkuntzaren aldakortasunaren erakusle gisa baizik. Hitzen esanahi zehatza jakin gabe ere, gai gara, etimologiaren bidez, analogiaren bidez edo oroimenezko asoziazioen bidez, hitz ezezagunei nolabaiteko zentzu edo balio bat emateko. Norberaren oroimen eta esperientziak desberdinak direnez, ordea, gutako bakoitzak inpresio desberdina izango du hitz beraren aurrean, erreakzio somatiko "idiosinkratikoa" sortuko du. Baina nola da orduan posible komunikazioa, gizabanako bakoitzak hitz bakoitzari zentzu desberdina esleitzen badio? Robinsonen arabera, gizartearen programaketa ideologiko edo "ideosomatikoak" ahalbidetzen du gizakien arteko komunikazioa.⁵⁶ Gizarte bateko ideologiak, izan ere,

⁵⁶ "[...] meaning and its interpretation are motivated and guided by feeling, or, more broadly, by body or somatic response; but that guidance is both contextually and personally variable (the flexibility and uniqueness of the individual speaking subject) and ideologically controlled (the shaping force of the speech community). In this conception ideological control is wielded, and collective meanings therefore shared, precisely through the mediation of the body – through the society's ideological (or 'ideosomatic') programming of each individual's limbic system, seat of the emotions, habit, and rote memorization" (Robinson 1991: 10).

hitz baten aurrean emozio edo erreakzio antzekoak sorrarazten dizkie gizarte horretako biztanleei, eta horrela da posible komunitate bereko partaideek hitz berberak antzeko zentzuarekin ulertzea.

Robinsonek zentzua irekia, aldakorra eta aurreikusgaitza dela aldarrikatzen badu, ez da harriztekoa izango proposatzen duen itzulpenaren poetika ere itzultzailearen subjektibitate eta ahalmen eraldatzailean oinarritzea. Itzulpena bi hizkuntzaren arteko zubitzat eta itzultzailea bitartekari neutro eta inperstonaltzat jotzen dituen pentsamolde humanistaren aurka, Robinsonek tropoetan oinarritutako poetika edo erretorika bat proposatzen du, eredu “dialogiko” bat, itzultzailea sorburu-hizkuntzako testuarekiko harreman dialogiko batean ezarriko duen itzulpen-jarduera:

[...] the translator’s hermeneutical approach to the SL text, in dialogical interaction (real or imagined) with the SL writer. Here tropes, the open-ended turnings that we make in language when we want it to do something new, can be methodologically useful. A logical bridging requires that the translator be able to stabilize both the SL and the TL long enough to build a stable structure between them. A rhetorical troping requires only that the translator start someplace, start at his or her reading of the SL text, and turn away in the direction of the TL (Robinson 1991: 136).

Kenneth Burke eta Harold Bloom adituen ekarpenetatik abiatuz, Robinsonek itzulpena gauzatzeko sei tropo desberdin proposatzen ditu: metafora, metonimia, sinekdokea, ironia, hiperbolea eta metalepsia (Robinson 1991: 133-193). Tropo horien bidez, testuak eraldatzera, desbideratzera, aldatzera nahiz osatzera bultzatzen ditu itzultzaileak, itzulpen literarioaren alderdi sortzailea agerian gera dadin.

1.3.3. ITZULPENGINTZAREN DISKURTSO POSTMODERNOA LABURTUZ

Ikusi dugunez, itzulpengintzaren diskurtso postmodernoaren barruan mugimendu eta joera desberdin ugari biltzen dira. Sei ataletan azertu ditugun itzulpenaren teoria postmodernoek ere testuinguru eta ikuspuntu erabat desberdinak erakutsi dizkigute, eta ezin dugu, beraz, itzulpen postmodernoaren definizio orokorrik eman, hain zuzen ere postmodernismoaren pluraltasunaren eta mugarik ezaren aurka jotzea bailitzateke. Itzulpen-teoria postmoderno garrantzitsuenak aurkeztearen helburua euskal itzulpenaren historia eta bere-

ziki Sarrionandiaren itzulpenak azaltzeko esparru teoriko ireki bat eraikitzea izan da, teoria modernoan itxitasun eta preskriptibismoa gainditu eta euskal itzulpengintzaren testuinguru eta berezitasun guztiak barne hartuko zituen ikuspegi bat proposatzea.

Itzulpen-ikasketa deskribatzaileen ekarpenak, zentzu horretan, berebiziko garrantzia izan du euskal itzulpengintzaren azterketan, zenbait euskal ikertzaile lanetan Even-Zoharren eta Gideon Touryren teoriari eskaini zaien lekuak argi erakutsi duenez (ikusi, esaterako, López 2000, Gómez 2004 eta Beldarrain 2010). Izan ere, polisistemen teoriak, preskriptibismotik deskriptibismorako jauzia emateaz gain, ozen aldarrikatu du itzulpenen azterketan faktore historiko, sozial, ekonomiko, nahiz politikoen eragina kontuan hartzearen beharra, itzulpengintzaren teoria linguistikoek egoera desberdinetan dauden hizkuntzen arteko itzulpenak ikuspuntu beretik aztertzeke egindako ahaleginek sorrarazitako kontraesanak agerian jarritz. Teoria postkolonialek ere behin eta berriro azpimarratu dute botere-harremanek itzulpenetan duten eragina kontuan hartzearen beharra. Teoria postkolonialak India, Afrika, Hegoamerika eta beste hainbat kolonia europarren testuinguruetan jaio badira ere, ikusi dugu teoria horietan planteatzen diren arazo eta egoera asko Irlanda, Katalunia edo Europa barruko beste zenbait herrialdetan ere errepikatzen direla, eta, beraz, teoria postkolonialek itzulpengintza ulertzeke proposatzen duten moduak balio duela halaber euskal itzulpengintza aztertzeke, menperatzaileen eta menperatuen arteko botere-harremanek itzulpenetan duten eragina agerian jartzea ahalbidetzen baitu.

Manipulazioaren eskolak egindako ekarpenak ere baliagarriak izango zaizkigu euskal itzulpenaren historiako hainbat adibide azaltzeko eta, zeresanik ez, itzulpen eta sorkuntza oro “errebisio” edo “translazio” gisa ikusten duen Sarrionandiaren lanak aztertzeke. Euskal itzulpengintzaren historian helburu desberdin askorekin “manipulatu” edo “berridatzi” dira testuak, hala nola euskararen apologia egiteko, euskaldun on eta katolikoaren moralak “garbi” mantentzeko edo literatura didaktikoa sortzeko. Xedearen arabera, testu asko guttiz desitxuratu edo egokitu dira, eta ezingo lirakeke, beraz, itzulpentzat jo itzulpenaren definizio tradizionalaren barruan. Itzulpenaren teoria postmodernoez ez dute itzulpenaren definizio itxirik eskaintzen, eta horregatik izango zaigu posible teoria horien bidez euskal itzulpengintzan hain ugariak diren egokitzen, laburpen edo transformazioak itzulpen gisa aztertzea.

“Cultural Studies” ikasketek aldarrikatutako kultura-aniztasuna eta hibridotasuna ere baliagarriak izango zaizkigu Sarrionandiaren eta Pott bandaren zenbait ideia azaltzeko; izan ere, idazle hauek gogor kritikatu dituzte literatu-

raren eta itzulpengintzaren zeregina euskal kultura eta identitate nazionala arrotz-kutsurik gabe “garbi” mantentzea zela aldarrikatzen zuten euskal idazleak. Itxikeria eta itsukeria horren aurka, Sarrionandiak eta Pott bandako zenbait idazleak literatura nahiz nortasun oro gainerako literatura eta nortasuneko harremanaren bidez garatzen dela erakutsi dute, ezinbestekoa dela kanpora begiratzea norbera osatu eta garatu ahal izateko.

Identitatea bezala, edozein literaturak nahiz testuk gainerako literatura eta testuekiko diferentzia-harremanei esker hartzen dute zentzua, Sarrionandiaren eta Pott bandaren iritziz. Horixe da hain zuzen dekonstrukzioak aldarrikatu duena: ez dago testu edo literatura original edo jatorrizkorik, testu nahiz literatura oro baitago milaka faktore desberdinek osatzen duten sare handi bateko beste elementuen menpe, eta elementu horiekin mantentzen dituen harremanek osatzen baitute testu baten zentzua. Alegia, lehen esan duguna errepikatuz, “Beste”-rik gabe ez gara existitzen. Horrexegatik ekingo dio Sarrionandiak literatura desberdinetako lanak euskaratzeari, baita bere sorkuntza-lanetan erreferentzia intertestualak txertatzeari ere, bide batez agerian jarritz itzulpenaren eta sorkuntza originalaren arteko mugaren lausotasuna.

Itzulpenen eta originalen bereizketa hertsia zalantzan jarriko da, halaber, itzulpenaren teoria hermeneutikoetan. Steinerrek eta Benjaminek erakutsi duten bezala, literatura-lan batek ez du zentzurik norbaitek itzultzen edo interpretatzen duen arte. Interpretazio hori, gainera, modu sortzailean egin behar du itzultzaileak, jatorrizkoak ez baitu zentzu bakar edo finkorik. Idazle batek testu bat idatzi edo itzultzen duenean, idazle aitzindarien lanei erantzuten diela gogoraraziko digu, halaber, Harold Bloom estatubatuarrak, eta Sarrionandiak, Bloomen hausnarketak modu jostalariaren praktikan jarritz, liburu berean bilduko ditu literatura ezin desberdinaoetako lanen itzulpenak eta berak sortutako lanak, denak ere literatura-sare zabal eta mugagabe baten parte direla gogorarazteko.

Laburbilduz, itzulpenaren teoria postmodernoek, teoria tradizionalak ez bezala, euskarak historian bizi izan duen eta gaur egun bizi duen egoera minorizatua eta egoera horrek itzulpengintzan duen eragina modu ireki batean aztertzen lagunduko digute, eta giltza baliotsua eskainiko digute Sarrionandiak eta Pott bandak itzulpenaren eta oro har literaturaren inguruan zuten filosofia ulertzeko.

2. KAPITULUA

**SARRIONANDIA BAINO LEHENAGOKO
EUSKAL ITZULTZAILEAK**



Lehenengo kapituluan, Sarrionandiaren itzulpenak aztertu ahal izateko esparru teorikoa finkatzen saiatu gara. Teoria, ordea, ez da nahikoa Sarrionandiaren itzulpenarekiko jarrera eta jokabidea azaltzeko. Itzulpenaren teoria postmodernoeak argi erakutsi diguten bezala, edozein testu bere testuinguruan ulertu behar da ezinbestean, eta, horretarako, kontuan hartu behar dira testu, idazle edota itzultzaile bakoitza inguratzen duten faktore historiko, sozial, kultural eta politikoak. Hori dela eta, premiazkoa deritzogu euskal itzulpengintzari begiratu orokor bat emateari, Sarrionandia baino lehenagoko euskal itzultzaileek zer, nola, zertarako, zein helbururekin eta nolako metodologiarekin itzuli duten ikusteko, eta Sarrionandiak euskal itzulpengintzari egin dion ekarpena zertan datzan zehaztu ahal izateko.

Horiek horrela, hiru ataletan banatuko dugu bigarren kapitulu hau. Lehenik eta behin, euskal itzultzaileek itzulpenaren gainean egindako gogoetak aztertuko ditugu, hasi lehen euskal itzultzaile dugun Leizarragarengandik eta frankismoaren bukaerako euskal itzultzaileenganaino. Itzultzaileek beren lanen hitzaurreetan nahiz bestelako artikuluetan eta kritiketan esandakoak bilduz, itzulpenak zein testuingurutan eta zein xederekin egiten ziren aztertuko dugu, eta lehenengo kapituluan jorratutako itzulpenaren teoria moderno nahiz postmodernoeekin uztargarriak ote diren ikusiko dugu.

Bigarren atalean, euskal itzultzaileek zer itzuli duten aztertuko dugu. Sarrionandiaren itzulpengintza arlo literarioari dagokionez, historiako euskal itzulpenen artean ere lan literarioen itzulpenetara mugatuko gara. Ohartuko gara oso berandu hasten direla euskal itzultzaileak testu literarioak itzultzen: XIX. mendearen aurretik apenas aurkitu dugu literariotzat jo genezakeen euskal itzulpenik. Gehien itzuli diren autoreak zein diren zehazten ahaleginduko gara, bai eta itzulpenerako autore horien lanak hautatu izanaren arrazoiak zertan dautzan ondorioztatzen ere.

Azkenik, hirugarren atalean Sarrionandiaren itzulpengintza aztertzeko pista baliotsuak emango dizkiguten lau euskal idazle-itzultzaile aztertuko ditugu. Batetik, Orixe eta Santi Onaindia, Sarrionandiaren diskurtsoarekin bat ez datozen hainbat ideiaren defendatzaileak; bestetik, Jon Mirande eta Gabriel Aresti, Sarrionandiaren literaturan oro har eta itzulpengintzan bereziki eragin agerikoa izateaz gain, Sarrionandiarengan nabarmen azaleratzen den itzulpenaren ikuspegi postmodernoaren nolabaiteko aitzindari direnak.

2.1. ITZULPENARI BURUZKO GOGOETA

Itzulpenek euskal literaturaren historian pisu kuantitatibo handia izan badute ere, jarduera honek ez du diskurtso edo hausnarketa teoriko sakonik sorrarazi XX. mendearen bukaerara arte. Itzultzaileek beren itzulpenen hitzaurreetan esandakoak irakurriz, itzulpengintzaren diskurtsoan nolabaiteko bilakaerarik egon ote den ikusi nahi izan dugu. Gure ondorioa izan da itzulpenari buruzko gogoetak ez diola hari bati jarraitzen, eta han-hemenka agertzen diren itzulpenaren gaineko hausnarketak itzultzaile bakoitzaren esperientzia kontatzera mugatzen direla. Itzulpenaren gainean nor bere esperientziaz harantzago egindako teorizazio-saio urrietan, berriz, lehenengo kapituluan aztertu dugun itzulpengintzaren diskurtso modernoaren eragina nabari da.

Jarraian aztertuko ditugun itzultzaileen esanetan, beraz, diskurtso moderno horren zantzuak begiz jotzen saiatuko gara, eta diskurtso hori praktikan egindakoarekin alderatzean agerian geratzen diren kontraesanak azpimarratzen.⁵⁷

2.1.1. JOANES LEIZARRAGA

Joanes Leizarraga dugu euskal itzulpenaren historiako lehen itzultzailea.⁵⁸ Beste hizkuntza askotan gertatu den bezala, euskararen kasuan ere Bibliaren

⁵⁷ Ez da gure asmoa euskal itzulpen guzti-guztiak aztertu edota aipatzea, euskal itzulpenaren historiako hausnarketa interesgarrietako batzuk biltzea baizik, itzulpengintzaren inguruko diskurtso egituratu baten gabeziaren erakusgarri. Azterketa historiko xehe baten bila dabilenak ikus bitza Mendiguren 1995, López 2000 eta 2005.

⁵⁸ Alde batera utzita, jakina, interprete-lanak eta itzulpen-lan argitaragabeak, horien artean Lazarragaren eskuizkribua, zati batzuetan gaztelaniazko lanen itzulpena baita adituek diotenez.

itzulpenarekin hasten da gerora ugaritzen joango den itzulpen-tradizioa. Gure kasuan, gainera, esan liteke euskal literatura idatzia eta euskal itzulpengintza garai bertsuan jaio zirela, Bernart Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) liburua agertu eta handik gutxira argitaratu zen hurrengo euskal liburua Leizarragaren Bibliaren itzulpena izan baitzen: *Iesus Christ Gure Iavnaren Testamentu Berria* (1571). Itzulpena Nafarroako Erregina Joana Albretekoaren eskariz egin zuen, Erreforma Kalbinistako testu kanonikoak herritarren artean zabaltzeko Erreginak zuen asmoaren barruan. Testamentu Berriaz gain *Calendrera* eta *Abc edo Christinoen instructionea* ere itzuli zituen Leizarragak, denak ere 1571. urtean Larroxelan argitaratuak, baina Testamentu Berriaren itzulpenagatik da batez ere ezaguna. Guri ere testu hori interesatzen zaigu gehien, testu horren hitzaurrean agertzen baitira itzultzaileak itzulpengintzaren inguruan zuen ikuspegiaren hainbat arrasto.

Liburuaren hasieran Joana Albretekoari egindako eskaintzan adierazten duenez, Leizarragak Testamentu Berriaren itzulpenean izandako zailtasun handienetako bat hizkuntza bera izan zen: kodetu gabeko hizkuntza zen euskara, ia tradizio idatzirik gabekoa, eta itzulpenetara ohitu gabea:

[...] carguären hartzera bathirik ecin naidiqueen, eta guti falta cedin non ezpainendin choil guibelera, nacussanean hambatez ene empresa handiago, cem-batez nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetaric eta diuersenetaric: eta oraino, translationetan behinçat, vsatu gabea. Alabaina segur içanez ecen Heuscaldunac berce natione gucién artean ezgarela hain bassa, non gure lengoagez ecin eçagut eta lauda deçagun gure Iainco Iauna [...], azquenean, [...] gogo eguin neçan, neure ahal guciaren eguitera [...] (Leizarraga 1571: xiv-xv).

Ondotxo zekien, beraz, Leizarragak, bera zela lehenengo euskal itzultzailea, eta itzulpenetara ohitu gabeko hizkuntza batekin jardun beharko zuela. Dena dela, euskararen bidez Jainkoa laudatzea posible dela erakutsi nahi du, eta euskaldunak ez direla batzuek uste bezain basatiak.

Itzulpenean aurkitutako beste erronka handi bat euskalkien arteko desberdintasunek ezartzen zuten, “Heuscaldunei” eskainiriko hitzaurrean adierazten duenez:

Gaineracoaz den becembatean, batbederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerán cer differentiá eta diuersitatea den: raçoin hunegatic sensu eguiazcotic aldaratu gabe, lengoageaz den becembatean ahalic guehiena guciy adi eraciteari iarreiqui içan gaitzaitza, eta ez choil edocein leku iaquineco len[g]oage bereciri (Leizarraga 1571: xvi).

Asmoak asmo, Leizarragak bere itzulpenean erabilitako euskalkia lapurtera da oinarrian, behe-nafarrerako eta zubererako hainbat forma eta hitzez ziprztindua. Beraz, Juaristik adierazten duen bezala, badirudi Leizarragak ez zuela euskaldun guztientzat idatzi nahi izan, Iparraldekoentzat soilik baizik, Albreteko Joana erregina erreformazalearen menpeko zirenentzat batik bat (Juaristi 1987: 42).

Azkenik, Joana Albretekoari eskainitako hitzaurrean, gogoan izan duen itzulpen-irizpideari buruz ere badihardu:

Haur bay erranen dut, ecen bethi orhoitic nola laincoaren manu expressa den haren hitzari deus edequi eztaquion ez eratchequi: hala eguin ahal dudan fidelquiena eguin vkan dudala. Hunen gainean çure maiestateari supplicamenduz nagoca, dena onetacotz othoi recebitu nahi duçun, obraren handitassunera eta dignitatera behatzenago duçularic ecen ez Translataçalearen imperfectionetara eta chipitassunera (Leizarraga 1571: xv).

Leizarragaren Testamentu Berria itzulpen “formalista” bezala deskribatu izan da (Mendiguren 1995: 67), hots, jatorrizkoari ahalik eta hurbilenetik jarraitzen dion itzulpen literal ia-ia hitzez hitzezko gisa. Badirudi horrela jokatzeraz bultzatu zuen arrazoia garai hartako testuinguru erlijiosoan nagusi zen ideian datzala, alegia Jainkoaren hitza beste hizkuntza batera aldatzean itzulzaileak kontuan hartu beharreko fideltasunean.

Leizarragaren itzulpenaren eragina ez zen oso handia izan, ez behintzat Erreforma Protestantearen garaian Europan egindako beste Biblia-itzulpen batzuek izandako eraginarekin alderatzen badugu (Tyndalenak Ingalaterran edota Luterorenak Alemanian izandakoarekin, esaterako). Izan ere, mugimendu protestanteak euskal lurraldeetan jasandako porrotak eta zapalkuntzak “zapuztu egin zuten Leizarragak hasitako bidea, euskara batua sortzeko oinarria izan zitekeen bidea” (López 2005). Leizarragak eraikitako hizkuntza jaso eta kultista hura laster izan zen baztertua eta ahaztua; handik aurrera, “bestelako hautu erlijioso batek sustaturiko eredu populista izango zen hobetsia eta literaturara eramana” (Salaberri 2002: 65).

Itzulpena XVI. mendekoa izanik, eta kontuan harturik, gainera, euskal literaturak inolako tradizioz ez zuen giro batean eginikoa dela, normala da itzulpengintzaren inguruko diskurtso egituraturik ez aurkitzea. Garai hartako Europako itzulzaileek bezala, Leizarragak ere ikuspegi enpiriko batetik azaltzen ditu bere itzulpen-irizpideak, bere esperientzia hutsean oinarrituz, eta, ondorioz, antzinate klasikoetik datorren pentsamendu aurremodernoaren oi-

nordekotza hartu behar dugu apaiz lapurtarra. Erdi Aroko itzulpen-tradizio europarrari begiraten badiogu, bi kultura aski desberdin bereizten direla ikusiko dugu: batetik “goi-kultura” dei genezakeena, latinez zekiten elizgizon eta jakitunen artean garatzen zena; bestetik, berriz, herri-kultura, herri-hizkera baizik ez zekiten herritarren artean sortzen zena. Goi-kultura idatzizko testuen bidez garatzen zen, eta itzulpenak fideltasun testuala zuen premisa nagusi, XVIII. mendetik aurrera gorpuztuko zen pentsamendu modernoan bezala. Herri-kultura, berriz, ahozko transmisioan oinarritzen zen batez ere, eta idatzia zen kasuetan ere ahozkotasunaren egitura eta elementuak erabiltzen zituen; izan ere, herri-kulturaren idazten zen gehiena ozen irakurtzeko helburuz egiten zen. Ondorioz, itzulpenak oso libreak izaten ziren, eta hitzarekiko fideltasunak interes gutxi zuen (Tymoczko 2007: 61-62). Leizarraga, elizgizon ikasia izanik, lehenengo kategorian sartuko genuke, goi-kulturarenean hain zuzen, nahiz eta haren itzulpenen helburua Jainkoaren esanak herri-kulturaren artean zabaltzea izan. Goi-kultura hartan nagusi zen fideltasun testualaren ideia argi ageri zaigu Leizarragaren Bibliaren hitzaurrean, Jainkoaren hitzarekiko fideltasuna aipatzen duenean. Ikuspegi honek 1.2.2.4. puntuan aztertu dugun zentzu finko eta aldaezinaren ideia dakarkigu gogora: Jainkoaren hitzek funts edo esentzia garbi bat gordetzen dute, zentzu transzendental bat, itzultzaileak “dezifratu” eta inolako manipulaziorik gabe beste hizkuntza batean eman behar duena. Horregatik saiatzen da Leizarraga jatorrizko testua⁵⁹ ahalik eta fidelkien erreproduzitzen. Egiteko horren zailtasunaz jakitun, baina, Joana Albretekoari erregutzen dio arreta gehiago jar diezaiola obraren hantitasun eta duintasunari itzultzailearen inperfekzioei eta txikitutasunari baino. Diskurtso modernoan ageri diren beste hainbat ideia ere errepikatzen dira erregu horretan: benetan garrantzitsua, purua, lehen mailakoa, jatorrizko lana bera da, eta berarekin batera berau idatzi duen autorea. Itzulpena, berriz, jatorrizko lan handi horren erreproduzizio hutsa denez, bigarren mailakotzat jotzen da, itzultzaile inperfektuak ez duelako lortu jatorrizkoaren funts edo egia absolutu hori bere horretan transferitzea:

⁵⁹ Esanguratsua da, puntu honetan, “jatorrizko testua” zein izan zen argitzea. Izan ere, Jainkoaren hitza zuzenean Jainkoaren ahotik itzultzen ari dela badirudi ere, uste da itzulpenarako jatorrizko testu gisa Pierre Robert Olivétan-ek frantsesera itzuli eta 1535ean argitaratutako bertsioa erabili zuela batetik, eta *Vulgata* bestetik —René Lafon-en hipotesia, Leizarragak pasarte batzuetan bertsio grekoari jarraitu ziola dioena (Lafon 1980: 56-57), oraintsu ere Xabier Kintanak nolabait berriro hartu duena (Kintana 2007: 117-122), zalantzan jarri dute ondorengo hainbat ikertzailek (Ruiz 1987b eta 1991), eta ez dirudi, beraz, oraingoz behintzat baieztza daitekeenik—. Jainkoaren hitza zuzenean eta inolako esku-hartzerik gabe itzultzetik urruti samar zegoen, beraz, Leizarraga.

[...] consideratzen nuenean, nola gure demborán-ere anhitz personage ia-
quinsuric Testamentu berriaren translationean empletatu içan den, hambat Latine-
nez, Francesez, nola anhitz berce lengoage abratsez eta praticatuz:eta guero nola
Translataçale beréc eta hayen ondoan bercéc anhitz gauçatan, **bay sensuan bay
lengoagean** cer erran eriden vkan dutén: eta ikussiric ecen halacoequin compara-
tzera ez-deus baino ezdeusago nincela, [...] (Leizarraga 1571: xiv, letra lodia guk
erantsi dugu).

2.1.2. AXULAR

Leizarraga jatorrizko testuari ahalik eta fidelkien lotzen saiatu baldin ba-
zen, Pedro Agerre “Axular”-ek guztiz bestelako metodoa erabili zuen bere
itzulpenetan. Axularrek argitaratutako lan bakarra den *Gero* (1643) itzulpena
ez den arren, latinetik euskarara egindako itzulpen inplizitu eta esplizituak
ugariak dira testu osoan zehar. Axularrek, normalean, latinezko pasarte bat
ematen du, bere euskal “itzulpenaz” horniturik; “itzulpen” hori, ordea, jato-
rrizko testuan oinarritutako hedatze edo anplifikazio bat izan ohi da. Axula-
rrek berak ere hala aitortzen du “irakurtzailleari” eskaintako hitzaurrean:

Ez eta, eztitut bethiere, escritura saindua eta doctoren erranac ere, hitzez hitz
euscarara bihurtcen. Ceren euscara eta bertce hitz cuntçac different baitira. Ordea
ezta ez handic seguitcen gaixtoago dela euscara. Aitctic badirudi ecen bertce hitz
cuntça eta lengoaya comun guztiac bata bertcearequin nahasiac direla. Baiña eus-
cara bere lehenbicio hastean eta garbitasunean dagoela (Axular 1643: 19-20).

Antzera jokatu zuten XVII. mendeko beste hainbat itzultzaile erlijiosok
ere, frantsesezko doktrina eta aszetikazko liburuak euskaratzean: zenbait pa-
sarte laburtu, zabaldu, kendu edo gehitu egiten zituzten askotan, Kontrarre-
forma katolikoak ezarritako arauen araberako testuak eratzeko asmoz. Interes-
garria da, puntu honetan, Axularrek ematen duen arrazoa: gainerako
hizkuntza guztiek antzekotasunak omen dituzte beren artean, eta erraza da,
beraz, batetik bestera modu fidel samarrean itzultzea. Euskarak, ordea, ingu-
ruko hizkuntzek kutsatu gabeko hizkuntza “garbia” denez, ez du hitzez hitzez-
ko itzulpenik onartzen. Hementxe dugu Europako hizkuntza “handietako”
itzulpen-irizpideak euskararen moduko hizkuntzei aplikatzean sortzen den
lehen kontraesanetako bat.

Dena dela, esaten du jarraian, hizkuntzei dagozkien diferentziak alde ba-
tera utzirik, garrantzitsuena “fruitua, barreneko mamia” omen da, oraingo

honetan ere Jainkoarengandik datorrena, eta hizkuntzaren gorabeherak edo itzultzailearen akats edo faltek desitxuratzen badute ere, beti esentzia finko eta aldaezin gisa irauten duena:

Baiña euscara eta euscararen minçatceco eta esquiribatceco moldeac eta differentciac vtciric: Ceren hec açala eta lorea beçala baitira: Har eçaçu, liburutto hunen fruitua, barreneco mamia: haur dasta eçaçu, haur escuzta eçaçu, iracurtcen duçula, ez lehiaz, ez gainguiroqui eta ez arbuiatceco contuan ere. Baiña intencione on batequin, ceurea, ceurc eguina baitcendu beçala, Eta baldin halatan eta orduan, bat ere goçoric edo çapporeric edireiten badioçu, ceren hura guztia iaincoa ganic heldu baitateque, eta ez eneganic faltaric baicen, hari esquerrac errenda iatçotçu, eta nitçaz ere othoitz eguiteaz, arren othoi, orhoit çaiteci (Axular 1643: 20).

2.1.3. JOANES HARANEDER

XVIII. mendean ekin zioten lehen aldiz katolikoek Biblia euskaratzeari, nahiz eta XIX. mendean bukaerara arte ez zuten Biblia osorik itzultzea lortuko. XVIII. mendeko Bibliaren euskaratzaileen artean garrantzitsuenetakoa Joanes Haraneder dugu. 1740an itzuli zuen *Testament berriaren* “Aitzin solhas”-ean aitortzen du ezagutzen zuela Leizarragaren itzulpena:

Egia da bada Joanes Leizarraga zeritzan Berakoizko aphez edo erretor zen batek noizbeit aspaldi inprimarazi izan zuela Testament berriko liburua, berak eskararat itzulirik; baiñan nola dohakabe hura, errelijione katolika eta egiazkoa utzirik ordukotz ja itzulia baitzen bera Kalbiñen sekta izurritaturat eta haren heresia pozoatuaz kutsatua, ezin gelditu da bere obrari iretxeki gabe zenbeit lekhutan berak hartu izan zuen izurritik eta iretsi izan zuen pozoinatik (Haraneder 1740).

Katolikoek merezi zuten moduko itzulpen bat egiteko eskatu omen zioten, beraz, zenbait apaizek, “eskararat garbiki eta fidelki itzul” zezala, alegia. Hemen are garbiago ageri zaizkigu pixkanaka gorpuzten ari zen itzulpengintzaren diskurtso modernoaren bereizgarriak: Egia bakarra dago, hots, Jainkoaren hitz ukiezin eta unibertuala, eta protestanteek mezu funtsezko hori manipulatu eta pozoitu dute. Egia hori modu fidelean transmititzeko gai den erlijio bakarra katolikoa denez, egiteko horri lotzen zaio Haraneder. Itzulpen-irizpideei dagokienez, honakoa argitzen digu hitzaurre berean:

[...] **iretxeki izan gaizko lehia handi batekien** Eliza Ama Sainduaz beregainki aprobatua **Vulgata daritzan textuaren ez xoilki sensuari, baiñan oraiño**

egin ahal bezanbat letrari berari; eta letrari zorrotzki eta urratsez urrats jarraikiz, sensua gure lengoaian ezin ungi azarka daiteken lekhuetan, ez gare atrebitu gere burutarik deusere ematerat; aitzitik baliatu izan gare Jaun Maitre De Saci eta Alta Bouhours textu hura bera franseserat itzuli izan duten bi author aprobatuen baithan aurkhitu dugun laguntzaz [...] (Haraneder 1740, letra lodia guk erantsi dugu).

Haranederren hitzaurrean, garbi ageri zaigu itzulpengintzaren diskurtso modernoaren ezaugarri nagusi den zentzuaren eta letraren arteko dualismoa. Nahiz eta biak errespetatzen ahalegindu dela adierazi, Haranederrek “substantzia” semantikoaren alde egiten du hitzez hitzeko itzulpenak benetako esentzia hori behar bezala transmititzen uzten ez duenean.

2.1.4. JOANES ETXEBERRI SAKOIA

Irizpide berberaren alde mintzo da Joanes Etxeberri Sarakoa ere. Harena da euskarari buruz euskaraz idatzi eta iritsi zaigun lehen apologia trinkoa. Euskara kultura-hizkuntza izan zitekeela aldarrikatu zuen bere lanetan, euskal idazleei literatura-bideak urratzeko deia egin zien, eta horretarako behar bezalako tresnak eskaini nahi izan zizkien: lau hizkuntzatako hiztegia batetik eta latina euskararen bidez ikasteko gramatika bestetik. Itzulpenari dagokionez, gogoraztekoa da Etxeberri Sarakoak bere prosa-lan ia guztia itzuli zuela euskaratik latinera, eta gaztelaniatik eta latinetik euskarara ere pasarte luzeak itzuli zituela (Bilbao 2005, 2006a, 2006b). Itzulpen-irizpideei buruzko bere iritzia ere adierazi zuen 1718 inguruko *Escuararen Hatsapenak* lanean. Haranederrek bezala, hitzez hitzeko itzulpena baztertu eta zentzua itzultzeari ematen dio garrantzia:

Eta, hala, norc ere nahico baituque hitzcuntça batetic bertcera cembait gauça hitzez hitz gambiatu, hainac jaquiteco du manera hartan eguinen tuela milla huts eta falta, [...].

Eta **hitzez hitz ez baitute centçu ona eguiten**, hitzcuntcen mintçatceco manera diferentac direla causa. [...].

Hargatic, bada, **interpretac behar dio behatu perpausaren sentsuari**, ecen, bertcela, hitzcuntça batean ongui eta ederqui erraniccaco gauça baliçateque bertce batean astrugaizqui eta moldegaizqui errana. Eta hori heldu da, ceren, lehen erran dudan beçala, hitzcuntcec baitituzte ceinec bere mintçatceco manera diferentac. Eta arraçoïn hau dela causa, hequien senttua eta propietateac ezтира elkha-

rrequin ongui comuntztatcen hitcez hitz eguiten den gambiaduran (Etxeberri Sarakoa c. 1718: 132-133, letra lodia guk erantsi dugu).

2.1.5. MANUEL LARRAMENDI

Itzulpen mota hori defendatzen du garai honetako euskal apologisten artean ezagunena den Aita Manuel Larramendi andoaindarrak. Bere lanetan, euskara beste hizkuntzen maila berean zegoela erakutsi nahi izan zuen, eta areago, euskarak beste hizkuntzek baino aukera gehiago eskaintzen zituela edozertaz hitz egin eta idazteko. Itzultzaile gisa ezagutzen ez bada ere, bere *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín* (1745) ezagunean badu itzulpengintzaren inguruko hausnarketa egiten duen pasarte bat:

Toda traducción, por ajustada que sea, hace perder mucho de los primores, oportunidad y eficacia a la lengua de que se traduce y a los conceptos que se traducen, y las causas de ésto son notorias a los que algo saben, y entre otras cosas, que el traductor debe saber ambas lenguas con dominio y comprensión para hacer una buena traducción, y es partida no muy común en los traductores. Pues siendo lo que predicán, no habla original del bascuence, sino para traducción del romance, es necesario que su bascuence salga con las tachas de la traducción, y tanto mayores en cuanto es menos comprensiva la noticia que tienen de ambas lenguas, en lo cual hay muchísimo trabajo...

La segunda razón porque predicán mal, es porque los sermones traducidos se avienen mal a las reglas de una legítima traducción, porque comúnmente las ignoran. Siguen el sonsonete material del castellano, buscando unas correspondencias tan puntuales en la cantidad y calidad de las voces, que no haya de haber más en una que en otra; y por eso una cláusula o discurso castellano de mucha alma y centelleante, sale en bascuence un discurso desanimado y fresco, cuando con una perífrasis y atención al sentido saldría en bascuence con igual o mayor gracia y primor [...] (Larramendi 1745: XXXV).

Itzultzen hasi aurretik, sorburu-hizkuntza ez ezik xede-hizkuntza ere ongi jakin behar dela defendatzen du Larramendik, eta gogor salatzen ditu testuak hitzez hitz eta gaztelaniaren doinuari jarraitu nahian euskaratzen dituzten itzultzaileak. Testuaren zentzua bilatu eta xede-hizkuntzan parafraasiak eginez itzultzea gomendatzen du, garaiko diskurtso modernoko ideiekin bat eginez. Halere, Sebastian Mendiburuk egindako Asteteren Dotrinaren itzulpenari Larramendik egindako zentsura-oharretan, libreegi jokatu izana leporatzen dio itzultzaileari, jatorrizko testuarekiko leial jokatu ez izana, eta askotan itzulpen

hitzez hitzekoagoa proposatzen du Mendibururen itzulpenaren hainbat parte ordezkatzeko:

Atendiendo pues a esto y a la sustancia de la traducción, digo: Que ni es, ni es ni puede llamarse traducción de la Doctrina del P. Astete, ni Astete en bascuence, y que no puede imprimirse con esse nombre, sin que luego lo mientan los bascongados, a lo menos acá en Guipuzcoa [...].

Las razones para desmentirlo son patentes, por las cosas que deja el nuevo traductor y trae Astete, por las que añade, por las que invierte, aun en el sentido. Y nunca tiene un puro traductor tanta licencia, y menos la debe tener en puntos de doctrina y de fórmulas de fe ya recibidas. Iré notando todos estos defectos, siguiendo a Astete y su traductor desde el principio hasta el fin (Larramendi 1990: 163-164).

Hemen ere diskurtso modernoaren ideiak errepikatzen dira: itzultzailea bi hizkuntzaren arteko bitartekari hutsa da, eta ez du testuan esku hartzeko inolako eskubiderik, batez ere doktrinak itzultzean (hemen dugu berriz ere jatorrizko testu ukiezin, benetako eta puruaren lehentasunaren ideia). Beste behin ere, agerian geratzen dira diskurtso modernoaren kontraesanak: testuak zintzoki itzuli behar dira, jatorrizko mezua desitxuratu gabe, baina aldi berean hitzez hitz itzultzearen arriskuak saihestu behar dira.

2.1.6. AGUSTIN KARDABERAZ

Agustin Kardaberaz apologista hernaniarrak ere hitzez hitzeko itzulpena baztertu eta esanahia itzultzearen beharra azpimarratu zuen. Euskaraz ongi idazteko arauetara buruz idatzitako *Euskeraren berri onak* (1761) liburuan dioenez,

Latin, edo Gaztelaniatic Eusquerara biurtu nai bada, ori ondo biurtceco, edo traducio onaren legueac gorde beardira: **eta ez itzac berac, ezpada oriec esan nai dutena, edo orien sentidua ondo pisatu**, ta Eusqueraz nola ondo esangodan contuz consideratu, ta ori escribitu bearda.

[...] Bestela, itzez itz Erdaratic Euscarara biurtcen badezu chit itsusi, doacabe, edo moldacaitz irtengoda [...] (Kardaberaz 1761: 58, letra lodia guk erantsi dugu).

XVIII. mendeko beste itzultzaile gehienek bezala, Kardaberazek ere formaren eta zentzuaren arteko bereizketa garbia egiten du, eta argi agertzen da

“hitzek esan nahi dutena” idaztearen alde. Nola zehaztu, baina, hitzek esan nahi dutena? Itzulpengintzaren diskurtso postmodernoarean defendatzaileek erakutsi duten legez, esanahia, bere horretan, ez da existitzen, baizik eta tes-tuinguru jakin batean gauzatzen eta osatzen da, hitzen arteko loturen, idazle edo itzultzailearen esperientziaren, irakurlearen interpretazioaren eta beste hainbat faktoreren arteko harremanen ondorioz.

2.1.7. SEBASTIAN MENDIBURU

Kritika bera egin lekiok Sebastian Mendiburu idazle eta itzultzaileari ere; izan ere, Kardaberazen antzeko iritzia agertzen du itzulpengintzari dagokio-nez. Haren itzulpenen artean ezagunenetakoa *Jesusen bihotzaren debozioa* (1747) da; “Irakurleari” atalean aitortzen duenez, itzulpena euskaraz baizik ez dakitenentzat egina da, eta, beraz, “neque andiric gabe norc nai adi ditza-quean moduan” jarri ditu jatorrizkoan adituek ulertzeko moduan idatzita daudenak. Horrela justifikatzen ditu itzulpena egiterakoan egin dituen alda-keta edo moldaketak.

Orre gatic lenago dauden, haren cembait gauza, utci ditut aquen alderaco: azquen aldecoac ezarri ditut erdian, lembician, edo obequi iduritu zaidan to-quian. Escituraco, ta dacarcien Santuen hitzac alic zucenena gure Euscarara ditut: baña ez beti hitzez hitz. Gañeraco gauzetan ez dut beguiratu, gauza adirazteco, dacarcien hitzetara, beguiratu dut hitz-equin essan nai duenara; ta erraten dut hau, len errana ez-pa-lego bezala, ta euscaraz errateco zuc-enac dirala, iduritu zaizquidan hitz-equin (Mendiburu 1747: 1v-2r).

2.1.8. JUAN ANTONIO MOGEL

Apologisten diskurtsoarekin jarraituz, Juan Antonio Mogelen ikuspegiari helduko diogu. Beste apologista batzuek bezala, Mogelek ere euskara eta eus-kal kultura beste hizkuntza eta kulturen maila berera igotzeko itzulpengintza ezinbesteko tresna zela ikusten zuen, haren obra ezagunenetako baten izenbu-ru luze baina gardenak argi erakusten duen bezala: *Versiones Bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos o demostración práctica de la pureza, fecundidad y elocuencia del idioma bascuence contra las preocupaciones de varios escritores extraños y contra algunos bascongados, que sólo tienen una noticia superficial del idioma patrio* (1802). Hogeita hamaika orrial-

deko opuskulu horretan Zizeron, Salustio, Tazito, Tito Livio eta Kinto Kurzioaren latinezko hainbat pasarte biltzen ditu, Humboldt alemaniarraren eskariz euskaratuak.

Itzulpengintzaren inguruko bere iritziak, ordea, beste itzulpen baten hitzaurrean adierazten ditu, *Cristaubaren icasbidea edo doctrina cristiana* izenburupean euskaratutako Asteteren katiximan, hain zuzen. Garbi ageri da euskara edozertaz jarduteko gai dela frogatzeko gogoia:

Si alguno desea saber las causas de dar á pública luz este Catecismo digo, que son muchas. Mas las principales son la total falta de libros bascongados particularmente en Vizcaia, y el querer desimpresionar a muchos Patriotas del error en que estan tan alucinados, que gritan: “Es imposible escribir, y sacar libro alguno en una lengua”. Que brutalidad, y barbarie! (Mogel 1987: 90).

Garai hartako itzultzaile gehienek bezala, Mogelek ere hitzez hitzeko itzulpena baztertu eta itzultzeko modu askeago bat defendatzen du, ezjakinek erraz ulertzeko moduko testu bat sortzeko xedez. Hitzaurre berean, honela dio:

[...] no me he atendido precisamente á la letra del original, [...]; y asi me he tomado la libertad de añadirle algunas cosas especialmente en las instrucciones de los Mandamientos de Dios, y de la Iglesia y abreviandole otros puntos, que no son tan importantes para los poco instruidos (Mogel 1987: 90).

Hemen ere kontraesana ageri da jatorrizko mezuaren benetako zentzua transmititzeko beharraren eta itzultzaileak hartzen dituen askatasunen artean. Argi geratzen da itzultzailearen (edota garaiko printzipio moral-erlijiosoen) hautuek ematen diotela zentzua testuari, nahiz eta horrelakorik ez den inolaz ere aitortzen. Aitzitik, aditzera eman nahi da Mogel bezalako jende jantziak gardenki interpreta dezakeela jatorrizko testuen esentzia den zentzu transzendental, eta eskolagabeak horretarako ezjakinegiak direnez, itzulpenarekin haiei lana erraztu besterik ez zaiela egiten, itzultzailearen bitartekotzak testuaren manipulazioan izandako erantzukizuna aitortu gabe.

2.1.9. BIZENTA MOGEL

Euskararen apologia eta erlijioaren zabaltzea helburu zuten itzulpenen alboan, bestelako xede batekin egindako itzulpenak hasi ziren agertzen XVIII. mendearen bigarren erdian, funtzio hezitzaile eta moralizatzailea betetzeko egindako alegia-itzulpenak, hain zuzen. Frantzian sortu eta Xabier Maria Mu-

nibe Peñafloredako kondeak 1764an eraturako Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen bidez Euskal Herri guztira hedatu ziren Ilustrazioaren ideien ondorioz, hezkuntzaren behararen kontzientzia zabaldu zen euskal idazle eta itzultzaileen artean, eta funtzio didaktiko hori betetzeko genero egokienetako bat alegia suertatu zen.

Lehenengo kapituluan aipatu dugunez, Ilustrazioaren edo Argien garaiko arrazionalismoan ditu erroak episteme modernoak. Ez da harritzekoa, beraz, Ilustrazioaren ideien eraginpean lan egin zuten itzultzaileek itzulpengintzaren diskurtso modernoa defendatzea. Bizenta Mogelen itzulpen-lanaren izenburu osoak argi aski erakusten digu Argien garaiko espiritu edo filosofia: *Ipui onac, ceintzuetan arqutituco dituzten euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco* (1804), hau da, heziketaren eta arrazoiaren bidez, euskal nekazari ezjakinek beren bizitza “zuzendu” ahal izango dute, eta arrazoituz, hausnartuz eta zuhurtasunez pentsatuz ezjakintasunaren menpetik askatzea lortuko.

Ipui onac liburuak Esoporen 50 alegia biltzen ditu, Bizenta Mogelek proza euskarara emanak, eta bertotan idatzitako beste zortzi alegia, Bizentaren osaba Juan Antonio Mogelek onduak. Bizenta Mogelek liburuaren hitzaurrean adierazten duenez, itzulpenen helburua nekazarien ipuin tradizionalak ordezkatzeko da, kaltegarriak baitira garaiko irakurleentzat:

Aitu diot ondo dakian bati, Ipui oek izango dirala guziz onak aztuerazotzeko Nekazarien etxeetatik Ipui oker, ta zatarrak (Mogel 1804).

Itzulpen-irizpideaz ezer gutxi esaten badu ere, “irakurle euskaldunari” eskaintako hitzaurrearen bukaeran, itzulpengintzaren diskurtso modernoan jatorrizkoaren handitasun edo perfekzioari eta itzultzailearen txikitasun edo inperfekzioari buruz esan ohi direnak errepikatzen dira:

Arbezate bada Euskaldunak, neskatxa gazte baten emaitza, edo presente au. Gauza onik badago, esan dezatela iñorena dala, ez nerea; okerrik badakuste egotzi nere gañera; berdin arteak ez du emango sagarrik (Mogel 1804).

2.1.10. JEAN PIERRE DUVOISIN

XIX. mendeko beste itzultzaile garrantzitsu bat Jean Pierre Duvoisin kapitaina dugu. Euskara eta euskalkiak aztertzeke helburuz Euskal Herrira etorri

zen Louis-Lucien Bonaparte printzearen aginduz itzuli zuen euskarara *Bible edo Testament zahar eta berria* (1859-1865), eta hori dela-eta ezagutzen da, batik bat, itzultzaile gisa. Itzulpena egiten ari zela Fouquier jaunari idatzitako eskutitz batean adierazten duenez, zintzoki saiatu da Jainkoaren hitza bere horretan mantentzen eta, beraz, “testualki” eta “hitzez hitz” itzultzen:

La traduction de la Bible n’est pas elle-même très-propre à faire ressortir ce côté original de notre langue, attendu qu’on exige qu’elle soit textuelle, et, comme l’on dit, *au pied de la lettre* (Duvoisin 1864: 463, letra etzana jatorrizkoarena da).

Jainkoaren hitzarekiko fideltasun-irizpideak ezartzen zizkion mugez gain, Bonaparte printzeak jarritako beste baldintza batzuk ere errespetatu behar zituen Duvoisinek, hala nola Lapurdiko hitzak soilik erabili beharra eta antzinako esamoldeez baliatzeko debekua. Hori dela eta, Bibliaren itzulpenean ez bide zuen beste itzulpen batzuetan bezain aske jokatu. Honela jarraitzen du eskutitz berean:

Mais la Bible est le livre universel par excellence. Sans cela, j’eusse préféré donner la traduction de Télémaque, travail dont j’ai exécuté la première moitié depuis près de trente ans. C’est là qu’on eût pris une juste idée des étonnantes ressources de la langue basque (Duvoisin 1864: 463).

Badirudi, beraz, Biblia eta bestelako idazlan erlijiosoak itzultzean jatorrizkoari aitortzen zaion izaera sakratuak ez duela garrantzi berbera bestelako literatura-lanen kasuan. Eli Krutzetak Duvoisinin Telemake itzulpenaren edizioaren sarreran gogorarazten digunez,

Autorearen nortasun bereziaren, eta honenbestez bere obrara lerrarazitako izaera berezi eta ezin ikutuzko horren ezagutza edo errekonozimendua, Erromanizismoan hasten dela esan daiteke, beraz, ez oso aspaldi (Krutzeta 1997: xxix).

Arrazoi horrek azalduko luke, beharbada, orain arte aztertu ditugun itzultzaileek trataera desberdina eman izana testu biblikoei eta bestelako testuei. Leizarragak, esaterako, badirudi Bibliarekin baino libreago jokatu zuela itzuli zituen testu ez-biblikoekin.⁶⁰ Larramendirengan antzeman dugun kontraesana ere arrazoi berberak azal lezake, alegia, itzultzaileak ezin duela nahi beste

⁶⁰ “La traduction des autres pièces —dio Lafonek Leizarragaren itzulpenez— est beaucoup moins serrée que celle du Nouveau Testament” (Lafon 1980: 57).

askatasun hartu doktrinak itzultzean; Duvoisinek ere argi aitortzen du euskararen baliabide harrigarriak azalerazi nahi izan dituela Telemakeren itzulpean, Biblian egin ahal izan ez duenez. Izan ere, Duvoisinin lehen itzulpena den honetan, argi ikusten da “hizkuntza eta estilo kontuek ikaragarri kezkatzen” dutela; “ardura horren adibide eta frogak barra-barra agertzen dira itzulpen honetan” (Kruzeta 1997: xxvi). Esate baterako, oharretan hainbat aldea eta bertsio desberdin proposatzen ditu, eta bada frantseseko testuak dakarren esamolderen bat itzulezina egin zaiolako esamolde hori beste irudi batekin ordezkatzeko oharrik ere. Hona hemen itzulpenaren hirugarren oharrean dioena:

Il m'a été impossible de bien rendre l'image qui se trouve, dans le français, aux mots: *fendant les ondes*. Aussi ai-je renoncé à le traduire, et pour le compenser en quelque sorte, j'en ai fait paraître une autre dans l'endroit où *Calypso immobile fixe la mer où elle ne voit plus le vaisseau d'Ulysse*. Celle-ci me paraît même plus propre dans cette circonstance (Duvoisin 1997: 3).

Itzulpen hau jatorrizkoarekin alderatzen badugu, hainbat zati falta direla ikusiko dugu, “denak, Benuz (maitasunaren jainkosa), eta honekin zerikusia duen edozer gauza, edota besterik gabe emakume eta gizonezkoen arteko maitasun kontuak ikutzen edo aitutzen dituztenak” (Kruzeta 1997: xxxi-xxxii). Pentsa liteke, beraz, Duvoisinek pasarte horiek ez zituela gustuko eta isiltzea erabaki zuela. Dena den, oso litekeena da Duvoisinek jatorrizkotzat erabilitako frantseseko testua bera jadanik zentsuratua izatea; izan ere, François Fénelon idazle frantsesaren liburua autorearen borondate eta baimenik gabe argitaratu zen lehen aldiz, 1699an, eta gerora ehunka argitalpen izan ditu, horietako asko mozketa eta ezabaketa nabarmenekin. Uste izatekoa da, beraz, argitalpen horietako bat izan zitekeela Duvoisinin eskuetara iritsi zena (Kruzeta 1997: xxix-xxxii).

Hortaz, ezin da jakin zenbaterainoko askatasuna hartu zuen Duvoisinek “jatorrizko” testua euskaratzean, ez baitakigu zehazki jatorrizkoa zein izan zen. Badirudi, behinik behin, Biblian baino askatasun handiagoz jokatu zuela itzulpen honetan, eta berak egindako beste itzulpen⁶¹ ez-erlijiosoetan ere hi-

⁶¹ Eli Krutzetak Duvoisinek egindako gainerako itzulpenak aipatzen dizkigu, horien artean euskalki batetik beste batera eginak: “*Liburu ederra aita Cardaveraz Jesuitak egina, Lapurdico escarara itzulua* (Baiona, 1856), *Dialogues basques* (Londres, 1857; P. Iturriagaren *Diálogos basco-castellanos...*en itzulpena, geroago *Euskal Esnale*-an ere argitaratua 1914an), *Biblia* (1859-1865; bibliako liburu batzuk bereizita ere argitaratu ziren, esaterako, Ruth-en liburua, Salomonen kanturik ederrena, Jonasen profeziak...), *Jesu-Kristoren Imitazionea* (Pau, 1874), *Don Kixote*

tzez hitzezko itzulpena saihestu eta euskararen baliabide ugariekin jokatzeko saiatu zela, han-hemenka zenbait libertate txiki hartuaz.

Dena den, itzulpenaren inguruko gogoeta handirik ez dugu aurkitzen Duvoisinengan. Haren garaiko itzultzaile gehienak bezala, euskararen eta euskalkien kontuak kezkatzen zuen gehienbat; Telemakeren itzulpeneko ohar gehienak ezezagun samarrak iruditzen zaizkion hitz edo esamoldeen esanahia argitzeko ezarriak dira, edota lapurtera ez beste euskalkietako hitzen ordainak emateko. Itzulpen-irizpideari buruz, berriz, esan genezake nahiago zuela, garaiko itzultzaile gehienek antzera, hitzez hitz itzuli beharrik ez izatea.

2.1.11. ANDIMA IBINAGABEITIA

Hemen aurkeztu nahi dugun hurrengo itzultzailea Andima Ibinagabeitia dugu. Harrigarria gerta liteke, hasiera batean, Duvoisinen eta Ibinagabeitiaren artean dagoen denbora-tarte luzea, Duvoisinek XIX. mendearen erdi aldean egin baitzituen bere itzulpen gehienak, eta Ibinagabeitia, berriz, ia mende oso bat geroago egin zen ezagun itzultzaile gisa. Bi arrazoik eraman gaituzte bi itzultzaile hauen artean beste inor ez aurkeztera. Batetik, XIX. mende bukarako eta XX. mende hasierako itzultzaileen⁶² lanetan ez dugulako itzulpenari buruzko gogoeta esanguratsurik topatu; itzulpenen hitzaurreetan azalpenen bat ematen dutenen kasuan, euskara-ereduari buruz egindako hautua justifikatzera mugatzen dira itzultzaileen gogoetak,⁶³ batez ere XX. mendearen hasierako urteetan, Sabino Aranaren inguruan sortutako garbizalekeriaren aldekoen eta hizkera-eredu herrikoiago bat proposatzen zutenen arteko liskarren

te-ren zati baten itzulpena (hitzaurrea eta lehenbiziko hiru kapituluak; 1904 eta 1905ean argitaratua, bigarren hau Dodgsonen zuzenketekin), *Euskal Erria* aldizkarian argitaratu ziren *Stabat Mater* (1889), *Sub Tuum, Inviolata, Languentibus* (1893), *Super Flumina Babilonis* (1887), Arrese Beitiaren “Neguko goix zoragarri bat” (1882). Fénelonen fabula batzuk ere itzuli zituen, oraindik argitaratu gabe daudenak: *Fénelonen konderak*” (Kruzeta 1997: xi-xii).

⁶² Jean B. Arxu, Gregorio Arrue, Antero Apaolaza, Pedro Migel Urruzuno, Toribio Alzaga, Resurrección María Azkue eta Erramun Olabide aipatuko genituzke itzultzaile garrantzitsuenen artean.

⁶³ Hona hemen adibide batzuk: “saiatu naiz alik argiroen, eta aurrak berak ere erraz adi lezakeen eran ipintzera” (Arrue 1885); “hemos traducido al idioma de nuestro país el conjunto de capítulos que componen este reducido MANUAL procurando emplear á este objeto el lenguaje más comprensible á la mayoría de sus habitantes” (Aranburu & Bago Agirre 1899: viii); “saiatu naiz jartzen, ez euskera alik garbienean, baizik, nere iritzian, euskaldunik geientsuak ulertu edo entendituko duten eran” (Urruzuno 1915: 10).

erakusgarri. Bestetik, Duvoisin eta Ibinagabetiaren artean Orixek euskal idazle eta itzultzaile handia aurkitzen delako, eta haren itzulpenei eta itzulpen-irizpideei aparteko lekua eman izan nahi diegulako 2.3.1. atalean.

Hemen soilik aipatuko dugu Orixek itzulpen-eredu berri bat proposatu eta landu zuela, eta arrakasta handia izan zuela bai frankismopeko lehen hamarkadetako idazleen artean, bai geroagoko euskal itzultzaileen artean ere. Orixek irekitako itzulpen-bide horren jarraitzaile sutsuetako bat genuke, hain zuzen ere, orain aurkeztu nahi dugun Andima Ibinagabeitia euskaltzale eta itzultzaile saiaturia. Argi adierazten du Orixeren itzulpenari buruzko ideiekiko atxikipena bere “Orixek Euskeratzalle” (1965) artikuluan. Lehenik eta behin, Orixek itzulpenaren alde egindako apustua laudatzen du, hark bezala uste baitu itzulpena euskal idazleak trebatzeko eta euskal literatura aberasteko ezinbesteko tresna dela.⁶⁴ Idazleen burutapen eta asmamenari leku egiteko itzulpena baztertu behar zela zioten garaiko idazleei honela erantzuten die Ibinagabeitiak, aipatutako artikulua hasieran:

Ori diotenak ordea, xalto batean iarri nai lukete gure izkuntza millaka gizon argi eta idazle trebeen arnas eta ukituarekin mendez-mende landu eta erabilliak izan diran izkuntza aundien mallan. Baña zearo aztutzen dute izkuntza dotore oriek ere beuren asieran itzul-lanaren neke ta izerdi garratzez inguraturik ari izan zirala (Ibinagabeitia 1965: 88).

Euskarak ere, hizkuntza landu eta dotore bihurtu nahi badu, itzulpenaz baliatu behar omen du ezinbestean. Baina horretarako itzultzaileak etsi-etsita egon behar du bere hizkuntza itzulpenerako tresna egokia dela. Eta uste sendo hori beti izan zuen Orixek, Ibinagabetiaren esanetan.

Esanguratsuak dira oso Ibinagabeitiak artikulua horretan itzultzearen zailtasunei buruz esandakoak, itzulpengintzaren diskurtso modernoarekin bete-

⁶⁴ Ongi laburbiltzen digu Inigo Ruizek Ibinagabetiaren eta bere garaikideen literatura-ideologia: “Ibinagabetiaren obrak —eta bizitzak— ezin hobeto ordezkatzen du hirurogeietako hamarkada arte eta XXgarren mende osoan zehar —lehenagotik ez bada— gutxienez idazle eta irakurle askorentzat indarrean egon zen kultur eta literatur ideologia bat: euskal liburuen bete-behar ia-ia bakarra hizkuntzaren bizitzari laguntzea denez gero, berdintsu zen liburu hauek itzulpenak izan edo ez izan, garrantzizko gauza bakarra euskara jatorrean idatzita egotea izanik, hau da, euskara egokian; itzulpenek abantaila handi bat dute, beste askoren artean: literato onak gutxi dira berez eta nekez hazi daitezke, baina hiztun eta idazle jatorrak, garbiak, itzulpen txukunak egiteko gai diratekeenak, bai hezi daitezke; hauek behar eta komeni ziren liburuak itzultzeraz jarrietz garo polito konpon zitekeen, eta gainera epe labur samarrean, euskarak eta euskaldunek zuten gabezia latzena” (Ruiz 1995: 686).

betean bat baitatoz: Ibinagabeitiak dioenez, itzultzaileak lan gogor eta garratza izan ohi du esku artean, “*traduttore, traditore*” esamoldeak laburbiltzen duen paradoxa gainditzen saiatu behar baitu: “Itzulpena —emakumeak bezela— *zintzoa* balin bada *itsusia*, *ederra* balin bada *lotsagabea*”. Oztopo horri ezin hobeto egin zion aurre Orixek, Ibinagabeitiaren iritziz, “zintzotasuna eta edertasuna egoki aski elkartu” baitzituen:

Bai, zintzoa bear du itzulpenak idazle arrotzaren asmo ta gogoetarik saldu gabe egiña. Ederra bear du bestalde, itzulketan darabilen izkuntzaren sen eta ispirituari azpi-ioko ta biurrikeri gabe iarraituz. Ortarako berriz, sakonki ezagutu bear ditu itzultzaileak izkera biak, itzulgaia eta itzulia, alegia (Ibinagabeitia 1965: 93).

Itzulpena definitzeko *les belles infidèles* metafora moderno eta, bide batez esanda, sexista erabiltzen du Ibinagabeitiak pasarte horretan, eta horrela XVII. eta XVIII. mendeetan Frantzia eta Europa osoan nagusitu zen itzulpen-eredua defendatzen du, alegia, autore grekolatindarrak nork bere hizkuntzara nahi besteko askatasunez itzultzeko joera, helburua itzulpen “eder” bat lortzea baita, nahiz eta fidela ez izan; hots, jatorrizkoarekiko *lotsagabea*, hau da, *traditore* edo traidorea. Metafora horiek guztiek ongi aski laburbiltzen digute itzulpena hautemateko modu moderno: hor ditugu jatorrizkoaren eta itzulpenaren arteko kontrajartze dualista, itzultzaileak bi mutur horien artean lortu beharreko “oreka” edo baliokidetza, eta hitzez hitz itzultzeak eragiten dituen akats eta okerrak. Ibinagabeitiak argi eta garbi adierazten du itzulpen mota horrekiko arbuioa: Orixeren aurretik egindako itzulpen gehienak “exkax eta gaiztoak” omen dira; izan ere, itzultzaile haien ustez “zintzotasuna itzez-itz erderatik euskeratzea zen, euskeraren berezitasuna eta arima aintzat ere artu gabe” (Ibinagabeitia 1965: 92-93). Orixek, ordea, ezin hobeto lortu omen zuen erdararekiko joputasunetik itzurtzea, idazlearen eta itzultzailearen dohainik gailenena omen den senari esker.

Ibinagabeitiak Orixeri zion miresmena inoiz ahuldu ez bazen ere, ezin da aipatu gabe utzi bi itzultzaileen arteko desberdintasun edo desadostasun nagusia: Orixek ez zuen ontzat ematen euskara gaitzeko eta aberasteko edozein “satsukeria” euskeratzea. Ibinagabeitiak Ovidioren *Ars amatoria* itzuli zuela-eta, haserre agertzen zaigu Orixe *Euzko Gogoa* aldizkarian idatzitako artikulu batean:

Beste nere adiskide batek «Ars amandi» itzuli omen du. Ez dala ain gordiña. Orrek adierazten du ongi gaurko idazleek zer gordinkeri ematen diguten. [...] Lotsa galdurik daude oraingo idazle ia guziak (Orixe 1954: 101).

Euskaraz hainbeste “gordinkeri, likiskeri, lizunkeri, urdekeri, ustelkeri” eman baino, nahiago bide du Orixek euskarari galtzen utzi: “Euskera prantse-sa aña zikindu bear ba’du, ez bedi gurean idazlerik” (Orixe 1954: 101). Ibinagabeitiak, aldiz, “modernista” dela aldarrikatuko du, eta zilegi dela euskara edozertarako gaitzea: “Gu modernista gera eta euskera ere gaurko gaitu ta erabili nai dugu: edonorako eta edozertarako” (Ibinagabeitia 1951a: 51). Antzeko zerbait defendatuko du beste artikulu batean ere:

Aitortu dezagun bein betiko! Jaunak, euskera ere, gai dugu tango, rumba, samba ta edozein abesti ta dantza bere itz yatorrez apaintzeko. Ez ori bakarrik; munduan diran nobela likitzenak ere bere itz ta mamiz jazteko! Eta ez zaitzte zuen on-antzeko maindire-itxupean ikaratu. Orain arte euskerarik orlako nobela ta olerkietan erabili ezpadugu, ez da izan oitura onak gordetzeko, alperkeriz, eta okerrago oraindik, gure izkuntza maitagarriaren erdeñuz baizik. Eta oitura onak zaitzeko orrela yardun dugula liokenak, gezurra dio (Ibinagabeitia 1952: 21-22).

Ovidiusen Maita-Bidearen hitzaurrean ere asmo berbera adierazten du:

Asmo bat izan dut: gure euskera betiko lelotik atera, lelo berrietara erakartzeko. [...] Garaia dugu izkera itotzen diguten kofoin eta esi kaltegarriok betiko puxkatu eta surtara yaurtitzeko (Ibinagabeitia 1994: 4-5).

Euskarak eta euskal literaturak aurrera egingo bazuten, beren muga her-tsietatik askatzea ezinbestekoa zela aldarrikatzen zuen Ibinagabeitiak, eta horregatik bultzatzen zituen itzultzaileak askotariko testuak euskaratzera. Zentzu horretan, badirudi Ibinagabeitiaren ikuspegia Orixerena baino “modernista-go” dela, baina gogoeta hori urrun dago oraindik XX. mendearen bukaerara arte agertuko ez den hausnarketa postmodernotik. Izan ere, literatura eta itzulpengintza euskaldun onaren moralaren morrontzapetik askatzeko ahalegina egiten badu ere, ez ditu herrigintzaren edo naziogintzaren morrontzapetik askatzen: “Itzul-lanean ari dana lan aberkoi bat egiten ari da, euskera geitu ta indartzen” (Ibinagabeitia, *apud* Arrieta 1994: xxx). Badirudi Ibinagabeitiantzat literaturak eta itzulpengintzak agenda politiko nazionalista bati jarraitu behar diotela,⁶⁵ ahalik eta gehien idatzi eta itzuli behar dela, “gaizki edo ongi”. Argi eta garbi adierazten digu *Maita-Bidearen* hitzaurrean:

⁶⁵ Joseba Gabilondok dio “XX. mendeko literatura euskalduna nazioa imajinatzeko saioa dela (hau da, alegoria nazionala idazteko saioa)” (Gabilondo 2006: 27); Ibinagabeitiaren eta bere inguruko itzultzaileen proiektua ere ahalegin horren barruan kokatuko genuke: gure inguruko nazio handiek hala egin dutenez, gure euskal nazioak ere klasikoan idazlan handiak itzuliz egin behar du aurrera. “[S]aio nazionalista horren koroatze eta krisi[a]” ez da, Gabilondoren

Makiñatxok nik baino milla bider obekiago burutuko zuten egin-gai au. Bainan besteak noiz egingo baude, iñoiz ere ez dugu ezer burutuko. Nik beintzat, gaizki edo ongi, auxe egin dut gure izkeraren goratzarre ta edapenerako (Ibinagabeitia 1994: 5).

Badirudi garrantzitsuena ez zela lan on bat egitea, euskaraz egitea baizik. Eta, hain zuzen ere, Ibinagabeitia ez da itzultzaile gisa oso laudatua izan.⁶⁶ Literaturaren bidezko militantzia hori deitoratuko du aurrerago Sarrionandiak ere frankismopeko urteetako idazle eta itzultzaileez ari denean: “Literatura nahiko txarra egiten zen konpromiso politikoaren aitzakiarekin” (Sarrionandia 2002: 298).

Ez genuke Ovidioren *Ars amatoriaren* itzulpenarekin bukatu nahi “jatorrizko” testuaren inguruan bi hitz esan gabe. Ibinagabeitiak berak honako hau aitortzen digu *Maita-bidearen* hitzaurrean:

Nere itzul lanerako Herni Bornecque-k sendotu textua erabili dut batez ere. [...] Idazt-une illunak argitzeko izkera arrotzetara egin itzulpenak ere begipean izan ditut. Alare latinari alik ertsien atxiki natzaio (Ibinagabeitia 1994: 4).

Dena dela, Bornecqueren testuarekiko aitortu baino menpekotasun handiagoa izan duela dirudi, Aintzane Arrietak ohartarazten digun legez: “Latinekotik ahalik eta hertsien jarraitzen saiatu dela dioskun arren, Bornecque-ren edizioa hartu eta itzulpen honen sarrera, paragrafoen zatitze edota oharrei gain so bat ematea aski da eredu, Jaun frantsesa izan zuela jakiteko” (Arrieta 1994: lv). Hemen ere, beraz, itzulpen baten itzulpenaren aurrean aurkitzen gara, edo, behintzat, beste hainbat itzulpenen eragina izan duen itzulpen baten aurrean. Halere, jatorrizko latinekoarekiko leialtasuna azpimarratzen jarraitzen da, hala ez egitea zilegi ez balitz bezala. Diskurtso modernoan behin eta berriz errepikatzen den kontraesana hau ere.

Ars amatoriaz gain beste testu klasiko batzuk ere itzuli zituen Ibinagabeitiak, besteak beste Virgilioren *Bukolikoak* (“Unai-kantak”) eta *Georgikoak* (“Alor-kantak”). Izan ere, gerra aurreko eta osteko urte haietan izugarritzko garrantzia ematen zitzaion literatura-obra klasiko grekolatindarrak itzultzeari. Irakurleen artean arrakasta handiegirik izango ez zutela susmatu arren, Ibina-

ustez, XX. mendearen azken hamarkadetara arte helduko. Orduan hasiko da agertzen “idazle gazteagoek osatzen duten literatura postnazionalaren esparrua” (Gabilondo 2006: 27).

⁶⁶ Ikusi, besteak beste, Arrieta 1994, Ruiz 1992 eta 1995.

gabeitiak tinko defendatzen du klasikoen itzulpenen beharra Venezuelako *Eman* aldizkarirako egin zuen iruzkin batean:

Oraingo idazle berri-zaleen artean itzulpenak ez dute geienetan girorik arkitzen, batez ere antxiñako klasikoetatik egindakoeak. Badira aipatu euskal-idazleen artean, alako itzulpenak ez-ezik, antxiñako auktore guztiak ere deplauki gaitzesten ditutenak. Ez omen zaizkie atsegin, eta kito: bijoaz inpernura. Zorionez baña, euskal-idazle guztiak eztaoz bat alako iritxi-extremistekin, eta oraindik badira klasikoen denduna ta zentzuna aintzat ditutenak. [...] Gure izkuntzak, beste izkuntzak bezela, bear bezelako evoluzioa egingo baldin badu, klasikuen idazlan aundietan sendotu bear ditu bere oinarriak. Eztala latin-jatorrikoa esango du norbaitek, gure euskera. Ingelesa eta alemana ere eztira latin-jatorrikoak, baiña gu ta aiek latindar zibilizazioaren oboan ari gera, aien giroan bizi gera, beraz aiengandik jaso bear dugu bizi-arnasa ere gure izkuntza pizkortu eta indartzeko (Ibinagabeitia 1967: 33).

Orixe eta Ibinagabeitia bezala, beste idazle batzuk ere lotu zitzaizkion klasikoak euskaratzeari. Iñigo Ruizek ongi gogorarazten digun legez, “*Euzko gogo*-ren orrialdeetan eta, oro har, *Euzko gogo*-ren inguruan antzinateko klasikoak itzultzeko modu bat gauzatzen da, hau da, klasikoak euskal mundutik ikusteko eta erabiltzeko modu bat” (Ruiz 1995: 693). Orixez eta Ibinagabeitiaz gain, Jokin Zaitegi, Bingen Ametzaga eta Santi Onaindia aipatzen ditu Iñigo Ruizek klasikoak lantzeko modu berri haren ordezkari gisa.

2.1.12. JOKIN ZAITEGI

Hain zuzen ere, Jokin Zaitegiren aipu batean argi ematen da klasikoak itzultzeko proiektu horren berri:

Loiolan geundelarik hilerokoa zen josulagunen Bilboko JESUSEN BIOTZAREN DEYA-n idazten genuen sarri eta honek gure idazkietan erraztasuna lortzen laguntzen zigun. Lagun piloa batu ginen bazkun antzeko batetan eta euskararen bidez gure kulturaren alde ahaleginduko ginela erabaki genuen (Zaitegi, *apud* Velez de Mendizabal 1981: 38).

Honela jarraitzen du aurrerago:

Klasikoetan genuen oinarri sendoa aprobetxatu nahian eladerazko eta laterazko idazleak euskaratu behar genituela erabaki zen bazkunean. Baita honela hasi ere. Dena dela, Andimak eta biok bakarrik iraun genuen lan honetan. Andimak Bergili aukeratu zuen eta nik Sopokel (Zaitegi, *apud* Velez de Mendizabal 1981: 39).

Eta horrela itzuli zituen Zaitegik *Sopokel'en antzerkiak*, bere garaiko beste itzultzaile askok bezala uste baitzuen “Sartaldeko Europa-ko literaturarik gorengoena Elade zaarrekoa” zela (Zaitegi 1977: 17) eta, beraz, literatura horretako antzerkiak euskaratzeak euskal antzerkigintzari bultzada garrantzitsua emango ziola: “[...] orea orantzak artzi oi du. Guk, ere, euskal-antzerkiak mar-
dulagotu ta bikañagotu nai ditugu” (Zaitegi 1946: 5).

Platonen lanak ere itzuli zituen Zaitegik. 1962an *Platon'eneko atarian* argitaratu zuen, Platoni buruz euskaraz idatzitako lan mardula. Liburuaren hitzaurrean argi aipatzen du euskara edozertarako gaitzeko euskal idazleen desioa: “Egungo idazleok euskera zernaitarako egokierazi nai izango genuke. Naiz ta gairik sakonenak izan, euskera garbiz irauli nai izango genituzke” (Zaitegi 1962: 1). Hamarkada bat geroago ekingo dio Zaitegik Platonen lanen euskarazko itzulpenak argitaratzeari, 1975etik aurrera banan-banan argitaratu baitzituen filosofo greziarraren elkarrizketak sei liburutan. Liburu horietako lehenengoan, argi adierazten du itzultze-lanean kontuan hartu duen irizpidea:

Arautzat nere buruari auxe ezarri diot: aalik eta zeatzen euskerara itzultzea, alegia: egokieraztea ez, itzultzea baizik. Nere uste kaxkarrean, egokieraztea ta itzultzea bi gauza bestelako dira (Zaitegi 1975: 22).

Eta ahalik eta zehatzen itzultzeko, hitzez hitzeko itzulpena lehenesten du, Platonen II. liburuaren hitzaurrean dioskunez:

Badakit Platon itzez itz euskeratzea lan gaitza dena, baina, lan ongarrria, nik uste, euskerarentzat eta itzultzailearentzat beinik-bein. Eladera izkera oparoa ta landua baita, ta Elade zaarreko idazleak gorengoena (Zaitegi 1977: 17).

Hitez hitz itzultzean, beraz, grezieraren ahalmen linguistiko goren horiek bereganatu ahal izango zituen bai euskarak, baita euskal itzultzaileak ere, gero euskal hizkuntza eta literatura oparoago eta aberatsago bat sortzeko ezinbestekoak izango zirenak.

2.1.13. BINGEN AMETZAGA

Helburu berberarekin heldu zion Bingen Ametzagak ere klasikoak euskaratzeari. Haren alaba Mirentxuk aitari buruz idatzitako liburuan, Ametzagak Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresurako prestatu zuen lana aipatzen du: “Traducción de obras literarias al euskera: Interés de estos trabajos y proble-

mas que los mismos presentan”. Lana argitaragabea den arren (Ametzagata-
rren esku da, nonbait, ez baita argitaratu biltzar horretako lanekin), Mirentxu
Amezaga alabak (Amezaga 1991) eta Xabier Irujo Ametzaga ilobak (Irujo
2009: 37-43) hainbat pasarte gogorazten dizkigute, itzultzaile algortarraren
itzulpenaren gaineko gogoeten isla gisa:

Se ha dicho muchas veces que la traducción es una labor ingrata que exige
mucho y compensa poco, casi una labor desesperada en cuanto que la meta de su
perfección resulta inasequible (Ametzaga, *apud* Ametzaga 1991: 174).

Zailtasun horiek gorabehera, Ametzagak itzulpen literarioaren beharra az-
pimarratzen du, edozein hizkuntza eta literaturaren garapenerako ezinbeste-
koa dela aldarrikatuz:

[...] en nuestro tiempo la traducción se haya convertido en el ejercicio por
excelencia de la formación humanística (Ametzaga, *apud* Irujo 2009: 37).

Itzulpenak xede-hizkuntzari eta -literaturari egiten dien mesedearen adi-
bidetzat Zizeron jartzen du,

por haber tenido entre otros el mérito de haber expuesto, a los romanos, con clari-
dad y elegancia, las principales ideas de los griegos y que para ésto adelgaza el latín
haciendo de él un lenguaje filosófico en que se interpretan excelentemente términos
griegos de muy difícil traducción (Ametzaga, *apud* Ametzaga 1991: 174-175).

Beste hainbat adibideren laguntzarekin, ondorio garbi honetara iristen da
Ametzaga:

El pasado autoriza y el futuro aconseja la empresa de traducciones literarias
al euskera, [...] labor, a nuestro juicio, una de las más importantes a considerar y
realizar hoy en día para la salud y desarrollo de nuestro idioma nacional (Ame-
tzaga, *apud* Ametzaga 1991: 175).

Obra literarioak euskaratzearen arazo handiena, eta aldi berean helburu
nagusia, euskara literarioaren sorkuntza zen, Ametzagaren iritziz:

La traducción al euskera de obras maestras de la literatura universal trae apa-
rejado en nuestro caso otro problema: el del euskera literario. [...] Precisamente
para nosotros, la creación del euskera literario, instrumento unificador por exce-
lencia de nuestra lengua nacional, es uno de los principales fines perseguidos en
esta empresa. [...] Y la traducción de obras clásicas es uno de los medios más efi-

caces de que podemos valernos para alcanzar esa unificación (Ametzaga, *apud* Ametzaga 1991: 176).

Beraz, helburu horrekin ekin zion Ametzagak obra klasikoak euskaratzeari, eta Plinio gaztearen, Eskiloren eta Zizeronen lanak itzuli zituen. Azken horren *Adiskidetasuna* lanaren hitzaurrean argi adierazten digu itzulpena egitera bultzatu duen helburua: “Lateratik artu ta euskerara ekarri dizut, arteka-marteka, maitasun aundienaz ta euskeraren alde zerbait egiteko asmo zintzoaz” (Ametzaga 1952a: 44). Klasiko grekolatindarrak itzultzeaz gain, bestelako lanak ere euskaratu zituen, beti ere euskara edozertarako gai zela erakusteko eta euskara eta euskal literatura aberasteko helburuz: “Se han vertido al idioma vasco cantidad de obras de valor universal [...] demostrando una maravillosa capacidad para ser empleada en todos los campos de la cultura” (Ametzaga, *apud* Ametzaga 1991: 217). Shakespeare-ren *Hamlet* antzezlanaren hitzaurrean, itzulpenaren zailtasun praktikoek dihardu, eta itzultzeko erabilitako irizpidea justifikatzen ahalegintzen da:

Shakespeare’ri alik zintzoenik yarraitzea izan dut lenbiziko xedea; bulkoetan bakarrik ez, itzetan ere; itzez-itz al izan dudan aldi oro. Au, ordea, ezina da askotan, euskera ta ingeleraren izakera oso bestelakoak baitira ta, bestalde, olerkari bat zeaztasun osoz biurtzeak illuntasuna dakarrelako, sarritan. Orregatik, zintzotasuna ta zeaztasunaren aldean, argitasuna izan dut beti elburu, olerkariaren opaz ta euskeraren onerako (Ametzaga 1952b: 9-10).

Ikusi dugunez, Ametzagaren diskurtsoa ez da gehiegi aldentzen orain arte aurkeztu ditugun beste itzultzaileen esanetatik: itzulpena zeregin ikaragarri zaila da, inoiz ezin baita perfekzioa lortu (“la meta de su perfección resulta inasequible”). Halere, ezinbestekoa da ahalegin horretan saiatzea nork bere hizkuntza eta literatura garatu nahi baditu; gainera, itzultzen diren obrak literatura “gorenenetakoak” badira, are prestigio handiagoa ekarriko diote euskara bezalako hizkuntza txiki bati. Itzulpen-irizpideei dagokienez, hortaz, ikusi dugunaren arabera, Ametzaga, Zaitegi bezala, hitzez hitz itzultzen ahalegintzen da, baina sorburu-eta xede-hizkuntzen arteko desberdintasunak direla-eta, batzuetan zenbait gauza aldatu beharrean aurkitzen da testu argiagoa emate aldera.

2.1.14. SALBADOR BARANDIARAN

Ibinagabeitiaren, Zaitegiren eta Ametzagaren antzera, Salvador Barandiaranek ere sutzuki aldarrikatu zuen klasikoak itzultzearen beharra. Horixe azpimarratu zuen Homeroren *Iliasena* (1954) itzulpenaren hitzaurrean:

Oraindaño elertian jakitun izan diran efi guziek, noski, antxiñako Elas'era edo Grezia'ra itzuli izan dira, ango elerti-itufitik egafia asetzeko asmoz. Europa zaaferko edonungo efiak lenbizi, esan daiteke, Gerkeraz ikasi izan dula, gero norberaren izkuntza landu ta apaintzeko [...] Euzkera, ba, Gerkera bezaiñ zaaña, Gerkera bezaiñ agurgafia duzu [...] (Barandiaran 1954: 3).

Hemen ere diskurtso bera ageri zaigu: Europako herri handi guztiek Anzinateko Greziako literaturatik edan dute, eta horri esker garatu eta apaindu ahal izan dute beren hizkuntza; euskal literaturak ere gauza bera egin behar du ezinbestean.

Homero euskaratzeko egindako ahalegina eskertzekoa bada ere, aitortu beharra dago Barandiaranen itzulpenak ez zuela arrakasta handirik izan. *Egan* aldizkarian argitaratutako iruzkin batean, Koldo Mitxelenak kritika gogor samarra egiten dio *Iliasenari*. Itzulpenean bi gauza bidean gelditu direla dio: “poemaren edertasuna eta grazia batetik, eta euskera bestetik”. Mitxelenaren esanetan, “itzulpen onetako izkerak leku malkarretan barrena, katazka bizian, dabillen gurdi zaar negartiak baiño kurrinka eta karranka geiago dario” (Mitxelena 1956a: 103).

2.1.15. BEDITA LARRAKOETXEA

Azkenik, klasiko grekolatindarren itzulpena alde batera utzita, bestelako literatura-lanak euskaratzen jardun zuten beste itzultzaile batzuen ahotsa ekarri nahi izan dugu hona. Antzerkiaren arloan lan eskerga egin zuen itzultzaileetako bat Bedita Larrakoetxea dugu, Shakespeareren antzerki-lan guztiak euskaratu baitzituen, hasi 1957an *Euzko gogoa* aldizkarian plazaratutako *Macbethetik*, eta 1976an Kardaberaz bilduman argitaratutako *Shakespeare 6 – Odol-antzerkiak B* arte.

Larrakoetxeak berak nahiko ongi laburbiltzen du frankismo bukaerako urte haietan euskal itzultzaileek itzulpenaren bidez lortu nahi zutena. 1976an Kardaberaz bilduman argitaratutako Shakespeareren itzulpenen 5. liburukiaren hitzaurrean, Shakespeareren antzerki-lan guztiak euskaraz jarri dituela esaten dio irakurleari, “euskeraz irakurteko zaletasuna euskaldunen artean bizkortzeko” (Larrakoetxea 1976: 5). Horrekin batera, nabaria da euskara beste edozein hizkuntzaren pare jartzeko desioa ere, *Erromi ta Yuletxuren* sarreran honako hau aitortzen baitigu:

[...] antzerki onetan ikusiko dozu aren bulkoak eta aren biotzaldiak oso-osorik dozuzala euzkerazko lan onetan, eta euzkerea gure amaren bularretik esneagaz batera edozki dogunoi beintzat, bulko ta biotzaldiok askozaz be gozoago egiten yakuz gure izkuntzan, beste edozeinetan baño (Larrakoetxea 1976: 13).

Aurreraxeago, berriz, honela jarraitzen du:

Toki batzuetan, Shakespeare'k zer esan gura dauen aituteko, astiro ibili bear-ko dozu, baño au be ez yako zor euzkereari, esanari berari baño. Ingelanderaz ba'dakizu, ingelanderaz irakurri egizu, eta zeuk ikusiko dozu nik diñodana egi uts dala (Larrakoetxea 1976: 14).

Alegia, euskara gai da jatorrizko testuaren hizkera erraza nahiz zaila ongi itzultzeko. Literatura-lan grekolatindarren itzulpenarekin gertatzen zen bezala, Shakespeareren obrak itzultzearen arrazoi nagusia euskal literatura-sistema indartu edo osatzea dela dirudi, euskaldunei literatura-lan “handiak” euskaraz irakurtzeko aukera eskaintzea, alegia. Era berean, euskara beste edozein hizkuntza bezain gai dela erakutsi nahi da literatura-lan “handiak” itzultzeko.

2.1.16. TXOMIN JAKAKORTEAREN

Itzulpenaren bidez euskararen gaitasunak laudatzeko desio hori oso garbi ageri da frankismo bukaerako beste hainbat itzultzailearen esanetan ere. Txomin Jakakortexarena apaiz berastegiarrak, adibidez, euskararen aberastasun eta gaitasunak gorai patzen ditu Argentinan erbestaturik zegoela egindako itzulpen batean: 1972an euskaratu zuen José Hernández argentinarraren *Martin Fierro* liburua, *Matxin Burdin* izenburupean. Arbaso euskaldunak omen zituen “gautxo” haren poemak euskaratzeak buruhauste bat baino gehiago eman bazion ere, euskara poemak egoki itzultzeko gai izan zela adierazten du:

[...] itzetikitzero, izneurkera berberetan, egiñegiñetan, apaldi ideidekotan, itzamaikide osotan eta erderarenak berarenak bezin aberatsetan, esakunetako izkera motz eta izbiufikeriak naste, salkeri gabe ongi itzulitzeko, gai izan da gure Euskera apala (Jakakortexarena 1972: 21).

Areago, beste edozein hizkuntza baino egokiagoa da euskara, Jakakortexarenaren ustez, poema horiek itzultzeko:

[...] ziur ziur nago beste izkuntza batek, naiz aberatsenak eta ots aundikoenak, ez lezakela ain egoki itzuli inola ere, askoz gutxigo emon lefokela ordea, be-

reberea ba'lu bezela Euskerak damaion bezela itzulkeran, Matxin Burdin'ek zelai zabal orietako luñunez uíelasturik daukan gautxo barnegogo bizibizia. Izkera mota oro, afotz, zaizkio biziki noski, Euskera bakaña zaío etxeko mintzo (Jakakortexarena 1972: 21).

Poemak hain ongi geratzen dira euskaraz, non “erderatik euskerara ez baiña euskeratik erderara egiña izan zala esan genezake” (Jakakortexarena 1972: 21).

Jakakortexarenaren adierazpen horiek aski ongi islatzen dute frankismoaren bukaerara arte idazle- eta itzultzaile-belaunaldi zaharrenen artean iraun zuen ikuspegia, itzulpena euskararen gaitasunak frogatu eta euskara aberasteko tresnatzat jotzeko joera, alegia.

2.1.17. ITZULPEN-GOGOETAREN ETA ITZULPEN-PRAKTIKAREN ARTEKO KONTRAESANAK

Gainbegiratu azkar honetan ez dugu euskal itzulpenaren historiaren azterketa xehe bat egin nahi izan; gure helburua Euskal Herriko itzultzaile garrantzitsuenen zenbait hausnarketa plazaratzea izan da, itzulpengintzaren gaineko diskurtsoan joera edo bilakaera garbi bat ikusten ote den zehaztu ahal izateko. Adibide hauek ikusita, badirudi euskal itzulpenaren teorizazioan ez dela garapen progresiborik izan, itzultzaileen esanak guztiz heterogeneoak baitira, itzultzaile bakoitzaren esperientzian edota esperientzia ezean oinarrituak.

Hortaz, ezinezkoa zaigu itzultzaile hauen hausnarketak lehenengo kapituluaz aztertutako diskurtso modernoaren edota postmodernoaren barruan kokatzea, ez baitute inolaz ere diskurtso egituraturik osatzen. Dena den, euskal itzultzaileek errepikatu izan dituzten hainbat baieztapen bat datoz diskurtso modernoaren ezaugarriekin, hala nola formaren (hitzaren) eta edukiaren (zentzuaren) arteko bereizketa garbia, edota itzulpenaren helburu gorentzat jotzen den baliokidetzaren nozio abstraktua. Horixe izan da hitzaurreetan gehien errepikatu den adierazpena: itzultzaile batzuek hitzez hitz itzultzea hobesten dute (ikusit dugunez, Bibliaren eta erlijio-testu sakratuen kasuan batez ere), eta beste batzuek, berriz, zentzua transmititzearan alde egiten dute. Itzultzaile bakoitza bere hautua justifikatzen ahalegintzen da hitzaurrean, eta askotan barkamena ere eskatzen du jatorrizko testua xede-hizkuntzara transferitzean gertatutako galera edota aldaketak direla eta (*captatio benevolentiae* baliabide

erretorikoan halakoak egiteko irakasten den arren, uste dugu kasu askotan itzultzaileek benetan sinetsita esaten dutela hori).

Ikusi dugu, halaber, zer-nolako garrantzia ematen zaien normalean jatorrizko testuari eta autoreari (bereziki Bibliaren kasuan): jatorrizko zentzu transzendental horretan gordetzen den egia absolutua da, eta itzultzaileak inolako manipulaziorik gabe transferitu behar du eduki hori hizkuntza batetik bestera. Itzultzailea, beraz, bigarren mailako subjektu gisa ikusten da, jatorrizko testuaren eta itzulpeneko hizkuntzaren menpeko morroi gisa, eta ahalik eta gutxien esku hartu behar du itzulpenean, lan originalaren eta itzulpeneko hizkuntzaren handitasuna nabarmentzeko. Gogora dezagun, esate baterako, Leizarragak Nafarroako erreginari egiten zion erregua arreata handiagoz begira zezan “obraren handitasunera eta dignitatera” eta ez “Translatazalearen inperfektionetara eta xipitasunera”; edota, XX. mendearen erdialdean jada, oraindik ere “les belles infidèles” metaforari erreferentzia egiten zioten Ibinagabeitiaren baieztapenak.

Hori, teoriari dagokionez. Praktikari begiratzen badiogu, ordea, ohartuko gara kontraesan nabarmenak daudela itzultzaileen hausnarketan eta egindako itzulpenen artean. Izan ere, euskal itzultzaileek diskurtso modernoak kontuan hartzen ez dituen hainbat zailtasuni aurre egin behar izan diote askotan. Esate baterako, diskurtso modernoan bi hizkuntzaren artean lortu beharreko balio-kidetaz hitz egiten da, bi hizkuntza horiek maila eta baldintza berekoak izango balira bezala. Atal honetako adibideetan ikusi ahal izan dugunez, ordea, euskal itzultzaileek beti menpekotasun egoera batean aurkitu izan den hizkuntza batera itzuli behar izan dute, eta horrek teoriarik defendatu dituzten hainbat irizpideren aurka egitera behartu ditu. Axularrek “euskara eta bertze hitzkuntzak diferent” zirela aipatzen zuen testuak hitzez hitz ez itzuli izana justifikatzeko; Leizarragak Euskal Herriko “minzatzeko maneran zer diferentia eta dibersitatea den” gogorarazten digu, eta hori dela eta itzulpen-irizpide nagusia “ahalik gehiena guzietan adi erazite[a]” izan dela. Sebastian Mendiburuk bere irizpide nagusia “neke andirik gabe nork nai adi ditzakean moduan” itzultzea izan dela adierazten du, eta hori lortzeko hainbat gauza lekuz aldatu omen ditu itzulpenean, jatorrizkoarekiko fideltasunaren irizpidea sakrifikatuz. Beste itzultzaile batzuek bestelako helburuak jarri dituzte fideltasunaren edota balio-kidetzaren aurretik, hala nola helburu erlijiosoa (Haranederren Bibliaren itzulpena, esaterako, Leizarragaren pozoiak kutsatutakoak sendatzeko), apologetikoa (Larramendiren edo Mogelen itzulpenak, euskara edozertarako gai zela erakusteko), didaktikoa (Bizenta Mogelen alegiak, nekazarien ipuin kaltegarriak ordezkatzeko), morala (geroago ikusiko dugun Orixeren moldaketa

eta ezabaketak) edo nazionalista (Ibinagabetiaren proiektua, euskal literatura literatura klasiko handien parera igotzeko). Teorian itzulpengintzaren diskurtso modernoa defendatu nahi izan duten arren, eta ezin hautsizko baldintza gisa fideltasuna, baliokidetzeta, itzultzailearen esku-hartzerik eza edo antzeko irizpideak aipatzen dituzten arren, euskal itzultzaile gehienek beste behar batzuk lehenetsi behar izan dituzte, eta ez dute, beraz, teoriarik defendatutakoa praktikara eramanez.

Euskal itzultzaileen itzulpen-praktikarekin sarritan kontraesanetan dagoen itzulpenaren ikuspegi tradizional horrek XX. mendearen bukaerara arte iraungo du, harik eta zenbait itzultzaile (tartean Sarrionandia) ikuspegi horren inkoherentziak modu aski burutsuan azaleratzen hasten diren arte.

2.2. ITZULITAKO OBRAK: ITZULGAIA

Euskal itzultzaileek esandakoak aztertu ondoren, Leizarragaren lehen euskal itzulpenetik Sarrionandiaren garaira arte zer euskaratu den aztertuko dugu atal honetan. XX. mendearen bukaerara arteko euskal itzulpen guzti-guztien azterketa egiteak luzeegi joko ligukeenez, eta lan honen gai nagusia kontuan harturik, nolabaiteko hautaketa bat egin behar izan dugu, eta testu edo itzulpen literarioetara mugatu dugu gure azterketa. Itzulpen literarioen barruan ere beste banaketa bat egin dugu, eta liburu gisa argitaratutako itzulpenak eta aldizkarietan kaleratutakoak bereizi. Azken horiek alde batera uztea erabaki dugu, itzulpen kopurua ikaragarria delako, batetik, eta, bestetik, itzulgaien hautaketarako baldintzak desberdinak direla iruditzen zaigulako liburuetan eta aldizkarietan. Halere, 2.2.3. atalean aldizkarietan argitaratutako itzulpenei buruzko azalpen labur bat emango dugu.

Nagusiki, beraz, liburu gisa argitaratutako itzulpenak aztertuko ditugu. Corpus moduko hau egiteko Xabier Mendiguren Bereziarturen *Euskal itzulpenaren historia laburra* (1995) liburuan oinarritu gara batik bat,⁶⁷ eta alde

⁶⁷ Liburu horixe da orain arte ateratu den euskal itzulpenen katalogorik zabalena. Zenbait datu-base informatizatutako katalogo osoago eta xeheagoa eskaintzen duten arren, gehienek XX. mendearen bukaeratik aurrera argitaratutako liburuak soilik jasotzen dituzte. Hala gertatzen da, esate baterako, UNESCOren *Index Translationum* datu-basearekin (1970etik aurrerakoa, eta ez erabat osoa), Espainiako eta Frantziako ISBN agentzien datu-baseekin (1972tik aurrerakoak, eta akatsez hornituak euskarazko produkzioari dagokionez), eta EIZIEn Literatur Itzulpenen Katalogoarekin (1976tik aurrerakoa, eta ez osoa). Hain zuzen ere 1970eko hamarkadara arte euskaratutako lanak interesatzen zaizkigu atal honetan eta, beraz, datu-base horiek ez ditugu

batera utzi ditugu, esan bezala, literatura-itzulpenak ez diren lanak, itzulpen “funtzionalak” deituko ditugunak, hala nola itzulpen erlijiosoak; medikuntzako, nekazaritzako edo arrantzako esku-liburuak; han-hemenka jaso eta itzultako atsotitzen bildumak; gramatikak edo hizkuntzak ikasteko liburuak, eta euskalkien arteko itzulpenak nahiz euskaratik gaztelaniarakoak.

Aipatu berri ditugun itzulpenak alde batera utzita, beraz, XIX. mendean agertzen dira “literariotzat” jo ditzakegun lehen itzulpenak, eta XX. mendean sartu arte ez dira ugaritzen hasten. Dena dela, esan genezake nolabaiteko bilakabide bat ikusten dela lehen itzulpen “literarioetatik” XX. mendean bukaeran egiten direnetaraino; izan ere, hasierako itzulpen literarioek, testu literarioen itzulpenak izan arren, helburu funtzionala zuten literarioa baino gehiago, besteak beste haurrentzako testu didaktikoak euskaraz ematea, moralari buruzko gomendioak zabaltzea edota euskararen apologia egitea. XX. mende hasierako eta erdialdeko itzulpen literarioek ere bazuten nolabaiteko helburu funtzionala, euskara literarioa lantzea edota euskal literatura aberastea kasu. Itzulpen literarioek, beraz, helburu funtzional desberdinak izan zitzaizkuten:

- **Helburu didaktikoa:** Xede horrekin euskaratu dira, XIX. mendean lehen erdian batez ere, autore klasiko ezagunen hainbat ipuin eta alegia. Ezagunen artean Bizenta Mogelen *Ipui onak* (1804) eta Agustin Pascual Iturriagaren *Fábulas y otras composiciones* (1824) aipatuko gemituzke.
- **Helburu apologetikoa:** Euskara beste edozein hizkuntzaren maila berean jartzeko ere erabili da itzulpena. Kasurik gardenena, behar bada, Juan Antonio Mogelen izenburu adierazgarriko *Versiones Bascongadas...* (1802) dugu. Izenburu osoak dioen bezala, euskararen garbitasuna, emankortasuna eta elokuentzia demostratzea da obraren helburua, Zizeron, Salustio, Tazito, Tito Livio eta Kinto Kurtzio ere euskaraz jar daitezkeela erakutsiz. Mende bete geroago ere antzeko helburuarekin euskaratuko dira beste hainbat klasiko grekolatindar: XX. mendeko “itxarkundi” garaian sistematikoki hasi ziren hainbat idazle, besteak beste Orixe, Ibinagabeitia, Bingen Ametzaga, Santi Onaindia eta Jokin Zaitegi, euskara literatura klasikoarekin hornitzen, euskal literatura Mendebaldeko kanonaren oinarri ziren obra

te balio. *Armiarmak* atera berri duen “euskarari ekarriak” proiektuak itzulpen zaharragoak ere jasotzen ditu, baina ez ditu inondik ere (oraingoz behintzat) historiako euskal itzulpen guztiak biltzen.

klasikoekin hornitzea euskara duintzeko ezinbestekotzat jotzen baitzuten.⁶⁸ Klasiko grekolatindarrak ez ezik, prestigiotsutzat jotzen ziren literatura modernoetako lan klasikoak ere helburu berberarekin itzuli ziren, esate baterako Cervantes, Shakespeare, Dickens, Goethe, Dante, Saint-Exupéry...

- **Helburu politikoa:** Sail honetan sartuko genituzke Euskal Herriko egoera politikoaren antzekoan sorturiko testuen itzulpenak. Bat aipatzearren, Jokin Zaitegik itzulitako *Ebangeline* (1945) ekarriko genuke hona: poema Henry Wadsworth Longfellow estatubatuarrak idatzi zuen 1847an, eta gerora akadiarrek beren poema nazionaltzat hartu zuten; hori dela eta, badirudi Zaitegik euskaldunentzat eredugarri izan zitekeelakoan itzuli zuela. Antzeko adibide bat Orixeren *Mireio* (1930) litzateke, Frédéric Mistral poeta proventzarraren poemaren itzulpena. Testu hori eredugarria zen, hizkuntza gutxitu batek Nobel saria irabaz zezakeela erakusten zuelako; aipa dezagun, halaber, gerora Orixek euskaldunen poema nazional izan zedin idatzi zuen “Euskaldunak” poeman eragin nabarmena izan zuela.

Esan gabe doa, itzulpen gehienek helburu bat baino gehiago dituztela, eta egin berri dugun sailkapena ez dela erabat zurruna, multzo bakoitzean eman ditugun adibide batzuk erraz sar litezkeela gainerako multzoetan ere. Ondoren aipatuko ditugun itzulpenak deskribatzeko eskema moduko bat ematea izan da sailkapen horren xede bakarra. Jarraian, ordena kronologikoan aurkeztuko ditugu XIX. eta XX. mendeetan itzulpen literarioak egin zituzten itzulzaileak eta beren itzulpenak.

2.2.1. XIX. MENDEA

Literarioa dei genezakeen lehen itzulpena XIX. mendearen hasieran argitaratutako *Versiones Bascongadas...* (1802) dugu, Juan Antonio Mogelek itzulia. Testu literarioen itzulpenak diren arren, helburu nolabait funtzionala zuten: batetik, eta batez ere, euskararen garbitasuna frogatzea, eta, bigarren maila batean, helburu didaktiko edo hezitzailea ere izan zezaketen. Mogelek itzulitako gainerako lanen artean ez dugu beste itzulpen literariorik aurkitu.

⁶⁸ Inigo Ruizek gogorarazten digunez, “klasikoen euskal itzulpenak [...] ez dira egin liburu horiek aditu nahi zituztenen beharrari erantzuteko: euskararen duintasunaren alde eta euskara eta euskal literatura gartzeko helburuarekin egin dira” (Ruiz 1995: 662).

Hurrengo itzulpen literarioa Mogelen iloba Bizentarena genuke: *Ipui onac, ceintzuetan arquiteuco dituzten euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco* (1804); lehenago ere aipatu dugu helburu argiki hezitzaile eta moralizatzailearekin egina dela.

Agustin Pascual Iturriaga ere bere alegien itzulpenengatik da ezaguna. *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano, con un diccionario basco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos* (1824) izenburuko liburuan, Samaniegoren 55 alegia bildu zituen, euskarara hitz neurtutan itzulita; alegia horietaz gain, Virgilioren lehen eta hirugarren Eglogak eta San Inazioaren martxa eta ezpata-dantza ere txertatu zituen liburuan.

Ordena kronologikoan jarraituz, Jean Pierre Duvoisin itzultzailea aipatu beharrean gaude, aurreko atalean aurkeztutako Bibliaren itzulpen entzute-tsuz gain, François de Salignac de la Mothe-Fénelon idazle frantsesaren *Telemaque* euskaratu zuelako 1833 inguruan. Fénelonen idazlana “itxuraz, antzina-ko epopeia eta poema epikoen antzera taxututa” egon arren, “gertaera eta egoera hauek guztiak, aitzakia hutsa baino ez dira, tresna eta euskarri hutsa Fénelonek [...] moralari eta politikari buruzko ideiak azaldu eta garatzeko” (Kruzeta 1997: xxix). Litekeena da, beraz, Duvoisinek testu hau itzultzearen arrazoen artean, euskaldunei heziketa moral eta politikorako tresna eskaintzearena egotea.

Duvoisin kapitainaren gainerako itzulpenen artean, hauexek lirateke literariotzat jo genitzakeenak: *Don Kixoteren* hitzaurrearen eta lehenbiziko hiru kapituluen itzulpena (1904an eta 1905ean argitaratua), eta Fénelonen hainbat fabularen itzulpenak (oraindik argitaratu gabeak).

Fabula edo alegiekin jarraituz, garai bertsuko Jean B. Arxu zuberotarra aipatu behar dugu, 1848an argitaratu baitzituen La Fontaine-ren alegiak bertsoz zubererara itzulirik: *La Fontaineren Alhegia berheziak neurt-hitzez*. Itzultzaileak berak hitzaurrean adierazten duenez, itzulpenaren helburua haur euskaldunen artean frantsesa ikasteko irrika sorraraztea da.⁶⁹ Gogoraraz dezagun, puntu honetan, Arxuren frantseszaletasuna; izan ere, bere literatura-lan nahiz itzulpen gehienak frantses errepublikaren aldeko aldarria zabaltzeko helburuz

⁶⁹ “Uskal-herriko haurrek beharlukete, hola da ja ene ustea, habil-enekinkobat, gramatikabat, zoinekin ikhas ahal dezen berek Franzes hitzkuntza. Gramatika hori haur hoi en eskuetara hel artino, uste dut alegia igorten deitzedan hoiek aisaeraziren dereiela Franzesaren ikhastia” (Arxu 1848).

eginak dira. Esanguratsua da, zentzu horretan, alegiak argitaratu zituen urte berean kaleratutako *Kantu patriotikak* (1848) izeneko foiletoa, “Phartitzeko kantua”, “Marseillaise”, “Uskaldun kantua” eta “Kantu republikanoa” euskaraturik biltzen zituena. Patxi Salaberrik azaltzen digun legez,

Ideologikoki errepublikazalea (Frantziako II. Errepublika ezarri urtean —1848an, alegia—, «Marseilesa»-ren euskarazko bertsioa, «Kantu republikanoa» eta beste bi kanta argitaratu zituen Kantu patriotikak foiletoan), Altzurukuko Jean Baptiste Archuk ere (1811-1881) ezin utz ziezaiokeen inspektore frantsesa izateari, eta, ondorioz, bere literatur obrek nekez ezkuta dezakete hexagonoko politika linguistikoa gauzatzeko xede profesionala. Ildo horretatik, ez da harritzekoa *La Fontaineren alegia berbeziak* (La Réole, 1848: 50 alegia) zubereraz jartzean (zuberera aberastuan, Iparralde guztira iristeko asmoa baitzuen, antza denez), La Fontaineren ospea euskaldunen artean zabaldu eta, ospe hartaz eta alegiei zerien «haute philosophie» delakoaz baliatuz, haur euskaldunen artean frantsesa ikaste-ko irrika sortarazi nahi izatea (Salaberri 2002: 154).

Kasu berezia dugu hauxe, euskal itzultzaile gehienek xedearen aurkakoa bilatzen baitu Arxuk bere itzulpenekin. Itzulpenak euskal abertzaletasuna indartzeko egin izan dituzten itzultzaileek ez bezala, Arxuk nazionalismo frantsesaren helburuetara bideratu zuen bere literatura-lan guztia. Aipatzekoa da, zentzu horretan, *Uskara eta Franzes Gramatika, Uskalherrietaco haurrentzat eguina* argitaratu zuela 1852an.

Ez zen Arxu izan La Fontaineren alegiak euskaratu zituen itzultzaile bakarra. Izan ere, Leonce Goyhethek ere idazle frantsesaren 150 alegia itzuli zituen euskarara: *Fableac edo aleguiac Lafontainenetariac berechiz hartuac* (1852). Alegien euskal itzultzaile gehienek bezala, Goyhethek ere helburu didaktiko eta moralizatzailearekin egin zituen itzulpen haiek, eta ez bakarrik haurrentzat, baizik eta batez ere helduentzat. Asmo moralizatzaile horrekin justifikatzen du, gainera, alegia ezegokiak ez itzuli izana: “Lafontene gaiçoac nahastatu ditu bere fabletan asco arinscoac, legarxuac eta izpirituen harrotcera eta bihotcen asaldatcera daronxaketenac : hec utci ditut bazterrera” (Goyhetche 1852: viij).

Alegia-itzulpen horien ondoren, hiru itzulpen literario besterik ez ditugu aurkitu XIX. mendearen bigarren erdian. Lehena Luis Iza Agirrerren *Zalameako alkatia* (1881) da, Calderón de la Barca idazle espainiarraren antzezlan ezagunaren itzulpena. Bigarrena Antero Apaolazaren *Patxiko Txerren* (1890) dugu, Antonio de Trueba idazle bizkaitarraren *El Judas de la casa* narrazioaren itzulpena. Lan hau esanguratsua da bi arrazoiengatik. Batetik, jatorrizko tes-

tuaren gaiarengatik: Antonio de Truebaren obrek, oro har, XIX. mendeko Gaztelako eta Euskal Herriko nekazaritza-giroa islatzea dute helburu; haren lanak industria-iraultzaren eraginaren ondorioz galtzen ari ziren ohitura eta tradizioen aldeko aldarria direla esan genezake. Ez da harritzekoa, beraz, Antero Apaolazak horrelako testu bat hautatzea euskarara itzultzeko, hain zuzen ere industrializazioaren eraginez erdalduntzen ari zen XIX. mende bukaerako Euskal Herria arrisku horretaz ohartarazi nahi baitzuen, Txomin Agirrerren *Garoak* edo *Kresalak* handik urte gutxira egingo zuten bezala. Apaolazaren itzulpena esanguratsua da, halaber, beste arrazoi batengatik, itzultzeko moduan egindako egokitzapenengatik, hain zuzen. Izenburuak berak ematen digu Apaolazaren itzultzeko moduari buruzko lehen zantzua: *El Judas de la casa* izenburua *Patxiko Txerren* euskal izen etxekoiaren bidez itzultzen du. Ez hori bakarrik, Juan San Martinek itzulpen honen 1962ko argitalpenerako egindako hitzaurrean azaltzen digun legez, “gertaerak tokiz aldatu zituan, ta Enkartaziñoen ordeztatuola ingurua du agerleku” (San Martin 1962: 16). Pertsona- eta toki-izen arrotzak euskal izenekin ordezkatzeko eta istorioa euskal testuinguru batean kokatzeko joera nahikoa zabaldua zen XIX. eta XX. mende hasierako itzultzaileen artean; bai haur- eta gazte-literaturako lanen itzulpenean,⁷⁰ baita bestelako literatura-lanen itzulpenean ere.⁷¹ Aldaketa horiekin batera, nahikoa ohikoa zen jatorrizkoa laburtu edo moldatzea, Apaolazak *Patxiko Txerren*ekin egin bezala:

Trueban prosa, beretzat, astunegia izaki. Ta landertu zuan ainbat ondoen. Trueba-rena aspergarri xamarra bazan ere Antero-k eralgiz kendu zion zaia. Itzultzaile batek orretarako eskubiderik ez badu ere, *El Judas de la Casa*-k, Apaolaza-gandik atera zanean asko irabazi zualakotzat gaude. Jatorrizkoa bera baño obea da irakurtzeko. Uste degu Apaolaza-k bazekiela zer egiten zuan. Lasto kentze orrek ez dio nobelari kalterik egin, mesede baizik (San Martin 1962: 17).

Esanguratsua da San Martinek itzulpenaren inguruan egiten duen gogoea. Berriro ere agerian jartzen da itzultzailearen jatorrizkoarekiko fideltasunaren eta jatorrizkoa hobetzearen arteko kontraesana.

⁷⁰ Haur- eta gazte-literaturaren euskal itzulpenetan egindako moldaketa “domestikatzailer” hauen adibideen berri izateko, ikusi López 2000 eta Gómez 2004. Klasiko grekolatindarren itzulpenetako egokitzapenei buruz, berriz, ikusi izenburu aski iradokitzaileko Iñigo Ruizen artikulua: “Virgilio Txerribuztangoerrekan” (Ruiz 1995).

⁷¹ Iñigo Ruizek “adkulturazio” deitzen dio jatorrizkoak bertakotu edo herrikoitzeko joera horri. Itzulpenari eman nahi zaion kutsu herrikoierako edo abertzalea desitxuratu dezaketen izen kanpotarrak irakurle euskaldunei ezagunagoak egingo zaizkien izenekin ordezkatu izan dituzte historian zehar hainbat itzultzailek (Ruiz 1995).

Bukatzeko, XIX. mendean argitaratutako azken itzulpen literarioa Resurrección María Azkueren *Peter Andiaaren iatorrizko gertaerak* dugu. Jakob Staehlin von Storcksburg-en *Original anecdotes of Peter the Great* liburuaren bi kapitulu (1.a eta 114.a) baizik itzuli ez zituen arren (1899an *Euskalzale* aldizkariaren ale banatan argitaratu ziren), aipatzeko modukoa iruditu zaigu itzulpen hau, batez ere Azkuek berak bi kapitulu horiek argitaratu aurretik *Euskalzaleren* aurreko atalean egindako hitzaurre edo “berbaurre” luzeagatik. Bertan esaten duenagatik, badirudi Azkuek gai politikoagatik hautatu zuela liburu hori, Errusiako tsar Peter Andiaaren eta euskaldunen arteko konparaketa egiten saiatzen baita (“Langilea zan a, langileak dira nire erritarrak; zintzoa a, zintzoak onek; berbakoa a, berbakoak onek; elizkoia zan Peter, euskaldunak onetan eztauke aren zoria gutartu-bearrik”), eta euskaldunek errusiarrengandik zer ikasia badutela iradokitzen baitu (“Euskaldunak, euren Erri au maite dabenak [...] asko ikasi daik ee gizon andi onen egikeretan”, Azkue 1899: 361). Euskara eta Euskal Herria indartu eta garatzeko kanpoko herrialdeetatik ikastearen beharra azpimarratzen du, Errusiako tsarrak egin zuen bezala:

Auše da Peter Andiaandik ikasi daik egun gauzarik andienetariko bat. Errikoia zan, beren errikoitasuna miñean baiño egikeretan luzarago bizi izan iakon; da Errusia zaarra barriraztuteko urruneko erbesteetara ioan zan: Inglaterra-ra, Holanda-ra, Alemania-ra ta Frantziara (Azkue 1899: 363).

Helburu politiko eta didaktiko horietaz gain, edo hobe esanda, helburu horiei lotuta, euskararen apologia egiteko xedea ere nabaria da hitzaurre berean:

Unibersidadeetan Erromar, Greziar, Indiar da Arabiarren berbetak, zelan edo alan, adierazoten dira. ¿Eta euskerea ezalda izkera orrek baizen zaarra, mamin-tsua, ugarria, zakona, apaiña ta ikasgarria? (Azkue 1899: 362).

Azkueren hitzek ederki asko laburbiltzen dizkigute XIX. mendeko euskal itzultzaileen asmoak: batetik, itzulpenaren bidez euskara beste edozein hizkuntzaren maila berean zegoela frogatu nahi zuten, eta bestetik, hautatutako testuaren gaiaren bidez, euskaldunei nolabaiteko heziketa ematen edo euskararen eta Euskal Herriaren aldeko sentimendua pizten ahalegintzen ziren.

2.2.2. XX. MENDEA

XX. mendean hasten dira agertzen helburu batez ere literarioa duten lehen itzulpenak. Horien artean, Toribio Alzaga donostiarrak egindako antzerki-

-itzulpenek aipamen berezia merezi dute, hari eta beste hainbat idazle eta itzul-tzailereri esker bihurtu baitzen Donostia “euskal teatro modernoaren sehaska” (Mendiguren 1995: 138). Antzerkigile eta zuzendari gisa zuen eskarmentuaz baliatuz, Pierre Loti idazle frantsesaren *Ramuntcho* eleberria euskarara itzuli edo moldatu zuen 1920an, eta 1926an, berriz, Shakespearearen *Macbeth* euskaratu zuen.

Garai bertsuan argitaratu ziren Orixek egindako itzulpen sonatuak. Autore honi aparteko atal bat eskainiko diegunez, berak egindako itzulpen literarioak aipatu baizik ez ditugu egingo hemen: *Don Quijoteren* IX. atala (1928), *Tormes'ko itsu-mutilla* (1929) eta Frédéric Mistral poeta proventzarraren *Mirèio* (1930).

1920ko hamarkadaren bukaeran eta 1930ekoaren hasieran argitaratutako itzulpen literario gehienak ipuin-bildumak izan ziren. Hor ditugu, adibidez, Jose Altunak euskaratutako *Oscar Wilderen Ipuñak* (1927) eta *Grimm anaien ipuñak* (1929), Alexandro Larrakoetxearen *Grimm anayen ipuñak* (1929) edo Gabriel Manterolaren *Schmidten Ipuintxoak* (1929). Ipuin-bilduma horiekin batera, bestelako ipuinak ere itzuli ziren urte haietan, hala nola Cervantesen *Agure kezkatia* (1930), Lino Akesolok euskaratua; Dickens-en *Eguarri abestia* (1931), Ander Arzelus “Luzear” donostiarrak itzulia; edo Giulio Cesare della Croce-k idatzi eta Bernardo Maria Garro Basterretxea “Otxolua” mundakarrak itzultako *Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldinen txaldankeri barregarriak* (1932). Esan daiteke batez ere haurrei heziketa emateko edo euskaraz zer irakurria eskaintzeko helburuz egin zirela itzulpen gehienak.

Gerra zibilak eragindako hausturaren ondoren, 1940ko hamarkadaren bukaeran eta batez ere 1950eko hamarkadan hasten dira agertzen berriro hainbat euskal itzulpen. Lehenengoetariko bat Jokin Zaitegiren *Ebangeline* (1945) dugu, Henry Wordsworth Longfellow idazle estatubatuarraren poema epikoaren prosazko itzulpena. Esanguratsua da Zaitegik itzulpenari jarri zion azpтитulu: *Atzerri, Euskelelri*.⁷² Kontuan hartzen badugu akadiarren deportazioa salatzen duen liburu horrek akadiarren berpizkunde kultural eta politikoan izan zuen eragina, pentsa liteke Zaitegik akadiarrak euskaldunekin (batez ere frankismo garaian Zaitegi bezala erbesteratu behar izan zutenekin) eta Akadia Euskal Herriarekin alderatzeko asmoz

⁷² Zaitegiren beraren olerkiekin batera hainbat itzulpen ere jasotzen dituen *Goldaketan* liburuak ere azpтитulu bera darama: *Goldaketan: atzerri, euskelelri* (1946).

egin zuela itzulpena. Nahiko argia da, zentzu horretan, itzulpenaren sarrean egiten duen eskaintza:

Guda-ekaitzak yota, Yaungoikoaren esku-begidunaren mendean, eguzkipeko bazterretan an-or-emenka barreiatutako euskeldun maiteei, biotzez (Zaitegi 1945: 5).

Leku- eta pertsona-izenak oro har errespetatzen baditu ere, deigarriak geratzen dira hainbat izenekin egiten dituen moldapenak; esanguratsuen, agian, istorioa hasten den herriarena da: jatorrizko bertso ingelesean “Grand-Pré” izen frantsesa duen herria “Larrazabal” bihurtzen da Zaitegiren itzulpenean, euskaldun irakurleei gertukoagoa egin dakien, ziurrenik.

Ebangeline ez da Zaitegik egindako itzulpen bakarra. Jadanik aipatu dugunez, klasikoen itzulpenean ere gogotsu saiatu zen, eta ahalegin horren fruitu dira *Sopokel'en antzerkiak* I (1946) eta II (1958), Euripidesen *Medeie* (1963an *Egan* aldizkarian argitaratua) eta Platonen obrak sei liburukitan (1975-1989), bai eta *Goldaketan* (1946) liburuan argitaraturiko Horazioren itzulpenak (*Epodoak*, VII; *Carmina*, I, 14; II, 3; II, 9; II, 10; II, 16).

Zaitegirekin batera, beste hainbat itzultzaile ere klasikoen itzulpenei lotu zitzaizkien. Horien artean ditugu jadanik aipatu dugun Ibinagabeitia —*Ovidiusen Maita-Bidea* (1952), Virgilioren *Unai-kantak* (1954) eta *Alor-kantak* (1965), eta argitaratu gabe geratutako beste hainbat itzulpen klasiko nahiz ez-klasiko: Lukrezioaren *Izadiak* (orrialde bat ezagutzen da) edota Jacinto Benaventeren *Abere indarra* eta *Gaitzetsia*, Jokin Zaitegirekin batera itzuliak—, Salbador Barandiaran —Homeroren *Iliasena* (1954)— Bingen Ametzaga —*Plini gaztearen idaziak* (1951), Eskiloren *Prometeu burdinetan* (1951) eta Zizeronen *Adiskidetasuna* (1952); bestelako itzulpen-lanen artean Shakespearearen *Hamlet. Danemark'eko Erregegaya* (1952), Juan Ramón Jiménez-en *Platero eta biok* (1953), Oscar Wilderen *Reading baitegiko leloa* (1954) eta Goetheren *Lur-miña* (1960)—, Santi Onaindia —*Horati'ren Odak* (1955), Virgilioren *Enearena*, Ibinagabeitiak euskaratutako Unai eta Alor-kantekin batera *Bergili'ren idazlanak osorik* (1966) izenburupean argitaratua, eta Homeroren *Odisea* (1985); bestelako itzulpen-lanen artean Rabindranath Tagoreren *Iru poema* (1963), Santa Teresaren *Onbidea* (1963) (Lino Akesolorekin batera) eta Danteren *Divina commedia* (1985)— eta Jon Gotzon (edo “Juan Anjel”) Etxebarria “Dirauket” —*Phedro'ren alegiak* (1965), *Agustin Deunaren eskutitzak* (1966), *Anakreon (greko-euskaraz)* (1987), *Quintus Horatius Flaccus. Olerkiak* (1988), *Plinio gaztearen eskuti-*

tzak (1989), *Katulo* (1989) *Sapho* (Olerkiak) (1989), *Politeia* (Platon) (1989), *Plinio Gaztea* (eskutitzak) (1989); bestelako itzulpenak: *Charles Perrault'en ipuiak* (1965), *Lope de Vega'ren Bakar-autuak* (1966), *Catalunya'ko olerkariak* (1967), *España'ko olerkariak euskeraz* (1969), *Prantzi'ko olerkariak* (1969), eta hainbat itzulpen erlijioso—.

Gorago aipatu dugun klasikoak sistematikoki itzultzeko programa horretaz aparte, bestelako literatura-itzulpenak ere ugaritzen joango dira apurka-apurka XX. mendearen bigarren erdian. Hona hemen aipagarrienak: Plazido Mujikaren *Noni eta Mani. Islandiar mutiko biren gertaldiak* (1952), Jon Svensson-en *Nonni und Manni*-ren itzulpena; Jon Etxaideren *Itxasoa laño dago* (1959), Pio Barojaren *Las inquietudes de Shanti Andia*-ren itzulpena; Anjel Goenagaren *Agurea ta itxasoa* (1963), Ernest Hemingway-ren *The Old Man and the Sea*-ren itzulpena; Luis Jauregi “Jautarkol”-en *Paskual Duarte'ren sendia* (1967), Camilo José Cela-ren *La Familia de Pascual Duarte*-ren itzulpena; Salvador Garmendiaren *Printze Txikia* (1970), Saint-Exupéry-ren *Le Petit Prince*-ren itzulpena; eta Bedita Larrakoetxeak egindako Shakespearearen antzerki-lan guztien itzulpenak (hasi 1957an *Euzko gogo*a aldizkarian plazaratutako *Macbeth*-etik, eta 1976an Kardaberaz bilduman argitaratutako *Shakespeare 6 – Odol-antzerkiak B arte*).

Giro horretan, aldaketa nabarmena ekarri zuten Gabriel Aresti idazle eta itzultzaileak eta 1969an sortu zuen Lur argitaletxearen inguruan bildutako idazle-belaunaldi berriak. Izan ere, “autorerik diferenteenen testuak euskaratu eta bi hamarkadatan zehar literatur itzulpengintza ereduak eta integral baten bultzalari izan zela aitortu beharra dago, aurreko itzultzaileengan nabari diren erresistentzia puristak gaindituz” (Mendiguren 1995: 149). Arestiri eta bere itzulpenei buruz, ordea, aurrerago hitz egingo dugu, Sarrionandiarengan eragin nabarmena izan zutela iruditzen zaigulako.

1970eko eta batez ere 1980ko hamarkadan, argitaletxeak legeztatu eta ugaritu ahala, eta ikastolen eta helduen euskalduntze-programen zabaltzeari erantzuteko, hainbat itzulpen sail sortzen dira, atzerriko literatura desberdinetako lanak euskaratzeko helburuz, besteak beste “Kimu” saila (Gero-Mensajero), “Tximista” saila (Hordago), “Itzul” saila (Elkar) eta “Auskalo” saila (Erein). Dena den, esan beharra dago helduei zuzendutako literatura euskaratu askorik ez dela argitaratzen 1980ko hamarkadaren bukaera aldera arte (aipatu berri dugun Gabriel Aresti eta bere inguruko itzultzaileen ahalegina alde batera utzita), eta horrexegatik suertatzen dela hain berritzailea, neurri handi batean, Joseba Sarrionandiaren itzulpen-lana, aurrerago ikusiko dugunez.

2.2.3. ALDIZKARIAK

Orain artean liburu gisa argitaratutako itzulpenetara mugatu dugu gure azterketa; izan ere, han-hemengo aldizkarietan plazaratutako itzulpen solte guztiak biltzen hasteak beste lan baterako adina lan emango liguke. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa iruditu zaigu batez ere frankismo garaian aldizkarietan argitaratutako itzulpenen aipamen bat egitea. Izan ere, *Egan*, *Euzko Gogo*a eta *Olerti* aldizkarietan bereziki, askotariko testuen itzulpenak argitaratu ziren 1940eko eta 1950eko hamarkadetan, baita geroago ere. Idazle askok, gainera, aldizkarietan baizik ez zituzten argitaratu beren itzulpenak, esate baterako hurrengo atalean aurkeztuko dugun Jon Mirandek: *Gernika*, *Egan*, *Euzko Gogo*a eta beste hainbat aldizkarietan makina bat ipuin eta poema itzuli argitaratu zituen, literatura eta hizkuntza desberdin askotakoak. Antzeko zerbait esan genezake Juan San Martini buruz ere, 1960ko hamarkadan euskaratu zituen hainbat egileren lanak *Olerti*, *Euzko Gogo*a, *Egan* eta beste hainbat aldizkarietan argitaratu baitzituen, “Otsalar” goitizenpean askotan.

Badirudi, gainera, aldizkarietan argitaratutako itzulpenetan liburu itzulietan baino irekitze handiagoa nabari dela testuen hautaketari dagokionez. Europako nahiz Ameriketako literatura “handietako” autore kanonikoez gain (John Keats, Johann Wolfgang von Goethe, Charles Baudelaire, Gustavo Adolfo Bécquer, Mark Twain...), beste idazle batzuen lanak ere hasten dira agertzen hainbat agerkaritan: Asiako literaturetakoak (Rabindranath Tagore indiarra, Omar Khayyam pertsiarra, *Tao Te Ching* anonimo txinatarra), latinoamerikar literaturetakoak (Vicente Huidobro txiletarra, Gabriel García Márquez kolonbiarra, Amado Nervo mexikarra), Europako literatura “txiki-takoak” (Frédéric Mistral proventzarra, Séamus Ó Mainnin irlandarra, Salvador Espriu katalana, Per Denez bretoia), autore ez hain ezagunak (Karel Toman txekiarra, Henrik Ibsen norvegiarra, Endre Ady hungariarra), garaikideagoak (Blas de Otero, Boris L. Pasternak, Dionisio Ridruejo, Bertolt Brecht, Bruce Marshall), emakumezkoak (Gabriela Mistral txiletarra, Rosalía de Castro galiziarra, Emily E. Dickinson eta Edna St. Vincent Millay estatubatuarra, Selma Lagerlöf suediarra) eta abar.

Itzulpen horiei begiratuta, badirudi aldizkarietan askatasun handiagoa hartzen zutela itzultzaileek kanonetik kanpoko autoreen lanak plazaratzeko. Askotan gertatzen zen itzultzailearen izena ez aipatzea edota ezizenez ematea, itzultzaileak bere itzulpenaren erantzukizuna hartu nahi ez balu bezala. Bestalde, esanguratsua da poesiaren nagusitasuna. Aurreko atalean ikusi dugunez, liburu gisa argitaratutako literatura-itzulpen gehienak genero narratiboari ze-

gozkion, eta jatorrian poema gisa idatzitako hainbat testu ere modu narrati-boan itzuli izan dira. Arrazoia, ziurrenik, itzulpen gehienek izan duten helburu nolabait “funtzional” hori dateke, xede literarioa bigarren mailan uzten duena. Zentzu horretan, badirudi aldizkarietan errazagoa zela helburu literario hutsez egindako poesia-itzulpenak argitaratzea, liburu osoak itzuli beharrean norberaren gustuko poema solteak euskaratu eta kaleratzeko aukera eskaintzen baitzuten.⁷³

2.3. HOGEIGARREN MENDEKO LAU ITZULTZAILE HANDI

Bigarren kapitulu honen hirugarren atalean XX. mendeko lau itzultzaile handiren lanak xeheki aztertuko ditugu, Sarrionandiaren mende berekoak izanik, Iurretako idazlearen itzulpengintzarekin zerikusirik ba ote duten aztertzeko.

2.3.1. NIKOLAS ORMAETXEA “ORIXE”

Nikolas Ormaetxea “Orixe”, euskal pizkundeko idazle garrantzitsuenetako bat ez ezik, itzultzaile gisa ere gorespen eta laudorio handiak jasotako euskaltzalea dugu. Bere obrari begiratu bat emanez gero,⁷⁴ berehala ohartuko gara itzulpenek berezko sorkuntza-lanek adinako lekua hartzen dutela:

Dena dela, ohargarri da Orixek itzulpenari eman dion tokia. Oro har, artikulu eta itzulpen txikiak kontatzeke, poesi eta prosa-liburuetan, zehazki, zazpi ditu sorkuntzazkoak eta beste zazpi itzultitakoak. Sorkuntzazkoak eta itzultitakoak orrialdeka zenbatuz gero, ordea, nabaria gertatzen da itzulpenen aldeko joa (Iztueta 1991a: 19).

Atal honetan, Orixeko idazlearen itzulpen garrantzitsuenak banan-banan aztertuko ditugu, eta itzultzaileak berak esandakoak ez ezik, bere garaiko nahiz bera hil ondorengo kritikariek plazaratutako iruzkinak ere bilduko ditugu,

⁷³ Espainiako aldizkarietan antzeko zerbait gertatu izan da (ikus Rubio 1976 eta Lanz 2007).

⁷⁴ Orixeri buruz egindako lanik oso eta mardulena, dudarik gabe, Paulo Iztuetak argitaratutako bost liburukiko bilduma dugu, 1991ean Eusko Jaurlaritzak argitaratua. Bigarren liburukian (Iztueta 1991b) biltzen dira Orixeren itzulpen gehienak.

Orixek itzulpenari ematen zion balioa, erabiltzen zituen itzulpen-irizpideak eta euskal itzulpenaren garapenari egin zion ekarpena xeheki deskribatzeko.

2.3.1.1. Euskaldun bipilak eta manchatar bizkorrak izan zuten burrukaldi lazgarriaren ondarra

Izenburu horrekin aurkeztu zuen Orixek Iruñeko Udalak 1928an antolaturiko literatura-sariketara Cervantesen *Don Quijote de la Mancha* obraren IX. atalaren itzulpena. Sariketan parte hartu zuten hamazazpi lanetatik bost izan ziren sarituak, horien artean lehena Orixerena.⁷⁵ Epaimahaiaren erabakiak biziki poztu zuen, noski, itzultzailea, baina ez bakarrik bere lana irabazle suertatu zelako, baizik eta batez ere huraxe izan zelako Euskal Herrian itzulpenei sarrera ematen zien lehen literatura-sariketa. Saria jaso eta berehala “Certamen y un cursillo. Enseñanzas” artikuluan (*Euzkadi*, 1928-07-17), Orixe oso pozik eta itxaropentsu ageri da, itzulpenek euskal literaturan aro berri bat irekiko duten uste sendoa baitu. Izan ere, euskal pizkundearen garai hartan, asko ziren euskal literatura euskaraz sortutako lanekin bakarrik osatu behar zela uste zutenak, kanpoko lanen itzulpenek eragin zezaketen “kutsadura” saihesteko. Hona hemen uste horren azalpena, Lizardik idatzitako artikuluko batean:

Creemos recordar que alguien manifestó por aquel entonces la opinión contraria, temeroso sin duda de que la práctica de la traducción ate con exceso a los adaptadores, encaminando el lenguaje por rumbos amanerados, influídos, pobres de casticismo y de espontaneidad (Lizardi, *Euzkadi*, 1929-07-26, *apud* Iztueta 1991e: 652).

Iritzi horien guztiz aurka zeuden bai Orixe, bai Lizardi, baita garai hartako beste zenbait itzultzaile ere. Hori dela eta, Orixeren itzulpen sarituak laudorioak besterik ez zituen jaso sariketaren ondoren euskal aldizkarietan agertu ziren kritiketan. Orixeren lana gehien goretsi zuena, beharbada, lehiaketa berean saritutako beste idazle bat izan zen, Lizardi. “Traductores de Cervantes” artikuluan, eredugarritzat jo zuen Orixeren itzulpena, itzulpena zenik ere ez baitzitzaion nabari:

Trátase de un trabajo de positivo mérito, más atento a interpretar el genio de la lengua que a copiar en detalle el modelo. Espontáneo, sobrio, fluido, expresivo,

⁷⁵ Orixeren itzulpena, baita lehiaketa hartan saritutako Lizardirena ere, RIEV aldizkarian argitaratu ziren 1929an, 20. zenbakian.

quizás a las veces lo supera suprimiendo hartas redundancias y alguna oscuridad (Lizardi, *Euzkadi*, 1928-07-20, *apud* Iztueta 1991e: 646).

Itzulpen honekin eta ondoren etorri ziren Lizardirena bezalako kritikekin, euskal itzulpenaren historia aro berri batean sartu zela esan daiteke, “itzulpenek hizkuntzaren zuzperraldian izan dezaketen garrantziari buruzko lehen gogarteak orduan ematen direlako” (Iztueta 1991e: 645). Gogoeta horien adibide onenetariko bat Lizardik urte berean idatzitako beste artikulua bat dugu: “Traducciones-Diccionarios” artikuluan, Lizardik euskara eta euskal literatura aberasteko tresna beharrezko gisa definitzen du itzulpengintza:

Es de un lado adiestramiento eficacísimo del escritor; forja donde pausada y sólidamente puédesse ir adaptando la dúctil masa del idioma nuestro a la varia y compleja superficie de la esfera presente de la expresión humana; es, de otro lado, medio llano relativamente de ir enriqueciendo con joyas de precio nuestro pobre acervo literario (Lizardi, *Euzkadi*, 1928-07-07, *apud* Iztueta 1991e: 647).

Orixe bera ere iritzi berekoa zen, zenbait hilabete geroago aldizkari berean argitaratu zuen “Orientaciones literarias” artikuluan adierazi zuenez:

Hay que asimilar lo bueno de fuera. No se puede alimentar uno, por decirlo así, del mismo organismo, con perjuicio de él. Consiguientemente, se ha hablado de las traducciones (Orixe, *Euzkadi*, 1928-12-16, *apud* Iztueta 1991e: 648-649).

Artikulu berean, Orixek lehenetsi beharreko itzulpen-irizpideaz dihardu, Zizeronek proposatutako itzulpen-eredua oinarri hartuta:

Cicerón opinaba que no debía de traducir precisamente, a no ser como ejercicio, y él nos dice que practicaba la lectura de los autores griegos y después se ejercitaba en trasladarlo a su manera al latín, hablándolo primero, con lo que nos dejó obras maestras. Es la idea recta de la traducción menos ceñida, pero del contenido cultural mejor asimilado (Orixe, *Euzkadi*, 1928-12-16, *apud* Iztueta 1991e: 649).

Hau da, Zizeronek bezala, Orixek uste du ez dela hitzez hitz itzuli behar; aitzitik, itzulgaiko testuan esaten dena ondo ulertu ondoren norberak bere moduan eta bere hizkuntzak eskaintzen dituen baliabideak erabiliz itzuli behar dela aldarrikatzen du. Horregatik joko du Orixe Xabier Mendiguren Bereziartuk, aurrerago ikusiko dugun bezala, euskal itzulpenaren historian zentzuzko itzulpenaren edo itzulpen librearen ordezkari nagusitzat.

2.3.1.2. *Tormes'ko itsu-mutilla*

Don Quijoteren itzulpena agertu eta hurrengo urtean plazaratu zuen Orixe bere bigarren itzulpen handia, *El lazarillo de Tormes* gaztelaniazko nobela pikareskoa euskaraz. Zeresan franko eman izan du itzulpen honek, batez ere Orixe itzulpen librearen irizpidea muturreraino eraman zuelako, kapitulu oso bat kendu eta berak asmatutako batekin ordezkatzearaino, bere kontzientzia moralak halakorik euskaratzea onartzen ez ziolako. Hautu hori honela justifikatzen du Orixe kapituluaren hasieran jarritako ohar batean:

Erdel jaubearen idazti jatorretik, jardun hau osoa kendu dot, eta neure buruz ordaindu, edonoren eskuetarako irudi etxatalako. Kendu dodaz ganera, esan zantar bat lehelengo jardunean, hamazortzi lerro hirugarrenean, eta bi koma-tarte laugarrenean.

Kritikuak begirapena zor ei deutoe jaubearen idazti jatorrari; nik ostera begirapena zor deusot neure buruari eta irakurle euskaldunari (Orixe 1984: 137).

Baina ez hori bakarrik; itzulpena argitalpen elebidun batean jatorrizkoaren ondoan agertzekoa zenez, eta berak asmatutako kapitulua gaztelaniazko jatorrizkoarekin bat ez zetorrenez, Orixe euskaraz idatzitakoa gaztelaniara itzuli zuen, eta jatorrizkoa balitz bezala eman. Gainera, bere horretan emateko baldarregiak iruditzen zitzaizkion hitz edo esapideak aldatzeko edota biguntzeko eskudantzia hartu zuen. Jokabide hori denek begi onez ikusi ez bazuten ere, itzulpen horri egindako kritika gehienak *Don Quijoteren* itzulpenari egingdakoak bezain baikorrak izan ziren. Horien artean gehien goraiatu zuena Lizardi izan zen berriz ere, *Euzkadi* aldizkarian argitaratutako “Tormes’ko itsu-mutilla” iruzkinean. Orixeren itzulpena goresteaz gainera, itzulpen on bat lortzeko kontuan hartu beharreko baldintzez jardun zuen, adibideak *Tormes’ko itsu-mutillatik* hartuta:

Toda versión al euskera de obra castellana, del castellano clásico sobre todo, debe, a nuestro juicio, dirigirse en términos generales por las normas que se observan en la que hoy nos ocupa, y que podríamos titular, más o menos propiamente, concisión, división e impresión (Lizardi, *Euzkadi*, 1929-07-17, *apud* Iztueta 1991e: 650).

Lehen araua, beraz, zehaztasuna da: itzulpenak zehatza izan behar du, hau da, itzulinguruka ibili gabe, esan beharrekoa zuzen eta zehatz eman behar du. Alegia, hitza ez, baizik eta hitzen esanahia edo zentzua itzuli behar da. Itzulpenaren bigarren araua zatiketa da: esaldi luze eta korapilatsuak zatitu egin behar

dira, esanahia garbi adierazteko. Hirugarren araua, berriz, inpresioa da, alegia, itzulpen librea: hitzez hitzeko itzulpena artifizial eta ilunegia suertatzen den kasuetan itzulpen askea erabiltzea komeni da.

Hiru arau horiek ezin hobeto deskribatzen dute Orixeren itzultzeko modua. *Tormes'ko itsu-mutilla* jatorrizkoarekin alderatuz gero, erraz antzematen da zenbaterainoko askatasuna hartzen zuen Orixek hainbat hitz eta esaldi itzultzeko. Angel Zelaietak prestatutako edizioan (Orixe 1984), oharretan ematen dira Orixek jatorrizkotik kendu zituen pasarteak, batzuetan luze samarrak. Bestalde, Kepa Iturriozek *Senezen* idatzitako artikulua batean, *Tormes'ko itsu-mutillak* jatorrizkoarekiko agertzen dituen egokitze edo moldaketan hainbat adibide ematen du, Orixeren itzultzeko modua nolabait kritikatzuz:

Orixek ordea, bere moralismoaren menpe jartzen du jatorrizkoari zor zaion errespetu hori eta gaizki ulertutako paternalismo batean erortzen da; gauzak kenduz, erantsiz, moldatuz (Iturrioz 1985: 107).

Orixeren itzulpenaren zehaztasun falta eta anbiguotasuna deitoratuz bukatzen du artikulua:

Idazlan guztiak, Orixeren printzipioz, ulergarriak izan behar dute, edozeinek ulertzekoak eta horretarako sarritan gehiegi erraztera darama, beste batzuetan egokitza; baina honela testua gaizki ulertzeko arriskuan jartzen du irakurlea, ez bait ditu gauzak zehatz esaten eta interpretazio gehiagora bultzatzen du (Iturrioz 1985: 113).

2.3.1.3. *Mireio*

Orixek itzultzeko modu libre horri eutsi zion bere hurrengo itzulpenean ere, Frédéric Mistral poeta proventzarraren *Mireio* poemaren prosazko euskal bertsioan. Horrela, Mistral erromantikoarengan gustatzen ez zitzaizkion hainbat apaindura soildu egin zituen Orixek klasikoak, itzulpenaren hitzaurrean aitortzen duenez:

Mistral-en sortzetik eun urtegarrenean emen duzu euskeraz gizon aipatu onen *Mireio* poema nagusia. Euskeratzea etzait beste munduko lana izan, baño baditu bere oztopoak, batez ere idaztankera berri-antza nasten dunean. «Loreak eta ugiñak eta eguzki-izpiak» apainkeri ordez ez ditu erabat utzi bere gizaldiko gizon onek; ez darabiltza, ordea, ugari. Nere ustezko geiegikeri bakar oriek euskerari ongi ez datozkiola ta, besteen iritzia beste, soildu egin ditut eskuarki. Gaiñera

berrikeri oriek itzik itz euskeraratzea lan gaitza baitzen, eta alperra, diodanez (Orixe 1990: 25).

Dena dela, ez dirudi soilketa horiek garaiko irakurle eta kritikariei gehiegi axola izan zitzaizkienik, itzulpenak kritika onak baizik ez baitzituen jaso. Hona hemen, Orixe hil ondorengo iruzkina izan arren, Andima Ibinagabeitiak Orixeren *Mireiori* buruz esan zuena:

MIREIO'ren gaia bete-betean zetorren “Orixe”ren ispirituarekin eta sinistu-ezin alako euskal-giroa ezarri zion bere itzulpenari. Iatorrean bezin pizkor ageri zaizkigu poema ortako lagunak. Zenbait kimatze egin zituen, iatorrarekin bekkaldetuta oartu naizenez; geienak, ordea, olerkari romantikuek ain maite zituten apaingeri ta bapikatzenak [...] (Ibinagabeitia 1965: 106).

Ibinagabeitiak, artikulu berean, Orixek itzulpen horretan egindako beste egokitzapen batez dihardu, hain zuzen ere landareen izenen egokitzapenez:

Beste oztoporik ere arkitu zuen itzul-bidean. Landareen izenen itzulketa zail xamarra izan oi da geienetan, lurralde guztietan landare berdiñak ernetzen ez diralako, eta erri-izkuntzetan maiz izenok ezin-esan bestean naasten ditutelako. Ortik beraz, izenok egoki aldatzeko oztopoa. “Orixe”k berak esan zidan, sarri, Euskalerrian ezagunenak diren landereekin ordezkatu zituela MIREIO'ko zenbait (Ibinagabeitia 1965: 106).

Orixeren hautua begi onez ikusten du Ibinagabeitiak:

Baña norbere izkuntzaren giroa obeki zaitzeko, nik uste zillegi zaiola itzul-tzailleari zenbait aldaketa egitea, batez ere iatorraren indar eta uinari zintzo eusten baldin badio (Ibinagabeitia 1965: 107).

Itzulpena argitaratu berritan egindako kritikak ere miresmen-oihuz eta gorespenez beteta daude. Hona hemen horietako batzuk: “No es la suya, ni una paráfrasis, ni una traducción literal. Sabe dar el sentido, el ritmo, del original pero con la mentalidad del escritor vasco” (L. [=Lauaxeta], “Una nueva obra de Orixe: *Mireio* euskeraz”, *Euzkadi*, 1930-12-30, *apud* Iztueta 1991e: 657). “Más que una mera traducción, parece una obra completamente vasca. En esto estriba, a mi humilde juicio, el mérito principal de este libro, cuyas páginas exhalan un perfume delicioso de poesía, de idealismo y de pureza” (Luis Jauregi, “*Mireio*, de Orixe, juzgado en Donostia”, *Euzkadi*, 1931-01-10, *apud* Iztueta 1991e: 657). “Como traductor es un traductor de verdadera talla. No traduce literalmente y palabra por palabra, [...] sino dándonos la

poesía con que resplandece el texto original, cosa que requiere ante todo, y como algo indispensable, al poeta, al literato artista” (Aita Estefania, “*Mireio*, de Orixe”, *Euzkadi*, 1931-04-14, *apud* Iztueta 1991e: 658). Argi ikusten da laudorio horietan itzulpen librearen abantailak gores ten zituztela garai hartako kritikariek.

Interesgarria da, dena den, Orixe poema hori itzultzer a bultzatu zuten arrazoiak aztertzea. Lehenago aipatu dugunez, Mistralek, euskararen antzeko egoeran zegoen hizkuntza gutxitu batean idatzitako literaturagatik, Nobel saria eskuratua zuen, eta horrek hizkuntza moderno en mailara jaso a zuen proventzera. Mireio, Proventzako ohitura eta tradizioak proventzeraz biltzen zituen poema epikoa, testu eredugarri bihurtu zen hainbat euskaltzalerentzat, besteak beste Aitzolentzat eta Lauaxetarentzat. Bi idazle horiek bultzatu zuten Orixe *Mireio* euskaratzera. Espainiako gerra zibilaren aurreko 1926-1936 hamarkadan sortutako Euskal Pizkundera izeneko mugimendu kulturalaren bultzatzaile garrantzitsuenetakoak izan ziren Aitzol eta Lauaxeta. Aitzolek “ondo aztertua zuen literaturak zer-nolako zeregina bete zuen Europa barruko hainbat gutxiengo nazionaletan —Finlandia, Belgika, Provenza, Katalunia— konzientzia nazionala, hizkuntza eta kultura berreskuratzeko ahaleginean” (Aldekoa 2008: 190). Errepublikara garai an hasi zen Aitzol zenbait egunkaritan kaleratutako artikulua politiko, kultural eta literarioetan bere ideiak zabaltzen, eta aztertu zituen herri minorizatuen prozesu guztietan hainbat ezaugarri errepikatzen zirela azpimarratu zuen, Lourdes Otaegik ezin hobeto laburbiltzen duen bezala:

[...] status linguistikoa, politikoa eta kulturala indartu baino lehenago, literaturak eta, bereziki, olerkigintzak betebehar eta eragin garrantzitsu zenbait izan zituela; alde batetik, hizkuntza lantzea eta egokitzea, hiztunek hizkuntza horren erabilera errazagoa eta eskuraerrazagoa aurki zezaten, eta bestalde, menpean eta txarretsirik zeuden hizkuntza horiek kultur mintzabide egokiak izan zitezkeela frogatzea.

Olerkigintzak, horiezaz gain, hirugarren helburu nagusi bat zuen: herri horretako maila sozial kulturadunak pizkunde-mugimendu horretara erakartzea (Otaegi 1983: 19).

Lauaxetak ere antzeko ideiak plazaratu zituen hainbat artikulutan, eta bera izan zen, Mistralen jaiotzaren mendeurrena gerturatzen ari zela ikusita, Orixeri *Mireio* poema epikoa euskaratzeko eskatu ziona. Dena den, itzulpena txalo eta gorespen artean jaso zen arren, eta aldeko kritikak baizik izan ez zituen arren, euskal pizkunderaren bultzatzaileak ez ziren horrekin konformatu.

Euskaldunek ere beren poema nazionala behar zutela aldarrikatzen hasi ziren, proventzarrek Mistralen *Mireio* edota finlandiarrek Lönnrot-en *Kalevala* izan zituzten bezala:

Virgili eta Omero'k euren olerkijetan jokuak edestu ba'ebezan, Mistral'ek be Zagi jauska, burni jaurtikia, pelota jokua, loki-dantza, arraunketak eta abar agertuten dauzkuz. Euzkoen jokuak noz orrelako edeslari bat aurkituko ete dabe (Lauaxeta 1930: 365).

Euskal poema nazionala nork idatziko zuen erabakitzea ez zen zaila izan. Nor egokiagorik, *Mireio* bezalako poema nazional bat euskaraz idazteko, Mistralen obra euskaratu zuen Orixek bera baino? Orixek 1931n ekin zion, *Mireio* argitaratu eta hurrengo urtean hain zuzen, "euskaldunen gogo benetakoa eta bizia irudikatu behar zuen" eta "elezaharrez, tradizioz eta folklorez ehundua eta Euskal Herriaren sentimendurik sakonenez blai" egon behar zuen *Euskaldunak* poema idazteari (Aldekoa 2008: 190). 1935erako bukatua zuen arren, ez zen 1950era arte argitaratu.

Mistralen *Mireio* eta Orixeren *Euskaldunak* poemaren arteko antzekotasunak aski nabarmenak dira, behin baino gehiagotan adierazi izan denez. Orixeren *Mireio*ren itzulpenaren 1990eko edizioaren hitzaurrean, Joan Otaegik bi poemaren arteko antzekotasun eta desberdintasunez dihardu.

Lehenik eta behin, bi poemaren hasierak aipatzen ditu, biak ere epopeia klasikoaren arauetara jarraitzen zaizkiola azpimarratuz: bai Mistralek, bai Orixek, beren poemaren helburuaren berri ematen dute sarrerako deian, Virgiliok *Eneidaren* hasieran edota Camões-ek *Os Lusíadas*en hasieran egiten duten bezalatsu. Poemaren helburua adieraztearekin batera, epopeia klasikoaren hasieran ohikoa da jainkoren bati dei edo erreguren bat egitea, eta halaxe egiten dute bai Mistralek (bere herriaren Jaunari), bai Orixek (Goi-arnasari), lehenago Homerok *Iliadan* eta *Odisean*, Virgiliok *Eneidan*, Dantek *Jainko Antzerkian* edota Camõesek *Os Lusíadas*en egin bezala (Otaegi 1990: 12-13).

Gaiaren aldetik ere, badira hainbat motibo *Mireio*ren eta *Euskaldunak*en nahiko modu antzekoan agertzen direnak. Joan Otaegik *Mireio* poemako bigarren kantua, "Osto-kima", eta *Euskaldunak* poemako hirugarrena, "Gaz-taiñaro", alderatzen ditu, bietan neska-mutil maiteminduen arteko elkarriketak ageri baitira, bietako bat zuhaitzean lanean dagoela bestea gerturatzen zaionean. Dena den, "tonuan, elkarriketan gertakizunetan, guztian garbiro sumatuko da bi poema hauen alde handia", batez ere bi poeten joera literarioen estilo desberdintasunagatik: "erromantikoa Mistral, Ormaetxea, XXga-

rren mendean bada ere, klasikoa”. Horrela, “Ormaetxeak, mundu orekatua eskaintzen digu. Mistralek, berriz, bi gaztetxo hauen maitasunaren beroa kantatzen duelarik, harreman bizi, elkarriketa alai, bizitza mugitua eskainiko digu” (Otaegi 1990: 14).

Antzeko zerbait gertatzen da *Mireioko* zazpigarren kantuaren eta *Euskaldunaken* bosgarrenaren artean, mutilak bere maitearen eskua eskatzen duenean. Bi poemetan, gizarte ohitura zaharrari jarraituz, mutil maiteminduak bere aitari eskatzen dio lehenik ezkontzeko baimena, eta ondoren, mutilaren aitak neskaren aitari egiten dio eskea. Hemen ere, “harreman jokoak berberak dira, baina zein tonu ezberdina!” (Otaegi 1990: 15). *Mireion* gertaera hauek drama kutsuz beteta dauden bitartean, “Ormaetxeak ez du dramarik, mundu orekatsua aurkeztu du” (Otaegi 1990: 16). Gogoraraz dezagun, puntu honetan, Orixek *Mireio* euskaratzean ere horrelako ukitu dramatikoak leundu zituela, “romantikuek ain maite zituten apainkeri ta bapikatzenak”, Ibinagabeitiaren hitzetan (Ibinagabeitia 1965: 106).

2.3.1.4. *Gizonaren eskubidegai guzietaz aitorkizuna*

Orixek Nazio Batuen Erakundearen giza eskubideen adierazpen unibertsala itzuli zuen 1949an, besteak beste 1950ean *Euzko Gogo*a aldizkariaren 3-4 zenbakian argitaratu zena. Jatorrizko testua eta Orixeren euskarazko itzulpena alderatuz gero, erraz antzematen da itzultzaileak pasarte asko laburtu zituela, Orixeren bertsoia jatorrizkoa baino dezente motzagoa baita. Testu literarioak itzuli ohi zituen askatasun berberaz euskaratu zuen adierazpen hau ere, literaturarekin zerikusirik ez zuen testua irizpide literario pertsonalen arabera itzuliz edo birsortuz. Itzulpen honetaz dihardu Joxe Azurmendik Orixeren ikuspegi linguistiko eta traduktologikoa kritikatzear:

Orixek giza eskubideen deklarazioa itzuli zuen, betiko bere eran itzuli, sail honetako hizkerak bestelakoa izan behar zuenaz ohartu gabe ausaz beste lege batzuk gobernatzen dutenaz, hizkera honek hitzen balioa neurtzeko bere neurriak dituenaz (arbitrarioak, nahi bada; ez hizkuntzaren “berezkoak”, behintzat). Daukaguna Orixeren deklarazio bat da, ez ONUrenik (Azurmendi 1976: 145).

Era berean, Xabier Mendiguren Bereziartuk zalantzan jartzen du Orixeren testu horri “itzulpen” deitzerik ote dagoen:

Gaztelaniazko pasarteak hogei lerro dituelarik, euskarapenak hamabi baizik ez ditu, beraz oso zentzu zabalean erabil daiteke “itzulpen” hitza testu laburbildu eta berrinterpretatua den euskarazko bihurpen hau izendatzerakoan (Mendiguren 1988: 38).

Azurmendik bezala, Mendigurenek ere testu literario eta pragmatikoen artean desberdintasunik egin ez izana leporatzen dio Orixeren itzulpen honi:

[...] nabarmen geratzen da Orixek ez diola tratamendu desberdinik ematen testu pragmatiko honi literarioagoak diren beste zenbait testuren aldean. Fun-tsean modu eta baliapide beretsuak erabiliz egindako itzulpena da (Mendiguren 1988: 38).

2.3.1.5. *Urte guziko meza-bezperak*

1950ean agertu zen Orixeren *Urte guziko meza-bezperak* liburua, urteko egun bakoitzari dagozkion eliza-otoitz eta meza santuak euskaraz biltzen zitu-
en “misala”. Itzulpenak arrakasta handia izan zuen, argitaratu berritan ager-
tu ziren hainbat kritikatan antzeman daitekeenez. Dagoeneko behin baino
gehiagotan aipatu dugun Orixeren miresle Ibinagabeitiak “iñoiz euskeraz sor-
tu eliz-libururik bikainena” bezala definitu zuen Orixeren itzulpena (Ibinaga-
beitia 1951b: 61), “beste izkuntzetara ere egin diran itzulpenen artean ederre-
netarikoa” zela esanez, eta Orixeren euskera, “zenbait ertzeri begiratuki, latera
bera baino atsegiñago” egin zaiola aitortuz (Ibinagabeitia 1951b: 62).

Itzultzaileak berak hitzaurrean aitortzen duenez, itzulpenean zailena ger-
tatu zaiona hizkuntza-ereduaren hautua izan da: “Mordolloegi ez egiteko ba-
tzuk; garbiegi ez jarduteko beste batzuk” (Orixe 1950: vii). Azkenean, euskal-
dun guztien nahia ahalik eta ondoen bete nahian, ez garbiegi eta ez
mordolloegi egiten saiatu omen zen. Ibinagabeitiaren ustetan, lortu zuen Ori-
xek euskaldun guztiak kontentatzea. Honela dio Orixe hil ondoren idatzitako
“«Orixe» Euskeratzalle” artikuluan: “«Orixe»ren euskal-goratarreak izkera
txukun, argi ta garbi batean egiñak daude, geienetan laterazkoa baiño barne-
rago sartzen den izkera apain eta guri batean” (Ibinagabeitia 1965: 109).

Itzultzeko moduari dagokionez, Ibinagabeitiak iritzi hau ematen du arti-
kulu berean: “Idazteuneko atalak errex bezin zintzo itzulita daude, otoitzak
zer esanik ere ez, latiniari orpoz-orpo iarrantuz izkuntza bietatik bat ere saldu
gabe. Errexa da esaten, ez ainbeste egiten” (Ibinagabeitia 1965: 109).

Ez da, ordea, iritzi berekoa Xabier Mendiguren Bereziartu, Orixeren euskarazko bertsioa aztertzean jatorrizkoaren eta itzulpenaren artean hainbat desberdintasun nabarmen aurkitzen baititu. “Orixeren itzulpenaz” diharduen artikulu batean, orexarrak arrazoi handiegirik gabe itzuli gabe utzi dituen hainbat pasarteren adibideak ematen dizkigu, eta kritika hau egiten dio itzulpenari:

Testu honetan euskaratu gabe geratu diren hainbat hitz itzultzeko euskarak ez du inolako zailtasunik, ez gaur eta ez Orixeren garaian, eta meza liburuan dagoen bezala itzulirik geratu bada, Orixek egin zuen interpretazio hautazkoarengatik bakarrik izan dela aitortu behar da. Badirudi, hitzaurrean dioenez, sinetsirik zegoela “inguruko erriek itzen burrunbarekin, soiñuarekin etsitzen dutela askotan” eta euskaldunok sasarte eta hostraila guztiak alde batera utzirik, alera edo mamira joaten garela (Mendiguren 1988: 39).

Giza eskubideen adierazpen unibertsalaren itzulpenarekin gertatzen den gauza bera daukagu hemen ere. Orixek testu on bat sortzea lortzen du, euskarra garbi eta jator batean, baina jatorrizkoarekin alderatuz gero alde handiak nabari dira:

Orixeren “esentzialismo” honek desegin egiten du literatur obrak jatorrizkoan duen indar adierazkor-estilistikoa, zenbaitetan kontzeptuak berak ere murriztuz eta soilduz. Jakina, alboan dagoen latina alde batera utziz gero eta euskarazkoa bere horretan irakurriz gero testu erraz, atsegin eta ulergarria gertatzen da, baina latinez irakurtzen duenak alde nabarmenak aurkitzen ditu bien artean (Mendiguren 1988: 39).

Dena den, Orixek eliz gorazarreen itzulpenean ageri duen “Virtuosismoa” aipatuz amaitzen du Mendigurenek meza bezperei buruzko bere kritika, gorazarreak jatorrizkoaren neurri berean itzulita daudela azpimarratuz: “Honetan ezagutu beharra dago Orixeren trebetasun aparta, eta beste testuetan ez bezala edukinaren ere aski baliakide ageri dira bi testu-motak” (Mendiguren 1988: 40). Koldo Mitxelena ere, Orixeren heriotzaren kariaz idatzitako artikulu batean, itzulpen horien bikaintasuna azpimarratzen du:

Aspaldidanik esana dago, eta itxuraz esana, esate baterako, ezte la iñor gauza izango gaurko izkuntza batean —eta gurea gaurko izkuntza berrietako bat da, zorionez— *Lauda, Sion, Salvatorem* zeazkiro emateko neurri berean. Ori, ordea, eta *Stabat mater* eta beste asko, *Urte guziko Meza-bezper*-etan ikus ditezke, latinez baiño laburrago esanak, guziok dakigunez. Eztut uste San Tomas'ek berak aserre-bide an-dirik izango zukeanik, aapaldirik geienetan beintzat (Mitxelena 1961: 159).

Ildo berari jarraitzen dio Juan Mari Lekuonak Orixeren gorazarreen itzulpenez diharduen artikuluko batean. Hainbat adibide erakutsi ondoren, hauxe da Orixeren itzulpenetan ikusten duen lehen meritua: “latinezko esaldiak euskarazko esaldi jatorretan emateko Orixek duen grazia” (Lekuona 1991: 388). Bigarren ondorioa hauxe da: “Itzulpena latinaren musika berarekin kantatzeko denez, zailtasun berria ezartzen zaio itzulpengintzari. Molde estura egokitu beharrak eramaten du Orixe euskararen esaldi labur, argi eta indartsuenak bilatzera” (Lekuona 1991: 388). Azkenik, jatorrizko testuarekiko desberdinak diren pasarte edo egiturei buruz, honako hau adierazten du: “Kantuak utziezinezkoa duen berezkotasunari amore emanez, zenbait prozedura sartzen ditu, jatorrizko testuan zuzen emanik ez daudenak, baina euskal testuari ederki dartzakionak, bizitasunaren amorez etorri ere” (Lekuona 1991: 389).

Itzultzaileak berak argi aitortzen ez badu ere, agerikoa da Aita Olabidek 1931n euskaratutako *Itun Berria* izan duela Orixek aurrean meza bezperetako hainbat pasarte itzultzean. Halaxe adierazten digu Andima Ibinagabeitiak Orixeren itzulpenari egindako iruzkinean:

Eresiak ere, era berean, otoitz, berrion-ki, bidalien-idazki eta abar, maisu eskuz itzulita daude, errex ta atsegin. Orixe’k argi aitatu ez arren, Olabide’ren itzulpenetaz maiz baliatu dala ageri da. “Nik ez dut oso baztatu Birgiña, baña geienetan bildurrik gabe erabili dut neskatxa, len ere ontzat emana baitago Eliz-baimena dun liburu eder baten”, dio itz-aurrean. Liburu eder ori Olabide’n Itun Berria duzute eta idazti orrez gainera beste ederragoa, Itun Zarra ere, ederki ezagutzen du Orixe’k. Berak esan ezpazigun ere, Olabide’n idaztiak erabiltzen oituta gauden ok, laister atzeman gentzakean aren ixuria zenbait irakurgai ta itzulgunetan. Orrek ez dizu ezertxotan Orixe’ren lan izugarria urritzen, ez noski. Gure aurretikoen lanak ez dituzu arbuigarri lagungarri baizik, eta ezin uka zenbait gaietan Olabide’k sasi arantzak oildu zizkigunik, ondorengoek bide erosoagotik genbiltzan (Ibinagabeitia 1951b: 63).

Orixek, izan ere, estimu handitan zeukan Aita Olabide, eta haren *Itun Berria* agertu zenean laudorioz betetako iruzkin eta kritikak plazaratu zituen; batetik, Olabideren itzulpena gorestekoa, eta, bestetik, itzulpenaren aurka agertu ziren hainbat ahotsi aurre egiteko. Orixek beso zabalik jaso zuen Olabideren *Itun Berria*, lehenik eta behin gaiaren aldetik berri pozgarria zelako:

Ez da goizegi. Esatea ere lotsa ba da; orain arte ez genezaken irakurri euskaldun katolikok Itun edo Testamentu Berria, Yainkoaren itza, gure izkuntza gaisoan. Lotsagarriago oraindik, euskeraz argitara azalduriko lenengo Itun Be-

rria protestante batek aterea da, ta katolikuak irakurtzea debekaturik dauka (Orixe 1931: 4).

Gaiaren aldetik ez ezik, formaren aldetik ere bikaina iruditu zitzaion Ori-xeri Olabideren *Itun Berria*, lehenago egindako Bibliaren itzulpenak baino askoz hobea:

Euskerara bikain itzulia dago. Orain arte egin ziran itzulpenen aldean lana ta nekea ugari du. Besteen lana urruñatu gabe, ta beti begien aurrean idukita beren yoera eman dio Aita Olabidek. Onetaz aurrekoak, oztoporen bat billatzen zute-nean, itzulinguru egiten zuten geienez, al zuten bezala, beti argalkiro, Yainkoaren itza adieraziz; onek ordea, oztopoari bekoz beko begiratzen dio, ez dio egika edo aldear egiten, eta bidea zuzen urratzen du oztopoari bizkor aldegiñez (Orixe 1931: 4).

Hain zuzen ere, itzulinguruak saihestu eta Jainkoaren hitza zuzen eta zehatz itzuli izana da Orixeren ustez itzulpen honen bertuterik handiena, urte berean idatzitako beste artikulu batean adierazten duen bezala: “De las traducciones que conocemos aun a otra lengua, ninguna tan fiel, tan ceñida, tan exacta, de tanta fuerza, como ésta” (Orixe, “*Itun Berria*. El Nuevo Testamen-to, en euskera”, *Euzkadi*, 1931-06-23, *apud* Iztueta 1991e: 661). Bere itzulpenak, ikusi dugunez, nahiko modu librean egiten zituen arren, Olabideren itzulpena bere fideltasun, zuzentasun eta zehaztasunagatik miresten du. Ori-xek berak ere itzuli zituen euskarara Lau Ebanjelioak, bera bizi zela argitaratu ez baziren ere (1967an kaleratutako *Itun Berria*n agertu ziren, Anizeto Zugas-tiren eta Jaime Kerexetaren beste itzulpen batzuekin batera).

2.3.1.6. *Agustiñ Gurenaren Aitorkizunak*

San Agustinen aitorkizunak 1956an itzuli zituen Orixek, Akizeko apezpi-ku Mathieu Jaunak hala eskatuta. Oro har, kritika onak jaso zituen itzulpen honek; baikorrenak, berriz ere, Orixeren miresle Ibinagabeitiaren ahotik:

Aurrerago aztartu ditugun itzulpenetan argi bezin garbi ikusita daukagu aren itzulketarako trebetasuna, baña oraingo itzulpen onetan lenagoko marra garaie-nak zearo erretzen ditu [...].

Agustin gurena berez da une askotan ulerkaitza: ala ere euskeraz eztu alako zailtasunik arkituko pizka bat iantzia den irakurleak (Ibinagabeitia 1965: 113).

Orixek berak ere bere itzulpen hoberentzat zeukan. Liburuaren hitzau-
rean, San Agustinen lana itzultzeak dakartzan oztopoak aipatzen ditu, baina
gutziz sinetsita dago euskara oztopo horiek guztiak gainditzeko gai dela:

Ba-dakigu Augustiñ bere izkuntza landara motel gelditzen dala ardura, edo-
zein izkuntzetan. Izkera bakoitza beure aldera azi ta garatu oi da.

Guk ezin eman dugu *passif* dalako ori bakan baizik; esaterako *quem amarem*,
a quo amarer: “nor nik maíta”, “nork ni maíta”.

Bestenaz, artzaien eta ikazkiñen mintzaera onek ez ote dio ondo-samarretik
iarraitzen, Latium’go nekazarieneri ez ezen-latin landuari ere? (Orixek 1956: 5-6).

Hizkuntza bakoitzaren nortasun bereziarekin justifikatzen du beste behin
ere Orixek itzultzeko hartzen duen askatasuna. Izan ere, itzulpena jatorrizkoa-
rekin alderatuz gero, aise ikusten da egokitzapen nahiko libreak egin dituela
sarri, eta oro har itzulpenean testua sinpletzeko joera zuela. Kritika hori egin
zion Koldo Mitxelena liburu kaleratu zen urte berean:

Itzulpena laburra eta trinkoa da, latiña baiño areago. Trinkoegia, ene ustez.
Laburtasunak merezi ote du orrenbeste opari? Argitasunak eta erraztasunak balio
dute, gutxienez, laburtasunak adiña. Au bezalako liburu batean, batez ere. Inñola-
ko oarrik eztaukalarik, aurkituko du irakurleak franko eragozpen izkuntzaren al-
detik oztopobiderik ezuela ere.

Era askotara ageri da labur-bear ori. Latiñezko zernai, bazter aal bazite-
kean, baztertua izan da. [...] Bereizgarri orietarik geienak ezagunak genituen
leendik ere Orixek’ rengan, baiña ezterizkiet besterik gabe onestekoak (Mitxelena
1956b: 143).

Xabier Mendiguren Bereziarturen kritika ere ildo beretik dator. “Orixeren
itzulpenaz” artikuluan, jatorrizkoa eta itzulpena alderatzean aurkitutako hain-
bat desberdintasun aipatzen ditu Orixeren itzulpen-irizpidea nolabait gaitzes-
teko:

Jatorrizkoak zehatz-mehatz esaldia errepikatzen duelarik, Orixek bere abile-
ziaren erakusketa egiten du inolako premiarik gabe. Ikuspuntu estilistikotik ne-
kez onar daiteke hautazkotasun hau (Mendiguren 1988: 40).

Dena den, argigarriak iruditzen zaizkigu Inñigo Ruiz Arzalluzen hitzak,
bera baita itzulpen hau sakonkien aztertu duena, eta, zati luzetxoa izan arren,
paragrafo osoa ekarriko dugu hona:

Orixeren ustez, *Aitorkizunak* bere liburu hoberena zen ‘euskarari begiratu-ta’: ez, agidanean, hizkuntzaren itxurari edo, nahiago bada, hizkuntzaren batasunari begira bertan egin zituen proposamen berriengatik, ezpada liburu hartan gauzatu zuelako, seguruenik, bere bizi guztian zehar kezkatu zuen euskara ‘landuaren’ eredu borobilena. Auzia ez zen ja —gerraurreko bere zenbait liburutan bezala— hizkuntzaren gaitasuna frogatzea, euskarak ‘noranahiko’ izan nahi hartan zein bidetatik ibili behar zuen erakustea baizik; Orixerentzat, giza-pentsamenduaren oinarrizko kontzeptuei dagozkien hitz nahitaez berriak euskararen baitako baliabideetatik abiatuta sortu behar ziren eta, horretarako, filosofia eta inguruko jakintza-alorrak jorratu behar ziren euskaraz beste ezer baino lehenago —grekoak, latinak eta alemanak egin zuten bezalaxe alegia, berak aipatu ohi zituen adibideak ematearren—. Honetanxe saiatu zen *Aitorkizunetan*: san Agustinek bere ‘latin landuan’ darabiltzan oinarrizko kontzeptu horiek ‘artzainen eta ikazkinen mintzaera honekin’ ematen, hain zuzen ere. Eta, honekin batera, euskaldunen eskuetan jartzen zuen haien heziketari begira ere izan litezkeen liburu hoberenetako bat; gogora, berriz ere, Mathieu apezpikuarentzako eskaintza: “gaurgoitik [gaurkotik A] au gelditu diteke, Biblia leku, euskal-libururik bikaiñena” (Ruiz 2003: 357).

2.3.1.7. *Salmutegia*

1952ko azaroan salmoen itzulpena bukatua zuen arren (Ruiz 2003: 44), Orixe hil ondoren argitaratu zen *Salmutegia*, 1967an; honek ere itzulpen-irizpide berdintsuari jarraitzen diola dirudi. Itzulpenaren hasieran, “Irakurleari” izeneko atalean, Orixe berak aurretik egindako salmoen beste euskal itzulpenak aipatzen ditu, Olabiderena tartean, eta haien aldean bere itzulpena errazago eta argiago dela adierazten du:

Eliz-Aitak oraindik eskubide ematen die apaizeri lengo irakurkerari iarrai nai ba’diote; baiñan apaiz gazteak au artuko dute ontzat. Orañ arteko itzulkizuna aski iluna zan toki askotan heber-itzeri atxikiegi zalako. Oraingoa argiago gelditzen da, Bibli-lkastetxe Nagusiari esker (Orixe 1967: xiii).

Itzultzeko moduari dagokionez, kontuan hartu behar da salmoak elizan kantatzeko moduan itzuli zituela Orixe, eta irizpide horri eustearren egin zituela hainbat aldaketa, “Irakurleari” atalean aitortzen duenez:

Nere itzulpen au korurako egiña dut. [...] Beraz, itz-erorkera berdiña (puntu) edo berdintsua (erdi-puntua) billatu dut al nun einen. Salmu bakoitzaren txatal bakoitzak asiera, erdia, amaiera ditu; zenbait aldiz biurgune edo *flexa* ere

bai. Neurtitz-txatalak bi zati izanik ere, bat luzeegia dalarik, biurgunea egin dut; beste noizbait iru zatiak laburtxo ditularik, bitara xurtu dut. Batere punturik edo erdi-punturik ez ditekeenean (millatetik batean) azken-txatala puntu gabe doa. Biurgunean ez du berez puntu izan bear; baiña nik naiez-bestera gertatu danean, ez dut itzuri (Orixe 1967: xiv).

Jatorrizko salmoak kantu gisa euskaratzeak sortzen zituen zailtasun horiek ezin hobeto gainditu zituen Orixek, Manuel Lekuonaren iritziz. Liburuari egin zion hitzaurrean, salmoak itzultzeko olerkari izan beharra dagoela gogorazten du, eta xede-hizkuntzaren gaitasunak ondo ezagutu behar direla. Orixek bi baldintza horiek bete-betea betetzen dituela baieztatzen du:

Íñor ez, ordea, gure Orixeko baño egokiagorik, Dabid'en Salmoak euskerara itzultzeko.

Salmoak, ezer bada-ta, olerkariro itzuliak bear dute izan. “Olerkariro”. Salmoak berak dauden neurri berean. [...]

Hebertarraren olerkiak, poesiak, paralelismoaz gañera ba' du beste “zer” bat ere, zer ezkutu bat, poesiari dagokiona, poesiaren muin-muñetan dagona [...]. Eta poesiaren muin ori ondo ukitzeko, prosistarik onena ere ez bait-da aski; ez du ori bere arlo. Olerkariaren gauzak itzultzeko, nor-berak olerkari bear du izan, bere barrunbean olerki-“oyartzun” gozoa senti-senti duana...

Beste zer bat ere bai: itzen ritmoa. [...] azentuetatikan sortzen zan gauza ezkutu bat. Eta azentu ori, iñork baño obeto —izkuntza bakoitzari dagokion eran— olerkari batek eman dezake.

“Izkuntza bakoitzari dagokion eran” diot: izkuntza bakoitzaren gaitasunak erabiliaz, alegia. Eta ortarako, guri dagokigunez, Euskeraren gaitasunak —euskal-olerki gaitasunak— ondo ezagutu bear. Gai ontan berriz —euskal-poetikaren gaitasunak jakiten ta ezagutzen, alegia— nor Orixeko añakorik gure artean? (Lekuona, *apud* Orixeko 1967: viii).

Itzulpen honetan, beraz, salmoen neurria, azentua eta erritmoa hartu ditu testuaren elementu nagusitzat, eta horiek baldintzatu dute itzulpena.

2.3.1.8. Orixeren beste hainbat itzulpen

Ez du merezi Orixeren itzulpen guztiak banan-banan aztertzen jarraitzea, gehienetan orain arte ikusi ditugun itzulpen-prozedura berberak erabiltzen baititu. Atal honetan, beraz, Orixek egindako gainerako itzulpenak aipatu

bestarik ez dugu egingo, eta hurrengo atalean, Orixeren itzulpengintzaz hainbat ondorio ateratzen ahaleginduko gara.

Aipatu ditugun itzulpenez gain, beraz, Orixek beste lan batzuk ere euskaratu zituen. Batetik, liburu osoak: Eusebio Nieremberg-en *Jainkozko biziera ta ongienera eldutzeko lasterbide bikaña* aszetika liburua, Benito Santuaren *Erregela*, monasterio beneditarretako bizimodua arautzen duena, eta *Officium parvum* otoitz-liburu argitaragabea, gehi Jacques Prévert-en *Leoi-kumea* haurrentzako liburuxka, Iñigo Ruizen arabera “seguruenik Telesforo Monzonen mandatua” (Ruiz, 2003: 37) eta *Mamutxak*, Baionan 1962an (Orixe 1961ean hil zen) argitaraturiko liburuxka. Bestetik, hainbat obraren zatiak: Virgilioren *Georgikoneko Zaldia* zatia (*Georg.* III, 75-88), Horazioren *Nekazaritza* (II. epodoa, *Beatus ille...* ospetsua), Joan Maragall-en *Bei itsua*, Jorge Manrique-ren hainbat koplak, Aurelio Prudentzioren *Cathemerinon* liburuko lehenengo kantuak (*Oilaritean* eta *Goizerokoa*), Joan Gurutzekoaren *Iainkorako maite-leloa*, *Gau illuna* eta *Maite-sugar bizi*, Fray Luis de León-en *Zeruko bizia* eta Baltasar Alcázar-en *Irri-afari...*

Itzulpen gehienetan, orain arte ikusi ditugun itzulpen-prozedurak darabiltza. Horrela, esate baterako, *Leoi-kumea* “itzulpen baiño egokitze bat dela esatea zuzenago litzake. Ez zitzaion prantsesari orpoz-orpo lotu, ori etzuen bere asmoa, baizik aur-euskera zoragarri batean egokitu zituen liburuak dakazkin irudi ederrak” (Ibinagabeitia 1965: 110). Orobat egin zuen *Mamutxak* haurrentzako liburuarekin ere. Euskal kutsu hori ematearren, beste batzuetan, hainbat zati itzuli gabe uzten zituen, Joan Maragallen “La vaca cega” euskaratzean egin bezala: “Eta zergatik etzuen “Orixe”k euskeratu neurtitz ori?”, galdetzen du Ibinagabeitiak, “Ez noski euskerara ezin zitekealako bere itzulpenari euskal-kutsu aundiagoa itxazteko baiño” (Ibinagabeitia 1965: 103). Egokitzapenak hainbestekoak ez diren kasuetan ere, nabarmena da Orixek atzerriko testuak euskal kutsuz janzteko zuen joera. Esate baterako, hara zer dioen Ibinagabeitiak Aurelio Prudentzioren *Oilaritean* eta *Goizerokoa* kantuen itzulpenaz: “Neurtitz auei ezarri zien euskal-iantzi ta kutsuak, «Orixe»ren aparteko trebetasuna aldarrikatzen digute: euskeraz amestuak izan dirala esan ditekete zati biok” (Ibinagabeitia 1965: 111).

Aipu berezia merezi du, hain zuzen, latinezko poemak euskarara itzulitzean Orixek hartu ohi zuen jarrerak. Iñigo Ruizek erakutsi zuen (Ruiz 1987a eta 1987c) Orixek jokabide desberdina izan zuela klasikoak (Virgilio, Horazio) itzultzean edo eliz kantuak euskaratzean, ziur aski bigarrenak kantatzeko zirelako. Hona zer dioen Virgilioren itzulpenaz:

Tras analizar el texto latino y el de Ormaechea, no se puede decir que cada elemento rítmico de la traducción venga condicionado por otro presente en el poema original. [...] la elección de unos determinados rasgos para reflejar los elementos rítmicos pertinentes del texto original es, hasta cierto punto, arbitraria. Prueba de ello es que, si leemos ambos textos, en modo alguno tendremos la sensación de que el segundo de ellos tiene ese metro precisamente porque traduce el primero. [...] Nada semejante sucede con las traducciones de los poemas medievales mencionados [*Ave maris stella*, *Stabat mater*, *Dies irae* eliz kantuez dihardu] (Ruiz 1987c: 350).

2.3.1.9. Orixeren itzulpengintzaz hainbat ondorio

Orixek euskaratu zituen lanen errepeaso orokor hau egin ondoren, agerian geratu da Orixeko idazleak “[i]tzulitako idazlanak oro klasikoak” direla, “eta horien artean, bereziki, erlijiosoak” (Iztueta 1991b: 13). Iztuetak Jesuiten Eskolan ikusten ditu hautaketa horren sustraiak:

Eskola honek, Eusko Pizkundea gorakada zetorren garaian, zehazki 1918-1936 epealdian zehar, garrantzi handia eman zion literatur obra klasikoak, bati-pat greko-latinoak, euskaratzeari. Arrazoia zen beste hizkuntza modernoek halaxe egin zutela eta euskarari ere, nazio-hizkuntza moderno bilakatzekotan, beste hainbeste egitea zegokiola. Uste zutenenez, Antzinateko literatura klasikoan aurkitzen zen euskararen normalkuntzarako iturririk sendoena (Iztueta 1991b: 13).

Orixeren ustez, izan ere, euskararen normalkuntza zen garai hartako euskaltzaleen zeregin nagusia, euskara jasoago bat sortzea, eta, aldi berean, euskara literatura ona egiteko gai zela frogatzea kontrakoa uste zutenen aurrean. “Hasiera batean”, azaltzen digu Iñigo Ruizek, “gera aurrean gutxi gorabehera, zeregin hau euskaraz sortzen ari den literaturak beteko duela uste du: hau da, euskal literatura batek berez ekarri behar lukeela hizkuntzaren jasotze bat” (Ruiz 2009: 806). Testuinguru horretan ulertu behar dira Orixeren lehen itzulpenak, *Don Quijote*, *Tormes'ko itsu-mutilla* edota *Mireio*. Honela laburbiltzen du Orixek berak, 1935ean Mokoroari bidalitako gutun batean, itzulpen haien benetako helburua:

[...] esas traducciones se hicieron con el único fin de autorizar la lengua vasca, aunque no fuesen entendidas por el pueblo-pueblo (que aunque secundariamente, hay que atender también a otros), y, ya que el euskera habría quizá de morir,

muriese habiendo expresado algo más que *kaikukeris* (Orixe, 1935-04-12, *apud* Ruiz 2009: 817).

Euskararen gaitasuna frogatu nahi horrek azalduko luke, era berean, Orixe bere lehen etapan idatzitako hainbat olerki gaztelaniazko itzulpenaz hornitu izana: besteak beste, *Euskaldunak* liburu osoaren gaztelaniazko itzulpena egin zuen.⁷⁶ Itzulpen guztiak prosaz egin zituen, eta ez da inolako ahalegin estetikorik nabari. Itzulpen horien helburu bi aipatzen ditu Joan Inaxio Goikoetxea “Gaztelu” idazle eta itzultzaileak, *Euskaldunak* poema Auñamendi Argitaletxeak argitaratu zuenean, 1972an, *Zeruko Argia* aldizkarian egin zioten elkarrizketa batean:

Gaztelaniaz ere egin da, lehen Orixe bere poema haundia gaztelaniaz itzulia zuelako eta, egina zegoen ezkerro, ez zeritzan egoki itzulpen hori gabe berriro argitaratzea. Bigarren, Orixeren idazmoldeak aski korapillo badu eta bere lana ez da guzientzat ulert-erraza. Eta azkenik, Orixeren poesilan bikain eta larria gehiago hedatu ahal dedin, bai euskaldun askoren artean, eta olerkari aundi bat izan dugula jakin dezaten (Goikoetxea 1972).

Orixe berak honela azaltzen dio Bingen Ametzagari, 1951. urtean bidalitako eskutitz batean, *Euskaldunak* gaztelaniara itzultzera bultzatu duen arrazoia:

Por consejo de Zaitegi estoy haciendo yo mismo la versión de Euskaldunak que él piensa presentar al agregado de la Embajada Norteamericana en Guatemala, por si pudiera parecerle útil su versión al inglés. Más quisiera yo que mi libro cayese en manos de un buen humanista inglés que conozca a fondo a los clásicos de la antigüedad; pero si ese señor o algún asesor suyo juzgase digna una versión inglesa, sería un buen paso” (Orixe, 1951-06-11ko gutuna, *apud* Irujo 2009b: 114).

Ikusten denez, beraz, euskal literatura zer egiteko gai zen frogatu nahi zuen ez soilik gaztelaniadunen aurrean, baizik eta baita irakurlego zabalago baten aurrean ere.

Gerraren ondoren, ordea, Orixe galdu egingo du hasiera batean literaturan jarritako itzaropena. Hemendik aurrera ez du sinetsiko euskal literaturak

⁷⁶ 1934an argitaratutako *Barne-muinetan* liburuko “Itzai zekena” poema ere itzuli zuen gaztelaniara, baina kasu horretan badirudi zentsura-kontuengatik egin zuela. 1930eko Olerri Eguneko lehiaketara aurkeztu zuen Orixe, eta, antza denez, lan guztiak gaztelaniazko itzulpenarekin aurkeztu behar izan ziren, zentsura-lanak errazteko.

euskara jaso bat lortzen lagun dezakeenik, eta are kaltegarria ere izan daitekeela pentsatuko du. Batetik, moralaren ikuspuntutik arriskutsua izan daitekeelako,⁷⁷ eta, bestetik, hizkuntzaren auzia literaturagileek ez baizik eta hizkuntza gaietan ondo jantzitakoek konpondu behar dutela uste duelako. Hori egin ezean, greziarrei gertatutakoa gertatuko zaie euskaldunei ere, literatura ona izan arren hizkuntza zikin kutsatu bat besterik ez dutela lortuko, alegia:

Zein errik Greziak baño literatura oberik? Ala ere gaurko *demotiké* izkera *erritarra* auntz-erdera zikin bat da, turkoz eta eslaboz nasia, ta Gramatika ederra yoan zaie ipurdiz gora. Ori bañoñ obe da latin illa (Orixe, *apud* Ruiz 2009: 811).

Hori dela eta, itzulpena bide ezin egokiagoa irudituko zaio Orixeri euskararen beraren baliabideak arriskurik gabe ustiatzeko, Iñigo Ruizek argi adierazten duen bezala:

Itzultzea, berriz, bide ezin egokiagoa izan daiteke, batetik, literaturan ezer esateko ez duten baina hizkuntzari buruzko proposamen interesgarriak badituzten euskalariak zerbait irakats diezaguten euskara hobeago horretako bidean eta, bestetik, idazten eta argitaratzen dena bideratu ahal izateko hizkuntzak orain gehien behar dituen hiztegi alorretatik (Ruiz 2009: 816-817).

Hori dela eta, modu sistematiko samarrean helduko dio Orixek testu erlijiosoak euskaratzeari; ez garai batean bezala, euskararen gaitasuna erakusteko, baizik eta euskararen beraren baliabideak ahalik eta gehien ustiatuz hizkuntza-maila jasoago bat eratzeko. Itzulpenenerako hautatu zituen testuak gehienetan erlijiosoak izatea honela arrazoitzen du Iñigo Ruizek:

Orixek nahi zituen euskal liburuek, beraz, bi helburu bete behar zituzten: hizkuntzaren aldetik, aurrera pauso bat izan behar zuten jasotasun eta jatortasun horietan; edukiaren aldetik —nolabait esateko—, gizakia kristautasunaren bide-tik hobetzeko balio behar zuten edo, behinik behin, ez zuten horretan oztopo izan behar. Liburu horiek itzulpenak izateak edo euskaldun batek bere kolkotik ateratakoak ez zien ezer ipintzen ez kentzen (Ruiz 2009: 818).

Orixeren itzulpengintzak, beraz, zerikusi gutxi dauka literaturarekin. Idazten edota itzultzen zituen testuen helburua ez zen batere literarioa; lotuago zegoen hezkuntzarekin eta moralarekin, batetik, eta euskara jaso baten lan-

⁷⁷ Puntu honetan, 2.1.11 atalean sartu dugun aipua gogoratzea besterik ez dago Orixek euskara “zikintzen” zuten literatura-lanez zer pentsatzen zuen ikusteko: “Euskera prantsesa aña zikindu bear ba’du, ez bedi gurean idazlerik” (Orixe 1954: 101).

ketarekin, bestetik. Orixerekin batera euskara jasoago bat lantzeko helburuz testu klasikoak itzultzeari ekin zion belaunaldiaz, honela dio Xabier Mendiguren Bereziartuk:

[...] itzultze-lan eskerga hau sarritan erronka edo desafio gisa egiten zen, hizkuntzarekin borrokan, obra hori irakurri edo antzestuko zuen irakurle edo aktorea kontutan gehiegi hartu gabe. Sarritan hizkuntz-fedezko eta abertzaletasuneko egintza bat areago zen, dastamen estetiko eta kulturalerako erditzen umotu baino, ez zentzu honetan geroko belaunaldien biziraumenerako zubigintza eta luberritze bezala areago hartu behar dira lan hauek, benetan irakurle izan zitezkeen garaikide banaka haiek beren mundu intelektuak eta kulturala ernaltzeko eta emankortzeko erabil zitzaizketen obra gisa baino (Mendiguren 1991: 530).

Itzulpen-irizpideari dagokionez, ikusi dugu nolako askatasuna hartu ohi zuen Orixek edozein testu mota euskaratzeko orduan. Zentzu horretan, bere aurreko euskal itzultzaileengandik dezente desberdintzen da. Izan ere, hainbat itzultzailek defendatu izan duten hitzez hitzezko itzulpena guztiz arbiatu eta Zizeronen hitzak bere eginez, zentzuzko itzulpenaren alde egiten du, bere aurreko beste zenbait euskal itzultzailek baino askoz ere modu muturrekoagoan. Hori dela eta, Xabier Mendiguren Bereziartuk “Orixeren itzulpengintza” (1991) izeneko artikuluan “zentzuzko itzulpenaren” eta “itzulpen librearen” artean kokatzen du Orixeren itzulpen-irizpidea, Aleksandre Ljudskanov bulgariarrak proposatutako itzulpen-joeren sailkapenean oinarrituta (Ljudskanov 1961: 19-26). Ljudskanovek lau itzulpen mota bereizten ditu itzulpen-praktikaren bilakaera historikoa deskribatzean: hitzez hitzekoa (*mot-à-mot*), zentzuzkoa (*de sens*), librea (*libre*) eta egokia (*adéquate*). Lehena Jainkoaren hitza bere horretan transmititu nahian egindako itzulpenetan ageri da. Bigarren itzulpen-joera, zentzuzkoa, literatura laikoaren itzulpenekin nagusitu zen; Zizeron idazle erromatarrak proposatutako itzulpen-irizpideetan oinarritzen da. Itzulpen librea XVI. eta XVII. mendeetan Frantzian sortu eta ondoren Europako beste herrialde batzuetara hedatu zen pentsamolde platonikoan oinarritzen da; “Les belles infidèles” gisa izendatu izan den joera honen helburua “ez zen jatorrizkoa bere hartan transmititzea baizik eta ederraren arau abstrakto batera hurbiltzea, denbora eta espazioaz at kontzebituriko zerbait bailitzen ederraren ideal hori” (Mendiguren 1991: 524). Azkenik, itzulpen egokia jatorrizko testuaren forma eta edukia bere horretan transmititu nahi dituen itzulpena genuke, “eta haxe da gaur egun mundu guztiko itzultzaileen artean hedatuena” (Mendiguren 1991: 524).

Mendigurenak bigarren eta hirugarren joeren artean kokatzen du Orixeren itzulpengintza, hots, zentzuzko itzulpenaren eta itzulpen librearen artean:

Orixeren itzulpenak ez du aurkitu alemaniar erromantikoen ondotik itzulpen teoria eta praktikak beretzat eskatzen duen inbariantzia, hots forma eta edukinaren arteko batasun etenezina, eta horregatik zentzuaren transmisio orokorrean eta ideal estetiko-moral platonizante eta absolutisten atzetik ibili da. Zentzu honetan, Euskal Herrian inguruko herrialdekin alderatuta atzeraturik zebilen kultur eta ideologi giro baten barruan funtzio historiko ezinbesteko bat burutzea egokitu izan zaio. Modernitatea ezaugarritzen duen itzulpen integral edo egoki baterako tarteko etapak diren zentzuzkoarena eta librearena erretzea [...] (Mendiguren 1991: 525).

Orixerengan bete-betean islatzen dira, beraz, itzulpenaren epistemologia modernoaren ezaugarri gehienak. Lehenik eta behin, forma eta edukia bereiztea posible dela defendatzen du, eta are beharrezko, jatorrizko testuaren mami edo funtsa (edukia) xede-hizkuntzaren baliabideen bidez emateko. Askotan, gainera, arbuiatu egiten du erdaren gehiegizko erretorika, eta euskaraz eduki berbera modu askoz ere sinpleagoan eman daitekeela erakutsi nahi du. Kontraesankorra gertatzen da, ordea, itzultzean hartutako askatasuna justifikatzeko edukiarekiko edota zentzuarekiko fideltasuna argudiatzea, gero beste hainbat kasutan (*Tormes'ko itsu-mutillaren* azken kapitulua genuke adibiderik garbiena) eduki edo mami hori bera garrantzitsuagotzat jotzen duen beste irizpide baten alde sakrifikatzen duenean (irakurle euskaldunari zor dion errespetuaren alde, kasu honetan). Itzulpenen inguruan egindako hainbat iruzkinean jatorrizkoarekiko fideltasuna edo zehaztasuna aipatu izan baditu ere, oro har argi geratu da Orixek xede-testua, xede-hizkuntza eta xede-irakurlea dituela gogoan bere itzulpenak egitean. Jatorrizko testuaren arrotz-kutsu oro ezabatzea beharrezkoa dela iruditzen zaio, itzulpenari euskaraz sortutako testu baten itxura eman arte. Ikusi dugu, gainera, Orixeren itzulpenei bere garaian egindako kritiketan gehien laudatzen zen alderdietako bat horixe zela, hain zuzen: testuak itzulpen-kutsurik batere ez izatea, alegia. Horrexegatik erabiltzen du Xabier Mendiguren Bereziartuk 1.3.2.2.6. atalean ikusi dugun Antoine Berman teoriarari frantsesak proposatutako itzulpen “etnozentriko” edo “hipertestualaren” kontzeptua Orixeren itzulpengintza deskribatzeko:

Itzulpen etnozentrikoa, A. Bermanek definitzen duenez bi abiaburutan oinarritzen da: itzulpena ez “sentitzeko” eran itzuli behar da obra arrotza eta itzulpenak autoreak hizkuntza hartzailean idatzi izan balu sortuko zukeen bezalako testu bat eskaini behar du (Mendiguren 1991: 526).

Bermanek guztiz deitoratzen du Mendebaldeko itzulpenaren historian nagusi izan den itzulpen mota hau, hainbat joera deformatzaileraren bidez jatorrizko testua guztiz desitxuratzen dutelako. Mendigurenek, aipatu artikuluan, *Agustiñ Gurenaren Aitorkizunak* hartzen du aztergai Bermanek deskribatutako joera deformatzaile horiek Orixerengan zein nabarmenak diren erakusteko: “Bermanek aipatzen dituen hamahiru joera deformatzaile horietako gehienak [...] neke handiegirik gabe aurki daitezke Orixeren itzulpenetan, lehen esan bezala, itzulpen joera etnozentriko eta hipertestual nabarmen baten barruan eginak direlarik” (Mendiguren 1991: 527).

Goiago esan dugun bezala, atal honetan XX. mendeko lau itzultzaile handi aztertu nahi izan ditugu, hirugarren kapituluaren aztertuko dugun Sarrionandiaren itzulpengintzarekin antzekotasun edo desberdintasunik ote duten ikusteko. Orixeren kasuan, argi geratzen da idazle orexarraren itzulpenek ez dutela zerikusi handirik Iurretako idazlearenekin alderatuz gero. Itzultzeko hautatutako testuetan ez ezik, itzulpen-irizpideetan eta itzulpengintza eta literatura ulertzeko moduan ere guztiz urrun daude bi idazle-itzultzaileak.

Lehenik eta behin, Orixek itzultitako testu gehienak erlijiosoak dira. Ez zituen literatura modernoetako obrak itzuli, euskaldunentzat eta euskararentzat kaltegarriak izan zitezkeela pentsatzen zuelako; are klasikoen artean ere, hautaketa-irizpidea garbia da: Horazio eta Virgilio bai, baina Ovidio inola ere ez (esanguratsua da Ovidioren *Ars amatoria* “lizunaren” itzulpena *Euzko Gogoa*n argitaratzen hasi zirenean Orixek agertu zuen haserrea, 2.1.11. atalean aipatu duguna). Euskaldun katoliko eta baserritarraren irudiarekin nolabait bat zetozen testuak itzultzen zituen, edo, behintzat, irudi hori hankaz gora jarriko ez zutenak. Gogoraz dezagun, gainera, Orixeren helburua ez zela inoiz literatura egitea izan, hizkuntza jasoago bat lantzea baizik. Sarrionandiaren itzulpenen artean, berriz, guztiz bestelako testuak aurkituko ditugu, literatura zahar eta ezagunetako obrak ez ezik, baita literatura modernoago eta ez hain ezagunetako beste hainbat poesia eta ipuin ere. Sarrionandiaren helburua, hain zuzen ere, literatura egitea baita, eta literatura bestelako helburu linguistiko nahiz nazionalistetatik askatzea.

Bestalde, Orixek formaren eta edukiaren arteko bereizketa garbia egiten du, eta bigarrenaren alde agertzen da behin eta berriz, jatorrizkoa ondo itzultzeko modurik justuena hori dela defendatuz. Sarrionandiak, aldiz, ikuspegi postmodernoago batetik, garbi aitortuko du forma eta edukia bereiztezinak direla, eta ezinezkoa dela bataren nahiz bestearen alde egitea.

Azkenik, bai Orixerengan, bai Sarrionandiarengan, itzulpena eta sor-kuntza originala oso nahasirik ageri dira askotan. “Orixeren itzulpenak az-tertuta, ez da garbiegi ageri non dagoen euskal testu bat idaztearen eta erde-razko testu baten itzultzearen arteko muga” (Mendiguren 1988: 40). Nahasketa hori, ordea, oso modu desberdinean gertatzen da bi itzultzaileen lanetan. Orixeren kasuan, beste hizkuntza batean idatzitako testuak xe-de-hizkuntzara eta -kulturrara egokituta daude, guztiz etxekotuta, itzulpenak direnik ere ez sumatzeko moduan askotan. Horren erakusgarri dira, besteak beste, latinezko metrika euskaraz itzultzean eginiko hautuak. Sarrionandia-ren kasuan alderantzizkoa gertatzen da. Idazle iurretarraren lanetan Euskal Herriko eta euskal literaturako erreferentziak kanpoko beste literaturetako irudi nahiz kontzeptuekin nahastuta ageri dira, eta itzulpenek ez dute asko-tan jatorrizkoaren arrotz-kutsu hori ezkututzen. Sarrionandiak bere itzulpen bildumetan tartekatu ohi dituen apokrifoeak, gainera, Orixek egin ohi due-naren guztiz kontrako zerbait erakusten digute: kanpokoa bertakotu beha-rrean, bertakoa (Sarrionandiak berak sortutakoa, alegia) kanpoko itxuraz mozorrotzen da (itzulitako poema bat dela esanez, ustezko autorearen izena eta hainbat erreferentzia emanez...).

2.3.2. SANTI ONAINDIA

Santi Onaindia karmeldar amorotoarra dugu XX. mendeko beste itzul-tzaile handi bat. Guztira 45 bat autoreren lanak euskaratu zituen, literatura-lanak ez ezik, baita bestelakoak ere: liturgikoak, historikoak, eskoletarako testuak eta abar. Lan honetan literaturaren itzulpena aztertzen ari garenez, albo batera utziko ditugu itzulpen ez-literario horiek, eta literatura-itzulpen-tera mugatuko gara, baina garrantzizkoa da jakitea euskarazko itzulpen prag-matikoak eginez dirua irabazi (ez dugu esan aberastu) ahal izan duen lehenen-go belaunaldikoa dela.

Itzulpen literarioek leku handia betetzen dute Santi Onaindiaren obra oparoan, Juan Mari Lekuonak gogorarazten digun bezala:

Sormenezko lanak bezain garrantzizkoak dira literaturaren aldetik Aita San-tiren itzulpenak, literatura unibertsaleko poesi ereduak euskaratzen eginiko la-nak. Bide hori askok eta askok landu badute ere, eredugarri izan da Onaindiaren jokamoldea, poesi kreakuntza baino azpimarragarriagoa gertatzeraino esango nuke nik (Lekuona 1996: 418).

Bakarrik liburu gisa argitaratu zituen itzulpenak kontuan hartuta, bederati autore biltzen dira, gehienbat klasikoak eta nagusiki poetak: Homero (*Odissea*, 1985), Virgilio (*Enearena* [in *Bergiliren idazlanak osorik*], 1966), Horazio (*Odak eta epodoak*, 1992), Dante Alighieri (*Jainko-Antzerkia*, 1985), Santa Teresa Jesusena (*On-Bidea*, 1963; *Egoitzak*, 1981 eta *Bizitzea*, 1989), San Joan Gurutzekoa (*Donibane Gurutz, olerkari*, 1990), Johann Wolfgang von Goethe (*Faust*, 1986), Santa Teresa Lisieuxkoa (*Arima baten istoria*, 1991), Pio Baroja (*Ipuñak*, 1987) eta Rabindranath Tagore (*Iru poema*, 1963). Liburu hauetan argitaratutako itzulpen edo itzulpen-zati asko aldizkarietan argitaratu zituen lehenik. Beste idazle askoren lanak, berriz, aldizkarietan bakarrik argitaratu zituen, batez ere berak zuzentzen zituen *Karmel* eta *Oleriti* aldizkarietan, baina baita *Karmengo Argian* eta beste zenbait aldizkaritan ere.

Azpmarratzekoa da, zinez, literaturari oro har eta bereziki itzulpengintzari dagokionez, Aita Onaindiak *Oleriti* aldizkarian egindako lana:

Eta esan dezagun, aldizkariak nortasun poetiko jakina ematen diola euskal olerkigintzaren zerbitzari, biztaile eta defendatzaile izan dugunari. Aldizkariak behartu du poesiaz gogoetak egitera, zenbakien osogari eta aberasgarri diren poemak sortzera edota itzultzera, eta, belaunaldi berriei beren lekua ukatu gabe, gerraurreko olerkarien babesle gertatzera, joera berriagoen aurrean lehenagokoaren testigantza eginez (Lekuona 1989: xi).

Oleriti aldizkaria, izan ere, euskal literatura eta bereziki poesia bultzatzeko sortu zuen Onaindiak 1959an, hasieran *Karmel* aldizkariaren gehigarri gisa. Beste nazioek ere, bai antzinakoek nahiz gaur egungoek, beren kultura berpizteko poesia erabili izan dutela ikusita, Euskal Herriak ere bide berari jarraitu behar ziola ikusten zuen, eta helburu horrekin sortu zuen *Oleriti* aldizkaria, lehen alearen aurkezpenan dioen bezala:

Nik ertiarri ekingo. Antxiña baten Dante'k Itali'n, geroago Puchkin'ek Errusi'n eta Mistral'ek Probentza'n, eta oraintsuago Rubió y Ors'ek Kataluiña'n, orrela egin eben, elertia jasoaz erri-izkuntza be marduldu ta beraganako gríña gorria biotz-barnetan sortu ta iraun-azo (Onaindia 1959a: 4).

Horrela, beraz, bere poema eta itzulpenak aldizkarian argitaratzeaz gain, beste hainbat euskal itzultzaile ere bultzatu zituen beren itzulpenak aldizkarian argitaratzera. Guztira itzultzaile kopuru handi samarra bildu zuen *Oleriti*-ren orrialdeetan, eta, horri esker, itzultze-lanari “erakundetze-maila” eman zion:

Etenik gabeko lana bultzatu zuen, “jatorrizko agiria” emanaz hainbat poesi ereduri gure artean, eta eginkizun bat markatuz, denen beharrea bizi ginen egun haietan (Lekuona 1996: 419).

Datozen lerroetan, Santi Onaindiak bai liburu gisa bai aldizkarietan argitaratutako lan literarioak sailkatuko ditugu lehenik, hautaketa hori zein helburu eta irizpideren arabera egin zuen ulertzeko; gero, hainbat ondorio eskainiko dugu Onaindiaren itzultzeko moduez eta literaturaz eta itzulpengintzaz zuen ikuspegiaz.

2.3.2.1. *Santi Onaindiak euskaratutako autoreak*

Santi Onaindiak euskaratutako autoreak hiru multzo nagusitan sailka genitzake. Batetik katoliko klasikoak, bestetik literatura unibertsaleko klasikoak eta azkenik literatura garaikideetako autore ezagunak.

2.3.2.1.1. *Katoliko klasikoak*

Katoliko klasikoen multzoan honako lan hauek sartuko genituzke: Santa Teresa Jesusenaren *On-Bidea*⁷⁸ (1963), *Egoitzak* (1981) eta *Bizitzea* (1989); Santa Teresa Lisieuxkoaren *Arima baten istoria* (1991) eta San Joan Gurutze-koaren poemak euskaraz biltzen dituen *Donibane Gurutz, olerkari* (1990) liburuak batetik, eta *Karmel* eta *Karmengo Argia* aldizkarietan argitaratu zituen “David’en eresiak” bestetik (*Karmel* 1959-1961; *Karmengo Argia* 1962). Santi Onaindia bera karmeldarra izanik, ez da harritzekoa poeta karmeldar ospetsuen lanak euskaratzeari ekin izana.

Onaindiaren itzulpenen artean lan erlijiosoek betetzen duten lekua hainbestekoa ez bada ere (Orixeren itzulpenekin alderatuta, esate baterako), amoroarraren erlijiozaletasunak izan du eraginik itzultzeko hautatutako lanetan. Onaindiak literatura desberdin askotako autoreak euskaratu bazituen ere, oso argi zeukan “edozer” euskaratzea ez zela komeni, ongi hautatutako gauzak baikik, lan on eta “garbi-aratzak”:

Idazleen artean, zeintzuk artu ete gengikez eredutzat? Itun zarra dogu: ez irakurri idazle asko, onak baiño. [...] idazten ikasteko, idazlari bakar batzuk

⁷⁸ Lino Akesolorekin batera itzulia.

irakurtzea, obe. Eta bakar orreitatik, zeintzuk lenen-lenen? Barru ta azal oso egiñak, garbi-aratz diranak, geure gustu ta joerakin ondoen datozenak (Onaindia 1960: 5).

Eta poetarik “garbi-aratzenak”, fraide karmeldarraren “gustu ta joerakin ondoen datozenak” santuak dira, eta santuen artean karmeldarren ordenakoak bereziki:

Santuak olerkari, poeta, dirala esan oi dogu; olerkari aundi ta guren. Jainko-iturrian edandako jarion gozoa liburueta aldatu oi dabe. Gurutzeko Joan eta Teresa deuna, or mistiku bi, olerkari eder. Joan deunaren olerki munduko izkuntza guztietara itzulia, jainkozkoa da osorik, fedez ezagutu, itxaropenez bizi ta maite-suaz ikutzen eban Jainko Jaunak eraginda sortua ta liburuetan txinpar-jarioka itxia. Ta etenbako artu-emona Jainkoaz euki eban Teresa deunak, naiz itzaskatuz idatzi naiz neurtuetan, goi-iturrietatik artua damosku beti. Poesia loratan dagon arima baten usaiña ba’da, Teresa deuna olerkari bikain dogu (Onaindia 1969a: 5).

2.3.2.1.2. *Literatura unibertsaleko klasikoak*

Onaindiaren itzulpenen beste multzo bat literatura unibertsaleko klasikoek osatzen dutela esan dugu. Multzo honetan klasiko greko-latindarrak sartuko genituzke batetik: Homeroren *Odisea* (1985), Virgilioren *Enearena* (1966) eta Horazioren *Odak eta epodoak* (1992) liburuak, eta *Olerti* aldizkarian 1966-1969 artean eta 1980-1984 artean “Igotz” ezizenpean argitaratutako “Esopo’ren ipuinak”. Bestetik, literatura modernoagoetako autore klasikoak genituzke, mundu guztian idazle kanonikotzat jo izan direnak: garrantzitsuenak Dante Alighieriren *Jainko-Antzerkia* (1985) eta Johann Wolfgang von Goetheren *Faust* (1986) lirateke, biak liburu gisa argitaratuak, eta aldizkarietan argitaratutako poemen artean Lope de Vega-ren “Zer da au?”, *Príncipe de Viana* aldizkariaren 120. zenbakian 1976an argitaratua, eta William Shakespeareren “Amalaukoak”, *Olerti* aldizkariaren 1959ko IV. zenbakian argitaratuak, “Igotz” ezizenpean.

Klasikoen itzulpenaz jardun dugu lehenago ere, Orixeren lanak aztertzean ez ezik, baita Zaitegi, Ibinagabeitia, Ametzaga eta beste hainbat itzultzaile aipatzean ere. Ekar ditzagun gurera Xabier Mendiguren Bereziarturen hitzak belaunaldi haren helburuak gogorarazteko:

[...] nolabait “belaunaldi” dei genezakeen honek bi amets eta helburu zituen buruan tinkatuak: euskararen gaitasunak erakustea eta lantzea eta horretarako mundu-literaturako obrarik behinenak euskaratzea. Honetan ez ziren bereziegiak, zeren historian zehar sentiberatasun eta kulturazaletasun apur baten jabe izan diren herri guztiek berdintsu jokatu baitute (Mendiguren 1991: 530).

Halaxe aldarrikatzen du Onaindiak berak behin eta berriz *Oleriti* aldizkarian idatzitako artikulu ugarietan. Honela dio *Oleritiren* asmoez diharduen artikulu batean:

Beraz, euskal liburu jatorrakaz gaiñera, munduan gora aundia duten idazlanak ere argitaratu nai ditu, euskeraz ipiñita. Gure literatura ere, orrela, beste izkuntza ta literaturen pareko egingo degu (Onaindia 1966a).

Onaindiak itzulitako klasikoen hitzaurreetan ere antzeko argudioak aurki daitezke. Goetheri buruz honako hau dio:

[...] olerkigintza, ezin ohea leenengotik azkenera: Goethe’k ez dau potik eginen, ez neurrian eta ez oskidetzan. Euskal poetok, ar au gogotan! [...] emen daukazu, irakurle, euskeraz munduko literaturako olerki-lanik bikaiñenetako bat (Onaindia 1986: 10).

Danteren *Jainko-Antzerkiaren* sarrera ere idazle italiarraren obra laudatuz hasten du:

Ertilari aundi bat daukagu aurrean [...]. Berau agertzen jaku mundu literaturaren txuntxurrean [...]. Batikano’ko *Enciclopedia Catolica*’k onela baiesten dau: «Katolikotasuneko olerkaririk aundiena» dala esatean. Mendez mende poeta aundiak ezagutu ditu munduak: Homero, Bergili, W. Goethe, Shakespeare... Danteren lana, *Jainko-antzerkia*, or daukagu betiereko oroigailu goieneko (Onaindia 1985a: 5).

Eta haren bizitzari eta obrari buruzko xehetasun batzuen ondoren, irakurle euskaldunari zuzentzen zaio: “Merezi eban gure izkuntzak poema gorenengo onen itzulpena. Irakurle, emen daukazu berau” (Onaindia 1985: 9). Eta hitz hauekin bukatzen du hitzaurrea:

Gure izkuntzak bear dau olako zerbaít, gure literatura apain, jori ta oparotsuago egin dagigun. Munduko literatura aundi guztietara itzulia da. Emen guk be euskeraz! (Onaindia 1985a: 10).

Bergili'ren idazlanak osorik liburuari egindako hitzaurrean, berriz, Virgiliok bere poesia erromatarrengan “ain eroria zegoen aberri-soiña berriztu ta indartzeko” idatzi zuela gogorarazten digu, “antziñako bakuntasun ederra ta oitura galduak lengo ildoetara ekar-azteko, izadi-edermiña ta nekazaritzarako lera boroboilla erritarreri erantsi azteko” (Onaindia 1966b: 10). Ondoren Orixerekin alderatzen du Virgilio: “Bere bizialdi guztian ere baserritar izan zitzaigun gogo ta soin: gure Orixe'ren antzera nunbait, bere lurrari lotua beti” (Onaindia 1966b: 12). Eta Virgilioren obra, berriz, Orixeren “Euskaldunak” poemarekin: “or daukagu Bergili bere argidu ta izamenari zegokion sailleko langille. Gure Orixe bere «Euskaldunak» idazten Orea'n bezela” (Onaindia 1966b: 13).

Homeroren *Odisearen* hitzaurrea ere herri bakoitzak bere kultura jasotzeko egiten dituen ahaleginak aipatuz hasten du, Euskal Herria Greziarekin alderatuz:

Aspalditik dabil mundua errien kultura, gogo-lantzea, jatorrizkoa ain zuzen be, aztertu, ikasi ta jagon nairik. Baita gu euskaldunok be. Edesti aurreko laino artean galdurik daukagu kultura ori, dakigunez. Gu be erri bat gara, ta geure kultura daukagu, ez ain urria be; berau jaso, sailkatu ta gorde naiez dagiguzan alegiñak, nai onenak nai arenak, txalogarri dira zalantza-malantza barik (Onaindia 1985b: 5).

Homeroren garaiko Greziari buruzko hainbat argibide eman ondoren, *Odiseak* eta *Iliasenak* hainbat hizkuntzatan izandako itzulpenak aipatzen ditu:

Aitaturiko poema biok, «Odisea»-k batez be, eragin bizia izan dabe munduko literaturan. [...] Garrantzizkoa zan egi-egiaz Homero'ren idaz-lana, merezi eban arrotz-izkuntzetara be biurtzea (Onaindia 1985b: 11).

Latinera, italierara, espainierara, frantsesera, ingelesera eta alemanera egindako itzulpenak aipatu ondoren, lan hau euskarara itzultzea ere ezinbestekoa dela defendatzen du, eta Gaizka Barandiaranek egindako *Iliasenaren* 1956ko euskal itzulpena gogorarazten du, Koldo Mitxelena kritika txarra egin bazion ere (ikusi Mitxelena 1956a), berari egokia iruditu zitzaioela esanez.

Onaindiak lau hitzaurre horietan idatzitakoak ikusita, beraz, argi gelditzen da zein irizpideren arabera hautatzen zituen euskarara itzultzeko liburuak: Europako literatura “handi” edo “prestigiotsuetan” klasikotzat jotzen diren obrak, Europa osoan kanoniko bihurtu direnak, Europako hizkuntza gehienetara itzuliak izan direnak, eta batez ere literatura, hizkuntza eta kultu-

ra horiek berpiztu, indartu edota garatzeko eragin nabarmena izan dutenak. Obra horiek euskarara itzulita, euskara beste hizkuntza nagusien mailara jaso nahi zuen Onaindiak, eta obra horiek euskal idazleek jarraitu beharreko eredu bezala aurkeztu, haietan inspiratuta euskaraz ere euskal hizkuntza, literatura eta kultura berpiztuko zuten lanak sor zitezten.

Itzultzea, bestalde, idazten ikasteko ere modu ezin hobea zen Onaindiaren iritziz, *Olertin* argitaratutako “Idatz-tankera” izeneko artikuluan argi adierazi zuenez:

Ele-itzulketara, zelan edo alan esan bear, edozein gorputz inarkun baizen sendo ta tinkoa da idazten ikasteko, batez be idazkera berezi-beiñena eskuratzeko. Asko dira erbeste-izkuntzetan orrelaxe jardunik idazlari punterengo egin diranak; gerkeratik edo lateratik olerkiak naiz itz-lauzko lanak itzuliaz, zenbatek igon daben ospearen mendi tontorreraño! Gure artean, Orixe ta Zaitegi, Larrakoetxea ta Ibinagabeitia batik-bat. Labur: errez, lau idazten ikasten da (Onaindia 1960: 6).

2.3.2.1.3. “Liburu garrantzitsu guztiak”

Orixe, Zaitegi, Larrakoetxea eta Ibinagabeitia aipatzen ditu Onaindiak euskal itzultzaile eredu bezala. Izan ere, itzultzaile-belaunaldi haren parte zen Onaindia ere, eta haiek bezala sinesten zuen klasikoak itzultzearen beharrean. Dena den, azpimarratzekoa da Onaindia beste itzultzaile haiengandik eta batez ere Orixerengandik bereizten duen puntu bat: Orixe eta bere garaiko itzultzaile gehienak klasiko “zaharrak” itzultzera mugatzen ziren, greko-latindarrak edota Europako Berpizkunde, Barroko nahiz Erromantizismo garaikoak batez ere; Onaindiak, berriz, horrelako lanak euskaratzeaz gain, ahalegin berezia egin zuen askotariko literaturetako (ez soilik Europako) autore garrantzitsuak, baita garaikideak ere, euskaratzeko. Sistematikoki ekin zion beste hizkuntzetako “liburu garrantzitsu guztiak” itzultzeari, autobiografia moduan idatzitako *Oroi-Txinpartak* liburuan argi aitortzen duen bezala:

Egia autortu, norbere izkuntza arrotz-literaturaz edertu, mardotu ta aberastu lurbirako izkuntza guztiak egiña da, antxiña-antxiñatik ain zuzen be. Zergaitik ez guk? Ez Biblia bakarrik [...], baita beste izkeretako liburu garrantzitsu guztiak be itzuli bear gendukez geure izkuntzara (Onaindia 1988: 449).

Horrela, klasiko zaharrak ez zik, “liburu garrantzitsu guztiak” euskaratzeko, autore garaikideen poemak euskaratu eta aldizkarietan argitaratzeari ekin

zion Onaindiak. Itzuli zituen autore garaikideen artean honako hauek genituzke: Mao Tse Tung (txinatarra); Rabindranath Tagore (bengaliarra); Evgueni Evtushenko, Boris Pasternak (errusiarrak); Karol Wojtila (poloniarra); Bertolt Brecht (alemaniarra); Rainer Maria Rilke (txekiarra); Giovanni Pascoli, Giovanni Papini (italiarrak); Saint-John Perse (frantziarra); Frédéric Mistral (proventzarra); Pío Baroja, Miguel Unamuno, Antonio Trueba (gaztelaniaz idazten zuten Euskal Herriko idazleak); Antonio Machado, Manuel Machado, Federico García Lorca, Gerardo Diego, José Selgas, José Agustín Goitisoló (espainiarrak); Jacint Verdaguer (katalana); Walt Whitman (estatu-batuarra); Amado Nervo (mexikarra); Miguel Angel Asturias (guatemalarra); Rubén Darío (nikaraguarra); Julio Flórez (kolonbiarra); Juana Ibarbourou (uruguitarra); Gabriela Mistral, Vicente Huidobro, Pablo Neruda (txiletarrak)...;⁷⁹ edo ez hain garaikideak, baina garrantzitsuak: José María Blanco White eta Gustavo Adolfo Bécquer (espainiarrak), José Asunción Silva (kolonbiarra), Percy Shelley (ingelesa)...

Autore eta literatura hain desberdin horien hautaketak desberdintzen du batez ere Santi Onaindia Orixe, Ibinagabeitia, Larrakoetxea nahiz garaiko beste itzultzaile batzuegandik. Mundu osoko literaturetako lanak itzuli nahi izan zituen euskarara, eta, zentzu horretan, aurrerago aztertuko ditugun Mirande, Aresti eta Sarrionandiaren itzulpenegintzara hurbiltzen da. Gogoraraz dezagun, gainera, Onaindia 1909an jaio eta 1997an hil zela, eta bere bizitzaren bukaerara arte itzultzen jarraitu zuela. Zentzu horretan, beraz, aldi berean Miranderen (1925-1972), Arestiren (1933-1975) eta Sarrionandiaren (1958-) garaikide izan zen. Dena den, bere asmoetan, hiru idazle horiengandik baino gertuago zegoen Orixerengandik (1888-1961) edo belaunaldi horretako beste itzultzaile batzuegandik (Jokin Zaitegi, Andima Ibinagabeitia, Benedita Larrakoetxea, Gaizka Barandiaran, Bingen Amezaga...). Mirandek, Arestik eta Sarrionandiak literatura txikietako egile ezezagunen obrak ere euskaratu zituzten, baina Onaindiak lehentasuna eman zion ospea eta arrakasta bereganatuak zituzten obrak itzultzeari; “beste izkeretako liburu garrantzitsuak” euskaratzea zuen xede, horixe baitzen bidea, haren ustez, euskara beste literaturen mailara jasotzeko. Asmo hori argi erakusten du Onaindiak Rabindranath Tagoreren hiru poemaren itzulpenekin argitaratu zuen liburuaren hitzaurrean:

Olerki, ipuin, antzerki, esaera ta abar, R. Tagore'k asko idatzi eban. Azal ta mamin, goi ta bee, idurikizun eta esan, bere kera apartekoz jantziak ditu. Guztie-

⁷⁹ Patxi Uribarrenek Santi Onaindiaren itzulpenen zerrenda xehea eskaintzen du *Jakin* aldizkarian argitaratutako artikulu batean (Uribarren 1989: 146, 155-156).

tan ederren eta ospatsuen, ostera, gaur eskintzen dautzuguzan irurok. [...] gaur mundu osoko izkuntzetan zabal dabiltzanak dozuz. India'n ez dau idekorik, eta Ingalaterra'n bertan be gitxi baiño ez dira a gaintzekorik. Egiazko barrizaille dogu, pizkunde barri baten buru; beronen poema asko ta asko erri kanta biurtu dira (Onaindia 1963a: 6).

“Gaur mundu osoko izkuntzetan zabal dabiltzan” poemak euskaratzen ditu, beraz, Onaindiak, ez nazioartean arrakastarik izan ez duten autore ezezagunen lanak.

2.3.2.2. *Itzulpengintzaren eta literaturaren ikuskera Santi Onaindiarengan*

Onaindiak autore-zerrenda askotariko eta zabala euskaratu zuen arren, eta horrek euskal itzulpenaren historian nolabaiteko aurrerapausoa ekarri zuen arren, fraide karmeldarrak itzulpengintzaren eta literaturaren inguruan zituen ideiak Orixeren belaunaldiko itzultzaileen iritziekin lotuta zeuden batez ere.

Liburu gisa argitaratu zituen itzulpenen hitzaurreetan, esate baterako, behin baino gehiagotan aipatzen ditu itzulpengintzaren diskurtso modernoan askotan errepikatzen diren hainbat ideia. Lehenik eta behin, itzulpenak beti zerbait galtzen duela aitortzen du, adibidez, Danteren *Jainko-Antzerkiaren* hitzaurrean:

Onek [jatorrizkoak], itzultzean, beti galtzen ei dau zerbait, ez ei da iñoiz be jator-jatorra. Orrela izango, ta orrela da, izan be; nik dagoneko iru klasiku itzuli ta argitartu ditut: Bergili'ren *Eneida*, Homero'ren *Odisea* ta Dante'ren *Jainko-Antzerkia*, ta egi-egia da iru lanok zerbait, edo geitxoago, galtzen dabela. [...] itzuli ezkeru, pentsamentuak, alegi, sinbolu ta abarri eutsita be, barruko gatz eta apaindura berarizko ori, or gelditzen da galduta. Izkuntza bakotzak bait dau grazi berezi-berezia (Onaindia 1985a: 9-10).

Itzulpenean beti zerbait galtzen delako ideia literaturaren ikuspegi platonikoarekin lotuta dago, teoriari buruzko atalean ikusi dugun bezala. Platonek zioenez, mundu honetako gauza oro egiazkoa, eternala eta perfektua den forma ideal baten irudikapena besterik ez da. Poetak mundu honetako irudikapen horietako bat poema batean bildu nahi duenean, beraz, dagoneko irudikapena den zerbait irudikatzen du hitzez, eta beraz egiazko formaren zati bat besterik ezin izango du harrapatu. Horixe bera gogorarazten digu Onaindiak: “Olerkariak ondo daki, idazterakoan, aurrean eskinka daukan lauki zoragarri

artatik pixkat besterik ezin duala paperera aldatu” (Onaindia 1968: 9). Izan ere, poema bakoitza, ikuspegi platoniko horren arabera, egiazko munduaren irudikapen partzial eta antzaldaturik da: “Amets bat legez da olerkia. Itz-joku lilluragarria. Egiazko mundua antz-aldatu ta irudizko bat sortu ta eratu oi da” (Onaindia 1969a: 9). Itzulpenean gertatzen dena ere antzera deskribatu ohi du itzulpenaren ikuspegi platoniko horrek: jatorrizko lanak egiazko formekin aldera daitekeen funts absolutu eta egiazko bat gordetzen du, eta itzulpenak, forma ideal horren irudikapen partzial eta antzaldaturik denez, ez du inoiz lortzen jatorrizkoaren egia osorik transmititzea.

Ikuspegi horren oinarrian mamiaren eta azalaren edota edukiaren eta formaren arteko bereizketa garbia genuke. Obra baten mamia edo edukia lan horrek gordetzen duen funts egiazkoa litzateke, eta azala edo forma, berriz, funts hori irudikatzen erabil daitezkeen modu desberdinetako bakoitza. Horrela, itzultzailearen egitekoa, ikuspegi horren arabera, originalaren mamia bere horretan transmititzea da, azala soilik aldatuz. Horixe bera adierazten digu Onaindiak berak *Odisearen* itzulpenaren hitzaurrean:

Nire itzulpen au, zelakoa ete? Irakurleak esango, berau bait da ebazlerik onena. Gaiak ba-dau bere zera; baita Homero’k gaiari ipiñi eutson gerkar-estalkiak be. Gaia, mamiña berbera da idazle biotan; estalkia ez. Arek griegoz idatzi eban, nik eus[keraz].⁸⁰ Gaia, mamiña berbera bai ete? Nik naia, prosaz, itz-lauz izanik be, orixe dozu. Naiak alan be, sarri, bide erdian geratzen (Onaindia 1985b: 13).

Santi Onaindia, bere itzulpenetan, mamia bere horretan mantendu eta azala modu errazean ematen ahalegintzen da beti, euskal irakurleek erraz ulertzeko moduko testua sortzeko beharrezko moldaketak eginez, euskal itzultzaileen artean maisutzat jotzen duen Orixeren bidetik (nahiz eta ez den Orixere bezain urrun joaten itzulpen librearen ideari jarraituz). Horrela, *Oroi-Txinpartak* liburuan, hauxe dio Santa Teresa Jesusenaren *On-Bidea* itzultzeko moduz:

Euskeratze-lan erreza ez dalarik, naiko «errez» egiña. Ots, naiko argi. Emakume bizkor aren irudimena nundik nora dabillen, erderaz bezain errez aditzeko eran. Ez bait-da euskeratze ontan, Teresa’ren erdera jatorra bat ere gogora ekarri bearrik —beste zenbaitetan gertatzen dan bezela—, egilleak esan naiduana ulertzeko. Irakurtzailearen adimenak ez du, emen, erderan zear igaro bearrik, Deu-

⁸⁰ Jatorrizkoan goiko lerro bat (*gaiari ipiñi eutson gerkar-estalkiak be. Gaia,*) kopia du berriz, baina errata nabarmena da eta *ope ingenii* erraz zuzentzekoa.

naren asmoa ta pentsamentua ezagutzeko. Zuzen-zuzen dijoa bere elburura. Eta ez da «meritu» makala (Onaindia 1988: 381-382).

Onaindiaren itzultzeko modua libre samartzat jo izan dute haren lana aztertu duten ikertzaile gehienek ere, zehaztasunari edota jatorrizkoarekiko leialtasunari baino garrantzi handiagoa ematen baitzion askotariko lanak ahal bezain ugari euskaratzeari.

Honela laburbiltzen digute Luis Baraizarrak eta Julen Urkizak Onaindiak euskara eta euskal kultura bultzatzeko hartutako konpromisoa:

Bere lanetan zehaztasunari baino areago euskara eta euskal kultura zabaltzeari begiratu zion; literatura unibertsaleko obrak euskaraz eskaintzeari (Baraizarra & Urkiza 1998: 12).

Aurrerago, antzeko arrazoiak ematen dituzte bi autoreek Onaindiaren itzultzeko era libre samarra azaltzeko ere:

Gerra ondoren, euskararen egoera latza ezagutu zuen eta harekiko maiteminez, aukera egin behar eta, altxor baliotsu bakanak soilik biltzera barik, era askotakoak eta ugari biltzera egin zuen. Hori dela eta, itzulpenetan batez ere, testu originalari leial-leial izateko araua ez zuela beti ongi bete egotzi diote. Erraztasun handia batzuetan kalterako izan liteke... Eskuz egindako zirriborrorik gabe, zuzenki makinaz idazteko ohitura zuen (Baraizarra & Urkiza 1998: 22).⁸¹

Patxi Uribarrenek ere Onaindiaren “tankera askea” aipatzen du haren itzulpen-lanak deskribatzean, baina liburu luzeak “lotuago eta eskasago” itzul-tzen dituela nabarmentzen du:

Azkenik ugari itzultzeaz gainera merezimenduzko itzulpen ederrak egin dituela aitortu behar, batez ere olerki, ipuin eta narrazio laburretan. Liburu luzeetan, oster, bere berezko tankera askearen aurkako delako edo, lotuago eta eskasago ageri zaigu, lanak, sarritan, irakurlearentzat astun bihurtzeraino. Agian, hori, S. Onaindia beti idazlan laburretan hobeki moldatu izan delako izan daiteke (Uribarren 1989: 156).

⁸¹ Zirriborrorik gabe lan egiteko ohiturari buruz honako azalpen hau ematen digu Onaindiak berak: “Aspaldidanik, oster, nik ez dot aurre-idatzirik egiten; jarraian idatzi ta kitu. Ekan-duak garabiltz. Galtzerdigiñan diarduan emakumak berez-berez diardu, ez orratzik ez aririk begiratu barik. Lugiñak jorratzerakoan atxurra darabil bakar-bakarrik eta begiak” (Onaindia 1988: 449).

Azkenik, Onaindiak literaturaren funtzioari buruz esandakoek ere literaturaren eta itzulpengintzaren ikuspegi modernoa gogorarazten digute, Mirandebaten edota Sarrionandia baten ikuskerarekin inolaz ere bat ez datorrena. Izan ere, Onaindiarentzat, literaturaren funtzioa “egiaren eta errealitatearen aztarranik izkutuenak agirian jartzen saiatzea da. Sakoneraño jeixtea edo saktasunari iraulka bat eman eta izkutukoak agertzea; bi hitzetan esateko, egiaren billatzea” (Onaindia 1969b: 130). Gorago aipatu dugun ikuspegi platonikoa garbi azaleratzen da berriz ere. Olerkariak bere inguruko errealitatea aztertu behar du, eta ikusten duenaren atzean (irudien munduaren atzean) ezkututzen den egia absolutua (ideien mundua) aurkitu, eta bere poemetan horren berri eman. Egia, horrela, ederrarekin eta onarekin lotuta dago: “egia, ona ta ederra, bada, iru aizta dira, ta ondore zuzenez alkarregandik banandu eziñak; olerkariak augaitik atsegin-bitsetan gure gogoari jarri ez bakarrik, egia zer dan erakutsi ta onbidez zuzenazoa bear gaitu” (Onaindia 1959c: 67-68). Onaindiak berak ere Platon eta Aristoteles aipatzen ditu olerkiaz diharduen beste artikulu batean, antzeko ideiak plazaratzeko:

Zer ete dogu olerkia? [...] Gai oni begira, Platon eta Aristotele'k be ba-ebazan euren kezkek eta zalantzak. Eta orrela geroko gizaldia zear. Antze ta arte guztiak ederra dabe, gauzakiak gure biotzari eragiteko daben gaitasuna daukie jomuga ta elburutzat. Zer ete da gaitasun ori, ederra dagian tasun eusgarri ori? Zer dan ez ba'dakigu be, iru adar ditula bai, esan gengike: erea, egia ta ona (Onaindia 1967: 121).

Edertasunaren izenean, beraz, olerkariak gai ederrak erabili behar ditu, (“olerkariaren oldozpen edo pentsamentuak ez beitez edozelanguak izan, jagi ta txukunak baiño”, Onaindia 1959c: 69; “ederra sortu ta zabaltzean, ezpei erabilli bere antzelanetan gai zantar, motz edo itxusirik”, Onaindia 1959b: 37), eta, horri lotuta, baita idazkera ederra ere (“ezta lizunki edo era nabarmenean aurkeztu be. Ederra ta egia berez ditugu aratz, txukun. Ez daigun, iñoiz be, araztasun ori lorrindu”, Onaindia 1959b: 38). Itzultzeko hautatu zituen autoreak ere, beraz, irizpide horren arabera aukeratu zituela ondoriozta dezakegu. Nekez aurkituko dugu Onaindiak euskaratutako lanen artean “gai zantar, motz edo itxusirik” jorratzen duen poemarik, edota modu lizunkoi edo nabarmenean idatzitakorik, Miranderen edota Sarrionandiaren itzulpenen artean aurki daitezkeen modukorik.

Onaindiaren gogoetak oso urrun daude, halaber, pixka bat aurrerago Mirandek edota Sarrionandiak plazaratuko dituzten hausnarketetatik. Sarrionandiak argi adieraziko du literaturaren (eta bide batez, itzulpenaren)

egitekoa ez dela errealitatearen berri ematea, hain zuzen ere eginkizun hori ezinezkoa delako, “Maiuskulazko Egiarik” ez dagoelako (Sarrionandia 1983a: 42). Era berean, Mirandek edota Sarrionandiak ozen aldarrikatuko dute literaturaren funtzioak bestelako helburu politiko, kultural edo nazionalistetatik libre egon behar duela. Onaindiak, ordea, olerkigintza eta herri-gintza elkarrekin lotuta ikusten ditu: “olerkia berez soziala degu” (Onaindia 1968: 11). Olerkariak bere erria gogoan edukiz idatzi behar duela azpimarratzen du:

[...] olerkariak, ez du beretzat bakarrik idatzi bear; bere erria batik bat izan bear du gogotan. Ez, ez daitela ederra artistentzat bakarrik izan. Olerkariak eta erriak, dirudi, kate estu leunez bat egiñik joan bear dutela aurrera. Erriaren bizi-penak —etxegintza, taillugintza, lugintza, dantza, ta abar— arte biurtzen ditu olerkariak. Artea, baiña, beti nainoz erriaren bizipen, erriak bizi duen zerbait, irudi bat, margo-lauki bat, auresku bat, gizarte istillu bat, naiz eresi bat... Erri-bizipena bebil dardar olerkariaren idazkortz azpian (Onaindia 1983).

Mirandek nahiz Sarrionandiak aldarrikatuko duten literaturaren autonomia, helburu bakartzat literatura bera duen literatura, gaitzetsi egingo du Onaindiak, Baudelaireren “ertia ertiarren” teoriari jarraituz idazten dutenak gutxietsiz. Izan ere, Onaindiaren iritziz, argi dago “olerkian, eta ertian erabat, «geiago» adierazi eziñeko bat ematen zaigula”, eta Baudelaireren gisan idazten dutenek ez dute “Bizi-indar bezela dagokion «geiago» hura” kontuan hartzen, eta beren poemak hutsik gelditzen dira, osatu gabe (Onaindia 1968: 9-10).

Onaindiak oso argi dauka zein ereduri jarraitu behar dioten euskal idazle eta itzultzaileek: itzultzaileen artean, Orixe, Zaitegi, Larrakoetxea eta Ibinaga-beitia hobesten ditu; idazleen artean, berriz, Orixe bera, Lizardi, Lauaxeta, Loramendi, Jautarkol, Emeterio Arrese eta Eusebio Erkiaga. Bide berriak urratzen hasiak diren idazleak, aldiz, errezeloz hartzen ditu Onaindiak, euskara oraindik horrelako berrikuntzetarako prest ez dagoela argudiatuz:

Bide barriak beti dira onak, alan be geiegikeri andi barik; gure izkuntza, oin-diño, geiegikeri askorako ez daukagu. Gabiltzan urte batzuetan bide lau ta erre-zez, olerki-sail ta mordo andia osotu arte, ta gero ekingo barruti zaillagoetatik (Onaindia 1963b: 146).

Artikulu berean, Nemesio Etxanizen hitzak bere eginez, Onaindiak Gabriel Arestiren ereduari jarraitzen dioten idazleak kritikatzten ditu:

Ona Etxaniz jaunak, azkenengo sariketarako aurkezturiko olerkariak irakurri ondoren bialdu eustan eritxia; olerkari trebe ta jakitun bizkor dogunez, aintzat artzeakoak ditugu bere esanak.

«Gure olerkariak —diño—, Aresti'ren joerak bultzata, gandu-olerki ta esan luzeak asmatzen dizkigute. Luzeak, oso gueneko olerkia izan ezik, irakurlea asper-tu egiten du. Iduri illunak, bat edo bestek, ez du olerkiaren indarra galtzen; baiña ugaltzen ba'dira, aspergarri ta illunegi egiten dute olerkia. Beste batzuek, bertso ohiak dakartzkigute, baiña noizean bein, belarri-min jartzen dira, bertsoaren etena aldatzen dutelako edo puntuaren gosez, esana beartuaz. Poemak, berez du bere luzera, baiña ortik kanpora, nik, naiago nuke, gure olerkariak, luzez baiño iduri biziz eta esan goiko olerkiz bikaiñoago agertuko ba'lira. Lizardi ta Orixe'ren urra-tsetan, ba-degu oraindik saillik asko jorratzeko. Beste erderatan ain zabalduak diran, poesi abstrakto oriek, gerorako lagatzea obe izango degu. Ezpaidegu orain-dik, erderak burutu duten biderik gaindu. Oraindik, agian, ez da gure ordua. Euskera elduago ta egosiago daitenean, orduan ba'diteke ordu ohea izatea olerki illunetarako ta ulerkaitzetarako. Ederrez joka ta irabazi dezagun, ez aldrebeske-riz.» (Onaindia 1963b: 146).

Ikusitakoak ikusita, eta Onaindiaren itzulpengintza atal honetan ikertu nahi ditugun beste autoreenekin alderatzeko, Santi Onaindia bi belaunaldiren arteko zubi gisa definienezake; Onaindia, Orixe baino hogeita bat urte gaz-teagoa eta Aresti baino hogeita lau urte zaharragoa (Mirande baino hamasei zaharragoa), bi munduren arteko zubia da. Hainbeste miresten zuen Orixe dago alde batean, haren garaiko itzultzaileen eta literaturaren eta itzulpengin-tzaren guztiz bestelako ideiak zituzten idazle gazteagoak bestean, eta Onaindia erdian. Orixerekin lotzen zuen ezaugarri nagusia, ziurrenik, literaturaren eta itzulpengintzaren ikuspegi klasiko eta idealizatua litzateke, neurri handi ba-tean biek jasotako heziketa erlijiosoak eragindakoa. Orixerengandik bereizten du, ordea, jatorri askotako (eta sarri bere garaiko) hainbat autoreren euskaraz-ko itzulpenekin euskal literatura aberasteko eta zabaltzeko egindako ahalegin ikaragarriak. Ahalegin horrek hurbilduko luke Onaindia hurrengo ataletan aztertuko ditugun Miranderen, Arestiren edota Sarrionandiaren itzulpengin-tzara, nahiz eta azken hauek literaturaren eta itzulpengintzaren inguruan zi-tuzten ideiak guztiz bestelako esparru batean kokatzen diren. Honela azaltzen du Juan Mari Lekuonak Onaindiaren eta belaunaldi berriaren arteko talka:

Aita Santik bide zaila aukeratu zuen helburutzat: gerraurreko estetika, tradi-ziozko ikuspegia eta bizkaieraren hautapena. Denborak bere onera etorri ahalean, beste taldetan kokatu ziren, beste proiektuetan, *Oleri*-ren erubean itzala aurkitu zuten gazteagoak (Lekuona 1996: 420).

Ikusiko dugunez, olerkigintzan ez ezik, itzulpengintzan ere arras desberdinak gertatzen dira Onaindiaren hausnarketa klasiko-modernoak, postmodernismoaren hainbat zantzu agertzen dituzten Miranderen, Arestiren edo Sarrionandiaren gogoetekin alderatuta.

2.3.3. JON MIRANDE

Aurreko ataletan ikusi dugu Orixek eta Santi Onaindiak literaturaren eta itzulpengintzaren inguruan zuten ikuspegia ez datorrela bat Joseba Sarrionandiaren ikusmoldearekin. Ezin dezakegu beste hainbeste esan, ordea, Jon Miranderi buruz. Mirandek eta Sarrionandiak garai eta testuinguru desberdinetan idatzi eta itzuli zuten arren, eta bakoitzaren literaturgintzak ezaugarri desberdinak dituen arren, Miranderengan jada ageri dira Sarrionandiaren itzulpengintzan azaleratzen den ikuspegiaren aurrekari izan daitezkeen zenbait zantzu. Lehenik eta behin, Mirandek euskaratzeko hautatutako idazleen zerrenda zabala eta askotarikoa da, bere aurreko euskal itzultzaile gehienena ez bezala. Bigarrenik, Mirandek itzultitako testuek eragin nabarmena izan dute berak sortutako lanetan, eta itzulpenaren eta sorkuntzaren arteko bereizketa ez da oso argia hainbat kasutan. Azkenik, Miranderen jokamoldeak itzulpenaren epistemologia postmoderno baten lehen aztarnak agertzen ditu. Atal honetan, Miranderen itzulpengintza ezaugarritzen duten hiru puntu horiek xehekiago aztertuko ditugu.

2.3.3.1. *Mirandek euskaratzeko hautatutako idazleak*

Bai Mirandek, bai Sarrionandiak, garai eta leku guztiz desberdinetako autoren lanak euskaratu dituzte. Askotariko estilo, korrante eta literaturak bereganatu eta euskaraz eman nahi izan dituzte, beren inguruko euskal literatura mugatua zertxobait zabaldu eta osatzeko helburuz.⁸² Sarrionandiak 1980ko hamarkadaren hasieran euskal literaturan nabaritzen zituen eskastasun eta itxitasuna aspaldi deitoratuak zituen Mirandek. 1950eko hamarkadaren hasierarako ohartua zen zuberotar idazlea euskal literaturaren antzutasun eta ga-beziaz, bere lagun Andima Ibinagabeitiari 1952an bidalitako gutun batean argi adierazten duenez: “Nik hizkuntza eli bat ikasi ditut, oso hizkuntzazale naiz-eta, bainan ez batetan ez bertzetan [...] ez dut gure euskaraz bezalako lit-

⁸² Ikusi hemen Mirandek euskaratutako lanen zerrenda: Jaka 2010: 295-296.

teratur-ezik ediren [...]” (Mirande 1999b: 129). Literatura-gabezia hori bete-
tzeko, Miranderen ustez, ez da nahikoa euskaraz idaztea; aitzitik, ezinbestekoa
da beste hizkuntzetan egindakoak irakurriz eta itzuliz gure literatura aberas-
tea. Horregatik ekin zion berak buru-belarri makina bat hizkuntza ikasteari.⁸³
Honela azaltzen du hautu hori, Ibinagabeitiari bidalitako beste eskutitz ba-
tean:

Zure guthunaren hitzetarik *lurralde hurrunetako hizkara hurrunago*-en ikas-
tean, gaizki dagidala dirudi... Nik ez dut uste. *Ikol* ez lizen euskal litteratur baten
emaztekotz, euskaraz idaztea ez da aski: asko ikasi beharrak gara, lehenik, Eus-
kaldunok (Mirande 1999b: 154).

Bere herrikide abertzaleak tradizionalismo eta folklorismo itsu batean
murgilduta ikusten zituen Mirandek, eta benetako literatura eta kultura
bat sortzeko nahitaezkoa iruditzen zitzaion kanpoko korronteetara ireki-
tzea. Kezka hori agertzen dio gutun berean Ibinagabeitiari: “Oroz lehen,
batarzuna behar dugu. Gero, egiazko kultur-lanak idatzi, *eta hortakotz “ba-
serritarrismu”* madarikatua *euskal idazkuntzatik bethikotz khendu*” (Miran-
de 1999b: 155, letra etzana jatorrizkoarena da). Euskal literaturaren “base-
rritarrismua” xeheago azaltzen du Ibinagabeitiari eskainitako elkarrizketa
batean:

Euskera gutxitan aintzat artu dute gure iakintsu eta eskolatuek, orregatik
gure erri-xeak ere euskera gai arruntenak erabiltzeko baizik ez dala uste du. Gure
olerkariak gainera, gutxi batzu kendu ezker, gai arruntenak besterik ez ditute
erabilli beren poemetan (Mirande, *apud* Ibinagabeitia 1953: 100).

Horregatik hartuko ditu begi onez hainbat idazlek atzerriko literatura-la-
nak itzultzeko egindako ahaleginak: “uste dut Shakespeare, Poe, Sofokles eta
Platon itzultzen duten euskaltzaleek lan beharrezko bat egiten dutela” (Miran-
de 1999a: 464). Norbert Tauer txekiar euskaltzaleari ere honela diotso 1953ko
gutun batean:

⁸³ Jon Miranderen lagun Txomin Peillenen testigantzari esker, badakigu Mirandek arrotz
hizkuntza mordoia ikasi eta erabili zituela, ama-hizkuntza zuen frantsesaz gain: “[...] mintzaira
asko zekien eta sakonki: Galles, Bretoin, Irlandako goideler, Alemanera, Gaztelera eta Euska-
ra; maila apalagoan, baina ondo, Ingelera, Neerlandera, Italiano, Danesa, hebraiara, Latina,
Grekoa; bertalde bere kabuz linguistika asko irakurria zen. Ikasi hizkuntza gehienak *mintza-
tzen* zituen. Gainera, hizkuntza zaharren zaletasuna zuen: Finiara, Hebraiara, Gotikoa, Irlande-
ra, Germanera zaharra.” (Peillen, *apud* Mirande 1976: 20).

Geroago ta beteago zaitugu euskera erabiltzean [...] ta ondo litzake txekerati-ko beste itzulpenik idatz zenezan gure euskal-aldizkarietarako. Euskal-kultura urria zabalduko da, beste errien kultur-ondasunak txertatzen zaizkiolarik (Mirande 1999b: 162).

Puntu honetan, gogoraraz dezagun zertan ziren euskal literatura eta bereziki euskal itzulpengintza 1950eko hamarkada hartan. Jadanik esan dugun bezala, XX. mendearen erdialdera arte, literatura-itzulpen gehienak nolabaiteko helburu funtzional batekin egiten ziren (moralak, euskararen apologia, euskara literarioaren lanketa...), eta horretarako, normalean, literatura kanonikoetako testu klasikoak hautatzen ziren itzulgai gisa, batez ere euskaldunen balore tradizionalak zalantzan jarriko ez zituztenak. Europako nahiz Ameriketako literatura-korrante berriak euskaratzeko, berriz, ez zegoen interes handirik, eta horrelako itzulpenik egitera ausartzen zenak ez zuen normalean bere lana argitaratuta ikusteko zorterik izaten, Jon Miranderi nahiz bere inguruko beste batzuei gertatu zitzaizen bezala. Adibide gisa, Mirandek itzulitako Nietzsche-ren testuak aipa litezke: Mirandek, 1950eko hamarkadaren hasierarako, euskaratuak zituen Nietzscheren Zarathustraren hainbat atal, baina ahaleginak eta bi egin arren ez zuen lortu itzulpen haiek euskal aldizkarietan argitaratzea. Honela dio Norbert Taueri 1955eko gutun batean: “Bertze idazlanik aunitz ba nituen asiak, ala nola Zarathustraren itzulpen bat, heraldikaren gaineko istudio bat, poema e.a. bainan ez ditut amaitzen eusko-aldizkarietara ez dituztelako noski argitaratuko” (Mirande 1999b: 198). Ibinagabeitiari ere antzera mintzo zaio: “Nietzsche-ren Zarathustra-ren itzulpenak noiz emanen dituzue *Euzko-Gogoa*-n? Hala nahi nuke. Zaitetik ez ba du pentsatzen idazle hori pornographu bat dela...” (Mirande 1999b: 203). Itzulpen haiek, azkenean, argitaratu gabe gelditu ziren. Beste aldizkari batzuetan ere antzeko arazoak izan zituen:

[...] Ibarrondok [...] telefonatu dit bulegora, [...] eta esan dit ene itzulpena ez duela *Elgar*-ren argitara eraziko, gaia euskalduna ez delakoan; gizon argitu horrentzat beraz, Shakespeare ez zen ingeles idazle, Coriolan-en protagonistak, adibidez, ingelandar ez baitziran... (Mirande 1999b: 321).

Maiz kexatzen zen Mirande euskaldunen askatasun intelektual ezaz: “Nire ustez, askatasun intelektual geiago nabari ez deno Euskaldunen artean, zail izango zaigu egiazko kultura baten sortzea” (Mirande 1999b: 190). “Euskaldun progresisten zentsura Francorena bera baino bortitzago dela dirudi” (Mirande 1999b: 390). Bere lagun Ibinagabeitiak euskaratutako Ovidioren *Maita-bidea* argitaratzeko izandako oztopoek ere biziki sumindu zuten:

Damugarri zait zure, *Maita-bidea* argitaratzekotan ez delako berria: urthe hauietako euskal-ianik baliosenak izanen zen nabaski —zurikeriarik gabe diotsut eta holako arrotz lan-nagosi euskararatuen beharrea dago euskal-idazkuntza. Zoritxarrez, izpiritua hertsiegi dute haboroenek horien ulhertzekotz eta nahiago dituzte haurkeria baten publikatu. Nehoiz irakurri dudana litteraturarik ikolena da gurea (Mirande 1999b: 196).

Mirande kexu zen, euskaraz argitaratzen zen oro programa politiko itxi bati jarraituz hautatzen zelako. Euskaldun baserritar fededunaren balore tradizionalekin bat zetozen testuak soilik ziren onargarriak euskal intelektuaren artean. Mirandek Txomin Peillenekin batera argitaratzen zuen *Igela* aldizkari heterodoxoaren lehen zenbakian, salaketa garratz hau kaleratu zuten bi idazleek:

Le puritanisme et la fausse gravité des basques censurent, mieux ou plus que les gouvernements, les fruits trop pimentés de la littérature écrite (Docteur Etchepare, Axular) expurgent la littérature orale (cancioneros), afin que les étrangers n'aient pas de nous une image différente de celle du basque honnête, travailleur, fier etc. Les tabous et fanatismes de droite et de gauche ont une grande force chez nous (*Igela* 1979: 37).

Horrexegatik, euskal aldizkariak ez zituzten euskaldunen irudi tradizional eta estereotipatu horrekin bat ez zetozen testuak argitaratu nahi izaten, eta orobat gertatzen zen itzulpenekin. Mirandek hertsiegi zeritzon literatura eta itzulpengintza militantzia politiko baten mugen barruan atxikitzeari, eta ozen aldarrikatu nahi izan zuen literaturak funtzio politiko orotatik libre egon behar zuela.

Sarrionandiak eta Pott bandak 1980ko hamarkadan aldarrikatuko zuten literaturaren autonomiaren beharra aspaldi eskatua eta praktikatua zuen Mirandek, Antonio Arruek 1960ko hamarkadarako ongi ulertu zuen bezala:

Mirande es ante todo enemigo de la poesía y en general de la literatura llamada en nuestros días «comprometida». Aun recientemente nos escribía diciendo que el poeta no debe ser en modo alguno un «engagé». Por lo demás, entiende que el poeta debe huir tanto de la predicación como de lo social, y procurar el cultivo de la poesía estrictamente pura (Arrue 1963-1964: 186).

Mirandek aldarrikatutako poesiaren eta literaturaren autonomiaren ideia, ordea, inork gutxi bereganatuko zuen euskal literaturaren alor guztiak militantzia eta konpromiso politikoz ziprztinduta zeuden 1950eko eta 1960ko

hamarkada haietan. Mirandek poesia eta politika bereiztearen beharraz idatzi zituen hainbat hausnarketa, izan ere, ez zituen argitaraturik ikusi ahal izan. Ondoko pasarte hau, esaterako, 1951rako prestatuta zeukan poesia-antologia baterako hitzaurre gisa idatzi zuen; zoritxarrez, ordea, poesia-antologia hura ez zen 1984 arte argitaratu. Interesgarria da hitzaurre horretan Mirandek herri-gintzaz eta poesiagintzaz dioena irakurtzea:

Daukat Euskera ta Euskadi gaizkatzea bere lehen io-muga ukhan behar lu-keela Euskalheritarr iathor orok; ene aldetik, io-muga, horren irixtekozt, guduka guztietara gerthu nago (gudukiderik non, ordea?) bainan, neurrrhizketan dihardudalarik, bertzerik dut gogoan: oroz lehen nihauren eta gogaide bakhan batzuen atseginerako idatzi ditut ene poemak —hots— «for the happy few». Aithorr dut poeta on batek, den pantheista ala papista, ez dakharrkeola herriari... pelotari on batek baino onura gehiagorik. Hain zuzen ere, ene neurrrhitz ok ez ditut onurarako eginak, solhazerako baino; zilhegi baitzaiku noizik behin io-muga gurenak aldebat utzita solhazik nolaere bait bilhatzea (Mirande 1984: 19).

Zilegi bekigu hemen Joseba Sarrionandiaren aipu bat tartekatzea, hiru bat hamarkada geroago idatzi arren, Mirandek aldarrikatutakoaren hariari zuzen-zuzenean jarraitzen diola iruditzen baitzaigu.

Politika, etika eta idazkera alor desberdinak dira. Poetari, politikaren alo-rean, gizarteko partaide denez, zapalketen aurkako eta askatasunaren aldeko konpromisoa dagokio. Euskal poetak, euskal tornulariak edo euskal futbolistak bezala, Euskal Herriaren askatasunaren alde ekiteko eginbidea izango du, eta gizarte egitura zanpatzaileen aurka, baina ez poeta delako ez eta Parnasoko alturetatik (Sarrionandia 2006a: 172).

Agerikoa da, beraz, Mirandek Sarrionandiarengan izan zuen eragina. Aurreragoko lan batean ezin hobeto azaltzen du Sarrionandiak Jon Mirandek defendatutako literaturaren autonomia, biek miresten zuten Edgar Allan Poe idazle iparramerikarraren iritzien bidetik:

Edgar A. Poeren garaian Jon Miranderen Euskal Herrian bezala obra literarioaren balio sinestarekin eta mezu moralekin loturik heltzen zen. Bata zein bestea, sermoi moralen aurka zeudenez, beren garaiko literaturaren kontrako espaloian jarri ziren. Areago, bai Edgar A. Poek bai Jon Mirandek, arte obraren xedea *egia* ezik, atsegina dela esan zuten. Poesia eta egia, poesia eta morala ez datoz bat —dio Edgar A. Poek bere *The Poetic Principle* entseguan. Eta Jon Mirandek euskal irakurleak «dasta eta goza lizantzat» besterik ez du idazten (Sarrionandia 1989: 130-131).

Miranderentzat, beraz, literaturaren helburua ez da mezu politiko edo moral bat zabaltzea,⁸⁴ ezta egia kontatzea ere, plazera, gozamina edo atsegina eragitea baizik. Hori dela eta, gustuko zituen autoreak irakurri eta itzultzen zituen, eta ez euskal literaturarentzat “komenigarriak” edo “beharrezkoak” ziren lanak. Aipatu hitzaurrearen bukaeran argi adierazten du zein den bere poesiaren helburua: “ene olerrkitxo bitxi ta minkorr hauk Euskaldun batak edo bertzeak adimen eta irudimen-atsegingarri eridenen dituelako itxaropena edukiten dut” (Mirande 1984: 20).

2.3.3.2. *Itzulpenaren eragina Miranderen sorkuntzazko lanetan*

Argi ikusi dugu, beraz, Mirandek gustuko zituen lanak itzultzen zituela. Ez zituen, bere aurreko euskal itzultzaile gehienek egin bezala, iragan mendeetako autore “prestigiotsuen” lanak euskaratu. Miranderi autore modernoagoak interesatzen zitzaizkion; ez soilik Europako eta Ameriketako idazle ezagunak (Poe, Kafka, Baudelaire...), baizik eta baita literatura txikitako autore ez hain ezagunak ere (Séamus ó Mainnin irlandarra, Bernat Manciet okzitaniarra, Per Denez bretoaia...). Batzuk kontu ideologikoengatik interesatzen zitzaizkion (Nietzsche da hemen adibiderik garbiena), beste batzuk arrazoi estetikoengatik (hainbeste miresten zituen autore sinbolista eta surrealista aipa litezke), eta beste asko, besterik gabe, “irudimen-atsegingarri” zitzaizkiolako. Horregatik euskaratu zituen bere garaiko hainbat kantariren

⁸⁴ Halere, Mirandek literaturaren autonomia aldarrikatu zuen arren eta bere garaiko idazle abertzaleen itxitasuna eta “baserritartasuna” kritikatu zituen arren, esan beharra dago berak ere, bere gisara, buruan proiektu politiko jakin bat zuela idazten zuela askotan: “[...] hala nola Arestik edo Mirandek, euskal hizkuntzaren estandarizazioarekin eta euskal proiektu politiko batekin loturik idatzi zuten literatura” (Gabilondo 2006: 69). Zentzu horretan, Miranderengan nolabaiteko aurrekariak agertzen diren arren, Pott bandakoak izan ziren literaturaren autonomia modu erabatekoan aldarrikatu eta praktikan jarri zuten lehen euskal idazleak: “Alegia, Pott izan zen lehena literatur talde gisa eratzen euskal hizkuntzalaritza eta politika abertzalearen arduetatik kanpo” (Gabilondo 2006: 68). Sarrionandiak eta Mirandek itzultzeko hautatutako autoreei erreparatu gero, aise ikusten da Mirandek, oro har, bere ideologia politikoarekin bat zetozen idazleen obrak euskaratzen zituela. Sarrionandiak euskarara itzulitako autore asko, berriz, ez datoz inondik ere bat bere ideologia politikoarekin, baina horrek ez du garrantzirik, Sarrionandiaren ustez, helburua literatura egitea bada: “[...] irakurlearen hesparu ideologikoak berak asumitzen duen ideologiarena baino zabalagoa izan behar dik. Pedro Daguerre, Gustave Flaubert, Ezra Pound, T.S. Eliot, Fernando Pessoa edo Jorge Luis Borges bezalako autoreetan onartu beharrekoa duk, beren ideologia arbuiau arren, beren pentsamendua heldua, sakona eta interesgarria dela, beren esperientzi intelektual eta humanoa baliotsua dela” (Sarrionandia 1989: 134).

kantak (George H. Clutsamen *Ene kutuntxu*, Alec Wilderren *Lullabyland*, Percy Montrosere dirudien *Kattalin* edo Stan Joansen *Zaldiz zeruan*, esaterako), edota herrialde urrunetako zenbait kanta edota kondaira herrikoi (*Bi beleak (eskoziar kanta zaharra)*, *Hirur lili = Drei lilien (Abesti aleman zahar bat)*, *Ene Biotzeko Maite Argia (Hebrideetako maite-kanta)* edo *Mette (Jutlandeko ixtorio zahar bat)*). Azkenik, beste hainbat lan probokazio moduan itzuli zituelakoan gaude, euskal irakurleko kristau, zintzo, jator eta tradizionalistarengan nolabaiteko eskandalua eragiteko. Horrela, bere garai-ko euskal abertzaleen itxitasun, itsukeria eta hipokrisia salatzeke balio zioten kontakizun edo poemak euskaratu zituen (geroago aipatuko dugun Nietzscheren “Aus hohen Bergen” poema, idazle kristau eta moralisten kritikotasun eza deitoratzen duena, edota Ernest Hemingwayren “The good lion” ipuina, atzerriko arrotz gaiztoen aurrean zintzo eta tolesgabe ageri den baina bere herrira itzultzean kanpotarrak bezain maltzur jokatzeko duen lehoi hipokrita bati buruzkoa), baita euskaldunen balore kristauak hankaz gora jarriko zituzten gaiak jorratzen zituzten lanak ere, hala nola erotismoa, alkoholismoa, adulterioa eta abar (adibide gisa, Giovanni Boccaccioren *Adarra gatik adarra* aipa genezake, beren emazteak “partekatzen” dituzten bi gizonezkoari buruzkoa).

Mirandek itzulitako lanak berak sortutakoekin alderatuz gero, erraz antzematen da idazle zuberotarrak euskaratutako idazlanek eragin nabarmena izan zutela bere sorkuntzazko poema eta ipuinetan.

2.3.3.2.1. Friedrich Nietzsche

Eragin ideologikoari dagokionez, nabarmena da Miranderen lanetan Schopenhauer, Spengler eta Nietzsche filosofo alemanen eragina, Mujikak (1984a eta 1999), Azurmendik (1989), eta Aldekoak (1994), besteak beste, ongi azertu duten bezala. Schopenhauerren edo Spenglerren lanik ez zuen euskaratu, guk dakigula, Mirandek. Bai ordea Nietzscheren lan batzuk, eta itzulpen horiek eragin ideologikoa ez ezik, eragin literarioa ere izan zuten Miranderen hainbat poematan, Iñaki Aldekoak ongi adierazten digun bezala:

Nietzscheren pentsamenduak poetaren barne barnean aurkitu zuen non sus-traitua, eta handixe gobernatuko zuen poetaren mundu ikuspegi zabalena. Nietzscheren arrastoa hain sakona izango da, ezen ez bakarrik Miranderen imajina bat baino gehiago tankeratu zuen, baizik eta zedarri ideologikoak ere betiko finkatu zizkion poetari (Aldekoa 1994: 10-11).

Mirande bizirik zela argitaratutako Nietzscheren itzulpen bakarra “Mendi gallurretatik” dugu, “Aus hohen Bergen” poemaren euskal itzulpena, 1952an *Gernika* aldizkarian argitaratua. Poema horretan, bere garaiko pentsalari eta moralisten kritikotasun eza salatzen du Nietzschek, eta gogor kritikatzan ditu moral judu-kristaua modu erabat pasiboan onartu izanagatik, urte batzuk lehenago idatzi zuen *Also sprach Zarathustra* liburuan agertu zituen ideien haririk. Ez da harritzekoa, beraz, Mirandek “Aus hohen Bergen” poema euskaratu izana, bide ematen baitzion bere bizitzan behin eta berriz deitoratu izan zuen euskal abertzaleen moraltasun kristau eta itxia salatzeko eta aldi berean paganotasun berri bat aldarrikatzeko. Poema horren itzulpena argitaratu zuenerako, ordea, itzulita zituen jadanik Nietzscheren *Also sprach Zarathustra* liburuaren hainbat atal, lagunei idatzitako eskutitzetan aipatzen duenez. Itzulpen horiek, baina, argitaratu gabe geratu ziren, euskal aldizkariak ez zituztelako argitaratu nahi izan. *Orrela mintzo zan Zarathustraren* atal bat, “Emakumetxo zaar ta gazteetaz” (“Von alten und jungen Weiblein”), Patri Urkizuk argitaratu zuen 1997an, *Jon Mirande Orhoituz* (1925-1972) liburuan. Atal hori eta beste hiru Azkue bibliotekan daude gordeta, Andima Ibinagabeitiaren paperen artean, eta guk geuk editatu eta argitaratu genituen 2010eko artikuluko batean (Jaka 2010: 276-285). Ez dakigu, ordea, Mirandek atal horietaz gain liburuaren beste zatiren bat ere itzuli ote zuen. Lagunei idatzitako gutunetan aipatzen duenez, Zarathustraren hitzaurrea ere itzuli omen zuen, baina hori ere argitaratu gabe geratu zen eta ez da orain arte behintzat aurkitu. Honela ziotson Ibinagabeitiari 1954an bidalitako gutun batean:

Hala ere, ba dut Zarathustra'ren hatsarrea aspaldiko euskara itzulirik. E.G.an [Euzko Gogoan, alegia] argitara nahi ba zendute, aski duzu erraitea eta igorriko dut azken orrazi aldi bat eman ondoan. Leizarraga'ren hizkuntza biblikoa parodiatu dut itzulpen hortarakotz oraiko orthographiaz hala ere (Mirande 1999b: 194).

Lehen euskal itzultzailearen hizkuntza biblikoa parodiatu nahi horretan, argi ikusten da Mirandek obra hori itzultzean zuen asmo nagusia: moral kristauaren guztiz kontrako ideologia proposatu, hain zuzen lehenengo euskal itzultzaile handiak erabili zuen idazkera erabilita, biblia berri bat proposatuko balu bezala, Leizarraga aitzindari izan zen legez bera ere aitzindari izanez.

Nietzscheren itzulpen horiek eragin nabarmena izango dute gerora Mirandek sortutako poema batzuetan. Nietzscheren eragin handiena izan duen poema, agian, “Ohiko Jainkoari” da. “Testu horrek Nietzsche-ren *Así habló Zarathustra* edo *El gay saber* liburuen kopiaketa bat dirudi” (Mujika 1999: 73).

2.3.3.2.2. *Charles Baudelaire*

Charles Baudelaire da Miranderen lanetan eragin handia izan zuen beste idazle bat. Mirande bizi zela haren lanen itzulpenik argitaratu ez bazuen ere, Andima Ibinagabeitiaren paperen artean “Mozkor zaite” poemaren euskarapena ageri da, 2010ean argitaratu genuena (Jaka 2010: 275). Baliteke, beraz, Mirandek hain maite zuen poetaren beste lanen bat ere inoiz euskaratu izana. Itzulpen edo, behintzat, irakurketa haiek, asko markatu zuten Miranderen idazkera. Luis Mari Mujikaren (1984a, 1984b) eta Gorka Aulestiaren (1989) lanetan ongi azaltzen den bezala, sinbolismoaren eragina ukazina da Miranderen lanetan:

Baudelaire-ren poetikak Mirande-ren olerkigintzan aztarna bereziak utzi zituen, eta *Baudelaire*-kin batera, *Mallarmé*, *Rimbaud* eta *Verlaine*-ren edergintzak, hots, Frantziako sinbolisten korrante aberats guztiak (Mujika 1984a: 107).

Miranderen estilo sinbolista ezin hobeto azaltzen du Gorka Aulestiak:

Para Mirande y los simbolistas, la poesía es, ante todo, una entidad viva. Un poema es, pues, un acto de creación. Tiene que respirar vivo. [...]

La poesía no tiene que estar envuelta en nada. La de Mirande no era ni moralizante, ni social, ni política. Amaba la absoluta independencia en cuanto a la moral. En este terreno siguió las reglas de Baudelaire del «Arte Puro». Su misión era amar la belleza. El arte, para Mirande, tenía que estar apartado, sin un fin útil, porque lo que es útil es feo. El arte es un fin en sí mismo. Por eso, la literatura y la poesía no deberían ni moralizar ni filosofar. Ignoró la política y detestó la ética romántica de la poesía vasca, como habían hecho antes los simbolistas.

No era suficiente proclamar la verdad o expresar la realidad. Para Mirande, la poesía no era otra cosa que un simple juego de palabras y la búsqueda de la belleza literaria (Aulestia 1989: 267-268).

Edertasun literario horren bilaketan, bai Mirandek, bai Baudelairek, beren garaiko gizartean eskandalagarriak ziren hainbat gai askatasun osoz jorratu zituzten. Baudelairek, esate baterako, “*traketsaren, zatarraren, debekatuaren* olergaia egin zuen. Gizartearen tabu lotsatiak eraso zituen, absurduaren *mitifikazioa* ere egin zuen. Bestalde, demoniakoari ere mistika bat itsatsi zion” (Mujika 1984b: 51, letra etzana jatorrizkoarena da). Baudelairek bere garaiko paristar gizartean sortutako eskandalu bera sortu zuen Mirandek bere garaiko euskal gizarte abertzale jatorrean. Erotismoa, homosexualitatea, pederastia, alkoholismoa, prostituzioa, ateismoa... ordura arte poesiarako egokitzen ez ziren gaiak erabili zituzten biek beren poemetan. Esanguratsua da, zentzu horretan,

Baudelaireren “Enivrez vous” prosazko poema, Mirandek euskarara itzulia, non irakurlea ardoz, poesiaz edo bertutez mozkortzera bultzatu nahi baita.

Frantziar sinbolisten eragina agerikoa da Miranderen sorkuntzazko hainbat lanetan, Luis Mari Mujikak xeheki aztertu duen bezala:

Baudelaire-ren kasuan Mirande-ren «Neskatxak» poema lesbiandarrean «Las dos buenas hermanas»-en eragina suma daiteke, nolabait, eta baita «Lesbos» poemarena; gero ikusiko dugunez, «Lili bat» poesian ere Mirandek jarrera bodelerianoa hartzen du, neurri batean. Bestalde, «Pigalle», «Oianone», «Larunbat-arrats» olerkietako erotismoak baditu prezedente antzekotsuak Verlaine, Baudelaire, ala Rimaud-en orrietan (Mujika 1984a: 107).

Poemek ez ezik, Mirandek idatziriko hainbat ipuinek ere sinbolisten kutsu nabarmena dute. Mirandek berak aitortzen du, esate baterako, berak idatzitako “Maitharien arnoa” ipuina Baudelaireren poema batean oinarrituta egin duela. Honela esan zion Ibinagabeitiari 1956ko gutun batean:

Nire aldetik, berriz hasi naiz idazten, hein baten berere. Nahi nituke fantasiatzako eta izuzko iphuin laburrak egin, Poe, Le Fanu eta bertze anglo-saxoin idazleen antzekoak. Biga hasi ditut, batak “Gulezko, eta urkha-bilhur bat urrhezkoa...” dakhar izenburutzat, bertzeak “Maitharien arnoa” (azken honek Baudelaire-n poema batetik jesanik) eta urrhent-bururatu ditukedanean igorriko derauzkitzut, ikhus ditzazun (Mirande 1999b: 229-230).

Baudelaireren eragina ez ezik, Edgar Allan Poerena ere oso nabarmena da ipuin horretan, Mirandek berak eskutitz horretan eta Jokin Zaitegiri bidalitako beste gutun batean ere aitortzen duenez: “Nahi ahal duzu bertze idazlanik bidal diezazudan? Biga baizik ez dut prestik: Gaskoinetikako itzulpen bat: ‘Burua’ [B. Mancietena]; eta E.A. Poe-ren manerako iphuin-labur bat (oso laburra): ‘Maitharien arnoa’ [...]” (Mirande 1999b: 235). Ipuin horretan, gizon mozkortu batek bere emaztea hil arte jipoitzen du. Mozkorkeriaren eta hilketaren gaiak etengabe ageri dira, hain zuzen ere, Baudelaireren obran, baita Edgar Allan Poerenean ere. Bai Baudelairek, bai Mirandek, asko miresten zuten idazle iparramerikarra, eta biek itzuli zituzten haren zenbait idazlan.

2.3.3.2.3. *Edgar Allan Poe*

Miranderi asko gustatzen zitzaizkion nobela beltzak edo, berak zioen bezala, “kriminal elheberriak”. Jakina da, esaterako, Edgar Allan Poetz gain, She-

ridan Le Fanu, Montague Rhodes James, Oscar Wilde, H. H. Munro “Saki” edo Agatha Christie oso gustuko zituela, eta haien nobela beltzak irakurri ez ezik, antzekoak ere idatzi nahi zituela:

Nik kriminal-elheberriak asko maite ditut, eta maiz irakurtzen ditut, batez ere ingelazkoak (frantzes eta germanarazko zenbait ere bai), eta gauza hon da sail horrek ere bere lekhoa izatea euskal idazkuntzan izuzko iphuinak (Poe, Le Fanu, James eta bertze britaindar idazleek asmatuen heinekoak) ere ikhusi nahi nituke gure mintzoan. Beharbada behin hasiko naiz holako zenbaiten idazten... (Mirande 1999b: 217).

Ikusi dugunez, asmo hori bete egin zuen eta hainbat izuzko ipuin idatzi zituen. Baita gustuko zituen idazle haien hainbat lan euskaratu ere. Hor ditugu, esate baterako, Poeren “Ixiltze”, “Amonillado upela” eta “Itzal (Estalitz bat)”, ipuinen artean, eta “Bela” olerki ezaguna, berriz, poeman artean; edota H. H. Munro “Saki”-ren “Ipuin kondatzailea” eta “Leiho irikia”. Autore horien eragina begi bistakoa da Mirandek idatzitako beste ipuin askotan, baita hainbat poematan ere. Poerena bereziki. Hala, nabarmena da heriotzaren gaia umore puntu batekin tratatzeko modua Poerengandik hartua dela, Gorka Aulestiak Miranderen eta Baudelaireren poesia aztertzean adierazten digun bezala:

El tercer tema común entre Mirande y Baudelaire fue el humor negro, tomado de E. A. Poe. Fueron poetas de luz negra. [...] La muerte aparece frecuentemente en sus obras, pero presentada en forma grotesca, trágica y a la vez llena de humor negro. En el poema «Zakur hil bati», Mirande nos pinta la imagen de un perro muerto que flota como un corcho en el río. El poeta le rinde homenaje. No escasea el humor negro en la descripción (Aulestia 1989: 267).

“Zakur hil bati” poeman, gainera, Poerekiko erreferentzia zuzena ageri zaigu, Mirandek “nevermore” hitza sartzen baitu seigarren ahapaldian, urte pare bat lehenago itzuli zuen Poeren “The Raven” poema ezagunean beleak behin eta berriro errepikatzen duen leloa. Hitz hori dela eta, gainera, arazoren bat izan zuela dirudi poema lehen aldiz *Euzko Gogo*a aldizkarian argitaratu ziotenean. Honela idazten dio Andima Ibinagabeitiari:

Zoritxarrez, nire bi poemak irar-huts zenbaitez joriturik ageri dira. Hori ez da, behar bada, gauza handia, txarrago dena “Zakur hil bati”ren neurthitz baten erdia irarkolako moldeetan galdu dateke *nevermore* hitza zan (E.A. Poe’ren “Be-

lea”tik hartua: nehoiz ez gehiago erran nahi du, bainan “tonus” bereizi bat du inglarazko poesia ezagutzen dutenentzat) [...] (Mirande 1999b: 188).⁸⁵

Mirandek idatzitako eleberri bakarrean ere, *Haur besoetakoa*n, berriro errepikatzen du “tonus bereziko” hitz ingeles hori:

[...] itotzear den batek haize salbagarria xurrupatzen duen legez, edan zuen irents zezakeen alkohol gutzia eta orain, *nevermore*. Dena hurrendu artean irauungo ahal zion mozkorrak! (Mirande 1999b: 79-80).

Poerekiko erreferentzia zuzen gehiago ere ageri da Miranderen lanetan. Horrela, esaterako, “Larrazken gau batez” poemaren azpтитulua “the mad pride of intellectuality” da, Poeren “To Marie Louise (Shew)” poematik hartutako pasarte.

Poeren eragina oso nabarmena da, bestalde, Miranderen izuzko ipuin askotan. Berak aitortuta, badakigu hainbat ipuini Poeren idazkeraren kutsua eman nahi izan ziola. Honela idazten dio Ibinagabeitiari 1953an:

Hitzeman bezala, huna egun garbitan jarri dudan iphuina: “Zinopha” [...]. Bertze iphuin batzuen gaia eriden dut eta bat bederen idatziko dut ere joan baino lehen: “Zazpi gizerhaile” duke izenburua. Dakhusazunetik, surrealista antz pittin bat dute nere lan berriok, Poe’ren khutsuaz gainera (Mirande 1999b: 177-178).

Ipuin horietaz gaiz, gorago agertutako aipu batean aitortzen zuen, halaber, “Maitharien arnoa” ere Poeren eta Le Fanuren tankeran idatzi zuela, eta beste ipuin bat ere, “Gulezko, eta urkha-bilhur bat urrhezkhoa...” izenekoa, estilo berean idazten hasi zela. Ziurrenik bukatu gabe geratuko zen ipuin hori; gaur egun behintzat ez da Miranderen lanen artean horrelakorik aurkitu. Bestalde, Jokin Zaitegiri 1956an bidalitako eskutitz batean, eginak dituen hainbat lanen berri ematen dio, eta tartean Poeren gisako ipuin bat aipatzen du: “‘Ebakunde bat’, iphuin-labur bat, E.A. Poeren gisakoa, 2-3 orrialdetako” (Mirande 1999b: 242). Miranderen beste hainbat ipuin eta poema ere umore beltzez ziprztinduta ageri zaizkigu, esate baterako “Eresi kantari”, “Gauaz parke batean”, “Behiak” eta “Ametsa” ipuinak, edota “Otso”, “Paranoia”, “Undina”, “Orhoituz”, “Eresi” eta “Neskatxak” poemak. Azkenik, Mirandek idatzitako eleberri bakarra ere, *Haur besoetakoa*, Poeren estiloz kutsatuta dagoela aipatu izan du batek baino gehiagok, besteak beste Sarrionandiak:

⁸⁵ Hain zuzen ere, *Euzko Gogoia* aldizkariaren 1952ko 11-12. zenbakiko argitalpenean, “nevermore” hitza falta da, seigarren ahapaldian. Gerora egindako argitalpenek akatsa zuzendu dute.

Txomin Peillenek argi adierazi du, gero, **Jon Mirandek** berak esanikoa konfirmatuz, ez zela **Vladimir Nabokovena** «Haur Besoetakoa» obraren iturburua [...] eta, aldiz, Jon Mirandek neskatxoaren xarma bere bizitzan bertan ezagutua eta dastatua zuela eta bere obra arras pertsonala zela. [...] Bestalde, **Jon Mirande** aipaturiko beste autore batekin lotu nahi bada, ene ustez, ez da **Vladimir Nabokov** baizik eta **Edgar Alla Poe** erreferentziatzen hartu behar litzatekeena, zentsibilitate eta grina hurbiltasunagatik (Sarrionandia 1983b: 6, letra lodia jatorrizkoarena da).

Bukatzeko, ezin da aipatu gabe utzi umore beltzaren erabileran Franz Kafkaren ipuin surrealisten Miranderengan izandako eragina. Mirandek Kafkaren ipuin horietako bat euskaratu zuen, “Legearen aitzinean”, eta dagoeneko aipatu ditugun izuzko ipuin horietako zenbaitek ere asko zor diote Kafkaren estiloari. 1954an Mitxelenari bidalitako eskutitz batean honelaxe aitortzen dio: “Alaz ere, ipuin labur bat igorriten dizut, ‘Laphurtarr klasikoak’ idatzia. Humorezkoa da, eta Franz Kafka’ ren idaztankeraren antza eman nai izan diot” (Mirande 1999b: 183). Itxura guztien arabera, urte horretan argitaratutako “Zazpi gizerhaile” ipuinaz ari da.

Ez dira horiek (Nietzsche, Baudelaire, Poe eta Kafka) Miranderengan eragina izan duten bakarrak, baina nabarmenenak aipatu nahi izan ditugu adibide gisa, Mirandek itzulitako lanek bere sorkuntza lanetan izan zuten eragina nolabait erakusteko.

2.3.3.3. *Itzulpenaren ikuspegi postmodernoa*

Lanaren hirugarren kapituluaren ikusiko dugun bezala, Sarrionandiak itzulpenari ematen dion trataera eta itzulpenaren inguruan egiten duen gogoeta postmodernoa gisa defini daitezke. Miranderi dagokionez, ezin esan idazle postmodernoa baten aurrean aurkitzen garenik, bere garaiko euskal literatura “aurremodernoa” zertxobait modernotzen ahalegindu zen idazle aurrerakoi baten aurrean baizik. Dena dela, Sarrionandiak itzulpenaren inguruko hausnarketa postmodernoa bere obretan modu praktikoan islatzeko erabilitako hainbat estrategia agerikoak dira Miranderen lanetan ere.

Esate baterako, gorago aipatu dugun bezala, intertestualitate-jokoek badiute lekua Miranderen lanetan. Adibide agerikoen artean, dagoeneko azalduko Poeren hitz edo pasarteak leudeke, Mirandek bere idatzietan tartekatzen dituenak. Testuartekotasunaren erabilerak hankaz gora jartzen du edozein literaturaren izaera original, garbi, jatorrizko edo purua. Euskal itzulpenaren

historiako itzulpen asko, hain zuzen ere, euskararen garbitasun eta jatortasuna frogatzeko egin izan dira; Juan Antonio Mogelen *Versiones bascongadas* hartako *demostración práctica de la pureza, fecundidad y elocuencia del idioma bascuence* gogoratzea besterik ez dago. Miranderen itzulpenek eta intertestualitate-jokoek, aldiz, guztiz bestelako zerbait erakutsi nahi dute, alegia, ez dagoela hizkuntza edota literatura garbi edo kutsatu gabarik, ezinezkoa dela historian zehar garatzen eta harilkatzen joan diren joera literario desberdinez osatutako sare konplexu horretatik ihes egitea; irakurlea, irakurtzen ari den lanaren idazlea eta itzultzailea bezala, ezinbestean dagoela harrapaturik literatura den sare erraldoi horretan.

Hizkuntzen eta literaturen arteko hartu-eman hori praktikan jarri nahi izan zuen Mirandek, eta horren ondorio dira, esaterako, beste hizkuntza eta literaturetako poesia-formak bereganatu eta euskarazko olerkiak haien arabera sortzeko egindako ahaleginak. Euskal olerkigintzan eta bertsoaritza nagusi izan den errimaz gain, atzerriko literaturetako “barne-ritmua” ere bereganatu nahi izan zuen:

Orain arte gure olerkariak kontsonantez baizik ez ditute beren poemak antolatu. Ondo dakizu; ots-kidegoaz gainera ba dela beste zerbait neurritzak ozen eta durunditsu biurtzen dituana, ritmua alegia. [...] Erbesteko poesi-eskola ageri zaizkigu azken aldi auetan. Eta nik ere orrelako berri zerbait egin nahi nuke gure euskeraz (Mirande, *apud* Ibinagabeitia 1953: 99).

“Poesi izkera taiuzkoena” iruditzen zitzaion ingelesetik (Mirande, *apud* Ibinagabeitia 1953: 99), nahiz eredu izan zituen frantziar poeta sinbolistengandik (ikusi Aulestia 1989: 268, Verlaineen poesia-arauek Miranderengan izandako eragina ikusteko) hainbat eredu mailegatu zituen Mirandek, eta haien poesia-arauen arabera ondu nahi izan zituen bere hainbat poema. Ibinagabeitiari idatzitako gutun batean aitortzen zuenez, denbora-pasa gisa ingelesezko “limerick” delakoak idazten zituen: “Angles olerki labur batzu dira hoik, ahalaz lizun eta rima aberatseko izan behar direnak” (Mirande 1999b: 211). Ingelesezko eredu klasiko bat eman ondoren, berak euskaraz sortutako bat ematen du. Kasu horretan, zenbateraino da Miranderen euskarazko “limerick” hori bere sorkuntza, zenbateraino itzulpena? Literaturen arteko mailegutzatza-prozedura horiek zalantza jartzen dute itzulpenaren eta sorkuntza originalaren arteko muga, baita edozein literaturaren jatorri puru edo kutsatu gabea ere.

Itzulpena eta sorkuntza originala nahasirik ageri zaizkigu, halaber, Miranderen hainbat ipuinetan. “Humore beltzaren modelak” izenburupean idatzi-

tako kontakizunak, esate baterako, ez dago garbi berak sortuak ala itzulita-koak diren. Miranderen obra osoa biltzen duen Hiria argitaletxearen argitalpenak, esate baterako, ez ditu ez ipuin asmatuetan, ez ipuin itzulietan sartzen, “miszelanea” izeneko sail batean baizik. Gehienez ere hamar bat lerroko kontakizun motzak dira, umore beltzez zipriztinduak. Ez du jatorriaren inguruko inolako informaziorik eskaintzen, eta badirudi berak sortuak direla. Dena dela, kontakizun horietako batzuk beste hizkuntza askotan ere ezagunak direla dirudi, Joseba Sarrionandiak eta Mitxel Sarasketak *Hamairu ate* izeneko ipuin itzulien antologian adierazten dutenez:

Euskarazko literaturan, eta gure umore beltzaren eskasian, Jon Mirandek eman izan ditu ipuinik politenak. «Humore Beltzaren Adibideak» izenarekin argitaratu izan direnetan (Patri Urkizuren edizioan: Jon Mirande, «Gauaz Parke Batean», Elkar, 1984) batzu itzulpenak dira dudarik gabe, baina baliteke haien artean orijinalak ere egotea. Masokistaren eta sadikoaren arteko solas ezaguna eskuetan zabalik duzun liburuan ere agertzen da, hamargarren atean, Kostas Axelos izenaren pean, baina ez batarena ez bestearena ez ote den gaude, hau da, inorena ez ote den, guziena dela halebja (Sarasketa & Sarrionandia 1985: 8).

Sarrionandiak eta Sarasketak, izan ere, Mirandek hasitako joko horri jarraitu nahi izan diotela dirudi. Masokistaren eta sadikoaren arteko elkarrizketa Kostas Axelos idazle atenastarraren obratik hartu dutela diote, baina aldi berean aitortzen dute ez dakitela ziur harena ote den. Miranderen eta Sarrionandiaren joko horien bidez, agerian geratzen da tradizio desberdinek elkarri mailegatutako puskez osatzen dela literatura, eta autorearen eta obraren arteko erlazioa, subjektibotasunaren eta idazketaren arteko lotura, guztiz hauskorra dela. Txomin Peillenek, Miranderen ipuinez ari dela, ongi adierazten digu “asmakizun hutsezko idazlerik” ez dagoela, alegia, idazle orok idazten duela aurretik jaso eta irakurritako tradizioen eraginez:

Bere arazoak literatura bihurtzeko, itzulpenaren bidez, kanpotar ereduak eduki zituen, Poe, Saki, Kafka, Joyce, nahiz gero bere bidea hartu. Asmakizun hutsezko idazlerik badenik ez dut uste; benetako fikzioa orrialde zuria izango lizateke eta oraino paperak bere errealitate baluke (Peillen 1987: 20).

2.3.3.4. Hainbat ondorio Miranderen itzulpenen inguruan

Ikusitakoak ikusita, ezin dugu ukatu Mirandek euskal itzulpengintzari egindako ekarpen handia. Lehenik eta behin, euskaraz oraindik ezagutzen ez

ziren hainbat autoreren lanak euskaratu zituelako, eta aldi berean euskaratik beste hizkuntzetara ere itzulpen ugari egin zuelako. Bestetik, itzulpenaren bidez bere garaiko euskal literatura itxi, ikol, garbi eta jatorra kanpoko literatura-korronte eta poesia-formez kutsatu zuelako. Eta azkenik, kutsadura hori edozein literatura-sorkuntzatarako beharrezkoa zela erakutsi zuelako. Mirande izan zen ordura arte ukiezinak ziren euskal idazleen balore eta eredu tradizional asko literaturaren eta itzulpenen bidez auzitan jarri zituen lehena, inolako lotsarik gabe gai lizunak eta erotikoak ukitu zituen lehena, euskal literatura kanpoko literatura-korronte modernoek jantzi zuen lehena. Miranderen ondorengo idazle eta itzultzaile handiek, Gabriel Arestik, Joseba Sarrionandiak nahiz Pott bandako beste idazleek, ikusiko dugun bezala, Mirande izan zuten hein handi batean aitzindari; haren lan eta itzulpenen bidez ezagutu zituzten askok atzerriko zenbait idazle ezezagun. Sarrionandiaren kasuan, aipatzekoa da Mirandek euskaratutako idazle asko itzuli zituela berak ere, hala nola Poe, Kafka, Prévert, Saki edo Baudelaire.

2.3.4. GABRIEL ARESTI

Jon Mirandek, ikusi dugun bezala, bere garaiko idazle askoren aldetik laudorio baino kritika gehiago jaso zuen arren, zenbait idazle gazte berritzailearen eragin nabarmena izan zuen; besteak beste Gabriel Arestirengan. Nahiz eta Miranderen ideologiarekin bat etorri ez, Arestik asko miresten zuen idazle eta itzultzaile zuberotarrak euskal literaturari egindako ekarpena, haren *Haur Besoetakoa* liburuaren kontrazalean dioen bezala:

Zeren Miranderen moduak eta pentsamenduak alde batera utzita, haren idazlana hartzen baldin badugu kontuan bakarrik, gure literaturari egin dion mesedea ez dugu behar bezala inoiz naikoa laudatuko. Erromantiko denbora bigun batetik sozial literatura gogorreki batera iragaten ginen tenorean, dotoretasuneko aire bat, ongi-esanezko lezio bat, idaz-molde eder eta delikatu bat aportatu zuen Mirandek. Molde zaharrak apurtzen zituen bitartean, molde berriekin ez zen ados etortzen, eta zorionez hirugarren eskola baten aita bilakatu zen; Miranderi eskerrak, lizarditasunetik herritar eskolara hirugarren bide bat zabaldu zaio euskal literaturari: Lasa neba-arrebak, Peilhen, Harzabal eta Sarasola lekuko (Aresti, *apud* Mirande 1970: kontrazala).

Arestik, beraz, Miranderen bidetik ekingo dio euskal literatura modernizatzeari, eta, era berean, aurreko hamarkadetako itzultzaileen erresistentzia garbizalea gaindituko duen itzulpen-eredu integral bat bultzatzeari. European

garatzen ari ziren joera literarioetatik edan nahian, kanpoko ereduak euskara-
ra itzultzen eta korronte berriak euskaraz sortutako obretan txertatzen hasi
zen, eta, bere sorkuntza- eta itzulpen-obren bidez, Mirandek deitoratutako
euskal literatura itxia egurastu zuen.

Mirandek bezala, Arestik ere eragin handia izango zuen gerora Sarrionan-
diarengan. Desberdintasunak desberdintasun, Aresti Sarrionandiaren aitzin-
daritzat jo dezakegu postmoderno gisa definitu ditugun hainbat ezaugarri lite-
rario eta traduktologikotan. Lehenik eta behin, itzultzeko hautatutako
autoreen aniztasunean: aurreko euskal itzultzaile gehienak testu erlijioso eta
klasikoak itzultzera mugatzen baziren, Arestik garai, korronte, estilo eta gene-
ro arras desberdinetako obrak euskaratu zituen, testu erlijiosoak eta klasiko
greko-latindarrak erabat baztertuz. Bigarrenik, Arestik hala bere sorkuntza-la-
nean nola bere itzulpenetan erabiltzen dituen hainbat teknika edo joko gerora
Sarrionandiak garatuko dituen jolas postmodernoan aurrekaritzat jo litezke:
hizkuntzen eta literaturen saihestezinezko elkarreragina agerian jartzen duten
poema elebidunak, esaterako, edo erreferentzia literarioen erabilera. Azkenik,
Sarrionandiak literaturaren eta itzulpengintzaren inguruan egingo duen haus-
narketa postmoderno bat dator, hein handi batean, Arestik itzulpenaren eta
literaturaren inguruan duen ikuspegiarekin, nahiz eta Arestik ez duen bere
itzulpen-praktika gogoeta egituratu batez hornitu. Ondoko ataletan hiru alor
horiek banan-banan aztertuko ditugu. Arestik Sarrionandiarengan izan duen
eraginaren erakusgarri da, orobat, Sarrionandiak Arestiren lanei buruzko az-
terketak argitaratu izana (Sarrionandia 1980 eta 1986), ondoren datozen hiru
ataletan ikusiko dugun moduan.

2.3.4.1. Arestik euskaratutako autoreak

Esan bezala, garai, leku eta korronte askotako lanak euskaratu zituen Ares-
tik.⁸⁶ Sailkapen moduko bat egiteko, Jon Juaristik (1983) eta hari jarraituz

⁸⁶ Hasieran *Euzko gogoa*, *Egan* eta *Olerti* aldizkarietan argitaratu zituen Arestik bere hain-
bat itzulpen, poemak batez ere (Arestiren itzulpenen zerrenda xehe samarra eskaintzen du Juan
San Martinek, 1985: 538). Gaur egun, Arestiren itzulpen guztiak Susak argitaratutako *Arestiren
literatur lanak* bildumaren 8. eta 9. liburukietan bilduta aurkitzen dira (Aresti 1986a, 1986b).
Itzulpen horietaz gain, halere, badirudi Arestik beste hainbat testu ere itzuli zituela, nahiz eta
gero ez ziren, bere izenean behintzat, argitaratu. Sarrionandiari irakurrita dakigu Asterix-en li-
bururen bat itzuli zuela Arestik: “Zeren aski ingratak izan baitziren euskaldunak G. Arestireki-
ko, Asterix-en itzulpena eta bere liburuen salneurriak oroiteraz daitezke, halako aldaketa (trai-
zio) postumoak egiten irauteko” (Sarrionandia 1980). Ez dakigu Asterixen itzulpen hura inoiz

Joseba Sarrionandiak (1986) proposatzen duten banaketa hartuko dugu oinarri. Saillkapen hori Arestiren poesiaren etapen arabera da; izan ere, “aldi bakoitzean itzulitako obren influentzia nabarmena da Gabriel Arestiren obra orijinaletan” (Sarrionandia 1986: 284).

Arestiren lehen etapa, askotan “aro sinbolista” deitua, 1954 eta 1960 artekoa litzateke. Garai hartan itzulitako obrek eragin handia izan zuten Arestik garai bertsean idatzitako poesian: “1954 eta 1960-aren artean egindakoak (Baudelaire, Juan Ramón Jiménez, Gabriela Mistral...) *Maldan behe* poemaren alde ilun asko —simboloak, egitura metrikoak— argi dezakete, adibidez, *alejandrinoaren* (14 silabako ahapaldia) usadioa eta irudi askoren esanahia” (Juaristi 1983: 7-8). Arestik etapa honetan itzulitako autoreak, oro har, literatura modernoetako autore handiak direla esan liteke. Batetik, XVI-XVIII. mendeetako autore garrantzitsuak itzuli zituen: batez ere Shakespeare eta Goethe sartzan dira bete-betean sail honetan, baina Cervantes ere hemen kokatuko dugu, beranduago itzulia (1969an) eta prosazkoa (ez poesia) izan arren. Bestetik, XIX. mendeko sinbolista frantsesak (Baudelaire, Verlaine),⁸⁷ XIX-XX. mendeko espainiar modernistak (Machado, Juan Ramón Jiménez), eta XX. mende hasierako bi poeta txiletar ere (Gabriela Mistral eta Pablo Neruda) etapa honetan itzuli zituen, eta eragin nabarmena izan zuten Arestiren garai honetako poesian. Itzulpen horiek, Sarrionandiaren hitzak gure eginez, “lengoaia literario baten bilaketa entseguak” dira, eredutzat zeuzkan idazleen joera estetikoak bereganatzeko egindako saioak. Idazle zaharragoak izan arren, Marqués de Santillana, Dante Alighieri eta Giovanni Boccaccio idazleen itzulpenak ere ziur asko helburu horrekin eginak dira: “ene hegatsa çorrotz cedin eguin nituen tranlationeoc”, dio Arestik Boccaccioaren Dekameronen itzulpenaren sarreran (1986b: 53).

“Poesia sozialaren aro” gisa definitu izan den bigarren etapan, 1964-1970 artekoan, autore garaikideagoak euskaratu zituen Arestik, eta itzulpen horiek eragin nabarmena izan zuten Arestik garai horretan idatzitako harrizko trilogian (*Harri eta Herri*, 1964; *Euskal Harria*, 1967; *Harrizko Herri hau*, 1970). Garrantzitsuenak gaztelaniazko hainbat poeta (Angela Figuera, Blas de Otero,

argitaratu ote zen: “[...] cuando el editor asturiano Silverio Cañada pensó publicar el cómic francés “Asterix” en los cuatro idiomas [euskaraz, katalanez, galizieraz eta gaztelaniaz] [...] [h] ablé con Gabriel; aceptó el trabajo. No sé cuántos episodios tradujo, ni quién acabó publicándolos” (Ortiz Alfau 1984: 11).

⁸⁷ Alfred de Musset erromantiko frantsesaren hiru bertseoren itzulpenak ere aro sinbolistarekin lotu behar dira, nahiz eta beranduago itzuli zituen, 1967an hain zuzen.

Gabriel Celaya, José María Basaldua, Javier Ortiz⁸⁸), eta Nazim Hikmet turkiarra lirareteke (hau ere poeta konprometitu eta komunista izanik, aurrekoen ondoan sailka daiteke). Poeta horiek, joera estetikoengatik baino gehiago, gaiarengatik interesatzen zitzaizkion Arestiri, bere inguruko gizarteko injustiziak salatzen zituztelako. Atal honetan sailkatu beharko litzateke, halaber, Bertolt Brechten “Oskawa itsa-untzia nola izan zen bere marinelez desegina” poema, gorago aipatutako egileen poemek bezala, Brechtenak ere gizarteko injustiziak salatzen dituelako (kasu honetan marinel pobreen egoera deitoratuz). Gogoraraz dezagun, gainera, Arestik poeta alemaniarrari zion begiramenena, “Bertolt Brecht-en gorazarrez” poeman argi adierazia. Azkenik, Eugène Pottier-en “Internazionala” kanta ere poesia sozialaren multzoan sartu beharko litzateke, munduko langileen aldeko aldarrikapena baita.

Juaristik eta Sarrionandiak proposatutako sailkapenari jarraituz, Arestiren azken etapa 1970etik aurrerakoa litzateke. Dena den, etapa honek “ez zituen, halere, eman zitzakeen fruituak eman”, adierazten du Jon Juaristik; honela jarraitzen du:

Aresti ez zen baliatu itzulpen hauen bidez eratutako hizkuntza poetikoaz lan propio bat egiteko. Heriotzak Gabrielen bizitza eta poemagintza moztu zituen ankerki. Ezin dezakegu jakin ezta zer espero zitekeen Gabrielengandik bide berri honetatik abiatu balitz (Juaristi 1983: 8).

Arestik 1970etik hil arte (1975) egindako lanen lekuko, itzulpen multzo bat baizik ez zaigu gelditu: alde batetik galizierazko poemen itzulpenak (Manuel Curros Enríquez, Fray Marcos da Portela, Alfonso Rodríguez Castelao, Valentín Paz-Andrade eta Federico García Lorca) eta bestetik T. S. Elioten *Lau Quartetto*. Etapa hau etapa “leizarragazale” gisa definitzen du Jon Juaristik. Izan ere, 1969an Joannes Leizarragaren lanak ikertzen hasi zen Aresti, eta hil arte “hugonotearen hizkuntza defenditu zuen, ez soilik hizkuntza poetiko baten oinarria bezala, baizik eta euskara batu baterako irtenbide posible bat bezala” (Juaristi 1983: 9). Leizarragaren idazkerari jarraituz, gainera, arau ortografiko batzuk asmatu eta idatzi zituen, “ABC edo heuscaraz scribatzeco erreguelac” izenburupean, nahiz eta erregela horiek bukatu eta argitaratu baino lehen hil zen.⁸⁹

⁸⁸ Jon Juaristik (1983: 8) Vidal de Nicolás, Gregorio San Juan eta Julio Maruri ere aipatzen ditu Arestik etapa honetan itzulitako autoreen artean, baina itzulpen horiek, egin bazituen, argitaratu gabe gelditu ziren.

⁸⁹ Eskuizkribu hori 1983an argitaratu zen, *Lau Quartetto*ekin batera: Aresti, Sarrionandia & Juaristi 1983.

Leizarragaren hizkuntza eta ortografia hori erabiliz egin zituen, gainera, etapa honetako itzulpen batzuk, esate baterako Gabriel García Lorcaren *Sei poema gailego*. Esanguratsua da, halaber, Arestik poema horien itzulpenari jarri zion oharra: “Lorcac poema intellectual batzuc scribatu zituen gailego intellectual batetan. Nic, eçagutzen dudan heuscararik intellectualenean jarri nahi ukan ditut, leiçarragaren heuscaran” (Aresti 1986a: 144). Hizkuntza eta ortografia berbera erabiliz egin zituen Boccaccioren *Dekameronearen* itzulpena,⁹⁰ Valentín Paz-Andraderen *Uma-oncitic negarra*, Fray Marcos da Portelaren *Nekazariaren dotrina* eta baita Elioten *Lau Quartettoak* ere. Ortografia berezi hori, hasiera batean, protesta gisa erabili zuela dirudi, euskara idatziaren batasuna bizkortzen ez zela-eta, baina gerora estilo-kontuengatik atxikiko zaio idazkera mota horri. Halaxe azaltzen du hautu hori Joseba Sarrionandiak:

Badirudi, hasiera batean, protesta gisa eta epatatzeko aldatu zituela ortografia zeinu batzu, baina, urteen buruan, ortografia eta euskara-moldea loturik doaz. Hain zuzen ere, ardura estilistiko sakon bat nabaritzen da beti Gabriel Arestiren obran, eta ardura horrek filologo lanetara [...] eramanen du, euskal klasikoetara, literatura kultu batetarako oinarritzko tradizio baten xerka. Hain zuzen Joannes Leizarragaren eredueta oinarriturik *ABC* edo *Regla* batzu proposatu zituen, ortografia emendatzeko, horixe zen gainera jendeak begiko hartzen zuena, baina, Gabriel Arestirenean funtsezkoena euskara erromanizatuago eta intelektualago baten proposamena zen (Sarrionandia 1986: 289-290).

Etaparen honetako itzulgaien hautua ere Leizarragaren idazkeraren defentsa horrekin lotuta legoke, neurri handi batean, Jon Juaristiren iritziz. Arestik bere azken itzulpen gehienak galizieratik egin izana, batetik, idazle galiziar zenbaitekin zuen adiskidetasun estuari zor zaio (ikus, esaterako, *Nekazariaren dotrinaren* itzulpenaren hitzaurrean galiziarrekiko atxikimenduari buruz esaten dituenak, Aresti 1986a: 107-111), baina bestetik eta batez ere, Jon Juaristik adierazten duenez, galizieraren izaerari:

[...] arrazoirik importanteena, nire ustez, gailegoaren izakeran datza. Hizkuntza erromanikoen artean, gailegoa da, dudarik gabe, arkaikoena. Gailegok egindako literatura zen, beraz, arlo apropos bat irtenbide linguistikoko berriaren (Leizarragaren «heuscaran» latinoaren) egokitasuna frogatzeko (Juaristi 1983: 11-12).

⁹⁰ Halere, *Boccaccioren Dekamerone Tipi bat* ortografia gaurkotuarekin argitaratu zuen Luis Haranburu-Altunak 1976an, eta ondoren egindako argitalpenek ere bertsio hori eman dute. Dena den, Arestik itzulpenari egindako hitzaurre moduko poema, aurrerako xehekiago aztertuko duguna, Leizarragaren ortografiarekin mantendu zen.

Etapan honetan egindako T. S. Elioten itzulpena, berriz, guztiz bestelako arazoiekin azaltzen du Juaristik; lotuago ikusten du itzulpen hau Arestiren lehen etapako poemekin:

Nire ustez, T.S. Eliot itzultzeko arrazoia beste alde batean bilatu behar da. Behin baino gehiagotan esan dut Arestiren sinbolo iraunkorrenak —eremua, gizon galduak, etab— Eliotengandik datozela. Iraunkortasun sinboliko honetan, eta ez beste inongo leku batean, aurki daiteke sustraietarako itzulkera honen zergaitia (Arestik Eliot-en aipamen pare bat egin zuen bere lehenengo etapan: bata, *Ash Wednesday* poemakoa, 1954-ko poema batean, *Dance dans la prière* delakoan; bigarrena, *Murder in the Cathedral* antzerkiaren ahapaldi batzuk, *Maldan behera*-ren argudio bat da (Juaristi 1983: 12).

Azkenik, Juaristik eta Sarrionandiak aipatzen ez badute ere, Arestiren beste itzulpen sail garrantzitsu bat antzerkiek osatzen dutela iruditzen zaigu. Arestiren itzulpen argitaratuen artean bi antzezlan baizik ez dauden arren (Ramón del Valle-Inclán-en *Jainkoaren hitzak* eta Ugo Betti-ren *Ahutz-heerriko bide-gabea*), badakigu beste hainbat antzezlan ere itzuli zituela. “Euskal teatro berri baten beharra: euskal komedia” izenburupean emandako hitzaldi batean aitortu zuenez, Valle-Inclánen antzezlanaz gain Federico García Lorca-ren *Berarda Albaren Etxea*, Anton Chejov-en *Gerizetako Baratza* eta Fritz Hochwälder-en *Hotel du Commerce* antzezlanak euskaratuta zituen 1964rako (Aresti 1964: 59); horietaz gain, Fray Markos da Portelaren *Nekazariaren dotrinaren* itzulpenari eginiko sarreran, beste bi antzezlan itzuli zituela esaten digu, gero Kriselu antzerki taldeak antzeztu zituenak: Ricard Salvat-en *Nun jaioren ez dio inporta*, katalanetik euskaratua (*Ez dio ardura nun jaioren zaran* izenburuarekin taularatu zen 1967an), eta 1966an taulaturiko Bertolt Brechten *Sistema zorionxu bat* (Aresti 1986a: 108).

1964an Donostian emandako hitzaldi horretan eta hiru urte lehenago emandako beste batean (“Nola erein teatroaren gaurkotasuna euskaldunen artean”, 1961), gogoeta interesgarriak egiten ditu Arestik euskal antzerkiaz oro har eta atzerriko literaturerako antzezlanak euskaratzearen beharrez bereziki. 1961eko hitzaldian euskal antzerkiaren arazoez mintzo da: “Eta gertatzen da gaurko euskal teatroa eztela gaurkoa, joan den mendekoa baizik. [...] Gure teatroa moralista da, badirudi sermoi edo prediku bat entzuten dugula, euskal komedia bat ikusten dugunean” (Aresti 1961: 29). Arestik euskal antzerkian ikusten duen bigarren arazoa txikitasuna da: “Askotan esan da: Teatro txikia, baina gurea. Zergatik sartuko gara txikitasun zeken batean, gauza haundiak egiteko kapaz garenean?” (Aresti 1961: 30). Eta horretarako irtenbidea mun-

duko teatroa ikastea da, Arestiren ustez: “Beraz, munduko teatroa estudiatu behar dugu [...]. Metodoak eta teatroa egiteko bideak eta moduak asko aldatu dira azken urte hauetan. Modu berri hoek ikasi behar ditugu, eta gure teatroan aplikatu” (Aresti 1961: 30). Arestiren ustez antzerkia da euskal kultura berrizatzeko biderik onena: “Euskal kultura berrizatu behar dugu, eta biderik egokiena, erraxena eta politena teatroa da” (Aresti 1961: 30).

Hitzaldi horretan atzerriko teatroa itzultzearen aurka mintzatzen bada ere (“Atzerriko teatroa ezagutu behar da, baina ez itzuli, ez hitzez hitz itzuli. Atzerriko komediarik ez tugu eman behar. Jente arruntak eztauka zergatik atzerriko gauzarik suportatu, aldezaurretik gure problema guztien argikuntza dastatu gabe”, Aresti 1961: 30), 1964an emandako hitzaldian aurkako jarrera agertzen du. Euskal antzerkiaren munduan dagoen idazle faltaz ohartuta, kanpoko literaturetako antzezlanak itzultzearen alde mintzatzen da:

Askotan galdetu zait niri, hea falta hori kanpoko antzerkiekin bete litekeen, hea zilegi den, gure artean teatro-idazle onik ezta goen bezala, kanpoko, atzerriko antzerkiak aukeraz jartzea. Eta zer esanen dut? Ezetz esanen banu, zorakeria litza-ke. Nire iritzia da gure artean munduko idazlerik hoberenak baleude ere, antzerki itzulia eman beharko genituzkeela (Aresti 1964: 59).

Ondoren, “oraingo teatro modernoaren erakusgarri” izango den bilduma bat osatzeko asmoa agertzen du, “azken hirurogei urteotan eskribitu diren antzerkiena”. Hogeita hiru obra aipatzen ditu, literatura eta korronte arras desberdinetakoak, euskal teatroari “pizkat antza berri” eman nahian, eta berak horietako lau itzuli dituela aitortzen du (Valle-Inclán, García Lorca, Chejov eta Hochwälder), gainerako idazle nahiz itzultzaileak beste hainbeste egitera bultzatuz (Aresti 1964: 59).

Antzerkia Euskal Herria hezteko tresna gisa ikusten du Arestik: “Eta Euskal Herria edukatu behar dugu, munduko herrien artean merezi duen lekua okupa dezala deseo badugu” (Aresti 1964: 61). Horregatik, kontuz ibili beharra dago atzerriko obrak euskaratzean; antzezlan onak itzuli behar dira soilik, euskal herritarrei hezkuntza ona ziurtatuko diotenak bakarrik:

Eta esan nahi nuen euskal herria edukatzeko ate berri bat zabaldu behar dugula, eta hori da euskal teatroa. Baina kontuz! Euskal teatroarekin ongi eduka edo deseduka dezakegu. Eta horregatik herbesteko antzerkiak euskeratzen baditugu, Alfonso Sastre izan dadila eta ez Calvo Sotelo, Henriko Ibsen izan dadila eta ez Sabater Casamojada (Aresti 1964: 61).

Horretarako, munduko teatroa aztertu, ikertu, eta obrarik onenak hautatu eta euskaratzeko, “Euzko Antzerti Zaindi” bat sortzea proposatzen du Arestik.

2.3.4.2. Arestiren itzultzeko modua eta jolas postmodernoak

Ikusi dugunez, Arestik garai bakoitzean itzultitako obrek eragin nabarmena izan dute bere sorkuntzazko lanetan, Miranderekin gertatzen zen bezalatsu. Eragin hori, gainera, bi noranzkotan gertatzen da: Arestik itzultitako obrek bere lan originaletan eragina izan duten bezala, berak sortutako lanek ere izan dute nolabaiteko eragina bere itzulpenetan. Adibiderik garbiena, beharbada, jadanik aipatu dugun Leizarragaren idazkera litzateke, bere hainbat itzulpenetan erabiltzen duena. Horrelako beste hainbat jolas edo teknika erabiliz, Arestik nahasi egiten ditu askotan sorkuntza originala eta itzulpena, eta agerian jartzen du, bere aurretik Mirandek eta geroago Sarrionandiak bezala, hizkuntzen eta literaturen arteko elkarreagin saihestezina, itzulpengintzaren ikuspegi postmoderno bati bide ematen diona.

Literaturen arteko elkarreagin hori ondoen islatzen duen Arestiren lana, ziurrenik, *Boccaccioren Dekameronen Tipi baten* sarrera gisa idatzi zituen gaztelaniazko hitzaurre batek eta euskarazko poema batek osatzen dute. Biak transkribatuko ditugu jarraian, bertan agertzen diren jolas postmodernoak ondo aztertu ahal izateko:

“NOS DICE EL COMPAÑERO ARESTI:

Quien se ocultó bajo el hábito del Penitente, posterior al siglo XVI, pero no anterior al XVIII, muestra al tiempo el cultismo de Leizarraga y el populismo de Axular. He respetado hasta su último grafema, para no romper la armonía de su conjunción fondo-forma. Perdónennos los severos catones del siglo XX, al penitente y a mí estas vulgares bromas pre-renacentistas, ya que si bien leer al Boccaccio es menos edificante que leer al de Aquino o al de Hipona, sí por lo menos es mucho más divertido. Por fin, es una pena que el Penitente fechara sus obras pero no las datara, que sepamos el día pero no de qué año.

Hauk dira Sarrhanceko paperac
nic,
Bela Penitentialeac,
Sarrhanceco clausterioan,
heuscara barbaro batez valiaturic,
scribatu nituenac.

Hiru lehenac,
hiru translatione dira;
lehenac,
orain iracurtzen hasten duçuen hau,
Italiaco erdara vulgarretic
translatatu nuen,
eta Boccaccioren Dekameronen Tipi bat da.
Bigarrena,
latin vici eta eternaletic translataturic,
Arça-Poetaren hiru Carmina ditu,
bata poetria berrian,
eta beste biac
poetria
çaharrean.
Hirugarren (eta azquen) translationea
Espainiaco erdara vulgarretic
Dom Quixotte Manchacoaren novellaren
abbreviationen bat da.

Ene hegatsa çorrotz cedin
eguin nituen translationeoc,
Schola-mendico bronçeak hobequi
transcribitzeagatic;
bronçe hauetan iracurri nuenarequin
beste hamar paper
bethe nituen.
Eta neure lectione eta lectura guztien buruan,
oraindic guelditu citzaitzadan dembora, arguia eta indarra,
neure Graammatica Cantabres Heuskaldunean,
Sarrhanceco clasterioan scribatu nuen azquen paperean,
heuscararen reglac eta legueac
punctuz punctu
aipatzeco.

Orain, neure Aragoneko herrira bihurturic,
eztut penitentiariac egiten,
eztut escribitzen,
eztut lectzen,
eta spulchroac igu iquitzen derautadan bityartean,
vicitzea goçatzen dut.”

(Aresti 1986b: 52-54).

Hasierako hitzaurrea eta batez ere euskarazko poema erreferentzia literario eta historikoz josita daude. Arestik elkarrekin nahasten ditu benetako gertaerak eta fikziozkoak, berak asmatuak. Horrela, euskal literatura atzerriko beste literaturekin lotzen du, jolas postmoderno interesgarria osatuz. Azter ditzagun erreferentzia horiek banan-banan.

Gaztelaniazko hitzaurrean, Arestik “El Penitente” edo “Bela Penitentialea” aurkezten digu, ondoren datozen hiru itzulpenen itzultzaile gisa. Ziurrenik Jacques Belari eta Jean-Philippe Belari egin nahi die erreferentzia. Jacques Bela XVI. mendean jaiotako politikari eta idazle zuberotarra dugu, eta Jean-Philippe Bela, berriz, haren birbiloba, XVIII. mendeko militar eta historialaria (hain zuzen ere XVI. eta XVIII. mendeak aipatzen ditu Arestik hasierako ohar horretan). Jacques Bela, Joannes Leizarraga bezala, protestante kalbindarra zen, eta Lextarreko gorteko epaile izatera iritsi zen. Kultura handiko gizona, hizkuntza asko menperatzen zituen, eta idazle gisa lan mardula egin zuen. *Tablettes* izenburuko lan entziklopediko luze bat idatzi zuen, besteak beste, eta horren barruan euskal hiztegi bat eta euskal gramatika bat egin zituela dirudi, nahiz eta gaur egun biak galdutzat jotzen diren. Oraindik gordetzen dira, ordea, lan horretan bildu zituen 44 euskal atsotitzak. Jacquesen birbiloba Jean-Philippe Belak idatzitako lanen artean, berriz, *Histoire des Basques depuis leurs origines jusqu’a 1748* delakoa aurkitzen da (Belatarrei buruzko informazio xehea lortzeko ikusi Bidador 1995).

Arestik XVI. eta XVIII. mendeak aipatzen ditu bere hitzaurrean, hain zuzen Jacques eta Jean-Philippe bizi izandako mendeak, hurrenez hurren, eta “Bela Penitentialeac” sarrera gisa idatzitako poeman berak idatzitako “Grammatica Cantabres Heuskaldun” bat aipatzen du, Jacques Belak idatzitako euskal gramatikari erreferentzia eginez ziurrenik.

Arestiren poemako beste erreferentzia interesgarri bat Sarranceko abadiari eginikoa da. Esaten duenez, “Sarrhanceco clausterioan” idatzi zituen ondoren aurkezten dituen hiru itzulpenak, bai eta euskal gramatika eta beste hainbat paper ere. Sarrancek, ziurrenik, Margarita Nafarroakoari egiten dio erreferentzia (eta honek Belatarrekin lotzen gaitu berriro; izan ere, Belatarrek Nafarroako gortean aritu baitziren lanean hainbat aldiz). Margarita Nafarroakoak, Leizarragari Biblia euskaratzeko eskatu zion Joana Albretekoaren amak, *Heptameron* izeneko liburu bat idatzi zuen, frantsesez, XVI. mendean. Boccaccioren *Dekameronean* inspiratuta idatzi zuela dirudi (obra horren itzulpena aurkezten du, hain zuzen, Arestik edo “Bela penitentialeak” sarrera gisako poema honen ondoren), haren egiturari jarraituz: hamar bidaiari Sarranceko abadia batean elkartzen dira, eta ekaitz baten ondorioz handik atera ezinik

gelditzen dira. Denbora pasatzeko, bidaiari bakoitzak ipuin bat kontatzen du egunero, hamar egunetan zehar, guztira ehun ipuin osatu arte. Hori zen behintzat Margarita Nafarroakoaren asmoa, baina heriotzak lana bukatu aurretik eraman zuenez, 72 ipuin baizik ezin izan zituen idatzi, eta horregatik deitu izan zaio gerora lan horri *Heptameron*, zazpi egunetako ipuinak biltzen dituelako. Boccaccioren *Dekamerone*ko bezala, Margaritaren *Heptamerone*-ko ipuinek ere maitasuna, haragikeria, adulterioa eta beste hainbat gai sexual eta lizun jorratzen dituzte. Badirudi Arestik, euskal irakurleei horrelako gaiak eskaintzearekin, euskal literaturan ordura arte nagusi izandako katolikotasun eta moraltasunari aurre egin nahi diela, eta euskaldunak mota guztietako gaiak irakurri eta idaztera bultzatu. Hizkuntza aldetik ere, “heuscara barbaro” bat erabiltzen du, hitzaurrean Leizarragaren kultismoaren eta Axularren populismoaren arteko hizkera gisa definitzen duena. Hain zuzen ere, herriak erraz ulertzeko moduko hizkera defendatzen zuen Arestik, baina aldi berean literaturak eskatzen duen maila jasoa bermatuko zuena.

Sarrera gisako poeman hiru itzulpen edo “translatione” aurkezten ditu Arestik. “Boccaccioren Dekamerone Tipi bat” eta “Dom Quixotte Mancha-coaren novellaren abbreviation bat” ezagunak zaizkigu (ikus biak hemen: Aresti 1986c). Bigarren lekuan aipatzen dituen “Arça-Poetaren hiru Carmina” horiek, ordea, ez dira gaur egun behintzat ezagutzen. Ez dakigu Arestik benetan itzuli ote zituen, baina gero argitaratu gabe geratu ziren, ala besterik gabe ez zituen inoiz itzuli eta poemako erreferentziak osatzen duten jolas post-modernoaren beste tranpa bat den. Dena dela, itzulgai hori ez zuen besterik gabe hautatu Arestik, poemako jolas postmodernoari jarraipena emateko baizik, hala egiletasun lausoari dagokionez, nola testuaren gaiari dagokionez: Arestik aipatzen duen “Arça-Poeta” hori XII. mendeko latindar poeta anonimo bat izango litzateke, Archipoeta izenez ezagutzen dena, Erdi Aroko latindar literaturako hamar poemaren egilea. Poema horien arteko hamargarrena da guztietan ezagunena, eta tradizio goliardikoan idatziriko aitoren bat da, *Carmina Burana* eskuizkribuan jaso. Arestik edo Bela Penitentialeak Carmina horietako hiru itzuli izana aitortzen du, hain zuzen ere Boccaccioren nahiz Margarita Nafarroakoaren ipuinekin bat datozen gaiez dihardutelako (goliardoak bizitza arlotea eraman ohi zuten Erdi Aroko elizgizonak ziren, Europako unibertsitateetan ikasten zuten apaizgaiak gehienak, Elizaren gehiegikeriak salatzeke poema satirikoak idazten zituztenak).

Arestiren sarrera-poeman, Bela Penitentialeak dio hiru itzulpen horiek (Boccacciorena, Archipoetarena eta Cervantesena) bere “hegatsa çorrotz cedin” egin zituela, “Schola-mendico bronceak hobequi transcribitzeagatic”.

“Schola-mendico bronceak” aipatzearekin, badirudi Sacromonteko berunei egin nahi diela erreferentzia, hain zuzen ere faltsifikazioaren historiako alerik ezagunenei: berunezko 22 xafla biribil dira, elementu musulman eta kristauak nahasirik agertzen dituztenak. XVI. mendearen bukaeran aurkitu zituzten Granadako Sacromonte auzoan, eta hasiera batean bosgarren ebanjeliotzat jo zituzten. Berunezko xaflatan grabatutako testuek (latinez eta ezin dezifratuzko karaktere arabiarrez idatzita) lehen kristauak arabiarrek zirela frogatu nahi zuten. Garai hartan jadanik dokumentuak faltsutzat jo bazituzten ere, nahasmenak hainbat urtez iraun zuen, batez ere dokumentuen hainbat itzulpen egin zirelako.

Bela Penitentialea dokumentu faltsuak transkribatzen dituen idazle gisa aurkeztean, Arestik oso joko interesgarria iradokitzen du. Batetik, faltsifikazio hori aipatuta, “Bela Penitentialea” bera ere faltsua dela iradoki dezakeelako. Bestetik, eta batez ere, idazlea / asmatzailea / itzultzailea / faltsifikatzailea maila berean jartzen dituelako, eta interpretazio horrek kolokan jartzen duelako itzulpenaren epistemologia modernoak: jadanik behin baino gehiagotan aipatu dugunez, itzulpenaren epistemologia modernoak kopiatze, imitazio edo are transkribatze huts gisa definitzen du itzulpena, eta itzultzailea ezer aldatzeko eskubiderik ez duen izaki pasibo gisa. Arestiren interpretazioan, ordea, testu batzuk “transkribatzeko” luma zorroztea beharrezkoa dela esatean, transkribatzailea nahitaez zerbait berria sortzen ari dela iradokitzen da, itzultzailea testu “original” bat itzultzean eta transkribatzailea testu “faltsu” bat transkribatzean zerbait “faltsifikatzen” ari direla, obra berri bat sortzen alegia.

Arestik Boccaccioren, Archipoetaren eta Cervantesen itzulpenen hitzaurre gisako poemak kontatzen duen fikziozko istorioak maila berean jartzen ditu itzulpena eta sorkuntza originala, itzultzailea eta idazlea. Zalantzan jartzen du literatura-lan “originalen” originaltasunaren eta autoretza eskuliboaren ideia. Nor da, esate baterako, *Dekamerone Tipi*aren egilea? Boccaccio? Aresti? Bela Penitentialea? Ala Boccacciok asmatutako fikziozko hamar pertsonaiak, Dekameroneko ipuinak kontatzen dituztenak? Eta Joannes Leizarragak eta Axularrek ere ez ote dute nolabait parte hartu testu horretan, Arestik haien idazkerak imitatu nahi izan baditu? Denek hartu dute parte nolabait testu horren eraketan. Literatura, izan ere, “literaturaren literatura” da (Sarrionandia 1981: 6), eta literatura-lan bat ez da autore original eta orojakile baten lan bukatu, itxi, behin betiko eta ukiezina; irakurketa, interpretazio, itzulpen, berridazketa edo transkribatze bakoitzean izaera eta originaltasun berria hartzen duen obra behin behineko, ireki, bukatugabe eta moldaeraza baizik.

Antzeko zerbait ondoriozta liteke Arestiren beste itzulpen batzuetatik: Arestik euskaratutako Manuel Curros Enríquezen *O Divino Sainete*, esate baterako, Danteren *Divina Comediaren* parodia bat da. Zein jo behar da, kasu honetan, testuaren jatorrizko egilezat? Aresti? Curros Enríquez? Dante? Beste hainbeste gertatzen da Arestik euskaratutako Fray Marcos da Portelaren *Catecismo do Labregorekin*, zeina Gaspar Asteteren *Catecismo de la Doctrina Cristianaren* parodia baita. Kasu honetan, gainera, laugarren autore batekin egiten dugu topo, Fray Marcos da Portela, izan ere, Valentín Lamas Carvajal-ek asmatutako ezizen, pertsonaia edo heteronimoa baita.

Era berean, ezin da esan Arestiren sorkuntzazko lanak ere eksklusiboki Arestirenak direnik, sarri nabari baitaitezke haietan beste literatura batzuetako lanen oihartzunak edota beste autore batzuen lanekiko testuartekotasun-harremanak. 1960an *Oleriti* aldizkarian argitaratu ziren Arestiren *200 puntu* edo poemek, esate baterako, Nietzcheren *Also sprach Zarathustratik* eta Bibliaren hainbat pasartetatik edaten dutela esan izan da (Zelaieta 1985: 46).

Horrelako jokoek agerian jartzen dute hizkuntzak, literaturak eta literaturalanak ez direla elkarrengandik guztiz bereizitako entitate itxiak, etengabe kontaktuan eta elkarreaginean dauden sistema aldakorrek baizik. Kontaktua eta elkarreagin horiek arrisku gisa ikusi izan dira askotan euskarazkoa bezalako literatura txikietan, hizkuntzaren biziraupenaren kalterako izango direlakoan. Arestik, ordea, euskarak beste hizkuntza eta literaturekin dauzkan harremanak euskara eta euskal literatura indartu eta biziberritzeko tresna gisa ikusten ditu: “Euskaldunak beti ibilli garaz erdal usañetik igeska, iduridu jaku itsusitu egiten dituala gure obrak”. Horren kontra, Arestik askatasuna eta naturaltasuna aldarrikatzen ditu euskal idazleentzat, XVIII. mendeko Pedro de Barrutiak bere Gabonetako Ikuskizuna komedian erabilitako euskara-erdara arteko nahasketa goretsiz: “[...] erdere eta erdal usañeko esakerak, eta baita euskera erdera arteko mordolloa bere, tresnak diraz Barrutiaren plumaren puntan, bere bertsoak edertuteko eta prestantzia emoteko” (Aresti 1986c: 13).

Gaztelania eta beste hizkuntza arrotzak ere euskara edertzeko tresna gisa erabili nahi ditu Arestik, eta horren erakusgarri izango liriateke bere literaturalanetan txertatzen dituen erdarazko pasarteak, bere euskarazko poemen gaztelaniazko itzulpenak, edota beste itzultzaile batzuekin elkarlanean egindako itzulpen eleanitzak.

Lehenengoaren adibide gisa Arestik bere poema batzuetan txertatutako T. S. Elioten ingelesezko aipeak ekar genitzake gogora, Jon Juaristik goian

eman dugun aipuan seinalatzen dituenak, edota bere antzerki lan batean sartu nahi izan zituen galizierazko poemak:

Nire komedia «Beste Mundukoak eta Zoro bat» Donostiako Jarrai-taldekoek anzestu zutenean, bertatik nik gailegoz sartu nituen Curros Enrikezen zeinbat berso kendu zizkidaten, eta eman zicaidan arrazoia hau izan zen, jentea samur ez zedin (Aresti 1986a: 108-109).

Oskorri taldearekin 1972an Baionan emandako hitzaldi batean, berriz, Shakespeareren hitz batzuk tartekatu zituen, “Julio Zesarren ehorzketan Mar-ko Antonioren ezpainetan jarri zizkionak”, eta, euskaratu ondoren, Sabino Aranaren ehorzketari buruz jarduteko erabili zituen (Aresti 1986c: 116).

Arestik bere euskarazko hainbat poema gaztelaniazko itzulpenaz hornitze-ko joera ere hizkuntzen eta literaturen arteko elkarreragin hori erakusteko eta are bultzatzeko nahiak azalduko luke. Bere *Harri eta Herri* (1964) poema-liburua, adibidez, edizio elebidun gisa argitaratu zen, Arestik berak egindako gaztelaniazko itzulpenarekin. Euskarazko literatura-lanak beste hizkuntzetara itzultzea beharrezkotzat jotzen zuen Arestik, euskara duindu eta garai moder-noetara egokitzeke (Aresti 1986c: 199-200).

Azkenik, azpimarratzekoa da halaber Arestik egindako euskarazko hainbat itzulpen edizio eleanitzetan argitaratzeko egin zituela. Tomas Meaberen *14 alegia*, esate baterako, bere arduraz egindako lau hizkuntzako edizio batean argitaratu zituen Kriselu argitaletxean, gaztelaniazko originala euskarara, gali-zierara eta katalanera itzulita. García Lorcaren *Sei poema gailego* eta Paz An-drade-ren *Uma-oncitic negarra* ere edizio eleanitzetan argitaratu ziren.

2.3.4.3. Arestiren itzulpengintzari buruzko gogoeta

Ikusi dugunez, Arestiren obran agertzen dira jadanik itzulpengintzaren epistemologia postmodernoren zenbait zantzu, nahiz eta itzulpengintzari bu-ruzko teorizazio formalik ez duen inoiz egin. Hala eta guztiz ere, uste dugu zilegi dela esatea Aresti izan zela neurri handi batean gerora Pott bandako idazleek itzulpenaren inguruan landu zituzten gogoeta eta hausnarketan ai-tzindari. Haren itzulpen-praktikak eta jolas postmodernoeak, adibidez, bide emango diote Sarrionandiari itzulpengintzaren inguruko bere filosofia gara-tzeko eta Arestik Bela Penitentialearekin egiten duen jolasaren antzekoak as-matzeko (poema apokrifoak, fikziozko itzultzaileak, heteronimoak...).

Interesgarriak dira oso Sarrionandiak Arestiren *Dekameroneari* egindako iruzkinean itzulpengintzari buruz aipatzen dituen ideiak. Euskal itzulpengintzaren egoera kaskarra salatu ondoren, “itzulpenaren kontzeptua eta baliotasuna” hartzen ditu hizpide:

Hontaz, Walter Benjamin-en azterketetan galdera interesgarri bat aurki daiteke: Hizkuntza orijinalaz entelegatzen ez dutenek irakurri ahal dezaten bakarrik egiten al da itzulpena?

Ez, itzulpena ez da komunikazio hutsa, mezuaren aldatze hutsa. Itzulpena jenero bat da, hizkuntza biak elkarrengana hurbildu eta itzultzen deneko hizkuntzaren posibilitateak zabaldu egiten ditu (Sarrionandia 1980).

Gogoraz dezagun hemen teoriari buruzko atalean Walter Benjamini buruz azaldu duguna: itzulpenaren zeregina ez da, Benjaminen iritziz, jatorrizkoa ulertzen ez duenari bertan ezkututzen den mezua transmititzea, hizkuntzen arteko elkarreaginezko harremana azaleratzea baizik. Harreman hori agerian jarritz, itzulpenak hizkuntza bakoitzak bere kabuz lortu ezin duen aukera berri bat ahalbidetzen du, hizkuntzen osagarritasunezko harremanaren bidez baizik iritsi ezin daitekeena (Benjamin 1972). Hori argitu ondoren, honela jarraitzen du Sarrionandiak Arestiren *Dekameroneari* buruz:

Eta hau kontuan izanik, zer esan daiteke, bada, Gabriel Arestiren “Dekamerone Tipi Bat” delako itzulpenaz? Dekameronetik hautaturiko hamabost ipuinen bilduma, lapurtera klasikoa. Ezin daiteke esan fidelegia izan denik orijinalarekiko, hots, irakurle euskaldun posiblearentzako beste zentzu bat du irakurketak. Hemen bai esan dakiokela ezetz Walter Benjaminen arestiko galderari.

Baina Dekamerone Tipia ere atsegina da, lapurtera klasikoaren kultismo eta xarma dario ipuin guzietan zehar, baina ez du kultismo honek edertasuna deuseztatzen, aitzitik, zentzu berri bat eta irakurketa berri bat posibilitatzen baitu (Sarrionandia 1980).

Izan ere, Arestiren Dekameronea ez da Boccacciorena, edo behintzat ez soilik Boccacciorena, bi hizkuntzaren eta bi literaturaren arteko osagarritasunezko harremanetik jaiotako obra berri bat baizik. Hortaz, alferrikakoa da fidelitasunaz hitz egitea. Arestiren eta Boccaccioren Dekameroneak bi obra desberdin dira, elkarrekiko nolabaiteko lotura dutenak, noski, baina ezinbestean bi obra desberdin.

Pott bandako beste idazle batek, Jon Juaristik hain zuzen, antzeko argumetuak erabiltzen ditu, Aresti aipatuz, “Poesia itzultzea zer punturaino da zilegi?” galderari erantzutean:

Arestik badu erdal poema bat: «La poesía no se encierra en las molduras de un idioma / es como el condor que se asoma / tras cada monte, en cada tierra.» Nik uste dut hori Huidobroren omenaldi bat zela ze Huidobrok holako zerbait idatzi zuen baita ere, hau da, poesia ez datzala hizkuntza baten moldetan baizik eta poesia dela itzul daitekeena, edozein poema. Neu ez nago oso konforme honekin baina poema bat itzultzen denean, poema hori berridazten da, hau da, Arestiren «Lau kuartetoak» ez dira Eliotenak. Zer gelditzen da Arestiren poeman Elioten poematik? Agian topikoak bakarrik (Juaristi 1984).

Vicente Huidobro txiletar idazleak sortutako “creacionismo” korronte literarioaren arabera, poeta oro guztiz berria da, eta ez du kanpoko munduko errealitate bat islatzen; aitzitik, bere baitako errealitate bat sortzen du:

[El poema] se hace realidad a sí mismo. Crea lo maravilloso y le da vida propia. Crea situaciones extraordinarias que jamás podrán existir en el mundo objetivo, por lo que habrán de existir en el poema para que existan en alguna parte (Huidobro 1988: 168).

Beste hainbeste esan liteke itzulpenari buruz: itzulpenari esker, bestela inoiz sortuko ez lirakeken egoerak sortzen dira, eta poema itzulia poema berri bat izango da, bere errealitate propioaren jabe.

Ikusitakoak ikusita, argi esan dezakegu Arestiren itzulpengintzak hainbat elementu postmoderno erakusten dituela. Dena dela, gehiegizkoa litzateke Aresti autore postmoderno gisa definitzea. Izan ere, inguratzen zuten baldintza sozio-politikoaren eraginez, Arestik poesia modernoa egin zuen oro har, eta poesiari eta literaturari buruz zituen ideia asko pentsamendu moderno bati dagozkio. Horretan desberdinduko da Aresti bere ondorengo idazle “postmodernoengandik”, besteak beste Pott bandako idazleengandik.

Arestik helburu politiko batekin egiten zuen literatura, eta helburu berberekin hautatzen zituen euskaratu beharreko obrak ere. Ikusi dugu, esaterako, antzerkiaren pentsatzen zuena: Euskal Herria “edukatzeko” tresnatzat zeukan. Poesiaz ere gauza bera pentsatzen zuen: “La poesía para mí no es sino un medio didáctico de educación de las masas” (Aresti 1986c: 229). Idatzi eta itzuli zuen poesia sozialaren gaiek ere gauza bera iradokitzen dute. Poesia mai-

lu bat zen Arestirentzat,⁹¹ errealitatea kontatzeko eta borrokatzeko arma bat. Zentzu horretan, Pott bandaren ikuspegia guztiz aurkakoa zen: poesiaren helburua poesia bera zen, *Pott* aldizkariaren lehen zenbakian adierazi zuten bezala: “literaturan lehenengo gauza literatura egitea da” (Pott 1978b: 7). Aldizkariaren hirugarren zenbakian, berriz, “Itzulpena eta traizioaren praktika” izeneko artikulu interesgarri batean, Pott bandakoek literatura nazionalaren mitoa salatzen dute, gogoraraziz “«literatura nazional» guztiak elkarrekiko zordukan” ditugula: “sorterri bakar batean erroturiko landareak dira: Europako tradizioan” (Pott 1978e: 28). Zentzu horretan, Pott bandakoek literatura postmoderno eta postnazionala egin nahi dute, nazkatuta daudelako Arestiren garaiko poesia sozial, nazional, konprometitu edo militantearekin, artikulua-
ren bukaeran ironiaz salatzen duten bezala, Arestiren inguruan sortutako Kriselu argitaletxea aipatuz:

Hona hemen zergatik erabaki dugun editorial berri bati itzulpen batekin hasera ematea. Pott eginda gaudenoi ez zaigu Kriselu proletarioa jasotzeko humore-rik geratzen, ezpaikara birjinak, ez zuhurrak eta ez eroak, inoren erreinu ustela etor dedila esperatzeko. Horregatik, toaja jaurtiki ondoren, lopedeaigirre guztien seinupean jartzen gara (Pott 1978e: 29).

Esan beharra dago, halere, Pott bandako idazleek eta Sarrionandiak bereziki asko zor diotela Arestiren poesiari eta itzulpengintzari,⁹² euskaratu zituen idazleen hautua eta batez ere itzulpenaren eta sorkuntza originalaren artean egindako jokoak hurrengo atalean aztertuko dugun Sarrionandiaren itzulpengintzaren nolabaiteko aitzindaritzat jo baitaitezke.

⁹¹ “Esanen dute / hau / poesia / eztela, / baina nik / esanen diet / poesia / mailu bat / dela” (Aresti 1986d : 63).

⁹² Hain zuzen ere Arestirena da Pottek argitaratu nahi duen lehen itzulpen hori, *Pott* aldizkariaren lehen zenbakiaren kontrazalean aitortzen duen bezala: “Hemen agertzen dugun grabatua berriro ere ikusi ahal izango duzu, bera baita Thomas S. Eliot.en “LAUCUARTETTO” deitu poema liburuak eramane duen azala. Gabriel Aresti zenak egindako itzulpen berezi batetan irakurri ahal izanen duzue Elioten lan hau, zeina jotzen den bere poetikaren ardatz bezala. / POTT editorialeak argitaratuko duen lehen liburua, hain zuzen” (Pott 1978c: 16). Azkenean ez zuen Pottek argitaratu Arestiren itzulpen hura, Hordago argitaletxeak baizik, 1983an, Jon Juaristik eta Joseba Sarrionandiak egindako Elioten beste itzulpen batzuekin (Aresti, Sarrionandia & Juaristi 1983).

3. KAPITULUA

**ITZULPENARI BURUZKO GOGOETA
ETA ITZULPEN-PRAKTIKA JOSEBA
SARRIONANDIAREN LANETAN**



Lehen kapituluan, Sarrionandiaren itzulpenak aztertzeko teoria egoki bat bilatzen ahalegindu gara, eta, teoria bakar bat hautatu ez badugu ere, Sarrionandiaren itzulpen-filosofia itzulpenaren teoria postmodernoeekin bat datorrelako hipotesia aurreratu dugu. Bigarren kapituluan, berriz, Sarrionandia baino lehenagoko euskal itzultzaileen itzulpen-lanak eta itzulpen-gogoetak aztertu ditugu, eta bigarren hipotesi bat aurreratu dugu: euskal itzulpenaren historian Sarrionandia izan dela, salbuespenak salbuespen (Jon Miranderengan eta Gabriel Arestirengan aurkitu ditugun zenbait zantzu alde batera utzita), itzulpena modu postmoderno batean ulertu eta praktikatu duen lehen euskal itzultzailea. Hirugarren kapitulu honetan, bi hipotesi horiek frogatzen ahaleginduko gara Sarrionandiaren beraren lanak aztertuz. Kapituluaren lehen zatian, Sarrionandiak itzulpenaren inguruan egin dituen hausnarketak bilduko ditugu, itzulpenaren teoria postmodernoeekin uztargarriak direla erakusteko. Bigarren zatian, berriz, Sarrionandiaren itzulpen-praktika aztertuz, Iurretako idazleak euskal itzulpengintzari egindako ekarpena zenbaterainokoa izan den erakusten ahaleginduko gara. Sarrionandiak *zer* itzuli duen azterteaz gain, *nola* itzuli duen ere ikertuko dugu, bere itzulpenetan erabiltzen dituen itzulpen-estrategiak aztertuz. Azkenik, kapituluaren hirugarren zatian, Sarrionandiak postmodernismoaren inguruan esaten dituenak kontuan hartuz eta zenbait euskal kritikarik gai berberaren inguruan plazaratutako ideiak aztertuz, Sarrionandia itzultzaile postmodernotzat jo ote litekeen erabakiko dugu.

3.1. ITZULPENARI BURUZKO GOGOETA SARRIONANDIAREN LANETAN

Itzulpenak Joseba Sarrionandiaren obran leku garrantzitsua betetzen duen arren, iurretarrak idazleak ez du oraingoz behintzat itzulpenaren inguruko teoria

egituratu eta sistematikorik eskaini. Ziur aski ez du sekula eskainiko.⁹³ Dena den, han-hemenka utzi dituen hausnarketa eta planteamenduak itzulpenaren inguruko gogoeta sakon baten adierazle direlakoan gaude, eta gogoeta hori lan honen lehenengo kapituluaz aztertu ditugun teoria postmodernoekin bat datorrela iruditzen zaigu. Sarrionandiaren ideia horiek bilduz eta aztertuz, beraz, hipotesi hori frogatzen saiatuko gara ondoko lerroetan.

Sarrionandiak itzulpenaren inguruan eskaini dituen gogoetarik osatuenak, apika, 1985ean agertutako *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuaren sarreran eta 2010ean kaleratutako *Moroak gara behelaino artean?* saiakera mamitsuko “Literatura txikiak eta munduko literatura” atalean plazaratutakoak dira. Dena den, bi liburu horietan azaltzen dituen hainbat ideia errazago ulertzeko, eta ordena kronologikoari nolabait eustearren, interesgarria iritzi diogu Sarrionandiaren itzulpen-filosofari buruzko atal hau *Pott* aldizkariaren hirugarren zenbakian (1978ko azaroan) argitaratutako “Itzulpena eta traizioaren praktika” izeneko artikuluekin zabaltzeari.⁹⁴ Artikulu horretan egiten diren zenbait salaketak agerian jartzen dituzte itzulpenaren epis-

⁹³ “Ez dut sintesirik alde zuretik emateko. Bizimodua denontzat ederragoa egiteko ametsak egin ditugunok, ate aurrean zabortege bat dugula seinalatzea besterik ez. Ez teoriarik, ez araurik, ez on eta gaiztoen zerrendarik, denak gaude harrapatuak dominazio egituretan. Hau ez da gramatika bat. Hau boterearen gramatika, logika eta erretorika arakatzea besterik ez da, iraganak ate aurrean utzi digun zabortege handi horretan bildu eta sailkatuak material batzuekin...” (Sarrionandia 2010b: 15).

⁹⁴ Joseba Sarrionandia, izan ere, 1977an Bilbon eraturiko Pott bandako kidea izan zen, Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Manu Ertzilla, Jon Juaristi eta Joxemari Iturralde idazleekin batera. Literatura talde berritzaile eta abangoardista osatu zuten, eta izen bereko aldizkari literarioa argitaratzen hasi ziren taldea eratu zen urte berean. *Pott* aldizkaria hiru urtez argitaratu zen, eta guztira sei zenbaki eta liburu bat —Bernardo Atxagaren *Etiopia* (1978)— kaleratu ziren. Pott banda 1980. urtean desegin zen, eta partaide bakoitzak ibilbide literario desberdin batetik jo zuen, bakoitzak bere estilo pertsonalarekin. Hala eta guztiz ere, 1977 eta 1980 artean Pott bandak bere aldizkarian kaleratutako zenbait artikuluk ezin hobeto islatzen dituzte idazle haiek garai hartan zeuzkaten kezka eta ideia literarioak, eta horietako askok Sarrionandiaren pentsamendua ulertarazten lagunduko digutelakoan gaude. Artikulu gehienak sinatu gabe edo ezizenpean argitaratzen zituztenez, zilegi deritzogu artikuluen egiletza Pott banda osatzen zuten sei kideei egotea, tartean Sarrionandiari. Gainera, hizpidera ekarri nahi dugun “Itzulpena eta traizioaren praktika” artikulua (Pottugaleten delako batek sinatua) Sarrionandiak berak aipatzen du, hango ideiak bere eginez, handik bi urtera argitaratu zuen artikulua batean: “POTT 3 aldizkarian ‘Itzulpena eta traizioaren praktika’ deituriko idazlan bat argitaratu zen literatura nazionalaren mitoa salatzen eta euskal literaturaren apologismo berria kritikatzeko. Hantxe gogoratzen zen bezala, arras harrigarria da itzulpen literarioen eskasia, izan ere, hamar urte hauetakoak ez dira dozena erdiren bat baino gehiago” (Sarrionandia 1980).

temologia modernoaren hainbat kontraesan, eta proposatzen dituzten ideiek itzulpena ulertzeko era postmoderno bat iradokitzen dute.

3.1.1. “ITZULPENA ETA TRAZIOAREN PRAKTIKA” (1978)

Pott bandako kideek artikulu honetan egiten duten lehen salaketa euskarara egindako itzulpenen urritasunean datza:

Itzulpenen garaia igaro da euskal literaturgintzan? 1968 eta 1973 artean argitaratu ziren bospasei obra itzuli. Geroztik hona, zenbait editorial hondatu, beste batzu sortu, genuen bi poeta presentableak hil, guti gehiago agertu, baina ez batzuek ez besteek itzulpen batera* argitara ematera dira ausartu.

* Hobe esanda, bat: K. IZAGIRREK itzuli duen CASTELAOREN “UN OLLO DE VIDRIO”. (KRISTALEZCO BEGIA. Kriselu, 1976).

(Pott 1978e: 27).

Urritasun horren arrazoia, Pott bandako enstet, euskal literatura-kritikariek literatura eta itzulpena ulertzeko duten modu atzerakoiari zor zaio. Itzulpena, izan ere, itzulpengintzaren diskurtso moderno gehienetan bezala, gaizki ikusirik dago Euskal Herrian, literatura den aktibitate gorenaren alboan bigarren mailako funtzioa besterik betetzen ez duen jarduera mekaniko gisa:

Itzulpena, literatur genero bezala, gaizki ikusirik baitago aspaldi honetan. Haren ugaltasunari, maxime literatura orijinal gabezia batek laguntzen badu, kultur ahuleziako sintoma bat deritzate gure literatur soziologok (Pott 1978e: 27).

Horren atzean dagoen arazoa da, Pott bandako enstet iritiz, literatura bera gauza itxi eta sakratu gisa definitu izan dela Euskal Herrian, euskal identitatea kanpoko hizkuntzen eta kulturen kutsadurarik gabe garbi mantenez duen tresna ezinbesteko gisa:

Zeren Literatura etxeko alaba guztiz birjinala bihurtu baitzaigu, familiaren ohorea ankarrean daraman dontzeila mantzagabekoa, edo, nahi baduzue, gure Gu, gure nortasun kolektiboaren ilusio zitala mantentzen digun azken Maskara, herri identitatearen mitoa haragiztatzen duen mozorroa (Pott 1978e: 27).

Pott bandak gogor kritikatu du literaturaren definizio itxi hori, hizkuntzen, literaturaren eta kulturen arteko elkarreragina baztertzen duen ikuspegi atzerakoi hori. Horixe bera salatzen dute, lehenengo kapituluan ikusi dugun

bezala, itzulpenaren teoria postmodernoek. “Cultural Studies” edo ikasketa kulturalak, esaterako, kulturak ohitura multzo koherente eta homogeen gisa definitzen dituzten teoriak kritikatzeko dituzte, gogoraziz kultura bakoitza gizatalde eta tradizio desberdinen arteko elkarreraginei esker etengabe aldatzen den prozesu dinamiko delako. Teoria postkolonialetan, era berean, literatura postkolonialak kolonizatzaileen eta kolonizatuen literaturen arteko irekitasunezko harremanei esker garatzen direla erakutsi dute, eta literatura guztiak ezinbestean direla pluralak eta hibridoak.

Horrexen berri eman nahi du, hain zuzen ere, Pott bandak artikulu honetan. Literatura homogeen eta itxiaren ideien aurka, “literaturaren balore erboluzionarioa” azpimarratzen du:

Hortik haren balore erboluzionarioa: poema orok Historia eta Lanaren aurreko Paradisuko errauts batzuk daramatza bere baitan (Pott 1978e: 27).

Zoritxarrez, ordea —jarratzen du Pott bandak artikulu honetan—, euskal kritikari, politiko, idazle eta filosofo gehienek guztiz bestelako diskurtsoa bultzatzen dute, itzulpenen beharra gutxietsi eta are kaltegarritzat jotzen:

Hona hemen funtsean dagoen argudio ezkutua: herri batek hizkuntza propioa eta berezi bat behar du, nazio bezala existitu nahi badu behintzat, eta hizkuntza bizitasunaren garantiaz literatura berrakulo bat ere. Honelako literatura berrakuloa, soberaz daude itzulpenak (Pott 1978e: 28).

Pott bandakoek, aldiz, itzulpenak beharrezkoak ez ezik, ezinbestekoak ere badirela gogoraziko dute. Esan nahi baita, literatura “original” edo “nazional” deiturikoak ere, azken batean, itzulpenez osatuta daudela, edo, behintzat, inguruko literatura eta tradizioetatik jasotako eraginez kutsatuta. Juan Goytisoloren hitzak mailegatuz, aldarrikatzen dute literatura bakoitzaren bilakaera beste literaturekiko harreman eta elkarreraginen bidez gauzatzen dela:

“Un análisis, incluso superficial, de la historia literaria nos muestra sin lugar a dudas que el impulso motor de su evolución lo constituye ante todo la interacción e influencia de unas obras sobre otras. Sería ocioso recordar que toda creación artística se produce en un ámbito cultural ya atestado de obras cuya existencia reitera, modifica o niega...”, oroiteratzen digu Juan Goytisolok. Literatur giro baten behar honek ez ditu hizkuntza eta nazional mugak errespetatzen, noski, eta etxean ogirik ezezagokoaren atea joko du (Pott 1978e: 28).

Eta adibide gisa euskal literaturaren historiako hainbat obra aipatzen dituzte, haien ustezko originaltasuna zalantzan jarriz eta auzo-literaturetako beste obra batzuekiko loturak nabarmenduz:

Hau izan da euskal literaturaren kaso, delako klasikoarena barne ere: Julio de Urquijok “Gero” eta Fray Luis de Granadaren “Guía de Pecadores”-en arteko kointzidentzia harrigarriak seinatu zituen, Tartasen “Onsa Hilceco Vidia” XVgn mendeko best-seller baten bertsio berankor bat besterik ez zen izan... eta halako zerbait gertatzen da paraliteraturaren alorrean: Zuberoko pastoraleen gaiek (Aymonen lau semeak, Roberto Deabrua, Karloman eta Hamabi Pareak, etab.), Katamiako Santa Agedak eta Brabanteko Genobebak Europako herri literaturaren altxor komunean parte importante bat osatzen dute (Pott 1978e: 28).

Eta halaxe gertatzen da ez soilik euskal literaturan, edozein literaturatan baizik:

Baina guzti honek ez du esan nahi euskal literatura kaso arraro eta lotsagarri bat denik Europako textoinguruan. Aitzitik, direlako “literatura nazional” guztiak elkarrekiko zordukan ditugu; hobe esateko, sorterri bakar batean erroturiko landareak dira: Europako tradizioan (Pott 1978e: 28).

Puntu honetara iritsirik, eta Pott bandakoek artikulua honetan esaten dutenarekin jarraitu aurretik, egokia deritzogu Sarrionandiak berak tradizioen arteko elkarreagin horretaz plazaratu dituen iritziak hemen tartekatzeari. 1985ean argitaratutako *Ni ez naiz hemengoa* saiakera moduko liburuan, esate baterako, bada “Tradizioa eta sinkretismoa” izeneko artikulua interesgarri bat. Gaur egungo kulturaren ezaugarria sinkretismoa dela gogoraraziz (“*sinkretismoa*, esan nahi da, iturri edo etorri desberdinetatik jasotako jakintzen eta usadioen elkarketa, tradizioen nahastea”), Sarrionandiak euskal tradizio eta literaturaren izaera heterogeneo, dinamiko eta irekia azpimarratzen du:

Gure euskal tradizioaz gainera, tradizio unibertsalaren oinordeko gara. Gure etxeko tradizioa bertsolariena da, esate baterako, baina bertsolaritza bezainbeste gozatzen dugu, adibidez, jazzaren erritmoa. Bertsolaritza geurea bada, jazz ere geurea, ez da geurea bakarrik bertsolaritza den moduan, baina lekua du gure baitan erbesteko beltzengandik heldu den jazzak. Axular geurea da, euskal tradizioaren zutabea, bere liburuan mende gutiko erroak zituen dotrina zekarren arren. Baina William Shakespeare ere geurea da, eta hor daude Bedita Larrakoetxearen bizkaitar translazioak, haren antzerki guzi guzienak. Geure aurrekoekiko fidelotasuna, munduarekiko ere fidelotasunez osotu behar da (Sarrionandia 2006a: 134).

Edozein kultura nahiz literaturaren eta bereziki euskarazkoaren irekitasun hori, Pott bandaren garaian euskal nortasun kolektiboarentzako arrisku gisa ikusten zena, gertaera saihestezin gisa ez ezik, alderdi positibo gisa deskribatu-ko du Sarrionandiak 1985ean:

Euskal kulturak duen gauza interesgarrietakoa irekitasun hori da, ene us-tez, tradizio desberdinak jasotzearena. Xabier Lizardi maite izanik ere, badago poeta txinatar bat, Li Po edo, hobeto esan, Li Ho, denboran eta geografian ezin urrunago egon arren, itzulpenetan irakurri arren, agian laket zaiguna. Xabier Li-zardiren eta Li Horen artean ez dago elkar ezintasunik, elkarren osagarri baitira kultura irekietan. Geureak dira Pierre Bordazarre eta Vinicius de Moraes. Guzior zale eta guzior oinordeko gara, gure kulturak guzietarik edan duelako eta guziei eutsi nahi diegulako. Alboka eta folk irlandarra adi litezke Urkiolan, eta Janis Jo-plinen diskak, eta Amancio Prada, edo Barrikada. Pinturan geureak dira bai Hie-ronimus Bosch edo Aurelio Arteta, bai Gustav Klimt edo Rafael Ruiz Balerdi (Sarrionandia 2006a: 135).

Bide beretik doaz Sarrionandiak berriki emandako elkarrizketa batean euskal kulturari buruz esandakoak:

[...] zentzu zabalean, ‘euskal kultura’ euskaldunen kultura guzia da, beste kulturekin konpartitzen dugunarekin. Euskaldunen kultura irekia eta zabala da, oro har, ez nik proposatzen dudalako baizik eta hala delako (Sarrionandia 2011a: 18).

Irekitasun horrek ziurtatuko du, hain zuzen ere, gure kulturaren eta lite-raturaren dinamismoa. Literatura bat dinamikoa ez bada, mugitzen, osatzen, aldatzen ez bada, ez du bizirik irauteko inolako aukerarik izango, eta ezin izan-go du jakintzaren eta sorkuntzaren motor izaten jarraitu:

Euskaran eta euskal kulturaren ditugu erroak, baina erroak ez dira herste-ko, baizik eta beste erro batzuetara irekitzeko. Euskaldunak izaki, mundua da gure bizitzaren eszenarioa, munduko gauzak geureak direla, gure tradizioa beste tradi-zioekin elkartu behar dela. Unibertsalitatea eta sinkretismoa, izan ere, gure aroen ezaugarri izateaz gainera, jakintzaren, kreazioaren eta libertatearen sostengu dira (Sarrionandia 2006a: 135).

Literatura bakoitza beste literaturekiko harremanei esker bizi eta garatzen dela onartzen baldin badugu, beraz, “literatura nazionalaren” ideia problema-tikoa suertatzen da, teoria postkolonialek, besteak beste, salatu izan duten le-gez. Eta literatura nazionalaren ideia edo ideal horrek atal honetan aztertzen

hasi garen Pott bandaren artikulura garamatza berriz ere, honela jarraitzen baitu artikulua “nazional” adjektiboaren esanahi ilunaz:

Hona ailegaturik, galdetu beharko genion gure buruari: ze hostiak pintatzen ditu adjetibo maradikatu hark? Ene eritziz, “nazional” kalifikatiboak ez du beste funtziorik betetzen Estatu eta herriaren arteko nahasketa, literatur mailan ere, mantentzekoa baizik. Eta, honen ondorioz, literaturgintza akademikoak deituriko nekrofago mafia horren inkisiziopean sartzekoa ere. Zentzu honetan itzulpen eskubidea defendatzea “literatura nazionala” den taifako erreguloen belauneskubideak zalantzan jartzea dateke: gauden dilemarako beste irtenbiderik ez dagoelako: apologia ala traizioa (Pott 1978e: 28-29).

Itzulpena, beraz, literatura entitate homogeneo eta itxi gisa definituz gizar-teareen kontrola mantendu nahi dutenen kontrako tresna gisa ulertzen du Pott bandak, “transgresio” bezala, eta, lurralde kolonizatueta herri-literaturak bezala, itzulpenaz baliatzen da kolonizatzaileen nahiz bere inguruko beste hainbat literaturaren lanak bereganatuz literatura propio, berri eta aldi berean ireki eta dinamiko bat sortzeko. Horrela ulertu behar da aipatu berri dugun pasartearen bukaeran eta artikulua izenburuan ageri den hitza: traizioa. Itzulpena traizio gisa definitzen du Pott bandak. Baina ez sorburu-testuaren idazlearekiko traizio gisa, itzulpenaren teoria modernoetan ulertzen den bezala, edota euskal literaturaren historiako itzulpenen hitzaurreetako etengabeko barkamen-eskaera haiek iradokitzen zuten bezala. Traizioa, lehenik eta behin, itzulpenaren epistemologia modernoari egiten zaio, sorburu-testuaren eta itzulpenaren arteko desberdintasunak akats, inperfekzio, huts edo arazo gisa hautematen dituen diskurtso atzerakoiari. Bigarrenik, traizioa modu positibo batean ulertzen da, aurreko obra bat “traizionatuz” —eta hain zuzen ere “traizio” horri esker— itzulpenak zerbait berria sortzen baitu:

Eta tradikzioa⁹⁵ tradizioa eta traizioa (traduttore, traditore) batera da. Tradizioa textoinguru historiko bat dugu, hau da, texto kate bat zeinean texto bakoitzak aurrekoa itzultzen eta traizionatzen du, zeren, nahiz eta texto orijinalaren mamari irauterazi nahi izan, ezin baitezake zerbait berri baten agerketa eragotz (Pott 1978e: 29).

Idea hauek guztiz bat datoz, besteak beste, dekonstrukzioaren teoriak aztertzean ikusi ditugun hainbat ideiarekin. Sarrionandiak berak gogorarazten

⁹⁵ Ez dirudi *tradikzio* hori *tradukzio* hitzaren ordean dagoen errata gisa ulertu behar denik, nahita bilaturiko hitz-joko gisa haizik.

digu, esaterako, Roland Barthesek “testu” hitzari buruz ematen duen definizioa: “«Testu hitza *textus* hitzetik dator, *texo* aditzaren partizipio iraganekotik, ehundu esan nahi baitu: esanahi lotuen oihala da testua.» ROLAND BARTHES” (Sarrionandia 2006a: 29). Jacques Derridaren testuetan ere, ikusi dugunez, behin eta berriro errepikatzen da testuen arteko kateaketa edota “enchaînement” delakoaren ideia, testu bakoitza, halabeharrez, beste testu batzuekin lotuta dagoela gogorarazten diguna. Tradizioa osatzen duen kateaketa edo ehun hori, Derridaren ustez, testuen arteko etengabeko transformazio-edota itzulpen-prozesua besterik ez da, non testu bakoitzak, aurreko testuarekiko arrastoak gordez baina aldi berean diferentziak sortuz, testu hori eraldatzen eta berritzen duen. Antzeko zerbait adierazi nahi izan zuen Sarrionandiak berak ere *Izuen gordelekuetan barrena* poema-liburuaren hitzaurrean esandako harekin (“[...] literatura oro literaturaren literatura da, hots, literatura berari buruzkoa, eta poema orok aurreko poemagintzan du erroa, eta nirea ere erreferentzia literarioz beterik dago”, Sarrionandia 1981: 6), edota *Hitzen ondorezan* idatzitako harekin (“Liburuek unibertsoa errepikatu egiten dute eta, aldi berean, emendatu. Tradizio literarioa ezagunaren errepikatze eta emendaketa litzateke...”, Sarrionandia 1997: 606), edota *Marginaliako* beste aipu harekin (“Obra bakoitza obra ezagunekiko erlazioan eta haiekiko erreakzioan sortuko da. Arte eta literaturaren historia, beraz, ez da *estrainiatze* eta berriztatze amai-gabeen bilakaera besterik”, Sarrionandia 1989: 112). Teoria hermeneutikoak azaltzean aipatu dugun Octavio Paz idazle eta itzultzaileak ere antzeko ideiak defendatzen dituela ikusi dugu; alegia, testu bakoitza bakarra (hots, originala) dela baina aldi berean beste testu baten itzulpena dela. Pott bandakoek ere Octavio Pazen gogoeta bat tartekatzen dute “Itzulpena eta traizioaren praktika” artikuluan beren traizioaren ideia justifikatzeko:

Honela, Octavio Pazek literatura bera traizio konsumatzen den espaziotzat salatzen du:

“En todos los casos, sin excluir aquellos en que sólo es necesario traducir el sentido, como en las obras de ciencia, la traducción implica una transformación del original. Esa transformación no es ni puede ser sino literaria, porque todas las traducciones son operaciones que se sirven de los dos modos de expresión a que, según Roman Jakobson, se reducen todos los procedimientos literarios: la metonimia y la metáfora. El texto original jamás reaparece (sería imposible) en la otra lengua; no obstante, está presente siempre porque la traducción, sin decirlo, lo menciona constantemente o lo convierte en un objeto verbal que, aunque distinto, lo reproduce: metonimia o metáfora.” (Pott 1978e: 29).

Octavio Pazen aipu horren atzetik, artikulua azken ondorioa aurkezten dute Pottekoek, argi uzteko literatura oro itzulpena, tradizioa eta traizioa dela aldi berean.

Ergotiza dezagun: literatura ergo tradizioa, zeren obra oro literatur lantze-salda batean sortzen baita, giroan dagoen materia batez baliaturik. Literatura ergo tradizioa, zeren irudi arketipikoen metamorfois amaigabe bat baitugu, edo, Eliotek berak bere *Quartetto* batean —East Coker— esan zuenez, literatura egia orijinalen estalpen eta berdeskubrimendu atengabeko bat da eta: Literaturaren izen sekretua Maia baita, munduaren aurpegi izugarri ezkutatzan duen Zapia, eta literaturgintza, hots, ahantzortasun eta memoriaren artean urratzen den kontraesan eternoa. Literatura ergo traizioa, zeren *pour donner un sens plus haut aux mots de la tribu* Printzearen Hitza gainditu behar baita eta Botereak ezarririko mugak baino haruntzago joan behar ere, barne ere Printzea, gizontxo probidentzial bat ere izan gabe, aurpegi gabeko Big Brother-a denean: Partidoa, Klasea, Herria edo beste edozein hipostasis bat. Krimenik ez dagoen idazkeran apologia agertzen baita, hain zuzen (Pott 1978e: 29).

Pasarte horretan beste ideia garrantzitsu bat iradokitzen da: hitzen zentzuaren aldakortasunarena, hain zuzen. Sarrionandiak gerora bere idazlanetan behin baino gehiagotan⁹⁶ aipatuko duen Stéphane Mallarmé idazlearen frantsesezko aipu hori tartekatuz, hitzen esanahi manipulatuaz jabetzeko eta horren aurka borrokatzeko deia egiten dute Pott bandakoek. Izan ere, itzulpenaren teoria modernoetan ziurtzat jotzen da hitzek zentzu finko edo esanahi literal bat dutela (ekar dezagun gogora Saussurek proposatutako adieraziaren eta adierazlearen arteko bereizketa⁹⁷), eta ondorioz, teoria horien arabera, itzultzaileak egin behar duen gauza bakarra hitzen benetako zentzu hori atzeman eta beste hizkuntza batera pasatzea da. Teoria postmodernoeak, baina, agerian jarri dute suposizio horren faltsutasuna, hitzen esanahia testuinguruaren, irakurlearen, garaia eta beste hainbat faktorearen arabera osatzen eta

⁹⁶ “Poetaren eginbidea, Stéphane Mallarmé hark esan zuenez, tribuaren hitzei zentzu garbiagoa ematea da. Zentzu garbiagoa, osoagoa, irekiagoa, munduaren eta kontzientziaren artean hitzen bidez erlazio aproposagoak sortzeko, gauzen eta situazioen ezagumen berri argiagoa lortzeko” (Sarrionandia 2006a: 173). “Idazlearen eginbidea tribuaren hitzei zentzu perspektiboa baina garbi eta argiago bat ematea da” (Sarrionandia 1989: 118).

⁹⁷ Sarrionandiak adieraziaren eta adierazlearen arteko desorekak aipatzen ditu hizkuntzaren literaturtasunaren bermetzat: “[...] literatura beste zerbait dela gogoratu beharko da. Ortografia, gramatika eta jakinaren gainekoak amaitzen diren puntuak hasten dela hizkuntzaren literaturtasuna. Adieraziaren eta adierazlearen arteko desorekekin, ustekabearen, okerraren eta beste hizkuntzatarata itzuli ezinaren ertzean” (Sarrionandia 2010b: 535).

aldatzen dela erakutsita. Botereak, ordea, hitzen esanahi finkoaren ideia irau-narazi du hizkuntza nahierara manipulatu eta menpekoak kontrolpean izateko (Bibliaren itzulpenekin edota herrialde kolonizatueta itzulpenekin gertatu den bezala, esaterako). Sarrionandiak berak ere “esanahi literalaren” ideia deitoratzen du *Hitzen ondoezan*, “Literaltasuna” hitzari eskainitako pasartean:

‘Esanahi literala’ esaten da.

Literaltasuna, Erdi Arotik datorren hitz-idea da. Teologoen sortu zuten seguruasko, Biblia irakurtzean Jainkoaren letretan gertaera zihurrak eta zalantzarik gabeko egia ikasi nahi zituztelako. Literaltasun hura halako agindu bat zen.

Literatura ez da zentzu horretan batere literala. Alderantziz, literaturarekin idazle eta irakurlearen arteko tratua ezkutu bat egiten da, sinesgarritasunaren tratu, hau da, testuak edo behintzat irakurketak irauten duen artean letren jokoa ametitzekoa. Beste literaltasun moeta hau, aginduz ezik, proposamen eztabaidagarri osatzen da (Sarrionandia 1997: 608).

Gaur egungo botereak ere Erdi Aroko teologoen bezala erabiltzen dute esanahi literalaren ilusioa, hizkuntzaren kontrola izateko eta, ondorioz, baita gizartearena ere:

Boteretsuak, zapaltzaileak bere lengoia ezartzen du gizartearen. Boterearen jabea da lengoia jabea. Zapalduak badute arregura edo kexua, baina beren lengoia ez du oihartzunik, eredu ofizialekiko bazter abots bat besterik ez da. Solasa boteretsuaren lege eta maneretan formulatzen da beti, halako egoera normala, naturala, errealitate soila balitz bezala, eta guziek onartu beharra dute nolabait. «Zibilizazioa eraman genuen herri atzeratueta» esaten dute herri handiek, kolonialismoaren espolio ekonomikoa eta miseria soziokulturala ezkutatzeko. Herri aberatsek herri pobreei «laguntza» ematen omen diote, hauen metropoliarekiko adeudamendua eta dependentsia isiltzen delarik [...] (Sarrionandia 1989: 117).

Botereak bere erara moldatu eta konnotazio berriz jantzi dituen hitz horiek beren “kargatik” askatzeko (“Hitzak, guri ailegatzen zaizkigun hitzak, historiaz kargaturik ematen zaizkigu, iadanik, eta zama zahar eta astun horrek harrapatzen gaitu geu ere” (Sarrionandia 2006a: 35), literaturak eta itzulpenak eskaintzen dituzten traiziorako aukera horietaz baliatzen da Sarrionandia, hainbat sorkuntza-estrategiaren bidez tratua txarra jasan duten hitzak berreskuratzeko edota hizkuntzarekin jolastuz esanahi berriak sortzeko. Jadanik aipatu dugun *Hitzen ondoeza* hiztegi moduko liburua ere helburu horrekin egina da, ondoezak jota edo gaixorik dauden hitzak birpentsatuz “hitzen, mintzairaren eta lengoia higidura eta akidura” gaingintzeko,

eta esanahi berriak sortuz eta lengoia hobetuz “gizarte erlazioen hobekuntza” lortzeko (Sarrionandia 1997: 8).

3.1.2. “GIOVANNI BOCCACCIO ETA GABRIEL ARESTI DEKAMERONE TIPI BATETAN” (1980)

Esanahi berriak sortzeko modu ezin hobea eskaintzen du, hain zuzen ere, itzulpenak. Izan ere, teoria hermeneutikoek erakutsi duten bezala, itzulpenek harreman dialogiko batean ezartzen dituzte sorburu-testua eta itzultzailearen hizkuntza eta kultura, eta, elkarreaginezko harreman horretatik, bestela sortuko ez ziratekeen esanahi eta jakintza berriak sortzen dira. Aipatu ditugu jadanik, Gabriel Arestiren itzulpengintzaz jardun dugunean, Sarrionandiak Walter Benjamin ahotan hartuta egindako gogoetak. Dena berriro ez errepi-katzearren, pasarterik garrantzitsuena besterik ez dugu erreproduzituko:

Ez, itzulpena ez da komunikazio hutsa, mezuaren aldatze hutsa. Itzulpena jenero bat da, hizkuntza biak elkarrengana hurbildu eta itzultzen deneko hizkuntzaren posibilitateak zabaldu egiten ditu (Sarrionandia 1980).

Eta horixe da, hain zuzen, Sarrionandiari interesatzen zaiona: itzulpenak hizkuntza literario berri bat sortzeko, hitzei esanahi berriak emateko, jakintza mota berriak proposatzeko eta hizkuntzen, literaturen eta kulturen arteko elkarreagina agerian jartzeko duen boterea nabarmendu eta erabiltzea.

Horrexegatik ez da arduratuko itzulpenak jatorrizkoarekiko leialak ala desleialak diren epaitzeaz. Aitortzen du Arestiren Dekameronea jatorrizkoarekiko ez dela fidelegia, baina horri esker, hain zuzen, itzulpenak “zentzu berri bat eta irakurketa berri bat posibilitatzen” dituela. Izan ere, testu bat itzultzea, Sarrionandiarentzat, testu hori berridaztea da, berriro sortzea, gauza berri baina jadanik ezagun bat eratzea, elkarri lotutako milaka testuz osatutako ehun erraldoi horri beste adabaki bat jostea. Ideia horiek garatzen ditu hain zuzen ere *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuaren hitzaurrean.

3.1.3. *IZKIRIATURIK AURKITU DITUDAN ENE POEMAK*, “HITZAURRE” (1985)

Sarrionandiaren lehen itzulpen-bilduma den liburu honen hitzaurrean orain arte ikusi ditugun ideia gehienak aipatzen dira berriro, baina modu sa-

konago edo pertsonalago batean. Ikus ditzagun banan-banan hitzaurre horretako ideiarik garrantzitsuenak.

Lehen ideia nagusia itzulpenari eman izan zaion balioari dagokio. Itzulpena, mendeetan zehar, Babelgo dorrearen ondoriozko hizkuntza-aniztasunaren “arazoa” konpontzeko ezinbestean landu beharreko jarduera gisa ikusi izan da, baina bere helburua guttiz betetzea inoiz lortzen ez duen aktibitate gisa, porrotera kondenatutako zeregin gisa:

Babelgo dorrea abandonatu zenez geroztik, hizkuntza desberdinen arteko bihurpena kulturako eta literaturako arazo teoriko inportanteenatariko bat da. Alderantzizko mila sofisma eman da translazioaren ahalmen eta ezintasunei buruz, eta dena dela argi dago erredukzio, gehitze, kentze eta aldaketan gainean alztatzen den zeragina dela (Sarrionandia 1995a: 8).

Sarrionandiak, ordea, munduko hizkuntza-aniztasuna ez du arazo bezala ulertzen, ezta itzulpena jarduera inperfektu bezala ere. Itzulpenean gertatzen diren “erredukzio, gehitze, kentze eta aldaket[ak]”, itzulpengintzaren diskurtso modernoek galera edo huts gisa interpretatu izan dituztenak, botere edo ahalmen gisa ulertzen ditu Sarrionandiak:

[...] argi dago itzultzailearentzat bere aktibitatea irakurtzeko modu paregabe bat dela. [...] itzultzailearentzat bere translazio lana testua modu sakonean ezagutzeko bidea da, itzultzailea irakurle pribilejiatua da, bere ber irakurketa bere ber izkiriatzearekin batzen duenean, testua ukitzeraino hurbildu ahal baita (Sarrionandia 1995a: 8).

Berriro ageri zaigu hemen Sarrionandiak Walter Benjamin aipatzean iradoki digun ideia, alegia, sorburu-testuaren irakurketaren eta xede-testuaren idazketaren arteko elkartzeko horretatik posibilitate berriak sortzen direla. Itzulpena, beraz, Babelgo gaitzaren “aringarria” izan beharrean, hizkuntza-aniztasunak eskaintzen duen “pribilegioa” da.

Hitzaurre honetan garatzen den bigarren ideia nagusia, lehenengoarekin lotua noski, itzulpenaren eta sorkuntzaren arteko mugaren lausotasunarena da. Itzulpengintzaren diskurtso modernoan sorkuntza originala lehen mailako jarduera sakratutzat jotzen bazen eta, itzulpena, berriz, erreproduktio-teknika sekundariotzat, Sarrionandiak maila berean jarriko ditu sorkuntza eta itzulpena, edota, beste era batera esanda, irakurketa, idazketa eta itzulpena: “Poemagintza translazioa dela esan dugu, eta izkiriatzeko translazioa dela, irakurtzea bezala. Orduan, analogiaz betiere, dena da funtsean translazioa” (Sarrionandia 1995a: 9).

Poema bat itzultzea poema hori bereganatu eta birsortzea dela azpimarratzen du Sarrionandiak: “erdal poema batzu euskaratzen hasi nintzen, eta aurkitzean poema guziz enea ez baledi ere mintzairaz aldatzean eneganatzen zen” (Sarrionandia 1995a: 8). “Eneganatu” horrekin esan nahi duena da, hain zuzen ere, beste hizkuntza batean irakurtzen dituen poema horiek bere baitako beste hainbat ideia eta esperientziaren arabera interpretatuz bere egiten dituela, eta interpretazio pertsonal horren arabera birsortzen dituela ondoren bere hizkuntzan.

Itzulpena birsorkuntza edo sorkuntza den bezala, ordea, berez sorkuntzazkotzat jotzen diren poemak ere itzulpen besterik ez direla aldarrikatuko du Sarrionandiak. Alde batetik, poetak lehendik irakurrita dituen poemak itzulpenak. Izan ere, jadanik ikusi dugunez, poetari ezinezkoa zaio tradizioari ihes egitea, Pott bandakoek Juan Goytisoloren eta Octavio Pazzen hitzak erabiliz erakutsi duten bezala. Sarrionandiak Harold Bloom dekonstrukzionistaren teoretara joko du puntu hori justifikatzeko:

Harold Bloom kritikoak proposatu duen teorizazioaren arauera, edozein poema lehenago irakurritako beste poema bati dagokio, eta edozein poetak aurreko beste poeta bati erantzunez idazten du. Poetak, irakurriak dituen poemak tratatzen ditu bere poemetan. Bere irakurketa interesatua eta apropos okerra da eta, tradizioaren ber elaborazio zein ukazio gisa, bere kreazioa ezin da errebisio besterik izan, errebisio hitza bertsio edo, zentzu zabal batean, translazio gisa konpreniturik (Sarrionandia 1995a: 8-9).

Baina beste alde batetik, “originaltzat” jotzen diren poemak, tradizio literarioko beste poema batzuen itzulpenak ez ezik, itzultzailearen baitako bizi-pen, sentimendu eta esperientzien itzulpenak ere badira, nolabait:

Poetaren baitan poema egiten ari delarik, bihurpen sakon bat gertatzen da, izkiriatzear dagoen testua hitzez hitz definitu orduko bere baitan sortu eta emendatuz joan den testu ilunago eta izkiriatu gabeko baten translazioa da. Irakurlearen baitan ere, gogoeta hari hau jarraitu eta hasierako ideiarekin loturik, irakurritako poema azken batean aldeztetik aurretik esistitzen zen, hutsune gisa behintzat (Sarrionandia 1995a: 9).

Ekar ditzagun gogora, puntu honetan, Douglas Robinsonek bere itzulpenaren poetikan proposatzen dituen ideiak. Ikusi dugun bezala, hitzek gizabako bakoitzarengan sorrarazten dituzten sentimenduak nabarmentzen ditu Robinsonek, hitzen esanahia ezinbestean subjektiboa dela gogoraraziz. Norberaren zentzumenek “desitxuratu” egiten dute hitzen ustezko esanahi “neu-

troa”, baina hain zuzen ere desitxuratze horri esker da edozein poema dinamiko, hibrido, irekia, aldakorra. Horixe da, hain zuzen, Sarrionandiaren hitzaurre honetan nabarmentzen den hirugarren ideia nagusia: edozein poema nahiz literatura-lanen izaera osatugabe eta dinamikoaren ideia. Idazleak edota itzultzaileak bere aurrekoek idatzitako poemak berrirakurri, berrinterpretatu eta birsortzen baldin baditu, poema horiek ezinbestean irekiak direlako da, alegia, milaka interpretazio eskaintzen dituztelako, eta poema horiek irakurri, interpretatu, nahiz itzuliko dituen norbaiten zain daudelako osatuak izan daitezten. Horixe iradokitzen dute, besteak beste, Walter Benjaminen, Derridaren eta de Manen “Überleben” (‘biziraupena’) edota “afterlife” (‘bizitza-ostea’) kontzeptuek.

Baina osatze hori ere erlatiboa izango da; izan ere, poema bat osatzera datorren itzulpen edo birsorkuntza, bere aldetik, autonomo bihurtuko da, eta era berean irekita egongo da ondoren etorriko diren interpretazio, itzulpen nahiz birsorkuntzetara.

Horregatik dio Sarrionandiak itzulpena eta poesiagintza asmo utopikoak direla, hutsuneak betetzen ahalegintzen diren jarduerak izanik, inoiz ez baitute lortzen hutsune guztiak betetzea, eta beti irekita gelditzen baitira.

[...] baina puntu honetan translazioaren funtzezko ezagugarrietarik bat oroitut behar da, asmo utopikoa dela halegia.

Poemagintza, bera ere utopikoa da, ez da territorio edo aurkikunde konkretu eta finkoa. Poesia, ausentzia eta oker kolektibo eta pertsonalen leku inguruetan mogitzen da, munduaren hutsuneak eta kalteak emendatzeko ahalegina delako.

Translazioa ere, poesia bezala, utopikoa da. Aktibitate legez, ezin da gauzatu, itzultitako gauzak goiz edo laster museoko gauza bilakatzen diren artean itzultze zereginak ez du lekurik, leku gabezia horren bilaketa delako (Sarrionandia 1995a: 9).

Baina hain zuzen ere poemagintzaren eta itzulpengintzaren izaera utopiko horri esker dira bi jarduerok jarduera sortzaile edo kreatiboak, inoiz guztiz osatu ahal ez izateak egiten du poema nahiz itzulpen bat ireki, dinamiko eta bizi:

Orduan, translazioa, poesia bezala, utopikoa dela esaten denean halabeharrez kreatiboa dela esan nahi da (Sarrionandia 1995a: 9).

Obren irekitasun horren oihartzunak etengabeak dira Sarrionandiaren idazlanetan. Behin baino gehiagotan aipatzen du Iurretako idazleak bere idaz-

lanak irekita uzten dituela beti, irakurleak bere irakurketa, interpretazio nahiz itzulpenaren bidez “usa eta osa” ditzan. Beste behin ere Roland Barthesi erreferentzia eginez, edozein idazlanen izaera irekia aldarrikatzen du Sarrionandiak *Ni ez naiz hemengoa* liburuko “Izkiriatzea eta dogmatismoa” atalean:

Roland Barthesi segituz, idaztea idazlana gainditzen duen aktibitatea da. Idaztea, hain zuzen, idazlan dogmatikoa irekirik uztea da, munduari irekirik, edozeini, eta jendeak idazlan hori erabil dezakeela onartzea, hau da, edonork bere gisara osa dezakeela uztea. Alde honetatik idaztea antidogmatiko da. Idazleak zabalik uzten du bere obra, beste edonork hertsu dezan, beste inork usa eta osa dezan. Idazleak proposamen hutsa egiten du, erantzuna oraindik ezagutu gabe. Idazlearen afirmazioak irakurleari eginiko galderak dira, erantzun zain (Sarrionandia 2006a: 17-18).

Hori dela eta, Sarrionandiaren idazlan guztiak galdera modukoak dira, irakurleak bere nahierara erantzun edo osatu behar dituen galderak:

Ni ere, esaten ari naizenean galdetzen ari naiz. Ene gogoetak paperera lotzen ditut eta, aldi berean, aske uzten. Ene gisara ordenatu ditut letrak, baina letra arteak zeuk antola ditzazula eskatzera nator.

Ez uste izan ene izkribuetan, zeuk zerbait utzi gabe, ezer aurkituko duzunik. Nik buztinezko ontzi bat ematen dizut, zeu zara bete behar duzuna (Sarrionandia 2006a: 18).

Roland Barthesen ideien antzekoak proposatzen zituen, puntu honi dagokionez, Umberto Eco idazleak ere, Sarrionandiak bere *Hitzen ondoezako* “Irekitasuna” atalean aipatzen duen legez:

Literaturari dagokionez, Umberto Ekok 1962 urteko *L’Opera aperta* liburuan teoria interesgarria formulatu zuen: obra irekia, irakurleak zentzuz kargatzen duen idazlanarena. Autorearen lana berez irekia, anbigua, polisemikoa da. Irakurleak zarratzen du, irakurketa ere kreaio eta osaketa bat delako (Sarrionandia 1997: 489).

Eta ideia berbera behin eta berriro errepikatuko du Sarrionandiak liburu bereko beste hainbat ataletan. “Idatzitakoa” honela definitzen du, esate baterako: “Idatzitako edozer idatzi gabeko beste zeozeren zirriborro bat besterik ez da” (Sarrionandia 1997: 434). “Irakurraldiak” atalean, era berean, liburuen izaera aldakorren ideia errepikatzen du:

Liburuak artefakto aldakorrek dira, denborarekin, irakurleekin. Baliozko liburuek behintzat ez dute mezu konkretu bakarrik, alde ugariatukoak eta erabilgarriak dira. [...].

Hala gertatzen da liburu iraunkor guziekin, irakurketa berrizatu egiten da, obra bera aldatzen ez bada, irakurleen mundua aldatzen delako (Sarrionandia 1997: 482).

2010ean argitaratutako *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako* ipuin-liburuak ere izenburutik bertatik iradokitzen du edozein idazlanen izaera osatugabearen ideia: irakurketak ematen dio idazlanari zentzua, irakurleak osatzen du idazleak osatu gabe utzitakoa. Liburuak erabiltzeko proposamen didaktikoan honela mintzo da Sarrionandia:

Ederra da gauzak partekatzea, gauza batzuk elkarrekin baizik ezin dira gartu, eta horietakoa da idaztea. Idazketa irakurketekin osatzen eta biderkatzen da. Irakurketa bakoitza ber idazketa antzeko zerbait da. Hagatik, ez dut uste testua behin argitaratuz gero amaitutzat eman behar denik, orduantxe hasten da testu horren bizitza, animalia biologikoena jaiotzean hasten den bezala.

Irakurketa okerrak eta gehiegizko interpretazioak ohikoak diren arren, oker konprenitzeko arriskuekin ere, garrantzizkoak dira testuaren malgutasuna eta irakurlearen askatasuna (Sarrionandia 2010a: 6).

Beste horrenbeste esan daiteke 2010ean argia ikusi zuen bigarren liburuaz ere: oraingoan ere izenburuan bertan dago galdera, galdera-ikur eta guzti (*Moroak gara behelaino artean?*), eta liburuaren *leit motivetako* bat da liburuaren irekitasuna eta irakurlearen askatasun aktiboa, horri buruz baitihardu hala “Atalaurrea”-n nola liburuko azken lerroetan:

Idatzita dago. Baina ez dizut *mektub* esango, moroek esaten duten zentzuarekin. Idatzitakoa ere emenda daiteke. Idatz dezakezu gainean. Dena egiteko dago oraindik (Sarrionandia 2010b: 15).

Ez dago ezer idatzita. [...] Gure hitzak kristal behelainoz lurrunduak dira, etxe erorietako adreilu zaharrak. Garbitu eta antolatu beharrekoak.

Ez dago ezer idatzita. Iragana ere ez dago idatzita. Etorkizuna ez dagoen bezala. Hizkuntza dugula uste dugunean, gramatika dugu soilik, eta hiztegiak. Eta esperantzaren gramatika. Eta poesia, baina ez legoke poesiarik hitzak esan nahi dutenarekin ados baletoz.

[...] Liburu hau ere idatzi gabe dago. Ez larritu, ez duzu berriz leitu beharrik. Esan nahi dut, hau ere ez dela testamentua, ez ezertarako agindua. Begira-

da libre altxa dezakezula, eskuak hutsik eta aske dituzula ikusteko (Sarrionandia 2010b: 540-541).

Laburtuz, beraz, esan dezakegu Sarrionandiarentzat edozein literatura-lan irekita utzitako galdera moduko bat dela, irakurlearen interpretazioaren beharra duena inolako zentzurik izango badu. Eta edozein itzulpen, azken batean, literatura-lan ireki bati emango zaion erantzun posibleetako bat besterik ez da izango, beste mila interpretazio edo itzulpen posible egon litezkeela onartzen duena eta aldi berean beste itzulpen edo irakurketa edo birsorkuntza batzuen zain geldituko dena, etengabe osatua eta birmoldatua izan dadin.

3.1.4. *BOST IDAZLE HASIER ETXEBERRIAREKIN BERBETAN, “JOSEBA SARRIONANDIA” (2002)*

Sarrionandiak itzulpengintzaz esplizituki diharduen beste leku bat Hasier Etxeberriak egindako elkarrizketa genuke. 2002ko liburuan biltzen den elkarrizketa horretan itzulpenaren inguruko alderdi praktikoagoak aipatzen diren arren, beharrezkoa iruditu zaigu iritzi horiek hemen tartekatzea, Sarrionandiak euskal itzulpenaren behar eta arriskuez zer pentsatzen duen ikusteko egoiak izan daitezkeelakoan.

Interesgarria da Sarrionandiak hizkuntzekiko zaletasunaren inguruan dioena. Hasiera batean dio “espainieraren bitartekaritza gainetik kentzeko” ahalegintzen dela beste literaturetako obrak jatorrizko hizkuntzetan irakurtzen, eta ez espainieraz. “Espainiaren bitartekaritza orokorra onartuz gero, oso absorbentea da eta, euskara espainieraren dialekto bihurtuko da” (Sarrionandia 2002: 305). Jarraian, hizkuntzen arteko berdintasunaz eta errespetuaz dihardu, beste hizkuntzak ikastea norbere hizkuntza aldarrikatzekeko modu bat dela gogoraraziz:

Espainiera naturaltasunez onartu behar da, baina beste hizkuntzak ere bai. Beste hizkuntzak ikastea norbere hizkuntza erreibindikatzeko modu on bat da gainera, munduko hizkuntzak ugari eta denak baliagarriak direla ametztea askatasuna eta igualitarismoa da (Sarrionandia 2002: 306).

Berriro ageri zaigu hemen lehenago agertu zaigun ideietako bat, alegia, hizkuntza-aniztasuna ez dela arazo edo gaitz bat, aberastasun- eta askatasun-iturri baikik. Itzulpenaren teoria modernoek itzulpena hizkuntza-aniztasunari aurre egiteko prozedura beharrezko gisa ikusten bazuten, Sarrionandiak guztiz

bestelako balioa emango dio itzulpenari. Itzulpena ez da, Arestiren Dekameronari buruzko artikulu hartan aipatzen zuen bezala, “hizkuntza orijinala entelegatzen ez dutenek irakurri ahal dezaten bakarrik egiten” (Sarrionandia 1980), hizkuntza desberdinen arteko elkarreraginek sorrarazten dituzten aukera berriak azaleratzeko baizik. Hori dela eta, itzulpena eta hizkuntza-aniztasuna ez ditu elkarren aurka jartzen, itzulpenaren teoria modernoek bezala. Aitzitik, Sarrionandiak beste hizkuntzak onartu eta ikastea hizkuntzen arteko harreman justu eta errespetuzko baten baldintzat jotzen du.

Gauza bera azpimarratzen du elkarrizketaren beste zati batean, Etxeberriak itzulpenaren garrantziaz galdetzen dionean:

Hizkuntzen arteko erlazioa ez da isolazio eta gatazkakoa izan behar eta kulturen arteko harremana itzulpenen bidez egiten da hein handi batean. Gure hizkuntzarentzat ere itzulpena oso inportantea da, batez ere erdaretatik euskarara itzultzea, jakintza edo literatura gehiena beste hizkuntzetan argitaratzen da... (Sarrionandia 2002: 332).

Euskaratik beste hizkuntzetara itzultzea ere beharrezkoa iruditzen zaio Sarrionandiari, baina puntu horretan arrisku batez ohartarazten du:

Euskaratik erdaretara itzultzeko beharra ere azaldu beharrik ez dago, apur bat izango dugulako besteei eskaintzeko modukoa, eta pozgarria da euskarazko liburuek ingelesera edo grezierarako itzulpena merezi izatea. Hala ere, utzi egidazu erreparo bat egiten, itzulpen gehienak espainolera egiten dira, eta ez dakit ez ote dugun morrontza bat hor Espainiarekiko, ez egiten diren itzulpenengatik, baina bai baldintza orokorrenengatik. [...]. Euskarazko kalitateko literatura guztia espainierara berehala itzultzen bada, azken urteotan egiten ari den bezala, euskal idazleak bitartekaritza espainiera hartzen badu beti, euskal literatura espainolaren apendizetateko tendentzia indartuko dugula iruditzen zait, eta orduan ez dakit berez euskarazkoa den biblioteka horniduratarako edo zertarako geratuko den (Sarrionandia 2002: 333).

Izan ere, itzulpenaren teoria postmodernoek literatura nazionalen mitoa zalantzan jarri eta hizkuntzen arteko mugen lausotasuna agerian jarri badute ere, hizkuntzen arteko desberdintasunak eta hizkuntza bakoitzaren ezaugarriak ezagutu eta errespetatu beharra azpimarratu dute, gogoraraziz hizkuntzen arteko botere-harreman asimetrikoak kontuan ez hartzeak homogeneizazio kultural eta linguistikora eramanez dezakeela mundua eta, jakina, beti ere hizkuntza hegemonikoen mesedetan eta hizkuntza txiki edo gutxituen kalte-

tan. Ildo beretik mintzo zaigu Sarrionandia euskararen eta gaztelaniaren arteko harremanen inguruan:

[...] ezin gara injenuoak izan, euskararen eta espainieraren arteko harremanak ezin daitezke izan simetrikoak eta berdintasunezkoak, kultura espainolaren aldamenen gu periferikoak eta marjinalak garelako. Espainia lagun lar absorbentea da. Gu herri txikia gara, hizkuntza txikia, luzarora begira jokatu behar dugu eta mundu nahastu honetan euskal literaturaren identitatea babesteko moduan. Eta pertsonaren aberria berak nahi duena izango da, baina literaturaren aberria hizkuntza da. Eta politikan ez dakit herri independentzia lortuko dugun, baina euskal literaturak behintzat uste dut gorputz autonomo batekin eta beste hizkuntzen artera boz propio batzuekin azaldu beharko lukeela (Sarrionandia 2002: 333).

Itzulpenaren behar eta arriskuekin jarraituz, Hasier Etxeberriak itzulpena nork egin beharko lukeen galdetzen dio Sarrionandiari, obraren idazleak berak ala beste norbaitek.⁹⁸ Sarrionandia ez da ez bataren ez bestearen alde agertzen; izan ere, beste behin ere gogoraraziko digu itzultzea berriro idaztea dela, eta, beraz, testu bat bere autoreak nahiz beste itzultzaile-idazle batek itzultzen duenean, halaberrez beste testu bat sortuko dela:

Itzultzea berriro idaztea da, eta normala da autoreak egitea beste hizkuntza menderatzen duenean eta astia duenean. Bernardo Atxagak oso ondo itzuli ditu bere gauzak espainierara. Horretan, erreferentzia diren idazle asko dago

⁹⁸ Euskal idazle askok beren lanak gaztelaniara itzultzeko sentitzen duten beharra euskal literaturaren autonomia faltaren seinaleztat jotzen du Sarrionandiak bere azken saiakera liburuan, Hasier Etxeberriari Espainiaren joera “absorbentea” aipatzean iradokitakoaren ildo beretik: “Espainian gaztelerazko idazlea aurkezten denean «idazle» da, euskarazko idazlea «euskarazko» da, ahuntz airearekin. Marka hori ezabatzeko, aparteko galanteo intelektual, ideologiko eta protokolozkoak egin behar izango ditu, Espainian behintzat, Munduko Literaturaren enuntziario lekuetara heltzeko. Gainera, gazteleratu egin behar izango du, eta benetako itzulpena egin nahi badu, berak egin beharko du. «Idazle» moduan besteak baino gutxiago ez dela frogatzeko. Hala, gaztelerazko idazle bihurtuko da bide batez. / Hori, euskal literaturaren normalitate eta arrakastaren frogatzat har daiteke. Baina ez da falta hor kulturaren eta subkulturaren arteko botere erlazioa, euskal literaturaren autonomia faltaren adierazlea” (Sarrionandia 2010b: 535). Kritikak kritika, eta Sarrionandiak bere liburuak gaztelaniara itzultzeko ohiturarik ez duen arren, aipa ditzagun hemen “Durango 1937” eta “Pelea de carneros” ipuinak, Sarrionandiak berak gaztelaniara itzuliak eta Mari Jose Olaziregiren *Pintxos* antologian argitaratuak (“Durango 1937” eta “Ahari topeka”, hurrenez hurren, biak *Ez gara geure baitakoak* liburuan argitaratuak), eta “La asamblea” ipuina (“Biltzarra”, *Han izanik hona naiz*), Sarrionandiak gaztelaniaratua eta aurreko bi ipuinekin batera *Transcript* aldizkari elektronikokoaren 20. zenbakian argitaratua.

munduan, Vladimir Nabokov, Samuel Beckett, Álvaro Cunqueiro eta haloak, Gabriel Arestik ere oso ondo idatzi zuen bere poesiaren espainierazko bertsioa.

Beste hizkuntza menderatzen ez duzunean, orduan koautore baten zain geratu behar duzu, baina tira, Edgar Allan Poe esate baterako pozik egongo da Baltimoren, bere hilobian, frantsesera Charles Baudelairek, espainierara Julio Cortázarrek eta euskarara Jon Mirandek egin dituzten bere testuen itzulpenen berri izan badu (Sarrionandia 2002: 334).

Sarrionandia ez du kezkatzen itzultzaileak jatorrizkoarekiko egin ditzakeen aldaketek, eta ez du beharrezkotzat jotzen itzulpena autoreak berak egitea. Ez du sinesten, itzulpenaren teoria modernoek defendatu izan duten bezala, testu batek zentzu finkoa duenik, hain zuzen ere autoreak eman dion zentzua. Aitzitik, zentzua beste faktore askoren menpe dagoen zerbait da, eta zentzu horren eraketan autoreari ez dagokio parte txiki bat besterik. Hori dela eta, itzulpena autoreak berak egiten duenean ere, zentzua aldatu egiten da ezinbestean, testua bere testuingurutik atera eta beste testuinguru batean ezartzen delako.

Azkenik, elkarrizketa honetan bada itzulpenaren inguruko beste aipamen interesgarri bat, aurreko gutzia berrestera letorkeena. Sarrionandiak *Itzuli ezinak* izeneko poema-liburu bat osatzen ari dela aipatzen du.⁹⁹ Izenburu horren esanahiaz galdetuta, honako hau erantzuten du:

Tituluan esanahi biren arteko jokoa egiten da, etxera itzuli ezin duen jendea da alde batetik eta beste hizkuntzara itzuli ezineko testuak dira bestetik (Sarrionandia 2002: 321).

Beste hizkuntzetara itzuli ezinekoak direla esatean, Sarrionandiak askotan errepikatu izan duen ideia iradokitzen du berriz ere, alegia, testu bat itzultzean beste testu berri bat sortzen dela:

[...] testu literarioa literala da. Testu literario bat beste hizkuntza batera itzultzen duzunean, gai berberari buruzko testu bi izango dituzu (Sarrionandia 2002: 321).

⁹⁹ *Argia* aldizkarian 2005ean emandako elkarrizketa batean ere gauza bera aitoritzen duen arren ("Eta orain *Itzuli ezinak* deitzen den liburu bat ari naiz amaitzen", Sarrionandia 2005), orain artean ez du Sarrionandiak izenburu horrekin poema-libururik argitaratu.

3.1.5. MOROAK GARA BEHELAINO ARTEAN?, “LITERATURA TXIKIAK ETA MUNDUKO LITERATURA” (2010)

Azkenik, Sarrionandiak askotarikoak bilduz osatu duen *Moroak gara behelaino artean?* saiakera-liburuan ere plazaratu ditu itzulpenari buruzko hainbat gogoeta, “Literatura txikiak eta munduko literatura” izenburuko 29. atalean.

Atal horretan, lehenik eta behin, literatura txikien inguruko gogoeta egiten du. Alemana bezalako hizkuntza handi batean idatzi arren literatura txikia egin zuen Franz Kafkaren aipu batzuk tartekatuz, eta euskaraz, gaelikoz nahiz beste hizkuntza minorizatu batzuetan idatzi duten idazleak aipatuz, Sarrionandiak gogorarazten du “[i]dazleak literatura txikian idazten eta egiten duena politikoa” dela berez, eta herri osoari dagokiola (Sarrionandia 2010b: 433).

Ondoren, euskal literaturaren historia erreparatzeari ekiten dio, eta euskara hizkuntza “subalternoa” gisa definitzen du, Gayatri Spivakek “Can the Subaltern Speak?” artikuluan esaten duenari jarraituz. Lehen kapituluan ikusi dugunez, Spivakek ezezkoarekin erantzuten dio artikulua izenburutzat proposatu duen galderari, alegia, ez dela posible subalternoen edo kolonizatuaren ahotsa bere horretan entzunaraztea, mintzatu direnak herri menperatu horien menperatzaileak izan direlako, edota menperatuen artetik “boterearen nolabaiteko «baimena» zutenak” bakarrik (Sarrionandia 2010b: 435). Horixe bera gertatu bide da euskal literaturan oraintsu arte: “Literaturaren errepresentaziotik ausente egotetik dator euskal literatura, euskara hizkuntza subalternoa izan delako menderik mende” (Sarrionandia 2010b: 434). Joanes Leizarragak eta Axularrek, besteak beste, menperatuen hizkuntzan idatzi zuten, bai, baina menperatzailearen ideologiari men eginez. Euskaldunen gehien-
goak bizi eta pentsatzen zuenaren errepresentaziorik ez zaigu iritsi:

Euskaldun gehienek —sorgin, marinel, laborari eta artzain behelaino artean bizi zirenek— ez zuten libururik idazteko inolako ahalmenik. Euskara jende azpiratu horren hizkuntza zen, besterik ez zutelako, baina horiek enuntziazio lekurik ez zuten. Erregearen itzalpean bizi ziren nobleak, burgesak, apezak nagusien hizkuntzan mintzo ziren ordurako.

Euskaraz, herri xehearentzat, agintarien ideologia teologiko-politikoaren itzulpena baizik ez zuten egin (Sarrionandia 2010b: 443).

Horixe izan da, beraz, Sarrionandiaren ustez, euskal literaturaren paradoxa. Herri subalternoa ez du apenas bere hizkuntzan idatzi, eta, idatzi due-

nean, menperatzailearen ideologia bereganatuz egin du, subalterno izateari utziz, alegia:

Subalternoak ez du enuntziatio lekurik, enuntziatio lekua topatzen duen neurrian uzten baitio subalterno izateari. Enuntziatio leku bat lortu dutenetik, hizkuntzaren arabera, Munduko Literaturako idazleak dira (Sarrionandia 2010b: 445).

Munduko literatura zer den definitzeari lotzen zaio ondoren Sarrionandia. Johann Wolfgang Goethek proposatutako *Weltliteratur* edo munduko literaturaren kontzeptua aipatzen du lehenik, lehenengo kapituluan jada aipatu duguna, gogoraraziz Goetherentzat munduko literatura munduko hizkuntzen eta literaturen arteko harreman eta elkarreragin orekatuez osatutako sarea zela. Gerora, ordea, inperialismo kolonialistaren etorrerarekin, literaturen artean ere nagusi / esklabo gisako harremanak sortu ziren, eta herri inperialisten literaturek baizik ez zuten lortu gaur egun munduko literatura deitzen den horretan sartzea:

Kulturaren atek ez dira denentzat berdin irekiak munduan, botere politiko eta ekonomikoen mendean dago kultur produktuen mobilitate eta merkaturak. Kultura txikiak, errepresentazioan funtzio subordinatua izateaz aparte, ez dira berez eta osorik ordezkatzeko (Sarrionandia 2010b: 448).

Halere, literatura txikiak munduko literaturaren errepresentazio horretan parte hartzearen beharra azpimarratzen du, literaturen arteko harreman justuago eta orekatuago bat lortze aldera:

Munduko Literatura berplanteatu egin beharko da, askatasunaren eta berdintasunaren alde, ez eurozentrikoa ez nazionalista izango ez den beste artikulazio batekin, munduan gertatzen diren botere erlazioen imitazioan molda ez dadin. Hori utopia da oraindik ere, baina parte hartuz besterik ezin da lortu (Sarrionandia 2010b: 448).

Horregatik proposatuko du Sarrionandiak munduko literaturaren beste definizio bat, literatura txikiak ere kontuan hartuko dituen, eta horretarako David Damrosch-en definizio hirukoitzaz baliatuko da:

1) Munduko Literatura «literatura nazionalen errefrakzio eliptikoa da»; 2) Munduko Literatura, «itzulpenean hobetzen dena da»; 3) Munduko Literatura «ez da testuen kanon eman bat, baizik eta irakurtzeko beste modu bat, bestelako

elkartasun inpartzial bat eskatzen duena gure lekuaz eta sasoiak bestaldeko mundeekin» (Damrosch, *apud* Sarrionandia 2010b: 448-449).

“Errefrakzio” hitzak “uhin batek ingurune batetik bestera igarotzean duen nora-bide aldaketa” esan nahi du (Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa, *apud* Sarrionandia 2010b: 667). Literaturaren kasuan, literatura-lan batek kultura eta / edo hizkuntza batetik bestera igarotzean jasaten duen transformazioa litzateke errefrakzioa. Kultura edo hizkuntza berrian, jatorrizko lanaren esanahia eraldatua, errefraktatua edo manipulatua gertatzen da ezinbestean.¹⁰⁰ Eta errefrakzio hori eliptikoa dela esatean, badirudi bi gauza iradoki nahi dituela Damroschek, bat elipsearekin lotua, eta bestea elipsiarekin. Elipsearen figura erabiltzen du Damroschek munduko literaturako lanak deskribatzeko. Izan ere, munduko literaturako lan bakoitza bi kulturaren arteko negoziazioaren gunea da, lan hori sortu den kulturako tradizio nazionalaren eta kultura har-tzailearen balioen arteko negoziazioa gertatzen den lekua:

World literature is thus always as much about the host culture’s values and needs as it is about a work’s source culture; hence it is a double refraction, one that can be described through the figure of the ellipse, with the source and host cultures providing the two foci that generate the elliptical space within which a work lives as world literature, connected to both cultures, circumscribed by neither alone (Damrosch 2003: 283).

Bestetik, Damroschek zuzenki aipatzen ez badu ere, errefrakzio eliptikoa-ren ideia elipsiarekin lotuta ere uler daiteke, Sarrionandiak berak iradokitzen duen bezala. Izan ere, literatura-lan baten itzulpen, transformazio edo errefrakzioan, beti gelditzen dira hainbat gauza isilpean, konnotazio edo esanahi batzuk galdu egiten dira, beste batzuk irabazten diren modu berean. Eta elip-si edo isilune horiek oso adierazgarriak dira; izan ere, hutsune horietan “isla-

¹⁰⁰ Gogora dezagun, 1.3.2.1.3. puntuan aipatu dugun bezala, André Lefeverek itzulpe-na edo bestelako edozein berridazketa mota definitzeko ere “errefrakzio” hitza erabili izan duela. Itzulpena “erreflexio” edota jatorrizkoaren isla gisa ulertu beharrean, itzulpenaren teo-ria modernoetan egin ohi zen bezala, Lefeverek “errefrakzio” gisa ulertzen du edozein itzul-pen edo berridazketa. “First of all, let us accept that refractions –the adaptation of a work of literature to a different audience, with the intention of influencing the way in which that audience reads the work– have always been with us in literature. Refractions are to be found in the obvious form of translation, or in the less obvious forms of criticism [...], commentary, historiography [...], teaching, the collection of works in anthologies, the production of plays” (Lefevere 1982: 235).

tzen dira botere erlazioak [...], isildu beharrekoak azaltzen direnean” (Sarrionandia 2010b: 449).¹⁰¹

Horrek Damroschek proposatzen duen bigarren definizioa garamatza. Ikusi dugunez, literatura-lanek zerbait galdu ohi dute hizkuntza batetik beste batera pasatzean, baina baita zerbait irabazi ere. Irabazitakoa galdutakoa baino gehiago denean bihur daiteke literatura-lan bat munduko literatura: “literature stays within its national or regional tradition when it usually loses in translation, whereas works become world literature when they gain on balance in translation” (Damrosch 2003: 289).

Azkenik, hirugarren definizioaren arabera, irakurtzeko beste modu bat litzateke munduko literatura: literatura-lanek kultura batetik beste batera igarotzean aldaketak jasan dituztela jakinik irakurtzea; lan batzuk itzulpenean baizik ezin ditugula irakurri jakitea, eta itzultzailearen esku-hartze saihestezina onartzea. Ezinezkoa da munduko literatura guztia zuzenean eta bere horretan bereganatzea, eta lan gehienak itzulpenean irakurri beharko ditugu, baina hala ere, “ezagutza urrunetikakoa izango den arren, akaso ez dago urruneko jendea ezagutzeko modu hoberik literatura baino. Haien literatura, itzulia bada ere” (Sarrionandia 2010b: 450). Munduko literatura itzulpenean irakurtzeak, gainera, zuzeneko irakurketak eskaintzen ez dituen beste hainbat ezagutza transmiti ditzake:

As we triangulate between our own present situation and the enormous variety of other cultures around and before us, we won't see works of world literature so fully enshrined within their cultural context as we do when reading those works within their own traditions, but a degree of distance from the home tradition can help us to appreciate the ways in which a literary work reaches out and away from its point of origin. If we then observe ourselves seeing the work's abstraction from its origins, we gain a new vantage point on our own moment. [...] we may actually experience our customary horizon being set askew, under the influence of works whose foreignness remains fully in view (Damrosch 2003: 300).

Gogoeta hauekin, Sarrionandiak aurretik itzulpenari buruz plazaratutako zenbait ideia berresten dituela dirudi. Lehenik eta behin, munduko literatura “errefrakzio” gisa definitzean, literatura-lan bat kultura batetik beste batera

¹⁰¹ Lehen kapituluan ikusi dugunez, Spivakek bezala Derridak, Foucaultek eta beste hainbat dekonstrukzionistak ere itzulpenetan gertatutako isilune eta hutsuneak sintomatikoki irakurtzearen beharra aldarrikatzen dute testu baten zentzua ulertu edo osatzeko.

igarotzean nahitaez transformatzen dela onartzen du, eta, ondorioz, lan bat hizkuntza batetik beste batera itzultzean lan hori desitxuratu, berridatzi edo birsortu egiten dela. Ondorio berberera iristen da subalternoek enuntziatio-lekurik ez dutela esatean. Subalternoen literatura hizkuntza handi batean eman nahi denean galdu egiten dira menperatuen literaturaren eta hizkuntzaren hainbat ezaugarri, hain zuzen ere, itzulpenak ez direlako inoiz jatorrizko lanen isla gardenak, zenbait gauza galduz eta beste zenbait irabaziz bizi berria hartzen duten berridazketa edo birsorkuntzak baizik.

Dena den, galera edo desitxuratze horiek gorabehera, Sarrionandiak saihestezintzat eta are beharrezkotzat jotzen du literaturen arteko zirkulazio hori, etengabe mugimenduan egoteak bermatzen baitu edozein literatura-lanen biziraupena: “works of world literature take on a new life as they move into the world at large” (Damrosch 2003: 24). Baina zirkulazio horretan literatura txikiak literatura handien gehiegikerien¹⁰² biktima gerta ez daitezen, irakurtzeko modu berri bat proposatzen du, Damroschen hirugarren definizioarekin bat eginez. Irakurleak, munduko literatura irakurtzean, bere eskuetara iritsi arte literatura-lan bakoitzak egindako bidez jakitun izan behar du. Itzulzailearen esku-hartzea onartu behar du, itzulpenean gertatutako galera, aldaketa edota gehikuntzez kontziente izan, eta bidean gertatutako isiltze edo elipsiak irakurtzen edo hautematen jakin:

To use translations means to accept the reality that texts come to us mediated by existing frameworks of reception and interpretation. We necessarily work in collaboration with others who have shaped what we read and how we read it (Damrosch 2003: 295).

Horrela ulertu behar dira Sarrionandiak bere itzulpenei gehitu ohi dizkien oharra, non irakurleari jatorrizko lanaren edo autorearen berri ematen baition, irakurtzen ari dena itzulpena dela argi uler dezan, eta, literatura txikien kasuan batez ere, literatura eta hizkuntza horiei buruzko datu batzuk izan ditzan.

Sarrionandiak literatura txikiak itzultzeko duen joera ere bat etorriko litzateke ikusi berri ditugun hausnarketekin. Munduko literatura baldin bada

¹⁰² Gehiegikeria horiek salatu izan dituzte, besteak beste, Lawrence Venutik, Gayatri Spivak eta Tejaswini Niranjana: europar kolonietako hizkuntzetan idatzitako literaturak menderatzaileen hizkuntzetara itzultzean guztiz ezabatu dira maiz kolonietako literaturen balioak, menderatzaileen balioetara guztiz egokituta.

beren jatorrizko kulturatik kanpo mugitzen diren literatura-lanen multzoa,¹⁰³ eta Sarrionandiak munduko literatura ez-eurozentriko eta ez-nazionalista baten aldeko aldarria egiten badu, ez da harritzekoa izango europar edo mendebaldar kanonetik baztertutako literaturak itzultzea. Literatura txiki horietako lanak beren jatorrizko kulturetatik atera eta euskal irakurleei euskaraz eskainitzean, zirkulazioan jartzen ditu lan horiek, eta munduko literatura bihurtzen.

Aurkakoa, euskal literaturako lanak beste hizkuntza batzuetara itzuli eta munduko literaturaren sarean sartzea, beste batzuen esku uzten du Sarrionandiak. Ondo ikusten du euskarazko lanak beste hizkuntza batzuetara itzultzea, baina eszeptiko samar agertu izan da euskaraz idazten den guztia automatikoki gaztelaniara itzultzeko joeraren aurrean, 3.1.4. atalean tartekatu ditugun aipuetan argi adierazten duen bezala. Izan ere, gaztelaniaren eta euskararen arteko harremanak ez dira berdintasunezkoak,¹⁰⁴ eta euskal literatura guztia gaztelaniara itzuliko balitz, euskaldun subalternoek beren hizkuntzak ematen dien enuntziazio-leku berezia galduko lukete.¹⁰⁵

Bera euskaraz idazteari lotzen zaio, itzulpenaren eta bestelako jokoaren bidez beste literaturak euskal tradizioarekin uztartzeari, sorkuntzaren eta itzulpenaren arteko mugen gainetik jolas eginez munduko literatura euskaldunei eskainiz eta euskal literatura mundutartuz.

Literatura eta itzulpena estuki lotuta daude, beraz, Sarrionandiaren goietan. Atal honetan argi erakusten duenez, munduko literatura ezin da itzul-

¹⁰³ “I take world literature to encompass all literary works that circulate beyond their culture of origin, either in translation or in their original language” (Damrosch 2003: 4).

¹⁰⁴ “Ideia faltsu bat da, nire ustez, euskara gaztelarekin edo frantsesarekin homologablea dela pentsatzea. [...] gorreria eta amnesia litzateke diglosiak eta benetako hierarkiak atzundu eta euskarak gaztelarak edo frantsesak duen gaitasuna eta funtzioa duela uste izatea” (Sarrionandia 2010b: 534).

¹⁰⁵ Ikuspegi hori nahiko garbi islatzen dute Sarrionandiaren beraren obren itzulpenek: liburuak bakarrik kontuan hartuta, obra bakarra du gaztelaniara itzulita, *No soy de aquí* (Hiru, 1992, Bego Montoriok itzulia, *Ni ez naiz bemengoaren* itzulpena); beste hizkuntza batzuetan, ordea, badira itzulpen gehiago: katalanez *Narracions* (Pòrtic, 1986, Josep Daurellak itzulia, *Narrazioak* itzulpena); alemanez *Von nirgendwo und überall* (Verlag Libertäre Assoziation, 1995, Ruth Baierrek itzulia, *Ni ez naiz bemengoaren* itzulpena), eta *Der gefrorene Freund* (Blumenbar Verlag, 2007, Petra Elserrek eta Raul Zelikek itzulia, *Lagun izoztuaren* itzulpena); galizieraz *Choiva e tamboril* eta *Cartas a Ainhoa* (argitaragabeak, Tereixa Hernandezek itzuliak, *Atabala eta euriaren* eta *Ainhoari gutunak* itzulpenak, hurrenez hurren); italieraz *Lo scrittore e la sua ombra* (Giovanni Tranchida, 2002, Roberta Gozzik itzulia, *Narrazioak* itzulpena); eta euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez argitaratutako *Hau da ene ondasun guzia* (Txalaparta & Esan Ozenki, 1999).

penik gabe ulertu; hizkuntza bakoitzean idatzitako lanak itzuliko ez balira, ez legoke munduko literaturarik: “Munduko Literatura «itzulpen eremu» bat da” (Sarrionandia 2010b: 449). David Damroschen definizio hirukoitzean ere berebiziko garrantzia du itzulpenak; horixe da, hain zuzen, definizioaren puntu bakoitzaren ardatza: munduko literatura literatura nazionalen errefrakzio edo *itzulpena* dela baiesten du lehenik; ondoren, munduko literatura *itzulpenean* hobetzen dena dela; azkenik, munduko literatura irakurtzeko beste modu bat dela aldarrikatzen du, eta “*distant reading*” edo “irakurketa urruna” delakoaren bidez irakurri behar direla munduko literaturako lan gehienak, *itzulpenean*, alegia (Sarrionandia 2010b: 450). Itzultzaileek, beraz, erantzukizun handia dute munduko literaturaren osieran, idazleek berek adina, edo are handiagoa: itzultzaileek beren hizkuntzara zer eta nola ekartzen duten, horren arabera taxutuko baita hizkuntza horretako irakurleen “munduko literatura”.

3.2. SARRIONANDIAREN ITZULPEN-PRAKTIKA

3.2.1. ITZULPENAREN BEHARRA

Itzulpena, Sarrionandiarentzat, literatura egiteko beste modu bat baizik ez da. Bai bera, baita Pott banda osatzen zuten beste idazleak ere, itzulpenaz baliatu ziren, besteak beste, 1970eko hamarkadaren bukaeran euskal literatura bizitzen ari zen “impasse” egoera hari aurre egiteko. Izan ere, Jon Mirandek ordurako salatua zuen bezala, Pott bandakoen iritziz ere euskal literaturan ez zen baliozko lan literariorik argitaratzen. Euskal liburugintza sustatzeko lege berriak onartu ziren arren, literatura-ekoizpena oso eskasa zen oraindik, bai kantitatean, bai kalitatean,¹⁰⁶ “elizaren, euskaltzaletasun itsuaren eta probintzikeriaren barrutian kokatzen baitzen produkzio urri hura” (Azkorbebeitia 1998: 90). Euskaraz argitaratzen ziren lan gehienek, beraz, ez zeukaten literaturarekin inolako zerikusirik, Pottekoen ustez:

Donostiako azokatik pasa ginen lehengo batetan, ea zenbat euskal liburu berri argitaratu ziren edo ikustera, eta jexus marria eta joxe, hura zen burrunba, hura zen aukera. Euskara etxean telebisioa ikusiz ikasteko metodoak, euskara anakaz gora lantzeko gramatikak, alfabetatzeko eta karatxoak sendatzeko belar sintaktiko eta perifrastikoak, Euskadiko lehen gerraren heroitasunaren berri, Euskadiko bigarren hirugarren eta laugarren gerraren hamaika batailen fotoak,

¹⁰⁶ Salbuespenak Gabriel Aresti eta Jon Mirande lirateke, euskal poesia literatura moder-noaren mailara igo zuten idazleak, Sarrionandiaren arabera.

Euskadiko historia iraultzailearen doenerdi historia, eta abar. Kezka batekin irten ginen halere: non arraio zeuden beste liburuak, euskaraz izkribatutakoak beziki? (Pott 1978d: 1).

Pottekoek salatzen zutenez, euskaraz argitaratzen ziren lan “literario” bakarrak obra klasiko eta erlijiosoak ziren (“Hemen datozkigu sermoiak, manual devozionezkoak, dantzen neurrizko gatz ozpindubak, eta San Inazioaren bizitzaren pasadizoak”, Pott 1978d: 2), edota, lan berriagoen kasuan, programa politiko-ideologiko bati jarraituz idatzitakoak. Euskal kritikari eta argitateek ez zituzten irizpide literarioak kontuan hartzen, bestelakoak baizik: “Arrazoi desliterarioak nagusi” (Pott 1978b: 6). Arrazoi horien artean leudeke ideologia kontuak, batetik, eta euskal kulturaren definizio itxiegia, bestetik. Pott bandakoek gogor kritikatu zuten garai hartako “populistek” euskal kulturaz zuten ikuspegia:

Funtsean, ez da errespetatzen indibidualitateak bere kabuz aporta dezakeena, hori nahasmendu bat litzateke. Populista batentzat, aldez aurretik emandako kultura definizio baten barnean sartu behar da produkzio intelektual guztia. Esate baterako: euskara indartu eta zabaldu egin behar da. Konforme. Baina: beste guztia horren serbitsupean jarri behar da, literatura, zinea edo pedagogia edo kaka zaharra. Bada ez jauna, ez gaude konforme. Bakoitzari berea: literaturan, lehenengo gauza literatura egitea da (jauna jauna, zenbat aldiz) (Pott 1978b: 7).

Eta bide horri ekingo diote, beraz, Pott bandako idazleek, literatura arrazoi literario hutsengatik egiteari, hain zuzen. Haien ustetan, literatura ona sortzeko ez zen nahikoa plangintza kulturaleri erantzutea, eta literaturaren autonomia hori aldarrikatuz ireki zuten *Pott* aldizkariaren lehen zenbakia:

Editoriale bat egiteko bildu gara Bilbaon POTT bandakook. [...] Ukatu egin digute, oraingoz, derrigorrezko zenbaki editorialea [...]. Bihen bitartean, hau bezalako panfletoen bitartez jakinen duzue gutaz. Hitz bat oraindik: editoriale bat ez da beti sortzen plangintza kulturalaren hutsuneak betetzarren. [...] ez gaudela inori serbitzeko geure buruak argitzeko baino (Pott 1978a: 1).

Sarrionandiak berak ere, bere bizitzako beste arlo batzuetan politikoki eta ideologikoki konprometituta ibili arren, literaturaren arloan autonomia mantentzea ezinbestekoa zela defendatzen zuen, literatura ona egin nahi bazen:

Politika, etika eta idazkera alor desberdinak dira. Poetari, politikaren alorrean, gizarteko partaide denez, zapalketen aurkako eta askatasunaren aldeko konpromisoa dagokio. Euskal poetak, euskal tornulariak edo euskal futbolistak

bezala, Euskal Herriaren askatasunaren alde ekiteko eginbidea izango du, eta gizarte egitura zanpatzaileen aurka, baina ez poeta delako ez eta Parnasoko alturetatik (Sarrionandia 2006a: 172).

Izan ere, salatzen zuen Sarrionandiak, literaturaren autonomia errespetatu ezean, literatura txarra egiteko arriskua zegoen. Sarrionandiaren iritziz, poeta-ren konpromiso bakarrak ondo idaztea izan behar zuen:

Poetaren benetako konpromisoa idazkerarena izan behar da. Konpromiso politikoa eta etikoa ez da aski, sentimenduak ere aski ez diren bezala, poesia ona egiteko, poesia txar ugari egin baita ideia onen izenean edo portaera zintzoen gogantz. Poeta ez da bere ideientatik edo bere portaeragatik, bere sentimenduentatik ere ez den bezala, baizik eta bere poemen balioagatik, bere idazkeragatik, bere hitzengatik (Sarrionandia 2006a: 173).

Honela laburbiltzen ditu Sarrionandiak 1970eko hamarkadaren bukaerako egoera literarioa eta Pott bandakoek egindako aldarrikapenak:

Literatura nahiko txarra egiten zen konpromiso politikoaren aitzakiarekin, edo euskararekiko konpromisoaren aitzakiarekin, edo halako orfismo baten aitzakiarekin. [...] *Potten* literaturaren autonomia proposatu zen, literatura ez dela errebindikazioen edo ideologiaren bozeramailea, literaturak berez modu eta indar propioa duela eta ahalmen espezifikoki batzuk mundua kritikoki argitzeko (Sarrionandia 2002: 298).

Literatura irizpide literario hutsei jarraituz egiten zuten idazleak, baina, ez ziren asko Pott banda sortu zen garaian, eta, euskal literaturaren agortasun hari irtenbidea emateko, itzulpenen bidea proposatu zuten:

Itzulpenak, hor dago kakoa. Jatorriz euskaldunak diren testorik ez badago (kalitate minimoa dutenak, noski) zergatik ez dira itzultzen beste hizkuntzetatik zergatik ene maiteok? (Pott 1978d: 2).

Galdera horren erantzuna, ziurrenik, garai hartan nagusi zen euskal literaturaren eta kulturaren kontzepzio itxian datza. 1970eko hamarkadaren bukaeran, oraindik ere Euskal Herriaren apartekotasunean sinesten zen, mendeetan zehar inguruko herri eta kulturetatik isolatuta mantentzea lortu zuen herri pribilegiatu gisa ikusten zen. Beraz, euskal hizkuntzak eta literaturak bereziak izaten jarraitu nahi bazuten, ezinbestekoa zen isolamendu hari eustea, “kanpora begiratzuz gero ‘gure nortasuna’ galduko litzatekeelako” (Azkorbebeitia 1998: 91). Pott bandakoak euskal kulturaren ikuspegi itxi hori sala-

tzen eta literatura-eredu berri, moderno eta irekiago bat proposatzen ahalegindu ziren:

[...] batzuek diotenez ez dago kanpora begiratu beharrik, ez baita gure nortasuna galdu behar. Prozesu mimiko honetan kanpoko gauzak gaizki moldatzen dira, eta imitazio eskasak lortzen ditugu, eta barrukoak berriz beti berdin, ehun eta mila bider, ateratzen zaizkigu. Eta beharbada bai hauxe izango da gure nortasuna betiko, ideiarik ez edukitzea irudimenik gabeko pertsona imitatzaileak izatea, horra hor non den gure gordebeharrezko altxor preziatua. Eta dirudienez, batzuek ez dute nahi egoerarik aldatzea, ondo iruditzen zaie dagoen moduan, kaiola segi nahi dute, hala zioen Urruzuno idazleak (apaiza noski): “ez irten inoiz Euskal Herritik, Euskal Herritik zerura, Euskal Herritik zerura, Euskal Herritik zerura”. Amen. Eskerrak ia inork ere ez duela Urruzuno ezagutzen (Pott 1980: 82).

Horrela ekin zioten Pottekoek, beraz, gustatzen zitzaaien literatura guztia bereganatuz (bai atzerriko hizkuntzetan idatzitakoa, bai euskaraz sortua) beren poetika propioa sortzeari. Sarrionandiak berak gogorarazten digun bezala, “Pottekoek literatura euskaraz naturaltasunez egin nahi zuten, eta ordura artekoarekiko errebeldia apur batekin”. Haien helburuen artean zeuden, besteak beste, “euskara munduko beste hizkuntza handi eta txikien artean ipintzea, arkaikoa eta modernoa nahastea, pentsamendu kritikoa umorearekin elkartzea” (Sarrionandia 2002: 297). Eta horretarako ezinbestekoak ziren itzulpenak.

Pott bandak argitaratu zuen *Pott* aldizkariaren sei zenbakien artean, beraz, badira herrialde eta tradizio desberdinetako autoreen lanen itzulpenak. Ordu-ra arte euskaratutako lan gehienak ez bezala, *Pott* aldizkarian argitaratutako itzulpenak ez ziren bandako kideen ideologiarekin zerikusia zutenak, ezta irizpide erlijioso, politiko edo ofizialekin bat zetozenak ere; aitzitik, Pott bandakoek balio literarioagatik interesatzen zitzaizkien testuak euskaratzen zituzten, literaturaren aldetik gustatzen zitzaizkienak. Itzulpenez gain, atzerriko literaturari buruzko artikulua ere idatzi zituzten, euskaldunei Euskal Herritik kanpo egindako literaturen berri emateko asmoz. *Pott* aldizkariaren orrietan aurki daitezke, esate baterako, irlandar poesiari buruzko aipamenak, hainbat irlandar poemaren euskarazko itzulpenez hornituak; poloniar literaturari buruzko aipamenak eta Slawomir Mrozek idazle poloniarren itzulpen bat; Xosé Luís Méndez Ferrín idazle galiziarren hainbat poema euskaraz; Pere Gimferrer katalanaren poema bat gaztelaniaz, autoreak berak itzulia; T. S. Elioten hainbat poemaren euskarazko itzulpenak (tartean, baita Gabriel Arestiren *Lau Quartetto*ren zati bat ere) eta autorearen lanei buruzko informazioa; aleman

literaturari buruzko artikulua bat; Octavio Pazen kontakizun baten euskarazko itzulpena; Albert von Chamisso-ren poema baten euskarazko itzulpena; Pragako alemaniar idazleen inguruko artikulua, poemak eta itzulpenak eta abar.

Pott bandakoek aldizkariak gain zenbait liburu argitaratzeko asmoa ere bazuten, eta kaleratu nahi zuten lehen liburua itzulpen bat zen, hain zuzen ere T. S. Elioten *Lau Quartetto*, Gabriel Arestik euskaratua, nahiz eta, lehen ere aipatu dugunez, asmo hura bete gabe geratu zen, 1983an Hordago argitaletxeak Arestiren itzulpen hori argitaratu zuen arte. Nolanahi ere, ezin ukatuzkoa da Pott bandakoek itzulpenari ematen zioten garrantzia. Sarrionandiak berak ere tradizio, leku eta garai arras desberdinetako obrak euskaratzeari ekin zion, hurrengo atalean ikusiko dugun legez.

3.2.2. SARRIONANDIAK ITZULITAKO EGILEAK ETA OBRAK

Itzulpenek leku handia betetzen dute Joseba Sarrionandiaren ekoizpen literarioan; hainbestekoa, non askotan ez baita erraza testu batzuk itzulpenak diren ala ez erabakitzea: bere hausnarketetan behin eta berriro esan duen bezala, itzulpen oro (bir)sorkuntza da, eta sorkuntza oro itzulpen. Nolanahi ere, eta aztergaia nolabait mugatu nahirik, Sarrionandiak itzulpen gisa aurkezten dituen liburuetara mugatuko dugu lan honetako corpusa (Touryren “assumed translation” kontzeptuari jarraituz; alegia, xede-hizkuntzan itzulpen gisa aurkeztutako testu oro itzulpen gisa aztertu behar dela onartuz). Itzulpen-lanek,¹⁰⁷ beraz, bere bibliografia osoaren laurdena inguru osatzen dute (soilik liburu gisa argitaratutakoak kontuan hartuta), honako zerrenda honetan ikus daitekeen bezala:

Sorkuntzazko lanak	<i>Ez gara gure baitakoak</i> (1989)
<i>Izuen gordelekuetan barrena</i> (1981)	<i>Izeba Mariasunen ipuinak</i> (1989)
<i>Narrazioak</i> (1983)	<i>Ainhoari gutunak</i> (1990)
<i>Intxaur azal baten barruan. Eguberri...</i> (1983)	<i>Ifar aldeko orduak</i> (1990)
<i>Ni ez naiz hemengoa</i> (1985)	<i>Gartzelako poemak</i> (1992)
<i>Atabala eta euria</i> (1986)	<i>Han izanik hona naiz</i> (1992)
<i>Marinel zaharrak</i> (1987)	<i>Hnuy illa nyha majah yahoo</i> (1995)
<i>Marginalia</i> (1988)	<i>Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk</i> (1995)

¹⁰⁷ Eranskinean biltzen da Sarrionandiak itzulitako lan guztiei buruzko informazioa.

<i>Hitzen ondoeza</i> (1997)	Itzulpen-liburuak
<i>Lagun izoztua</i> (2001)	<i>Lur eremua</i> (1983)
<i>Kolosala izango da</i> (2003)	<i>Hamahiru ate</i> (1985)
<i>Akordatzen</i> (2004)	<i>Marinela</i> (1985)
<i>Harrapatutako txorien begalak</i> (2005)	<i>Izkiriaturik aurkitu ditudan...</i> (1985)
<i>Munduko zazpi herrialdetako ipuinak</i> (2008)	<i>Hezurrezko xirulak</i> (1991)
<i>Gau ilunekoak</i> (2008)	<i>Galegoz heldutako poemak</i> (1991)
<i>Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako</i> (2010)	<i>Marinel zaharraren balada</i> (1995)
<i>Moroak gara behelaino artean?</i> (2010)	<i>Manuel Bandeira. Antologia</i> (1999)

Kontuan hartzekoak dira, halaber, Sarrionandiak hainbat aldizkaritan argitaratutako itzulpenak:¹⁰⁸

- *Ob! Euzkadi* 7 (1980): James Joyceren *A portrait of the artist as a young man* eleberraren zati bat.
- *Ob! Euzkadi* 11 (1981): T. S. Elioten *The Waste Land* poemaren zati bat.
- *Ob! Euzkadi* 15 (1982): T. S. Elioten *The Waste Land* poemaren zati bat (J. Iturralderekin batera itzulia).
- *Idatz & Mintz* 3-4 (1982): Li Po txinatarraren hainbat poema.
- *Maiatz* 5 (1984): Miquel Martí i Pol katalanaren hainbat poema.
Walter de la Mare-ren poema bat.
Henry Michaux-en bi poema.
William Wordsworth-en poema bat.
Jacques Prévert-en poema bat.
- *Susa* 14-15 (1985): Fernando Pessoa-ren hainbat poema.
Bobby Sands-en lau poema (R. Ordorikarekin batera itzulia).
- *Hegats* 1 (1989): Stephen Vincent Benét-en *By the Waters of Babylon* ipuina.

Sorkuntzazko lanetan, genero literario ugari landu ditu: poesia, ipuina, saiakera, haur literatura eta eleberria idazteaz gain, “hibrido” deiturikoak ere

¹⁰⁸ Liburu eta aldizkarietan argitaratutakoez gain, beste hainbat pasarte itzuli aurki daitezke Sarrionandiaren liburuetakoa orrialdeetan. Saiakera moduan idatzitakoetan, esaterako, maiz tartekatzen ditu beste idazle batzuen poema edo testu zatiak euskarara itzulita. Hala eta guztiz ere, itzulpen horiek eranskinetik kanpo utziko ditugu, ez direlako itzulpen beregain gisa argitaratuak izan.

egin izan ditu, hau da, genero bakar baten barruan sailkatu ezin litezkeen lanak. Halakoak dira, esate baterako, bere saiakera-lan gehienak: *Ni ez naiz hemengoa*, *Marginalia* eta *Hitzen ondoeza* liburuetan, adibidez, gai jakin baten inguruko gogoeta landu eta egituratua eskaini beharrean, gai anitzen inguruan egiten dituen hausnarketak biltzen ditu, hainbat istorio, poesia, anekdota eta itzulpen ere tartekatuz. Haur literaturaren barruan sailkatu izan diren liburu askotan ere, genero desberdinak nahasteko joera agertu du: *Ainhoari gutunak* liburuan, adibidez, ipuinak, istorioak, hitzen esanahiei buruzko gogoetak, oroitzapenak, historiako pasarteak, liburuei, filmi eta kantei buruzko iruzkinak eta abar nahasten ditu. Beste adibide bat ematearren, *Akordatzan* liburua, izenburuak esaten duen legez, Sarrionandiaren oroitzapenek osatzen dute; narrazio gisa sailkatu izan dute batzuek, saiakera gisa beste batzuek, poesia gisa nahiz autobiografia gisa beste hainbatek... Itzulpen-liburuen artean, berriz, poesia da nabarmen gailentzen den generoa. Sarrionandiaren zortzi itzulpen-liburuetako sei poemaz osatuta daude: *Lur Eremua*, *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*, *Hezurrezko xirulak*, *Poemas náufragos (Galegoz heldutako poemak)*, *Marinel zaharraren balada* eta *Manuel Bandeira. Antologia*. Mitxel Sarasketarekin batera itzultitako *Hamairu ate*, aldiz, umore beltzeko ipuinen antologia da, eta *Marinela*, berriz, antzezlan gisa sailkatu izan den arren, “ez da erabat kabitzen literatura sailkatzeko usatu ohi diren zakuatarik batetan”, antzerkiaren, poesiaren, narrazioaren eta gogoeta metafisikoaren arteko nahasketa baita (Sarrionandia 1985: 9).

Esanguratsua da Sarrionandiak poesia itzultzeko egindako hautua, ez baita hori euskarazko itzulpengintzaren joera nagusia. Euskal argitaletxeen katalogoei begiratu bat ematea aski da ohartzeko zein leku txikia bete izan duten eta betetzen duten gaur ere poesia itzuliaren liburuek.¹⁰⁹ Literatura-aldizkarie-

¹⁰⁹ Euskal argitaletxeek ez dute euskarara itzultitako poesia biltzen duen bildumarik, eta argitaratzen dituzten euskal itzulpen gehienak genero narratiboari dagozkio. Munduko literatura euskaratzeko ekimen garrantzitsuenek ere, EIZIEk sustatutako “Literatura Unibertsala” bildumak eta “Pentsamenduaren Klasikoak” bildumak, ez dute poesiaren aldeko apusturik egin. Lehen bilduman, orain arte argitaratutako 152 liburuetatik bakarra da poesiaren alorrekoa: Gerardo Markuletak euskaratutako *Zenbait poeta katalan* (1997) (ikusi bildumaren zerrenda osoa hemen: http://www.eizie.org/Argitalpenak/Literatura_Unibertsala/OrainArte/). Bigarren bildumak, berriz, “pentsamendua” euskaratzea zuen helburu; filosofia, soziologia, psikologia, biologia, zuzenbidea, antropologia, historia, ekonomia, hizkuntzalaritza eta erlijioa lantzen zituen (Salaburu 2007: 161), eta hor ere poesia liburu bakarra argitaratu zen: Lukrezioaren *De rerum natura* (‘Gauzen izaeraz’), Xabier Amurizak 2001ean prosan euskaratua (bildumako liburu guztiak irakur daitezke sarean: <http://ehu.es/ehg/klasikoak/>). Bildumetatik kanpo

tan poema itzuliak argitaratzea ohikoagoa izan da beti; oso bakanak dira, ordea, poesia euskaratua argitaratu duten liburuak. Itzulpena, berez, bazterreko generoa bada sorkuntzazko literaturaren alboan, esan genezake poesiaren itzulpena are periferikoagoa dela beste literatura-generoen aldean. Badirudi, beraz, genero marginalenaren aldeko apustua egin duela Sarrionandiak euskarara ekartzeko literatura-lanak hautatzean.

Aurkeztutako zerrendan erakutsi dugun bezala, zortzi itzulpen-liburu argitaratu ditu Sarrionandiak. Horietako lautan, autore bakar baten lana biltzen da: *Lur eremua* T. S. Elioten *The waste landen* itzulpena da; *Marinela*, Fernando Pessoren *O marinheiroren* itzulpena; *Marinel zaharraren balada*, S. T. Coleridge-ren *The rime of the ancient marineren* itzulpena; *Manuel Bandeira. Antologian*, azkenik, autore horren hainbat poema euskaratu biltzen dira. Gainerako lau liburuetan, aldiz, egile askoren lanak (batez ere poemak) ematen ditu Sarrionandiak bere euskarazko bertsioan. Orotara, beraz, eta aldizkarietan argitaratutako itzulpenak ere kontuan hartuta, garai, leku, tradizio eta ideologia guztiz desberdinetako egile anitz euskaratu ditu. Hautapen zabal hori da Sarrionandia bere aurreko euskal itzultzaileengandik bereizten duen lehen ezaugarria. Ikusi dugunez, XX. mendeko euskal itzultzaile gehienek literatura “handi” eta “prestigiotsuetako” lanak itzuli ohi zituzten, eta batez ere literatura horietan “kanoniko” edo “klasikotzat” jotzen ziren obrak. Sarrionandiak eta Pott bandak, ordea, jokabide horrek euskal literatura ito eta bere baitan biltzera eramaten zuela ikusirik, literaturaren (eta itzulpengintzaren) autonomia aldarrikatu, eta tradizio guztiz desberdinetako lanak irakurri, euskaratu eta imitatzeari ekin zioten. Sarrionandia dugu, ziurrenik, Pott bandako partaideen artean literatura-lan gehien itzuli dituen idazlea, bai behintzat itzultzeko hautatutako egileen aniztasuna kontuan hartzen badugu. Garai guztietako poemak itzuli ditu, hasi K. a. XXV. mende inguruko testuetatik eta K. o. XX. mendekoetaraino. Munduko ia kontinente guztietako literaturak arakatu ditu, herrialde bakoitzeko altxor literario ezagun eta ezezagunak bereganatu eta euskal irakurleei eskaintzeko; hala, Europako eta Ipar Amerikako literaturetako lan ospetsuez gain, Afrikako, Asiako eta Hego Amerikako tradizioetako poema ugari ere irrika handiz aztertu eta euskaratu ditu.

ere ez da poesia-liburu asko euskaratu (azken urteetakoak aipatzearren, Juan Garziak Shakespeare, Mikel Olanok Bukowski...). Bestela, gorago ere esan den bezala, literatura-aldizkarietan argitaratu dira, gehienbat, poema solteen itzulpenak; Julen Urkizaren *Bertso eta olerkien heme-roteka* (<http://urkiza.armiarma.com>) webgunean aurki daitezke horietako asko).

3.2.2.1. Mendebaldeko tradizioko literaturetan hautaturikoak

Mendebaldeko literaturetako lanen artean, Sarrionandiak garai, leku eta tradizio guztiz desberdinetako testuak itzuli ditu. Hautaketa horretan, ordea, ez ditu Mendebaldeko tradizioko “klasikoenak” edo “kanonikoenak” aukeratu, europar eta mendebaldar tradizioan hain ezagunak ez diren obrak baizik. Literatura “handi” edo “prestigiotsuetara” ere jo izan duen arren, literatura horietako altxor ez aski ezagunak deskubritu eta ezagutaraztea izan du askotan xede.

Hala, Antzin Aroko literatura greziar eta erromatarretik berreskuratu dituen autoreen hautaketa nahiko esanguratsua da. Ez ditu, esate baterako, Homero, Virgilio edo Zizeron itzuli, ezta Platon edo Sofokles ere, Salvador Barandiaran, Santi Onaindia, Jokin Zaitegi eta XX. mendeko euskal itzultzaile askok egin bezala. Aitzitik, Dioskorides, Leonidas, Meleagro, Agatias eskolas-tikoa eta Paulo Silentiario itzuli ditu, besteak beste, K. a VI. mendearen eta K. o. VI. mendearen arteko autore greziarren artean. Erromatarren artean, berriz, Lukrezio, Katulo eta Martzial itzuli ditu besteak beste, Orixek, esate baterako, inoiz itzuliko ez zituzkeen autoreak.

Literatura modernoetara etorruta, Europako literatura nagusietako idazle asko euskaratu ditu Sarrionandiak. Hemen ere, egindako hautaketa guztiz pertsonala da. Literatura handietako autore kanonikoenak itzuli beharrean (ez du ez Cervantes, ez Molière, ez Dante itzuli; ezta Dickens, Victor Hugo edo Bécquer ere),¹¹⁰ estetika literarioagatik gustatu zaizkion testuak euskaratu ditu, izan autoreak ezagunak, ezezagunak, kanonikoak nahiz periferikoak. Idazle ezagunen artean honako hauek aipa genitzake: Charles Baudelaire (1821-1867) frantsesa; Fernando Pessoa (1888-1935) portugesa; W. B. Yeats (1865-1939) eta James Joyce (1882-1941) irlandarrak; Johann Wolfgang von Goethe (1749-1832), Heinrich Heine (1797-1856) eta Bertolt Brecht (1898-1956) alemanak; txekiarra izan arren alemanez idazten zuen Franz Kafka (1883-1924); John Donne (1572-1631), William Wordsworth (1770-1850), Samuel Taylor Coleridge (1772-1834) eta Adrian Henri (1932-2000) ingelesak; Herman Melville (1819-1891), Ambroce

¹¹⁰ Shakespeareren kasuan, ezin da esan Sarrionandiak idazle ingelesa inoiz itzuli ez duenik: “Intxaur azal baten barruan” (1983d) deituriko narrazioan, *Hamlet* antzezlanaren hainbat pasarte tartekatzen ditu euskarara itzuliak. Izenburua bera ere Shakespeareren hitzek osatzen dute: “bounded in a nut shell”. Testuaren lehen helburua, ordea, ez da Shakespeareren lana euskal irakurleari eskaintzea, antzezlan horren hainbat pasarte solte bereganatu eta testuan integratuz zigor zeldetara zigortu duten presoaren egoera deskribatzea baizik.

Bierce (1842-1914), Ezra Pound (1885-1972), T. S. Eliot (1888-1965), W. H. Auden (1907-1973), Tennessee Williams (1911-1983), eta Charles Bukowski (1920-1994) estatu batuarrak; Alexandr Pushkin (1799-1837) eta Alexandr Blok (1880-1921) errusiarrak; Cesare Pavese italiarra (1908-1950), eta Kavafis greziarra (1863-1933), besteak beste. Bakoitza bere eremuan eta, oro har, munduko literaturaren historian ezagutuak izan arren, dena den, horietako gehienak Sarrionandiaren bidez iritsi ziren lehenbizikoz euskarara, eta asko ez dira gero ere berriz euskaratu (John Donne, Adrian Henri, Samuel Taylor Coleridge, Alexander Blok...). Horrek adierazten du munduan ezagutuak izan arren, aldi berean oraindik bazterrekoak direla euskal irakurlearentzat.

Europako literaturaren barruan, bestalde, Sarrionandiaren hautua ez da hizkuntza hedatuenetan idatzitako lanetara mugatzen. Botere edo hedadura txikiagoko hizkuntzetan idatzitako Europako literatura modernoak ere interesatzen zaizkio; hala itzuli ditu, besteak beste, Lucian Blaga (1895-1961) eta Ana Blandiana (1942-), errumaniarrak; Vladimir Holan (1905-1980) txekiarra; Sandor Petöfi (1823-1849), Lajos Kassák (1887-1967) eta Attila József (1905-1937) hungariarrak; Leopold Staff poloniarra (1878-1957), eta Arvo Turtiainen finlandiarra (1904-1980). Berriz ere bazterrekoen aldeko hautua.

Antzin Aroaren eta Aro Modernoaren arteko urte ilunetan Europan idatzitako literaturetan ere aurkitu du zer itzulia Sarrionandiak. Hala, Erdi Aroko zenbait poema euskaratu ditu: ingeles zaharrea idatzitako “Beowulf” poema, VIII. eta XI. mendeen artean idatzia; Chrétien de Troyes-ek frantses zaharrea idatzitako olerkia, XII. mendekoa; aleman zaharrea idatzitako XII. mendeko poema anonimoak; irlandar eta galestar poema anonimoak; XI. eta XII. mendeetako khardja mozarabeak... Orain ere bazterrekoak, oraingoan kronologikoki; multzo honek, gainera, Mendebaldeko literaturakoa izanik, badu nolabaiteko erlazioa, euskal irakurlearen ikuspegitik, hurrengo atalean aztertuko ditugun literatura “exotikoen” multzoarekin.

3.2.2.2. *Literatura “exotikoak”*

Europako herrietako literaturak ez ezik, Sarrionandiak beste kontinente batzuetako lanak ere euskaratu ditu. Europar ikuspuntu batetik “exotikotzat” jo izan diren literaturen artean, Asiako zenbait tradiziotako poemak

interesatu izan zaizkio. Hala, Tu Fu (712-770), Li Po (701-762) eta Wang Wei (699-759) poeta txinatarren zenbait lan itzuli ditu, baita Omar Kheyyam (1048-1131) poeta pertsiarraren eta Ho Xuan Huong (1772-1822) vietnamdarraren zenbait poema ere, edota Yamazaki Sokan (1465-1553), Matsunaga Teitoku (1571-1654), Enamoto Kikaku (1661-1707), Kobayashi Issa (1763-1827), Takahama Kyoshi (1874-1959) eta beste hainbat poeta japoniarren haikuak. Sakutarō Jaguiwara (1886-1942) japoniarraren ipuin bat ere tartekatu du *Hamairu ate* antologian. Literatura horietako poema gehienetan, jende xumearen eguneroko bizimoduko gertaerak edo gogoetak kontatzen dira (haurdun dagoen emakume ezkongabearen auhena, grinak oro galdu dituen agurearen gogoeta, naturako paisaia eta izakien deskribapena, zerurik ez dagoela eta bizitza honetako plazerez gozatzera bultzatzen duen aldarria...), eta, kasu askotan, autorearen bizimodu bakartia azpimarratzen du Sarrionandiak itzulpenari egindako sarrera edo hitzaurrean (Li Po eta Omar Kheyyam idazleen kasuan, esaterako). Badirudi, beraz, literatura “exotikoetako” autore eta testuak hautatzean, gizartetik nolabait baztertutako jendearen poesia interesatu zaiola Sarrionandiari, bizitzako eta naturako plazer xumeez idatzi duten autoreak, eta ez Asiako literaturerako autore kanoniko edo prestigiotsuak.

Literatura “exotikoen” atal honetan, aipatzekoa da, halaber, Sarrionandiak idazketaren historiako lehen izkribuetara ere jo izan duela itzulpenetarako bazkaren bila: hala itzuli ditu sumeriar taula zaharrak, K. a. XXV-XX. mende ingurukoak; antigoaleko egiptoar izkribuak, hauek ere K. a. XX. mende ingurukoak; eta sanskritoz idatzitako Veda ospetsuak, K. a. XVIII-X. mendeen artekoak. Kasu horietan ere, ezin esan Sarrionandiak literatura jakin batzuetako obra kanonikoetara jo duenik; han-hemenka agertutako testu anonimoak euskaratzean, badirudi garai urrunetako jende xumearen desira eta kezka ezagutaraztea izan duela xede, gaur egungo gizakien aldean hain desberdinak ez direla erakusteko.

3.2.2.3. Herri zapalduen literaturak

Autore nolabait ospetsu horien poemez gain, herri zapalduetako literatura ez hain ezagunak ere itzuli ditu euskarara Sarrionandiak; Euskal Herriak bezala herri eta kultura indartsuago baten zapalketa jasan behar izan duten herriei ahotza itzuli nahi izan die horrela. Besteak beste, palestinar borrokako poemak aipa genitzake: Hayil ‘Assaqilah (?), Samih Al Quassim (1939-), Mahmud Darwich (1941-2008), Salim Jabran (1947-), Tawfiq

Zayyad (1922-1994) eta Fadwa Touqan (1917-2003) poetek palestinar herriaren zoritxarreko patua kantatzen dute poema horietan. Era berean, xhosa hizkuntzan idazten zuen Samuel Edward Krune Mqhayi (1875-1945) poeta afrikarraren poema bat ere itzuli du Sarrionandiak, non Britainia Handiak Afrikan egindako konkistak deitoratzen diren. Antzeko arrangurak irakur daitezke Ipar Amerikako indioen hondamena salatzen duten poemetan: Sarrionandiak *Sitting Bull* (c. 1831-1890), *Ten Bears* (c. 1790-1872), Young Joseph (1840-1904) eta beste zenbait indio ipar-amerikarren testuak bildu eta itzuli ditu, Ipar Amerikako tribuek zurien konkistaren ondorioz jasan beharreko zapalketa oso ongi islatu eta deitoratzen dutenak. Herri zapalduen nolabaiteko errekonozimendua eta solidaritatea adierazteko desira horrek azalduko luke, era berean, Bobby Sands (1954-1981) irlandar gose-grebalariak kartzelan idatzitako poemaren itzulpena, baita heriotzara kondenatutako Bartolomeo Vanzetti (1888-1927) Estatu Batuetako ekintzaile politikoak auzitegiari emandako azken azalpenaren itzulpena ere. Azkenik, zenbait herri “primitiboren” ahozko tradizioan iraun duten poema anonimo ugari euskaratu ditu Sarrionandiak: eskimal, araukano, tuareg, arapaho, miskito, chippewa, nahuatl, kokonuko, ketsua, haussa, kabiliar eta kiliwa tribuen testuak itzuli ditu, besteak beste, euskarara.

3.2.2.4. *Europako literatura minorizatuak*

Gugandik gertuago dauden hizkuntza eta literatura minorizatuetakoa idazleen artean, aipatzekoa da Sarrionandiak poeta katalanei eta bereziki galiziarrei egiten dien lekua: *Hamairu ate* umore beltzaren antologian Pere Calders (1912-1994) katalanaren ipuin baten itzulpena plazaratu zuen, eta Miquel Martí i Pol (1929-2003) katalanaren zenbait poemaren itzulpenak ere argitaratu izan ditu (*Maiatz* aldizkarian batzuk eta *Hezurrezko xirulak* bilduman beste bat). Poeta galiziarrei dagokienez, aipatzekoa da liburu batean sei idazle galiziarren poemak euskaraz eman zituela: *Poemas náufragos - Galegoz heldutako poemak* liburuan, Manoel Antonio (1900-1930), Luis Amado Carballo (1901-1927), Álvaro Cunqueiro (1911-1981), Aquilino Iglesia Alvariño (1909-1961), Luis Pimentel (1895-1958), Luis Seoane (1910-1979), Celso Emilio Ferreiro (1912-1979) eta Manuel María (1930-2004) idazleen poemak itzulpenak kaleratu zituen, jatorrizko poemekin batera. Hizkuntza minorizatuetakoa idazleen artean aipatu behar da, halaber, Paul von Ostaijen (1896-1928) idazle flandestarra, haren poema baten itzulpena sartu baitzuen Sarrionandiak *Hezurrezko xirulak* bilduman.

3.2.2.5. *Espainiar eta latinamerikar literaturak*

Esanguratsua da, halaber, munduko idazleen hautaketa zabal horretan Sarrionandiak espainiar literaturari eta autore espainiarrei eskaintzen dien leku txikia. Sorburu-hizkuntza gaztelania duten testuen artean bi baizik ez dira idazle espainiarrenak: Gonzalo Suárez-en ipuin bat eta Max Aub-en¹¹¹ zenbait mikro-ipoen ageri dira *Hamairu ate* antologian. Badirudi Espainiarekiko eta espainiar literaturarekiko erresistentziaren aldarrikapen moduko bat egin nahi duela horrela, historian zehar euskaldunekiko hain “absorbentea” izan den espainiar kultura nolabait baztertzeko ahalegin bat. Itzuli dituen bi espainiar autoreak ez dira oso kanonikoak; ez du, aurreko euskal itzultzaileek bezala, Lope de Vega, Calderón de la Barca, Bécquer, García Lorca, Baroja, Unamuno edo espainiar literaturan kanonikotzat jo izan den beste autorerik itzuli. Gainerakoan, Sarrionandiak itzultitako gaztelaniazko testu guztiak autore latinamerikarrenak dira: César Vallejo perutarra (1892-1938), Álvaro Yunque argentinarra (1889-1982), Virgilio Piñera kubatarra (1912-1979) eta Gabriel García Márquez kolonbiarra (1927-). Ez dirudi Sarrionandiak inolako erreparorik duenik gaztelaniaz idazten duten autore latinamerikarrak itzultzeko; izan ere, haiek ere, euskaldunak bezala, bazterrekoak, periferikoak eta marginalak dira Espainiarekiko.¹¹²

Latinamerikar literaturei dagokionez, zenbait idazle brasildar ere euskaratu ditu Sarrionandiak: Manuel Bandeira (1886-1968) —liburu oso bat es-

¹¹¹ Max Aub ere ez zen espainiarra “bakarrik”: Parisen jaio zen, guraso alemanengandik. Hamaika urterekin Espainiara joan zen bizitzera, eta nazionalitate espainiarra hartu zuen. Hogeita hemeretzi urterekin, berriz, Mexikora joan, eta hango nazionalitatea hartu zuen. Sarrionandiak itzultitako mikro-ipoenak Mexikon idatziak dira.

¹¹² Frantziari dagokionez, antzera jokatzen du Sarrionandiak. Itzuli dituen testu frantsesak ez dira frantziar literaturako autore ezagunenek idatziak. Charles Baudelaire litzateke itzuli dituen idazle frantsesen artean kanonikoena (Orixek edo Santi Onaindiak, esaterako, inola ere itzuliko ez zuketena poeta madarikatua). Gainerakoak nahiko marginalak dira: Jean Arp (franko-alemana), Henri Michaux (jatorriz belgikarra), Francis Picabia, Jacques Prévert eta Christine Billard. Sarrionandiak itzultitako frantsesezko beste testuak, berriz, frantsesez ere idatzi arren frantsesak ez ziren autoreenak dira: Nikos Kasantzakis greziarra, Leonora Carrington jatorri ingeleseko mexikarra eta Kostas Axelos greziarra. Argitaratutako itzulpen horietaz gain, badirudi Sarrionandiak beste hainbat autore frantses ere euskaratu zituela, nahiz eta gero itzulpenak kaleratu ez; idazle frantsesak irakurtzen ote dituen galdetuta, honela erantzun dio berriki Marie Darrieussecq-i: “Mutiko nintzela, frantsesetik itzuli nuen Marcel Schwob-en ‘Haurren gurutzada’”. Itzulpena galdu egin zela uste dut eta ez da argitaratu. François Villon-en poesiak ere itzuli nituen, Urkatuaren balada, esaterako. Jean Arp-en gauza bat berriz, gogoan dut: elefantea milimetroaz maitemintzen zenekoa. / Soziologia ikasten nuenean Durkheim sarri irakurri nuen, baita Levy Strauss, Barthes, Foucault...” (Sarrionandia 2011b).

kaintzen dio Sarrionandiak Bandeiraren poesiari: *Manuel Bandeira. Antologia* (1999)—,¹¹³ Anibal Machado (1884-1964) eta Carlos Drummond de Andrade (1902-1987).

3.2.2.6. *Poema argitaragabeak*

Munduko literaturetako poema ezagun eta ez hain ezagunen artean, Sarrionandiak inoiz argitaratu ez diren poemak ere ematen ditu bere itzulpen-antologietan. *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuan, esate baterako, Christine Billard (1959-) poeta frantsesaren bi poema argitaragaberen itzulpena eskaintzen du. Christine Billardek berak esanda dakigu (komunikazio pertsonala, gutun bidez) poema horien originalak ez direla inoiz argitaratu. Sarrionandia kartzelan zela, poeta frantsesaren lagun batek Sarrionandiari gutunak idazten zizkion lagun bat omen zuen, eta haren bidez eskuratu omen zituen Sarrionandiak bi poema horiek. Nonbait gustatu, euskaratu eta beste poema itzuliekin batera argitaratzea erabaki zuen. Argi ikusten da hemen Sarrionandiaren hautaketa-irizpideen artean ez dagoela jatorrizkoak izan lezakeen prestigio edo errekonozimendua. Bere lehen itzulpen antologiaren izenburuak iradokitzen duen bezala (*Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*), gustura irakurri eta bere sentitu dituen poemak euskaratzen ditu, izan ezagunak, ezezagunak, argitaratuak nahiz argitaragabeak. Aipatzekoa da, halaber, itzulpenen artean bere poemak tartekatze joera. Hurrengo atalean aztertuko ditugun apokrifiko edo sasi-itzulpenez gain, modu agerikoagoan ere sartu izan du poemaren bat bere itzulpenen artean. *Hezurrezko xirulak* antologian “Euskaldun preso baten poemak” atalean hiru poema ematen ditu; bere izenez sinatu ez arren, agerikoa da berak idatziak direla. Beste behin ere, maila berean jartzen ditu horrela literatura handietako autore ezagunen poema itzuliak, autore ez hain ezagunen poema argitaragabeak eta berak idatzitakoak.

3.2.2.7. *Sarrionandiaren itzulpenen aniztasuna eta bazterrekotasuna*

Sarrionandiak itzultitako testuen heterogeneotasun eta aniztasunak bate-tik, jatorri eta tradizio guztiz desberdinetako testuak elkarren ondoan argita-

¹¹³ Antologia horretan sartu zituen Bandeiraren hiru poema lehenago ere itzuli zituen, eta *Hezurrezko xirulak* (1991) antologian argitaratu. Bi liburuetako bertsiokak, dena den, ez dira guztiz berdinak.

ratzeko joerak bestetik, eta idazle eta literatura bazterreko edo marginalak itzultzeko hautuak azkenik, berretsi egiten dituzte Sarrionandiak munduko literaturari eta literaturen arteko harreman eta elkarreraginei buruz plazaratu dituen ideiak. Autore kanonikoen poema ezagunak (Horazioenak, adibidez) ahozko tradizioetatik berreskuratutako poema anonimoen ondoan jartzean, edota herri inperialisten literaturetako testuak nahiz herri kolonizatu eta zapalduetako hizkuntza minorizatueta idatzitakoak liburu berean tartekatzean, Sarrionandiak kultura mendebaldarrak inposatutako hierarkiak deseraiki eta maila berean jartzen ditu oraintsu arte prestigio desberdina izan duten hizkuntza eta literaturak, gogoraraziz denak ere, itzuliak izan diren unetik bere-tik, munduko literaturaren parte direla. Ahotsik izan ez dutenei ahotsa itzuliz, isiltasunetik atera nahi izan ditu herri inperialisten zapalkuntza jasan duten herriak, enuntziazio leku bat eman nahi izan die oraintsu arte menperatzaileen hizkuntzan eta menperatzaileen ideologiari men eginez baizik mintzatu ez diren herri “subalternoei”.

Ezin ukatuzkoa da, beraz, Sarrionandiaren hautaketan eragin nabarmena izan dutela bere mundu-ikuskerak eta bere printzipioek. Nahiz eta, Pott bandaren aurreko euskal idazle eta itzultzaile gehientsuenek egin ohi zutena kritikatz, behin baino gehiagotan aldarrikatu izan duen literatura eta itzulpen-gintza ez direla ideologia jakin baten menpe jarri behar, itzultzeko testu jakin batzuk hautatu eta beste batzuk baztertu izanak ere nolabaiteko ideologia edo ikuspegi bat adierazten du. Dena den, hautaketa hori ez du mugatzen bere ideologiarekin bat datozen autoreen testuetara, Sarrionandiaren aurreko euskal itzultzaile askoren kasuan bezala; alegia, testuak hautatzeko irizpide nagusia ez da idazleen ideologia, testuen balio literarioa baizik. Miranderen itzulpen-gintza aztertzean tartekatu dugun oin-ohar batean azaldu dugunez, “irakurlearen hesparru ideologikoak berak asumitzen duen ideologiarena baino zabalagoa izan behar d[u]” Sarrionandiaren iritziz. Literaturaren alorrean, beraz, irakurleak —edo itzultzaileak— ideologia desberdin asko onartzeko prest egon beharko du, testuen atzean gordetzen den pentsamendu edo estetika literarioa gozatzerara heldu nahi badu. Sarrionandia ez dator bat berak itzuli dituen hainbat autoreren ideologiarekin —Ezra Pound, T. S. Eliot eta Fernando Pessoa aipatzen ditu berak, besteak beste, ideologia arbuigarriko idazleen artean—, baina haien pentsamendua “heldua, sakona eta interesgarria” iruditzen zaio, eta haien “esperientzi intelektual eta humanoa”, berriz, “balio-tsua” (Sarrionandia 1989: 134). Sarrionandiak estetika literarioagatik gustatu zaizkion testuak euskaratzen ditu, testu horien idazleen ideologia gustuko izan ala ez. Egia da hautaketa horretan presentzia berezia ematen diela literatura jakin batzuei, eta hori kulturen eta literaturen arteko harreman justuago bat

lortzeko nahiaren isla izan litekeela; badirudi Sarrionandiak bestelako “munduko literatura” bat proposatu nahi duela, non orain arte bazterrekoak, periferikoak eta marginalak izan diren literaturek ikusgarritasun handiagoa izango duten. Horrela ulertu behar da idazle marginalekiko, literatura marginalekiko eta genero marginalekiko joera hori. Marginalitatearen gaia etengabe errepi-
katzen da Sarrionandiaren obran, *Marginalia* izeneko liburuan argi ikus daite-
keenez.

Eta orain, hitzaren polisemia profitatuaz, *Marginalia* izendatu nahi dudan liburu bat diat esku artean. Gure hizkuntzaren marginalitatea, estatuarekiko gure marginalitatea, gure bizitzaren herbeste marginalitatea eta beste adierazi nahi diat titulu-
an (Sarrionandia 1989: 122).

Eta horregatik hautatuko ditu hain maiz gurea bezalako literatura margi-
nalak,¹¹⁴ baita idazle marginalak, gizarte marginalak eta genero marginalak
ere.

3.2.3. SARRIONANDIAREN ITZULPEN-ESTRATEGIAK

Orain arte ikusitakoak ikusita, eta Sarrionandiak itzulpena birsorkuntza gisa ulertzen duela kontuan hartuta, espero izatekoa da haren itzulpenak libre samarrak izatea. Ondorio horretara iritsi gara Sarrionandiaren hainbat itzulpen jatorrizko testuekin alderatzeko egindako lehen saiakeretan. Kasu askotan, egitura aldetik ez ezik, eduki eta irudien aldetik ere oso itzulpen libreak egiten dituela ohartu gara, eta jatorrizkotik dezente urruntzen direla. Ikerketan aurrera egin ahala, ordea, konturatu gara Sarrionandiak ez duela beti jatorrizko testutik itzultzen, eta gaztelania erabiltzen duela maiz itzulpenak egiteko zubi-hizkuntza gisa, berariaz oso gutxitan aitortu arren. Erabilitako zubi-testua identifikatzerik izan dugun kasuetan, ohartu gara Sarrionandiak nahiko hurbiletik jarraitu izan diola begi aurrean izan duen testuari, eta bere itzulpenak, beraz, ez direla hasiera batean iruditu zaizkigun bezain libreak. Adibide bat erakustearren, Sarrionandiak itzulitako Horazioren “Carpe

¹¹⁴ Honela definitzen du Sarrionandiak, *Marginalia* liburuko “Marginalitatea” atalean, literatura marginala: “Literatura marginala da egitura edo marko ofizialetatik aparte sortu eta zabalduriko idazleena” (Sarrionandia 1989: 18). Atal berean, pertsonalitate marginala, gizarte marginala, jende politikoki marginala, utilitate marginala eta beste hainbat “marginalitate” definitzen ditu.

diem”¹¹⁵ poema ezaguna transkribatuko dugu jarraian, eta Gidor Bilbaok egindako poema berberaren itzulpen gertukoarekin alderatuko, bi bertsioren arteko aldeak zein nabarmenak diren erakusteko:

Ez zaitetz saia, Leuconoe,
Jainkoek ezarri diguten etorkizuna
Asmatzen, debekaturik dago, ez itzazu
Babiloniar numeroak kontsulta.
Hobe da datorrena onartzea!
Nahiz eta Jupiterrek negu asko eman,
Nahiz eta hauxe izan azkena,
Tirreno itsasoa oraintxe arroketan
Haustera darabilena. Ez zaitetz
Eroa izan. Edan ezazu zeure arda
Eta egoki ezazu esperantza luzea
Zure bizitzaren espazio laburrera.
Mintzo garen artean, ihes doa denbora.
Bizi ezazu gaurko eguna. Harrapa ezazu,
Eta ez zaitetz balizko biharraz fida.

(Sarrionandia 1995a: 56)

Ez galdetu, Leukonoe, jakitea ez da zilegi,
zuri edo niri zein epe ezarri diguten jainkoek,
ez ikertu hartxintzar babiloniarrek.
Zenbat hobe datorrena datorrela onartzea!
Nahiz Jupiterrek negu ugari gorde,
nahiz azkenekoa izan
orain, haitz zulotsuak astinduz,
Tirreno itsasoa akitzen duen hau,
izan zaitetz argia, iragazi zure ardoak,
eta aldia laburra denez
bilatu bide motzena itxaropen luzean.
Hizketan ari garen bitartean ihes egingo du,
bekaizti,
denborak. Harrapatu gaurkoa,
etorkizunean ahal den gutxien fidatuta.

(Bilbao 2002: 131)

Aldeak nabarmenak dira bi bertsioren artean; honako hauek aipatuko genituzke deigarrienen artean: Sarrionandiak “Ez zaitetz eroa izan” idatzi du berez “izan zaitetz argia” zioen lekuan (“sapias”, jatorrizkoan); gomendio horren atzetik datorrena ere nahiko desberdina da bi bertsiotan, “Eta egoki ezazu esperantza luzea / Zure bizitzaren espazio laburrera” jarri baitu Sarrionandiak Bilbaok “eta aldia laburra denez / bilatu bide motzena itxaropen luzean” itzuli duen lekuan (“et spatium brevi spem longam reseces”); azkenik, Sarrionandiarrenean ematen den azken gomendia ezezko batekin ageri da, “Eta ez zaitetz balizko biharraz fida”, nahiz eta Bilbaorenean “etorkizunean ahal den gutxien fida[tzeko]” esaten den (“quam minimum credula postero”). Adibide hauek aztertuta, kontuan izanik Gidor Bilbaoren itzulpenak sorburu-testutik gertuko izatea bilatu duela, Sarrionandiaren itzulpena jatorrizkoarekiko nahiko librea dela ondorioztatuko genuke, eta Sarrionandia dezente urruntzen dela

¹¹⁵ Hona hemen jatorrizkoa: “Tu ne quaesieris, scire nefas, quem mihi, quem tibi / finem di dederint, Leuconoe, nec Babylonios / temptaris numeros. Ut melius, quicquid erit, pati, / seu pluris hiemes seu tribuit Iuppiter ultimam, / quae nunc oppositis debilitat pumicibus mare / Tyrrhenum: sapias, vina liques et spatio brevi / spem longam reseces. dum loquimur, fugerit invida / aetas: carpe diem, quam minimum credula postero” (Horazio, *Carmina* (‘Odak’), I, XI).

jatorrizkoak ematen dituen hainbat iruditatik. Itzulpena egiteko eskura izan zitzakeen zubi-testuen artean arakatuz, ordea, Sarrionandiaren bertsoaren oso antzekoa den gaztelaniazko bertso bat aurkitu dugu Luis Alberto de Cuenca y Pradoren eta Antonio Alvar Ezquerraren *Antología de la poesía latina* liburuan. Hona hemen berriro Sarrionandiaren itzulpena, aipatutako gaztelaniazko bertsoaren alboan oraingo honetan:

Ez zaitetz saia, Leuconoe,
Jainkoek ezarri diguten etorkizuna
Asmatzen, debekaturik dago, ez itzazu
Babiloniar numeroak kontsulta.
Hobe da datorrena onartzea!
Nahiz eta Jupiterrek negu asko eman,
Nahiz eta hauxe izan azkena,
Tirreno itsasoa oraintxe arroketan
Haustera darabilena. Ez zaitetz
Eroa izan. Edan ezazu zeure ardaua
Eta egoki ezazu esperantza luzea
Zure bizitzaren espazio laburrera.
Mintzo garen artean, ihes doa denbora.
Bizi ezazu gaurko eguna. Harrapa ezazu,
Eta ez zaitetz balizko biharraz fida.

(Sarrionandia 1995a: 56)

No pretendas saber, pues no está permitido,
el fin que a mí y a ti, Leucónoe,
nos tienen asignados los dioses,
ni consultes los números Babilónicos
Mejor será aceptar lo que venga,
ya sean muchos los inviernos que Júpiter
te conceda, o sea éste el último,
el que ahora hace que el mar Tirreno
rompa contra los opuestos cantiles.
No seas loca, filtra tus vinos
y adapta al breve espacio de tu vida
una esperanza larga.
Mientras hablamos, huye el tiempo envidioso.
Vive el día de hoy. Captúralo.
No fies del incierto mañana.

(Cuenca y Prado & Alvar Ezquerria 1981: 56)

Bi bertso hauek alderatuta, Sarrionandiaren itzulpenak de Cuenca y Prado eta Alvar Ezquerrarenari nahiko hurbiletik jarraitzen diola ohartuko gara: “Ez zaitetz eroa izan” esamoldeak, ziurrenik, “No seas loca” izan du abiaburu; esperantzari buruzko gomendioa ere antzekoa da bi bertsoietan (“egoki ezazu esperantza luzea zure bizitzaren espazio laburrera” esamoldea beste honen zuzeneko itzulpena da: “adapta al breve espacio de tu vida una esperanza larga”); eta azken lerroko ezezkoak ere gaztelaniazko bertsiotik itzulua dirudi (“No fies del incierto mañana”). Alderaketa honi esker konturatu gara, azken batean, hasieran jatorrizkotik dezente aldentzen zela zirudien Sarrionandiaren itzulpena gaztelaniazko bertsoaren hurbileko itzulpena dela.

Beste hainbat kasutan, Sarrionandiaren itzulpenak zubi-testu posibleekin alderatzean, ohartu gara Sarrionandiak bere itzulpenen hitzaurrean zubi-testu bat aipatzen duen arren, ziurrenik zubi-testu horren gaztelaniazko bertsoa erabili duela itzulpena egiteko. Ausartuko ginateke esatera, adibidez, *From the Tablets of Sumer* (Kramer 1956), *Anthologie de l'humour noir* (Breton 1966) eta *Geschichte der neoafrikanischen Literatur* (Jahn 1966) antologiak, Sarri-

nandiak bere itzulpenetan aipatzen dituenak, ez direla izan itzultzean begi aurrean izan dituenak, horien gaztelaniazko bertasioak baizik: *La historia empieza en Sumer* (Kramer 1958), *Antología del humor negro* (Breton 1972) eta *Las literaturas neoafricanas* (Jahn 1971), hurrenez hurren.¹¹⁶ Hori frogatzeko, Sarrionandiak itzulitako sumeriar testu baten zatia transkribatuko dugu jarraian, berak aipatzen duen ingelesezko bertasioarekin alderatzeko lehenik eta gaztelaniazko bertasioarekin ondoren:

Senarra, utz nazazu laztantzen; Ene amodiozko laztana ezta baino lehunagoa delako.	Bridegroom, let me caress you, My precious caress is more savory than honey, In the bedchamber, honey filled, Let us enjoy your goodly beauty, Lion, let me caress you, My precious caress is more savory than honey. [...]
Ganbara eztiz betean, Zure edertasun paregabe hori goza dezagun; Lehoia, utz nazazu laztantzen, Ene amodiozko laztana ezta baino lehunagoa delako. [...]	[...]
Zure arima, nik badakit zelan alaitu zure arima, Senarra, lo egin ezazu gure etxean egunsentira arte. Zure bihotza, nik badakit zelan alaitu zure bihotza, Lehoia, lo egin dezagun gure etxean egunsentira arte.	Your spirit, I know where to cheer your spirit, Bridegroom, sleep in our house until dawn, Your heart, I know where to gladden your heart, Lion, sleep in our house until dawn.
(Sarrionandia 1991a: 17)	(Kramer 1956: 250)

Nabarmenenak begitandu zaizkigun desberdintasunen artean hauek aipatuko genituzke. Lehenik eta behin, lerro banaketa: ingelesezkoan ahapaldi bakar batean ageri dena bitan ematen du Sarrionandiak. Bigarrenik, Sarrionandiak “lehun” adjektiboa darabil ingelesezko “savory” itzultzeko (‘zaporetsua’, ‘zapore onekoa’, ‘gozoa’). Hirugarrenik, azken ahapaldian “sleep in our house” bi aldiz errepikatzen da ingelesezkoan, bietan bigarren pertsonari emandako agindu bezala; Sarrionandiaren bertasioan, aldiz, “lo egin ezazu gure etxean” ageri da lehenik eta “lo egin dezagun gure etxean” gero. Hiru desberdintasun horiek desagertu egiten dira Sarrionandiaren bertasioa Kramerrenaren gaztelaniazko itzulpenarekin alderatuz gero:

Senarra, utz nazazu laztantzen; Ene amodiozko laztana ezta baino lehunagoa delako.	Esposo, déjame que te acaricie; Mi caricia amorosa es más suave que la miel.
Ganbara eztiz betean, Zure edertasun paregabe hori goza dezagun; Lehoia, utz nazazu laztantzen, Ene amodiozko laztana ezta baino lehunagoa delako. [...]	En la cámara llena de miel, Deja que gocemos de tu radiante hermosura; León, déjame que te acaricie; Mi caricia amorosa es más suave que la miel. [...]

¹¹⁶ Amelia Barquín doktore eta tesiko epaimahaikideari zor diot hiru liburu hauek ezagutaraztea.

Zure arima, nik badakit zelan alaitu zure arima,
 Senarra, lo egin ezazu gure etxean egusentira arte.
 Zure bihotza, nik badakit zelan alaitu zure bihotza,
 Lehoia, lo egin dezagun gure etxean egusentira arte.

(Sarrionandia 1991a: 17)

Tu alma, yo sé cómo alegrar tu alma;
 Esposo, duerme en nuestra casa hasta el alba.
 Tu corazón, yo sé cómo alegrar tu corazón;
 León, durmamos en nuestra casa hasta el alba.

(Kramer 1958: 192-193)

Ahapaldi banaketa bat dator bi bertsioetan, “lehun” adjektiboa “suave”-ren euskal ordaina da eta zaila litzateke “savory”-tik ateratzea, eta azken ahapaldiko “duerme en nuestra casa” eta “durmamos en nuestra casa” ere bat datoz Sarrionandiak emandako itzulpenarekin.

Antzeko beste zenbait alderaketa eginda, konturatu gara Sarrionandiaren itzulpen asko ez direla irakurleari lehen begi-kolpean iruditu dakizkiokeen bezain libreak, eta Sarrionandiak ez dituela jatorrizko testuak neurrigabeki birsortu edo desitxuratu ohi, bere hitzaurre eta gogoetetan itzulpenaren birsortze-ahalmena eta itzultzailearen askatasuna hain ozen aldarrikatu izan badi-tu ere. Hala eta guztiz ere, itzulpena ardatz hartuta egin izan dituen birsorkun-tza-jokoek eta itzulpenaren eta sorkuntzaren arteko mugaren lausotasuna agerian jartzeko baliatu izan dituen bestelako amarru eta estrategiek itzulpena-ren ulerkera postmoderno bat islatzen dutelakoan gaude. Ikus ditzagun ja-rraian banan-banan itzulpen-estrategia horiek.

3.2.3.1. Apokriffoak

Sarrionandiak baliatu izan duen itzulpen-estrategia deigarri eta urratzai-leenetako bat apokrifoen edo sasi-itzulpenen erabilera da. Gideon Touryk, sasi-itzulpenen inguruan gehien idatzi duen autoreetako batek, honela defini-tzen ditu:

[T]exts which have been presented as translations with no corresponding source texts in other languages ever having existed – hence no factual ‘transfer operations’ and translation relationships (Toury 1995: 40).¹¹⁷

Benetako itzulpenak ez diren arren, garrantzitsua iritzi diogu apokriffoak itzulpen-estrategien barruan aztertzeari. Izan ere, Gideon Touryk gogoraraz-ten duen bezala, “assumed translation” edo “ustezko itzulpenek”, benetakoak ez izanagatik, informazio baliotsua eman dezakete gizarte batek itzulpena

¹¹⁷ Antzeko definizioa ematen du Lawrence Venutik: “an original composition that its author has chosen to present as a translated text” (Venuti 1998: 33).

ulertzen duen moduari buruz, eta baita, gaineratuko dugu guk, itzultzaileak itzulpena hautematen duen moduari buruz ere. Touryren iritziz, beraz, xede-hizkuntzan itzulpen gisa aurkeztutako testu oro itzulpen gisa aztertu behar da, nahiz eta apokrifoa izan eta sorburu-hizkuntzan testu baliokiderik ez eduki. “Ustezko itzulpenak” definitzeko hiru postulatu erabiltzen ditu Touryk. Lehenik, sorburu-testuaren postulata (*Source-Text Postulate*), aurreko testu bat egon delako ustea, nahiz eta ez den inoiz halakorik existitu. Bigarrenik, transmisioaren postulata (*Transfer Postulate*), hau da, ustezko sorburu-testu batetik zenbait ezaugarri transmititu direlako ustea. Azkenik, hirugarren postulata harremanen postulata litzateke (*Relationship Postulate*), ustezko itzulpenaren eta bere ustezko sorburu-testuaren artean nolabaiteko harremanak daudelako ustea (Toury 1995: 31-35). Hiru postulatu horiek bete-betean ageri dira Sarrionandiaren sasi-itzulpenetan. Horrelako testuen inguruan ematen duen informazioak (edo informazio ezak) eta “gezurrezko” itzulpen horiek benetako itzulpenen artean duten kokapenak testu horiek ere itzulpentzat jotzera eramaten dute irakurlea.

Horixe gertatzen da, esate baterako, Sarrionandiak *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* (1985) itzulpen-antologian txertatu dituen hainbat poematan. Liburuaren hitzaurrean bertan aitortzen du Sarrionandiak poema itzulien artean apokrifoa batzuk ere badaudela,¹¹⁸ baina lehen begiratuan behintzat ez da erraza sasi-itzulpenak benetako itzulpenetatik bereiztea. Mohammed Al-Kali ustezko poeta afrikarraren hiru poemak, adibidez, ez dira beste hizkuntza batean idatzitako sorburu-testu baten itzulpenak, Sarrionandiak berak asmatutako poemak baizik. Testu horiek, ordea, beste poema itzuli batzuen artean aurkezten ditu, itzulpenak balira bezala, eta fikziozko autoreari buruz ematen duen informazioa benetako autore batzuen inguruan ematen duena bezain sinesgarria denez, benetako autore baten poemak itzulpenen aurrean dagoela sinetsarazten dio irakurleari. Beste liburu batean aitortzen du Sarrionandiak Mohammed Al-Kaliri egotzitako poemak apokrifoa direla, *Gartzelako poemak* (1992) liburuan, hain zuzen. Izenburu desberdinez eta zenbait gauzatxo aldatuta bada ere, *Izkiriaturiken* argitaratutako Al-Kaliren hirugarren poema ematen du *Gartzelako poemak*

¹¹⁸ “[...] leku eta egoera arras desberdinetan egin ditut translazio entseguak, Bilbon egin nituen greko eta latinoenak, Oloroen errumaniera itzultzen lagundu zidaten, Leitzaan apokrifoa batzuen asmatu nituen, gero El Puerto de Santa Maria eta Herrera de la Mancha aldean paper ugari zirriboratu eta gorde nuen, [...]. Orain, non nagoen ere ez dakidala, aldizkako testu guztiok, batzuen makinaz, beste eskuz, bestetzu irakurtezinik zeudenak, dezifratu, batu era ordenaturik, tinta kolore berberaz imini ditut” (Sarrionandia 1995a: 7).

liburuan, eta bertan aitortzen apokrifoa dela: “Apokrifoa, Mohammed Al-Kali poetari atxekia” (Sarrionandia 2003: 39).

Apollinaire Babiol da *Izkiriaturiken* ageri den beste poeta apokrifo bat. Kasu honetan, Sarrionandiak ez du autoreari buruzko inolako argibiderik eskaintzen. Badirudi Guillaume Apollinaire eta Apolinar Bilbao izenak nahastuta sortu duela Sarrionandiak autore apokrifo hau. Guillaume Apollinaire (1880-1918) Frantziako idazle surrealista izan zen. Ezagunak dira Lehen Mundu Gerran idatzi zituen poemak (*Calligrammes, poèmes de la paix et de la guerre 1913-1916*). Sarrionandiak Apollinaire Babiol idazle apokrifoari egotzen dizkion poemek ere trintxeretan dabilen norbaiten bizipenak kontatzen dituzte. Apolinar Bilbao, berriz, badirudi Sarrionandiaren lagun bat dela, hainbat urtez kartzelan egona bera ere. Sarrionandiak behin baino gehiagotan aipatzen du bere lanetan. Esate baterako, *Ez gara geure baitakoak* liburuan, Apolinar Bilbaori eskaintzen dio “Erlojuak” izeneko atala (Sarrionandia 2006b: 59). *Marinel zaharrak* liburuko “Lagun presoak” poeman ere, Apolinar aipatzen du beste hainbat izenen artean (Sarrionandia 1988: 31). Apollinaire Babiol, hortaz, idazle apokrifoa izateaz gain, keinu bat da adiskidearentzat.

Gideon Touryk sasi-itzulpenak idazteko bi motibazio nagusi deskribatzen ditu: batetik, kultura batean berrikuntzak sartzeko nahia, batez ere onetsitako eredu eta arauetatik desbideratzea gaizki ikusia dagoen kulturetan; bestetik, zentsura-neurrien beldurra (Toury 1995: 41-42). Sarrionandiaren kasuan, ordea, itzulitako testuen artean apokrifoak tartekatzeak beste motibazio batzuei erantzuten diela esango genuke, eta sorkuntzaren eta itzulpenaren arteko bereizketa garbiaren ideia tradizionala hankaz gora jartzeko erabiltzen dituen jolasetariko bat dela baieztatzera ausartuko ginateke. Douglas Robinsonek sasi-itzulpenak definitzean esaten duen bezala,

[t]he concept of pseudotranslations is interesting in large part because it calls into question some of our most cherished beliefs, especially the belief in the absolute difference between a translation and an original work (Robinson 1997: 185).

Sorburu testuaren, transmisioaren eta harremanen postulatu bidez, Sarrionandiak bere poema apokrifoen atzean jatorrizko testu bat badagoela sine-tsarazi nahi dio irakurleari, eta sorburu-testu horren eta bere itzulpenaren artean transmisio edo harreman batzuk izan direla. Sorburu-testu hori, ordea, ez da inork inoiz idatzitako testu konkretu bat, idazleak “izkiriartzear dagoen testua hitzez hitz definitu orduko bere baitan sortu eta emendatuz joan den testu ilunago eta izkiriatu gabeko” bat baizik (Sarrionandia 1995a: 9). Sasi-itzulpe-

nen bidez, beraz, edozein poema “originalen” baitan gertatzen den itzulpen edo bihurpena ikusarazi nahi du Sarrionandiak, bizipenak papereratzean gertatzen den transformazioa, alegia. Horrela, gogorarazten du “poema orok aurreko poemagintzan du[ela] erroa” (Sarrionandia 1981: 6), poema original oro jadanik itzulpena dela, alegia, itzulpen oro beste testu baten birsorkuntza originala den bezala.

Testuen, idazleen eta literaturen arteko hartu-eman eta elkarreagin saihestezin hori agerian geratzen da Sarrionandiak asmatutako beste idazle apokrifiko baten sasi-itzulpenetan. *Hezurrezko xirulak* liburuan aurkezten duen Jeronymo Oliveira da Verdade ustezko idazle portugesa gezurrezko pertsonaia da, abizenaren azken zatiak aurkakoa sinetsarazi nahi badigu ere.¹¹⁹ Idazle faltsu hori deskribatzeko ematen dituen xehetasunak, ordea, egiazko autore eta liburuetatik hartuak dira, eta horrek are sinesgarritasun handiagoa ematen dio idazle apokrifoiari. Existitu diren eta benetako testuak idatzi dituzten hainbat autoreren datuak nahastuz, fikziozko pertsonaia bat sortu du Sarrionandiak *Hezurrezko xirulak* liburuko orrialdeetan, eta haren ahotan jarri berak asmatutako poemak. Hiru orrialde oso eskaintzen dizkio Sarrionandiak Jeronymo Oliveira da Verdaderen deskribapenari: XVIII. mendeko poeta portugesa gisa definitzen du, eta Horazioaren arte poetikoa ikertu eta haren poema guztiak portugesez itzuli zituela azaltzen du. Itzulpen horiek liburu honetan argitaratu omen zituen:

Entendimiento literal e construção de todas as obras de Quinto Horacio Flacco, por Jeronymo Oliveira da Verdade, da cadeira de Eloquenza e Poezia da Universidade de Coimbra. Lisboa, anno MDCCXLVI, na Regia officina Typographica (Sarrionandia 1991a: 118).

Ez dugu inon liburu horren arrastorik aurkitu; bai, ordea, antzeko izenburua duen beste bat:

Entendimiento literal, e construção portugueza de todas as obras de Horacio, principe dos poetas latinos lyricos, com hum index copioso das Historias e Fábulas conteadas nellas (Lisboa, Manuel da Silva, 1639).

Balirudike, beraz, ustez Jorge Gómez de Álamoena den liburu horretan oinarritu zela Sarrionandia Jeronymo Oliveira da Verdaderi egotzitako liburu-

¹¹⁹ Izena bera ere, Jeronymo, esanguratsua da: ba ote du loturarik Bibliaren latinezko bertsoia (Vulgata) egin zuen eta gaur egun itzultzaileen patroia den San Jeronimorekin?

ruaren izenburua asmatzeko. Liburu “egiazko” horren istorioa ere esanguratsua da oso; izan ere, Juan Villén de Biedmaren *Q. Horacio Flacco: poeta lyrico latino. Sus obras con la declaracion Magistral en lengua Castellana. Por el Doctor Villen de Biedma* (Granada, Sebastián de Mena, 1599) liburuaren plagio txar bat besterik ez dela iradoki izan da (Menéndez Pelayo 1951: 198).

Sarrionandiak esaten duenez, Horazioren poemak itzulpenak biltzen dituen liburu horrek ez du interes berezirik; askoz ere baliotsuagoa omen da urte batzuk geroago Jeronymo Oliveira da Verdaderen obra originalekin argitaratu zen beste liburu hau:

Microcosmographía é discripção do Mundo pequeno que é o Homen, por Jeronymo Oliveira da Verdade, jubilado na cadeira de Lingoagem e Arte da Universidade de Lisboa. Porto, anno MDCCLXX, na officina de Simão Thadeo Ferreira (Sarrionandia 1991a: 119).

Beste behin ere, ez dugu horrelako libururik aurkitu, baina bai antzeko bat, Andrés Falcão de Resendek XVI. mendean idatzia:

Microcosmographía é discripção do Mundo pequeno, que è o Homen (Menéndez Pelayo 1951: 196).

Sarrionandiaren asmakizunaren arabera, *Microcosmographía...* horretan biltzen diren Jeronymo Oliveira da Verdaderen odak “bere garaiko gaiet buruz izkiriaturik egon arren, latinoaren oihartzun dira, eta imitazioak baino gehiago translazio hutsak” (Sarrionandia 1991a: 119). Jarraian, hori frogatzeko adibideak emateari lotzen zaio, Oliveira da Verdaderen oda portuges bakoitza Horazioren latinezko oda batekin alderatuz (Sarrionandia 1991a: 119-120). Ematen dituen itzulpenak egiazkoak dira, baina ez, jakina, Jeronymo Oliveira da Verdaderenak, beste itzultzaile portuges batzuenak baizik. Menéndez Pelayoren obran aurkitu dugu poema bakoitzaren benetako itzultzailea:

Assim a poderosa, Deosa de Chipre...
(Horazioren *Sic te diva potens Cypri...*)

Antonio Ferreira (1770)¹²⁰

Com qué tormentas já, com qué portentos...
(Horazioren *Iam satis terris...*)

Andrés Falcão de Resende (XVI. mendea)¹²¹

¹²⁰ Menéndez Pelayo 1951: 195.

¹²¹ Menéndez Pelayo 1951: 196.

<i>A Federica minha filha...</i> ¹²² (Horazioren <i>Solvitur acris hiems...</i>)	Doña Leonor de Almeida (1847) ¹²³
<i>Qual a ave que os raios lle ministra...</i> (Horazioren <i>Qualem ministrum fulminis alitem...</i>)	Tomás José de Aquino (1761) ¹²⁴
<i>Novas ondas vorazes...</i> (Horazioren <i>O navis, referent in mare...</i>)	Francisco Dias Gomez (1799) ¹²⁵
<i>Posthumo, Posthumo, os veloces annos...</i> (Horazioren <i>Eheu fugaces...</i>)	Antonio Ribeiro dos Sanctos (1745-1818) ¹²⁶
<i>Profano vulgo, eu fujo, eu te aborreço...</i> (Horazioren <i>Odi prophanum vulgus...</i>)	Fr. Alejandro da Sacra Familia ¹²⁷

Sarrionandiak, Jeronymo Oliveira da Verdade apokriforen inguruan asmatu duen istorioarekin jarraituz, xehetasun —faltu— gehiago ematen ditu haren —ustezko— obraren inguruan, beste pertsonaia apokrifoko batzuk aipatuz: Paulo Caminho “kritiko zuhurra” eta João Coelho “O Interessante” aldizkari iruzkingilea.

Hiru orrialdeko sarrerari amaiera emateko, Sarrionandiak esaten du Jeronymo Oliveira da Verdadek badituela lau poema *Microcosmographia...* liburuan argitaratuak, “imitaziotik apartatzen direnak, XVIII. mendeko poesia akademizistatik ere aldenduaz bere obran halako zirrikitu txiki bat irekitzen dutenak” (Sarrionandia 1991a: 120), eta ustezko lau poema horietako bi ematen ditu, euskarara itzuliak.

Lehenak “Era uma flor de alta esperança” du izenburu, eta “Ene andre-gaia serora sartu zelarik”, berriz, azpi-izenburu. Portugesezko izenburutik tiraka, Manoel da Veiga Tagarro-ren poema bat aurkitu dugu, zeinaren lehen bi lerroak bat baitatuz ia guztiz Sarrionandiak ematen duen itzulpenarekin:

¹²² Sarrionandiak *A Henriqueta minha filha* idatzi du *A Federica minha filha* beharrean. Badirudi nahastu egin dituela Doña Leonor de Almeidak itzultako bi poema horiek: *A Henriqueta minha filha* Horazioren *Tu ne quaesieris* poemaren itzulpena da; *A Federica minha filha*, berriz, Horazioren *Solvitur acris hiems* poemarena. Baliteke hanka-sartze hutsa izatea, edota nahita egindako beste nahasketa edo jolas bat (Menéndez Pelayo 1951: 222-223).

¹²³ Menéndez Pelayo 1951: 223.

¹²⁴ Menéndez Pelayo 1951: 204.

¹²⁵ Menéndez Pelayo 1951: 208.

¹²⁶ Menéndez Pelayo 1951: 215.

¹²⁷ Menéndez Pelayo 1951: 217.

Era Laura uma flôr de alta esperança,
 Dos paes primeiro amor, doce lembrança:
 (Manoel da Veiga Tagarro,
apud Menéndez Pelayo 1951: 493)

Esperantza goreneko lorea zen,
 Gurasoen amodio, gero oroitzapen.
 (Sarrionandia 1991a: 121)

Gainerakoan, bi poemak desberdinak dira; badirudi Sarrionandiak poemaren bariazio bat egin duela, birsortze bat, esaldi berberarekin hasi ondoren bere nahierara moldatu duena, beste behin ere agerian jarriz itzultzea berriro sortzea dela.

Sarrionandiak euskaraz ematen duen Jeronymo Oliveira da Verdaderen bigarren poemak ere portugesezko izenburua du: “Versos dignos de ti cantaba outr’ora”. Badirudi esaldi hori José Agustín de Macedo-ren itzulpen batetik hartua dela, Horazioren “Poscimus si quid...” odaren itzulpenetik, hain zuzen ere (Menéndez Pelayo 1951: 212). Gainerakoan, ordea, ez dirudi Sarrionandiaren poemak Macedorenari jarraitzen dionik; izenburuko hitzei erreferentzia egiten dien pasarterik ere ez da ageri. Esanguratsuak dira, dena den, Sarrionandiaren poemaren azken lerroak, poemaren faltsutasun edo apokrifotasuna iradokitzeke asmoz idatziak izan litezkeenak:

Ai, ene maitea, barkatu
 Gezurrak esaten baditut, gezurrak hobeto esaten ez baditut
 (Sarrionandia 1991a: 122).

Sarrionandiak jolas biribila osatu du, beraz, Jeronymo Oliveira da Verdaderen izenpean: Horazioren hamar itzultzaile portugesen lanak erabili ditu autore apokrifiko bat sortzeko, eta gero haren ahotan jartzeko bere lumatik sortutako poemak. Beste behin ere, modu ludiko batez jarri nahi izan du agerian literaturaren sare-egitura, idazleen eta testuen artean gertatzen den elkarreragin etengabea. Izan ere, nor da Jeronymo Oliveira da Verdaderi egotzitako bi poema horien benetako autorea? Sarrionandiak sartutako ziriaz ohartzen den irakurleak ere ezin izango dio galdera horri modu kategorikoan erantzun. Poema horiek Sarrionandiak idatzi dituela esatea egiazen erdia esatea besterik ez litzateke, ezin ukatuzkoa baita aipatu ditugun itzultzaile portugesen poemetako zatiak erabili dituela bere poemak osatzeko. Itzultzaile portugesen poemak, beren aldetik, Horazioren oden itzulpenak ziren, edo, behintzat, haietan inspiratuak. Eta Horazio zertan inspiratu zen ere galde genezake, eta horrela jarraitu infinitura arte, inoiz jatorririk edo obra originalik aurkitu gabe. Jolas honetan argi ikusten da, beraz, edozein testuk aurreko beste testuren bati erantzuten diola, bazuetan kontzienteki (Sarrionandiaren jolas hauetan, esaterako), beste ba-

tzuetan inkontzienteki (ustez “originalak” diren poemak ere ez baitira inspirazio zerutiar baten ondorioz idazten, idazleak aurretik irakurritako guztiaren ondorioz baizik), eta argi geratzen da itzulpenaren epistemologia postmodernoa azaltzean adierazi duguna; alegia, ez dagoela testu originalik eta dena dela kopia edo itzulpen, edota ez dagoela kopia edo itzulpenik eta dena dela originala.

Jeronymo Oliveira da Verdaderen inguruan sortutako amarruaren antzeko zerbait egin du Sarrionandiak *Hezurrezko xirulak* liburuko “Amodio esesaguna” poema apokriforekin. Poemari egindako hitzaurrean adierazten duenez, Martin Murua poeta ezezagunaren poema hori Francesco Malatesta humanista italiarraren *Della Storia e Ragione d’ogni Poesia* liburuan aurkitu du, VI. tomoko 743. orrialdean, “aurretik autoreari buruzko hipotesi bitxi bat dakarrela”:

«...che fosse quest opera lavoro d’un incantatore di Mauritania, che sotto falso nome di christiano, essendo mahometano, e pieno di’ vanità magiche, lo componesse in lingua antica di Uasconia» (Sarrionandia 1991a: 74).

Sarrionandiak aipatzen duen liburu hori (edo, behintzat, izenburu ia berdinekoa) existitzen da, baina Francesco Malatesta, aldiz, Sarrionandiak asmatutako pertsonaia da. *Della Storia e della Ragione d’ogni Poesia* Francesco Saverio Quadrio italiarrak idatzi zuen, 1739 eta 1752. urteen artean. Bertan aurki daiteke Sarrionandiak bere amarrurako erabili eta aldatutako pasarteak:

Luigi Lollo Vescovo di Belluno fu di parere che fosse quest’ opera lavoro di un incantatore di Mauritania, che, sotto falso nome di Cristiano, essendo realmente Maomettano e pieno di vanità magiche, lo componesse in lingua antica di Spagna (Quadrio 1739-1752: lib. ii. dis. i. c. iii. part vii).

Sarrionandiak “Martin Murua” jarri du Quadriok “Luigi Lollo Vescovo di Belluno” aipatzen zuen lekuan, eta “Uasconia”, berriz, italiarrak “Spagna” jarri zuen lekuan. Quadrio *Amadís de Gaula* gaztelaniazko zalduntza-liburuaren egileari buruzko hipotesia ematen ari da pasarte horretan, eta ez euskal amodio-poema baten jatorria asmatzen, Sarrionandiak iradoki bezala. Azpimarratzekoa da, halaber, Jeronymo Oliveira da Verdade apokrifoiari moztutako kentzeko balio izan digun Menéndez Pelayok berak aipatzen duela Francesco Saverio Quadrioren hipotesi hori bere liburu batean (Menéndez Pelayo 1943: 347). Badirudi, beraz, Sarrionandiak haren obretatik hartu dituela bere irakurleak engainatzeko erabili dituen hainbat datu.

Hezurrezko xirulak liburuko beste zenbait poema ere apokrifoak dira. Esate baterako, argi dago “Euskaldun preso baten poemak” atalean emandako hiru poemak Sarrionandiak berak idatziak direla. Beste adibide bat “Seaska kanta” izenekoa izan liteke, nahiz eta, orain arteko apokrifo gehienetan ez bezala, oraindik ez dugun Sarrionandiaren jukutria justifikatzeko daturik aurkitu. Hau da Sarrionandiak poema edo kanta horri buruz ematen duen informazioa:

Berverly Lizard amerikar folklorezaleak Garaiolan bildu zuen, 1943 urtean Euskal Herrian kanpo ikerketan ari zelarrik, eta seaska kantaren testua baina batez ere musika artikulu gogoangarrian aztertu zituen.

Cf. *Berverly Lizard*,
Musical analysis of a basque lullaby.

(Sarrionandia 1991a: 224).

Ez dugu ez artikulu hori, ez idazle hori, ez sehaska-kanta hori aurkitu. Garaiola izeneko herri edo auzorik ere nekez topa daiteke Sarrionandiaren idatzietatik kanpo,¹²⁸ eta berak asmatu-rik lekuren bat izan litekeelakoan gauden, Durangaldeko Garai herriarekin lotua ziur aski.¹²⁹

Adibide hauetan ikusi ahal izan dugun bezala, sasi-itzulpenek zalantzan jartzen dute itzulpenaren eta sorkuntzaren arteko muga, baina baita tradizio-nalki botere handia izan duen autoretzaren kontzeptuaren izaera sakratua ere. Lawrence Venutik, *The Scandals of Translation* liburu interesgarriko “Authorship” atalean (Venuti 1998: 31-46), Pierre Louÿs idazle frantsesaren *Les Chansons de Bilitis* sasi-itzulpenaren istorioa kontatzen du testu apokrifoe-
k autoretzaren nozioa birplanteatzeko duten indarraren adibide gisa. Venutik gogorarazten duenez, autoretzaren ideia originaltasunarekin lotuta ageri da oro har Mendebaldeko tradizioan; itzulpena, aldiz, imitazioarekin, distorsioarekin, benetakotasun ezarekin erlazionatzen da:

Whereas authorship is generally defined as originality, self-expression in a unique text, translation is derivative, neither self-expression nor unique: it imi-

¹²⁸ *Ifar aldeko orduak* (1990) narrazio-liburuko “Haurrak pindaturiko paisaia” ipuina Garaiola izeneko herrixkan gertatzen da, Durangotik gertu.

¹²⁹ Aitzpea Azkorbebeitiak “kronotopo zehaztu, determinatu eta errealarekin” lotzen du Garaiola (Azkorbebeitia 1998: 45), eta Alberto Erraztiren ikerlana (1994) ematen du frogatzat. Halere, guk ez dugu liburu horretan Garaiola izeneko herri, auzo edo antzekorik topatu.

tates another text. Given the reigning concept of authorship, translation provokes the fear of inauthenticity, distortion, contamination (Ventui 1998: 31).

Autoretzaren nozio hori nagusi den zirkulu akademizistetan, “scholarship” edo ikerketa akademikoaren bidez aztertu nahi izaten da jatorrizko autoretza eta autore horren “benetako” asmoa, “scholarly translation” delakoak erabiliz, hots, ikerketaren zehaztasuna helburu duten itzulpenak, asmo literario eta estetikoak alde batera utzita. Itzulpen horiek dira jatorrizko testua “objektiboki” interpretatzen dutenak, eta ez itzulpen “subjektibo” edo libreak, horiek guztiz desitxuratzen baitute testua, eta ez baitiote ikertzaileari autorearen benetako asmoa gardenki ikusten uzten:

Instead of enabling a true and disinterested understanding of the foreign text, translation provokes the fear of error, amateurism, opportunism - an abusive exploitation of originality (Venuti 1998: 31).

Pierre Louÿsena bezalako sasi-itzulpenek, ordea, lausotu egiten dituzte itzulpenaren, autoretzaren eta ikerketa akademikoaren arteko bereizketak. Izan ere, Louÿsek “scholarly translation” delakoen parodia egin zuen bere liburuan, iruzurra are sinesgarriago egiteko hainbat iturri literario eta bibliografiko erabiliz eta ikerketa historiko sakona egina zuela erakutsiz:

Les Chansons de Bilitis is an elaborate parody of a scholarly translation, in which he invented not merely a classical text by a Greek poet, but a modern edition by a German professor whose name, “G. Heim,” puns on the German word for “secret” or “mysterious,” *geheim*. In the poems themselves, Louÿs paid a scholarly attention to detail (Venuti 1998: 39).

Ikusi dugunez, Sarrionandiak ere xehetasun historiko eta bibliografiko ugari eskaintzen ditu bere sasi-itzulpenen hasieran —horietako batzuk, gainera, egiatik ere asko dutenak— bere ikerketari zehaztasun eta sinesgarritasun handiagoa emateko. Ikusi dugunez, Jeronymo Oliveira da Verdade aurkeztean benetan dokumentatutako hainbat itzulpen erabiltzen ditu. Era berean, Martin Muruari buruz ari delarik, Koldo Mitxelena eta bere *Textos arcaicos vascos* aipatzen ditu. Egiatzko datu horietaz gain, ordea, aipatzekoak dira bere iruzurrei egiantzekotasuna ematen dioten beste hainbat xehetasun ere. Esate baterako, Martin Murua apokrifoari egotzitako poema “ortografia emendatu gabe” ematen du, hots, euskal testu zaharrak idatzi ohi ziren bezala, irakurleari aspaldi idatzitako poema bat irakurtzen ari dela sinetsarazteko (Sarrionandia 1991a: 74). Beste adibide bat aipatzearen, Sarrionandiak Jeronymo Oli-

veira da Verdaderi buruzko ikerketan aurkitu omen duen “inprenta errata” ere sinesgarritasuna areagotzeko estrategia bat besterik ez da:

Jeronymo Oliveira da Verdade zenaren obra ondo definitu du Paulo Caminho kritiko zuhurrak:

«Jeronymo Oliveira da Verdade e Quinto Horacio Flacco vestido en lingua-gem portugueza»

Vestido hori, bidenabar, inprenta errata bitxi bat besterik ez da, *vertido* ordez (Sarrionandia 1991a: 120).

Sasi-itzulpenak sinesgarri egiteko estrategiekin batera, baina, itzulpenen faltsutasuna iradokitzeko pistak ematea ere ohikoa izan ohi da horrelako parodietan. Sarrionandiak autore apokrifo bati *Verdade* abizena eman izana eta haren poema baten amaieran *gezurrak* aipatu izana Louÿsek alemanezko “geheim” hitzarekin egindako hitz-jokoarekin aldera daitezke. Jolas horien bidez, Louÿsek eta Sarrionandiak agerian jarri nahi izan dute ikerketa akademikoek eta “scholarly translation” horiek ere, edozein itzulpen edo berridazketak bezala, ez dutela egia absoluturik eskaintzen, garai historikoak eta beste hainbat faktorek baldintzatutako interpretazio subjektiboak baizik:

Louÿs thus suggested that, like his counterfeit translation, scholarship is engaged in historical invention, which, however, can pass for truth because it shares the cultural authority enjoyed by academic institutions (Venuti 1998: 40).

Sasi-itzulpenek, beraz, itzulpenaren epistemologia postmodernoa azal dutako ideia nagusiak berresten dituzte. Ikusi dugunez, zalantzan jartzen dute autoretza bakar eta finkoaren ideia, eta maila berean jartzen dituzte testu itzuliak eta “original” deiturikoak, baita literatura-itzulpenak eta ikerketa akademikoak ere. Venutik egokiro adierazten duenez, bai itzulpenak, bai ikerketa akademikoak, testuak interpretatzeko saiakera subjektiboak dira, eta garaian garaiko eta lekuan lekuko balio kulturalak baldintzatuta daude:

Both translation and scholarship rely on historical research in their representations of an archaic or foreign text, but neither can produce a representation that is completely adequate to the author’s intention. On the contrary, both translation and scholarship answer to contemporary, domestic values that necessarily supplement that intention: in effect, they reinvent the text for a specific cultural constituency that differs from the one for which it was initially intended (Venuti 1998: 44).

Ikerketa akademikoez eskainitako informazioaz baliatu da Sarrionandia beste poema apokrifo batzuei egiantzekotasuna eman eta sasi-itzulpenek eskaintzen dituzten baliabide ludikoez beste jolas bat osatzeko: *Hezurrezko xirulak* liburuan ageri diren bi poema, Sarrionandiak Gudröd Haaleg izeneko norvegiar bati egozten dizkionak, apokrifoak dira, itxura guztien arabera. Aurkezpen moduko sarreratxoan, “Noruegako erregearen bigarren sem[e]” gisa aurkezten zaigu Gudröd Haaleg, eta “Ifar aldeko lur eta elurrak abandonatu eta Errusiar lautadetan barrena Konstantinoplara joan ze[la]” esaten zaigu, “Irene enperatrizararen *vaeringer* izateko” (Sarrionandia 1991a: 65). Jarraian, haren bizitzaren hainbat xehetasun ematen ditu: Ireneren zaindari edo *vaeringer*-en buruzagia izan omen zen, eta, hainbat borrokatan ospetsu bihurtu ondoren, sorterrira itzuli omen zen bere aberastasun guztiakin. Baina Sarrionandiak itzultitako beste hainbat autore “exotikok” bezala, Gudröd Haalegek ere txirotasunean igaro behar izan omen zituen bizitzako azken urteak:

Baina bidaian —itsaso Baltikoan— naufragatu eta bere aberastasunak oro bertan galduaz, galera haretatik apenas bildu zuen bere fiordoan urte guti batzu gainbizitzeko osasuna (Sarrionandia 1991a: 65).

Gudröd Haalegen poemen hainbat xehetasun ematen ditu ondoren Sarrionandiak, Tomas Gomez delako baten *An Outline of Nordic Literature* liburutik hartu omen dituenak. Ez dugu inon liburu horren arrastorik aurkitu, eta hori izan da bi poemok apokrifoak direla pentsatzera eraman gaituen pistetako bat. Sarrionandiak ematen duen informaziotik tiraka, ordea, 1875eko liburu bat aurkitu dugu, Thomas Carlyle eskoziarraren *Early Kings of Norway*, hain zuzen ere, non Sarrionandiak kontatutako Gudröd Haalegen biografiako zenbait datuekin antzekotasun handia duten gertaerak aurkitu baititugu. Liburu hori eta beste hainbat iturri kontsultatuta, jakin dugu Harald Haarfager (853-936) Norvegiako erregearen seme batek Halfdan Haaleg izena zuela, eta beste seme batek Gudrod Liome (Carlyle 2009: 12). Badirudi, beraz, bi izen horiek nahastuz sortu duela Sarrionandiak Gudröd Haaleg pertsonaia. Haren biografia, berriz, Harald Haarfager erregearen ondorengo baten bizitzan oinarrituta asmatu duela dirudi. Ondorengo hari ere Harald zeritzan, eta Thomas Carlyleren liburutik ikasi ahal izan dugunez, Sarrionandiak bere pertsonaia asmatuari asmatu dion bizitzaren oso antzekoa izan zuen:

This new Harald was already much heard of in the world. As an ardent Boy of fifteen he had fought at King Olaf's side at Stichelstad; [...] got cured of his wounds, forwarded to Russia, where he grew to man's estate, under bright auspices and successes. Fell in love with the Russian Princess, but could not get her

to wife; went off thereupon to Constantinople as *Vaeringer* (Life-Guardsman of the Greek Kaiser); became Chief Captain of the Vaeringers, invincible champion of the poor Kaisers that then were, and filled all the East with the shine and noise of his exploits. [...] Harald had innumerable adventures, nearly always successful, sing the Skalds; gained a great deal of wealth, gold ornaments, and gold coin; had even Queen Zoe (so they sing, though falsely) enamored of him at one time; and was himself a Skald of eminence; some of whose verses, by no means the worst of their kind, remain to this day (Carlyle 2009: 93).

Sarrionandiak esaten digunez, Gudröd Haalegek Irene enperatrizari eskainitako maitemin poemak “suhartsu eta apasionatuak” dira. “Baina”, jarraitzen du Sarrionandiak, poema hauen apokrifotasuna iradokiz bezala,

eruditoek zalantzan jartzen dute beren egiazkotasuna, amodio idealizatu bati dagozkiola suposatzen dute, eta idealizazio honen zentzuak ikertzen, ezen eta Gudröd Haaleg Konstantinoplara iristean Irene enperatrizak 83 urte konplituak bait zituen (Sarrionandia 1991a: 66).

Antzeko zerbait aurkitu dugu Thomas Carlyleren liburuan, Harald erregegiaren eta Zoe erreginaren arteko maitasun-kontuaren inguruan:

[...] scholars say there could have been no considerable romance between Zoe and him, Zoe at that date being 60 years of age! Harald’s own lays say nothing of any Zoe, but are still full of longing for his Russian Princess far away (Carlyle 2009: 93).

Gudröd Haaleg apokrifoaren biografiaren ondoren, bi poema ematen ditu Sarrionandiak, “gerla poema” bat eta “amodio poema” bat, esaten duenez “Tomas Gomez literatura nordikoen ikerlariak” euskaratuak. Beste behin ere, beraz, bi pertsonaia fikziozkori egozten dizkio Sarrionandiak bere sasi-itzulpenak: Gudröd Haaleg ustezko autoreari eta Tomas Gomez ustezko ikertzaile-itzultzaileari. Horrela, zalantzan jartzen du berriro autoretzaren kontzeptua, bere hitzen erantzukizuna nolabait arinduz, Sherry Simon ikertzaileak sasi-itzulpenez diharduenean adierazten duen bezala:

Pseudotranslations are a way of escaping the onus of authorship, of eluding the obligations imposed by a literary system that demands a *name* as an origin of the work. Pseudotranslation plays with the conventions of authorship. It allows writers the luxury of evading responsibility for their words. And it illustrates the point that Michel Foucault made in his classic essay “What is an author?” – that authorship is less an organic link between style and personality than a means of

categorizing, disciplining and controlling speech (Foucault, 1977). Pseudotranslation deliberately skews the process of attribution, creating the possibility for more playful forms of expression (Simon 2006: 146).

Sarrionandiak ere adierazpen-forma ludikoagoak bilatzen ditu bere itzulpenen artean sasi-itzulpenak eta ustezko autore eta itzultzaileak tartekatzen dituenen. Autoretzaren erantzukizuna saihestuz eta hainbat autoreren hitzak bereganatuz, moldatuz eta nahastuz, jarraipena ematen dio literatura den jolas interaktibo eta biziari, eta autore bakar bati egotz ezin zaizkion testuak sortzen ditu, inorenak ez direnak, edo, beste modu batera esanda, denenak direnak.

Baliteke Sarrionandiaren itzulpen-liburuen orrialdeetan testu apokrifoko gehiago egotea, ez baita erraza hain garai, leku eta tradizio desberdinetako testuen artean itzulpenak sasi-itzulpenetatik bereiztea. Dena den, identifikatu ditugun apokrifoei nahikoa informazio ematen digute Sarrionandiak sasi-itzulpenen bidez helarazi nahi duen mezua ulertzeko: errealitatea eta fikzioa nahastuz, zalantzan jartzen ditu sorkuntzaren eta itzulpenaren arteko bereizketa, testuaren eta autore bakar baten arteko lotura eta jatorrizkoaren originaltasunaren ideia.

Sarrionandiak hasitako joko hauek, gainera, izan dute beren jarraipena, beste zenbait autorek haren sasi-itzulpenak bereganatu, moldatu edo itzuli baitituzte, Sarrionandiaren jukutrien jakitun batzuk, apokrifokoak egiazko itzulpenetzat joz beste batzuk.

Izkiriaturiken argitaratutako Mohammed Al-Kaliren poema apokrifoa, adibidez, benetako poema gisa aurkeztu zuten Juan Kruz Igerabidek eta Patxi Zubizarretak 2008ko uztailaren 3an, Haur eta Gazte Literaturaren IV. Kongresu Iberiarren irekiera-ekitaldian:

Gracias al trabajo de los traductores, podemos conocer y disfrutar de textos como este poema de Mohammed Al-Kali, así como comprobar la universalidad de nuestros sentimientos (Igerabide & Zubizarreta 2008: 5).

Ondoren, Mohammed Al-Kali ustezko idazlearen poema baten gaztelaniazko bertsioa aurkeztu zuten, zalantzarik gabe Sarrionandiaren liburutik itzulita.¹³⁰ Sasi-itzulpen baten itzulpena eskaini zuten, beraz, Sarrionandiak hasitako jokoa are gehiago korapilatuz. Zein da bi poema horietan jatorriz-

¹³⁰ Ikusi Juan Kruz Igerabideren eta Patxi Zubizarretaren gaztelaniazko bertsioa hemen: <http://www.galtzagorri.org/fitx/irudiak/Juan%20Kruz+Patxi%20Es.pdf>.

koa? Zein itzulpena? Zenbaterainoko erantzukizuna dauka autore bakoitzak? Sarrionandiak, Mohammed Al-Kali apokrifoak, Igerabidek, Zubizarretak...? Galdera horiek guztiak irekita gelditzen dira, erantzun gehiagoren zain, itzulpen gehiagoren zain.

Sarrionandiaren sasi-itzulpenek bestelako jarraipenik ere izan dute beste idazle batengan: Patziku Perurenaren *Trapuan pupua* (2001) liburuan bada artikulu bat Sarrionandiaren *Hezurrezko xirulak* liburuko hainbat (sasi-)itzulpen biltzen dituen, Sarrionandia eta bere liburua esplizituki aipatzen ez badi-tu ere: sumeriar taulak, antigoaleko egiptoar izkribuak, Stesikoro Himerakoa, Paulus Silentiarius, Gudröd Haaleg, Chrétien Troiakoa eta Francesco Malatesta aipatzen ditu, baita nahuatl mintzairatik hainbat poema euskaratu omen dituen Jose Ramon Negrete¹³¹ ere. Autore horienak omen diren zenbait testu-zati ematen ditu jarraian, argi eta garbi Sarrionandiaren (sasi-)itzulpenetatik kopiatuak, baina nahi dituen lerroak hartuz, elkarren ondoan jarritz eta bazuetan nahierara moldatuz (Perurena 2001: 220-221). Sarrionandiak (bir) sortutako testuak birmoldatuta ageri zaizkigu, beraz, Patziku Perurenaren orrialdeetan, eta testuaren eta autorearen arteko loturak guztiz hautsita.

Ikusi dugunez, itzulpenen artean sasi-itzulpenak tartekatuz, Sarrionandiak zalantzan jartzen du testu bakoitza autore “original” bakar batekin lotzen duen ideia. Hurrengo atalean aztertuko ditugun fikziozko itzultzaileek ere anzeko efektua eragiten dute.

3.2.3.2. Fikziozko itzultzaileak

Fikziozko itzultzaileak edo itzultzaile apokrifoak erabiltzea estuki lotuta dago sasi-itzulpenak tartekatzeke estrategiarekin. Sarrionandiak sortu edo itzuli dituen testuak berak asmatutako itzultzaileei egotzen dizkienean, zabaldu egiten du nolabait testu horren eraketan parte hartu duten pertsonen —edo pertsonaien— taldea, testu bat autore bakar batekin lotzeko joera tradizionala salatuz eta literatura partaide ugariren arteko jolas interaktiboa dela gogoraraziz.

Horago aipatu dugu, adibidez, Sarrionandiak Gudröd Haaleg autore apokrifoaren itzultzaile gisa aurkeztu digun Tomas Gomez ikertzaile apokrifoaren

¹³¹ Hurrengo atalean xehekiago aztertuko dugun arren, esan dezagun hemen Sarrionandiak nahuatl poemen itzultzaile gisa aurkezten duen Jose Ramon Negrete hori itzultzaile apokrifoa dela, itxura guztien arabera.

kasua (Sarrionandia 1991a: 66). Sarrionandiak ez ditu soilik jatorrizko autore eta haren testuak asmatu; itzultzailea ere fikziozkoa da kasu honetan. Sarrionandiak, sasi-itzulpenen bidez, zalantzan jartzen bazuen beraren eta testuaren arteko lotura zuzen eta bakarra —itzulpena baizik ez bide zen berarena; jatorrizko testua beste autore batek idatzi bide zuen—, sasi-itzultzaileak asma-tzeak jolasa bukaeraraino eramateko aukera ematen dio: jatorrizkoa ez bide du berak asmatu, eta itzulpena ere ez bide da berarena; testu jadanik itzuli hori bere liburuan tartekatu besterik ez bide du egin. Horrelako jolasen bidez, guztiz hausten du autoretzaren eta testuaren arteko lotura zurrin hori, eta testua-ren eta beste autore —apokrifo— batzuen arteko lotura berriak iradokitzen ditu.

Beste kasu batzuetan, Sarrionandiak benetako testuentzat asmatzen ditu itzultzaile apokrifoak. Jose Ramon Negrete dukegu Sarrionandiak asmatutako sasi-itzultzaile horietako bat. Hark euskaratu omen ditu *Hezurrezko xirulak* liburuko bi nahuatl testuak. “Nahuatl mintzairatik euskarara biak Jose Ramon Negretek transladatu ditu” (Sarrionandia 1991a: 78). Testuak ez dira apokrifoak, benetako nahuatl poemak baizik. Itzultzaileak, ordea, Sarrionan-diaren asmazioa izatearen itxura guztia du. Ez da ezinezkoa Jose Ramon Ne-grete Sarrionandiaren adiskideren bat izatea, guretzat ezezaguna, poema ho-riek itzuli eta Sarrionandiari eman dizkiona. Halere, beste hainbat (sasi-) itzulpenekin egin dituenak ikusita, hau ere autoretzaren kontzeptua korapila-tzeko egindako jolas gisa ulertu behar delakoan gaude.

Gauza bera gertatzen da Kalevalaren itzultzailearekin. *Hezurrezko xirula-ken*, testu finlandiarraren zati baten euskal itzulpena ematen du Sarrionan-diak. Testua ez da apokrifo; aski ezaguna da XIX. mendeko Elias Lönnrot filologo finlandiarrak Finlandiako ahozko folklorea eta mitologian oinarritu-ta idatzitako poema epikoa. Sarrionandiak itzuli duen zati berbera aurkitu dugu Jorge Zalamearen *Poesía ignorada y olvidada* (1965) liburuan, gaztela-niara itzulita. Baliteke, beraz, Sarrionandiak bertsio horretatik euskaratu izana poema finlandiarra.¹³² Itzultzaile gisa aurkezten digun pertsonaia, ordea, apo-krifo da argi eta garbi. “Euskal bertsioa, Helsinkin bizi den Kepa Zenikak egina da”, dio Sarrionandiak poemaren hitzaurrean (Sarrionandia 1991a: 156). Kepa Zenika Joxemari Iturraldearen *Izua hemen* (1989) eleberriko prota-gonista da, gerra zibilaren ondoren Errusiara bidaltzen dutena hara erbestera-tutako haur euskaldunen egoera aztertzea. Errusiara sartzea lortzen ez due-

¹³² Aurrerago aztertuko ditugu xehekiago Sarrionandiaren itzulpenen iturri izan diren an-tologiak.

nez, Finlandiara joan eta han kokatzen da. Ez da harritzekoa, beraz, Sarrionandiak Kepa Zenika Helsinkin bizi dela esatea. Kalevalaren itzulpena Kepa Zenikari egotziz, Iturraldearen istorioari jarraipena eman nahi izan dio, errealitatea eta fikzioa nahastuz beste behin ere, eta testuen, autoreen eta itzultzaileen arteko loturak are gehiago korapilatuz. Gogoraz dezagun Joxemari Iturralde Pott bandako kideetako bat zela, eta bandako zenbait kideren arteko erreferentzia eta jolasak ohikoak zirela haien testuetan, Jon Kortazarrek dioen moduan:

Bernardo Atxaga, Joxemari Iturralde eta Joseba Sarrionandia egileek euren obretan sortu dute sare sinboliko eta erreferentzial bat, hiruren obretan aipamenak, deskribapenak bata bestearen liburutik hartuz eta berean sartuz. [...]

Adibide asko daude liburu askotan azken urte hauetan. Badago joko literarioa (ludikoa+sinbolikoa). Sare literario horrek badu bere zergatia (Kortazar 2003: 164).

Joko literario “ludiko-sinboliko” horiek, elkarri egindako adiskidetasun-keinuak izateaz gain, errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak lausotzeko estrategiak ere badira, eta autore bakarraren ideia deseraitzeko ahaleginak ere bai. Kepa Zenika ez da jada Joxemari Iturraldearen pertsonaia hutsa, Sarrionandiak ere bere bihurtu baitu keinu xalo horren bidez. Era berean, Kalevala ez da Lönnrotena soilik, ezta Sarrionandiarena soilik ere, ezta poema horrek izan litzakeen milaka itzultzailearena soilik ere; Kepa Zenikarena ere bada, eta jolasari jarraituz, baita Kepa Zenika asmatu duen Joxemari Iturraldearena ere.

Aurreko atalean aipatu ditugun autore apokrifoak ere jolas beraren barruan ulertu behar dira. *Hezurrezko xirulak* liburuan ageri diren Martin Murrúa (Sarrionandia 1991a: 74-75), euskal sehaska kanta baten egile anonimoa (Sarrionandia 1991a: 224-225) eta hiru poema idatzi dituen euskaldun preso (Sarrionandia 1991a: 295-297) autore apokrifoak dira. Ez dira itzultzaile gisa aurkezten, autore gisa baizik, poemak, jatorrian, euskaraz idatziak izan zirela iradokitzen delako. Lortzen den efektua, ordea, antzekoa da: bere esku-hartzea poema horiek aurkitu eta itzulpenen artean tartekatzer mugatu dela iradokitzen digu Sarrionandiak, autoretzaren erantzukizunetik urrunduz beste behin ere.

Sarrionandiak badu beste liburu bat, apokrifoak biltzen dituzten *Izkiriaturik* (1985) eta *Hezurrezko xirulak* (1991a) baino dezente berriagoa, antzeko jolas literario batean oinarritzen dena: *Munduko zazpi herrialdeetako ipuinak* haurrentzat idatzitako liburua da, 2008an argitaratua. Kredituetan argi asko

jartzen duen arren egilea Sarrionandia dela, liburuaren azalean eta kontra-
zelean ipuinen biltzaile eta itzultzaile gisa aurkezten da Sarrionandia:

*Munduko zazpi
herrialdetako ipuinak*

Joseba Sarrionandiaren
eskutik

Kontrazalean, baita barruko hitzaurre modukoan ere, liburuaren aurkez-
pena zazpi ipuin horien autore omen diren zazpi haurrek egiten eta sinatzen
dute:

Bakoitzak herrialde bateko istorioa kontatzeko bildu gara. Munduko leku
urrunetatik etorri gara eta gagozen bazterretik ekarri dugu ipuina, euskaraz kon-
tatzeko.

J. S. hartu dugu biltzaile, itzultzaile eta idazkari, pasaporterik eskatu ez digu-
lako eta gure ortografia eta gramatika akatsen beldurrik izan ez duelako.

[...]

CIZE, DIEGO ARMANDO, SILVIA, MOHAMED, OSAMU, MARIE JEANNE, MAR-
GARET (Sarrionandia 2008: 9).

Zazpi autore apokrifo asmatu ditu Sarrionandiak liburu honetan, beste
hainbeste istorio apokriforen egiletzat aurkezteko. Haur bakoitzak, istorioari
ekin aurretik egiten duen sarreratxoan, bere burua aurkeztu eta bere familia-
ren jatorriari buruzko azalpen labur bat ematen du. Cabo Verde, Ekuador,
Espainia, Aljeria, Japonia, Euskal Herria (Zuberoa) eta Inuiten herria dira,
hurrenez hurren, haur horien familien jatorriak. Gehienek, halere, badute lo-
turarik Euskal Herriarekin: bertan jaiok direlako, arbaso euskaldunen bat
dutelako, Euskal Herriari buruzko istorioren bat entzun dutelako... Batzuek
esaten dute euskaraz kontatuko dutela istorioa, euskaraz badakitelako. Beste
batzuek, aldiz, ez dute euskararekiko lotura zuzenik. Kasu horietan, kontra-
zelean esaten dena sinestera, euskal itzulpena Sarrionandiak egin duela ondo-
riotzatzen da. Dena den, itzulpena ipuin guztietan gertatu bide da, ipuinak
euskaraz kontatzen dituzten haur gehienek ere beste hizkuntza batean entzun-
go zutelako istorioa: Ekuadorren jaiotako mutikoak, esaterako, euskaraz kon-
tatzen du amonari jibaro hizkuntzan entzundako ipuina.

Ipuinak eta kontalariak apokrifoak direla argi badago ere, jolas polita pro-
posatzen du Sarrionandiak liburu honetan. Zazpi tradizio desberdinetako
ipuinak euskaraz kontatzean, hainbat ideia jartzen ditu zalantzan. Batetik, ko-

lokan jartzen ditu “literatura nazionalaren” kontzeptua eta literaturen arteko muga zurrinak. Liburu honetako kontalari zenbait euskaldunak dira, baina beste jatorri bateko ipuinak kontatzen dituzte, ahozko tradizioetik hartuak gehienak. Ezinezkoa da, beraz, ipuin horiek nazio edo herrialde bakar bateko literaturaren barruan sailkatzea. Hibridoak direla esan beharko genuke. Gauza bera gertatzen da haur horien identitate nazionalarekin ere. Haur “mestizo” eta cleaniztun horiek asmatzean, Sarrionandia identitate zatitu eta pluralen kontzeptu postmodernoa azpimarratzen ari da, eta gogorarazten norbanakoa identitate ugari eta aldakorrez osatzen dela.

Nortasun mugikor eta zatikatuaren ideiarekin lotuta ulertu behar dira, halaber, Sarrionandiaren “alter ego” edo heteronimotzat jotzen diren Martin Lezeta eta Ismael Larrea pertsonaia apokrikoak. Testu eta itzultzaile apokrikoekin egin ohi duen bezala, bi pertsonaia hauekin ere errealitatea eta fikzioa nahasten ditu Sarrionandiak, identitateekin jolasten, eta irakurlea pertsonaien eta istorioen amaraun korapilatsuan sartzen. Zenbait kasutan, bere ipuinetako protagonista gisa aurkezten dizkigu bi pertsonaiok; beste batzuetan, aldiz, bere testuen epigrafeen egile gisa (azterketa xehea egina du Aitzpea Azkorbebeitia ikertzaileak Sarrionandiaren bi heteronimo hauen inguruan: Azkorbebeitia 1998: 25 eta 64; ikusi, halaber, Kortazar 2003: 156-160 eta 2005: 99-111). Adibiderik esanguratsuenetako bat aipatzearren, *Ifar aldeko orduak* (1990) narrazio-liburuko “Oroimena eta desira” ipuina ekar dezakegu gogora. Ipuina Martin Lezeta apokrikoaren epigrafe batek irekitzen du: “Ez diren gauzak dira ederrenak” (Sarrionandia 1990: 107); hitz horiekin, dagoeneko aztertu ditugun sasi-itzulpen askotan bezala, benetako bezala aurkezten den testuaren gezurrezkotasuna iradokitzen du Sarrionandiak. Narrazioaren hasieran Martin Lezeta apokrikoaren *Oroimena eta desira* liburu apokrikoaren berri ematen du, eta gero, Lezetaren biografia xehea eskaini ondoren, liburua osatzen duten hamar ipuinak deskribatzen ditu (*Ifar aldeko orduak* ere hamar ipuinez osatzen da, eta Martin Lezetaren liburuko azken narrazioa ere hamar ipuineko beste liburu baten komentarioa da...; amaigabeko joko proposatzen du horrela Sarrionandiak). Narrazio osoan zehar ematen dituen datu asko eta asko egiazkoak dira, aztertu ditugun sasi-itzulpenen hitzaurreetan gertatzen zen bezala, eta horrek egiantzekotasun handia ematen dio narrazioari. Esaterako, Martin Lezetaren garaikide izan omen ziren hainbat autore aipatzen dira: Robert Graves, Elizabeth Bowen, H. H. Munro, Lord Dunsany, Walter de la Mare, Arthur Machen, May Sinclair... Gogoraraz dezagun autore horietako biren testu bana itzuliak zituela ordurako Sarrionandiak: H. H. Munroren ipuin bat eta Walter de la Mareren poema bat. Ildo beretik, ipuin

honen izenburua ere Sarrionandiak gogotik irakurri eta itzulitako beste autore baten poema batetik hartua da, T. S. Elioten *The Waste Land* ospetsutik, hain zuzen ere: “Titulua, T.S. Elioten *The Waste land* edo *Lur Ere-muaren* hasieratik jasotakoa da: «... mixing memory and desire...»” (Sarrionandia 1990: 114). Itzulpena eta sorkuntzaren arteko muga lausotuta ageri zaigu beste behin ere. Sarrionandiak 1981ean argitaratu zuen poema horren lehen zatia *Oh! Euzkadi* aldizkarian, eta 1983an, berriz, poema osoa *T. S. Eliot euskaraz* liburuan.¹³³ Itzulpen horiek ipuin berri bat sortzeko bidea eman diote liburu honetan, eta, literaturen eta idazleen arteko sare korapilatsua are gehiago korapilatzeke edo, autore apokrifo bati egotzi dio gainera ipuin hori asmatu izana.

Ipuin honetan ematen diren hainbat datu egiazkoak badira ere —aipatzen diren autoreez gain, *Littérature* eta *The Criterion* aldizkariak ere benetan existitu ziren; Primo de Riveraren diktadura ere aipatzen da...— eta horrek ipuin osoari sinesgarritasun handia ematen badio ere, Sarrionandiak narrazioan zehar tartekatzen dituen hainbat keinuk ipuinaren apokrifotasuna iradokitzen du. Esate baterako, hainbat adiskideren izenak erabiltzen ditu ipuineko pertsonaia batzuk sortzeko: adibidez, Mikel Albisuk apailatu omen du Martin Lezetaren liburuaren edizioa; liburuko bosgarren ipuina, berriz, hainbat lagun presori eskainita omen dago, tartean “Apolinar Ostalaza anarkistari”, zeinak izango baitu ziurrenik zerikusirik *Izkiriaturikeko* Apollinaire Babiol apokrifo harekin. Ipuinaren apokrifotasuna salatzen duten beste keinu batzuk Martin Lezetaren liburuaren inguruan egindako hainbat iruzkin lirateke: “Horregatik, orain, de profundis atera behar dugu Martin Lezeta, fikziozko pertsonaia bailitzen, bere euskal narrazioen liburu ere imajinarioa bailitzen” (Sarrionandia 1990: 113). “Zortzigarren narrazioa gutun apokrifoz osatzen da” (Sarrionandia 1990: 116). “Liburuko azken narrazioa beste liburu baten komentarioa da, agian apokrifo” (Sarrionandia 1990: 116). Martin Lezetak Londresen argitaratu omen zuen aldizkariari ere izen esanguratsua jarri dio Sarrionandiak —*Failure*, hots, porrota—, literaturaren nahiz beste edozein ikerketa akademikoren bidez errealitatea edo egia objektiboki interpretatzeko ezintasuna iradoki nahi balu bezala.

Sarrionandiaren gainerako sorkuntza-lanetan ere presentzia nabarmena dute pertsonaia apokrifoek. Hainbat ipuin eta poemaren aurrean jarritako

¹³³ Itzulpen horietaz gain, *The Waste Land* poemaren erantzun moduko bat ere argitaratu zuen Sarrionandiak *Izuen gordelekuetan barrena* (1981) liburuan. Aurrerago aztertuko dugu xehekiago poema hori.

epigrafeak autore apokrifoenak dira,¹³⁴ esate baterako *Narrazioak* (1983) liburuko lehen narrazioarena, Sarrionandiak berak aitortzen duenez:

Lehen narrazioan, *Estazioko Begiradak* delakoan, neuk asmatu dut epigrafeak eta, bestalde, ez dut uste Michel Saulaie izena literaturako enziklopedietan aisa aurki daitekeenik. Texto honetan, ipuin bat baino, pertsonaia eta istorio amaraun bat moldatu dut, nahiz eta finean ezer guti utzi (Sarrionandia 1983a: 131).

“Pertsonaia eta istorio amaraun” hori jolas postmoderno biribila da.¹³⁵ Errealitatearen eta fikzioaren artean jolasten du, irakurlea engainatzen, eta edozein testu eta literatura tradizio desberdinetatik elikatzen dela gogorarazten. Horixe da, hain zuzen ere, Sarrionandiak bere testuei eransten dizkien epigrafeen helburu nagusia, Aitzpea Azkorbebeitiak ongi laburbiltzen duen legez:

Apokrifoak alde batera utziz, gainontzeko aipuek (benetakoak, antza), irakurketari begira paper funtsezkoa jokatzeaz gain, narrazioak delako autore edo testu batekin lotzen dituzte eta, honela, tradizio baten txertatzen direla gogorarazten digute. [...]

Azken buruan, eta J. Riechmann poetaren hitzetan esateko, “idazketaren izaera soziala” azpimarratzeko nahia ere balegoke honen guztiaren azpian. Izan ere, horixe baita Sarrionandiarengan zein ‘literatura modernoan’ kokatu ohi diren idazle gehienengan erroturik dagoen literatur kontzepzioa: idazlana beti ere aurretik idatzitakotik edan eta elikatzen dela ulertzen duen kontzepzioa, testu oro tradizio baten erdian sortua dela ulertzen duena (Azkorbebeitia 1998: 26).

Ez dugu zertan apokrifoak azalpen horretatik salbuetsi. Irakurleak ez ditu beti epigrafe apokrifoak “benetako” apokrifoetatik bereizten, eta, beraz, funtzio berbera betetzen dute maiz. Gainera, “benetako” epigrafeak ere itzuliak izan ohi dira askotan, Sarrionandiak berak moldatu, egokitu edo birsortuak, alegia. Hortaz, apokrifoek autoretzari eman ohi zaion gehiegizko garrantzia apaltzeko aukera ludiko bat eskaintzen dute, eta “idazketaren izaera soziala” beste modu batera azpimarratzekoa.

¹³⁴ Ikusi Aitzpea Azkorbebeitiaren liburuan epigrafeei eskainitako atala (Azkorbebeitia 1998: 21-27).

¹³⁵ Ikusi Amaia Serranoren “Joseba Sarrionandiaren *Narrazioak* postmodernitatearen ispiluaurrean” artikulua (2008).

3.2.3.3. *Zubi-hizkuntzak eta zubi-testuak*

“Idazketaren izaera soziala” agerian geratzen da, halaber, Sarrionandiaren itzulpen asko zubi-hizkuntzak eta zubi-testuak erabiliz eginak direla kontuan hartzen badugu. Sarrionandiaren itzulpenen sorburu-testuen artean berrogeita hamarren bat hizkuntza aurki daitezke,¹³⁶ baina gauza ezaguna da Sarrionandiak ez dituela hizkuntza horiek guztiak ulertzen eta bitarteko itzulpenak erabili behar izan dituela testu horiek euskaratzeko. Kontuan harturik Sarrionandiak, euskaraz gain, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta portugesa ulertzen zituela itzulpen-lan gehienak argitaratu zituenean,¹³⁷ pentsatzekoa da bestelako sorburu-hizkuntzetan idatzitako testuak lau hizkuntza horietako zubi-testuak erabiliz itzuli bide dituela (salbuespenak izan litezke katalana, galiziera eta italiara: gaztelania, frantsesa eta portugesa jakinda, ez du ziurrenik zubi-testuen beharrik izan hiru hizkuntza horietako testuak itzultzeko).

Kasu bakan batzuetan, Sarrionandiak itzulpenerako erabili duen zubi-testua zein izan den aitortzen du. Halaxe egiten du, esate baterako, *Izkiriaturiken* ematen dituen Tu Fu txinatarraren poemekin: hitzaurrean jakinarazten du Octavio Paz mexikarraren itzulpenetatik itzuli dituela testuak: “Itzultzean, ohar hauetan bezala, Octavio Paz poetaren bertsioa jarraitu dut” (Sarrionandia 1995a: 67). Beste kasu batzuetan, testuak nondik itzuli dituen esplizituki esaten ez badu ere, iturriren bat aipatzen du autoreari buruzko informazioa nondik hartu duen adierazteko, eta pentsatzekoa da, halakoetan, liburu horretako itzulpenetatik euskaratu dituela testuak. Esate baterako, *Hezurrezko xirulak* liburuan sartu dituen lau greziar autoreen kasuan, Sarrionandiak ez du esaten haien testuak zein hizkuntzatatik itzuli dituen, baina, Agathias Eskolastikoa aurkeztean, Marguerite Yourcenar idazle frantsesaren *La Couronne et la lyre* liburutik hartutako aipu bat tarteatzen du. Liburu horretara joz gero, hantxe aurkitzen dira Sarrionandiak

¹³⁶ Eranskinean ikus daiteke Sarrionandiaren itzulpen bakoitzaren jatorrizko hizkuntza. Guztira, berrogeita hamar inguru dira: greziera klasikoa, latina, mozarabiera, ingeles zaharra, aleman zaharra, frantses zaharra, irlandera, galesa, galiziera, katalana, flandesera, ingelesa, alemana, frantsesa, portugesa, espainiera, greziera, italiara, errumaniera, txekiera, finlandiera, errusiera, hungariera, poloniera, sumeriera, sanskritoa, arabiera, pertsiera, vietnamera, txinera, japoniera, egiptoera zaharra, tuarega, haussa, kabiliera, swahilia, xhosa, eskimala, araukanoa, arapahoa, miskitoa, chippewa, seminola, komantxea, lakota, nez-percé-a, nahuatla, kokonukoa, ketxuera eta kiliwa.

¹³⁷ Zenbat hizkuntza zekizkien galdetuta, honela erantzun zion Sarrionandiak Hasier Etxeberriari: “Ba euskaraz, espainolez, portugesez, ingelesez eta frantsesez irakurtzen dut apur bat behintzat” (Sarrionandia 2002: 305).

euskaratutako greziar testuak, frantsesez. Beste adibide bat ematearren, liburu bereko swahili poemaren hitzaurrean aipatzen duen *Geschichte der neoafrikanischen Literatur* ekar genezake gogora: liburu horretan aurkitzen dira, Sarrionandiak ematen duen swahili poemaren jatorrizko bertsoia eta alemanezko itzulpena ez ezik, baita liburu berean jaso dituen beste poema batzuen alemanezko bertsoiak ere: haussa poemenak eta Samuel Edward Krune Mqhayi xhosa hizkuntzako idazlearen poema batena.¹³⁸ Kasu gehienetan, ordea, Sarrionandiak ez du zubi-testuei buruzko inolako pistarik ematen, eta jatorrizkoaren hizkuntza aipatzera mugatzen da. Amerindiarren hizkuntzetan idatzitako poemen kasuan, adibidez, ez du aipatzen zein testu baliatu dituen itzulpenak egiteko. Orobat gertatzen da palestinar idazleen poemekin, anonimo txinoekin, haikuekin edo Europako hizkuntzetan idatzitako hainbat testurekin. Mitxel Sarasketak eta biek itzultitako zenbait narrazio biltzen dituen *Hamairu ate* (1985) liburuan, esaterako, ipuin batzuk itzultzeko zubi-hizkuntzak erabili dituztela aitortzen dute itzultzaileek liburuarren hitzaurrean, baina zein zubi-testu erabili duten zehaztu gabe:

Hizkuntza desberdinetarik itzuli ditugu, batzutan autore bakoitzaren obra orijinalen oinarriturik, bestetan bigarren eskuko itzulpenean fidaturik, hau da Sakutaro Jaquiwara, Franz Kafka eta besteren baten kasua (Sarasketa & Sarrionandia 1985: 9).

Zubi-testuak erabiliz egindako itzulpenak, itzulpengintzaren arloan “indirect translations”¹³⁹ edo zeharkako itzulpenak izendatu izan direnak, oso ugariak eta ohikoak dira edozein literaturaren historian. Halere, zenbait autoren deitoratzen duen bezala, ez zaie orain artean behintzat arreta handirik eskaini:

¹³⁸ Gorago aipatu dugun bezala, dena den, badirudi Sarrionandiak ez zituela poema horiek bertso aleman horretatik itzuli, haren gaztelaniazko itzulpenetik baizik.

¹³⁹ Honela definitzen dituzte zeharkako itzulpenak Harald Kittlek eta Armin Paul Frankek: “[A]ny translation based on a source (or sources) which is itself a translation into a language other than the language of the original, or the target language” (Kittel & Frank 1991: 3). Beste autore batzuek bestelako terminologia erabili izan dute zeharkako itzulpenak izendatzeko: *relay translation*, *chain translation*, *double translation*, *secondary translation*, *Weiterübersetzung*, *Übersetzung aus zweiter Hand*, *mediated translation*... (Ringmar 2006: 2). Guk *zeharkako itzulpena* terminoa erabiliko dugu jatorrizkotik zuzenean egin ez diren itzulpenak izendatzeko, eta *zubi-hizkuntza* eta *zubi-testua* terminoak, berriz, itzulpenaren oinarri izan diren hizkuntza eta testua izendatzeko, Ringmarrek proposatzen dituen *mediating language (ML)* eta *mediating text (MT)* terminoetan oinarrituta (Ringmar 2006: 3) eta Manu Lópezek bere tesian proposatzen duen terminologiarekin bat eginez (López 2000: 9).

A menudo las traducciones indirectas se dejan a un lado, como si no formaran parte de la historia de la recepción de una literatura. Otras veces se incluyen y se tratan como directas sin tener en cuenta la existencia de un texto intermedio; sin considerar por tanto que puede que ciertos motivos hayan inducido la preferencia por la traducción indirecta a la directa. Al fin y al cabo, la traducción indirecta es un claro reflejo de las relaciones entre sistemas literarios y del estatus de cada uno de ellos (Marín 2008).

Sistema literario batek garai jakin batean izan dituen zeharkako itzulpenak nola eta zein hizkuntzatatik egin diren ikertzeak, beraz, literatura bakoi-tzaren estatusaren eta literaturen arteko harremanen inguruko informazio baliotsua eskaintzen du. Horren adibide dira, besteak beste, txineratik gaztelaniara egindako zeharkako itzulpenen inguruan Maialen Marinek egindako ikerketa (Marín 2008) eta hebreerazko zeharkako itzulpenak aztertzen dituen Gideon Touryren lana (Toury 1995: 129-146). Euskarazko sistema literarioaren kasuan, aipatzekoak dira Manu Lópezek haur eta gazte literatura-aren azterketan zeharkako itzulpenaren inguruan ateratako ondorioak: 1970eko hamarkada ingurutik aurrera, ikastolen mugimenduak eragindako liburu-eskari handiari erantzuteko egindako itzulpen gehienak zubi-hizkuntzen bidez egiten ziren, gehien-gehienak gaztelaniatik, eta gaztelaniazko itzulpenek egindako egokitzapenak bere eginez gainera, nahiz eta kredituetan oso gutxitan ematen zen datu horien berri. Joera horrek 1990eko hamarkadara arte iraun zuen; orduan hasi ziren euskal itzultzaileak haur eta gazte literatura jatorrizko testuetatik itzultzearen beharra sumatzen eta liburuak frantsesetik, ingelesetik, alemanetik eta italieratik zuzenean euskaratzen (López 2000).

Zeharkako itzulpenak egiteko arrazoen artean faktore guztiz desberdinak aipatu izan dira. Arrazoi nabarmenena, ziurrenik, sorburu-hizkuntza ez ezagutzean datza, edota, beste kasu batzuetan, jatorrizko testua eskuratzeko ezintasunean (Ringmar 2006). Denboraren eta ekonomiaren menpe dagoen merkatu editoriala, itzultzaile eta espezialista falta eta editoreen mesfidantza lirateke beste arrazoi batzuk (Marín 2008). Askotan, ordea, Gideon Touryk defendatzen duen legez, zubi-hizkuntzak eta zubi-literaturak xede-sisteman duten prestigioak baldintzatzen du itzulpenenerako bitarteko gisa erabiltzen diren zubi-testuen hautaketa. Argi asko ikusten da hori Touryk hebreerazko literaturaren inguruan egindako azterketan: hebreerazko literaturaren berpizkunde garaian alemana zen itzulpen gehienek zubi-hizkuntza, hain zuzen ere Alemanian sortu zelako berpizkunde hori. Itzultzeko testuak ere sistema literario alemanean zuten prestigioaren arabera hautatzen ziren, jatorrizko sisteman izan zezaketen lekua kontuan hartu gabe: “Whatever material was picked for

transference therefore had to pass the test of **proven recognition in and by German culture**” (Toury 1995: 135, letra lodia jatorrizkoarena da). Gerora, ordea, errusiar literatura bihurtu zen hebreerazko idazle-itzultzaileen sistemarik eskuraerrazena, eta errusiar hizkuntzak eta ereduak ordezkatu zuten garai batean alemanak eta alemaniar literaturak betetzen zuten funtzioa. Azkenik, XX. mendean ingelesa nagusitu zen hebreerazko itzulpenen zubi-hizkuntza gisa (Toury 1995: 129-146).

Euskal sistema literarioa etorrita, badirudi zubi-hizkuntzak erabiltzeko joerak arrazoi praktikoei erantzuten diela batez ere. 1970eko eta 1990eko hamarkaden artean haur eta gazte literaturaren alorreko itzulpenen zubi-hizkuntza nagusia gaztelania izatearen arrazoi nagusia, segur aski, irisgarritasuna zen: espainiar sistema literarioa zen euskal argitaletxe eta itzultzaileek gertuen zekaten zubi-sistema, eta gaztelania, berriz, euskal itzultzaile gehienek hizkuntza “handi” ulerterrazena, edo are bakarra. Bat-bateko liburu-eskari handi hari lehenbailehen erantzuteko, beraz, aukerarik errazenari heldu zitzaion, itzulpenak jatorrizko hizkuntzatik zuzenean egitearen beharrezkotasun edo egokitasunaren inguruan gehiegi hausnartu gabe.

Dena den, garai hartako euskal itzultzaileek zubi-hizkuntzen eta zubi-testuen erabilera ez aitortzeko edo are ezkutatzeko zuten joerak itzulpena haute-mateko moduaren inguruko hainbat pista eman ditzake. “Zeharkako itzulpen kamuflatuak”, izan ere, gizarte eta garai batean zeharkako itzulpenen inguruan nagusi den gaitzespen edo gutxiespenaren isla izan daitezke: “Demuestran que las traducciones indirectas no son toleradas y que es mejor disfrazarlas como traducciones directas” (Marín 2008). Badirudi gaur egun, ahal izanez gero (kontuan izan behar baita oraindik ez dagoela aski euskal itzultzaile hainbat hizkuntzatarako), zuzeneko itzulpenak lehenesteko joera nagusitzen ari dela euskal sistema literarioan, eta, zeharkako itzulpenak egiten diren kasuetan, hori behar bezala adieraztekoa.

Sarrionandiaren itzulpenetara etorrita, ikus dezagun zenbaterainoko eragina izan duten aipatu ditugun faktore horiek zubi-hizkuntzen eta zubi-testuen erabileran. Ez dirudi Sarrionandiaren kasuan merkatu editorialak edota editoreen mesfidantzak inolako eraginik izan dutenik, itzulpenak ez baititu argitaletxeen eskariz egin ohi. Zubi-hizkuntza eta zubi-literatura prestigio-tsuekiko miresmena ere ez da faktore erabakigarria, Sarrionandiak literatura, hizkuntza eta idazle marginal, bazterreko eta ez-kanonikoekiko agertu izan duen zaletasuna kontuan hartzen badugu. Bitarteko itzulpen gisa erabili dituen zubi-testu asko gaztelaniazkoak izatea (ikus hurrengo atala, Sarrionandiak erabilitako “harrobiei” buruzkoa) gaztelania eskura izan zezakeen zu-

bi-hizkuntzarik irisgarriena eta ulerterrazena izateak azalduko luke, gure ustez. Sarrionandiak zubi-hizkuntzetara jotzeko arrazoi nagusia, beraz, guztiz praktikoa litzateke: jatorrizkoa ulertzen ez duenean, eskura duen zubi-testu bat erabiltzen du.

Esan bezala, dena den, gutxitan zehazten du Sarrionandiak itzulpeneko baliatu duen zubi-testua, batez ere erabilitako zubi-hizkuntza gaztelania bada. Badirudi jokabide horren atzean arrazoi ideologiko bat gordetzen dela, hain zuzen ere euskal irakurleen (eta Sarrionandiaren beraren) gaztelaniarekiko menpekotasuna ezkutatzeko nahia. Aurrerago ikusiko dugunez, Sarrionandiak erabiltzen dituen zubi-testu gehienak gaztelaniazko itzulpenak dira, eta baliteke gaztelaniaren presentzia “absorbente”¹⁴⁰ baina aldi berean ezinbesteko hori nolabait mugatu nahi izatea gaztelaniazko zubi-testuak isilduz. Badirudi erreparo gutxiago sorrarazten diola bestelako zubi-hizkuntzen erabilera aitortzeak espainieraren bitartekaritza onartzeak baino. Esanguratsua da, zentzu horretan, gaztelania eta beste hizkuntza “handi” batzuen presentzia ezkutatzeko eta hizkuntza “txikiak” edo euskaldunentzat ezezagunagoak direnak erakusteko joera: askotan jatorrizko testua ematen du euskarazko itzulpenaren ondoan, zubi-testu gisa erabili dituen itzulpena eta hizkuntza aipatu gabe. Horixe da, esate baterako, *Hezurrezko xirulakeko* “Beowulf” poemaren kasua. VIII-IX. mendeetan mendebaldeko saxoi hizkuntzan idatzitako poemaren zati bat ematen du lehenik, jatorrizko hizkuntzan, eta jarraian bere euskal itzulpena, jatorrizkoa ulertzeko erabili duen zubi-hizkuntza zein izan den esan gabe. Gauza bera egiten du *Izkiriaturikeko* latinezko poema batzuekin: Katuloren itzulpen gehienak, beste hainbat idazle latindarren kasuan bezala, gaztelaniazko bertsio batetik itzuli ditu itxura guztien arabera (ikus hurrengo atala, Sarrionandiak erabilitako “harrobiei” buruzkoa), halakorik inon aitortzen ez badu ere eta euskal itzulpenaren ondoren jatorrizko latinezko bertsioa eskaintzen badu ere, itzulpena zuzenean egin delako itxura emanaz. Itzulpen batzuen ondoan jatorrizko bertsioa ere eskaintzeko joera horren atzean, ziurrenik, hizkuntza “marginalei” ikusgarritasun handiagoa emateko nahia gordetzen da. Izan ere, Sarrionandiak ematen dituen jatorrizko gehienak hizkuntza txiki, “exotiko” edo bazterrekoetan idatzitako poemak dira: latina (aipatu

¹⁴⁰ Ikusi 3.1.4. atala, non Sarrionandiak espainieraren bitartekaritza orokorraren arriskuaz ohartarazten duen. Hasier Etxeberriak egin zion elkarrizketa hartan (Sarrionandia 2002) esaten zuen beste literaturetako obrak jatorrizko hizkuntzetan irakurtzen ahalegintzen zela, eta ez espainieraz, baina askotan ez du espainieraren bitartekaritza baliatu beste aukerarik izango, harroben azterketak erakutsiko digun legez.

ditugun Katuloren poemak), mozarabiera (khardja anonimoak), aleman zaharra (germaniar anonimoak), errumaniera (Lucian Blagaren poemak), ingelesa (W. H. Audenen poema), mendebaldeko saxoia (“Beowulf”), kokonukoa (kokonuko indioena), swahilia (swahili poema), haussa (haussa poemak), flandesera (Paul von Ostajenen poema) eta portugesa (Francisco Jose Tenreiro-ren poema) *Izkiriaturiken* eta *Hezurrezko xirulaken*; eta, gainerako itzulpen-liburuetan, galiziera (*Galegoz heldutako poemak*), portugesa (Fernando Pessoa-ren *Marinela* eta *Manuel Bandeira. Antologia*) eta ingelesa (S. T. Coleridgeren *Marinel zaharraren balada*). Horietan guztietan, jatorrizko poemak ematen ditu Sarrionandiak bere itzulpenen ondoan, itzulpenerako zubi-hizkuntzarik erabili ote duen zehaztu gabe. Beste kasu batzuetan, jatorrizko hizkuntzari presentzia minimo bat eman nahian edo, hizkuntza horretan utzi du itzulpenaren izenburua: Sandor Petöfi-ren poemetan hungarierazko izenburua eman du parentesi artean, euskarazko itzulpenaren azpian; Miquel Martí i Pol katalanaren poemei, berriz, ez die izenburua aldatu: katalanezkoa utzi du. Ingelesa kenduta,¹⁴¹ aipatu ditugun hizkuntza guztiak “bigarren mailako” gisa defini litezke, zaharrak eta galduak direlako (latina, mozarabiera, aleman zaharra, mendebaldeko saxoia), europarrek kolonizatutako herrietako indigenenak direlako (kokonukoa, swahilia, haussa), Europa barruan egonik egoera minorizatuan daudelako (galiziera, katalana, flandesera) edota munduko literaturako hizkuntza nagusien ondoan bigarren mailako estatusa dutelako (errumaniera, hungariera, portugesa). Gaztelaniatik, frantsesetik, ingelesetik edo beste hizkuntza “handi” batzuetatik itzulitako testuei ez die jatorrizkoa eranstean, hizkuntza horiek aski eza-gunak, agerikoak eta ikusgaiak direlako gure inguruan. Sarrionandiak bestelako hizkuntzak ikusarazi nahi ditu, ikusgarritasuna eman Mendebaldeko kanonean “ikusezinak” izan diren hizkuntzei; badirudi batzuetan ez dela konformatzen hizkuntza txikietan idatzitako literaturak euskaratzearekin, eta itzulpenez gain izenburuak edota jatorrizkoak ere jatorrizko hizkuntzan

¹⁴¹ Coleridgeren *Marinel zaharraren balada* argitalpen elebiduna da: elkarren ondoan ageri dira jatorrizko poema ingelesa eta Sarrionandiaren euskal itzulpena. Kasu honetan, jatorrizkoa ematearen arrazoia ez litzateke, aipatu ditugun beste hizkuntzen kasuan bezala, hizkuntza “txiki” edo “ezezagunei” ikusgarritasuna ematea; ziurrenik edizio-arrazoiengatik erabaki zuen jatorrizkoa ere ematea: azal gogorreko liburu dotorea da, Gustave Doré ilustratzaileak Coleridgeren liburuarentzat egindako marrazkiez apaindua. Jatorrizko poema ingelesa, bere neurri eta errima zainduarekin, liburu eder hori osatzera letorke. Gainera, hurrengo atalean aipatuko dugunez, oso litekeena da Sarrionandiaren itzulpenaren edizioa Eduardo Chamorro espainiarraren *La oda del viejo marinero* liburuan oinarritua izatea, zeinak ingelesezko testua ematen baitu gaztelaniazko itzulpenaren ondoan.

eman nahi izan dituela, literaturaz gain hizkuntza bera ere ikusgarri egiteko.¹⁴² Aldiz, itzulpena egiteko erabili duen zubi-hizkuntza —hizkuntza “handi” edo “lehen mailakoa” normalean: gaztelania, frantsesa edo ingelese— ez du normalean aipatu ere egiten; alde batetik, ziurrenik, gaztelaniaren bitartekaritza ezinbesteko hori aitortu nahi ez duelako, eta, bestetik, Sarrionandiak ez duelako bere itzulpenetan zehaztasuna, fideltasuna edota zientifikotasuna bilatzen; literatura eta hizkuntza desberdinak harremanetan jartzea da bere itzulpenen helburua, eta gustuko izan dituen testuak euskal irakurleei euskaraz eskaintzea, literaturen eta hizkuntzen artean bidaiatzen duten testuei bere hondar-alea gehituaz.

3.2.3.4. *Itzulpenen harrobiak*

Aurreko atalean aipatu bezala, Sarrionandiak zubi-testuak baliatu ditu hizkuntza arrotzetan idatzitako zenbait testu euskaratzeko. Gehienetan zubi-testu horiei buruzko aipamenik egiten ez badu ere, berak uler litzakeen hizkuntzetan egindako itzulpenak arakatzuz eta han-hemenka ematen dituen pistei tiraka, zenbait (itzulpen-)antologia topatu ditugu, Sarrionandiak euskaratutako testu askoren jatorrizkoak nahiz itzulpenak (batez ere gaztelaniazkoak, baina baita frantsesezko eta ingelesezko batzuk ere) biltzen dituztenak. Interesgarria iritzi diogu bilaketa horri, Sarrionandiak zein motatako liburuak irakurri dituen jakiteko informazio baliotsua eman diezagukeela uste dugulako: nola iritsi da Sarrionandia hainbeste hizkuntza eta literaturatara? Zein hizkuntzatan irakurri ditu “jatorrizko” poemak? Zergatik hautatu ditu hautatu dituenak? Gainera, Sarrionandiak erabilitako zubi-testuak identifikatzeak haren itzultzeko modua aztertzeak aukera emango digu: itzulpena egiteko orduan, hurbiletik jarraitzen ote dio begien aurrean izan duen bertsioari, itzulpen-estrategien atalaren hasieran eman ditugun bi adibideetan bezala?

¹⁴² Hainbeste hizkuntza “exotiko” bistaratzeko joera hori Sarrionandiak *Marginalia* liburu-atal batean kontatzen duen *The Gilded Age* eleberriar buruzko anekdotarekin ere alderatu liteke (Sarrionandiak *The Golden Age* aipatzen du, nahastuta edo): Mark Twain eta Charles Dudley Warner idazleen liburu horretako atal bakoitzaren atarian hirurogeitik gora hizkuntzatan idatzitako aipuak txertatzen dira (tartean bi euskaraz), irakurlearen interesa pizteko. Bi autoreek ironiaz azaltzen dute hainbeste hizkuntzatan idatzitako aipuen arrazoiak: “zertarako eman aipuak hizkuntza arrotzetan? Hanitz da liburu hau salduko den herrietan bere hizkuntza besterik ezagutzen ez duen jendea; honela, beren hizkuntzan irakurri ahal ukanen dute, autoreek ez bait dute jende moeta, sekta edo nazio berezi batentzat izkiriartzen” (Sarrionandia 1989: 104). Sarrionandiak ere nazio, herrialde eta hizkuntza guztientzat irekita dagoen literatura egin nahi duela uler liteke hizkuntza txikiak ematen dien presentzia kontuan hartuta.

Ala libre samar jokatzen ote du, zubi-testuak jatorrizkoarekiko egindako aldaketei bere aldaketak gehituz? Galdera horiei erantzuteko, Sarrionandiaren itzulpenen “harrobi” izan litezkeen antologiak aipatuko ditugu jarraian. Ez dakigu ziur testu horietatik abiatu ote zen, ala horiekin erlazionatutako beste batzuetatik, eta, edozein kasutan ere, hemen aurkezten dugunak ez du erabat azaltzen Sarrionandiaren itzulpen guzti-guztien nondik norakoa, besteak beste askotan beste iturri batzuekin osatu bide zituelako harrobi horietan aurkitutako hainbat autoreren itzulpenak. Dena den, aipatuko ditugun antologietako testuen eta Sarrionandiaren itzulpenen artean aurkitu ditugun zenbait antzekotasunek harrobi horiekiko nolabaiteko lotura frogatzen dute. Hiru elementuk erakutsi digute, funtsean, harrobi horietarako bidea: izenburuek, testu-zatiaren hautaketak eta Sarrionandiak berak emandako informazioak.

Poemei emandako **izenburuak** bat datoz askotan Sarrionandiaren bertsioan eta zubi-testuan, ez ordea jatorrizkoan. *Izkiriaturiken* ematen duen Lukrezioaren poemari, adibidez, “Zauri ezkutua” jarri dio Sarrionandiak izenburutzat, Luis Alberto de Cuenca y Prado eta Antonio Alvar Ezquerra itzultzaileen *Antología de la poesía latina* liburuan ageri den “La herida oculta” itzulpenari jarraituta, ziurrenik. Jatorrizkoak ez du izenburu hori; izan ere, testua Lukrezioaren *De rerum natura* hexametro-segida luzetik hartutako zati bat besterik ez da (IV, 1076-1120), zehazki de Cuenca y Pradok eta Alvar Ezquerrak gaztelaniara itzuli eta izenburu horrekin beren antologian tartekatu dutena. Izenburuek ematen duten pista horrek lagundu digu Sarrionandiaren beste itzulpen batzuk Ernesto Cardenalen *Antología de poesía primitiva* liburuarekin lotzen: Sarrionandiak euskaratutako sei poema “primitibo” bat datoz Cardenalen antologian ematen diren bertsoekin, testuaren forma orokorrean ez ezik, baita izenburuetan ere. Cardenalek izenbururik gabe ematen dituen poemak izenbururik gabe ematen ditu Sarrionandiak ere (izenburutzat poemaren lehen hitzak ematera mugatzen da), eta, Cardenalenean izenburua zutenak izenburu berberarekin ematen ditu: Cardenalen “Fiord en primavera” poema eskimala “Fiordoa udaberrian” da Sarrionandiaren bertsioan, eta Cardenalenean “Carta a la amada” deituriko poema miskitoa “Maitaleari gutuna” izendatu du Sarrionandiak.¹⁴³

Beste kasu batzuetan, harrobietan ematen den **testu-zatia** Sarrionandiak itzulitako berbera izateak eraman gaitu harrobi hori zubi-testua izan litekeela

¹⁴³ Poema berbera beste izenburu batekin ageri da, esaterako, Jorge Eduardo Arellano-ren *Antología general de la poesía nicaragüense* (1984) liburuan: “Carta de un joven miskito”. Izenburuak salatzen du, beraz, Sarrionandiak zein zubi-testu erabili duen.

ondorioztatzera. Aipatu dugun Lukrezioaren poema, esate baterako, bat dator de Cuenca y Pradoren eta Alvar Ezquerraren antologian eta Sarrionandiaren itzulpenean: Lukrezioaren *De rerum natura* poemako laugarren liburuan hexa-metro-segidak ez du inolako banaketarik; gaztelaniazko aipatu antologian, al-diz, itzultzaileek 1076-1120 bertso-lerroak ematen dituzte, hasiera eta bukaera duen poema bat izango balitz bezala. Sarrionandiak ere lerro horiexek euskaratu izanak pentsarazi digu bertso horretatik itzuli zuela poema. Arrazoi berberetatik lotu ditugu Sarrionandiaren “Kalevala” eta Jorge Zalamearen *Poesía ignorada y olvidada* antologian ematen den gaztelaniazko bertsoa: poema finlandiar luze horren zati berbera ematen dute bi bertsoiek.

Sarrionandiak **zenbait autoreri buruz ematen duen informazioa** ere testuak harrobiekin lotzeko pista garrantzitsua izan da. *Hamairu ate* liburuan, esate baterako, honela aurkezten dute Sarasketak eta Sarrionandiak Sakutaro Jaguiwara idazle japoniarra, haren “Hil ez zen olagarroa” ipuinaren euskal bertsoa eman aurretik:

Bere hizlauak erritmo musikala omen du japonieraz. Hori ez da, itzulpenik itzulpen, hemen geratuko. Halabaina, bere ipuinek beste errealitate batetara gidatzen gaituzte edozein hizkuntzatan (Sarasketa & Sarrionandia 1985: 37).

Elvio Gandolforen eta Samuel Wolpinen *45 cuentos siniestros* antologian, antzeko deskribapena topatu dugu Sakutaro Jaguiwararen “El pulpo que no murió” ipuinaren sarrera gisa:

Sus trabajos poseen, en los originales japoneses, un notable ritmo musical, que permanece, al ser traducidos, en el tono repetitivo y simple, casi de canción, con que relata sucesos fuera de toda lógica común (Gandolfo & Wolpin 1975: 117).

Oso litekeena da, beraz, antologia horretatik itzuli izana *Hamairu aten* ematen duten Jaguiwararen ipuina. Antzeko adibideak aurki daitezke Manuel Fernández-Galiano-ren *Antología palatinako* zenbait testu greziar Sarrionandiaren itzulpenekin alderatuz gero: Sarrionandiak Asklepiadesen poemaren ondoan ematen duen iruzkina, “Grekoei ile horaileko andereak gustatzen omen zitzaizkien gehien” (Sarrionandia 1995a: 24), bat dator poema horren gaztelaniazko bertsoiak *Antología palatinan* dakarren aurkezpen-esaldiarekin: “Los griegos preferían a las mujeres rubias” (Fernández-Galiano 1978: 123).

Azkenik, ez izenburua, ez itzulitako testu-zatia, ez emandako informazioa ez zaizkigunean harrobiak identifikatzeko lagungarri suertatu, Sarrionandiak

sorburu-testu gisa erabil zitzakeen hainbat zubi-testu ikertu eta Sarrionandiarren itzulpenekin alderatu ditugu, eta bi bertsioren artean antzekotasun nabarmenak aurkitu ditugunean ondorioztatu dugu zubi-testu hori baliatu zuela itzulpena egiteko.

Horrelako pistez baliatuz, beraz, hainbat zubi-testu identifikatu ditugu,¹⁴⁴ eta testu horiek banan-banan aztertzea izango da ondoko lerroen xedea. Izan ere, testu bakoitza zein liburutatik itzuli duen jakiteak Sarrionandiaren iturriari buruzko informazio baliotsua emango digula espero dugu, eta, ondorioz, baita literaturaren eta itzulpengintzaren inguruan duen ikuspegiari buruzkoa ere.

GANDOLFO, Elvio & Samuel WOLPIN (1975). *45 cuentos siniestros*, Buenos Aires: Ediciones de la Flor.

Beldurrezko ipuinak biltzen dituen antologia honetan aurkitu ditugu Sarrionandiak eta Sarasketak itzultitako *Hamairu ate* antologian ageri diren ipuinetako hiru, gaztelaniaz:

— **Gabriel García Márquez**

“Algo muy grave va a suceder en este pueblo” (Gandolfo & Wolpin 1975: 59-61)

“Zerbait izugarri gertatu behar da herri honetan” (Sarasketa & Sarrionandia 1985: 71-73)

¹⁴⁴ Beste zenbait kasutan, horrelako alderaketek justu kontrakoa frogatzen lagundu digute; alegia, Sarrionandiak eskura izan zezakeen zubi-testu bat EZ zela izan, berez, Sarrionandiaren itzulpenaren oinarria. Esate baterako, Sarrionandiak Coleridgeren *Marinel zaharraren balada* itzultzeko zubi-hizkuntzarik erabili ote zuen jakin nahi izan dugu, jatorrizkoaren hizkuntza ulertuta ere batzuetan zubi-testuez baliatu izan baita iurretarra. Hasieran, Jon Kortazarrek aipatzen duen gaztelaniazko bertsiorek batek erakarri du gure arreta; honela dio Kortazarrek Sarrionandiaren lanetan marinel zaharraren irudiak duen garrantzia aztertzean: “Iturria garbia da: Coleridgeren *Marinel zaharraren balada* eta zuzenago Gaya Ciencia argitaletxeak 1975. urtean egin zuen edizio elebiduna, Eduardo Chamorrok egin zuen itzulpenarekin. Argitalpen horrek Gustave Doréren irudi ederrekin hornitua zetorren. Hain zuzen ere, urteen burura Sarrionandiak erabiliko dituen irudiak Pamielako argitarazioa edertzeko” (Kortazar 2000: 358). Chamorroren *La oda del viejo marinero* Sarrionandiaren *Marinel zaharraren balada*arekin alderatzean, ordea, bi bertsiok oso desberdinak direla konturatu gara: Chamorroren itzulpena askoz ere libreagoa da Sarrionandiarena baino. Baliteke gaztelaniazko bertsiorek horri esker deskubritu izana Sarrionandiak Coleridgeren poema hori, eta oso litekeena da Pamielako edizioa bertsioretan oinarritu izana liburuaren formatu-kontuei dagokienez (irudiak, letra mota, ahapaldien kokapena eta abar oso antzekoak dira Pamielako edizioan eta Chamorrorean), baina argi dago ez zela Eduardo Chamorroren gaztelaniazko itzulpenetik abiatu bere euskarazko bertsiorek egiteko.

— **Sakutaro Jaguiwara**

“El pulpo que no murió” (Gandolfo & Wolpin 1975: 117)

“Hil ez zen olagarroa” (Sarasketa & Sarrionandia 1985: 39-40)

— **Aníbal Machado**

“La suicida del viaducto” (Gandolfo & Wolpin 1975: 241-242)

“Biaduktoko suizida” (Sarasketa & Sarrionandia 1985: 43-44)

Sarrionandiak eta Sarasketak ez dute antologia hau inon aipatzen, baina, hiru ipuin horiek *Hamairu ateko* itzulpenekin alderatuta, ez da zentzugabea hirurak bertatik itzuli zituztela ondorioztatzea. Horietaz gain, Sarrionandiak itzulitako beste hainbat autoreren testuak ere aurkitu ditugu antologia honetan, nahiz eta testuak ez datozen bat Sarrionandiak itzuli dituenekin: Ambrose Bierce, Franz Kafka, Virgilio Piñera eta Dylan Thomas autoreen testu bana dakar liburuak.

BRETON, André (1972). *Antología del humor negro* [Joaquín Jordá-k itzulia], Bartzelona: Anagrama.

André Bretonen antologia aipatzen dute Sarrionandiak eta Sarasketak *Hamairu ate* bildumaren hitzaurrean, hainbat ipuin bertatik hartu dituztela aitortuz:

Gainera, beste hizkuntzatan eginiko bildumak izan ditugu haintzat, eta hauen artean ezin dugu aipatu gabe utzi, umore beltzeko bildumetan klasikoa eta erdua delako, Andre Breton surrealistarena (Sarasketa & Sarrionandia 1985: 9).

Ez dute zehazten, halere, André Bretonek frantsesez argitaratutako antologia ala Anagrama argitaletxeak 1972an argitaratutako gaztelaniazko itzulpena erabili ote zuten beren itzulpenak egiteko. Itzulpenak frantsesezko eta gaztelaniazko bertsoekin alderatuta, ziurtasun handi samarrez esan dezakegu bigarrenean oinarritu zirela.¹⁴⁵ Honako autore hauen testuak aurkitu ditugu André Bretonen antologian (gaztelaniazko bertsoaren erreferentziak emango ditugu hemen; ikusi fitxetan frantsesezko bertsoarenak):

¹⁴⁵ Hona hemen itzulpena gaztelaniazko bertsiotik (eta ez frantsesezkotik) egin zutela pentsarazten duten hainbat zantzu, Francis Picabiaren “Bost minutuko entreaktoa” kontakizunetik hartuak: *démance précoce* > *eskizofrenia*; *guérir* > *aliviari* > *alibiatu*; *affolé* > *asustado* > *ikaraturik*; *déchiqúeter* > *devorar* > *irentsi*...

— **Francis Picabia**

“El ojo frío” (Breton 1972: 269)

“Begi hotza” (Sarasketa & Sarrionandia 1985: 25)

“Entreacto de cinco minutos” (Breton 1972: 270)

“Bost minututako entreaktoa” (Sarasketa & Sarrionandia 1985: 25-26)¹⁴⁶

— **Franz Kafka**

“El puente” (Breton 1972: 307-308)

“Zubia” (Sarasketa & Sarrionandia 1985: 33-34)¹⁴⁷

— **Leonora Carrington**

“La debutante” (Breton 1972: 383-386)

“Debutantea” (Sarasketa & Sarrionandia 1985: 53-56)

André Bretonen antologiako beste testu baten itzulpena *Izkiriaturiken* argitaratu zuen Sarrionandiak:

— **Hans Arp**

“Bestiario sin nombre” (Breton 1972: 329-330/65-366)

“Izenik gabeko bestiarioa” (Sarrionandia 1995a: 185-186)

Sarrionandiak itzulitako beste bi autore ere ageri dira André Bretonen antologian: Charles Baudelaire eta Jacques Prévert. Baita Sarrionandiaren Apollinaire Babiol apokrifoa sortzeko inspirazio izan bide den Guillaume Apollinaire ere.

KRAMER, Samuel Noah (1958). *La historia empieza en Sumer* [Jaime Elías-ek itzulia], Bartzelona: Aymá.

Gorago aipatu dugun bezala, eta nahiz eta Sarrionandiak *From the Tablets of Sumer* aipatzen duen itzulpenen aurretik ematen duen aurkezpen laburrean, badirudi liburu horren gaztelaniazko bertsioa izan zuela begi aurrean poema hauek itzultzean:

— **Sumeriar taula zaharrak**

[En otro tiempo...] (Kramer 1958: 169-170)

“Haroen aldaketa” (Sarrionandia 1991a: 13)

¹⁴⁶ Bi ipuin labur horien atzetik, Sarasketak eta Sarrionandiak Francis Picabiaren “Aforismo ale batzu” ematen dituzte; André Bretonen antologian ez dira ageri.

¹⁴⁷ Sarrionandiaren eta Sarasketaren bilduman Kafkaren beste lau ipuin ageri dira, Bretonen jasotzen ez direnak.

[Al pobre más le valdría...] (Kramer 1958: 175)
 “Pobrearen bizimodua” (Sarrionandia 1991a: 14)

[Los enviados de Agga...] (Kramer 1958: 77-78)
 “Uruk hiriko biltzarra” (Sarrionandia 1991a: 15-16)

[Esposo, amado de mi corazón...] (Kramer 1958: 192-194)¹⁴⁸
 “Amodiozko kanta” (Sarrionandia 1991a: 17)

CARDENAL, Ernesto (1987) [1979]. *Antología de poesía primitiva, Madril: Alianza.*

Antologia honetan jasotzen dira, gaztelaniazko bertsoan, Sarrionandiak *Izkiriaturikeko* “Poesía primitivoa” atalean biltzen dituen poema guztiak, bat izan ezik;¹⁴⁹ baita “Ifar Amerikako indioen hondamena” ataleko poema semi-nola ere:

— **Eskimala**

“Fiord en primavera” (Cardenal 1987: 54-55)
 “Fiordoa udaberrian” (Sarrionandia 1995a: 13)

— **Araukanoa**

[Bonita como la plata era mi amada...] (Cardenal 1987: 22)
 “Ene maitea zilarra bezain ederra zen” (Sarrionandia 1995a: 14)

— **Tuarega**

[La gacela que tú heriste...] (Cardenal 1987: 153)
 “Zuk zauritu zenuen gazela” (Sarrionandia 1995a: 15)

— **Miskittoa**

“Carta a la amada” (Cardenal 1987: 103)
 “Maitaleari gutuna” (Sarrionandia 1995a: 17)

— **Chippewa**

[Yo creí que era un pato...] (Cardenal 1987:
 “Ahate bat zela pentsatu nuen” (Sarrionandia 1995a: 18)

¹⁴⁸ Aurrerago ikusiko dugun bezala, poema honen gaztelaniazko bertsoa Sarrionandiak erabilitako beste harrobi batean ere aurkitzen da (Zalamea 1965). Litekeena da harrobi hari esker ezagutu izana Sarrionandiak Kramerren liburu hau.

¹⁴⁹ “Ye no wi ci hay”, berezko esanahirik gabeko soinu emozionalerik osatutako kanta arapohoa, Sarrionandiak multzo honetan sartu duena, ez da ageri Cardenalaren antologian.

— **Seminola**

[Nos están llevando más allá de Miami...] (Cardenal 1987: 133)

“Miami baino harantzago” (Sarrionandia 1995a: 133)

ZALAMEA, Jorge (1965). *Poesía ignorada y olvidada*, Habana: Casa de las Américas.

Badirudi antologia honetako zenbait itzulpen ere zubi-testu gisa erabili zituela Sarrionandiak. Poesia “primitiboaren” atalean aipatu berri dugun poema tuarega, esaterako, agertzen da hemen ere. Baina horretaz gain badira beste hainbat, *Izkiriaturiken* jasoak batzuk eta *Hezurrezko xirulaken* beste batzuk:

— **Tuarega**

[La gacela que tú heriste...] (Zalamea 1965: 110)

“Zuk zauritu zenuen gazela” (Sarrionandia 1995a: 15)¹⁵⁰

— **Tuarega**

[Oh piedra, piedra sin edad...] (Zalamea 1965: 109)

“Sekretua” (Sarrionandia 1991a: 145)

— **Amergin (Irlandar anonimo zaharrak)**

[Soy viento que sopla sobre el mar...] (Zalamea 1965: 36)

“Haizea naiz itsas gaina korritzen” (Sarrionandia 1995a: 59)¹⁵¹

— **Antigualeko egiptoar izkribuak**

[Para que Neferkar reciba su honra...] (Zalamea 1965: 33)

“Neferkar ohoratzeko” (Sarrionandia 1991a: 22)

— **Kalevala**

[¡Sangre, deja de correr...] (Zalamea 1965: 113)

“Odolari erreguak” (Sarrionandia 1991a: 157-158)¹⁵²

¹⁵⁰ Zalamearen eta Cardenalen bertsiok oso antzekoak dira. Desberdintasun txiki batzuk baizik ez dituzte. Dena den, Sarrionandiaren itzulpena gertuago dago Cardenalen bertsiotik.

¹⁵¹ Amergin druidaren poema hau Zalamearen antologian agertzen den arren, badirudi Sarrionandiak beste zubi-testu bat erabili duela, bere itzulpenak desberdintasun nabarmenak baititu Zalamearen bertsiorekin alderatuz gero. Zaila da jakitea zein zubi-hizkuntza eta zein zubi-testu erabili dituen. Webgune honetan, esaterako, hainbat bertsiotik ingeles ageri dira, Sarrionandiaren bertsiorekin antza handiagoa edo txikiagoa dutenak: <http://celticmythpodshow.com/Resources/Amergin.php>.

¹⁵² Kalevala poema epiko luzearen zati bat baizik ez du Zalameak bere antologiarako itzuli. Sarrionandiak zati berbera itzuli izanak Zalamearen bertsiotik abiatu dela ondorioztatzen garamatza.

— **Nikos Kazantzakis (Siberiar kanta)**

[¿Recuerdas, padre...] (Zalamea 1965: 51-52)

[Oroitzen duzu, aita...] (Sarrionandia 1991a: 187)¹⁵³— **Ketxua**

[Cuando el Inca guerreaba...] (Zalamea 1965: 99)

“Atahualparen heriotzaz” (Sarrionandia 1991a: 105)

— **Nahuatl**

[Con suerte lamentosa...] (Zalamea 1965: 97)

“Konkistaren poema” (Sarrionandia 1991a: 79)

— **Sumeriar taula zaharrak**

[Esposo, amado de mi corazón...] (Zalamea 1965: 202-203)

“Amodiozko kanta” (Sarrionandia 1991a: 17-18)¹⁵⁴**JAHN, Janheinz (1971). *Las literaturas neoafricanas* [Daniel Romero-k itzulia], Madril: Guadarrama.**

Sarrionandiak *Geschichte der neoafricanischen Literatur* aipatzen du *Hezurrezko xirulak* liburuan, swahilizko poema baten itzulpenari egiten dion hitzaurrean. Alemanez idatzitako liburu horretara jo, eta hor aurkitu dugu Sarrionandiak euskaratu duen swahilizko poemaren jatorrizkoa, baita alemanezko itzulpena ere. *Hezurrezko xirulak*en eskaintzen dituen beste poema afrikar zenbait ere bertan aurkitu ditugu. Hala eta guztiz ere, eta kontuan hartuta Sarrionandiak alemanik ez zekiela poema horiek itzuli zituenean, liburu horren ingelesezko (Jahn 1968), frantsesezko (Jahn 1969) eta gaztelaniazko (Jahn 1971) itzulpenak aztertu ditugu, eta ondorioztatu dugu Sarrionandiak gaztelaniazko bertsioa erabili zuela poema afrikar hauek itzultzeko:

— **Swahili**

“Akala shairi” / “La canción del huésped desconocido” (Jahn 1971: 133-134)

“Ezezagun gonbidatuaren kantua” (Sarrionandia 1991a: 131-133)

¹⁵³ Hemen ere, Sarrionandiak itzultitako zatia (*Toda-Raba* eleberritik hartua) bat dator Zalameak itzultitako zatiarekin, eta Sarrionandiak aurkezpen gisa ematen duen informazioak ere Zalamearenetik hartua dirudi.

¹⁵⁴ Sarrionandiak “Sumeriar taula zaharrak” atalean ematen dituen lau poemetatik hau besterik ez da Zalamearen antologian aurkitzen. Ziurrenik, Sarrionandiak beste askotan egin bide duen bezala, Zalamearenean izan zuen sumeriar taulen berri eta haiek ingelesera itzuli zituen Samuel Noah Kramerren berri, eta Kramerrenetik itzuli bide zituen beste hiru poemak.

— **Hausa**

[Alkáwari da báwan Túrawa...] / “Lamento de una esclava al atravesar el desierto” (Jahn 1971: 131)

“Esklabaren negarkanta desertuan” (Sarrionandia 1991a: 139)

[Kóme záka yi, dán Adám...] / “Exhortación a invocar a Dios al emprender cualquier cosa” (Jahn 1971: 129)

“Jainkoaren izenaz” (Sarrionandia 1991a: 141)

— **Samuel Edward Krune Mqhayi**

[¡Bretaña! ¡Gran Bretaña!...] (Jahn 1971: 341)

“Laudoriozko poema” (Sarrionandia 1991a: 191)

CUENCA Y PRADO, Luis Alberto de & Antonio ALVAR EZQUERRA (1981). *Antología de la poesía latina*, Madril: Alianza Editorial.

Sarrionandiak *Izkiriaturiken* ematen dituen hainbat latinezko poema antologia honetan aurkitu ditugu, gaztelaniaz, Sarrionandiaren euskarazko itzulpenen nahiko antzekoak diren bertsoetan:

— **Enio**

“Los dioses” (Cuenca y Prado & Alvar Ezquerria 1981: 15)

“Jainkoak” (Sarrionandia 1995a: 34)

— **Zezipio Estazio**

“Mediocridad” (Cuenca y Prado & Alvar Ezquerria 1981: 15)

“Bizi hadi” (Sarrionandia 1995a: 38)¹⁵⁵

— **Lukrezio**

“La herida oculta” (Cuenca y Prado & Alvar Ezquerria 1981: 21-23)

“Zauri ezkutua” (Sarrionandia 1995a: 30-32)

— **Katulo**

“Combatiendo a la muerte” (Cuenca y Prado & Alvar Ezquerria 1981: 25)

“Heriotzaren aurka” (Sarrionandia 1995a: 41)

“Sobremesa” (Cuenca y Prado & Alvar Ezquerria 1981: 27)

“Gonbida nazazula” (Sarrionandia 1995a: 42)

¹⁵⁵ Sarrionandiak Zezipio Estaziorena den baina antologia honetan ageri ez den beste poema baten itzulpena ematen du: “Amodioa denik eta jainkorik handiena dela”.

“El amor” (Cuenca y Prado & Alvar Ezquerria 1981: 28)

“Amodioa” (Sarrionandia 1995a: 44)¹⁵⁶

— **Horazio**

“«Carpe diem»” (Cuenca y Prado & Alvar Ezquerria 1981: 56)

“Carpe diem” (Sarrionandia 1995a: 56)

Sarrionandiak Petronioren *Satyricon* nobelan txertaturiko poema baten itzulpena eta Martzialen poema batzuen euskal bertsiok ere ematen ditu, baina antologia honetan ez ditugu aurkitu.¹⁵⁷

FERNÁNDEZ-GALIANO, Manuel (1978). *Antología palatina (Epigramas helenísticos) I, Madrid: Gredos.*

Izkiriaturikeko “Epigrama helenikoak” ataleko zazpi poemengaztelaniazko bertsiok antologia honetan jasota daude; pentsatzekoa da bertatik itzuli zituela Sarrionandiak.

— **Dioskorides**

516 (VII 434) (Fernández-Galiano 1978: 273)

“Demenetak etsaien aurka” (Sarrionandia 1995a: 22)

— **Asklepiades**

196 (V 158) (Fernández-Galiano 1978: 123)

“Hermione ederrarekin” (Sarrionandia 1995a: 23)

197 (V 210) (Fernández-Galiano 1978: 123-124)

“Didimaren loreak” (Sarrionandia 1995a: 24)

— **Posidipo**

265 (IX 359) (Fernández-Galiano 1978: 154)

“Zein bizimodu hautatu?” (Sarrionandia 1995a: 25)

— **Leonidas**

100 (VII 654) (Fernández-Galiano 1978: 82)

“Kretarrak beti izan dira” (Sarrionandia 1995a: 26)

¹⁵⁶ Katuloren lau poema ematen ditu Sarrionandiak; antologia honetan ageri diren hirurak ez ezik, baita beste hau ere: “Lekukoak”.

¹⁵⁷ Petronioren poema José Menéndez Novella-ren bertsiotik itzuli du, itxura guztien arabera (Petronio Arbitro 1902).

— **Faleko**

10 (VII 650) (Fernández-Galiano 1978: 36)

“Saihestu itsasoko menturak” (Sarrionandia 1995a: 27)

— **Meleagro**

809 (V 152) (Fernández-Galiano 1978: 414)

“Hegalda zaitetz eltxoa” (Sarrionandia 1995a: 28)

YOURCENAR, Marguerite (1979). *La couronne et la lyre. Poèmes traduits du grec, Paris: Gallimard.*

Ia ziurra da Sarrionandiak harrobi hau erabili zuela autore greziarren poemak euskaratzeko, Sarrionandiak berak liburu honetatik hartutako pasarte bat tartekatu baitzuen, eta hala aitortu, Agathias Eskolastikoaren poemak aurkezpenean, *Hezurrezko xirulak* liburuan (Sarrionandia 1991a: 42). Autore horren poemak gain, *Hezurrezko xirulakeko* beste autore greziarren poema guztiak ere, bat izan ezik,¹⁵⁸ liburu honetako frantsesezko bertsioretatik abiatuta itzuli ditu, itxura guztien arabera:

— **Stesikoro Himerakoa**

“La palinodie” (Yourcenar 1979: 103)

“Palinodia” (Sarrionandia 1991a: 35)

— **Agathias Eskolastikoa**

“Plainte des filles bien gardées” (Yourcenar 1979: 446)

“Neskatala ondo zainduen negarkanta” (Sarrionandia 1991a: 43)

“L’amour à Byzance” (Yourcenar 1979: 446-447)

“Amodioa Bizanzion” (Sarrionandia 1991a: 44)

— **Paulus Silentiarioa**

“Le cheveu d’or” (Yourcenar 1979: 449)

“Ile horaila” (Sarrionandia 1991a: 47)

“Le spectacle de l’amour” (Yourcenar 1979: 450)

“Haien amodioa eta gurea” (Sarrionandia 1991a: 48)

“Sur une jouissance” (Yourcenar 1979: 450-451)

“Atseginari buruz” (Sarrionandia 1991a: 49)

“Les derniers voiles” (Yourcenar 1979: 451)

“Azken estalkiak” (Sarrionandia 1991a: 50)

¹⁵⁸ Filodemo Gadarakoaren poema bat ematen du Sarrionandiak beste poema greziarrekin batera, Yourcenarren antologian ageri ez dena: “Enkontrua”.

“Déclaration d’une belle inconstante” (Yourcenar 1979: 452)

“Eder aldakorraren deklarazioa” (Sarrionandia 1991a: 51)

“Les larmes” (Yourcenar 1979: 452)

“Malkoak” (Sarrionandia 1991a: 52)

PAZ, Octavio (2000) [1973]. *Versiones y diversiones*, Bartzelona: Galaxia Gutenberg & Círculo de Lectores.

Octavio Paz aipatzen du Sarrionandiak *Izkiriaturiken* bildu dituen Tu Furen poemen aurkezpenean: “Itzultzean, ohar haetan bezala, Octavio Paz poetaren bertsioa jarraitu dut” (Sarrionandia 1995a: 67). Pazen *Versiones y diversiones* itzulpen-bilduman aurkitu ditugu, hain zuzen ere, Sarrionandiak itzulitako Tu Furen sei poemetatik lau.¹⁵⁹ Octavio Paz beste inon aipatzen ez duen arren, badirudi Pazen bertsiok zubi-testutzat hartuta egin dituela beste hainbat itzulpen ere. *Izkiriaturikeko* haiku guztiak, esate baterako, Pazen liburuan daude; baita *Hezurrezko xirulaken* eta aldizkarietan argitaratutako beste hainbat poema ere:

— **Tu Fu**

“Primavera cautiva” (Paz 2000: 539)

“Udaberri eskena” (Sarrionandia 1995a: 69)

“Después de la lluvia” (Paz 2000: 542)

“Euriaren ondoren” (Sarrionandia 1995a: 70)

“Paisaje” (Paz 2000: 542)

“Paisaia” (Sarrionandia 1995a: 72)

“En la tormenta” (Paz 2000: 538)

“Ekaitzean” (Sarrionandia 1995a: 74)

— **Haikuak**

[Luna de estío...] (Paz 2000: 578)

[Udako hilargia...] (Sarrionandia 1995a: 123)

[Año del tigre...] (Paz 2000: 579)

[Tigrearen urtea...] (Sarrionandia 1995a: 123)

¹⁵⁹ “Agurentzako kantua” eta “Gaisorik” poemak ez dira Pazen liburuan ageri. Sarrionandiak beste nonbaitetik itzuli bide zituen. Marcela de Juan-en *Segunda antología de la poesía china* (1962) izan liteke zubi-testua, bertan agertzen baitira bi poemok, baita Sarrionandiak itzulitako beste hainbat poema txinatar ere.

- [Lluvia de mayo...] (Paz 2000: 579)
 [Maiatzeko euria...] (Sarrionandia 1995a: 123)
 [Cerezos: nubes...] (Paz 2000: 580)
 [Gereziak: Behelainoa...] (Sarrionandia 1995a: 124)
 [Ando y ando...] (Paz 2000: 584)
 [Ibili banabil...] (Sarrionandia 1995a: 124)
 [El niño ciego...] (Paz 2000: 584)
 [Haur itsua...] (Sarrionandia 1995a: 124)
 [Cae el carbón...] (Paz 2000: 586)
 [Ikatz erortzen da...] (Sarrionandia 1995a: 125)
 [Ante este blanco...] (Paz 2000: 585)
 [Krisantemo zuriaren...] (Sarrionandia 1995a: 125)
 [Se llevó todo...] (Paz 2000: 588)
 [Dena eraman zuen...] (Sarrionandia 1995a: 125)
 [Al Fuji subes...] (Paz 2000: 587)
 [Fuji mendira hoa...] (Sarrionandia 1995a: 126)
 [Viento de otoño...] (Paz 2000: 588)
 [Udazkeneko haizea...] (Sarrionandia 1995a: 126)

— **Henri Michaux**

- “Labyrinthe” / “Laberinto” (Paz 2000: 112-113)
 Labirintoa (Sarrionandia: *Maiatz* 5 (1984), 28)
 “La jeune fille de Budapest” / “La muchacha de Budapest” (Paz 2000: 108-109)
 “Budapest-eko neska” (Sarrionandia: *Maiatz* 5 (1984), 29)

— **John Donne**

- “Elegy 19. Going to Bed” / “Elegía: antes de acostarse” (Paz 2000: 160-163)
 “Amoranteari eresia oheratzean” (Sarrionandia 1991a: 90-92)¹⁶⁰

— **Andrew Marvell**

- “To His Coy Mistress” / “A su esquivia amante” (Paz 2000: 166-169)
 “Amorante lotsatiari” (Sarrionandia 1991a: 95-96)

¹⁶⁰ Sarrionandiak, poema horretaz gain, John Donneren beste hiru poema eskaintzen ditu euskaraz *Hezurrezko xirulaken*: “Filosofia berria”, “Zer egin dugu” eta “Inor ez da irla”. Bigarrena eta hirugarrena ez dira Pazen liburuan ageri. Lehena ere ez, baina bai poema berberaren beste zati bat: Sarrionandiak “Filosofia berria” izendatu duen testua “An Anatomy of the World: The First Anniversary” poema luzetik hartutako pasarte da; poema berbereko beste pasarte bat ageri da Pazen liburuan.

Aipatutako autore horietaz gain, Octavio Pazen antologian Sarrionandiaren gustuko beste idazle asko ageri da: W. B. Yeats, Ezra Pound, Fernando Pessoa, Wang Wei eta Li Po¹⁶¹ poeten poemak dakartza, besteak beste, Octavio Pazen liburuak. Poema berberak izan ez arren, gogoraz dezagun Sarrionandiak autore horien guztien hainbat testu euskaratuak dituela. Sarrionandiaren Apollinaire Babiol apokriforen sorreran eragina izan bide zuen Guillaume Apollinaire frantsesaren poema ugari ere biltzen ditu Pazen antologiak.

RODMAN, Selden (1946) [1938]. *A New Anthology of Modern Poetry*, New York: Random House.

Bartolomeo Vanzettiren testua aurkeztean aipatzen du Sarrionandiak antologia hau, *Hezurrezko xirulak* liburuan. Testu hori, dena den, Cardenal & Coronel Urtecho 2007 gaztelaniazko antologian ezagutu zuela dirudi, eta hortik iritsi bide zela beste idazlan batzuk ezagutarazi zizkion Rodmanen bildumara. Bertan daude Sarrionandiak itzultitako hiru testuok:

— **Bartolomeo Vanzetti**

“Last Speech to the Court” (Rodman 1946: 106-107)

[Luzaroan mintzatu naiz...] (Sarrionandia 1991a: 195-196)

— **Dylan Thomas**

“And Death Shall Have No Dominion” (Rodman 1946: 358)

“Heriotzak ez du irabaziko” (Sarrionandia 1995a: 206)

— **Walter de la Mare**

“The Listeners” (Rodman 1946: 23-24)

“Entzuleak” (Sarrionandia: *Maiatz* 5 (1984), 28)

Antologia honetan daude, orobat, gerora euskaratuko zituen honako beste autore hauen hainbat poema: James Joyce, W. B. Yeats, Stephen Vincent Benét, Ezra Pound, T. S. Eliot eta W. H. Auden.

¹⁶¹ Sarrionandiak 1982an *Idatz eta mintz* aldizkariaren 3. eta 4. aleen separatan euskaratutik argitaratu zituen Li Poren 12 poemetatik bakarra ageri da Octavio Pazen antologian (“Hemen, mendi urdinean...”; Pazenean “Pregunta y respuesta”). Bi bertsioen arteko alde handiak direla eta, ordea, Sarrionandiak beste zubi-testu bat erabili zuela pentsarazi zigun, eta, hain zuzen ere, Marcela de Juanen antologian (1962) aurkitu genituen Li Poren 12 poemak, baita Pazenean agertzen ez diren Tu Furen bi poemak eta beste hainbat poema txinatar ere.

LAÂBI, Abdellatif (2003) [1976]. *Poesía palestina de combate* [Carmen Suárez-ek itzulia], Buenos Aires: Nuestra América.

Sarrionandiak antologia hau inon aipatzen ez badu ere, ez dugu uste oso oker ibiliko garenik liburu hau “palestinar burrukakoak” itzultzeko zubi-testu gisa erabili zuela esaten badugu, bertan aurkitu baititugu *Hezurrezko xirulaken* ematen dituen sei poemen gaztelaniazko itzulpenak. Ezin dugu baieztatu, halere, Sarrionandiak gaztelaniazko *Poesía palestina de combate* izan ote zuen esku artean,¹⁶² ala *La poésie palestinienne de combat* (Paris: Pierre Jean Oswald, 1970), gaztelaniazkoaren “sorburu-testua” den frantseseko bertsioa, arabetik itzultitako poemak biltzen dituena.

— **Hayil 'Assaqilah**

“El extranjero” (Laâbi 2003: 109)

“Arrotza” (Sarrionandia 1991a: 301)

— **Samih Al Quassim**

“Aún permanece” (Laâbi 2003: 43)

“Arbaso zaharren odola” (Sarrionandia 1991a: 302)

— **Mahmud Darwich**

“Luna de invierno” (Laâbi 2003: 26)

“Neguko hilargia” (Sarrionandia 1991a: 303)

— **Salim Jabran**

“La primera noche” (Laâbi 2003: 101-102)

“Lehen gaua” (Sarrionandia 1991a: 304)

— **Tawfiq Zayyad**

“No nos iremos” (Laâbi 2003: 65-66)¹⁶³

“Hementxe geratuko gara” (Sarrionandia 1991a: 305-306)

— **Fadwa Touqan**

“Me basta permanecer en su regazo” (Laâbi 2003: 93)

“Aberriaren altzoan” (Sarrionandia 1991a: 307)

¹⁶² Buenos Airesen 2003an argitaraturiko ediziotik eman ditugu aipuak, baina gogoan izan behar da gaztelaniazko itzulpena 1976an argitaratu zela lehenbizikoz, La Habanan.

¹⁶³ Palestinar borrokako gainerako poemak ez bezala, Tawfiq Zayyaden poemaren euskal itzulpena ez dator guztiz bat gaztelaniazko antologian jasotzen den bertsioarekin. Gaztelaniazkoan ageri diren hainbat lerro ez dira jasotzen Sarrionandiaren itzulpenean, eta alderantziz. Poemaren beste bertsio bat erabili bide zuen itzulpena egiteko.

HOLAN, Vladimir (1982). *Avanzando* [Clara Janés-ek itzulia], Madril: Editora Nacional.

Antologia honetatik itzuli zituen Sarrionandiak, itxura guztien arabera, *Izkiriaturiken* euskaraz eman zituen Vladimir Holan txekiar idazlearen poemak. Denak aurkitu ditugu bertan, bat izan ezik:¹⁶⁴

— **Vladimir Holan**

“En la acera” (Holan 1982: 20)

“Espaloian” (Sarrionandia 1995a: 209)

“Encuentro VIII” (Holan 1982: 81)

“VIII enkontra” (Sarrionandia 1995a: 211)

“Oración de la piedra” (Holan 1982: 18)

“Harriaren otoitza” (Sarrionandia 1995a: 212)

“Te ha preguntado...” (Holan 1982: 68)

“Galdetu egin dizu” (Sarrionandia 1995a: 213)

“El baúl” (Holan 1982: 59)

“Gordailua” (Sarrionandia 1995a: 214)

Hainbat ondorio Sarrionandiaren harrobien inguruan

Sarrionandiak erabilitako zubi-testuak, jakina, ez dira atal honetan aipatu ditugun hamahiru liburuetara mugatzen; beste makina bat iturri irakurri eta kontsultatu bide ditu euskaraz eskaini dizkigun poemak itzultzeko. Ezinezkoa litzateke, ordea, iturri guztiak banan-banan eta ziurtasun osoz identifikatzea; beraz, oraingoz nahikoa izango zaigu lagin hau Sarrionandiak erabilitako zubi-hizkuntzen eta zubi-testuen inguruan hainbat ondorio ateratzeko.

Iturrien bilaketak eman dizkigun datu interesgarrien artean, testuek beren jatorrizko bertsiotik euskal itzulpenearaino egin duten ibilbidea azpimarratuko genuke. Ikusi dugunez, itzulpen asko zubi-hizkuntza batetik edo gehia-

¹⁶⁴ “Urte batzu geroago amarekin” poema ez da antologia honetan ageri. Ez dakigu nondik itzuli zuen Sarrionandiak. Clara Janés-ek egina du poema horren itzulpena (“Tras muchos años en casa de mamá”) *Dolor* liburuan, baina lehen argitalpena 1986koa izanik, ezinezkoa da Sarrionandiaren zubi-testua izatea, Holanen itzulpenak 1985eko *Izkiriaturiken* argitaratu baitzitu. Baliteke Josef Forbelsky-ren itzulpenaz baliatu izatea poema hori itzultzeko, baina oraindik ez dugu lortu liburu hori kontsultatzea (Holan 1970).

gotatik igaro dira Sarrionandiaren orrialdeetara iritsi aurretik. Adibiderik garbienetako bat, apika, swahiliz, haussaz eta xhosaz idatzitako poemena genuke: jatorrizko bertsioren alemanezko itzulpenak (zuzeneko itzulpenak ote ziren? Ala horiek ere beste zubi-hizkuntza batetik itzuli ziren alemanera?) Janheinz Jahnek bildu zituen bere 1966ko liburuan. Liburu hori ingelesera itzuli zen 1968an, frantsesera 1969an eta gaztelaniara 1971n, eta litekeena da Sarrionandiak hiru bertsiorekin batean oinarritu izana bere euskal itzulpenak (gaztelaniazkoan, ziurrenik). Gutxienez, beraz, lau hizkuntzak hartu dute parte Sarrionandiaren poema horien eraketan. Antzeko adibide bat palestinar borrokako poemena litzateke: Abdellatif Laâbik hainbat poema palestinar arabieratik frantsesera itzuli eta antologia batean bildu zituen 1970ean, eta liburu hori gaztelaniara itzuli zen 1976an. Sarrionandiak bi bertsiorekin bat erabiliko zuen ziurrenik poemak euskaratzeko. Ondorioz, hiru edo lau hizkuntza —eta itzultzaile— egongo lirateke Sarrionandiaren poemak atzean. Ernesto Cardenal nikaraguarraren antologia ere, Sarrionandiak hainbat poema “primitibo” itzultzeko zubi-testu gisa erabilia, zeharkako itzulpenez josita dago. Oso interesgarriak dira, zentzu horretan, Cardenalek liburuarren hitzaurrean ematen dituen zenbait argibide, Sarrionandiak iturriak isiltzeko duen joeraren adierazgarri izan litezkeela iruditzen baitzaigu. Pasarte luze samarra izan arren, merezi du osorik irakurtzea:

La reunión de la presente antología es una labor de muchos años. He utilizado algunas pocas antologías que han sido hechas, pero principalmente he utilizado muchos trabajos especializados, libros, folletos y revistas de carácter científico, consultados en varias bibliotecas. Generalmente las traducciones las he tenido que retocar un poco, modificando el orden de las palabras por razón del ritmo, haciendo más fluida la sintaxis, dando más claridad o exactitud al verso según las notas u observaciones del mismo investigador, o simplemente dando corte de versos a lo que había sido recogido como prosa. Pues estas traducciones nunca se hicieron con criterio poético, sino con criterio científico. Por traducción con criterio poético no entiendo una que sea más libre o esté más alejada del original, sino una que sea más fiel a la poesía del original. En algunos cuantos casos los poemas me fueron dados por los propios investigadores. Los poemas de la tribu páez (pp. 111-112) me fueron dados por un joven de esa tribu, traducidos por él. Una cantidad considerable de los poemas de esta antología fueron traducidos del inglés. El *Canto de la creación* de los huitotos fue traducido por Preuss al alemán, y yo utilicé una traducción al español de esa traducción, que encontré inédita y sin autor en la Biblioteca del Museo de Antropología e Historia de Bogotá, haciéndole algunas pequeñas modificaciones basándome en el texto alemán y en el original indígena que también reproduce Preuss. En el caso de dos poemas pawnees (pp. 117-119), yo mismo los traduje de la lengua indígena utilizando un

glosario, pues las traducciones estaban muy alejadas del original. **Por todo esto resultaba muy complicado dar crédito a las fuentes. He preferido que esta antología vaya sin una sola nota y sin bibliografía. Este no es un libro científico, es un libro de poesía** (Cardenal 1987: 15-16, letra lodia guk erantsi dugu).

Ezin dugu jakin, beraz, Sarrionandiak antologia honetatik hartu eta euskaratu dituen poemak (eskimala, araukanoa, tuarega, miskitoa, chippewa eta seminola) zenbat hizkuntza eta itzulpenetatik igaro diren Cardenalen gaztelaniazko bertsioan agertu aurretik. Baliteke Cardenal jatorrizko hizkuntzetatik ingelesera egindako itzulpenetatik abiatu izana Sarrionandiak gerora euskaratutako poemak gaztelaniaratzeko, poema askorekin horrela jokatu duela aitortzen baitu hitzaurrean. Edo baliteke, kasuren batean, poema huitotoekin egin bezala, jatorrizkotik alemanera itzulitako poemen gaztelaniazko bertsioak hartu eta horien gainean hainbat aldaketa eginda osatu izana bere bertsioa. Hala balitz, gutxienez bost eskuren arrastoa egongo litzateke Sarrionandiaren itzulpenetan: Sarrionandiarena berarena, Cardenalena, alemanetik gaztelaniara itzuli zituenarena, gaztelaniazko bertsioaren itzultzailearena eta jatorrizko testuaren sortzailearena (kasu gehienetan, gainera, anonimoa edo ahozko tradizioetik hartua). Horixe da, hain zuzen ere, harrobien azterketa honetatik atera dugun lehen ondorioa: Sarrionandiaren itzulpen gehienak itzulpenen itzulpenen itzulpenak direla, alegia, eta zeharkako itzulpenak erabiltzeak azpimarratu egiten duela, beste behin ere, Sarrionandiak itzulpengintza eta oro har literatura ulertzen duen modua: itzulpenak itzulpenen itzulpenak direla erakustea literatura oro literaturaren literatura dela azpimarratzeko modu bat izan daiteke. Zubi-testuen erabilera sistematikoki ez aipatzea eta iturriak ezkatutzea Cardenalek emandako arrazoi berberak azalduko luke: Sarrionandiak poesia-liburuak eskaini nahi izan dizkigu, ez liburu zientifiko edo filologikoak. Izan ere, apokrifikoak aztertzean ikusi dugun legez, gehiago sinesten du poesiaren ahalmen sortzaile eta iradokitzailean, eta itzulpengintzaren ahalmen birsortzailean, errealitatearen ispilu garden izan nahi duten azterketa zientifiko eta itzulpen akademikoetan baino. Sarrionandiak sorburu-testuen eta zubi-testuen inguruko informazioa maiz isildu izana ez zaio utzikeriari edo ahalmen faltari zor (ondo asko erakutsi du beste hainbat lanetan ikerketa akademikoak egiteko gaitasuna baduela, eta, nahi duenean, aipuen erreferentziak zehaztasun osoz eskaintzen ere badakiela, *Moroak gara behelaino artean?*¹⁶⁵ liburu mardulean frogatu duen bezala, esaterako),¹⁶⁵ irakurleari poesia-liburu irakurte-

¹⁶⁵ Interesgarria da, zentzu horretan, saiakerak idazteko metodo egokienaz galdetuta Sarrionandiak berriki emandako erantzuna: "Metodo prefabrikaturik ez dago. Unibertsitateetan lantzen dena da agian izan behar den moduko saiakera, baina badirudi horrek ez duela ezerta-

rraz bat eskaintzeko desirari baizik: itzulpen bakoitzaren atzean ezkutatzen den ikerketaren gaineko datu xeheak emateak irakurketa oztopatuko lukeenez, badirudi nahiago izan duela itzulpena soil-soilik eman, edota jatorrizkoari buruzko informazioa paragrafo labur batera mugatu. Azpimarratzekoa da, dena den —eta hori da harrobien azterketatik atera dugun bigarren ondorioa—, gaztelaniazko zubi- testuen presentzia nabarmena eta gaztelaniaren birtartekaritza isiltzeko joera. Aipatu ditugun harrobien artetik, Octavio Pazen *Versiones y diversiones* antologia da Sarrionandiak berariaz aitortzen duen espainierazko zubi-testu bakarra. Gainerako espainierazko zubi-testuak ez ditu ezertarako aipatzen: ez du inolako aipamenik egiten *45 cuentos siniestros*, *Antología de poesía primitiva*, *Poesía ignorada y olvidada*, *Antología de la poesía latina*, *Antología palatina* eta *Avanzando* liburuengandik, eta aipatzen dituen gainerako zubi-testuen kasuan ere (*Anthologie de l'humour noir*, *From the Tablets of Sumer*, *Geschichte der Neoafrikanischen Literatur*, *La couronne et la lyre* eta *A New Anthology of Modern Poetry*), frantsesezko, ingelesezko eta alemanezko “jatorrizkoak” izendatzen ditu soilik, nahiz eta batzuetan nahiko agerikoa den liburu horien gaztelaniazko itzulpena erabili duela. Jarrera horrek, lehenago aipatu bezala, gaztelaniak euskal irakurleengan izan duen eragin nabarmenegia leuntzeko saiakera batek azalduko luke agian, gaztelaniaren pisua gainetik kendu eta euskara beste hizkuntza batzuekin zuzeneko harremanean jartzeko desirak, nahiz eta, askotan beste erremediorik ez duelako, gaztelania erabiltzen duen berak itzulpenetako zubi-hizkuntza nagusi gisa.

Sarrionandiaren harrobien azterketa egin ondoren, beraz, atal honen hasieran egindako galderei erantzuteko moduan gaude. Batetik, ikusi dugu Sarrionandiak nahiko hurbiletik jarraitu ohi diola zubi-testutzat erabilitako itzulpenari, zubi-testuak jatorrizkoaren gainean egindako aldaketak ere erreproduzituz. Itzultzea berriro sortzea dela behin eta berriro gogorarazten duen arren, eta jatorrizkoarekiko fideltasuna bere itzulpenetarako irizpidetzat hartzen ez duen arren, oro har nahiko gertutik jarraitzen dio itzulpenetarako erabili duen testuari: jatorrizkotik itzuli badu, jatorrizkoari; zubi-testu batetik itzuli badu, berriz, zubi-testuari. Bestetik, harrobien azterketari esker, Sarrionandiari zer-nolako liburuak interesatzen zaizkion ikusi dugu: liburu zientifikoak eta ikerketa zehatzak baino nahiago ditu Cardenalena be-

rako balio, ez bada titulua lortzeko eta gero autoreak ogibidez estatuaren funtzionario masa osatzeko. [...] Nik ez dakit nolakoa egin behar den saiakera, baina igoal horixe da gauza, izan behar duen modukoa ez egitea, beste ikuspegi batzuk ikertzea” (Sarrionandia 2011a: 15). Itzulpenetan jatorrizkoei buruzko xehetasunak isiltzea ere itzulpen-lana “izan behar duen modukoa ez egiteko” desio berberak azalduko luke agian.

zalako poesia-liburuak, edota *Antología del humor negro* eta *45 cuentos siniestros* bezalako ipuin-antologiak; gainera, badirudi itzulpen-bilduma edo antologiak lehenesten dituela liburu monografikoen aurretik. Izan ere, antologiak askotariko literaturetarako sarbidea eskaintzen diote, berak ulertzen dituen hizkuntzetan, jatorrizko testuak banan-banan bilatzen ibili behar izan gabe. Hortaz, horrelako bildumetan aurkitzen dituen testuak itzultzen ditu, jadanik manipulatu daudenak, esku eta luma askotatik igarotakoak, hizkuntza desberdinetako itzultzaileek behin eta berriro bereganatu eta moldatutakoak. Izan ere, *Moroak gara behelaino artean?* liburuan esaten zuen moduan, munduko literatura “urrunetik” ikusi behar da ezinbestean: “Ez da testu orijinala leitu ahal izango agian, itzulpena baizik, bigarren eskuko testua, eta *distant reading* bat baizik ez da egingo: irakurketa urruna” (Sarrionandia 2010b: 450). Baina halere, jarraitzen du Sarrionandiak, “ezagutza urrunetikakoa izango den arren, akaso ez dago urruneko jendea ezagutzeko modu hoberik literatura baino” (Sarrionandia 2010b: 450). Sarrionandiak literaturaren aldeko apustua egiten du, beraz, urruneko jendea ezagutzeko, jatorrizkoa “bere horretan” erreproduzitzen ahalegintzen diren itzulpen akademiko eta azterketa zientifikoak alde batera utzita. Literaturaz gozatzeko aukera ematen dioten liburuak irakurtzen ditu, eta berak ere antzeko liburuak osatzen ditu gustuko izan zaizkion testuak euskaratuz: euskal irakurleei munduko literaturaz —urrunetik bada ere— gozatzeko aukera emango dieten liburuak.

3.2.3.5. Sorburu-testuen zatitze eta moldatzea

Munduko literatura euskal irakurleei eskaintzeko ahalegin horretan, beraz, jadanik itzulitako testuak baliatzen ditu Sarrionandiak, beste esku eta luma batzuetatik igarotako testu manipulatuak, tradizio, idazle eta itzultzaile askoren arrastoak jasotzen dituzten palimpsestoak,¹⁶⁶ behin eta berri berrida-

¹⁶⁶ Palimpsestoa (“un parchemin dont on a gratté la première inscription pour en tracer une autre, qui ne la cache pas tout à fait, en sorte qu’on peut y lire, par transparence, l’ancien sous le nouveau”, Genette 1982: 16) metafora gisa erabili izan da literaturan eta itzulpengintzan testu bakoitzak aurreko testuen arrastoak gordetzen dituela erakusteko, testu bakoitzaren atzean lehenago idatzitako testuen oihartzunak entzun daitezkeela gogorarazteko. *Narrazioak* liburuko “Gaueko enkontra” ipuinean, palimpsestoaren ideia iradokitzen du Sarrionandiak (“bazegoen tinta berezi bat, idatzitakoa ezerezetu eta lerro berberen gainean idazten zen”, Sarrionandia 1983a: 89), narrazioei egindako oharretan aitortzen duenez: “palimpsestoaren ideia adierazten da” (Sarrionandia 1983a: 133).

tzitako eta birsortutako testuak. Birsorkuntza-prozesu horretan, Sarrionandiak ere bere marka inskribatzen du itzultzen duen testu bakoitzean, bere irakurketa pertsonala eskainiz eta testuak nahierara moldatuz eta manipulaturik. Manipulazio horren lehen arrastoa itzulitako testuen hautapenean datza: hainbat testu beren jatorrizko testuingurutik atera eta liburu bakar batean jarrean, hautsi egiten ditu jatorrizkoek beren testuinguruarekin zituzten loturak, eta beste testu batzuekin jartzen ditu harremanetan, ezinbestean lotura berriak eraikiz. Kasu askotan, gainera, jatorrizko testuak beren testuingurutik ateratzean, ez ditu beren osotasunean ateratzen, baizik eta interesatzen zaion zatia soilik hautatuz eta itzuliz.

Izkiriaturiken eta *Hezurrezko xirulaken*, testuen zatikatze horren adibide ugari aurki daitezke; jadanik aipatu dugun Lukrezioaren poemaren kasua izan liteke garbienteko bat: unibertsoa eta gizakia azaltzen ahalegintzen den *De rerum natura* poema luzetik gizakien amodio- eta sexu-grinei buruzko atal labur bat hautatu du Sarrionandiak *Izkiriaturiken* birsortzeko. Ikusi dugunez, hautaketa hori de Cuenca y Pradok eta Alvar Ezquerrak egin zuten lehenago beren *Antología de la poesía latina* libururako, eta Sarrionandiak antologia hartan irakurritako poema-zatia bere horretan itzuli besterik ez zuen egin. Nolanahi ere, poema(-zati) hori *Izkiriaturiken* sartuz eta beste itzulpen batzuen ondoan eskainiz, Sarrionandiak bere zentzua eman dio poemari: *Izkiriaturikerako* itzuli dituen gainerako poema latindarrak aztertuz gero, ohartuko gara amodioaren, sexuaren eta mundu honetako atseginen ingurukoak direla guztiak, eta Lukrezioaren poema-zati horren hautaketa bat datorrela, beraz, poema latindarren atalaren osotasunarekin. Lukrezioaren poema-zatia Enioren, Zezilio Estazioaren, Katuloren, Petronioren, Martzialen eta Horazioaren poemak ematean, lotura eta harreman berriak proposatzen ditu Sarrionandiak; poeta latindarren inguruko “bere” irudia eskaintzen du.

Antzekoa da Sarrionandiak *Izkiriaturikeko* “Irlandar anonimo zaharrak” atalean ematen dituen poemak kasua: poema irlandarren ahapaldi batzuk baizik ez ditu itzuli Sarrionandiak. Esanguratsua da, zentzu horretan, Sarrionandiak “Bart berandu zutaz mintzo zen” izendatu duen poema: jatorrizko testutik hartutako zenbait ahapaldi elkartzuz osatu du *Izkiriaturiken* poema beregain gisa aurkeztu duen testua (ikusi Lady Gregory-ren ingelesezko bertsioa (2006), irlandaratik itzulia). Dena den, pentsatzekoa da poemaren zatikatze eta berrosatze hori eginga izan bide zela jada Sarrionandiak erabilitako zubi-testuan. Izan ere, itzulpena zein zubi-testutan oinarritu zuen ez badakigu ere, ezagunak dira Sarrionandiak erreproduzitutako zati berberak ematen dituzten ber-

tsioak.¹⁶⁷ Ahapaldi-hautaketa desberdina duten hainbat bertsiio aurkitzea oso ohikoa da horrelako testu zahar, tradizional, anonimo eta herrikoien kasuan. Izan ere, jatorrizko bakarra finkatzea ere zaila izaten da halakoetan, ahozko tradizioetik hartuak izaten baitira maiz; beraz, askotan ez dago itzulpenak zerekin erkatu: existitzen ez den jatorrizko baten bertsiio desberdinak direla baizik ezin da baieztatu. Horixe gertatzen da Sarrionandiak *Hezurrezko xirulaken* sartu duen “XVIII. mendeko marinel inglesen kanta”-rekin: “Hawl away Joe” kanta herrikoia bertsio ugarietako batetik hartutako zati labur bat euskaratu du Sarrionandiak.

Hezurrezko xirulaken badira testu baten zati batzuk soilik hautatuz egin-dako beste hainbat itzulpen. Aurreko ataletan aipatu ditugun Kalevala eta Beowulf poema luzeak, esaterako, ez zaizkigu osorik ematen: Sarrionandiak zati labur bat baizik ez du hautatu euskal irakurleei euskaraz eskaintzeko. Era berean, XII. mendeko Chrétien de Troyes idazle gortesauaren poema euskaratua *Yvan, ou Le Chevalier au Lion* eleberritik hartua da. Hiru kasu horietan, Sarrionandiak jatorrizkoaren testuinguruari buruzko sarrera labur bat gehitzen die bere itzulpeni, non irakurleari ohartarazten dion irakurtzera doan poema testu luzeago baten zatia dela. Beste hainbat kasutan, ordea, itzulpenak inolako azalpen edo hitzaurrerik gabe ematen ditu, eta irakurleak ezin du jakin irakurtzen ari dena poema osoa den, ala poema baten zatia, ala eleberritik batetik hartutako poema, ala testu bateko hainbat zati elkarren ondoan jarrita osatutako poema... Francisco José Tenreiroren poema-zatia, esate baterako, testuingurutik erabat moztuta ematen du *Hezurrezko xirulaken*; itzuli duen zatiaren jatorrizko bertsiioa ematera mugatzen da:

*Quando amo a branca
sou branco...*

*Quando amo a negra
sou negro...*

Zuria maite dudanean
zuria naiz...

Beltza maite dudanean
beltza naiz...

(Sarrionandia 1991a: 240-241)

Ez du esaten Francisco José Tenreiro portugesez idazten zuen idazle afrikarra zela, ezta euskaratu dituen lau lerroak “Canção do mestiço” poemaren azken ahapalditik hartuak direla ere. Ez du testuinguruari buruzko inolako informaziorik ematen, eta lau lerro horiek izenbururik gabe uzten ditu.

¹⁶⁷ W. B. Yeats-en *Ideas of good and evil* (1903) liburuan, esaterako, Sarrionandiak itzultako ahapaldi berberak jasotzen dira. Baliteke testu hori erabili izana Sarrionandiak zubi-testutzat, edota haren gaztelaniatzko itzulpena (Yeats 1975).

Poemak izenbururik gabe emateko joera ezohikoa da Sarrionandiaren itzulpenetan. Hain zuzen ere alderantzizkoa egiten du maiz: izenburua eman ohi die jatorrian izenbururik ez zeukaten testu edo testu-zatiei. Batzuetan itzulpenerako erabilitako zubi-testuaren izenburua kopiatzen du, izenburu hori jatorrizkoari ote zegokion ziurtatu gabe. Aipatu ditugu kasu batzuk harrobiei buruzko atalean: argi dago poema miskitoaren izenburua (“Maitaleari gutuna”) eta Lukrezioaren poema-zatiarena (“Zauri ezkutua”) zubi-testu gisa erabilitako itzulpenetatik itzuli dituela, baita Lukrezioarena itzultzeko erabilitako zubi-testutik hartutako beste hainbat poemaren izenburuak ere.¹⁶⁸ Beste batzuetan, ordea, zubi-testuetan ere izenbururik aurkitzen ez badu, berak asmatutako izenburua jarri ohi die itzulpenei. Horixe egin du, esaterako, *Izki-riaturiken* ematen duen Petronioren poemarekin. Poema hori *Satiricon* nobelatik hartutako zatia da; berez izenbururik gabea. Badirudi Sarrionandiak Menéndez Novella-ren gaztelaniazko bertsiotik itzuli duela; hala balitz, “Adis-kidetasuna” izenburua Sarrionandiak emana izango litzateke, Menéndez Novellak ez baitzion poemari izenbururik jarri. Azkenik, beste kasu batzuetan, Sarrionandiak aldatu egiten du jatorrizkoak edota zubi-testuak zeukan izenburua, adibidez Tu Fu txinatarren “Udaberri eskena” poeman. Itzulpenaren hitzaurrean Octavio Pazen bertsiolari jarraitu diola aitortzen duen arren, eta Pazen bertsiorearen izenburua “Primavera cautiva” zen arren, Sarrionandiak izenburua aldatzea erabaki du, hitzaurrean bertan aitortzen duenez:

Titulua, Chung Wang, «udaberri eskena» itzuli dugu, baina «udaberri gati-bua» ere itzuli izan da, eskenaren zarratu zentzua adierazteko (Sarrionandia 1995a: 67).

Beraz, poemaren zein alderdi azpimarratu edo adierazi nahi den, horren arabera emango dio itzultzaileak izenburu bat ala bestea. Txikikeria badirudi ere, izenburuan bertan ikus daiteke askotan itzultzailearen interpretazio eta esku-hartzea, izenburu desberdinak zentzu desberdina eman baitiezaioke poema berberari.

Hezurrezko xirulaken badira izenburu-aldaketa edo -eransketen beste hainbat kasu interesgarri. Adibide gisa, John Donneren poemak aipa ditzake-

¹⁶⁸ De Cuenca y Pradoren eta Alvar Ezquerraren *Antología de la poesía latinako* izenburuak antologiaren egileek jarriak dira: “titulamos todas las piezas incluidas en nuestro libro. Los títulos sólo son, por tanto, imputables a quienes firman esta antología” (Cuenca y Prado & Alvar Ezquerro 1981: 9). Kasu gehienetan, Sarrionandiak poemak ez ezik izenburuak ere bertatik itzuli ditu.

gu. Poeta ingelesaren lau poema itzuli ditu Sarrionandiak: “Filosofia berria”, “Zer egin dugu”, “Inor ez da irla” eta “Amoranteari eresia oheratzean”. Jatorrizko testuak aztertuz gero, ohartuko gara azken poeman bakarrik errespetatu duela Sarrionandiak jatorrizkoaren izenburua (“Elegy XIX: To His Mistris Going To Bed”). Hirugarren poema izenbururik gabe dator jatorrizkoan, eta Sarrionandiak itzulpenaren lehen hitzak errepikatuz osatu du bere itzulpenarentzako izenburua. Ohiko estrategia da hori Sarrionandiaren itzulpenetan; horixe egiten du eskuarki itzulitako poemek izenbururik ez dutenean edota itzulitakoa testu luzeago baten zatia denean. Horixe da John Donneren lau poema horietako lehenaren kasua: “The First Anniversary - An Anatomy of the World” poema luzearen zatia da Sarrionandiak eskaintzen diguna, eta zati horri itzulpenaren lehen hitzak jarri dizkio izenburutzat: “Filosofia berria”.¹⁶⁹ Harrigarriena, apika, “Zer egin dugu” poemaren izenburu-aldaketa da: jatorrizkoan izenburu eta guzti ematen den poema osorik itzuli badu ere (“The Good-morrow” deritzo John Donneren poema horri, euskaraz “Biharamun ona” edo litzatekeena), Sarrionandiak itzulpenaren lehen hitzekin osatutako izenburua jarri dio, jatorrizko izenburua baztertuta. Baliteke Sarrionandiak zubi-testuren bat erabili izana poema horiek itzultzeko, eta jatorrizko bertsioa ez kontsultatu izana; horrek azalduko luke beharbada jatorrizko izenburuaren galera. Baliteke, ordea, izenburu-aldaketa nahita egina izatea, beste poemekiko koherentzia lortzeko edo.

Esanguratsuak dira, halaber, *Hezurrezko xirulake*ko beste izenburu batzuek, jatorrizkoetatik dezente urruntzen baitira. Heinrich Heine alemaniarren poema, adibidez, “Filosofia” izendatu du Sarrionandiak, jatorrizkoaren izenburua “Fragen” izan arren (“Galderak”). Sarrionandiak itzulitako Leopold Staff poloniarren poemak, berriz, “Denbora galtzea” du izenburu, nahiz eta jatorrizkoa “Rzęsa” izan (“Ur-dilista”). Ziurrenik guk ezagutzen ez ditugun zubi-testuen erabilerari zor zaizkio izenburuen arteko desberdintasun horiek, baina baliteke Sarrionandiak berak egindako aldaketak izatea ere. Nolanahi ere, jatorrizkoen eta Sarrionandiaren itzulpenen arteko desberdintasunek agerian jartzen dituzte Sarrionandiaren itzulpen-irizpideei buruzko zenbait zantzu.

Testuak manipulatzeko Sarrionandiaren jokabidea ez dator bat jatorrizkoa “bere horretan” eta itzultzailearen ahalik eta esku-hartze txikienaz erre-

¹⁶⁹ *Marginalia* liburuan (Sarrionandia 1989: 97-100), poema-zati berberaren jatorrizkoa eta itzulpena ematen ditu Sarrionandiak, *Hezurrezko xirulake*ko bertsioarekiko aldaera txiki batzuekin.

produzitzea hobesten duten itzultzaileen praktikarekin; ikusi dugu Sarrionandiarentzat itzultzea berriro idaztea dela, eta itzultzailearen esku-hartzea saihestezina ez ezik beharrezkoa ere badela: esku-hartze edo manipulazio horri esker hartzen ditu jatorrizkoak esanahi berriak eta eraikitzen lotura berriak. Horretan datza, Sarrionandiaren iritziz, literaturaren eta itzulpengintzaren ahalmen sortzaile eta birsortzailea; eta itzultzailearen egitekoa, beraz, ahalmen sortzaile horretaz ahalik eta ondoen baliatu eta lan berri eta original bat eratzea da. Horixe egiten du, hain zuzen ere, jatorrizko testuko zati batzuk hautatu, euskarara itzuli eta, izenburu berri batez hornituta, liburu berean txertatzen dituenean. Testuak zatikatzea, izan ere, jatorrizkoa modu ausart batean bereganatzea da; sorburu-testuaren gailentasun eta sakratutasuna zalantzan jartzea; jatorrizkoa hauskorra, mugikorra eta aldakorra dela erakustea. Sergio Waisman-ek, Jorge Luis Borges argentinarraren itzulpen-praktika esku-hartzailea aztertzeko saioan, testuak zatikatzek duen garrantzia azpimarratzen du:

Ya el acto de seleccionar un fragmento, antes aún de maltraducirlo a otro contexto, es insolente, en la medida en que rompe la integridad de la fuente y lanza un reto a su prepotencia y a la del sistema en que fue originado (Waise 2005: 138).

Testuak sorburu-sistematik “erauzi” eta sistema berri batean birsortzeko beste estrategia bat, testuen zatikatzarekin lotua, poema gisa idatzi edo sortu ez ziren testu edo diskurtsoak poema gisa aurkeztea da. Sarrionandiak *Izkiriaturiken* eta *Hezurrezko xirulaken* ematen dituen “poema” asko beste mota bateko testu edo testu-zatiz osatuak dira. Adibiderik esanguratsuen, behar bada, Bartolomeo Vanzetti italiar jatorriko ekintzaile anarkista estatubatuarren heriotzara kondenatu zuen epaimahaiaren aurrean emandako azken hitzaldia genuke, Sarrionandiak, poema gisa itzulita, *Hezurrezko xirulaken* orrialdeetan sartu zuena. Auzitegi batean emandako diskurtsoa poema gisa aurkeztea bereganatze-ekintza garrantzitsua da, sorburu-sisteman helburu literarioerik gabe sortutako zerbait obra literarioen parean jartzen baita horrela. Kasu honetan, dena den, diskurtsoa poema bihurtzea ez da Sarrionandiaren lana izan, Selden Rodman biltzailearena baizik. Hain zuzen, haren antologia aipatzen du Sarrionandiak “poema” horren hitzaurrean (nahiz eta badirudien Cardenal & Coronel Urtecho 2007 gaztelaniazko antologia erabili zuela zubi-testu gisa):

Selden Rodman biltzaileak poesia anglosaxoi modernoaren bere libururako eta beste 105 poeten artean —Gerard Manley Hopkins gandik hasi eta Dylan Thomas artino— Bartolomeo Vanzetti hautatu zuen. Eta Bartolomeo Vanzettik epaitegian, heriotzera kondenatua izan orduko, egindako azken mintzaldia poe-

ma tankeran eman zuen. Zer dela eta hartu zuen auzi deklarazioa poesiatzat? Bartolomeo Vanzettiren mintzaldia poesia ohi den bezain alferrikakoa izan zelako agian (Sarrionandia 1991a: 194).

Ildo beretik, Ipar Amerikako zenbait tribuk konkistatzaile zurien aurrean beren burua defendatzeko egindako mintzaldiak ere Vanzettirena bezain alferrikakoak izan zirelako edo, mintzaldi horietatik hartutako zenbait zati poema moduan aurkezten ditu Sarrionandiak *Izkiriaturiken*. Kasu hauetan, aurrekoan ez bezala, Sarrionandiak isildu egiten du zubi-testu gisa erabili duen itzulpena, eta, beraz, ezin dugu jakin diskurtso horiek osorik izan ote zituen begi aurrean eta berak hautatu ote zituen lerro batzuk gero poema gisa emateko, ala beste itzultzaile batzuek egindako hautaketak erreproduzitzera mugatu ote zen. Nolanahi ere, Sarrionandiak *Izkiriaturikerako* egindako hautaketa esanguratsua da, gizon zuriak indioei egindako gehiegikeriak salatzen dituzten pasarteak ematen baititu. Ten Bears buruzagi komantxearen “poema”, esate baterako, “Medicine Lodge Treaty” delako hitzarmena onartzean emandako hitzaldiaren zati bat da. Hitzarmen horretan, buruzagi komantxeak men egin zion zuriek proposatutako indiar-erreserbari. Hitzaldia zurien aldeko hitz adeitsuekin hasten da, zurien borondate ona goratuz. Erdi aldera, ordea, Ten Bears bere herriaren ohituren alde eta zuriek kendu nahi dioten askatasunaz mintzo da. Eta pasarte hori da, hain zuzen ere, Sarrionandiak euskaratu eta *Izkiriaturiken* eman duena, lerroak banatuta eta poema itxura emanda. Antzera jokatzeko du Sitting Bull, Young Joseph eta Black Elk buruzagi indiarren testuekin: zurien aurka borrokatu eta halere beren lurra eta askatasuna galdu zuten indiarren hitzak poema moduan ematen ditu, haien ahalegina literaturaren bidez omendu nahi balu bezala.

Beste zenbait kasutan, Sarrionandiak eleberri edo istorioetatik hartzen dituen pasarteekin osatzen ditu poemak. Alexandr Pushkin idazle errusiarraren itzulpen bat litzateke adibide egokia: *Hezurrezko xirulaken* Pushkinen bi poema ematen ditu euskaraz Sarrionandiak, “Bohemiar kanta” eta “Goiz argiarekin”, biak poema oso eta beregainak diren inpresioa emanez. “Bohemiar kanta” deiturikoa, ordea, “Цыганы” edo “Ijitoak” izeneko poema narratibo luzearen pasarte labur bat besterik ez da. Poema horretan, Zemfira neskatila amodiozko kanta bat kantatzen hasten da; Alekok, ordea, isiltzeko eskatzen dio berehala, baina neskak, beretzat ari dela erantzun, eta kantatzen jarraitzen du. Kanta eteten duen Alekoren eta Zemfiraren arteko elkarriketa isildu egin du Sarrionandiak bere itzulpenean, neskaren kanta osorik eta poema forman emateko.

Antzeko adibidea aurki daiteke *Hezurrezko xirulakeko* “Siberiar kanta” delakoan. Sarrionandiak Nikos Kazantzakis idazle greziarraren *Toda-Raba* eleberritik hartutako kanta bat ematen du euskaraz, lerro-banaketa poema itxuran antolatuta. Kasu honetan, itzultako zatiaren hautaketa zubi-testuari zor zaiolakoan gaude, ez ordea lerroen banaketa. Badirudi Sarrionandiak Jorge Zalamearen *Poesía ignorada y olvidada* antologian aurkitu zuela siberiar kanta hau, eta antologia horretan ematen den informazioa erabili zuela kantaren aurkezpena idazteko. Lerroen banaketa, ordea, desberdina da bi bertsioetan: Zalameak elkarrizketa moduan ematen du siberiar kanta hori; Sarrionandiak, ordea, poema itxura eman nahi izan dio Zalamearenean elkarrizketa gisa agertzen zen pasarteari. Hona hemen hiru testuak, sorburu-testua (Kazantzakisena, frantsesez), zubi-testua (Zalamearena, gaztelaniaz) eta xede-testua (Sarrionandiarena, euskaraz):

« Te rappelles-tu, père, lorsque tu revenais le soir, éreinté, courbé toute la journée sur l'eau et tes filets étaient vides ? — Oui, oui, mais la vie était belle ! — Te rappelles-tu, père, lorsque tu gémissais, malade, couvert d'ulcères, sur le grabat ? — Oui, oui, mais la vie était belle ! — Te rappelles-tu, père, lorsque tu crevais de faim, tu pleurais et tu battais ta femme ? — Oui, oui, mais la vie était belle ! » (Kazantzakis 1962 : 52).

* * *

—¿Recuerdas, padre, cuando regresabas de noche, derrengado, después de pasar el día entero doblando sobre el agua para recoger finalmente tus redes vacías?

—¡Sí, sí; pero la vida era bella!

—¿Recuerdas, padre, cuando gemías, enfermo, cubierto de úlceras en tu yaciga?

—¡Sí, sí; pero la vida era bella!

—¿Recuerdas, padre, cuando reventabas de hambre, cuando llorabas y apalearas a tu mujer?

—Sí, sí; pero la vida era bella! (Zalamea 1965: 51-52).

* * *

— OROITZEN duzu, aita,
Egun osoa uretara makurturik ihardun
Eta sareak beti hutsik
Gauetz guziz nekaturik itzultzen zinela?

— Ba, bai, baina bizitza ederra zen!

— Oroitzen duzu, aita,
Gose gorritz beterik
Negarrez hustutzen zinela,
Eta erneguan sarritan ama kolpatzen zenuela?

- Ba, bai, baina bizitza ederra zen!
- Oroitzen duzu, aita,
Ahuldurik eta gaisorik,
Mintzarrez estalirik
Ohantzetik jeiki ezinik egoten zinela?
- Ba, bai, baina bizitza ederra zen! (Sarrionandia 1991a: 187).

Oraindik ere luza gintezke Sarrionandiaren itzulpenetan gertatzen diren testu-zatiketze, izenburu-aldaketa eta bestelako moldaketen adibideak ematen, baina aurkeztu ditugunak aski izan daitezke Sarrionandiaren itzulpen-praktikaren alderdi batzuk deskribatzeko. Dagoeneko aurreratu dugun bezala, Sarrionandiak munduko literaturako altxorrez osatutako “poesia-liburuak” eskaini nahi dizkio euskal irakurleari; altxor horiek, ordea, guztiz pertsonalizaturik aurkezten ditu, berak egindako hautaketa, zatiketa eta moldaketen arabera. Sarrionandiaren helburua, izan ere, ez da testuak fidelki itzultzea, jatorrizko testutik ahalik eta gutxien urrunduz. Ondotxo daki jatorrizkoarekiko fideltasun erabatekoa ilusio hutsa dela, sorburu-testuari hurbil-hurbiletik jarraitzen dioten itzulpen “leialetan” ere itzultzailearen interpretazio pertsonalaren arrastoak gelditzen direla. Horregatik, ez da itsu-itsuan ahalegintzen jatorrizko testutik zuzenean itzultzen; ez du zubi-hizkuntzak eta zubi-testuak saihesteko ahalegin berezirik egiten. Esku artera iristen zaizkion testuak jatorrizkoak nahiz itzulpenak izan, gehien gustatu zaizkionak hartu eta horietatik birmoldatzen ditu, bere gustuko “poesia-liburuak” osatu arte. Gainera, ikusi dugunez, hautatzen dituen testuak askotarikoak izan ohi dira: Mendebaldeko literatura kanonikoetakoak nahiz literatura txiki edo ezezagunagoetakoak; poemak, diskurtsoak, istorioak nahiz kantak; testu osoak nahiz zatituak eta berrosatuak; izenburudunak nahiz izenburu gabeak... Material heterogeneo hori landuz eta birsortuz, “poesia” bihurtzen ditu jatorrian beste helburu batez sortutako testuak ere. Itzulpenaz baliatuz, beraz, “bere” poesia-liburuak sortzen ditu, aurreko hamaika testu eta tradizioren marka, arrasto eta oihartzunak jasotzen dituzten testuez osatuta egon arren, “bere-bereak” direnak.

3.2.3.6. *Itzulpenaren eragina Sarrionandiaren lanetan*

Sarrionandiaren literatura-ikuskerak berak egindako itzulpenetan nola eragiten duen ikusi ondoren, iurretar idazlearen itzulpen-lanek haren sorkuntzako lanetan izandako eragina aztertzeari lotuko gatzazkio jarraian. Sorkuntzako lanen eta itzulitakoen arteko elkarreragina bi noranzkoko delako ikusiko

dugu, eta sorkuntzaren eta birsorkuntzaren arteko bereizketa, jatorrizkoaren eta itzulpenaren artekoa bezala, hasieran dirudiena baino lausoagoa dela.

Sarrionandiak itzulitako autoreen eta testuen zuzeneko edo zeharkako ai-puak oso ugariak dira bere sorkuntzazko lanetan. Izan ere, erreferentzia intertestualez josita daude Sarrionandiaren poema, ipuin eta gainerako literatura-lanak, Aitzpea Azkorbebeitiak eta beste hainbat kritikaririk ondo asko aztertu duten bezala. Intertestualitatea edo testuartekotasuna “testu batek beste batekin edo batzuekin dauzkan harreman” multzoa da, eta harreman horiek oso ugariak dira Sarrionandiaren poemetan ez ezik, baita narrazioetan ere (Azkorbebeitia 1998: 52-53). Azkorbebeitiak adierazten duen legez, ez du merezi Sarrionandiarengan aurki daitezkeen erreferentzia intertestualak banan-banan zerrendatzea; hori baino garrantzitsuagoa da testuartekotasunaren oinarrian dagoen planteamendua aztertzea: testuartekotasunak edozein testu tradizio batean txertatzen dela gogorarazten du, eta aurretik idatzitako testuetan dituela erroa; hutsetik sortzea ezinezkoa dela erakusten du, eta zalantzan jartzen du “jatorrizko” deituriko obren originaltasuna (Azkorbebeitia 1998: 53-54). Sarrionandiaren literatura- eta itzulpen-ikuskerara agerian jartzen duen beste prozedura bat genuke, beraz, testuartekotasuna. Behar baino gehiago ez luzatzearren eta lan honen muina den itzulpengintzatik gehiegi ez urruntzearren, ez ditugu Sarrionandiaren lanetako erreferentzia intertestual guztiak aipatuko, eta berak itzulitako lanekin loturaren bat dutenak aztertzeraz mugatuko gara.

Esan dezakegu Sarrionandiak itzulitako autore guztiak izan dutela eragina, modu batera edo bestera, haren sorkuntzako lanetan. Izan ere, gustuko dituen idazleen lanak irakurri eta itzuli ohi ditu, eta irakurketa eta itzulpen horietan jaso eta ikasitakoak moldatuz eta birsortuz idazten ditu ondoren bere lanak. Eragin hori oso agerikoa da idazlearen lehen poesia-liburutik beretik: *Izuen gordeleketan barrena* (1981) liburuan aurki daitezkeen oihartzun literario askok Sarrionandiak itzulitako autoreak dakartzate gogora, hala nola T. S. Eliot, D. Thomas, W. B. Yeats, F. Kafka, R. M. Rilke, K. Kavafis, V. Holan, F. Pessoa, C. Baudelaire, H. Melville eta E. A. Poe. Ondorengo lanetan ere etengabeak dira Sarrionandiak gustura irakurri eta itzuli izan dituen autoreei buruzko erreferentziak. *Marinel zaharrak* (1987) poesia-liburuan, esaterako, zuzeneko erreferentziak egiten zaizkie Vladimir Holan, T. S. Eliot, Alberto Caeiro eta Herman Melville idazleei, besteak beste, eta zeharkako eraginetan ere suma litezke Sarrionandiak itzulitako beste autore askoren oihartzunak. Sarrionandiaren poesia-liburuak ez ezik, narrazio-liburuak ere erreferentzia intertestualez beteta daude. *Ifar aldeko orduak* (1990) narrazio-liburuan, adibidez, Li Po, T. S. Eliot, Cesare Pavese, John Donne, Manuel Bandeira eta

Vladimir Holan aipatzen dira, guztiak ere Sarrionandiak itzultako autoreak. Zerrenda luzatzen jarraitu beharrean, autore horien lanek Sarrionandiarengan nolako eragin eta arrastoak utzi dituzten aztertzeari lotuko gatzazkio jarraian, iurretar idazlearen lanetan itzulpena eta sorkuntza nola uztartzen diren erakusteko xedez. Sarrionandiaren lanetako harreman intertestetualei eta autoreen oihartzunei buruz gehiago jakin nahi duenak Azkorbebeitiaren liburura jo dezake, baita han ematen diren beste iturri batzuetara ere: Kortazar, Aldekoa, Markuleta, Mendiguren, Iturralde, Ordorika... (Azkorbebeitia 1998: 88-89). Lan berriagoen artean, ikusi Kortazar 2000, 2001 eta 2005.

Sarrionandiaren obran behin eta berriz entzun daitekeen oihartzun nabarmentetako bat T. S. Eliotena da. 1981erako argitaratua zuen jada *Oh! Euzkadi* aldizkarian *The Waste Land* poemaren zati baten euskal itzulpena (“Hilen ehorzketa”). Bi urte geroago, 1983an, poema berbera osorik argitaratu zuen *T. S. Eliot euskaraz* liburuan, Gabriel Arestik eta Jon Juaristik euskaratutako Elioten beste lan banarekin batera. Poema horren eta Elioten beste poema batzuen oihartzunak nonahi aurki daitezke Sarrionandiaren lanetan, Azkorbebeitiak dagoeneko aztertua duen bezala (1998: 54-55). Esate baterako, *Hnuy illa nyha majah yahoo* poesia-liburuaren sarreran Elioten aipu bat ageri da, Gabriel Arestik itzultako *Lau Quartetto* poemaren hasieratik hartua (“Dem-bora presentea eta dembora pasatua...”). *Ifar aldeko orduak* liburuko “Oroi-mena eta desira” ipuinaren izenburua ere, jadanik aipatu dugun bezala, Sarrionandiak itzultako *The Waste Land* poematik hartua da. *Narrazioak* liburuko “Itzalarekin solasa” ipuinean, berriz, Elioten beste poema baten pasarteak txertatzen ditu Sarrionandiak, itzalaren ahotan jarriak: “Gizon hutsak gara —zioen abotsak—, gizon beteak gara, bata bestearen gainean sostengatuak, burua lastoz beteak. Ai! gure abots lehorrak”. Elioten *The Hollow Men* poemaren lehen lerroak dira, euskarara itzulita. Ipuineko poetak ahotsa nondik datorren ez dakienez, itzalak poema errezitatzen jarraituko du: “Oro zurumurru, bare eta esanahi gabe, haizea belar lehorrean bezala edo arratoi oinak kristal hautsien gainean, gure elikaduren soto igorrean...” (Sarrionandia 1983a: 39), Elioten poemako lehen ahapaldia osatu arte.¹⁷⁰ Itzulpena eta sorkuntza nahasirik ageri zaizkigu, beraz, ipuin honetan: Sarrionandiak berarengan eragin handia izan duen poeta baten hitzak euskaratu eta bere ipuineko pertsonaia baten ahotan jartzen ditu; eta ez edozein pertsonaiaren ahotan, gainera, poetaren subkontziente gisa uler litekeen itzalaren ahotan baizik. Jo-

¹⁷⁰ “We are the hollow men / We are the stuffed men / Leaning together / Headpiece filled with straw. Alas! / Our dried voices, when / We whisper together / Are quiet and meaningless / As wind in dry grass / Or rats’ feet over broken glass / In our dry cellar” (Eliot 1925: 123).

las horren bidez, Sarrionandiak zalantzan jartzen du berriz ere poeten originaltasun eta jenialtasunaren ideia: ezinezkoa da ezerezetik sortzea; poeta bakoitzak lehenago irakurritako testuen oihartzun edo arrastoen gainean idazten du; nahiz eta oihartzun horiek nahita bilatuak ez izan, beti dago poetaren atzean eragin literarioak atxikitzen dituen itzal moduko bat, poetari guztiz originala izatea eragozten diona. Edozein idazlek, beraz, poema edo testu berri eta original bat idatzi nahi duenean ere, alde aurretik egindako irakurketetan oinarritu behar du halaberrez, eta aterako den emaitza ordura arte jaso duen literatura-tradizioaren bihurpen edo itzulpen bat izango da ezinbestean.

Horretan datza, gainera, edozein idazleren arrakasta: bereganatu duen literatura-tradizio hori ahalik eta modurik originalenean birsortzean, testu guztiz berria sortuko ez badu ere, proposatzen dituen lotura eta harremanak behintzat berriak izan daitezten. Horrexegatik du garrantzia, aurreko poeten-gandik jasotzen denak bezainbat edo are gehiago, aurrekoek idatzitakoarekiko aldatzen denak, Julia Kristeva-k gogorarazten duenez:

[...] el texto [es] una relectura, acentuación y desplazamiento de otros textos, esto es, un proceso de selección, extracción, transformación y transgresión de modelos. Interesa entonces tanto lo que se toma como lo que cambia: por qué se toma y por qué se cambia, dónde y cuándo, para qué y para quién” (Kristeva, *apud* Azkorbebeitia 1998: 94).

Zentzu horretan, interesgarria da oso Sarrionandiaren “Apirilari gorazarra” poema, Elioten *The Waste Land* poemaren hasierari emandako erantzun garbia, Kortazarrek seinalatua duen legez (Kortazar 2000: 355). Apirila hila-beteetan krudelena dela esanez hasten da Elioten poema, jatorrizkoan nahiz Sarrionandiak egindako itzulpenean ikus daitekeenez:

April is the cruellest month, breeding	Apirila da hilarik krudelena, lur
Lilacs out of the dead land, mixing	Hileko lilak hazten, oroimena eta desira
Memory and desire, stirring	Nahasten, sustrai uherrak
Dull roots with spring rain.	Udaberriko euriez eragiten.
[...]	[...]
(Eliot 1922: 2)	(Sarrionandia 1983c: 127)

Sarrionandiak 1983an egindako itzulpenak nahiko gertutik jarraitzen dio Elioten testuari; ez da jatorrizkotik gehiegi desbideratzen, Sarrionandiaren itzulpenetan ohikoa denez. Desbideraketa, ordea, egina zuen ordurako, 1981eko *Izuen gordelekuetan barrena* poesia-liburuan argitaratutako “Apirilari gorazarra” poeman. Izenburuan bertan aurreratzen du Sarrionandiak Elioten

poemari kontra egitera datorrela bere poema. Gerora, gainera, Eliotekiko lotura guztiz esplizitu egin zuen, poema berbera 1987ko *Marinel zaharrak* poema-liburuan txertatu zuenean, Elioten “April is the cruellest month” aipua erantsi baitzion hasieran. Sarrionandiaren poemak aurka egiten dio Elioten baieztapenari, eta apirila hilabeterik atseginena ez izan arren, krudelena ere ez dela gogorarazten du:

Apirilean du laborariak garagarra,
lursagarra eta bazkabelarra ereiten.
Apirilean da soroa ureztatzen,
mahastiak estekatu eta aberaskak garbitzen.
[...]
Apirila ez da ilarik atseginena,
baina krudelena ere ez
Eta ez diot gorasarre gehiago eginen.
(Sarrionandia 1981: 21).

Esan ote liteke, beraz, Sarrionandiaren “Lur eremua” eta “Apirilari gorazarrea” Elioten poema berberaren bi bertsio edo itzulpen direla? Gehiegitxo esatea litzateke beharbada, baina ezin ukatuzkoa da biek ala biek sorburu-testu berbera izan dutela iturri. Sarrionandiak Elioten poema gisa aurkezten du “Lur eremua”, eta “Apirilari gorazarrea”, berriz, berak sortutako poema gisa. Argi dago, ordea, “Lur eremua” Sarrionandiarena ere badela, ingelesez sortutako poema euskarara ekartzean Sarrionandiak bere interpretazioa eman baitio, bere ulermenaren arabera birsortu baitu. Era berean, “Apirilari gorazarrea” ez da soilik Sarrionandiarena, Eliotek bere poema idatzi ez balu Sarrionandiak ez baitzukeen inoiz horrelako erantzunik idatziko. Horrelako jolasen bidez, Sarrionandiak zalantzan jartzen du itzulpenaren eta sorkuntzaren arteko bereizketa, eta gogorarazten du poema bakoitzak beste idazle eta itzultzaile batzuek egiten dizkioten itzulpen, berridazketa, erantzun edo berasmaketei esker irauten duela bizirik, berridazketa bakoitzean bizi berria hartuz eta denbora, espazio, hizkuntza eta tradizio desberdin bakoitzean zentzu berriak bereganatuz.

Sarrionandiak T. S. Elioti emandako erantzunarekin alderatu genitzake, halaber, S. T. Coleridgeren testuetatik abiatuz egindako itzulpen, birsortze eta berridazketak. Sarrionandiak Coleridgeren *The Rime of the Ancient Mariner* balada ezagunaren euskarazko itzulpena 1995era arte argitaratu ez bazuen ere, autore horrek eta bereziki poema horrek Sarrionandiarengan izandako eragina erabat agerikoa da iurretarraren poesia- nahiz narrazio-lanetan.

Coleridgeri egiten dizkion erreferentzia guztiak banan-banan aipatu gabe,¹⁷¹ jolasik esanguratsuenak aztertzea mugatuko gara. Horien artean nabarmenena, ziurrenik, *Narrazioak* liburuko “Marinel zaharra” ipuina genuke, Coleridgeren baladaren oihartzunez goitik behera zipriztindua. Ipuinak, Sarrionandiak liburuaren bukaerako oharretan argitzen duenez, “Marinel leienda zahar batzuren oihartzuna eduki nahi luke, eta Samuel Taylor Coleridge erromantikoaren poema luzearen erreferentzia darama tituloak” (Sarrionandia 1983a: 133). Tituluan ez ezik, ipuinean zehar ere agerikoak dira poema hari egiten zaizkion erreferentziak. Esan liteke poema hartan kontatzen den istorioaren berridazketa bat dela “Marinel zaharra”. *The Rime of the Ancient Mariner* poeman, itsasoan igarotako abentura lazgarri baten berri ematen dio marinel zahar batek eztei batzuetara doan gonbidatu bati. Sarrionandiaren “Marinel zaharra” ipuina ere marinel zahar batek narratzaileari kontatzen dion istorioan oinarritzen da. Aldeak alde, bi marinelen esperientziak oso antzekoak dira: albatros edo kalatxori bat hiltzeagatik itsasoaren haserrea eta heriotza erakartzen dituzte biek. Zentzu horretan, esan ote liteke “Marinel zaharra” ipuina *The Rime of the Ancient Mariner* poemaren prosazko itzulpen librekoa dela? Kasu horretan, Elioten *The Waste Land* poemarenean bezala, poema berberaren bi bertsio edo birsorkuntza izango litzuke Sarrionandiak: 1995ean argitaratutako *Marinel zaharraren balada*, jatorrizkoari nahiko gutxitik jarraitzen dion itzulpena, errima eta neurririk gabe baina poema moduan itzulia; eta “Marinel zaharra” narrazioa, poema berberaren prosazko erantzun, birsorkuntza edo jarraipena, Sarrionandiak Euskal Herrian kokatu

¹⁷¹ Sarrionandiaren lanetan aurki daitezkeen Coleridgeren erreferentzien artean nabarmenena, zalantzarik gabe, marinel zaharraren irudia da: *Narrazioak* liburuko azken ipuinari “Marinel zaharra” deritza, eta *Marinel zaharrak* izenburua darama, halaber, Sarrionandiak 1987an argitaratutako poesia-liburuak; izan ere, “poeta, berez, marinel zahar bat dela” gogorarazten du Sarrionandiak liburuaren hitzaurrean: “Gure istorioak marinel zaharraren istorioak dira, ezteietara doan gonbidatuari, hau da, gu entzuten geratzeko apenas astirik gabe doan jendeari kontatzeko”, gaineratzen du Sarrionandiak, *The Rime of the Ancient Mariner* baladako istorioari erreferentzia argia eginez (Sarrionandia 1988: 7). *Narrazioak* liburuko “Arima naufrago bakartiak” ipuinean ere, Herman Melvilleren eragina eta erreferentziak egoteaz gain, nabarmena da Coleridgeren marinel zaharraren istorioaren oihartzuna. Aipatzekoa da, halaber, Sarrionandiak *Izuen gordelekuetan barrena* poesia-liburuan tartekatutako irudi bat (Sarrionandia 1981: 9), Gustave Doré marrazkigileak Coleridgeren *The Rime of the Ancient Mariner* balada ilustratzeko egina (marrazki horietaz apainduta argitaratuko du Sarrionandiak, 1995ean, poema horren euskal itzulpena). Coleridgek eta itsasoaren eta marinelen inguruko gaiek Sarrionandiarengan izandako isla ondo aztertua dute, Aitzpea Azkorbebeitiak (1998) ez ezik, baita Iñaki Aldekoak (1989, 1999, 2010), Aingeru Epaltzak (1994), Lourdes Otaegik (2000) eta Jon Kortazarrek (2000, 2001, 2005) ere.

duena —zein herritan zehazten ez badu ere, Kantauri itsasoa aipatzen du—. Lausoturik ageri zaizkigu berriro, beraz, itzulpenaren, sorkuntzaren eta berri-dazketaren arteko mugak.

Sarrionandiak itzulitako poemei emandako erantzunen artean aipatzekoa da, halaber, “Bizitza heldu da eta zeure begiak ditu” poema, *Hnuy illa nyha majah yahoo* poema-bilduman argitaratua (Sarrionandia 1995b: 194). Izenburua eta poemaren lehen lerroa osatzen dituzten hitzek Sarrionandiak poemaren hasieran aipatzen duen Cesare Pavesearen “Verrà la morte e avrà i tuoi occhi” poemari egiten diote erreferentzia. Poema hori bera euskaratua eta *Izkiriaturiken* argitaratua zuen Sarrionandiak 1985erako: “Helduren dun heriotza eta heure begiak ukanen dizkin” (Sarrionandia 1995a: 204). Itzulpen horrek jatorrizkoari nahiko hurbiletik jarraitzen baldin badio, *Hnuy* poema-bilduman egindako birsorkuntzak guztiz bestelako zentzua ematen dio Pavesearen poemari. Pavesearen poemak eta Sarrionandiaren itzulpenak heriotzaren begiak baldin bazituzten mintzagai, Sarrionandiaren birsorkuntza bizitzaren begien inguruan garatzen da. Elioten poemari emandako erantzun hartan bezala, Pavesearen poemaren birsorkuntza honetan ere jatorrizkoan iradokitako zentzuaren guztiz kontrakoa proposatzen da. Jatorrizkoaren zentzua aldatuz eta desitxuratuz, Sarrionandiak literaturaren izaera mugikor eta aldakorra azpimarratzen du, eta garai eta leku berrietan berpitzarazten ditu inoren interpretaziorik gabe hilik geratuko ziratekeen aitzindarien poemak.¹⁷²

Sarrionandiaren itzulpenen eta sorkuntzazko lanen arteko elkarreaginaren beste adibide bat aipatzearren, *Hnuy* liburuan argitaratutako “Zer egin?” poema eta *Hezurrezko xirulaken* emandako John Donneren “Inor ez da irla” poemaren arteko harremana ekar dezakegu hizpidera. Aitzpea Azkorbebeitiak ondo baino hobeto aztertua duenez harreman intertestual hori (1998: 94-96), ez gara poemon inguruan gehiegi luzatuko. Esan dezagun soilik Sarrionandiaren “Inor ez da irla” itzulpena eta “Zer egin?” poema John Donneren “No Man is an Iland” poemaren bi euskal bertsio bezala uler litezkeela.

¹⁷² Autore italiar honek Sarrionandiarengan izandako eraginaren erakusgarri da, *Izkiriaturiken* bildutako Pavesearen zazpi poema itzuliez gain, *Hnuy* liburuko “Gure hilak” atala irekitzen duen Pavesearen aipua (Sarrionandia 1995b: 217). Sarrionandiak epigrafe moduan tartekatzen dituen aipuak ere, jatorrizko hizkuntzan utziak nahiz euskarara itzuliak, itzulpena eta sorkuntza korapilatzekeo estrategien artean aipa litezke. Epigrafeek, izan ere, aurkezten duten testu “originalaren” nolabaiteko aurrekari izan diren testuak edo autoreak iradokitzen dituzte, poemak edota ipuinak ezerezetik sortzea ezinezkoa dela oroitzeaz batera. Sarrionandiaren lanetako epigrafeen inguruan, ikusi Azkorbebeitia (1998: 21-27).

Antzeko adibide bat, Azkorbebeitiaren lan xehean aztertuta hau ere (1998: 27-28), Sarrionandiak itzulitako Kavafisen “Ziudadea” poemak eskaintzen digu. *Narrazioakeko* “Gaueko enkontrua” ipuineko lehen atalean, Kavafisek “Ziudadea” poeman deskribatutako hiria iradokitzen da:

[...] *munduan behin leku bat hartzen baduzu, leku hori besterik ez duzu izan-en*, erantzun dio gizon gazteak, Mireni poema greko bat oroiteraziaz; *kondena bat bezala, geure baitan daramagu geure karrika, geure hiria* (Sarrionandia 1983a: 83).¹⁷³

Sarrionandiak bi urte geroago argitaratu zuen poema horren itzulpen osoa, *Izkiriaturiken*. Poema irakurriz gero, erraz antzematen da aurreko pasartearekiko lotura:

[...]
Ez duzu lurralde berririk aurkituko, ez itsaso berririk.
Ziudade honek jarraituko zaitu. Eta kale berberetan
Ibiliko zara. [...]

(Sarrionandia 1995a: 165).

Ezin dugu jakin Sarrionandiak 1985ean argitaratutako itzulpena egina ote zuen *Narrazioak* liburuko “Gaueko enkontrua” idatzi zuenerako, ala argitalpenen hurrenkera berebetean sortu ote zituen bi testuak: lehenik Kavafisen poemaren erreferentzia jasotzen duen ipuina eta gero poemaren itzulpena. Nolanahi ere, sorkuntza eta itzulpena eskuz esku doaz hemen ere. Poemaren itzulpena “Gaueko enkontrua” idatzi baino lehenagokoa izatera, ipuin horretan ageri den pasarte Kavafisen poemaren lerro batzuen itzulpen libre gisa definituko genuke, Sarrionandiak poema horren inguruan egiten duen interpretazio gisa. Kavafisen poema “Gaueko enkontrua” idatzi ondoren itzuli bazuen, berriz, ipuin hori “Ziudadea” poemaren “sorburu-testu” gisa uler liteke, eta, arrazonomendu borgestarra muturreraino eramanez, Kavafisen poema Sarrionandiaren “Gaueko enkontrua” ipuinaren itzulpen libretzat hartu.¹⁷⁴

¹⁷³ Kavafisekiko erreferentzia esplizituki aipatzen du Sarrionandiak liburuaren bukaerako oharretan: “Konstantino Kavafis oroiterazten da lehen atalean” (Sarrionandia 1983a: 133).

¹⁷⁴ Teoriari buruzko kapituluari adierazi dugun bezala, Borgesek oso modu erradikalean jartzen du zalantzan obra “original” baten eta obra horren “itzulpenaren” arteko bereizketa. Testu oro “zirriborro” gisa ulertzen du Borgesek, beste testu askorekiko loturak gordetzen dituzten palimpsesto gisa, eta ez ditu onartzen jatorrizkoaren eta itzulpenaren artean ezartzen di-

Muturreko interpretazio horiek alde batera utzita, laburbil dezagun atal honetan aurkeztutako adibideetan ikusitakoa: Sarrionandiaren itzulpengintza ez da inolaz ere bere zortzi itzulpen-liburuetara mugatzen, ezta aldizkarietan argitaratutako itzulpen solteetara ere. Aitzitik, itzulpena oso presente dago Sarrionandiaren gainerako sorkuntzazko lanetan. Aitzindari izan dituen idazleen testuak itzultzeak aseko ez balu bezala, testu horiek berridazteko beharra sentitzen du askotan, eta bere garai, leku, hizkuntza eta egoeraren arabera birsortzekoa. Badirudi aitzindarien poema asko bere-bereak sentitzen dituela —gogoraz dezagun Sarrionandiaren lehen itzulpen-antologiaren izenburua: *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*—, baina poema horiek berak idatzi beharko balitu ez lituzkeela hala idatziko, hain zuzen ere beste leku, garai eta testuinguru batean bizitzea egokitu zaiolako. Horrexegatik idazten ditu Eliot, Coleridge, Pavese eta abarren testuetan inspiratutako poemak, aitzindari izan dituen idazleak omentzeko eta haiekiko miresmena agertzeko batetik, baina haiei aurka egiteko bestetik.¹⁷⁵

Jatorrizko testuak, itzulpenak eta birsorkuntzak elkarrekin harremanetan jartzean, Sarrionandiak irauli egiten ditu testuen arteko zor-harremanak. Jada ez dago hain garbi zer den zeren itzulpen, ezta itzulpenak (bir)sorkuntza eragin duen ala sorkuntzak itzulpena. Izan ere, ikusi dugu Sarrionandiak bere testuetan txertatu dituen autoreen erreferentzia eta oihartzunek eraman dutela batzuetan autore horien lanak itzultzera, eta beste batzuetan, berriz, testuak euskaratzen lortutako eskarmentuak bultzatu duela itzulitako testu horiek imitatuz testu berriak sortzera.

Imitazioz sortutako poemen artean aipa genitzake, esate baterako, *Gartzelako poemak* liburuan argitara emandako “Haiku II” eta “Haiku IV” poemak, *Izkiriaturikerako* itzuli zituen hiru lerroko haiku labur haien molde berean eginak:

ren hierarkiak (lehenaren aldekoak beti). Itzulpena jatorrizkoaren zordun den bezala, jatorrizkoa ere itzulpenaren zordun izan daitekeela uste du Borgesek, eta baita jatorrizko testu bat bere itzulpenarekiko desleiala izan daitekeela ere. Borgesek jatorrizkoaren desleialtasunari buruz esaten dituenen inguruan, ikusi Waisman (2005: 128-132).

¹⁷⁵ Aitzindari izandako idazleak miresten dituela baina haien poesiak —testuingurua aldatu dela eta— asetzen ez duela erakusteko idatziak dira, halaber, Jean Baptiste Elizanbururi, Gabriel Arestiri eta beste hainbat euskal idazleri erantzunez idatziriko poemak. Ez gara adibide horiek azaltzera geratuko, itzulpenaren eremutik —*stricto sensu*— gehiegi aldenduko ginatke eta. Dena den, Sarrionandiak bere aitzindariari emandako erantzunen inguruan Azkorbebeitiak egindako azterketa interesgarria irakurtzera bultzatzen dugu irakurlea (Azkorbebeitia 1998: 93-94).

HAIKU II

Jainkoak otoi
Ez zaitezte sar gure
Bizimodura

(Sarrionandia 2003: 99)

HAIKU IV

Haizea dator
Gure adatsak nahasi
Eta badoa

(Sarrionandia 2003: 100)

Izkiriaturiken bildu zituen haiku haietako batzuekin alderatuz gero, oso antzeko egitura dutela ikus daiteke. Hona hemen bi adibide:

Maiatzeko euria:
Paperezko orrialdea da
Mundu guzia!

(*Nishiyama Soin*)

(Sarrionandia 1995a: 123)

Ikatza erortzen da
Ikatzairen gainera:
Iluntzea!

(*Oshima Ryota*)

(Sarrionandia 1995a: 125)

Haiku bakoitza zein liburutan argitaratu den jakingo ez bagenu, ezingo genuke esan lau poema labur horietatik zein den itzulia eta zein Sarrionandiak berak sortua, hain dira antzekoak egitura aldetik. Ez dirudi *Gartzelako poemak* emandako bi haikuak poema japoniar jakin batzuen itzulpenak direnik, baina argi dago hainbat haiku irakurri eta itzuli ondoren idatzi dituela Sarrionandiak “benetako” haikuen imitazioz sortutako poema labur hauek. Beraz, beste poema batzuen imitazioak diren aldetik, itzulpenak direla ere esan genezake, sorburu-testu zehatzik ez duten itzulpenak, han eta hemen irakurritako haikuen berridazketa edo birsorkuntzak. Sarrionandiak berak sortutako poemi “haiku” izena emateak ere, gainera, badu bere garrantzia hizkuntzaren aldetik: Sarrionandiak euskaraz sortu dituen arren, irakurleari “haiku” batzuen aurrean dagoela ohartaraztean, poema horiek japoniar hizkuntzarekin eta literaturarekin jartzen ditu harremanetan, eta, hein batean, poema horien sorkuntzan japonierak ere parte hartu duela iradokitzen du. Sorkuntzaren eta itzulpenaren arteko bereizketa ez ezik, hizkuntzen eta literaturaren artekoa ere lausoturik ageri zaigu, beraz, horrelako sorkuntza eta birsorkuntzetan.

Gauza bera esan genezake *Gartzelako poemak* ageri den “Xinar poema”-ri buruz ere (2003: 85). Ez dakigu Sarrionandiak poema txinatar jakin bat ote zuen buruan hiru lerroko poema labur hura idatzi zuenean, ala aldez aurretik irakurritako txinatar poesiak inspiratuta sortu ote zuen. Edozein kasutan, izenburuak txinatar literaturarekin jartzen du harremanetan poema, eta poemaren eraketan modu bateko edo besteko itzulpen-prozesu bat egon dela pentsarazten.

Beste testu batzuen imitazioz idatzitako poemen artean aipatzekoa da, halaber, lehenik *Marinel zaharrak*en eta ondoren *Gartzelako poemak*en argitaratutako “Esklabo erremintaria” (1987: 49), zeina, Sarrionandiak aitortzen duenez, “poeta latinoen imitazioa” baita. Hain zuzen ere, poema osatzen duten irudiek —Erroma, esklaboa, ezpatak, erremintari ofizioa— antzinako erromatarren garaia oroitarazten dute, poema hori latindar poetaren batek idatzia izan litekeela iradokiz. Horrela, euskara eta latina harremanetan jartzen ditu, baita Erroma eta Euskal Herria ere, eta baita, ziurrenik, esklabo erromatarrak eta euskaldun menperatuak ere. Sorkuntzaren, imitazioaren eta itzulpenaren arteko marrak ezabatuta ageri zaizkigu beste behin ere.

Imitazioaren antzeko estrategia “bariazioarena” litzateke, Sarrionandiak bere hainbat poema sortzeko erabilia. *Marinel zaharrakeko* “Zuek lore paper ederreko logelan” poema (1987: 30), esate baterako, “Vladimir Maiakovskiren Vam delako poemaren bariazioa” omen da. Kasu honetan, aurrekoetan ez bezala, Sarrionandiak zehaztu egiten du poema idazteko erabilitako sorburu-testua edo behintzat inspirazio-testua. Azkorbebeitiaren zehaztapenari esker jakin ahal izan dugunez (1998: 109), Maiakovskik errusieraz idatzitako “Vam” poema “Zuei” izenburuaz euskaratua du Koldo Izagirrek (Maiakovski 1993: 57). Izagirreren itzulpena eta Sarrionandiaren “bariazioa” alderatuta, argi ikusten da Maiakovskik errusiar iraultzaileei leporatzen zizkien alferkeria, utzikeria eta bizitza erosoaren aldeko hautua Euskal Herriko testuingurura ekarri nahi izan dituela Sarrionandiak “Zuek lore paper ederreko logelan” poeman. Testu hori beste poema baten bariazioa dela aitortuta, Sarrionandiak itzulpen-joko bat iradokitzen du beste behin ere: sorburu- edo inspirazio-testu batekiko aldaketak handiak izan edo ez, poema ez dela ezerezetik sortu iradokitzen da, gutxienez poema batekiko zordun dela eta haren arrastoak jasotzen dituela.¹⁷⁶

¹⁷⁶ Bariazioen jolasak bide eman dio Sarrionandiari beste hainbat poema sortzeko. Gustuko du poema baten lerro bat hartu eta, hitzak lekuz aldatuz, irudi eta zentzu berriak sortzea. Horixe egin du, esaterako, *Marinel zaharrak* poema-liburuan, bi euskal idazleren testu bana manipulaturik. Federiko Krutwigen “Bihotza” poemako lehen lerroa hartu (“Munduak gezurra diyotsu, bihotza”), eta hitzen hurrenkera aldatuz, esanahi berriak sortzeko esperimentua egin du: “Gezurrak mundua diotsu, bihotza / Munduak bihotza diotsu, gezurra / Gezurrak bihotza diotsu, mundua / Bihotzak mundua diotsu, gezurra / Bihotzak gezurra diotsu, mundua” (Sarrionandia 1988: 68). Beste hainbeste egin du Orixeren “Euskaldunak” poematik hartutako lerro batekin (“Elurra bezain isil badator illuna”): “Isila bezain ilun badator elurra / Elurra bezain ilun badator isila / Isila bezain elur badator iluna / Iluna bezain elur badator isila / Iluna bezain isil badator elurra” (Sarrionandia 1988: 75). Bariazio gehiago ere badira *Marinel zaharrak*en: “Bidaztiak izkiriartzen du” poema, Sarrionandiak berak aitortzen duenez, “beste poema baten bariazioa” da, baina ez du zehazten zein poemarena (Sarrionandia 1988: 114). Baliteke

Ondoko kasua, imitazioaren edo bariazioaren adibide baino gehiago, Sarrionandiaren itzulpen-praktikak bere sorkuntza-prozesuan izandako eraginaren erakusgarri dugu. *Marinel zaharrakeko* “Zuziak eta aizkorak” poema “«O marinheiro» itzultzean” idatzi zuela aitortzen du Sarrionandiak. *Marinela*, Fernando Pessoaen *O marinheiro* antzezlanaren itzulpena, bi urte lehenago argitaratu zuen Sarrionandiak, eta lan hura itzuli eta bereganatzeak eragin zizkion sentimenduak “Zuziak eta aizkorak” izeneko poema honetan bildu zituen. *Marinela* antzezlaneko hiru dontzeilak bezala, Sarrionandia ere “mundutik lekora” dago “gela barru honetan”, eta besterik egin ezin duenez eta “oroimenak gauzak edertzen dituelarik”, denborari iragaten uzten dio, “geroan oroitu ahal izateko” (Sarrionandia 1988: 57). Horixe da *Marinela* drama estatikoko hiru protagonistek egiten dutena: beren buruak bizitza errealeko zorigaitzetatik isolatu, eta iragana oroituz nork bere arima biluztu eta ametsen munduan bizi. Gehitxo litzateke beharbada Sarrionandiaren poema *O marinheiro* dramaren itzulpen libre eta laburtua dela esatea, baina ezin da ukatu antzezlan hartan oinarritutako birsorkuntza denik. Pessoaen antzezlaneko egoerak bere eginez eta bere burua haren lekuan jarritz (“Fernando Pessoa izan naiteke, / pertsona hori Alberto Caeiro zen legez”), Sarrionandiak portugaldar idazlearen drama estatikoaren bere irakurketa proposatzen du, eta, sorburu-testu zehatz batean oinarrituta, poema berri eta original bat sortzen. Hortaz, beste hainbat adibidetan ikusi dugun bezala, hemen ere sorburu-testu berberaren bi interpretazio, bertsio edo birsorkuntza izango genituzke: *Marinela* batetik, jatorrizkoari nahiko hurbiletik jarraitzen dion itzulpena, antzezlan forman emana; eta “Zuziak eta aizkorak” bestetik, lan berberaren berridazketa librea, poema moduan emana.

Sorburu-testu berberak eman ditzakeen fruitu desberdinen adierazle genituzke, era berean, Sarrionandiak *Gartzelako poemak*en bildutako hiru poema, “Itzulpena I”, “Itzulpena II” eta “Itzulpena III” deituak, nahiz eta ustezko itzulpen horien iturri izan den sorburu-testurik ez den inon aipatzen:

ITZULPENA I

Lurraren aldatz behera erreka geldiunerik gabe
 Bazterrean sua eginda xori bihotzak afalduko ditut
 Errauts puska bat izan nahi nuke haizeak hurrin eraman nazan

(Sarrionandia 2003: 86)

Sarrionandiak berak idatzitako poema baten bigarren bertsioa izatea, liburu bereko beste poema batekin egin duen bezala: “Soldado hilaren ama” poeman (Sarrionandia 1988: 110), “bigarren bertsio” baten aurrean gaudela ohartarazten digu. Hain zuzen ere, *Izuen gordelekuetan barrena* poesia-liburuan argitaratu zuen poema honen lehen bertsioa (Sarrionandia 1981: 103).

ITZULPENA II

Lehorrera ailegatu ginen itsasoan nabegatu ondoren
Sua egin genuen gogoak berotzeko
Errautsak bertan behera utzita haizea aldeko joan ginen

(Sarrionandia 2003: 87)

ITZULPENA III

Lurrean etzunda esnatu naiz bart edanarekin
Ura edateak ez dit kendu bihotzerrea
Jo eta haustuta nagoenez gero bentiladorea biztu dut

(Sarrionandia 2003: 88)

Irudi edo elementu berberak errepikatzen dira hiru “itzulpenotan”, baina elementu horien inguruan eraikitako egoerak arras desberdinak dira. Itzulpen bakoitza hiru lerroz osatuta dago, eta lerro bakoitzak elementu batzuen inguruko egoera edo gertaera bat proposatzen du: lehenean uraren eta lur lehorraren inguruko irudiak ageri dira, bigarreanean sua eta bihotzak aipatzen dira, eta hirugarreanean errautsa eta haizea dira iradokitzen den egoeraren osagai nagusiak. Itzulpen bakoitzean, ordea, osagai berberak egoera guztiz desberdinak eraikitzen dituzte. Hirugarren itzulpena da, beharbada, beste biengandik gehien aldentzen dena: lehen eta bigarren itzulpenetan, erreka eta erreka bazterra (lehenengoan) eta itsasoa eta itsasbazterra (bigarreanean) ageri dira lehenik, ondoren zerbait berotzeko helburuz piztutako sua (lehenengoan txori-bihotzak erretzeko eta bigarreanean gogoak berotzeko), eta azkenik suak utzitako errautsak eta inguruko haizea (lehenengoan kontalariaren irudimene-koak eta bigarreanean, berriz, errealitateko egoera jakin batekoak). Bi itzulpenek egoera desberdinak deskribatzen dituzten arren, bietan errepikatzen diren elementuek nolabaiteko antzekotasuna ematen diete. Hirugarren itzulpena, ordea, guztiz urruntzen da lehen bi poemek iradokitzen zituzten naturako paisaietatik: hemen ez dago ez erreka ez itsasorik, ez inork piztu duen surik, ezta errautsik edota haize naturalik ere, mozkorraldi baten biharamunean esnatu den norbaiten gorputz txarra baizik. Eta hala eta guztiz ere, aurreko poemetako elementu berberak erabiliz osatu da poema: ura eta lurra (lurrean etzanda esnatu eta ura udan du), bihotza eta sua (bihotzerrea sentitzen du), hautsa eta haizea (haustuta dago eta haizagailua piztu du haize pixka bat eman diezaion).

Oso jolas interesgarria proposatzen du Sarrionandiak jatorrizkorik gabeko “itzulpen” hauekin. Harrigarria badirudi ere, hiru poema guztiz desberdin sortu ditu elementu berberak eta are hitz berberak erabiliz eta hurrenke-

ra ere errespetatuz. Hain zuzen ere, itzulpenaren sorkuntza-ahalmen harrigarria erakutsi nahi izan du Sarrionandiak ziurrenik existitzen ez den sorburu-testu baten hiru bertsiio desberdin proposatuta. Edozein testuk milaka interpretazio izan ditzakeela gogorazten digu horrela, testu baten zentzua irekia eta mugikorra dela, eta ez dela finkatzen norbaitek bere irakurketa edo itzulpenaren bidez “bere” zentzua ematen dion arte. Sorburu-testua ez eman izana ere zentzu absolutu eta “egiazko” baten absentsia azpimarrazteko modua izan liteke: ez dago “benetako” zentzurik, interpretazio pertsonalak baizik. Era berean, ez dago jatorrizkorik, testu oro baita beste testuren baten itzulpen; dena da kopia, edo, beste modu batera esanda, dena da original.

Horixe bera frogatu nahi izan du Sarrionandiak *Marginalia* liburuko “Epigrama zahar baten bertsiok” atalean (Sarrionandia 1989: 90-91): Jon Mirandek *Igela* aldizkarian idatzitako epigrama bat Voltairek XVIII. mendean idatzitako epigrama baten bertsiio moldatua dela erakusten du, eta Voltairerena, era berean, *Antologia Palatinan* ageri den K. a. V. mendeko Demodokus greziarraren epigrama baten moldaketa. Idazle bakoitzak pertsona edo pertsonaia desberdin bat satirizatzeko erabiltzen du epigrama bera: Jon Miranderen epigraman Uztaritzeko apaiz bat da irrigarri gelditzen dena, Voltairerenean Jean Fréron izeneko filosofo bat, eta Demodokusenean, azkenik, kapadoziar bat. Itzultzaile edo birsortzaile bakoitzak, beraz, nahi zuen egoera deskribatzeko erabili eta berridatzi zuen aurreko poeta batek idatzitako testua, itzulpenak eskaintzen duen ahalmen sortzaileaz baliatuta.

Antzeko zerbait iradokitzen du Sarrionandiak *Marginaliako* “Itzulpen alaketak” atal laburrean:

Safo Lesbosekoak esan zuen:

«Zurbil, belarra bezala...»

Itzultzaile batek, berriz, izkiriatu zuen:

«Zurbil, arnasarik gabe...»

Beste itzultzaile batek:

«Zurbil, belar zimeldua bezala...»

(Sarrionandia 1989: 92)

Itzulpenaren ahalmen sortzaile horrek Sarrionandiarengan piztu duen interesaren erakusgarri dugu, halaber, liburu bereko “Itzulpen okerra” atala, non itzulpen-“akatsek” irudi berri eta politak sorraraz ditzaketela kontatzen zaigun:

San Mateoren ebanjelioko pasarte ezagun batetan esaten da aisago sartuko dela gamelu bat jostorrazaren begitik aberats bat zeruetako erresumara baino.

Imajina harrigarria. Eruditoek frogatu dutenez, itzulpen ekibokatu batetatik sortua: «soka» omen zen orijinalan, hari lodiegi bat halegia, itzultzaile grekoak «gamelu» interpretatu bide zuen lekuan.

Hara zelan oker batek imajina on bat eman dezakeen (Sarrionandia 1989: 91).

Hain zuzen ere, horrelako “oker” edo “akatsei” esker eraldatzen eta birsortzen dira testuak. Aitzindariari “oker” erantzunez baizik ezin daitezke testu berri eta originalak sortu (gogoraz dezagun Harold Bloomek *missread* harekin proposatzen zuena: idazleak edo itzultzaileak aitzindarien lanak “gaizki ulertuz” edo “gaizki interpretatuz” soilik egin diezaieke lekua irudi berriei); “itzulpen txarrei” esker jartzen da agerian itzulpenaren ahalmen sortzailea eta literaturaren garapen-ahalmena (Borgesek, esaterako, *malas traducciones* edo itzulpen txarrak defendatzen zituen; haren *teoría del maltraducir* delakoaren arabera, ezinbestekoa da jatorrizko testua “gaizki itzultzea” obra berri eta berritzaile bat sortu nahi bada).

Sarrionandiak argi erakutsi du —aurkeztu ditugun adibideen bidez, besteak beste—, badakiela bere aitzindariari “oker” erantzuten eta haien testuak “gaizki itzultzen”. Itzulpen gisa aurkezten dituen testu gehienetan jatorrizko-tzat erabili duen testuari hurbil samarretik jarraitzen badio ere, “sorkuntzazko” poema eta ipuinetan egindako birsortze edo berridazketei esker guztiz desbideratzen da jatorrizko testutik, irudi berriak eraikiz eta testu berri eta berritzaileak sortuz. Jatorrizko finko eta aldaezinaren ideia hankaz gora jartzen du, beraz, atal honetan aurkeztutako “itzulpen txarren” bidez, eta agerian jartzen testu oro beste hainbat testuren itzulpen edo birsortze bat dela, aldi berean beste hamaika testu birsortzeko bidea irekiko duen “testu originala” izanik.

Intertextualitate- eta birsorkuntza-jolas hauekin, beraz, Sarrionandiak irauli egin ditu itzulpenaren epistemologia modernoko hainbat ideia. Lehenik eta behin, lan “original” bat idaztearen eta beste autore baten testu bat itzultzearen arteko bereizketa ez dela hain garbia erakutsi digu: Elioten erantzun gisa idatzitako “Apirilari gorazarrea” poemak, adibidez, zenbat du itzulpenetik eta zenbat sorkuntzatik? Eta “Zuek lore paper ederreko logelan” poema ez ote da, azken batean, Maiakovskiren “Zuei” poemaren itzulpen moldatua? Bestalde, gutxi jarriko du zalantzan “Itzulpena I”, “Itzulpena II” eta “Itzulpena III” deituriko poemak, itzulpen moduan aurkeztuak izan arren, Sarrionandiak berak sortutako testuak direla. *Gartzelako poemak* liburuan ageri diren haikuak ere ezingo

genituzke “itzulpena ala sorkuntza” bereizketaren arabera definitu; izan ere, haikuak, definizioz, japoniar literaturako poemak dira, japonieraz idatziak; hortaz, nola definitu Sarrionandiaren euskarazko haikuak? Sorkuntza original huts ote dira? Ala imitazio? Bariazio? Berridazketa? Itzulpen? Sarrionandiaren jolas birsortzaileek agerian jartzen dute itzulpenaren teoria postmodernoez azpimarratzen duten ideia nagusia: edozein testu, izan “originala” nahiz “itzulpena”, beste testu eta tradizio batzuekiko harremanetatik sortzen da, eta, zentzu horretan, ez da inoiz guztiz “originala”; aldi berean, ordea, idazle / itzultzaile bakoitzak bere modu pertsonalean (ber)antolatzen ditu harreman horiek, eta, horri esker, “bere-berea” den obra berri eta bakar bat idazten du. Ideia horrekin lotuta, itzultzailearen ikusezintasuna ere —itzulpen on baten ezinbesteko baldintza, itzulpenaren teoria modernoan arabera—, auzitan jartzen da Sarrionandiaren berridazketa eta birsorkuntzetan. Jatorrizko testuak “ahalik eta gutxien aldatuz” itzultzea hobesten zuen printzipio modernoaren aurka, Sarrionandiaren testuetan itzultzaile / birsortzaile / berridazlearen esku-hartzea azpimarratzen da; fideltasun erabatekoa lortzekoa ezinezkoa eta, beraz, alferrikakoa denez, itzultzailearen manipulazioa onartu eta are indartu egiten da. Itzulpenaren epistemologia modernoko beste hainbat hierarkizazio ere hankaz gora uzten dituzte Sarrionandiarenak bezalako berridazketek: itzulpenaren epistemologia modernoan jatorrizkoa beti itzulpenaren aurreko bezala definitzen bazen —bai kronologikoki, baita hierarkikoki ere—, harreman horiek alderantzizkoak ere izan litezkeela erakusten dute Sarrionandiaren berridazketek, itzulpenaren teoria postmodernoez aldarrikatzen duten bezala: Sarrionandiaren itzulpen batzuek —Elioten *Lur Eremuak* (1983), esate baterako— berak lehenago sortutako testuen oihartzunak gordetzen dituzte —kasu honetan, “Apirilari gorazarrea” poemarenak (1981)—; horrelakoetan, beraz, zer da zeren itzulpen? Esan ote liteke *Lur Eremuaren* hasierako “Apirila da hilarik krudelena” Sarrionandiak aurretik argitaratutako “Apirilari gorazarrea” poeman agertzen den “Apirila ez da ilarik atseginena, / baina krudelena ere ez” baieztapenaren itzulpena dela? Kasu horretan, jatorrizkoa Sarrionandiaren poema genuke, eta, itzulpena, berriz, Elioten *Lur Eremua*. Harremanen alderantzizkatze horrek, azken batean, sorkuntzaren eta itzulpenaren arteko eraginak bi noranzkokoak direla erakusten du, eta modu ludiko batez deseraikitzen ditu itzulpenaren teoria modernoez ezartzen zituzten hierarkizazioak.

Sarrionandiaren lanetan hain nabarmena den testuartekotasuna eta itzulpenetan erabili ohi dituen bestelako estrategia ludiko eta birsortzaileak aztertu ondoren, beraz, iurretan idazlearen itzulpen-praktika laburbiltzeko eta itzulpenaren epistemologia postmodernoarekin bateragarria ote den zehazteko ordua iritsi zaigu. Horretan ahaleginduko gara datozen orrialdeetan.

3.3. SARRIONANDIA, ITZULTZAILE POSTMODERNOA?

Sarrionandiaren itzulpen-praktika aztertu ondoren, hasierako galderara itzuli behar dugu berriro: itzultzaile postmodernotzat har dezakegu Joseba Sarrionandia? Orain arte ikusitakoak baiezko erantzunerantz lerratzen bagaitu ere, euskal literaturaren alorrean nagusitu den postmodernismoarekiko mesfidantzak gure erantzunean kontu handiz jokatzera behartzen gaitu.

Arazoa, gure ustez, postmodernismoa eta postmodernitatea definitzeko moduan datza. Postmodernitatearen eta euskal literaturaren arteko harremanez gehien idatzi duten Jon Kortazarren eta Iñaki Aldekoaren definizioak kontuan hartuz gero, nekez sartuko genuke Joseba Sarrionandia idazle edo itzultzaile postmodernoen artean. Izan ere, Kortazarrek eta Aldekoak utopien galeria eta axolagabetasuna jotzen dituzte postmodernismoaren ezaugarri nagusitzat. Jon Kortazarrek, esate baterako, Peter Zima irakaslearen definizioari jarraituz,¹⁷⁷ honela laburbiltzen du postmodernitatearen muina: “indiferentzian eta utopien galeraren oharren kritikoan dago postmodernitatearen kontzeptuaren gune nagusia” (Kortazar 2007a: 20). Iñaki Aldekoak, bere aldetik, “ahultasun, bigunkeria, arintasun, erraztasun, kontsumo eta, hitz batean esateko, MERKATUAren sarearekin” lotzen du postmodernitatearen ikuspegia (Aldekoa 2006: 152-153). Bi autore horien esanetan, modernitatean mugimendu sozial, politiko eta artistikoek ideologia batzuk kritikatzeko zituzten, ondoren beste ideologia batzuk proposatzeko; iraultza eta asmo utopikoak helburu, gustuko ez zituzten ideologiek defendatzen zuten egia dese-raiki eta beren arrazoia eta egia aldarrikatzen zituzten. Postmodernitatean, ordea, uko egiten zaio benetako balio unibertsalak bilatzeari, eta erlatibismoa eta indiferentzia nagusitzen dira. Inork ez du egiaren edota arrazoiaren jabetza aldarrikatzen, eta balio guztiak trukagarriak direla onartzen da. Definizio horri jarraituz, hala Kortazarrek nola Aldekoak diote postmodernitateak, Euskal Herrian sartzeko, zailtasun batekin topo egiten duela: gatazka politikoarekin. Aldekoak dioenez, European postmodernitatea sortu zen garaian, 1970eko eta 1980eko hamarkadetan, Euskal Herrian bizi-bizirik zirauten oraindik modernitatearen ohiko ideario eta praktikek:

¹⁷⁷ Postmodernitatea literaturan osagai nagusi hauekin definitzen du Kortazarrek, Peter Zima aipatuz: pluralismo estilistiko eta politiko, konstruktibismoa, testuartekotasuna eta polifonia, anakronismoa, narratzailearen agnostizismoa, generoen arteko mugen galera, ziorik gabeko idazkera, alienazioa eta bestetasuna, indiferentzia eta trukagarritasuna, irakurlearen aurkikuntza eta izadiaren aurkezpen ekologikoa (Kortazar 2007a: 14-20).

[...] iraultza proletarioa, deskonolizazioaren garaitik mamitutako borroka nazionalak eta abar, guztiak ere modernitatearen idearioan nagusi izan diren eskabideetan ondo errotuak: utopia, askatasuna (soziala, nazionala) (Aldekoa 2006: 142-143).

Kortazarrek, bide beretik, postmodernitateari Euskal Herrian sartzea oztopatzen dion tenka moduko bat aipatzen du:

[...] alde batetik demokrazian eta kontsumo gizartean oinarrituriko postmodernitate bat, kontsumo gizarte horrekin gustura; eta bestetik, egoera politikoa gaizto bat, demokraziaren kontrako mugimenduekin edo demokrazia liberalaren aurkakoeekin behintzat, Euskal Herriko gatazkari irtenbide totalitario bat eman nahirik (Kortazar 2007a: 24).

Gauzak horrela, ez da harritzekoa bi autore horiek Joseba Sarrionandia idazle modernotzat jotzea postmodernotzat baino gehiago. Izan ere, Sarrionandiaren idazkeran ageri diren zenbait ezaugarri literario postmodernismoaren barruan kokatu izan dituzten arren,¹⁷⁸ beste zenbait ezaugarritan nabari diren modernitateko abangoardien eraginak batetik,¹⁷⁹ eta idazle bizkaitarrak ideologia eta balio jakin batzuei ematen dien garrantziak eta helburutzat dituen asmo utopikoek bestetik, postmodernismoaren korrontetik urruntzen dutela adierazi izan dute:

Baina nire ustez kontzeptuaren [postmodernitatearen] giltza azpimarratu beharko litzateke: utopiaren kritika. Eta gero, ezaugarri literarioak. Eta gertatzen dena zera da: *Pott Bandan* ezaugarri horiek agertzen dira, baina ez da agertzen

¹⁷⁸ “Urrunetik ikusita Pott bandak modernitatearen eta postmodernitatearen arteko eztabaida ekarri zuela baieztatu dezakegu” (Kortazar 2003: 56). Sarrionandiaren lanetan ageri diren ezaugarri literario postmodernoen inguruan, ikusi Kortazar 2005, Kortazar 2007a eta Serrano 2008.

¹⁷⁹ Sarrionandiaren idazlanetan maiz aurki daitezkeen modernitateko abangoardien oihartzunek (espresionismoa, futurismoa, surrealismoa, dadaismoa...) ez dute Sarrionandia idazle postmodernotzat definitzea galarazten. Izan ere, Jon Kortazarrek Peter Zima aipatuz gogorarazten duen bezala, “postmodernitatearen ezaugarri estilistiko asko modernitateatik datoz [...], baina postmodernitatean askoz gogorrago bihurtzen dir[a]” (Kortazar 2007a: 59-60). Gainera, Joseba Gabilondok ondo gogorarazi zuen bezala, ezaugarri moderno eta postmodernoak batera agertzea gertakizun ohikoa da Euskal Herriko bezalako kultura ez-hegemonikoetan: “[...] kultur ez-hegemonikoek, postmodernitatean sartzen direnean, modernitatearen ezaugarri gehienak bereganatzen dituzte. Alegia [...], argudiatuko nuke kultura ez-hegemonikoak postmodernitatean bihurtzen direla moderno. [...] Hala balitz, kultur ez-hegemonikoetan modernitatearen eta postmodernitatearen kronologia jarraikiak ez du zentzurik” (Gabilondo 2006: 146).

ideia nagusi hori, utopiari egindako kritika alegia, indiferentzia nagusia balioen aurrean. Hau da, balioak nolabait trukatzea, balioak serio ez agertzea. Argi dago *Pott Bandaren* barruan batzuek balio jakin batzuen alde egin dutela (Kortazar 2007b).

Espresuki aipatzen ez duen arren, nahiko garbi dago multzo horretan sartzen duela Sarrionandia. Izan ere, egia da sorkuntzaren bidez zapalketa egoerei aurre egiteko modernitateko abangoardiek zuten gaitasuna miretsi izan duela Sarrionandiak, eta ez diola inoiz helburu utopiko batzuen alde borrokatzeari utzi. Idazleak berak, *Marginalia* liburuan postmodernismoari eskaintzen dion atal mamitsu batean, postmodernismoak ekar ditzakeen axolagabekeriaren eta pasibotasunaren arriskuez ohartarazten du. Zentzu horretan, Sarrionandiak postmodernismoaz egiten duen interpretazioa ez dago Aldekoaren eta Kortazarren definizioetatik oso urruti:

Azken urteotan, berriz, deskalifikatu egiten da pentsamendu modernoetatik bakoitza, abangoardia artistikoei zentzua kentzen zaie. Gizarte ideal eta utopikoaren ordez espazio huts bat fundatzen da eta, errekonbertsio teoriko eta estetikoaren medio, espazio huts hori testu eta diskurso desberdin eta aldakorrez betetzen da. Errekonbertsio guzi horren ondorioa da postmodernismoa deritzana (Sarrionandia 1989: 137).

Postmodernismoa zehatz definitzea ezinezkoa dela oroitarazten duen arren, deskribapen orokor bat egiten saiatzen da, oro har nahiko ezkorra geratzen dena. Botereak kulturaren gainean duen kontrol gero eta handiagoarekin lotzen du postmodernismoa, gogoraziz kapitalak gero eta gehiago parte hartzen duela kulturaren produkzioan, eta kulturaren merkatua monopolioen eta transnazionalen esku geratzen ari dela. Masa-komunikabideen bidez masa-kultura sendotzen da, eta “eritzi publikoa eta kontsentsoa moldatu eta burgesiaren interes eta balioak unibertsalizatzen dira”. *Selecciones del Reader's Digest* aldizkaria aipatzen du masa-kultura elikatzen duten komunikabideen adibide gisa, postmodernismoaren ezaugarri ezkor guztien ordezkari:

Masa kultura erresumitua, non eta gai guziak agertzen diren, guziz banalizaturik, kontentitu politikorik gabe itxuraz, gai garrantzitsuenak anekdotikoenekin nahasirik, gaiaren interes masiboaren kriterio finko batzuekin, emozio ahanzkorez beterik. Aldizkariak ez dio irakurleari zalantzarik sorteraziko, ez prolematikarik, ez gogoeta luzeagoetarako beharrik. Irakurleak informazio hori kontsumitzen du, astia emateko kontsumi lezakeen beste edozer gauza legez (Sarrionandia 1989: 141).

Horrela, “kulturaren distribuzio medioen jabegoa eta kontrola eutsiaz” (Sarrionandia 1989: 141), burgesiak bere nagusigoa mantendu eta are indartzen du. Ondorioz, “bizitza publikoa espektakulo handi bat” bihurtzen da (Sarrionandia 1989: 142), eta balio sozialak, “elkartasunarena esate baterako, bigarren mailara baztertzen dira balio indibidualistei lekua uzteko” (Sarrionandia 1989: 143). Honela jarraitzen du Sarrionandiak:

Gizarterako produkzio eta kreazioa baino gehiago zaintzen da atarramendu pertsonala. Ez da planteatzen sistemaren transformazioa, gizarte mekanismo hobe batzuren bilaketa, jende guti dago honezkero horretan sakrifkatzeko prest, kalterik tipienaren ideia onartu eta bakoitza errealitate eman honetatik ahalbait eta probetxu gehien lortzen ahalegintzen da. Harrapariaren balioak nagusitu dira. Klase sozial zapalduen integrazioa deseginik, justizian eta elkartasunean fundaturiko gizarte proiektua desmantelaturik, sistemaren estabilitateak ez du arerio handirik. Gizarte hobeak ezinezkoak edo proiektu utopikoak kaltegarriak direla eta, duguna, bizi dugun egoera erreala, posible denik eta hoberenetakoa delako ideia ezartzen da. Orduan zeregin trazendenteagoen faltan, jendeak kontsumismora, dibertsiora eta aktibitate espezifikoa eta asmo laburretara dedikatu besterik ez du (Sarrionandia 1989: 143).

Literaturaren arloan, berriz, postmodernismoak modernitateko abangoardien ahalmen sortzailea suntsitu izana deitoratzen du Sarrionandiak:

Postmodernismo literarioko hitz funtsezkoenetako bat *patch work* delakoa da. Pastitxea imitazio neutroa da. Pastitxea ez da parodia, ezaguna da Viktor Shlovski batek esate baterako parodiari literaturaren bilakaeran ematen zion papera. Pastitxeak, berriz, ez du parodiaren asmoa eta indarra. Parodia deformazio kreatiboa bada, pastitxea imitazio hila da, ilusiorik gabea. Pastitxea berkreazio ahalgea, glosa hutsala da (Sarrionandia 1989: 144).

Luze dihardu Sarrionandiak postmodernismoaren alderdi negatiboen inguruan, eta gogor kritikatzten du pentsaera horrek eragiten omen duen “eszep-tizismo ironikoa”. Ondoko pasarteak nahiko ongi laburbiltzen ditu modernismoaren eta postmodernismoaren inguruan ematen dituen definizioak:

Modernismoak arrazoiaren sinesten zuen, postmodernismoari ez zaio hainbeste axola. Postmodernismoa idealista da. Baina, aldiberean, estatuaren arrazionalitateari ematen dio amore. Postmodernismoak logika eta arrazoia abandonatzeko joera du, maiteago du esate baterako sedukzioaren ideia. Baina itxurazko abandonoa da, sistemaren logika eta arrazionalitatea interiorizatzen dituelako, ia inkontzienteki, mekanismo halabeharrezkotzat hartuaz. Gogo kritikoa falta du. Kontra-

-arrazoi bat fundatzeko ahalge denez gero, finean diskurtso ofiziala onartzen du (Sarrionandia 1989: 148).

Postmodernismoaren interpretazio hori, Kortazarrek eta Aldekoak proposatutako definizioetatik gehiegi urruntzen ez dena, ez dator bat guk lan honen hasieran eman dugunarekin.¹⁸⁰ Deskribatu ditugun itzulpenaren teoria postmodernoek gutxi dute pasibotasunetik eta axolagabekeriatik. Aitzitik, teoria gehienek itzultzailearen rol aktiboa aldarrikatzen dutela ikusi dugu, eta edozein itzulpenek literatura den sare erraldoi horren biziraupen eta eraldaketan duen erantzukizuna azpimarratu dugu. Zentzu horretan, lan honetako postmodernismoaren definizioa gertuago dago Gorka Mercero proposatu duen definiziotik. Artikulu interesgarri batean, izenburuan bertan laburbiltzen du Mercero defendatu nahi duen ideia nagusia: “Postmodernitatea ez da axolagabekeria, ezta azalckeria ere” (Mercero 2008). Jon Kortazarren eta Iñaki Aldekoaren tesiei aurka eginez, gaitzetsi egiten du “postmodernitatea *denak balio du* lelo entzutetsu bezain malapartatuarekin parekatzean” datzan definizioa. Merceroen iritziz, postmodernitateak “erantzukizuna eta sakontasuna ulertzeko beste modu batzuk proposatu ditu” (Mercero 2008: 276). Postmodernitatea alderdi ontologikotik, etikotik eta politikotik deskribatu ondoren, Kortazarren eta Aldekoaren tesiak gezurtatzen ditu. Hauxe dio Kortazarren argudioaren kontra:

Kortazarrek dikotomia nagusi baten arabera ulertzen du modernitatea eta postmodernitatearen arteko aldea: *utopia vs. axolagabekeria* [...]. Egia da postmodernitateak utopiak ukatu dituela. Ukapen horrek, halere, oinarri ontologiko, kognitibo eta etiko sendoak ditu. Ez da egia, Kortazarrek proposatu bezala, utopien alternatiba bakarra axolagabekeria denik. [...] Kortazarren planteamenduan nazio-askapenaren alde dihardutenak dira utopiari eusten diotenak. Horiek, noski, ezin dira axolagabetzat hartu. Nazio-askapena bigarren mailan utzi dutenak, ordea, axolagabekeriatan dabilta. Baina, hasteko, azken hauetako askok ez diote, berez, nazio-askapenari guztizko ukoa egin, beste balio batzuen atzetik ezarri baiduzk, giza bizitzari zor zaion errespetuaren atzetik, kasu. Nazionalista ‘moderatu’ hauen jarreraren oinarrian hatsarre modernoak daude, ez zaie dena berdin, ezin dira postmodernotzat hartu (Mercero 2008: 285-286).

Gauza bera esango genuke Sarrionandiak ematen duen postmodernismoaren definizioaz, hots, berak definitzen duen postmodernismoa, “sistema-

¹⁸⁰ Gainera, hasieran argi utzi nahi izan dugun bezala, postmodernismoak agerpen desberdinak izan ditu gizarteko eta kulturako arlo bakoitzean. Guk eman dugun definizioa itzulpen-gintzaren alorrari dagokio.

ren logika eta arrazionalitatea interiorizatzen” dituen, itxuraz baizik ez dela postmodernoa, hatsarre modernoan gainean eraikita dagoelako.¹⁸¹ Lan honetan definitu dugun postmodernismoa lotuago dago, esan bezala, Gorka Merceroen interpretazioarekin. Postmoderno izatea, Merceroen iritziz, nazio-askapenaren edo beste edozein balio edo utopiaren garrantzia zalantzan jartzea litzateke, guztiz ukatu gabe edota haren aldeko defentsa itsua egin gabe; erlatibismo nihilista suntsitzaile batean erori gabe, balio guztien zilegitasuna zalantzan jarri eta zalantza horretatik abiatuta egoera hobe (utopiko) batera eraman lezakeen bidea hautatzea.¹⁸² Eta horixe da, hain zuzen ere, Sarrionandiak egiten duena. Utopian sinesteari utzi gabe eta bere balio eta printzipioei uko egin gabe, zalantzan jartzen du balio horien unibertsaltasuna, eta gizabanako eta talde bakoitzari zor zaiona emango dion gizarte justuago baten aldeko erantzukizuna hartzen du.

Erantzukizun hori Sarrionandiaren itzulpen-praktikan nola gauzatzen den ikusi dugu aurreko atalean. Erabili izan dituen itzulpen-estrategiek erakutsi diguten bezala, literatura-harreman justuago batzuen alde dihardu etengabe, esate baterako literatura txikietako poemak euskaratzen dituenen eta lite-

¹⁸¹ Joseba Gabilondok kritika zorrotz bezain interesgarria egiten die, zentzu horretan, beren burua postmoderno edo postnazionalizat jo arren neonazionalismoaren edo itxurazko postmodernismoaren maskarapean ezkututzen diren autoreei. Autore horiek gogor gaitzesten dute nazionalismoa —bereziki nazionalismo azpietatalak—, eta Habermasen «patriotismo konstituzionalean» oinarrituz, estatu demokrata ez-nazionalista defendatzen dute. Gabilondok erakusten duen moduan, ordea, autore horiek defendatzen duten estatua ez da ez-nazionalista, neonazionalista baizik: “Patriotismo hori ez da neonazionalismo europarra baizik: hain zuzen, unibertsaltasun demokratikoaren mozorro ideologikoaren azpian bere izaera nazionalista ukatzen duena, demokrazia erabat arrazionala dela defendatuz. Patriotismo konstituzionalak bere burua are nazionalistagoa bihurtzen du (neonazionalista), hain zuzen bere izaera ideologikoa ezkutatzen duelako eta, beraz, bere irrazionaltasun eta historikotasun politikoa ukatzen dituelako unibertsaltasun berri baten mozorropean” (Gabilondo 2006: 20-21). Gabilondok proposatzen dituen postnazionalismoa (Gabilondo 2006: 22) eta postmodernismoa (Gabilondo 2006: 93-95) hobeto egokitzen dira tesi honetan defendatzen ari garen postmodernismoarekin eta Mercero emandako definizioarekin.

¹⁸² Interesgarria da, esate baterako, Mercero justiziari buruz dioena. Postmodernismoak ekimen politiko oro indargabetzen duela diotenen kritiken aurka, Mercero gogorarazten du postmodernismoari lagaezina zaiola justiziaren ideia: “Justizia, postmodernismoarentzat ere, izate edo entitateei zor zaiona ematean datza. Kontua da ikuspegi postmodernistaren arabera ez dagoela zor den *hori* argi eta garbi zehaztu edo determinatzerik. Baina horrek ez gaitu justiziarikiko erantzukizunetik salbuesten. Justizia bilatu behar dugu, justuak izan garena inoiz ere aldarrikatu ezingo dugularik. [...]. Beraz, postmodernismoak axolagabekeriara ez bultzatzeaz gain, are erantzukizun zorrotzago batekin konprometitzeko beharrean uzten gaitu” (Mercero 2008: 283-284).

ratura txiki horien inguruko informazioa eskaintzen duenean. Era berean, ordea, zalantzan jartzen du itzulpenaren eta sorkuntzaren arteko muga, eta agerian uzten teoria modernoek aldarrikatzen zuten jatorrizkoarekiko fidelotasuna errespetatzearen ezinezkotasuna. Horrela, Sarrionandiaren itzulpen-estrategiak bat datoz 1.3.2.1. atalean aurkeztu ditugun itzulpenaren epistemologia postmodernoaren sei puntuekin.

Lehenik eta behin, Sarrionandiak egindako itzulpen ugariak eta itzulpena baliatuz asmatutako jolas literarioek argi adierazten dute iurretara idazleak **lehen mailako jarduera** gisa ulertzen duela itzulpena, eta ez, itzulpenaren epistemologia modernoak bezala, sorkuntzazko idazketa-prozesuaren ondoan bigarren mailako estatusa duen erreproduktzio-jarduera gisa. Ikusi dugu Pott bandak eta Sarrionandiak nola aldarrikatu zuten itzulpenaren beharra, euskal literaturak 1970eko hamarkadan sufritzen zuen agortasunari aurre egiteko: beren aurreko euskal idazleek itzulpenaren arriskuei zioten beldurra literaturaren ikuspegi moderno baten ondorio zela erakutsi zuten, eta, edozein literaturara tradizio desberdinen arteko harremanen ondorioz garatzen dela gogoraraiz, literatura eta itzulpengintza ulertzeko modu postmoderno bat proposatu zuten, sorkuntza originala eta itzulpengintza maila berean jartzen zituena eta testuak, hizkuntzak eta literaturak etengabe aldatzen eta birmoldatzen diren entitate gisa definitzen zituena. Itzulpen-*jarduerak* edozein literaturatan betezen duen lehen mailako funtzioa azpimarratzeaz gain, Pott bandak eta Sarrionandiak itzulpenak *produktu* literario gisa duen garrantzia ere nabarmendu zuten. Ikusi dugu Sarrionandiaren liburuen laurden bat inguru itzulpenek osatzen dutela, eta sorkuntzazko lanetan ere oso nabarmena dela itzulpenaren presentzia. Izan ere, Sarrionandiak sorkuntza eta itzulpena nahasiz eraikitako jolas literarioen helburuetako bat, hain zuzen, lan itzuliak lan originalen maila berean jartzean datza, eta, bide batez, bi jarduera horien arteko bereizketa erabatekorik ez dagoela gogoraraztea. Horixe egiten du, esate baterako, itzulpen apokrifikoak —berak sortutako testu “originalak”, alegia— “benetako” itzulpenen artean tartekatzean, edota, alderantziz, sorkuntzazko lan originalak beste autore batzuen aipuen itzulpenez hornitzean eta beste idazle batzuen testuetan oinarritutako imitazio, bariazio edo berridazketak egitean.

Itzulpen-estrategia horiei esker, beraz, Sarrionandiak agerian jartzen du itzulpenaren epistemologia postmodernoaren bigarren puntuan aipatu dugun **itzulpenaren funtzio sortzailea**. Gabriel Arestiren Dekameroneari buruzko artikulu hartan Walter Benjaminen ideiak aipatuz gogorarazi zigun bezala, itzulpena ez da komunikazio hutsa, hizkuntza-aniztasunaren “gaitza” arintzeko tresna edo instrumentu hutsa, itzulpenaren epistemologia modernoak de-

finitu izan duen bezala; aitzitik, hizkuntzak elkarrengana hurbildu eta xede-hizkuntzaren eta xede-literaturaren aukerak zabaltzeko balio duen genero literarioa da itzulpena, Sarrionandiaren arabera. Sorburu-testuak beren jatorrizko testuingurutik atera, moztu, nahierara moldatu eta berak hautatutako beste testu eta itzulpen batzuen ondoan jartzean, itzulpenaren ahalmen sortzaileaz baliatzen da Sarrionandia jakintza eta errealitate berriak sortzeko. Izan ere, itzulpenaren epistemologia postmodernoan, jakintza ez da jatorrizko testuan gordeta dagoen eduki aldaezintzat jotzen, itzulpenaren bidez gauzatzen eta birmoldatzen den asmo zehaztugabetzat baizik. Itzulpenetan gertaturiko “galerak” deitoratu beharrean, Sarrionandiak testuen berridazketak ahalbidetzen dituen berrikuntza eta irabaziei emango die garrantzia, itzulpen-“oke-erek” sor ditzaketen irudi ederrak goraiatzearaino.

Itzulpenaren ahalmen sortzailea estu-estuki dago lotuta itzulpenaren epistemologia postmodernoan azertu dugun hirugarren puntuarekin: **itzulpena transformazio, berridazketa edo errebisio gisa** ulertzen duen ikuspegiarekin, alegia. Teoria modernoek bi hizkuntzaren arteko “translazio” bezala definitzen zuten itzulpena, jatorrizko testuaren funtsa dekodetu, beste hizkuntza batera pasatu eta hizkuntza horretan birkodetzean zetzana. Teoria postmodernoek, aldiz, agerian jarri dituzte definizio mugatu horrek sortzen dituen kontraesanak, eta definizio hori zabaltzearen beharraz jardun dute. Itzulpena transformazio gisa definitu dute batzuek, berridazketa gisa beste batzuek, metonimia gisa ere bai... Sarrionandiak ere eskaini dizkigu itzulpenaren definizioaren inguruko hainbat gogoeta, eta birsorkuntza, errebisio nahiz errefrakzio gisa definitu ditu bai itzulpena, baita sorkuntza originala ere. Hausnarketa horiek, gainera, isla argia dute Sarrionandiaren lanetan: beste autore batzuen testuetan oinarritutako bariazio, imitazio eta berridazketak, esaterako, itzulpenaren eta sorkuntzaren arteko hirugarren espazio batean leudeke: guztiz originalak izan gabe (beste testu batean baitute jatorria), ez dira itzulpenaren definizio hertsiaeren arabera sailkatzekoak ere (itzultzailearen esku-hartzea hainbestearainokoa da, non obra berritza jo behar baitira). Jolas moduan idatzitako birsorkuntza horiek, azken batean, edozein testu berridazketa moduan definitzen duen itzulpenaren epistemologia postmodernoaren erakusgarri gertatuzke.

Testu eta itzulpen oro berridazketa moduan ulertzen bada, testu bakoitzean zentzu berri bat iradokitzen dela onartu behar da ezinbestean. Horixe erakutsi dute itzulpenaren teoria postmodernoek, baita Sarrionandiak ere. Izan ere, itzulpenaren epistemologia postmodernoan, testu baten zentzua ez da finkoa, aldaezina eta transzendentala, itzultzaileak metodologia egokia era-

biliz dezifratu eta “bere horretan” itzuli behar duena; aitzitik, testu bakoitzak **zentzu ireki, aldakor eta plurala** du, irakurketa, interpretazio, itzulpen eta berridazketa bakoitzean irakurlearen edo itzultzailearen imajinazioaren arabera birmoldatu eta osatzen dena: “Edozein errealismok azal dezakeen baino zabal eta nahastuagoa da errealitatea, eta imajinazioak ematen dio zentzua” (Sarrionandia 2011a: 34). Hori frogatu nahirik uzten du Sarrionandiak bere obra zabalik, “beste edonork hertsu dezan, beste inork usa eta osa dezan” (2006 [1985]: 18). Itzulpenak, irakurketa horren arabera, irekirik utzitako obra horiek usatzeko eta osatzeko egindako ahaleginak lirareke, obrei “Überleben”, “afterlife” edo bizitza berri bat emateko xedez eginak. Horrexegatik ez du Sarrionandiak inoiz jatorrizko obraren zentzuarekiko fideltasuna aipatzen, zentzu hori irekia izatean, itzultzaile bakoitzaren esku gelditzen delako interpretazio bat edo bestea ematea. Interpretazio-ugaritasun horren erakusle argiak lirareke, esaterako, “Itzulpena I”, “Itzulpena II” eta “Itzulpena III” poemak, sorburu-testu baten hiru aldaera desberdin balira bezala aurkeztuak, edota hainbat euskal autoreren poema-lerroetan oinarrituz egindako bariazioak, jatorrizkoaren zentzu ireki horri beste interpretazio bat ematera datozenak.

Itzulpenaren epistemologia postmodernoaren atalean aztertu dugun bosgarren puntua testu baten **elementu semantiko eta formalen arteko bereizketa ezari** zegokion. Sarrionandiak behin baino gehiagotan gogorarazi digu ezinezkoa dela testu baten “edukia” eta “forma” bereiztea, eta itzultzaileak, beraz, ezin duela bietariko bakar baten aldeko hautua egin. Itzulpenaren epistemologia modernoan adieraziarekin lotzen ziren testu baten elementu semantikoak, eta adierazlearekin, berriz, elementu formalak. Sarrionandiak, ordea, argi erakutsi du “adieraziaren eta adierazlearen arteko desorekekin” hasten dela hizkuntzaren literaturtasuna, “ustekabearren, okerraren eta beste hizkuntzatarata itzuli ezinaren ertzean” (Sarrionandia 2010b: 535). Izan ere, elementu semantikoak eta formalak bereizterik balego, posible litzateke itzulpen perfektuak egitea, jatorrizkoaren edukia (zentzu edo funts finko eta aldaezina) elementu formaletatik biluztu eta beste hizkuntza batera pasatzea. Itzulpenaren epistemologia postmodernoan, ordea, argi geratu da edukia (adierazia) aldatu egiten dela formaren (adierazlearen) arabera eta beste hainbat faktoreren arabera, eta horretan datzala, hain zuzen ere, poesiaren eta itzulpenaren sormen-indarra: “ez legoke poesiariak hitzak esan nahi dutenarekin ados baletoz” (Sarrionandia 2010b: 540-541). Idazlearen eta itzultzailearen egitekoa, beraz, adierazlearen eta adieraziaren arteko harremanak hautsi eta lotura berriak proposatzea da, hitzek ez dezaten beti botereak emandako esanahia izan eta isildurik egon direnen errealitateak adierazteko ere balio izan dezaten.

Hitzen eta esanahien arteko harreman berriak sortzeko zeregin horretan, itzultzaileak bere arrastoa utziko du berridazten edo manipulatzeko duen testuan. Itzulpenaren epistemologia modernoan itzultzailearen esku-hartzea gutxiesten bazen, itzulpenaren teoria postmodernoek alderantzizkoa bultzatuko dute: **itzulpen ausartak eta itzultzaile ahaldunak** lehenetsiko dituzte, itzultzailearen erabaki-ahalmena eta boterea agerian jartzen dituztenak. Sarrionandiak ere itzulpen-estrategia esku-hartzaile eta ausarten alde egiten du, esate baterako, “benetako” itzulpenen artean sasi-itzulpenak tartekatzean, edota diskurtso gisa idatzitako testu bat poema gisa aurkeztean, edota euskarara iritsi arte hamaika zubi-hizkuntzatatik igaro den testu bat jatorrizko testuaren aldamenean jartzean, edota beste autore batek idatzitako poema bat hartu eta bere inguruko testuingurura egokituz testu berri bat sortzean. Itzulpenean ikusezina izatea ezinezkoa denez, ez du lotsarik izango itzultzen ari den testuan bere arrastoa uzteko. Are gehiago, arrasto hori uztea saihestezina ez ezik, garrantzitsua ere bada; izan ere, itzultzaileen esku dago xede-hizkuntzako irakurleen munduko literaturari buruzko ikuspegia.

Laburbilduz, beraz, baiezkoaz erantzun diezaiokegu atal honen izenburutzat proposatu dugun galderari, eta Sarrionandia itzultzaile postmodernoa dela argi eta garbi adierazi. Dena den, gaizki-ulerturik egon ez dadin, berriro gogoraraziko dugu lan honetan proposatu ditugun postmodernismoaren eta itzulpenaren definizioen arabera egiten dugula baieztapen hori, eta ez printzipio modernoan azpian ezkututzen den sasi-postmodernismoan oinarrituta. Era berean, argi utzi nahi dugu ez dugula inoiz ukatu Sarrionandiaren lanetako ezaugarri literario asko modernitateko estetika literarioekin bat datozenik. Horrek, ordea, ez du lan honetan defendatu dugun ideia nagusia ahultzen: Sarrionandiaren lanetan itzulpen-jarduna nola gauzatu den aztertzea izan dugu helburu, eta, haren lanak aztertuz, itzultzaile bizkaitarrak itzulpenaren inguruan harilkatu duen gogoetak itzulpenaren epistemologia postmoderno bati erantzuten diola frogatu dugula uste dugu. Zentzu horretan, Sarrionandiak defendatzen dituen hainbat ideia (itzulpenaren izaera birsortzailea, testuen irekitasun eta mugikortasuna, itzultzailearen rol aktiboa eta literaturaren sare-egitura) guztiz berritzaileak gertatu dira euskal itzulpenaren historian, Sarrionandiaren aurreko itzultzaile gehienek itzulpenaren epistemologia modernoan oinarritutako diskurtsoa garatu baitute, bigarren kapituluaren erakutsi nahi izan dugun bezala.

ONDORIOAK
DENA DA FUNTSEAN TRANSLAZIOA



Iritsi gara, azkenik, lanaren amaierako ondorioetara, eta, beraz, hasieran planteatutako hipotesiak bete ote diren egiaztatzea dagokigu orain. Aurreratu dugun lehen hipotesian, Joseba Sarrionandia itzulzaile postmoderno gisa definitu dugu; orain, idazle bizkaitarraren pentsamendua aztertuta eta literatura-
ren eta itzulpenaren inguruan plazaratu dituen ideiak arakatuta, hipotesi hori baieztatzeko moduan gaudela iruditzen zaigu. Izan ere, Sarrionandiaren pentsamenduan zenbat eta gehiago barneratu, orduan eta argiago ikusi dugu itzulpena eta sorkuntza txanpon beraren bi aldeak direla iurretarrantzat, eta tradizio desberdinen arteko hartu-emanen osatzen den “literaturaren literatura”, azken batean, idazle aitzindarien testuak itzuliz edota berridatiz baizik ezin dela garatu. Itzulpenaren epistemologia modernoan jatorrizko testu ukiezinaren kopia txartzat jo izan den itzulpenak guztiz bestelako zentzua hartzen du Sarrionandiaren lanetan, eta jatorrizkoan azaleratu gabe zeuden aukerak garatzea ahalbidetzen duen birsorkuntza gisa ageri zaigu. Dena den, aitortu behar dugu Sarrionandiak testuak itzultzean hartzen duen birsortze-askatasuna ez dela guk hasieran uste genuen bezain zabala, edota haren gogoetetan islatzen den itzulpenaren epistemologia postmoderno aintzat hartuta esperoko genukeen bezain nabarmena. Sarrionandiaren itzulpen batzuk beren jatorrizko testuekin erkatzean aurkitu ditugun zenbait desberdintasun, hasiera batean Sarrionandiaren itzulpen-praktika ausart eta esku-hartzaileari egotzi dizkiogunak, zubi-testu gisa erabilitako itzulpenari zor zaizkiola ohartu gara testuek Sarrionandiaren eskuetara iritsi aurretik egindako ibilbidea arakatu ahala, eta konturatu gara, funtsean, Sarrionandiak nahiko hurbiletik jarraitu ohi diola itzultzean begi aurrean izan duen bertsoari. Hala eta guztiz ere, zubi-testuari gertutik jarraituz itzultzeko joerak ez dio, gure ustez, itzulpenaren epistemologia moderno bati erantzuten; alegia, ez dugu uste jatorrizkoa ahalik eta gutxien eraldatzea eta testu originala bere horretan ematea izan denik inoiz Sarrionandiaren itzulpen-irizpide nagusia, hala balitz zubi-testuak saihesten eta

jatorrizko iturrietara jotzen ahaleginduko baitzatekeen, eta baita jatorrizkoaren izenburua, lerroen banaketa eta beste hainbat ezaugarri errespetatzen ere. Itzulpen batzuk egiteko zubi-testuetatik abiatu izanak argi erakusten du Sarrionandiak ez diola testu “originalari” testu horren bertsio edo itzulpen desberdinei baino balio handiagorik ematen, hain zuzen ere “original” deitutako testua ere, hein batean, beste testu batzuetan oinarritutako berridazketa, birsorkuntza edota “itzulpena” izaten baita ezinbestean, eta, ondorioz, ez baitago askotan jatorria zein izan den zehazterik ere. Sarrionandiak nahiago du literatura itzulpenen itzulpenen itzulpenez osatzen den sare erraldoi bezala ulertu, jatorririk eta helmugarik ez duen eta etengabe eraldatzen ari den harreman-joko bezala, non testu batek aurreko beste testu batzuei erantzuten dien eta aldi berean erantzun berriei irekita gelditzen den.

Lanaren sarreran aurreratu dugun bigarren hipotesiari dagokionez, ez dugu uste oker ibili garenik Sarrionandia itzulpena modu postmoderno batean landu duen lehen euskal itzultzailetzat jo dugunean. Bigarren kapituluari ikusi ahal izan dugunez, euskal literaturaren historian itzulpenak pisu kuantitatibo handia izan badu ere, ez da inoiz itzulpenaren inguruko gogoeta sakinik egin, eta euskal itzultzaileen teorizazio-ahalegin urrietan itzulpenaren ulerkera modernoa edo are aurremodernoa islatzen da oro har. Itzulpenaren epistemologia modernoan jatorrizko testuaren izaera sakratuari eman izan zaion garrantziaren adibide garbiak genituzke, esaterako, Leizarragak, Axularrek eta Haranederrek Biblia eta testu sakratuak euskaratzeko egindako ahaleginak. Nor bere erara, hirurak ahalegindu ziren Jainkoaren hitz sakratua bere horretan itzultzen, “bethi orhoitic nola laincoaren manu expressa den haren hitzari deus edequi eztaquion ez eratchequi” (Leizarraga 1571: xv). Itzulpena, Bibliaren kasuan, Jainkoaren hitz aldaezin eta transzendentala ahalik eta fideliak transmititzean datza, itzultzaileak testuan inolako marka edo arrastorik utzi gabe. Jatorrizko perfektuaren lehen mailako estatusaren ondoan, itzulpena bigarren mailako jarduera gisa ulertzen da, jatorrizkoa erreproduzitzeko ahalegin inperfektu gisa. Euskal itzultzaileek testu ez sakratuak itzultzean askatasun handixeagoz jokatu izan badute ere, esan liteke jatorrizkoari zor zaion fideltasuna hartu izan dutela oro har itzulpenerako irizpide nagusitzat, teoriarik behintzat. Mogelek, Duvoisinek, Ibinagabeitiak, Zaitegik, Ametzagak eta Onaindiak, besteak beste, jatorrizko testuari hurbiletik jarraitzen ahalegintzen direla adierazten dute beren hitzaurreetan, nahiz eta gero, praktikan, zenbait askatasun hartu euskararen egituraren berezitasunak direla-eta edota lehentsetako helburuaren arabera (didaktikoa, erlijiosoa, apologetikoa, morala...). Kontraesan horren ondoan, itzulpenaren epistemologia modernoaren beste hainbat kontraesan ere agerian geratzen dira euskal itzultzaileen itzulpenetan:

formaren eta edukiaren edota hitzaren eta zentzuaren arteko bereizketa dualista, esate baterako, behin eta berriz aipatzen da, batzuek lehena eta besteek bigarrena hobesten dutelarik, baina itzulpenean egindako hautuak ez datoz beti bat alde aurretik hartutako erabakiekin. Izan ere, itzulpenaren teoria postmodernok erakutsiko duten bezala, testu baten zentzua ez dago elementu formaletatik bereizterik, zentzua ez baita testua sortu aurretik existitzen zen zer objektibo bat, hitzak eta bestelako elementu estilistiko eta formalak elkarrekin harremanetan jartzean sortzen den zerbait baizik.

Aipatu euskal itzultzaile horien hausnarketen alboan, beraz, Joseba Sarrionandiaren proposamenak guztiz berritzaileak gertatuko dira. Jon Mirandek eta Gabriel Arestik euskal itzulpengintzari egindako ekarpenak eta haien sorkuntzazko lanek eta itzulpenek Sarrionandiarengan izan zuten eragina ahaztu gabe, esan genezake Sarrionandia izan zela itzulpenaren alorrean ikuspegi postmoderno bat eskaini eta ikuspegi hori praktikara modu koherentean eraman zuen lehen itzultzailea. Sarrionandiaren itzulpengintza berritzailea gertatu zen, lehenik eta behin, itzulgaien hautaketari dagokionez. Bibliaren eta testu erlijiosoen itzulpenak alde batera utzita, Sarrionandiaren aurreko itzultzaileek euskaratutako testu literario gehienak helburu funtzional batekin hautatzen ziren: umeentzako testu didaktikoak sortzea, moralari buruzko gomendioak ematea, euskararen eta euskaldunen apologia egitea, euskararen noranahikotasuna erakustea, hizkera literarioa lantzea eta abar. Helburu horiek lortzeko, inguruko literatura-sistema handien erdigunean zeuden testuak hautatu ohi zituzten, hots, aspalditik prestigioa eta errekonozimendua lortuta zituzten testuak, halakoak euskarara ekartzeak euskarari merezi zuen aitortpena ekarriko ziolakoan. Hala itzuli ziren XX. mendearen lehen erdian hainbeste autore grekolatindar, edota literatura modernoagoetako lan klasikoak (Cervantes, Shakespeare, Dickens, Goethe, Dante, Saint-Exupéry...). Sarrionandiak eta Pott bandak, berriz, helburu funtzional horiek lehenesteak euskal literatura itotzen zuela ikusita, literaturaren autonomia aldarrikatu eta bestelako testuak irakurri eta itzultzeari ekin zioten. Mirandek eta Arestik urratutako biderei jarraituz, Sarrionandia ere literatura handi eta txikietako autore ez hain ezagunen testuak euskaratzen hasi zen, euskal literatura nolabait biziberritu nahian eta euskal irakurleei irakurgai berri eta ezezagunak eskaini nahian.

Sarrionandiaren itzulpengintzaren berritasuna, baina, ez da testuen hautaketara mugatzen; itzulpena eta literatura ulertzeko duen moduak ere hankaz gora jartzen ditu euskararen eta Euskal Herriaren aldeko defentsarekin tematuta zeuden idazle eta itzultzaileen ideiak. Haientzat, literaturaren funtzioa egia eta edertasuna bilatzea zen, errealitatearen txokorik ezkutukoena aurkitu

eta haiek paperean islatzea, nahiz eta, egiteko horretan, idazlearen gaitasun inperfektuen ondorioz errealitatearen perfektutasuna desitxuratuta gertatu. Beste hainbeste pentsatzen zuten itzulpenari buruz ere: itzultzailearen zeregina, haien arabera, jatorrizko testuan gordetzen zen funts edo mamia bere azaletik askatu eta beste hizkuntza batera itzultzea zen; itzulpenean, ordea, jatorrizkoak beti galtzen zuen zerbait, jadanik errealitatearen erreproduktzio desitxuratua zen testu originala beste hizkuntza batera itzultzean perfektutasunetik gero eta gehiago urruntzen zela pentsatzen baitzen. Pentsaera hori itzulpenaren epistemologia modernoan txertatzen da bete-betean. Sarrionandiaren ideiak, aldiz, guztiz kontrajartzen zaizkio literatura eta itzulpengintza ulertzeko modu tradizional horri, eta askoz hobeto uztartzen dira itzulpenaren epistemologia postmodernoarenekin. Sarrionandiak itzulpen-teoria zehatzik edota epistemologia jakinik aipatzen ez badu ere, haren hausnarketak eta itzulpen-estrategiak bat datoz itzulpengintzaren diskurtso postmodernoarenean barruan aztertu ditugun teoria askorekin.

Lehenik eta behin, herri baten kultura eta literatura definitzean, Sarrionandiaren ideiak bat datoz ikasketa kulturaletako adituek esandakoekin: kultura ez da, tradizionalki definitu izan den bezala, inguru homogeen bateko gizakien jokabide multzo mugatua, etengabeko aldaketan dagoen prozesu ireki eta aldakor bat baizik. Prozesu horretan, tradizio eta jatorri desberdinen arteko negoziazioei esker, harreman-sare hori etengabe birmoldatzen eta birdefinitzen da. Horrela ulertu behar dira Sarrionandiak euskal kulturari buruz esandakoak (“tradizio unibertsalaren oinordeko gara”, Sarrionandia 2006a: 134) eta euskarara itzultitako testuen jatorri askotarikoak. Orixek eta Onaindiak, esaterako, obra “on” eta “garbiak” soilik euskaratu behar zirela defendatzen zuten, euskal literatura zikindu edo kutsatuko ez zutenak: “garbi-aratz diranak, geure gustu ta joerakin ondoen datozanak” (Onaindia 1960: 5). Sarrionandiak, berriz, ikasketa kulturek defendatutakoaren ildotik, gogoraziko du edozein kultura dagoela berez “kutsatuta”, eta kultura guztiak direla, hein batean edo bestean, hibridoak. Beraz, autore grekolatindarrak, Europako literatura modernoetako idazleak, literatura minorizatuetakoko testuak edota herri “primitiboetako” poema anonimoak euskarara ekartzean, Sarrionandia euskal kultura eta literatura birdefinitzen ari da, beste tradizio horiek gurean ere lekua badutela gogorarazten.

Beste tradizioetako testuak euskarara itzultzean, izan ere, itzultzaileak bere egingo du itzultitako testua, eta xede-kulturaren, garaiko zirkunstantzien, egoera pertsonalaren eta beste hainbat faktoreren arabera “manipulatuko” du, manipulazioaren eskola deituriko korrontearen defendatzaileek

azaldu bezala. Sarrionandia ere, jatorrizko testuak beren testuinguruetatik atera eta nahierara zatitzean, jatorrizkoaren lerro-banaketa aldatu eta originalari hasiera batean ez zeukan izenburua eranstea, testuak manipulatu eta birmoldatzen ari da, jatorrizkoak berridazten, haietan oinarritutako testu berriak sortzen.

Manipulazio hori, ordea, teoria postkolonialek erakutsi duten bezala, kontrol- eta dominazio-helburuetarako erabili izan da historiako pasarte askotan. Herri kolonizatzaileek itzulpenaren bidez inposatu dizkiete maiz beren balio eta mundu-ikuskerak kolonizatutako herriei. Euskal Herrian ere, Sarrionandiak salatu bezala, herri menperatzaileek itzulpena erabili zuten herri xehe eskolagabeari boterearen ideologia teologiko-politikoaren inposatzeko, boteredunek edota boterearen nolabaiteko baimena zutenek bakarrik baitzuten euskaraz idazteko eta itzultzeko ahalmena. Testuinguru postkolonialetan, ordea, itzulpenaren manipulazio-ahalmena erresistentzia gisa erabiltzen hasiak dira mendez mendez isiltasunera kondentatuta egondako ahotsak, menperatzaile izan dituzten herrietako kulturak eta literaturak “irentsiz” (Brasilgo antropofagia mugimenduko terminologia erabilita) beren kultura eta literatura propioak sortzeko. Sarrionandiak ere herri zapalduen eta ahots isilarazien mesedetan erabiltzen du itzulpena. Tradizio desberdinetako obrak euskaratzean, adibidez, mendeetan zehar nekez mintzatu den herri euskaldunari ahots berria jartzen dio, eta, euskaldunak bezala zapalduta egon diren beste herri isilduen literaturak euskaratzean, enuntziatio-leku berri bat eskaintzen die orain gutxi arte halakorik izan ez dutenei.

Dekonstrukzioaren defendatzaileek garatutako hainbat ideia ere ondo uzartzeko dira Sarrionandiaren itzultzeko moduarekin. Ikusi dugunez, dekonstrukzioak zalantza jartzen du autorearen nagusitasun edo autoritatea (Roland Barthesen “La mort de l’auteur” artikulua gogoangarriaren ildotik), eta gogorarazten du irakurleak edo itzultzaileak osatzen duela edozein autorek bere testuari eman nahi zion zentzua. Walter Benjaminen *Überleben* edo bizi-raupenaren kontzeptuari helduz, dekonstrukzionistek defendatutako dute jatorrizkoak itzulpenari esker irauten duela bizirik, hari esker gauzatzen eta berri-tzen baita jatorrizkoaren zentzua. Sarrionandiak autore eta itzultzaile kontzeptuak nahasteko egindako jolasak ere autorearen izaera sakratu hori zalantza jartzeko ahalegin gisa ulertu behar dira. Testu apokrifikoak berak itzulitako testuen ondoan jartzean, esaterako, bere egiletza ukatzen ari da, eta gogorarazten du testu baten osaketan autore batek baino gehiagok hartu ohi duela parte. Berak itzulitako testu batzuen itzultzailetzat fikziozko pertsonaiak jartzen dituen ere antzeko ideiak iradokitzen ditu, hots, autore bakoitzak

beste autoreek idatzitako, itzulitako edota manipulaturako testuak irakurriz eta haietan oinarrituz idazten dituela bere testuak.

Ildo beretik, teoria hermeneutikoek testu bakoitza originala eta aldi berean itzulpena dela gogoraraziko dute. Izan ere, itzulpena eguneroko komunikazioaren ezinbesteko jarduera da: hitz egiteko ekintza bera pentsamenduak eta mundu ez-berbaleko ideiak hitzetara ekartzean edota itzultzean datza. Hitz egitea edota testu bat idaztea, beraz, ideia bat itzultzea da. Horregatik esango du Sarrionandiak ere “izkiriartzea translazioa dela”, eta, “analogiaz betiere, dena d[el]a funtsean translazioa” (Sarrionandia 1995a: 9). Testu guztiek, izan itzulpenak nahiz “originalak”, beste autore, testu, hizkuntza eta tradizioen oihartzun edo arrastoak gordetzen dituzte, eta, ondorioz, ez dira inoiz guztiz originalak. Sarrionandiak bere aitzindari izandako autoreei erantzunez idatzitako poemak edota miresten dituen idazleen testuetan oinarrituz egindako bariazioak, esate baterako, edozein testuk gordetzen dituen arrasto horiek azpimarratzeko estrategia gisa uler litezke.

